

URTEKO TXOSTENA

2016



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa

URTEKO TXOSTENA

2016



Izenburua: 2016ko urteko txostena

Argitaratzailea: Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren erakundea

© 2017ko, Apirila

Diseinua eta maquetazioa: Carlos Fernández Prego

ERANSKINA



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Auzitekoa

ERANSKINA

1. Kapitulu	→ SARRERA	15
--------------------	------------------	----

2. Kapitulu	→ KEXAK	39
2.1.	Datu orokorrak	41
2.2.	Kexak hartu dituzten administrazio publikoak	43
2.3.	Onartutako kexak	50
2.4.	Espainiako arartekoari edo beste autonomia-erkidegoetako herritarren eskubideen defentsarako goi-komisario parlamentarioei bidalitako kexak	53
2.5.	Ikertutako kexak. Ikerketen emaitza	53
2.6.	Kexen ondorioz emandako ebazpenak	56
2.7.	Administrazio publikoek ebazpenak noraino onartu dituzten	59
2.8.	Kexen xede	68
2.9.	Aurkeztu diren kexen zerrenda eta banaketa, gaien arabera	69
2.9.1.	Enplegu publikoko lanpostuetara heltzea	72
2.9.2.	Nekazaritza	80
2.9.3.	Gizarte-ongizatea	81
2.9.4.	Administrazio publikoetako ondasunak	91
2.9.5.	Merkataritza eta kontsumoa	92
2.9.6.	Kultura	93
2.9.7.	Kirola	94
2.9.8.	Zuzenbide zibila	96
2.9.9.	Hezkuntza	96
2.9.10.	Hauteskundeak	104
2.9.11.	Euskara	105
2.9.12.	Atzerriartasuna	106
2.9.13.	Funtzio publikoa	108
2.9.14.	Toki-entitateen funtzionamendua	119
2.9.15.	Ogasun publikoa	120
2.9.16.	Justizia	126
2.9.17.	Ingurumena	130
2.9.18.	Herri lanak	136
2.9.19.	Datu pertsonalen babesa	137
2.9.20.	Administrazio Publikoen Ondare-erantzukizuna	138
2.9.21.	Osasuna	139
2.9.22.	Herritarren segurtasuna	145
2.9.23.	Gizarte-segurtasuna	148
2.9.24.	Zerbitzu publikoak	151
2.9.25.	Lana	153
2.9.26.	Trafikoa eta bide-segurtasuna	156
2.9.27.	Gardentasuna. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea Herritarren parte-hartzea	160

2.9.28. Turismoa	162
2.9.29. Hirigintza	162
2.9.30. Etxebizitza	168

3. Kapitularia → OFIZIOZKO JARDUKETAK

3.1 Datu orokorrak	173
3.2 Ofiziozko jarduketa garrantzitsuenak	185
3.2.1. Desgaituen ibilgailuei zirkulazio-zerga salbustea	185
3.2.2. Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzeko foru-legearen aurreproiektua	189
3.2.3. Gaixotasun arraroak dituzten pertsonentzako arreta	192
3.2.4. Dereduan egindako ikasketa ofizialen aitortpena, administrazio publikoetako enplegu publikora sartzeko	201
3.2.5. Zerbitzu Sozialen Foru Legea aldatzea, arau-hauste orokor batean	205
3.2.6. Huarteko adingabeen babes-pisura egindako bisita	208
3.2.7. Bizikleten zirkulazioa Iruñeko espaloietan	212
3.2.8. Foru Berriaren 69. legea, gurasoek seme-alabatasuna aitortzeari buruzkoa	219
3.2.9. Foru Berriaren 257. legea, inbentario faltaren ondorioz fideltasun-gozamena galtzeari buruzkoa	225
3.2.10. Ikastetxeetan zuzendariak izendatzeko prozedura	234
3.2.11. Errentamendu-araubidean babestutako etxebizitzaren babes-araubidearen amaiera	240
3.2.12. Desgaitasun intelektuala dutenentzako zentro batera egindako bisita	254
3.2.13. ETB telebista-katearen seinalea bertan behera geratu izana Iruñerrian, Erdialdean eta Erriberan	257
3.2.14. Buru-nahaste larria duten pertsonentzako egoitza-etxe batera egindako bisita	259
3.2.15. Nafarroako Trafiko-buruzagitzan aztertzaile gutxi egotea	261
3.2.16. Noaingo gudua gertatu zen lekuaren babesa	263
3.2.17. Nafarroako Erriberan, airearen kalitatea hobetzeko planik ez izatea	268
3.2.18. Nafarroako banku publikoa sortzeko prozesuan parte hartzea	272
3.2.19. Harrapatzeak Ermitagafia auzoan (Iruñea)	275
3.2.20. Osasun publiko unibertsalaren bermea	277
3.2.21. Adingabe baten heriotza	280
3.2.22. Nafarroako Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuan gaueko ordutegian ekografia-probarik ez egitea	284
3.2.23. Kontu Irekiei buruzko Foru Legearen proposamena	286
3.2.24. Nafarroako errepede eta trenbide ardatz handien zarata-mapak onartzea	289
3.2.25. Mutiloabeitiko San Pedro eskola publikoa handitzea	291
3.2.26. Nafarroako Foruzaingoaren lanaldien eta ordainsarien aldaketarekin sortutako desadostasunak	294
3.2.27. Etxebizitzaren behealdeetan beilatokiak jartzea	298
3.2.28. Atxilotu baten heriotza polizia-egoitzan	303
3.2.29. Kolapso-egoera Iruñeko Nortasun Agiri Nazionalaren bulegoan	305
3.2.30. Iruñeko espetxea behar beste ez erabiltzea. Nafarroako presoak Iruñeko espetxera lekualdatzea, horrela eskatzen badute	306

3.2.31. Nafarroako Cáritasek bermatutako errenta eta larrialdiko laguntzak aurreratzea.	308
3.2.32. Bigarren aldiz ezkontzen diren senar-emazteen kasuan Foru Berriari buruzko 272 legeak testamentugileari xedatzeko gaitasunean ezartzen dizkion mugak.	312
3.2.33. Nafarroako kooperante baten atxiloteta Grezian.	315
3.2.34. Arartekoen adierazpena Siriako egoera humanitario negargarriari buruz.	317
3.3. Espainiako arartekoen koordinaziorako xxxi. Jardunaldiak etxebizitza zaraten bidez inbaditzea.	318
3.4. Nafarroako haurren eta nerabeen egoerari buruzko informazioa.	323
3.4.1. Egindako jarduketan azalpena eta ebaluazioa.	324
3.4.2. Azken urteotako bilakaeraren informazio koadroa.	343
3.4.3. Iradokizunak.	350

4. kapitulua



ZERBITZU PUBLIKOAK HOBETZEKO HERRITARREK EGINDAKO PROPOSAMENAK.	355
4.1 Datu orokorrak.	357
4.2 Proposamenen edukia.	362
4.2.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoaren alorreko funtzionarioen aldi baterako edo behin betiko barne-igoeren prozeduretan desgaitasun-egoeraren balorazioari buruzko proposamena.	362
4.2.2. Guraso bakarreko familiei laguntzeko araugintzako neurriak hartzeko proposamena.	364
4.2.3. Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen aldi baterako kontratazioan, prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa duten eta hala egiaztatzen duten izangaiei lehentasuna emateko proposamena.	366
4.2.4. Kredituak kobratzean Ogasun publikoaren lehentasuna aldatzeko proposamena.	369
4.2.5. Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legearen konpentsazio-sistemari lotutako hainbat alderdi berrikusteko proposamena.	370
4.2.6. Montepioen sistema zaharretik egungo sistemara pasatzeko proposamena, indarrean dagoen legeak arautzen duenera: 10/2003 Foru Legea, martxoaren 5ekoa, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren araubide iragankorriari buruzkoa.	378
4.2.7. Errepedeetako zaintzaileak foruzainen eta basozainen maila (C maila) berekoak izateko proposamena.	381
4.2.8. Nafarroako Parlamentuaren 2016ko maiatzaren 19ko ebazpena aldatzeko proposamena. Proposamen horretan Foru Ganberak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea direla-eta jarduteko osasun-arloko protokolo bat aktibatzeko.	384
4.2.9. Ebakuntza kirurgiko bat egiteko itzarote-zerrendan dauden pazienteei jakinarazpena beste modu batera egiteko proposamena.	387

4.2.10. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko suhiltzaile izateko oposizioen gai-zerrendan bibliografia sartzeko proposamena.	389
4.2.11. "Igoerako oposizio-probetara" aurkezteko eremu bakarreko proposamena.	390
4.2.12. Neurri judizialak betetzeko Arangureneko adingabeen zentroko hezkuntza-taldetan elkarbizitzako neurri judizialei aplikatzeko araudia berrikusteko proposamena.	391
4.2.13. Eskelak erregistro zibilaren web-orrian argitaratzeko proposamena.	394

5. Kapitula →	GOMENDIOAK, IRADOKIZUNAK ETA LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPENAK	395
5.1 Sarrera		397
5.2. Izaera orokorreko lege-betebeharrei buruzko gomendioak, iradokizunak eta gogorazpenak		398
5.2.1. Enplegu publikoko lanpostuak eskuratzea		398
5.2.2. Nekazaritza		408
5.2.3. Gizarte-ongizatea		409
5.2.4. Kultura		426
5.2.5. Kirola		428
5.2.6. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea Herriarren parte-hartzea. Gardentasuna		430
5.2.7. Nafarroako Foru Zuzenbide Zibila		432
5.2.8. Hezkuntza		434
5.2.9. Euskara		441
5.2.10. Funtzio publikoa		445
5.2.11. Ogasun publikoa		461
5.2.12. Justizia		468
5.2.13. Ingurumena		470
5.2.14. Datuen babesa		478
5.2.15. Administrazio publikoen ondare-erantzukizuna		479
5.2.16. Osasuna		479
5.2.17. Herriarren segurtasuna		495
5.2.18. Zerbitzu publikoak		498
5.2.19. Lana		500
5.2.20. Trafikoa eta bide-segurtasuna		503
5.2.21. Hirigintza		506
5.2.22. Etxebizitza		514
5.3. Kasu partikularretarako gomendioak, iradokizunak eta legeko betebeharren gogorazpenak		520
5.3.1. Enplegu publikoko lanpostu batera heltzea		520
5.3.2. Nekazaritza		524
5.3.3. Gizarte-ongizatea		525
5.3.4. Administrazio publikoen ondasunak		532
5.3.5. Merkataritza eta kontsumoa		533
5.3.6. Kultura		533
5.3.7. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea. Herriarren parte-hartzea. Gardentasuna.		535
5.3.8. Hezkuntza		537
5.3.9. Funtzio publikoa		546

5.3.10. Ogasun publikoa.....	552
5.3.11. Justizia	556
5.3.12. Ingurumena.....	556
5.3.13. Herri-lanak	561
5.3.14. Datu pertsonalak babestea.....	564
5.3.15. Administrazio publikoen ondare-erantzukizuna	565
5.3.16. Osasuna	567
5.3.17. Herritarren segurtasuna.....	573
5.3.18. Zerbitzu publikoak.....	574
5.3.19. Lana.....	577
5.3.20. Trafikoa eta bide-segurtasuna	577
5.3.21. Turismoa	581
5.3.22. Hirigintza.....	581
5.3.23. Etxebizitza	587
5.4. Administrazio publikoek noraino onartu ditzuen ebazpenak.....	591
6. Kapitula → PARLAMENTUAN EGINDAKO TXOSTENAN ETA AGERRALDIAK	595
6.1. Erakundeak bere ekimenez egin dituen txosten bereziak.....	597
6.2. Nafarroako parlamentuak eskatuta egindako txostenak eta agerraldiak.....	599
6.3. Toki-erakundeek eskatutako txostenak.....	599
7. Kapitula → NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN NAFARROAKO ARARTEOARI EMANDAKO LAGUNTZA	601
7.1. Nafarroako administrazio publikoek arartekoari laguntzeko duten betebeharra.....	603
7.2. Laguntzeko betebeharra betetzea. Nafarroako arartekoari laguntzarik eman ez dioten administrazioen aipamena.....	605
8. Kapitula → ERAKUNDEAREN ETA HERRITARREN ARTEKO HARREMAN ZUZENA	611
8.1 Herritarrentzako arreta bulegoa. Nafarroako arartekoari eginiko kontsultak...613	
8.1.1 Datu orokorrak.....	613
8.1.2 Kontsultakopurua arloen arabera.....	614
8.1.3 Kontsulten banaketa.....	615
8.2 Gizarte zibilarekiko harremana.....	630
Eranskina → Arartekoaren 2016ko aurrekontuaren likidazioa	633

SARRERA



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Auzitekoa



Francisco Javier Enériz Olaechea

Nafarroako Arartekoak

SARRERA

1 . Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 18 ter artikulua (NKBHLO) Nafarroako Arartekoa Nafarroako Parlamentuaren mende dagoen organotzat definitzen du. Hala, Nafarroako Arartekoari dagokio Konstituzioak eta aipatutako lege organikoak herritarrei aitortzen dizkien eskubideak eta askatasunak defendatu eta babesteko zeregina eta, horretarako, Nafarroako administrazio publikoen jarduera azter dezake eta Parlamentuari jarduera horien berri eman behar die.

Ildo horretan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoa aldatu zuen urriaren 27ko 7/2010 Lege Organikoaren hitzaurrean ezartzen da Nafarroako Arartekoa Nafarroako Foru Komunitateko erakundea dela.

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren eskumenak, araubide juridikoa eta jardunbidea zehazten ditu, Foruaren Hobekuntzako 18 ter artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoa garatuz hartara.

Bi lege horiekin bat etorriz, baita Nafarroako Arartekoa aintzat hartzen duten beste foru lege batzuekin ere (haurren eta nerabeen babeserako foru legeak, administrazio elektronikoarenak, edo gobernu irekiaren gardentasunarenak), erakunde horrek honako zereginak burutzen ditu:

- a) Konstituzioak herritarrei aitortzen dizkien eskubideak defendatzea eta eskubide horien babesa hobetzea.
- b) Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak herritarrei aitortzen dizkien eskubideak defendatzea eta eskubide horien babesa hobetzea.
- c) Nafarroako Foru Komunitateko eta Espainiako estatuko legeetan, Europar Batasuneko arauetan eta nazioarteko hitzarmenetan aitortzen diren eskubideak defendatzea eta horien babesa hobetzea.
- d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, toki entitateek nahiz Nafarroako Foru Komunitateko edozein erakunde publikok herritarrei emandako zerbitzu publikoak hobetzea.
- e) Herritarren bidezko interesen eta Nafarroako administrazio publikoek zaindu beharreko interes orokorraren arteko bitartekotza eta kontziliazioa egitea.
- f) Herritarrei informazioa eta laguntza ematea, hobeki balia ditzaten beren interesak administrazio publikoen aurrean.
- g) Informazioa eta laguntza ematea Nafarroako Parlamentuari, foru parlamentariei eta Nafarroako gainontzeko entitate publikoei, bai haiek hala eskatuta bai bere ekimenez, herritarren eskubideekin lotutako bere eskumeneko gaitan.
- h) Espainiako Herriaren Defentsa Bulegoarekin lankidetzan aritzea herritarren konstituzioko eskubideak defendatzen eta hobetzen, eskubide horiek estatuko administrazio edo

botere publikoen jardueren ondotik kaltetu edo ahuldu daitezkeenean.

Zeregin horiek jarduteko, Nafarroako Arartekoak, bere irizpidean oinarrituta, aproposak iruditzen zaizkion gomendioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak egin ditzake.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko Foru Legeko 36.1. artikulua ezartzen du Arartekoak urtero eman behar diola egindako kudeaketei buruzko txostena Nafarroako Parlamentuari eta txosten hori ohiko bilkura-aldian aurkeztu beharko diola erakunde horri.

2016. urteari dagokion txostenaren aurkezpenaren bidez, Nafarroako Arartekoak Konstituzioak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak eta aplikatu daitezkeen gainerako xedapenak babesten dituzten eskubideak eta askatasunak babesteko eta haien babes-maila hobetzeko egindako jarduera nagusien berri ematen dio Nafarroako Parlamentuari.

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 37. artikulua zehazten du urteroko txosten hori: kexa kopurua eta kexa motak; ez onartutako kexa kopurua eta kexa motak eta haien kausak; ikertu diren gaiak eta ikerketa horien emaitzak; erakundeak emandako oharpenak, iradokizunak, gogorazpenak edo gomendioak (Administrazioak zein onartu dituen adierazita); eta erakundearen aurrekontuaren likidazioa jasoko duen eranskina.

Agindu hori betetzeko, urteko txosten honek Nafarroako Arartekoak 2016an zehar garaturiko jarduerari buruzko datuak jaso ditugu.

3. 2016ko txostenaren edukia bederatzi kapitulutan dago banatuta.

I. kapituluak –kapitulu honek– sarrera-izaera dauka, eta txostenaren edukiari eta egiturari buruzkoa da.

II. kapituluan aurkeztutako kexen kopuruari eta motei buruzko datuak daude; horrela, herritarrek beren kexetan planteatzen dituzten sakoneko arazoak biltzen ditu. Kexak arloka sailkatzen dira, zer administrazio publikori zuzenduta dauden edo dagozkion adierazita. Kapituluak balorazio orokor bat jasotzen du emandako ebazpenei buruz eta kexa horien harira eginiko ikerketen emaitzari buruz, bai eta ebazpen horiek izan duten onarpen-mailari buruz ere.

III. kapituluak erakundeak eginiko ofiziozko jarduketak direlakoak islatzen ditu, eta adierazten du zein izan den haien izapidetzea eta emaitza. Kapitulu horretan, halaber, haurren eta nerabeen egoerari buruzko balorazioaren gaineko datuak eman ditugu, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 14. artikuluan ezarritakoa betez. Zehaztapen batzuk egin behar dira horri buruz, Eskubide Sozialetako Departamentuak bildutako datuetan eta Iruñean egin zen Arartekoen Koordinaziorako XXXI. Jardunaldietako edukietan eta ondorioetan oinarrituta.

IV. kapituluan, herritarrek zerbitzu publikoak hobetzeko adierazi dituzten proposamenak eta haien emaitzak jaso dira.

V. kapituluan, Nafarroako Arartekoak administrazio edo erakunde eskudunentzat, bere ikuskatze-jardueraren

emaitza gisa, egin dituen gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorazpenak jasotzen dira, laburbilduta. Herritarren kexen eta proposamenen harira eta ofiziozko jarduketan eta eginiko txostenen harira eman dira gomendio, iradokizun eta gogorazpen horiek. Halaber, jasotzen da gomendio, iradokizun eta gogorazpen horiek Nafarroako Administrazio Publikoek edo zuzendu zaizkien gainerako erakundeek noraino onartu dituzten edo ez dituzten onartu.

VI. kapituluak erakundeak bere ekimenez, Nafarroako Parlamentuaren eskariz eta tokiko entitateen eskariz egindako txostenak erlazionatzen ditu.

VII. kapituluan, kasu zehatz batzuk jaso dira, non jotzen baita administrazio publikoek ez dutela jardun erakunde honekiko lankidetzan. Aipamen horrekin betetzen da uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 31. artikuluan aurreikusitakoa.

VIII. kapituluak herritarren arretarako bulegoaren jarduera zehazten du; herritarrek zer gairi buruz eskatu duten informazioa eta zenbat kontsulta egin diren aipatzen da. Halaber, erakundearekin hartu-emanak izan dituzten kolektiboak aipatzen dira. Hartu-eman hori, batzuetan, pertsonala izan da eta beste batzuetan aurkeztutako kexen edo proposamenen bitartez egin da.

Azkenik, Nafarroako Foru Erkidegoko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 37.3. artikulua zehazten du txostenak eranskin bat izan behar duela, erakundearen aurrekontuaren likidazioa jasotzen duena.

4. 2016. urtean, hau izan da erakundearen jarduera: 1.965 jarduketa.

Kopuru horrek barne hartzen ditu:

- **Kudeatutako 989 kexak** (horietako **830 kexa** urte naturalean **aurkeztutakoak**).
- Erantzundako **910 kontsultak**.
- Kudeatutako 47 ofiziozko jarduketak (horietako **35 ofiziozko jarduketa** 2016an **egindakoak**).
- Zerbitzu publikoak hobetzeko kudeatutako 15 proposamenak (**horietako 13** 2016. urtean **aurkeztutakoak**).
- **2 txosten:** bata Nafarroako Parlamentuaren eskariz egina, eta, bestea, berezko ekimenez egina.
- **2 agerraldi** Nafarroako Parlamentuaren aurrean.

5. Arestiko datuek ikuspegi kuantitatibo batetik adierazten dute Nafarroako Arartekoaren jarduera. Ikuspegi kualitatibo batek, berriz, Nafarroako Arartekoak Nafarroako administrazio publikoen aurrean herritarren eskubideen defentsan edo zerbitzu publikoen hobekuntzan egindako egiazko ikuskatze-lana jartzen du erdigunean.

Ikuskatze-lan horrek administrazio publikoei buruzko 677 ikerketa ekarri ditu: 615 ikerketa, aurkeztutako kexei buruzkoak; 47 ikerketa, ofiziozko jarduketan ondoriozkoak; 13 ikerketa, herritarren proposamenen ondoriozkoak; eta, 2 ikerketa, egindako txostenen ondoriozkoak.

Ikuskatze-jarduera horren ondorioz **362 ebazpen** eman dira, eta honako hauek barne biltzen dituzte: **235** gomendio, **121** legezko betebeharren gogorarazpen, **84** iradokizun eta **47** arautzeko iradokizun, zeinak ikerketen edo jarduketan ondorio gisara helarazi dituen erakundeak 2016. urtean. Hau da, herritarren eskubideen defentsan, administrazioei eta erakundeei **487** erabaki jakinarazi zaizkie.

6. Nabarmentzekoa da, kexak, kontsultak eta herritarren hobekuntza proposamenak egiteko, guztira **11.617** pertsona erakundeari zuzendu zaizkiola edo erakundearen egoitzara etorri direla 2016. urtean.

Kexak aurkeztu eta gero, **10.089** pertsonak eskatu diote Nafarroako Arartekoari esku hartu dezan. Kontsultak egin eta gero, berriz, **1.515** pertsonak jo dute Arartekoarengana, bere eskubideei buruzko informazioa eskatzeko, eskubide horiek hobekien erabiltzeko informazioa eskatzeko eta administrazio-jardueraren legezotasunari buruzko informazioa eskatzeko.

7. 2016an jasotako **830** kexen edukiak agerian uzten ditu herritarrek administrazio publikoekin dituzten harremanei buruzko kezkak edo asegabetasunak.

2016an aurkeztutako kexa-kopuru hori 2015ean aurkeztutako kexa-kopurua baino txikiagoa da; izan ere, 2015ean 1.546 kexa aurkeztu ziren. Beraz, % 46,3ko jaitsiera izan da. Hala ere, kexen ondorioz ireki diren kexa-espedienteen kopurua kontuan hartuta (espediente batek zenbait kexa berdin edo elkarrekin lotutako zenbait kexa har ditzake), 2015ean 810 kexa-espediente ireki ziren, eta, 2016an, 830 kexa-espediente ireki dira. Beraz, % 2,5eko hazkundea izan du irekitako kexa-espedienteen kopuruak. Ikus daitekeen bezala, kexa gutxiago aurkeztu

izanak ez du erakundearen jarduera gutxitu; izan ere, jarduera iazkoaren antzekoa izan da.

Beheranzko hurrenkeran, handienetik txikienera, hauek izan dira 2016an kexa gehien jaso dituzten arloak: funtzio publikoa, gizarte-ongizatea, hezkuntza, enplegu publikoko lanpostuetara heltzea, osasuna, ingurumena, ogasuna, hirigintza, trafikoa, herritarren segurtasuna, etxebizitza eta justizia.

Funtzio publikoaren arloari dagokionez, 108 kexa aurkeztu ziren, eta, horietatik, 29 kexa nabarmentzen dira: Hezkuntza Departamentuari aldi baterako irakasleek –kontratatu administratiboak dituztenak– uztailera eta abuztuko soldata ordaintzea eskatzeko egindako kexak, osasun-arloko langileek beren familia-bizitza eta lana bateratzeari buruzko kexak, eta zenbait funtzionario publikori zenbait gehigarri ez aitortzearen ondorioz desadostasunak adierazten dituzten kexak.

Bigarrenik, **gizarte-ongizateari** buruzkoak ageri dira: 75 kexa. Horietako 20 kexa haurren eta nerabeen babesik ezari buruzkoak –adingabeen babesik ezari buruzkoak eta banandutako gurasoen zaintzari edo arretari buruzkoak nabarmentzen dira– eta behaketa eta harrera zentroen (BHZ) funtzionamenduaren erregimenari buruzkoak dira. Era berean, gizarteratzearekin lotutako 19 kexa aurkeztu dira, eta Gizarteratzeko errentari (GE) buruzkoak nabarmentzen dira, hala nola familiako beharrei eta behar pertsonalei aurre egiteko oinarrizko prestazio hau ezonartzearen ondoriozkoak, prestazioa emateko atzerapenen ondoriozkoak eta prestazioak bahitzearen ondoriozkoak. Prestazio publiko hori enbargaezina da, baina urtero badira administrazio publikoren batek prestazioa bahitu dietela adierazten duten kexak.

Hirugarren lekuan daude **hezkuntzarekin** lotutako kexak, eta honako hauek nabarmentzen dira: lanbide-heziketarekin (eskatutako modalitateetan ez onartzearen ondoriozkoak) eta batxilergoarekin lotutakoak (hala nola arte-irakaskuntzarekin lotutakoak; izan ere, batxilergo adar hori Iruñeko zentro batean soilik eskaintzen da eta udalerrri horretatik kanpoko eskatzaileak ez ziren onartzen), hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen arretarekin lotutakoak, eta, aurreko urteetan bezala, ikastetxeen onartze-prozesuarekin lotutakoak (bai lehen hezkuntzan bai bigarren hezkuntzan).

Laugarrenik, **enplegu publikoko lanpostuetara heltzearen** arloari buruzko kexak ageri dira. Kexa horiek enplegu publikoko lanpostuetara berdintasun-egoeran nahiz merituek eta gaitasunak kontuan hartuko diren egoeran heldu nahi duten herritarrek aurkezten dituzte. Aurkeztutako kexak, nagusiki, aldi baterako kontrataziorako aurkeztu direnen zerrenden kudeaketari buruzkoak dira. Kontratazio-zerrendetan desgaitasunak dituzten pertsonen lehentasuna aldatzearekin ados ez daudenen kexak nabarmentzen dira. Halaber, nabarmentzekoak dira Servicio Navarro de Empleo/Nafar Lansare erakunde autonomoaren beharretarako goimailako tituludunen lanpostuetarako izangaien bi zerrenda eratzeko (proba selektiboan bidez eratuak) deialdiaren oinarriekin lotutako zortzi kexak, deialdiak ez baitu kontuan hartzen Laneko Zientzien eta Soziologia lizentzia.

Bosgarren lekuan **osasun arloarekin** lotutako kexak ageri dira, eta honako hauek nabarmentzen dira: izandako arreta kliniko zehatz batekin ados ez dauden herritarren kexak, itxaron-zerrendekin lotutakoak (batez ere, errehabilitazioaren alorrarekin lotutakoak) eta osasun-

prestazioak eta diru-itzultzeak ez onartzearekin lotutakoak.

Seigarren lekuan, **ingurumenaren** arloa dago. Aurreko urteetan bezala, hainbat motatako jarduerak eragindako zaratekin lotutako kexak nabarmentzen dira; bereziki, gazteen lokalek, ostalaritza-negozioek eta beste zenbait jarduerak eragiten duten hots-kutsaduraren ondorioz zenbait herritarrek beren etxebizitzetan pairatzen dituzten eragozpenekin lotuak. Halaber, ingurumenari buruzko informazioa ez ematearekin lotutako kexak, herritarren parte-hartzea mugatzearekin lotutako kexak eta Nafarroako zenbait udalerritan bizitoki-eraikinetako etxabeetan beilatokiak jartzearekin ados ez dauden herritarren kexak ere aurkeztu dira.

Ogasunaren arloan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarekin lotutako kexak nabarmendu dira. Era berean, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergarekin lotutako kexak (horietako kexa batek planteatzen du ulergaitza dela zerga hori ezartzeko arrazoia; izan ere, balio-gehikuntzarik ez da izan, baizik eta krisiaren ondoriozko balio-gutxitzeak izan dira. Planteamendu hori Auzitegi Konstituzionalak berretsi du 2017an) eta hiri-kontribuzioarekin lotutako kexak aurkeztu dira.

Zortzigarren lekuan, **hirigintzaren** arloko kexak ageri dira. Aurreko urteetan bezala, honako gaiekin lotutako kexak aurkeztu dira: ekimen partikularreko plangintza-aldaketen izapidetzeen ukapenekin eta geldotasunarekin lotutakoak; herritarrek salatuta, hirigintza-araudia betetzen ez den egoeratan udalerrri batzuek legedia babesteko erakutsi duten gelditasunarekin lotutakoak; eta hirigintza gauzatzeko moduarekin lotutako zenbait kexa.

Bederatzigarren lekuan **trafikoaren** arloko kexak ageri dira, eta honako hauek nabarmentzen dira: ezarri zaien isunarekin ados ez dauden herritarren kexak, Pamplona-Iruñeko aparkaleku mugatuko guneetatik udalaren garabizkerbitzuak autoa kentzearekin lotutako kexak eta autoa berreskuratzeko ordaindu beharreko tasak gehiegizkoak izatearekin lotutako kexak.

Hamargarren lekuan, **herritarren segurtasunarekin** lotutako kexak daude. Arlo horretan polizia-gorputzetako agenteek herritarrei emandako tratu desegokiarekin lotutako kexak nabarmentzen dira. Era berean, Iruñeko espetxeko presoek kexak ere izan dira, funtzionario jakin batzuek gaizki tratatzen dituztela salatzeke.

Hamaikagarren lekuan **etxebizitzaren** arloko kexak daude. Arlo horretako kexak honako egoera hauekin lotutakoak dira: etxebizitza alokatzeko diru-laguntza publikoak ez direnean onartzen, babestutako etxebizitzetan kalteak daudenean eta familiaren beharretara hobeto egokitzen diren etxebizitza babestuetarako sarbidea lortzeko zailtasunak daudenean.

Hamabigarren lekuan **justiziarekin** lotutako kexak ageri dira, eta honako hauek nabarmentzen dira: planteatu dituzten prozesu judizialean atzerapenak egon direla uste duten herritarren kexak, doako laguntza juridikoa ez onartzearekin lotutako kexak eta ebazpen judizialekin ados ez egotearekin lotutako kexak.

8. 2016an aurkeztutako kexa gehienak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin lotutakoak ziren, bai eta haren erakunde publikoen eta haren sozietate publikoen jardunarekin lotutakoak ere. 437 kexa aurkeztu ziren, guztizkoaren % 52,7.

Toki entitateen eta haien menpeko enteen jardunari buruz, berriz, 214 kexa aurkeztu ziren, guztizkoaren % 25,8.

Estatuko administrazioaren jardunari buruzko 110 kexa aurkeztu ziren, guztizkoaren % 13,3.

9. **Kexak aurkezteko bitartekoari** dagokionez, aurreko urteetan ez bezala, Internet bidez aurkeztu dira kexa gehienak (% 50,5). Erakundearen egoitzan aurrez aurre aurkeztutako kexak % 38,4 izan ziren.

Ohiko postaren bidez aurkeztu dira kexen % 10,7; eta, azkenik, faxaren bidez aurkeztutakoak, % 0,4.

10. Kudeatutako kexei erreparatuta, Nafarroako Arartekoak kexen % 82,2 **izapidetzea onartu** du, herritarrek helarazitako gaiak aztertzeko. Halaber, 96 kexa zenbait goi-komisario parlamentariari bidali zaizkie, haien eskumeneko gaiak baitira (92 kexa, Espainiako Arartekoari; hiru EAeko Arartekoari; eta bat, Aragoiko Justiziari), eta hori ez da eragozpena izan Nafarroako Arartekoa kexa horiei emandako soluzioaren jakinaren gainean egoteko.

Eskaera onartu eta gero, erakundeak administrazioei buruzko **615 ikerketa** egin ditu.

Ikerketak egin eta gero, Nafarroako Arartekoak 502 espedientetan (hau da, ikertutako kexa-espedienteen % **81,6**) kexaren egileek arrazoi osoa edo partziala zutela ikusi du.

Beraz, erakundeak, kexei dagokienez, 227 gomendio (% 50,9) eman ditu, 12 legezko betebeharren gogorazpen

(% 26,9) eta 99 iradokizun (% 26,9) –horietako 31, arautzeko iradokizunak–.

Arloka, funtzio publikoarena da gomendio, gogorarazpen eta iradokizun gehien egitea eragin duen arloa (44 ebazpen). Ondoren, arlo hauetan eman dira ebazpen gehien (beheranzko hurrenkeran): gizarte-ongizatean (40 ebazpen), hezkuntzan (34), osasunaren arloan (31), ingurumenean (23), hirigintzan (27), enplegu publikoko lanpostuetara heltzearen arloan (25), ogasunean (20), etxebizitzan (16), trafikoan (12) eta zerbitzu publikoetan (10 ebazpen).

11. Nafarroako Arartekoaren kexa-jarduketek % **65,17-ko** onarpen-maila izan dute administrazio publikoetan. Ehuneko horretan sartzen dira, batetik, ikerketa egin eta gero onartutako ebazpenak, eta, beste alde batetik, Administrazioak zuzendu dituen kasuak Arartekoak ebazpena egin baino lehen, hau da, erakundearen esku-hartze baten bidez herritarraren arazoa konpontzea informazio-eskaera baten hasierako fasean.

12. Erakundearekin **elkarlanean aritu ez diren administrazio publikoei** dagokienez, lau aipatu dira: Cascanteko Udala, Castejónko Udala, Uharteko Udala eta Iruñeko Udala (bi kexa-espedientetan).

Era berean, aipatzen dira txosten-eskaeraren igorpenean gehiegi atzeratutako administrazio publikoak, bai eta erakunde honek emandako ebazpenari erantzun bat ematen gehiegi atzeratutakoak ere –lau alditan edo gehiagotan egin behar izan zaie eskaera hori–

13. Aurten, erakundeak **35 ofiziozko jarduketa** egin ditu. Nafarroako Arartekoak irekitzen dituen espedienteak dira,

uste duenean gertaera batek ikerketa bat edo erakundearen jarrera-hartze bat behar duela hasierako fasean edo Administrazioari edo Nafarroako Parlamentuari egindako iradokizun baten bidez edo Espainiako Arartekoari –haren eskumenen eremuan– jarduketakeskaera bat eginez.

Ofiziozko jarduketa horietatik 7 **gizarte-ongizateari** buruzkoak izan dira, eta honako hauek nabarmentzen dira: adingabeen babeserako pisu batera, adimendegaitasuneko zentro batera eta gaixotasun mental larriak dituzten pertsonen egoitza batera egindako bisitak. Halaber, Cáritasek Errenta Bermatua eta larrialdilaguntzak aurreratzeri buruzko jarduketak ere ireki dira. Arlo honetan, Sirian bizi den hondamendi humanitarioko egoerari buruz Espainiako Ararteko guztiek egindako adierazpen bateratua sartzen da.

Hiru ofiziozko jarduketa **osasunaren arloari** buruzkoak izan dira: bat, gaixotasun arraroak dituzten pertsonen arretari buruzkoa; beste bat, osasungintza publiko eta unibertsalari buruzkoa; eta, beste bat, larrialdizerbitzuetako gaueko txandan ekografiak egiteko atzerapenei buruzkoa.

Ingurumenaren arloan, ofiziozko hiru jarduketa egin dira: bata, Nafarroako Erriberako airearen kalitatearen hobekuntza-planaren lanketarik ezari buruzkoa; bestea errepide-ardatzen eta trenbide-ardatzen zaraten maparen onarpenari buruzkoa; eta, hirugarrena, etxebizitzien etxabeetan beilatokiak jartzeari buruzkoak.

Hiru ofiziozko jarduketa **trafikoari eta bide-segurtasunari** buruzkoak izan dira: bat, Iruñeko bizikleta-zirkulazioari buruzkoa; bestea, Nafarroako probintziako trafiko-

buruzagitzaren aztertzaileen eskasiari buruzkoa; eta, hirugarrena, Iruñeko Ermitagaina auzoan autoek oinezkoak harrapatzeari buruzkoa.

Halaber, hiru ofiziozko jarduketa egin dira **Foru Zuzenbide Zibilaren** arloan: bat, gurasoek seme-alaba aitortzeari buruzkoa; bestea, inbentariarik ezagatik fideltasunaren legezko gozamina galtzeari buruzkoa; eta, hirugarrena, testamentugilearen erabakitzeak ahalmenari buruzkoak bigarren aldiz ezkondata dagoenean.

Gainerako ofiziozko jarduerak gai hauei buruzkoak izan dira:

- Adingabe baten heriotza, eskola-jazarpena jasan eta gero.
- Mutiloan (Aranguren Ibarra) ikastetxe-eraikin bat eraikitzea.
- Nafarroako zati batean ETBren seinalea etetea.
- Nafarroako Banku Publikoa eratzea.
- Ikastetxeetako zuzendarien aukeraketa.
- Foruzaingoaren lanaldien eta ordainsarien aldaketak.
- Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen aldaketa.
- Kontu Irekiei buruzko Foru Lege proposamena.
- Alokairuko etxebizitza-sustapenen babes-erregimena bukatzea.

- Dereduan ikasketak egin dituzten pertsonen enplegu publikorako deialdietan euskarazko B2 maila aitortzea.
- Noaingo guduaren lekua babestea.
- Hala eskatzen duten preso nafarrak Iruñeko espetxera lekualdatzea.
- Polizia-etxean gertatutako atxilotutako pertsona baten heriotza.
- Greziako poliziak kooperante nafar bat atxilotzea, karabana batean zortzi pertsona errefuxiatu eramatea egotzita.
- NANA ateratzeko Iruñeko bulegoaren kolapso-egoera.
- Desgaitasuna duten pertsonen ibilgailuek zirkulazioko zergaren salbuespena izatea.

Kudeatutako 47 ofiziozko jarduketetan, erakundeak 22 ebazpen eman ditu, bai eta haiei dagozkien gomendioak (8), iradokizunak (14) arautzeko iradokizunak (15) eta legezko betebeharren gogorazpenak (1).

Zazpi jarduketatan, detektatutako egoera beste erakunde batzuei eta administrazio publikoei jakinarazi zaie, ebazpenik eman gabe, kasua haien eskumenekoa dela iritzita. Horrenbestez, lau kasu Espainiako Arartekoari bidali zaizkio (horietako bat Greziako Arartekoari ere bidali zaio), kasu bat Europako Arartekoari, kasu bat Nafarroako Parlamentuari eta azken kasu bat, Nafarroako Auzitegi Gorenari eta Nafarroako Foru Komunitateko fiskal nagusiari.

Beste bost ofiziozko jarduketa zuzenean onartu dira edo ebazteko bidean geratu dira Administrazioari ikerketaren jakinarazpena helarazita.

Beste bi kasutan, Administrazioak bidalitako informazioa balioetsi eta gero, ez da beharrezkotzat jo haiei buruzko ebazpena ematea edo beste neurri batzuk hartzea.

Beste hiru ofiziozko jarduketa izapidetzeko daude.

Bestalde, 2016ko abenduaren 31ean izapidetze-prozesuan zeuden hamabi ofiziozko jarduketetatik zortzik erantzun gabeko ebazpenak zituzten.

Kudeatutako 30 ofiziozko jarduketa ebazpenuetatik (hogeita bi 2016koak, eta, zortzi 2015ekoak) administrazio publiko hartzaileek 24 onartu dituzte, ez dituzte 6 onartu, eta ez dago erantzun gabeko ofiziozko jarduketarik kapitulu hau idazten amaitzeko unean. Horrenbestez, Nafarroako Arartekoak ofiziozko jardueren harira emandako ebazpenen onarpen-maila % 80ra igo da.

14. Aurreko urteetan bezala, erakundeak hurrek eta nerabeek Nafarroan duten egoera balioetsi du. Ez da balorazio orokor edo soziologiko bat; hurrek eta nerabeek Nafarroan duten egoera egiaztatu nahi da Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeak administrazio publikoei agintzen duena betez.

Bildutako datuek agerian uzten dute 2016an, oro har, ugaritu egin dela adingabeen babeserako sistemaren jarduera. Aurreko urteetan baino gehiago dira sistema horrek artatutako adingabeak (1.446 adingabe 2016an, 1.413 adingabe 2015ean eta 2014an, 1.267 adingabe

2013an eta 1.206 adingabe 2012an), eta, era berean, esku-hartzeko neurri zorrotzak kasu gehiagotan hartu behar izan dira, hala nola adingabeen zaintza hartzea (2015ean, 657 adingabe; eta 2016an, 739 adingabe) edo adingabeen tutoretza hartzea (2015ean, 178 adingabe; eta 2016an, 253 adingabe). Halaber, gizarte-gatazka egoeran dauden adingabeen kopurua (2015ean, 556 adingabe; eta 2016an, 728 adingabe) edo erreforma-sisteman dauden adingabeen kopurua (2015ean, 36 adingabe; eta 2016an, 39 adingabe) hazi egin da.

Beste alde batetik, zailtasunak ikusi dira arrisku-egoeran edo babesgabetasun-egoeran dauden adingabeei arreta emateko, Administrazioak zaintza harrera-familien bidez hartzeari dagokionez (harrera guztiak kontuan hartuta, harrera-familien bidezkoek behera egin dute 2015etik 2016ra: % 54,6tik % 45,7ra); eta, hori dela eta, ugaritu egin dira instituzionalizazio-egoerak, hain zuzen ere, legeak minimizatu nahi dituen egoerak.

Hori dela eta, erakundeak, aurreko txostenetan adierazitakoaren ildotik, zenbait iradokizun egiten ditu adingabeen babes-sistemak dituen baliabideak ebaluatzeko eta sistema horri baliabideak modu egokian emateko, arlo horretan diharduten agenteen arteko koordinazioa hobetzeko eta haien prebentzio-lana indartzeko, babesgabetasunaren lehen eta hasierako faseetan esku-hartze publikoak nola jokatu behar duen adierazteko, eta, ahal den neurrian, instituzionalizazio-kasuen kopurua murrizteko, harrera-familien bidezko zaintza sustatzeko neurriak hartuz. Hala ere, arlo horretan lanean dihardutenen lana aintzat hartzen da eta egokitzat jotzen dira haiek abiatutako ekintza-ildoak, eta haiek implementatzera eta indartzera bultzatzen da.

15. 2008. urtetik, erakundeak herritarren parte-hartzea sustatzen du zerbitzu publikoen hobekuntzan. Arartekoak zerbitzu horiek hobetzeko proposamenak aurkeztera animatzen ditu herritarrak, eta, zenbait kasutan, araua aldatzeko proposamen bilakatzen dira proposamen horiek.

Herritarren proposamen horiek administrazio publiko eskudunari edo Espainiako Arartekoari –Estatuaren eskumenekoak baldin badira– helarazten dizkio erakundeak, eta, arrazoizkotzat jotzen baditu, erakunde horien aurrean defendatzen ditu.

Horrela, 2008tik herritarrek 300 hobekuntza-proposamen aurkeztu dituzte; horietatik, hamahiru proposamen 2016. urtekoak dira.

2016an herritarrek honako proposamen hauek egin dituzte, besteak beste:

- Funtzionarioen barne-igoeren prozeduretan –behin betikoetan nahiz aldi baterakoetan– desgaitasun-egoerak kontuan hartzea.
- Guraso bakarreko familiak babesteko araugintzako neurriak hartzea.
- Irakasleen aldi baterako kontratazioetan, prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa duten pertsonen lehentasuna ematea.
- Kredituak kobratzeko orduan, ogasun publikoaren lehentasuna aldatzea.

- Hirigintzako konpentsazio-sistemarekin lotutako zenbait alderdi aldatzea.
- Errepedeetako zaintzaileak C mailara igotzea.
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskari bat eginaz emandako ebazpen baten –fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea dela-eta jarduteko osasun-arloko protokoloa aktiba dezan– testua aldatzea.
- Ebakuntza bat egiteko itxaro-zerrendan dauden pazienteei informazioa helarazteko, bestelako komunikazio-moduak erabiltzea.
- Administrazio publikoetako montepioen sistematik eskubide pasiboen sistemara aldatzeko epe bat irekitzea, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legean aurreikusten dena betez.
- Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren zerbitzuko suhiltzaile lanposturako oposizioen deialdirako oinarrietan gai-zerrendaren bibliografia sartzea.
- Erregistro Zibilaren webgunean eskelak argitaratzea.

Kudeatutako hamabost proposamenetik (hamahiru proposamen 2016an aurkeztuak, eta bi, 2015ean) bitan ez zen eskubide-urraketarik edo nahikoa funts ikusi ikerketa bat abiatzeko; bi proposamen Nafarroako Parlamentura bidali ziren; bat Espainiako Arartekoari bidali zitzaion; eta beste bat ez zen bidali xede zehatzik ez izateagatik.

Gainerako bederatzi proposamenak Nafarroako administrazio publikoetan izapidetu ziren.

Bederatzi kasu horietatik bostetan Administrazioak proposamena onartu zuen. Beste proposamen bat Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak zuzenean ez zuen onartu.

Aipatutako bederatzi kasuetatik hirutan Nafarroako Arartekoak proposamenaren aldeko ebazpena eman zuen, eta administrazioek bi onartu zituzten eta bat ez zuten onartu.

16. 2016an, Erakundearen Herritarrentzako Arreta Bulegoak herritarren 910 **kontsulta** jaso eta erantzun ditu.

Herritarren zuzeneko zerbitzura jarritako funtzio-arlo bat da, hala nola erakundearekin harreman pertsonala errazteko, herritarrentzat kexak aurkeztea errazagoa izateko edo herritarrek beren eskubideak hobeto nola erabili jakiteko egiten dituzten kontsultak errazteko.

Gizarte-ongizateari buruzko kontsultak gailendu dira. Herritarrek honako gai hauei buruzko kontsultak egin dituzte: adingabeen babesari buruzkoak, Gizarteratzeko errentari (GE) buruzkoak eta desgaitasunei buruzkoak,

Bigarren lekuan, **hezkuntzaren** arloari buruzko kontsultak daude, eta gai hauei buruzko kontsultak egin dira nagusiki: hezkuntza-administrazioak ikastetxeetara eta haur-eskoleetara sartzeko irizpideen aplikazioari buruzkoak, beken eta laguntzen sarbideari nahiz ukapenei nahiz itzultzeei buruzkoak, eta premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko arretari buruzkoak.

Hirugarren lekuan, **osasanaren** arloari buruzko kontsultak daude. Kontsulta gehienak jasotako zerbitzu medikuari eta osasun-arretaren atzerapenei buruzkoak eta itxaron-zerrendei buruzkoak dira.

Halaber, hainbat kontsulta egin dira honako gai hauei buruz (ordenan daude, kontsulta gehien izan dituztenetatik gutxien izan dituzteneira): hirigintza, ogasuna, gizarte-segurantza, ingurumena, etxebizitza, kontsumoa eta justizia.

17. 2016an, bi txosten monografiko egin dira:

- **Bata**, berezko ekimenez, Nafarroan pertsona errefuxiatuak hartzeari buruzkoa.
- **Bestea**, Nafarroako Parlamentuko Eskaeretako Batzordearen ekimenez, desgaitasunak dituzten pertsonentzat azterketak egokitzeari buruzkoa.

18. Beste alde batetik, Nafarroako Arartekoa bi aldiz aurkeztu da Nafarroako Parlamentuan, Foru Erregimenaren Batzordearen eta Osoko Bilkuraren aurrean urteko txostena azaltzeko.

2. KAPITULUA

KEXAK



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Auzitekoa

2



→ 2.1 DATU OROKORRAK


Hauek dira Nafarroako Arartekoa erakundeak 2016an kudeatutako kexei buruzko datuak:

1. **Guztira, 830 kexa aurkeztu dira.**
2. **Guztira, 989 kexa-espiediente kudeatu dira.** Kopuru hori lortu da urteko 830 kexa horiei aurreko urteetan izapidetzen hasi ziren 159 kexa gehitzetik, dela aurreko urtetik ixteko geratu direlako, dela herritarrek eskatuta berriz ere ireki direlako.

	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010	2009	2008	2007
Aurkeztutako kexen kopurua	830	1.546	2.742	954	1.298	850	929	901	647	447
Kudeatutako kexen kopurua	989	972	1.045	1.168	1.510	1.042	1.151	1.069	779	656

3. 2016ko abenduaren 31n, 789 espiediente **ebatzita** zeuden; hau da, kudeatutako en % 79,8. Beraz, data horretan 200 kexa-espiediente zeuden ebatzi gabe.
4. **Kexak aurkezteko erabilitako bitartekoi dagokionez**, bitarteko telematikoak izan dira erabilienak (% 50,5): posta elektronikoa nahiz erakundearen webgunea. Bigarren lekuan, zuzenean Nafarroako Arartekoaren bulegoan aurkeztutako kexak daude (% 38,4), eta, ondoren, posta arruntaren bidez aurkeztutakoak (% 10,7).

Kexak aurkezteko modua



5. Kexak aurkeztu dituzten pertsonen edo kexen atzean dauden pertsonen guztizko kopurua 10.089 pertsonakoa da, kontuan izan gabe kexak aurkeztu dituzten izaera sozialeko, ingurumenaren arloko edo beste gisa batzuetako entitateek zenbat pertsona ordezkatzan dituzten.

Logikoa denez, beti ez da berdina izaten kexen kopurua eta beren eskubideak eta askatasun publikoak babesteko Nafarroako Arartekoaren esku-hartzea eskatzen duten herritarren kopurua. Kexak aurkeztan dituzten herritarren kopurua kexa-kopurua baino handiagoa da.

6. Hauek izan dira kexa-espedienteak izapidetzeko batez besteko epeak:

IZAPIDETZE-DENBORAK (egunetan)	2016	2015	2014	2013	2012	2011	2010	2009	2008	2007
Hasieratik herritarrak hartze-agiria jaso duen arte	1,1	1,3	1,7	1,5	1,9	1,6	1,6	1,8	1,2	2,2
Hasieratik kexa izapidetzeko onartu den arte	5,0	7,2	6,7	6,1	8,3	7,8	8,3	11,4	9,2	22,4
Hasieratik kexa itxi den arte	80,3	89,3	77,4	83,2	60,2	82,2	70,5	74,4	66,8	137,0

→ **2.2. KEXAK HARTU DITUZTEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK**

Hauek dira 2016an kexak hartu dituzten administrazio publikoak:

KEXEN BIDEZ GAITZETSITAKO ADMINISTRAZIO EDO ERAKUNDE PUBLIKOAK	Kexa kop.	%
FORU ADMINISTRAZIOA	437	%52,7
TOKI ADMINISTRAZIOA	214	%25,8
FORU ETA TOKI ADMINISTRAZIOA (*) 16	%1,9	
ESTATUKO ADMINISTRAZIOA	110	%13,3
ADM. JUDIZIALA	14	%1,7
SOZietateak	10	%1,2
AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO ETA NAZIOARTEKO ADMINISTRAZIOA	7	%0,8
LANBIDE ELKARGOAK	7	%0,8
NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA	3	%0,4
NAFARROAKO PARLAMENTUA	3	%0,4
BESTERIK / BESTE BATZUK	9	%1,1
GUZTIRA	830	%100,0

(*) Foru Komunitateko Administrazioari eta tokiko erakunderen bati aldi berean eragiten dieten 24 kexa daude.

2016an aurkeztutako kexa gehienak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin lotutakoak ziren, bai eta haren erakunde publikoen eta haren sozietate publikoen jardunarekin lotutakoak ere. 437 kexa aurkeztu ziren, guztizkoaren % 52,7.

Toki entitateen eta haien menpeko enteen jardunari buruz, berriz, 214 kexa aurkeztu ziren, guztizkoaren % 25,8.

Hamasei kexa Foru Komunitateko administrazioaren eta toki administrazio baten baterako jardunari buruzkoak izan ziren.

110 kexa Estatuko administrazioen jardunari buruzkoak izan ziren (guztizkoaren % 13,3).

Administrazio judizialari buruz, berriz, 14 kexa (% 1,7) aurkeztu ziren.

Administrazioz kanpoko sozietate pribatuei buruzko kexak hamar izan ziren (% 1,2): posta, banketxe, kirol-federazio, finka-administratzaile eta enpresa pribatuei zuzenduak.

Zazpi kexa aurkeztu ziren beste zenbait autonomia-erkidegotako administrazioen jardunari buruzkoak (% 0,8): lau, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari buruzkoak; bi, Aragoiko administrazioari buruzkoak; eta bat, Errioxakoa administrazioari buruzkoa.


Elkargo profesionalen jardunari buruzkoak zazpi izan ziren (% 0,8): bi Iruñeko Abokatuen Elkargoari buruzkoak, bat Tuterako Abokatuen Elkargoari buruzkoa, bat Tafallako Abokatuen Elkargoari buruzkoa, bat Notarioen Elkargoari buruzkoa, bat Prokuradoreen Elkargoari buruzkoa eta beste bat Albaitarien Elkargoari buruzkoa.

Hiru kexatan, kexaren hartzailea Nafarroako Unibertsitate Publikoa izan zen (% 0,3).

Beste hiru kasutan, Nafarroako Parlamentuari buruzkoak izan ziren.

Azkenik, bederatzi kexatan ez zen administrazio jakin bat aipatzen edo, bestela, ente pribatuei buruzkoak ziren.

Kexak sorrazari dituzten administrazio publikoak



Honakoa izan zen **Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio**ko departamentuei, beren eskumeneko gaiak izategatik, zuzendutako kexen kopurua, haien gaia zein den alde batera utzita:

DEPARTAMENTUAK	Kexa kop.	%
Hezkuntza	137	%31,1
Eskubide Sozialesa	78	%17,7
Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia	75	%17,0
Osasuna	64	%14,5
Ogasuna eta Finantza Politika	30	%6,8
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	29	%6,6
Garapen Ekonomikoa	16	%3,6
Kultura, Kirola eta Gazteria	9	%2,0
Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanak	3	%0,7
GUZTIRA	441	%100,0

Departamentuei zuzendutako 441 kexa horietan, aldi berean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta toki entitatearen bati zuzendutako 4 kexa ere sartu dira.

Halaber, badira 15 kexa Nafarroako gobernuaren zenbait departamenturi aldi berean eragiten dietenak; 2 kexek departamentu bati eta Justizia Administrazioari eragiten die aldi berean, 2 kexek departamentu bati eta Nafarroako kirol-federazioei, kexa batek departamentu bati eta Nafarroako Unibertsitate Publikoari, eta kexa batek departamentu bati eta Tuterako Abokatuen Elkargoari.

Toki entitateei erreparatuta, honakoak izan ziren hiru kexa baino gehiago jaso zituztenak: Pamplona-Iruña (74 kexa), Tudela (8), Desojo (4), Estella-Lizarrak (4), Esteribar (4), Olite-Erriberri (4), Valle de Egüés - Eguesibar (4) eta Villava-Atarrabia (4).

Kontzejuen jokabideei buruz, berriz, bi kexa aurkeztu ziren.

Mankomunitateen jardunak eta kudeaketak 16 kexa eragin zituen. Iruñerriko Mankomunitatea izan zen kexa gehien jaso zituena (7 kexa).

Xehetasun gehiago izateko, hona hemen tokiko entitateei eragiten dieten kexei buruzko datuak:

UDALAK (*)

Abárzuza-Abartzuza	1
Ablitas	1
Adiós	2
Allo	1
Altsasu - Alsasua	1
Ansoáin - Antsoain	2
Aranguren	2
Arguedas	2
Arróniz	1
Artajona	2
Barañáin - Barañain	1
Baztan	1
Bera	1
Berbinzana	3
Berrioplano-Berriobeiti	1
Berriozar	1
Bertizarana	1
Biurrun-Olcoz	1
Cabanillas	1
Cabredo	1
Cadreita	1
Caparroso	1
Cascante	3
Cáseda	1
Cendea de Cizur	3
Cendea de Olza	1
Cintruénigo	2
Ciriza	1

Corella	3
Cortes	1
Desojo	4
Dicastillo	1
Eslava	2
Estella - Lizarra	4
Esteribar	4
Etxarri - Aranatz	2
Fitero	2
Galar	2
Goizueta	1
Guesálaz	1
Huarte-Uharte	3
Igúzquiza	1
Imotz	2
Larraaga	1
Larraun	1
Lekunberri	1
Lerín	1
Lesaka	1
Lónguida	1
Marañón	1
Marcilla	2
Mendavia	1
Milagro	1
Murchante	2
Noáin (Valle de Elorz)-Noain (Elortzibar)	1
Olite-Erriberri	4
Orkoien	1
Pamplona - Iruña	74
Petilla de Aragón	1

Puente la Reina-Gares	2
Ribaforada	1
Romanzado	1
San Adrián	1
San Martín de Unx	1
Sangüesa-Zangoza	3
Tafalla	2
Tiebas - Muruarte de Reta	1
Tudela	8
Uharte - Arakil	1
Ujué	1
Urroz-Villa	1
Valle de Egüés	4
Valtierra	2
Viana	1
Villafranca	1
Villava - Atarrabia	4
Yesa	1
Zizur Mayor-Zizur Nagusia	2
UDALAK, GUZTIRA	205

KONTZEJUAK

Berasáin	2
KONTZEJUAK, GUZTIRA	2

MANKOMUNITATEAK

Iruñerriko Mankomunitatea	7
Jurramendiko Mankomunitatea	3
Izarbeibarko Mankomunitatea	2
Iratiko Hiri Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitatea	1
Malerrekako Mankomunitatea	1
Ultzanueta Zerbitzuen Mankomunitatea	1
Irunberriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	1
MANKOMUNITATEAK, GUZTIRA	16

GUZTIRA (*) 223

(*) 223 kexa horietan, aldi berean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta toki entitateen bati zuzendutako 12 kexa ere sartu dira.

Kexa horietan, Nafarroako toki entitate bati baino gehiagori aldi berean eragiten dieten 3 kexa daude.


223 kexa horiei 3 kexa gehitu behar zaien, oro har Nafarroako toki entitateei buruzkoak baina zer entitate diren zehazten ez dutenak.

→ 2.3. ONARTUTAKO KEXAK

Nafarroako Arartekoak 813 kexa onartu zituen, haien izapidetzea ahalbidetzeko; hau da, guztira kudeatutako 989 kexa-espedienteen % 82,2.

Kexa horietan, Nafarroako Arartekoak bere iritzia eman du herritarrek azaldutako sakoneko gaiei buruz. Iritzi horren bitartez erantzun zehatza eman du aurkeztutako gaiari buruz.

Kexak



Kexa bat ez-onartutzat jo aurretik, Foru erakunde honek daukan izaera formalismoen aurkakoa dela-eta, herritarrei, izapidetzea ahalbidetzeko, Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak eskaintzen dituen aukera guztiak ematen zaizkie. Hala ere, zenbait kasutan (kudeatutako espedienteen % 8,1), nahiz eta ahalegin handiak egin diren, ez da posible izan herritarrek adierazitako gertaerei buruzko ikerketarik irekitzea.

Ez-onartzeko arrazoi nagusiak hauek dira:

- A limine irregulartasunik ez ikustea (16 kasu).
- Nafarroako Arartekoak eskari horiek izapidetzeko eskumenik ez duela iriztea (12 kasu).
- Aurretik jorratutako eta amaitzat jotako gai bat errepikatzea (9 egoera).

- Kexa jada bide judizialean dauden gaiei buruzkoa izatea (8 kasu).
- Aurretik administrazio eskudunari egin beharreko eskaria egitera joan gabe, zuzenean Nafarroako Arartekoarengana jotzea (7 egoera).
- Xede zehatzak ez daudela iriztea (7 gai).
- Izaera juridiko-pribatuko gaiak izatea (7 egoera).
- Herritarrek aurkeztutako kexatan atzera egitea (6 kasu).
- Kexa anonimotzat jotzea, kexa aurkezten duen pertsona ez denean modu egokian identifikatu (3 kasu).
- Bikoiztasuna egotea; hau da, aurretiaz pertsona berak gai berari buruzko kexa aurkeztea (2 kasu).
- Herritarrek erakundeak eskatzen dituen datuak eta informazioa ez helaraztea (2 egoera).
- Kexa bat (egoera bat) aurkezteko Foru Legeak ezartzen duen urte bateko epea gainditzea.

Kasu askotan, herritarrei pertsonalki aholkatzen zaie jakin dezaten zer beste bide erabil ditzaketen beren eskubideak defendatzeko, dagokion instantzian; eta informazioa eskaintzen zaie zer baldintza bete behar dituzten jakiteko.

→ 2.4. ESPAINIAKO ARARTEKOARI EDO BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGOETAKO HERRITARREN ESKUBIDEEN DEFENTSARAKO GOI-KOMISARIO PARLAMENTARIOEI BIDALITAKO KEXAK

Urte honetan aurkeztu diren 830 kexetatik 96 kexa beste autonomia-erkidegoetako goi-komisario parlamentarioei bidali zaizkie, haien eskumenekoak direla iritzita. Espainiako Arartekoari 92 kexa bidali zaizkio, estatu-mailako eskumenekoak zirela iritzita. Hiru kexa EAEko Arartekoari bidali zaio eta beste bat, Aragoiko Justiziarri.


Kasu horietan, erakundeak etengabeko harremana du bai komisario parlamentario horiekin, bai kexa aurkeztu duten pertsonekin, azken horiei dokumentazioa bidaltzea eta hartzea edo, beharrezko izango balute, aholkularitza jasotzea errazteko.

→ 2.5. IKERTUTAKO KEXAK. IKERKETEN EMAITZA

Onartutako 813 kexa-espedienteen ondorioz, Nafarroako Arartekoak 615 ikerketa egin ditu (guztira onartutakoen % 75,6).

Onartu diren 813 espediente horietatik 79 espedienteri hasierako fasean erantzun zaie, herritarrek aurkeztutako gaiak ikerketarik abiarazi gabe ebatziz. Era berean, 813 espediente horietatik 119 espediente izapidetzeko zeuden abenduaren 31ean.

Onartutako kexa-espeditentak (818)




Ikerketa egin eta gero:

- Nafarroako Arartekoak ebatzi du eskatzaileek arrazoi osoa edo partziala dutela 337 kexa-espeditentetan.
- Beste 165 kexa-espeditentetan, Nafarroako Arartekoak ikerketaren bidez egindako esku-hartzearen ondorioz, kexan planteatutako gaiak ebazpen bidean jarri dira edo administrazioek kexen egileen eskaera onartu dute, ebazpenik emateko beharrik gabe.
- 86 kexa-espeditentetan, Nafarroako Arartekoak ez zuen beharrezkotzat jo Administrazioari iradokizun, gomendio nahiz legezko betebeharren gogorazpenik egitea. Horrelako kasuetan, Administrazioari entzun ondoren eta sakoneko

gaiak xeheki aztertu ondoren, Nafarroako Arartekoak kexak aurkeztu zituzten herritarrei informazioa eta aholkua eman die antolamendu juridikoaren arabera eskubideen urratzerik ez atzemateko arrazoiei buruz.

- 27 kexa-espediente bukatutzat jo dira kexa-egileek atzera egin dutelako edo Nafarroako Arartekoaren eskumenetik kanpokoak direla ikusi delako edo Arartekoaren esku-hartzea amaiarazi duten beste arrazoiak egon direlako.

Ikerketak (607)



Ikus daitekeen bezala, dela ikerketa ondoren Nafarroako Arartekoak kexa-egileen eskaerekin aurrera egiteko arrazoiak badirela erabaki duelako (337 kasu), dela Administrazioarekin izandako komunikazioaren ondorioz herritarrari bere eskaera asebetetzea lortu delako (165 kasu), Nafarroako Arartekoaren esku-hartzearen ondorioz

aurkeztutako eta ikertutako 502 kasu modu egokian konpondu dira, haren irizpidean oinarrituta, eta, horrela, herritarren kexei guztiz edo partzialki erantzun zaie.

Bide batetik edo bestetik aintzat hartutako 502 kexa horiek ikertutako 615 kexa-espeditenteen % 81,6 dira.

→ 2.6. KEXEN ONDORIOZ EMANDAKO EBAZPENAK

Nafarroako Arartekoak, ikerketa egin ostean, eskatzaileak arrazoi osoa edo partziala duela ikusi du 337 kexa-espeditetan, eta, hori dela eta, 337 ebazpen eman ditu, era berean, 446 gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorarazpen barne hartzen dituztenak.

Jakina den bezala, ebazpen batek zenbait gomendio, iradokizun eta gogorarazpen barne hartu ditzake, ikerketaren emaitzek eskatzen dutenaren arabera.

Emandako ebazpen gehienek laburpen bat –bakoitzak zer espeditente dagokion adierazita duela– hemen dago:

- Txosten honetako V. kapituluan.
- Nafarroako Arartekoaren webgunean, haren funtsezko edukira sarbidea dago: <http://www.defensornavarra.com>, 2016. urteari dagokion epigrafean.

Ondoko taulan, egindako gomendioen, legezko betebeharren gogorarazpenen eta iradokizunen kopurua azaltzen dugu, gaien arabera banatuta:

ARLOA	Legezko					
	betebeharren Gomendioa	Iradokizun gogorazpena	2016		Ebazpen	
			Iradokizuna	normatiboa	Guztira	kopurua
FUNTZIO PUBLIKOA	31	19	5	7	62	44
GIZARTE ONGIZATEA	27	12	9	3	51	40
HEZKUNTZA	20	4	13	5	42	34
OSASUNA	24	9	6	0	39	31
INGURUMENA	17	16	2	2	37	23
HIRIGINTZA	14	13	7	2	36	27
ENPLEGU PUBLIKOKO LANPOSTUETARA HELTZEA	16	8	6	3	33	25
OGASUNA	12	5	3	5	25	20
ETXE BIZITZA	11	5	4	1	21	16
TRAFIKOA	9	2	2	1	14	12
ZERBITZU PUBLIKOAK	8	0	6	0	14	10
KULTURA	2	6	2	0	10	3
GARDENTASUNA	5	4	0	0	9	7
HERRITARREN SEGURTASUNA	5	3	0	0	8	7
ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ONDARE-ERANTZUKIZUNA	6	2	0	0	8	6
LANA	4	2	1	0	7	5
HERRI LANAK	4	1	1	0	6	6
EUSKARA	3	1	0	1	5	5
KIROLA	2	2	0	0	4	2
JUSTIZIA	1	1	0	1	3	3
DATU PERTSONALAK BABESTEAK	2	1	0	0	3	3
NEKAZARITZA	1	1	1	0	3	2
ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ONDASUNAK	1	1	0	0	2	2
TOKI ENTITATEEN FUNTZIONAMENDUA	0	2	0	0	2	2
KONTSUMOA	1	0	0	0	1	1
TURISMOA	1	0	0	0	1	1
GUZTIRA	227	120	68	31	446	337

Taulak adierazten du administrazioetara gehien zuzentzen direnak gomendioak direla, administrazioek jokabide jakin bat har dezaten: 227 gomendio eman dira (gomendio, iradokizun eta gogorazpen guztien % 50,9).

Ondoren, legezko betebeharren gogorazpenak daude: 120 gogorazpen (% 26,9).

99 iradokizun eman dira (% 22,2), eta horietako 31 arautzeko iradokizunak izan dira.

Horrela, erakundeak, bere iradokizun eta gomendioen bidez, izaera proaktiboari eusten dio Administrazioa jotzen duen 10 alditatik 7tan baina gehiagotan. Kasuen % 27tan legezko betebeharrak gogorarazten ditu.

Arloka, funtzio publikoarena da gomendio, gogorarazpen eta iradokizun gehien ematea eragin duen arloa. Hurrengoak hauek izan dira (aipatzen diren hurrenkeran): gizarte-ongizatea, hezkuntza, osasuna eta ingurumena. Hirigintza ere arlo nagusietakoa da, enplegu publikoaren, ogasunaren eta etxebizitzaren aurretik, esaterako.

Erakundeak bost ebazpen edo gehiago –beren gomendio, iradokizun eta gogorarazpenekin– bidali dizkien administrazio publikoak hauek dira (gehien jaso dituenetik gutxien jaso dituenera):

- Hezkuntza Departamentua: 63 ebazpen.
- Eskubide Sozialetako Departamentua: 46 ebazpen.
- Osasun Departamentua: 43 ebazpen.
- Iruñeko Udala: 32 ebazpen.
- Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua: 26 ebazpen.
- Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua: 14 ebazpen.
- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentua: 11 ebazpen.

- Tudelako Udala: 6 ebazpen.
- Garapen Ekonomikorako Departamentua: 5 ebazpen.
- Iruñerriko Mankomunitatea: 5 ebazpen.

→ 2.7. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN EBAZPENAK NORAINO ONARTU DITUZTEN


Ebazpenak ematea eragin zuten 337 espedienteetatik, kapitulu hau idazten amaitu den unean, 326 espedienteri (% 96,7) eman zieten erantzuna administrazio publikoek.

- 178 kasutan, Administrazioak erakundearen erabakia onartu zuen. Kopuru horrek guztizkoaren % 52,8 egiten du.
- Beste 146 kasutan (kasu guztien % 43,3) proposamena ez du onartu.

Bi espediente beste kausa batzuen ondorioz itxi ziren, eta ez zen Administrazioaren berariazko onarpen edo onarpenik eza beharrezkoa izan.


Horrenbestez, kapitulu hau ixteko unean, 11 ebazpenek ez dute administrazio publikoen erantzunik jaso (guztizkoaren % 3,3).

2015ean emandako ebazpenak



Erantzunik gabe dauden ebazpenak kontuan hartzen ez badira (erantzuna zein izango den ez baita ezaguna oraindik), administrazio publikoek onartzen dituzten ebazpenak % 54,6ra igo dira. Hau da, erantzuna jaso duten espedienteak —onartzeko nahiz ez onartzeko— bi espedientetatik batean onartu zituzten administrazioek, batez beste, erakundeak hartutako erabakiak.


2015ean eman eta erantzundako ebazpenak



Arestian adierazi dugun bezala, maiz gertatzen da kexa-espeditente beraren karietara, dagokion administrazio publikoari gomendio, iradokizun edo gogorarazpen bat baino gehiago egitea. Hala eta guztiz ere, kexa horietako bakoitzean Nafarroako Arartekoaren proposamena onartutzat edo ez onartutzat jotzearen ondorioetarako eta, horrenbestez, egindako ikerketaren ondoren lortutako emaitza txosten honetan jasotzearen ondorioetarako, proposatutako neurri nagusiari begira lortu denari erreparatzen zaio (neurri nagusia gomendioa, iradokizuna edo gogorarazpena izan daiteke), neurria onartutzat jotzen baita herritarrek aurkeztutako arazoari konponbide eraginkorra eman zaionean.


Ondoren, gomendioen, legezko betebeharren gogorarazpenen eta iradokizunen (arautzeko iradokizunak barne) onarpen-maila erakusten da, dagozkien kexen kopuruan oinarrituta.

Gomendioak




Gomendioen onarpenaren portzentajea % 49ra iristen da, Administrazioaren erantzun guztiak kontuan hartuta.

Legezko betebeharren gogorazpenak




2016an, emandako legezko betebeharren gogorazpenen % 95,2 onartu dira.

Iradokizunak



Irakostenen % 52.6ra onartu dira, Administrazioaren erantzun guztiak kontuan hartuta.

Iradokizun normatiboak



Arautzeko iradokizunen % 38,1 onartu dira, Administrazioaren erantzun guztiak kontuan hartuta.

Ondoren, aditzera ematen ditugu 2016an emandako ebazpenen onarpenaren ehunekoak, kasu bakoitzean dagokion administrazio publikoak bereiziz, hau da, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa, Nafarroako toki entitateak eta unibertsitateak, lanbide elkargoak eta bestelako entitate publikoak bereiziz.

Ebazpena duten kexa espedienteak, 2016an hemendik igorritakoak						Onartutakoek	
	Ebazpen kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Bestelako itxierak	Erantzunaren zain daudenak	erantzuna jasotako gutzizkoan egiten duten ehunekoa	Erantzuteke dauden ehunekoa
Foru Komunitateko administrazioa	211	118	90	0	3	%56,7	%1,4
Toki entitateak	121	58	53	2	8	%51,3	%6,6
Unibertsitateak, lanbide elkargoak eta abar	5	2	3	0	0	%40,0	%0,0
Guztira	337	178	146	2	11	%54,6	%3,3

Halaber, kontuan hartzen badira 2015eko abenduaren 31ean erantzunik gabe zeuden ebazpenen emaitzak, hau da, 2016. urtea baino lehen emandako ebazpenak onartzeak edo ez-onartzeak – 2016an erantzun direnak– aldaketa gutxi eragin ditu onarpen-mailan (% 54,6tik % 53,6ra):

Ebazpena duten kexa espedienteak, 2016an erantzuna jaso dutenak						Onartutakoek	
	Ebazpen kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Bestelako itxierak	Erantzunaren zain daudenak	erantzuna jasotako gutzizkoan egiten duten ehunekoa	Erantzuteke dauden ehunekoa
Foru Komunitateko administrazioa	246	133	109	1	3	%55,0	%1,2
Toki entitateak	152	73	69	2	8	%51,4	%5,3
Unibertsitateak, lanbide elkargoak eta abar	6	3	3	0	0	%50,0	%0,0
Guztira	404	209	181	3	11	%53,6	%2,7

Hurrengo taulan, administrazio bakoitzaren onarpen maila erakusten dugu. Análisi honetarako, 2016an hiru kexa-espediente edo gehiago izan dituzten administrazio publikoen onarpen maila ematen da

aditzera soilik, betiere administrazio horiek emandako ebazpenari erantzuna eman baldin badiote 2016. urtean zehar eta txosten hau idazten amaitzeko unera arte, izan 2016an emandako ebazpenak ala izan aurreko urteetan emandakoak.

2016an igorritako ebazpenak: 3 Kexa-espediente edo gehiago dituzten Administrazioak. Kexa horiei buruzko ebazpenak 2016an eman dira

	Ebazpen kopurua	Onartuak	Onartu ez direnak	Bestelako itxierak	Onartutakoek erantzuna jasotakoan guztizkoan duten ehunekoa
NAFARROAKO GOBERNUA (departamentuak)					
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	11	8	3	0	%72,7
Garapen Ekonomikoa	3	2	1	0	%66,7
Eskubide Sozialeta	57	36	20	1	%63,2
Ogasuna eta Finantza Politika	16	10	6	0	%62,5
Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia	34	21	13	0	%61,8
Osasuna	48	23	25	0	%47,9
Hezkuntza	71	31	40	0	%43,7

TOKI ADMINISTRAZIOA

Aranguren	5	5	0	0	%100,0
Olite - Erri berri	4	3	1	0	%75,0
Valle de Egüés	5	3	2	0	%60,0
Mancomunidad de la Comarca de Pamplona	6	3	3	0	%50,0
Esteribar	4	2	2	0	%50,0
Pamplona - Iruña	37	16	20	1	%43,2
Estella - Lizarra	3	1	2	0	%33,3
Tudela	6	1	5	0	%16,7
Artajona	3	0	3	0	%0,0
Cintruénigo	3	0	3	0	%0,0
Huarte - Uharte	3	0	3	0	%0,0

Onartutako ebazpenek erantzuna eman zaien

ebazpenen guztizkoan batez beste egiten duten ehunekoa (2016. urtea)

%53,6

Taulan ikus daitekeen bezala, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan, honako departamentuak dira Nafarroako Arartekoen ebazpenak hobekien hartzen dituztenak, aipatzen diren hurrenkeran: Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentua eta Garapen Ekonomikorako Departamentua. Ebazpenak okerren hartzen dituzten departamentuak, berriz, hurrenkera honetan ageri dira: Hezkuntza Departamentua eta Osasun Departamentua.

Toki-entitateen kasuan, Nafarroako Arartekoaren ebazpenak hobekien onartu dituztenak honakoak izan dira: Arangurengo Udala, Olite-Erriberriko Udala eta Eguesibarreko Udala. Ebazpenak okerrer hartzten dituzten toki-entitateak, berriz, hauek izan dira: Artajonako Udala, Cintruénigoko Udala eta Huarte-Uharteko Udala.


Txosten honetako V. kapituluari jasotzen da ikuskatutako administrazio publikoak Nafarroako Arartekoak eginiko gomendio, iradokizun edo legezko betebeharren gogorarazpenak onartu edo onartu ez dituen kexa-espeditenteei buruzko informazioa.

→ 2.8. KEXEN XEDEEN GUZTIZKO ONARPEN-MAILA. EFIZIENTZIA-INDIZEA

Aurreko atalean jada adierazi den ebazpenen onarpen-mailaz gain, kontuan izan behar da kexen xedeen guztizko onarpen-maila. Administrazioek ebazpenen % 53,6 onartzen dituzte; bestalde, kexen xedeen onarpen-mailak barne hartzen ditu Administrazioak onartutako Nafarroako Arartekoak emandako ebazpenei dagozkien kasuak, bai eta erakundearen esku-hartzearen ondorioz beren xedea lortuzat jotzen dituzten kexa-egileen kasuak; hori dela eta, xedeen onarpen-maila % 65,17koa da.

Ehuneko horren barnean sartzen dira 2016an emandako ebazpenen onarpenak eta 2015eko abenduaren 31ean erantzun gabe geratu ziren ebazpenen onarpenak. Halaber, ehuneko horretan sartzen dira Arartekoak ebazpen bat eman baino lehen Administrazioak bere jarduna zuzendu duen kasuak; hau da, erakundeak informazioa eskatuz soilik herritarraren arazoa konpondu duenean.

Erreklamatzailleak arrazoia duela jo diren kexak



→ 2.9. AURKEZTU DIREN KEXEN ZERRENDA ETA BANAKETA, GAIEN ARABERA

2016an aurkeztu ziren kexen kopurua beheko zerrendan ageri den moduan banatzen da, gaien arabera. Halaber, kexa horiek eragindako espedienteen kopurua ere bildu da zerrendan.

JARDUN ARLOAK	2016ko Kexak	
FUNTZIO PUBLIKOA	108	%13,01
GIZARTE ONGIZATEA	75	%9,04
HEZKUNTZA	70	%8,43
ENPLEGU PUBLIKOKO LANPOSTUETARA HELTZEA	65	%7,83
OSASUNA	50	%6,02
INGURUMENA	47	%5,66
OGASUNA	46	%5,54
HIRIGINTZA	42	%5,06
TRAFIKOA	35	%4,22
HERRITARREN SEGURTASUNA	35	%4,22
ETXEBIZITZA	33	%3,98
JUSTIZIA	32	%3,86
GIZARTE SEGURANTZA	24	%2,89
LANA	24	%2,89
ZERBITZU PUBLIKOAK	21	%2,53
ATZERRITARTASUNA	18	%2,17
EUSKARA	16	%1,93
GARDENTASUNA	13	%1,57
TOKI ENTITATEEN FUNTZIONAMENDUA	11	%1,33
HERRI LANAK	11	%1,33
KONTSUMOA	10	%1,20
KIROLA	8	%0,96
ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ONDARE-ERANTZUKIZUNA	7	%0,84
NEKAZARITZA	7	%0,84
ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ONDASUNAK	7	%0,84
KULTURA	6	%0,72
DATU PERTSONALAK BABESTEA	6	%0,72
TURISMOA	1	%0,12
HAUTESKUNDEAK. HAUTESKUNDE ADMINISTRAZIOA	1	%0,12
ZUZENBIDE ZIBILA	1	%0,12
GUZTIRA	830	%100,00

Zerrendan ikus daitezkeen bezala, **funtzio publikoa** izan da kexa gehien bildu dituen alorra. Izan ere, talde horrek kopuru osoaren % 13,01 hartzen du.

Bestalde, **gizarte-ongizateari** buruzko kexak dira bigarren ugariena, guztizkoaren % 9,04 hartzen baitute.

Hurrenkera horren arabera, hirugarren taldea **hezkuntzari** buruzko kexena da: kexa guztien % 8,43.

Hurrenkera horri jarraikiz, hurrengo taldea **enplegu publikoko lanpostuetara heltzeari** buruzko kexena da. Berdintasunez eta merezimendu- eta gaitasun-baldintza berberetan enplegu publikoren bat lortu nahi duten herritarrek ipinitako kexak biltzen dira talde horretan. Talde hori kexa-kopuru osoaren % 7,83 da.

Osasunari buruzko kexek osatzen dute bosgarren blokea; kexa guztien % 6,02 hartzen du bloke horrek.

Ingurumenari buruzko kexek seigarren taldea osatzen dute; zehazki, % 5,66 hartzen dute.

Ogasunari buruzko kexek seigarren taldea osatzen dute: guztizkoaren % 5,54.

Hurrengo taldean **hirigintzari** buruzko kexak ditugu, kexa horiek guztizkoaren % 5,06 izanik.

Bederatzigarrenak **zirkulazioari** eta **herritarren segurtasunari** buruzko kexak dira: bloke bakoitzak kexa guztien % 4,22 hartzen du.

Aurkeztu diren kexa guztien % 4 baino txikiagoak dira gainerako gaiei buruzko kexen ehuneak.

Herritarrek kexetan zer aldarrikatu duten hobeto azaltzeko, gaika antolatu ditugu kexak, aurreko urteetako txostenetan egin genuen bezala. Ez ditugu hemen aipatuko kexa horiek direla-eta erakunde honek egin dituen legezko betebeharren gogorazpenak, ezta iradokizunak eta gomendioak ere, txosten honen V. kapituluaren bilduta baitago informazio hori.

Informazio horrekin, herritarren planteatu dituzten kezkak eta arazoak ezagutarazi nahi dira, kasu zehatz bakoitzean zegokion erakundeak nola esku hartu zuen alde batera utzita.

Gaien aurkibidea alfabetikoki ordenatu da. Horrez gain, gai batzuetan gai-multzoak antolatu dira, informazioa hobeto antolatzeko. Halaber, kexen kopurua ere aipatzen dugu, arazo jakin bati buruzko kexak bat baino gehiago direnean.

2.9.1 Enplegu publikora iristea.

Aurreko urteetako txostenetan bezala, txosten honetan ere honako hauek bereizi ditugu: a) berdintasunez eta merezimendu- eta gaitasun-baldintza berberetan enplegu publikoren bat lortu nahi duten herritarrek aurkeztu dituzten kexen multzoa; b) jada enplegatu publikoak direnek Nafarroako administrazio publikoarekiko funtzionario- eta lan-harremanen arloan aurkeztu dituzten kexen kopurua.

Epigrafe honetan lehen kexa-multzoa azaldu dugu, eta «Enplegu publikoko lanpostuetara heltzea» deitu diogu. Zehazki, Konstituzioko 23. artikuluan ezarrita dagoen oinarritzko eskubideari erreferentzia egiten zaio; hau da, herritarrek eskubidea dutela, berdintasunez eta merezimendu- eta gaitasun-baldintza berberetan funtzio eta kargu publikoetara heltzeko.

2016. urtean, enplegu publikoko lanpostuetara heltzeari buruzko 65 kexa aurkeztu dira. Honako hauek dira kexen zergati nagusiak:

A) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoei dagokienez:

- Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoan sor daitezkeen premiak betetzeko, hautapropa bidez goi-mailako tituludunen lanpostuetarako izangaien bi zerrendatarako titulazio-baldintzak, deialdi baten

oinarrietan ezarriak, Laneko Zientzietako lizentzia ez baita hartzen kontuan baldintza horien barnean (8 kexa).

- Berdintasunez eta merezimendu- eta gaitasun-baldintza berberetan funtzio eta kargu publikoetara heltzeko eskubide konstituzionalak beharbada urratzea, administrazio publikoko teknikariaren lanpostuaren (adar juridikoa) aldi baterako kontrataziorako proba baterako deialdiaren oinarrietan ariketa baten irakurketa-sistema ezartzen baita (4 kexa).
- Osasun Departamentuak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan indarreko kontratazio-zerrenden lehentasun-ordena aldatzea, eta Nafarroako Foru Administrazioan lanean 15 urte eman dituztela frogatzen duten 55 urtetik gorako pertsonak lehentasuna dutela kentzea, legeak ezarritako prozedurari jarraitu gabe (2 kexa).
- Eskatutakoak baino maila altuagoko titulazioak dituzten pertsonak Nafarroako Gobernuko bi basozain-lanposturen deialdira aurkezteko aukeratik kanpo uztea.
- Bere lanpostuan sei urte eman dituen bitarteko irakasle bat ados ez egotea, ez delako nahikoa informazio eman Hezkuntza Departamentua egiten ari den lan-eskaintza publikoa nola geratuko den; izan ere, iragarritako oposizioetarako lau hilabete geratzen direla, oraindik ez da jakinarazi lanpostuak hizkuntzen arabera nola geratuko diren banatuta.
- Zaintzaile-lanposturako izangaien bi zerrendatarako deialdi baten kalifikazio-epaimahaiak hartutako erabakia; egindako probako bi galdera baliogabetzeko erabakia, hain zuzen ere.

- Ofizial administrariaren lanpostuetarako deialdi batean ezarritako irizpideak, merezimendu gisa Administrazio Publikoan lanean emandako urteak soilik zenbatzeagatik, eta ez enpresa pribatuetan lanean emandakoak.
- Osasun Departamentuak kexa aurkeztu duen pertsona ez txertatzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko administrari laguntzailearen lanpostuetarako argitaratutako oposizioari dagozkion aldi baterako kontratazioetarako zerrendetan.
- Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak gizarte-langileetarako oposizioari dagozkion plazarik gabeko gaituen aldi baterako kontratazioetarako zerrendetatik kanpo uztea.
- Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ez deitzea artxiboen erdi-mailako teknikariaren kontratazio-zerrendetara.
- Osasun Departamentuak zerbitzu orokorretako enplegatu bat aldi baterako kontratazioen azken lekura bidaltzea, iraupen luzeko kontratu bati uko egiteagatik.
- Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ez argitaratzea garraio-kudeaketako teknikariaren lanpostuetarako izangai-deialdi batean parte hartu zuten desgaituen izenak.
- Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak interesduna bidegabe zigortzea, interesdunari dagozkion aldi baterako kontratazioko zerrendetako lanpostuekin (administrazio publikoko teknikaria, adar ekonomikoa) bat ez zetorren eskaintza bati ezetz esateagatik.

- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zeladoreen kontratazio-zerrendan keza aurkeztu duen pertsonak baino lehentasun txikiagoa duten beste izangai batzuei deitzea, larrialdi-kausei helduta.
- Kalifikazio-epaimahai batek ez erantzutea erradiodiagnostikoko teknikari espezialistaren 13 lanpostu betetzeko oposizio-lehiaketako azterketa batean agertutako bi galderaren aurkarazteak berrikusteko eskabide bati.
- Hezkuntza Departamentua egiten ari den Foru Agindu baten zirriborroan enpresa-zuzendaritza eta -administrazioko lizentziadunak ez txertatzea; Foru Agindu horren bitartez, Hezkuntza Departamentuko aldi baterako irakasle-lanpostuetarako izangaien zerrendak kudeatzeko arauak onesten dira.
- Osasun Departamentua berandutzea zeladore-lanposturako oposizioetarako deialdia egitean, eta lanpostu horretarako kontratazio-zerrendetarako deialdietan desgaituek lehentasuna ez izatea.
- Hezkuntza Departamentuak ikastetxe publikoetako irakasleen enplegu-zerrendak antolatzeko modua; Lehen Hezkuntzako zerrenda bat eta Bigarren Hezkuntzako beste bat egon beharrean, beste autonomia-erkidegotan gertatzen den bezala, espezialitateen eta hizkuntzen arabera daude antolatuta zerrenda haiek.
- Hezkuntzako kontseilariak emandako apirilaren 29ko 5/2016 Foru Aginduak (Foru Agindu horrek onesten du zer arauen bidez kudeatu behar diren izangai zerrendak Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuan aldi baterako kontratuarekin irakasle lanpostuetan aritzeko) ziurgabetasun juridikoa sortzea zenbait manutan, funtzio eta kargu publikotara

heltzeko berdintasun-printzipioak urratzen dituztelako, zerrrenda eta baremo berriak direla-eta.

- Hezkuntza Departamentuak pedagogia terapeutikoko irakasle-ikasketarako oposizioetan desgaituek aukera-berdintasunerako duten eskubidea urratzea.
- Hezkuntza Departamentuak iraileko kontratazioetarako irakasle izangaiei ematen dien tratu diskriminatzailea, ez baitie uzten % 80tik beherako lanaldietarako kontratu-eskaintzei uko egitea, nahiz eta ekaineko kontratazioetarako irakasle izangaiei uzten dien.
- Kexa aurkeztu duen pertsonak ezin izatea Hezkuntza Departamentuaren Bigarren Hezkuntzako irakasleen kontratazio-zerrendetan (espezialitatea: Gorputz Hezkuntza) parte hartu, horretarako titulazioa badu ere.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen kontratazio-lehiaketarako eskabideak aurkezteko epeak laburregiak izatea.
- Osasun Departamentuak kexa aurkeztu duen pertsonari lanaldi osoko kontratazio-deialdirik ez egitea, enplegua hobetze aldera, horretarako baldintza guztiak betetzen baditu ere.
- Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren apirilaren 27ko 983/2015 Ebazpenaren bitartez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako kontratazio-zerrendetan desgaituen lehentasunari dagokionez txertatutako aldaketarekin ados ez egotea.
- Osasun Departamentuak ez betetzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zerbitzu berezi jakin

batzuetan langileak falta direneko edo errefortzuko langileak behar direneko estalduraren alorrean indarrean dagoen araudia.

- Hezkuntza Departamentuak ez iragartzea irakasleak ez diren langileen aldi baterako kontratazioko lanpostu hutsak esleitzeko ekitaldia; kexa aurkeztu duen pertsona zerrendetatik kanpo geratu zen iragarpen-falta horren ondorioz.
- Osasun Departamentuak ez zenbatzea, kontrataziorako, alor publikoan emandako zerbitzu gisa kexa aurkeztu duen pertsonak Bartzelonako ospitale batean lanean emandako denbora; horren eraginez, pertsona hark puntuazio baxuagoa izan zuen.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ez betetzea kontratatutako langileen % 7 desgaituak izateko betebeharra.
- Hezkuntza Departamentuak irakasleak ez dituen langileen (zehazki, atezainen) aldi baterako kontratazioetarako egindako deialdietan gertatutako irregulartasunak.
- Nafarroako Gobernuan irakasle-lanpostuetara heltzeko Boloniako planeko europar tituluak homologatu beharra.
- Ados ez egotea Hezkuntza Departamentuan aldi baterako irakasle-lanpostuetan aritzeko izangaien zerrendak zer arauen bidez kudeatu behar diren onartzeko hezkuntza-sailburuak emandako apirilaren 29ko 55/2016 Foru Agindua hura indarrean hasi baino lehen deitutako onarpen-prozedura selektibo bati aplikatzearekin.

- Hezkuntza Departamentuak ez erantzutea euskaraz Gorputz Hezkuntzaren espezialitateko kontratazio-zerrendetarako deialdi baten aurka webgunearen bitartez egindako eskabide bati.
- Hezkuntza Departamentuak ikastetxe publikoetan irakasleak kontratatzeko enplegu-zerrendak antolatzeko modua; antolaketa hori espezialitateen eta hizkuntzen araberakoa denez, euskara-titulua duten izangaiei kalte egiten die.
- Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak Suhiltzaileen Zerbitzuaren kidegorako oposiziorako egindako azken deialdien oinarrietan gai-zerrenda jakin bat ez txertatzea.

B) Nafarroako toki-entitateei dagokienez:

- Cascanteko Udalak peoiak kontratatzea, udalerrri horretako udal-agenteen plantillan sartzeko, lanpostu horri dagozkion eginkizunetarako.
- Eslavako, Ezproguiko, Sadako eta Lergako Udalen Batasunerako Idazkaritzako eta Esku-hartzeko aldi baterako bitarteko lanposturako deialdirik ez egitea; lanpostu hori hutsik dago 2012tik.
- Imotzeko Udalak berdinketa hausteko irizpide bat baliatzea administrazio-kontratazio baterako, deialdiaren oinarrietan irizpide hori aurreikusita ez bazegoen ere.
- Iruñeko Udalak ezartzea derrigorrezkoa dela gidabaimena izatea berdintasun-teknikariaren lanpostu baten aldi baterako kontrataziorako deialdian parte hartzeko, plantilla organikoan egon gabe.

- Iruñeko Udalak mikrobiologo-lanpostu baterako oposizio-lehiaketa baterako egindako deialdia; deialdi horretan, euskara merezimendu gisa balioesten da, baina ez lanbide-esperientzia, ezta prestakuntza espezializatua ere (2 kexa).
- Iruñeko Udalak hautaprobeen bitartez lorategi-zerbitzuen erdi-mailako tituludunaren lanpostu bat eta lorategi-zerbitzuburuaren lanpostu bat ezartzeko onetsitako deialdien oinarriekin bat ez etortzea, alde aurretik ezarritako izangai-kopuru jakin batek baino ez baitu bigarren probara aurkezteko aukera, lortutako kalifikazioen arabera.
- Kexa aurkeztu duen pertsonaren aurkako ekintza kaltegarriak, Iruñeko Udalerako partaidetza-teknikariaren lanposturako langileak hautatzeko prozedura batean mesede-tratua egon delako salaketa publiko bat egin ondoren.
- Tudelako Udalaren oposizio-lehiaketa baten deialdiaren oinarriekin bat ez etortzea, desgaituen eskubide den deialdi-lehentasunerako betebeharra ez dutelako islatzen.
- Kexa aurkeztu duen pertsonak Tudelako Udalean kontsumo-teknikari lanetarako zuen administrazio-kontratua (zerbitzu berezietako egoeran zegoen funtzionario bat ordeztuko kontratua) iraungitzea, Nafarroako Gobernuak Kontsumitzaileen Informaziorako Bulegoa bere gain hartu duelako.
- Eguesibarko Udalak udal-zerbitzuetarako bi enplegatu egitate-bidearen bitartez kontratatzea eta, horrenbestez, funtzio eta kargu publikoetara berdintasunez eta merezimendu- eta gaitasun-baldintza berberetan heltzeko printzipioak urratzea.

- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak eta Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak publikotasun-printzipioa behar bezala ez betetzea Nafarroako toki-entitateetako Idazkaritzako eta Esku-hartzeko funtzio publikoen presazko hautaprobetarako deialdietan.
- Udal baten oposizio baterako kalifikazio-epaimahaiak ezezkoa ematea kexa aurkeztu duen pertsonak azterketaren kopia bat eskatu zionean.
- Udal bateko zinegotzi batek agian ezin izatea parte hartu Nafarroako Gobernuko oposizio batean, bi kargu horiek bateraezinak izan litezkeelako.

2.9.2. Nekazaritza.

2016an, 7 kexa aurkeztu ziren nekazaritza- eta abeltzaintza-arloetan.

Honako gai hauek azaldu ziren kexa haietan:

- Nafarroako Ubideko sektore batean lurzatiak biltzeko prozedura batean esleitutako lurrekin ados ez egotea.
- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak ez egitea Nafarroako Ubidea zabaltzeko prozesuaren barnean Cárcarreko ureztatzaileen komunitateak zer interes dituen jakiteko inkestarik.
- Erriberriko Udalak lur-emakida bat iraungitzea, udalarekin zituen zor batzuk ez ordaintzeagatik.

- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak Nafarroako Ubideko XXIV. sektoreko lurzatiak biltzeko prozedura batean finka batzuk trukatzeko eskabide bat gaitzestea.
- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak 2015eko Erreserba Nazionaleko oinarrizko ordainketarako eskubideetarako eskabide bat ukatzea.
- Kexa aurkeztu duen pertsonak Latasan duen finkan gertatutako arazoak, finka mugakidearen egoera txarra dela eta.
- Kexa aurkeztu duen pertsonak Mendigorrian duen lurzattia etengabe istiltzea (Nafarroako Ubideko Gune Ureztagarrian dago lurzati hori), erretenak eta ur-iragazketak gaizki planifikatuta baitaude.

2.9.3. Gizarte-ongizatea.

Arlo honetan 75 kexa aurkeztu ziren. Honako hauek dira kexak aurkezteko zergati nagusiak:

A) Haurrak eta nerabeak babesteari dagokionez:

- Beloso Alto Behaketa- eta Harrera-zentroan erabilitako prozedurak, bertako adingabeen eta haien senideen eta ahaideen oinarrizko eskubideak errespetatzen ez direla baiteritzo kexa aurkeztu duenak.
- Foruzaingoak nola eramaten dituen Neurri Judizialak Beteazteko Zentroan dauden adingabeak: polizia-ibilgailu

errotulatu batean, agente uniformatuekin eta adingabeek eskuburdinak dituztela, presoak izango balira bezala.

- Eskubide Sozialetako Departamentuaren geldikeria, entitate itundu batek kudeatutako adingabeak babesteko zentro batean dagoen kudeaketa txarrari dagokionez.
- Iruñeko Udaleko gizarte-zerbitzuek kexa aurkeztu duen pertsonaren alabari deitzea gauzatu ez dituen egitate batzuegatik.
- Eskubide Sozialetako Departamentuak ez onartzea aitona-amonak batzuek iloba zaintzea; iloba adingabeen zentro batean dago, bere amak ez duelako behar bezala zaintzen.
- Nafarroako Foruzaingoa atzeratzea kexa jarri duen pertsonak bere semearen aitaren kontra ustezko sexu-abusuagatik ipinitako salaketa izapidetzean.
- Iruñeko Haurrei eta Nerabeei Arreta emateko Taldeak nahikoa informazio ez ematea bi gurasori haien seme-alabekin egiten ari diren esku-hartzeari dagokionez.
- Adingabe bat ados ez egotea Ilundain/Arangurengo Neurri Judizialak Betearazteko Zentroan jasotako arretarekin; zentro horretan jarraitzen du adingabeak.
- Nazioarteko adopzioen kudeaketarako elkarte batek (ECAI) diru gehiegi kobratzea adopzio-prozesu bat izapidetzeagatik.
- Eskubide Sozialetako Departamentuak iriztitakoarekin (kexa aurkeztu duenaren alaba babesgabetasun-egoeran dagoela) bat ez etortzea.

- Mendebaldea auzoko Familia-elkarguneko hezitzaileen jokabidea.
- Lau urteko adingabe baten adopziozko gurasoak ados ez egotea adopzioa baliogabetzen eta adingabearen eta haren ama biologikoaren arteko bisitaldi mailakatuak agintzen dituen epai batekin.
- Gizarte-zailtasuneko egoeran dauden adingabeentzako bizitoki bateko hezitzaileek bertakoei ematen dieten tratua; kexa aurkeztu duen pertsona bizitoki horretan dago sartuta.
- Ilundain/Arangurengo Neurri Judizialak Betearazteko Zentroaren funtzionamenduari ados ez egotea, ezta barneko bati Gabonak abegi-familiarekin igarotzeko baimena ukatzearekin ere.
- Behaketa- eta harrera-zentro batean kexa aurkeztu duen pertsonaren seme-ari emandako arreta.
- Telebista-kate batean joko-publizitatea ipintzea haur-ordutegian.
- Dibortziazatutako gurasoak dituzten adingabeen egoera.
- Adingabe batzuen babesgabetasun-egoera; kexa aurkeztu duen pertsonaren emazte-ohiak du haien zaintza.
- Espetxe batean dagoen guraso batek alaba ikusteko dituen zailtasunak; kexa aurkeztu duenaren alaba amarekin dago gaur egun, eta askotan ez du betetzen bisita-araubidea.

B) Gizarteratzeari eta gizarteratze-errentari dagokienez:

- Fundación Banco de Alimentos de Navarra erakundeak ezezkoa ematea kexa aurkeztu duen pertsonaren elkartearen familia pobreen elikagai-banatzailerak izateko aukerari.
- Eskubide Sozialetako Departamentuak gizarteratze-errenta ukatzea diru-laguntza hori izapidetzeko behar diren hilabeteetan.
- Eskubide Sozialetako Departamentua atzeratzea kexa aurkeztu duen pertsonari esleitu zaion gizarteratze-errenta ordaintzean.
- Eskubide Sozialetako Departamentuak herritar batek etxebizitza baten alokairua ez ordaintzeagatik zorrak kitatzeko eskatutako aparteko laguntzarako eskabidea ukatzea.
- Ados ez egotea Eskubide Sozialetako Departamentuak herritar bati gizarteratze-errenta gisa emandako zenbatekoarekin; zenbateko hori kalkulatzeko, gaur egun herritar horren etxebizitzan bizi ez diren beste pertsona batzuen diru-sarrerak hartu ditu kontuan Eskubide Sozialetako Departamentuak.
- Iruñeko Udaleko gizarte-laguntzaile batek ez izapidetzea gizarteratze-errentarako eskabide bat interesduna Nafarroan errolatuta egon ez zelako hilabete eta erdiko denbora-tartean.
- Iruñeko Udalak herritar baten semeak jasotzen duen gizarteratze-errenta bahitzea administrazio-zehapen bat duelako.

- Iruñeko Udala atzeratzea herritar bati haren auzo-unitatean hitzordu bat ematean gizarte-laguntzaile batekin.
- Ados ez egotea jatorriz nafarrak diren herritarrek ezinbestean frogatu beharrekin benetan bizi izan direla Nafarroan denbora-tarte jakin batean, gizarte-laguntzak jasotzeko aukera izateko.
- Eskubide Sozialetako Departamentua gehiegi berandutzea gizarteratze-errentaren ordainketan, hura berritu ondoren.
- Lizarrako Udalak ez erantzutea herritar batek banku-kontu bat bahitu zaiolako aurkeztutako errekurtsu bati; bahitura hori nahitaezko diru-bilketako espediente batean egin zen, herritar horren diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoak izanik.
- Gizarteratze-errenta batean errentaren bidegabeko kobrantzagatiko itzulketa-eskabidea.
- Ados ez egotea etxebizitzarik gabeko pertsonen arreta emateko zentro baten funtzionamenduari, kexa aurkeztu duen pertsonari lapurreta egin diotenean zentro horrek jarrera pasiboa izan duela eta langileen tratua egokia ez dela ere baiteritzo.
- Gizarteratze-errentaren kautelazko etetea, familia-unitateko kideren bat etxebizitzan bizi ez delako seinaleak daudelako.
- Herritar batek gastuei aurre egiteko laguntza ekonomikoren bat behar izatea, langabezian dagoelako.

- Kexa aurkeztu duenaren amak laguntza ekonomikoren bat behar izatea, ohiko lanbiderako ezintasun iraunkor osoagatik pentsio eskasa jasotzen duelako.
- Herritar baten etxebizitzan energia elektrikoa eten eta Zizur Nagusiko Udaleko gizarte-zerbitzuek izandako gelditasuna.
- Herritar baten egoera ekonomiko larria, dibortzio-egoera baten ondorioz hipoteka-gastuak dituelako eta mantenu-pentsio bat ordaindu behar dituelako.
- Azken urteotan Nafarroan miseriak, pobreziak eta gizarte-bazterkeriak gora egiteari buruzko instantzia bati ez erantzutea.

C) Adinez nagusien babesari dagokionez:

- Lumbierreko Udalak ez erantzutea herritar batek zaharren egoitzako psikogeriatria-zerbitzuan senide bat sartzeari buruz egindako bi instantziari.
- San Martín de Unxeko Udalak ez erantzutea udal-titulartasuneko zaharren egoitza baten kudeaketari buruzko instantzia bati.
- Eskubide Sozialetako Departamentua berandutzea kexa aurkeztu duenaren amari Iruñetik gertuko egoitzaren batean leku bat esleitzean; izan ere, pertsona hori betitik bizi izan da Iruñean, eta haren zaintzaileak ere udalerrri horretan bizi dira.
- Kexa aurkeztu duen arreba/ahizpa zaharren egoitza batean sartzearekin ados ez egotea, arazo ekonomikoak sortu

baitzitaizkion bertan, bai eta jazarpena sentiarazi zioten bestelako arazo batzuk ere.

- Herritar batek laguntza ekonomikoren bat behar izatea, alarguntza-pentsioaren osagarri gisa, dituen premiak betetzeko.
- Eskubide Sozialetako Departamentuak herritar batek kotizazio gabeko pentsio bat jasotzeko aurkeztutako eskabideari ezezkoa ematea, herritar horren baliabide ekonomikoek horretarako ezarrita dagoen gehienekoa gainditzen baitute, ez zaiolako deskontatzen bere emazte-ohiari ordaindu behar dion pentsio konpentsatzailea.
- Familian eta gizartean integratzeko laguntza laster iraungitzea, eraginpeko pertsonak diru-sarrera eskasak baditu ere.
- Eskubide Sozialetako Departamentuak zehapen-prozedura bat hastea San Martín de Unxeko zaharren egoitzaren kudeaketa-erakundearen aurka, ustez Nafarroako gizarte-zerbitzuak erregulatzeko araudian arau-huste larri bat egin duelako.
- Eskubide Sozialetako Departamentuak ez erantzutea keza aurkeztu duen pertsonak bere amari egoitza-zerbitzurako emandako prestazio ekonomikoa dela-eta aurkeztutako errekurso bati.
- Ados ez egotea Villafrancako Erretiratuen Klubaren kudeaketarekin.

D) Desgaituen babesari dagokionez:

- Kexa aurkeztu duen pertsonaren arrebahizpa (Fundación Navarra para la Tutela de las Personas Adultas erakundeak babestua) Complejo Hospitalario de Navarra gunean egon zenean erakunde horrek eman zion laguntza nahikoa ez izatea.
- Herritar baten etxebizitzatik gertu desgaituentzat dauden aparkaleku-plazetako ibilgailuak ez txandakatzea.
- Leríngo Udalak herritar bati ezezkoa ematea desgaituentzako aparkatzeko txartela eskatu zuenean.
- Eskubide Sozialetako Departamentuak herritar bati aitortu dion desgaitasun-mailarekin bat ez etortzea.
- Fundación Navarra para la Tutela de las Personas Adultas erakundeak gardentasunik ez izatea kexa aurkeztu duen pertsonaren baliabide ekonomikoak kudeatzean.
- Fundación Navarra para la Tutela de las Personas Adultas erakundeak herritar bati emandako tratua egokia ez izatea, haren legezko eskubideak eta interesak ez zaintzeagatik.
- Fundación Navarra para la Tutela de las Personas Adultas erakundeak nola ari den kudeatzen kexa aurkeztu duen pertsonaren amak (erakunde horren zaintzan dagoenak) duen etxebizitza.
- Kexa aurkeztu duen pertsonaren seme-ari gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako egoitza batean emandako arreta eta tratua.

E) Mendekotasuna duten pertsonen babesari dagokionez:

- Eskubide Sozialetako Departamentuak herritar bati ukatzea senideei zuzeneko eta etengabeko zaintza emateko eszedentzia hartzeagatik aldian behin ordaintzeko diru-laguntza, mendekotasuna duten pertsonentzako laguntzekin bateragarria ez dela irizteagatik.
- Eskubide Sozialetako Departamentuak hasitako itzulketa-prozedura, herritar baten seme autistari aitortutako laguntza ekonomikoari dagokionez (mendekotasuna duten pertsonentzako laguntza ekonomikoa beraien etxeetan bizi daitezen).
- Eskubide Sozialetako Departamentuak amaitutzat jotzea kexa aurkeztu duen pertsonaren aitarentzako laguntza aitortzeko prozedura, prestazioa aitortu baino lehen hil baitzen hura, sei hilabete igaro ez zirela laguntza eskatu zutenez gerotik.
- Eskubide Sozialetako Departamentuak kexa aurkeztu duen pertsonaren semea mendekotasuna duen pertsonatzat ez hartzea, desgaitasun fisiko eta psikiko baten ondorioz oinarrizko jardueretarako hirugarrenen laguntza behar badu ere.
- Eskubide Sozialetako Departamentua berandutzea herritar baten gurasoen (89 eta 87 urte) mendekotasunaren balorazioan.
- Mendekotasunaren kalifikazioa aldatu dela-eta, egoitzazerbitzuarekin lotutako diru-laguntza gutxitzea (mendekotasun larritik mendekotasun handira).

- Eskubide Sozialetako Departamentua berandutzea kexa aurkeztu duen pertsonaren amari dagokion mendekotasun-mailaren arabera jaso beharko lituzkeen diru-laguntzak erabakitzean.
- Eskubide Sozialetako Departamentua berandutzea kexa aurkeztu duen pertsonaren aitari egoitza publikoren batean leku bat esleitzean (gaixotasun mental larria du kexa aurkeztu duen pertsonaren aitak).

F) Familien babesari dagokionez:

- Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak ezezkoa ematea lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko laguntzari, interesdunaren ezkontideari prestakuntza-ekintza berberetatik laguntza hori eman zaiolako.
- Bi ezkontidez, bi seme-alaba biologikoz eta abegi-seme batez osatutako familia bati familia ugariaren aitortzea ukatzea adingabeak abegi-egoeran familia harekin emandako denbora-tarte guztian.
- Familia ugariaren titulua berritzea ezinezkoa izatea, familia atzerrian bizi delako aldi baterako.
- Guraso bakar batez eta bi seme-alabaz osatutako familiak familia ugaritzat ez jotzea, alargun batez eta bi seme-alabaz osatutako familiak ez bezala.
- Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ezezkoa ematea interesdunaren aitaren heriotzak eragindako zuztasunagatiko pentsioari.

G) Diskriminazioari dagokionez:

- Iruñeko El Corte Inglés merkataritzaguneak gizonetzkoen figurak baino ez erabiltzea haren fatxadan San Fermin jaien publizitatea egiteko.
- Nafarroako Gobernuak ez izatea LGTBI kolektiboari (lesbianak, gayak, bisexualak, transgeneroak eta intersexualak) arreta emateko sail espezifikorik.

2.9.4. Administrazio publikoetako ondasunak.

2016an, 7 kexa aurkeztu ziren administrazio publikoetako ondasunen alorrean. Honako eduki hauek zituzten kexa haiek:

- Beratsaingo Kontzejuaren gelditasuna bizilagun batek lurzati bat itxi zuenean eta horren ondorioz ibairako bidea desagertu eta herri-lurra murriztu zenean.
- Beratsaingo Kontzejua berandutzea mugarriak ipintzeko eta koordinatuak seinaleztatzeko lanetan, herri-lurzati bat mugatzeko.
- Esteribarko Udalak ez erantzutea Ilarrazko Kontzejuan gauzatutako mugatze-prozesuari buruzko informazioa jasotzeko eskabideei.
- Esteribarko Udaleko osoko bilkuran onetsitako erabakia, Ilarrazko antzinako Abadia bidea ofizioz leheneratzeko espedienteari hasiera emateko erabakia, hain zuzen.
- Marañoño Udalak ez erantzutea lehen komunala zen lurzati bat ixteari buruzko informazioa jasotzeko eskabideei.

- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak ez erantzutea Marañoño herri-ondasun baten inbasioari buruzko instantziei.
- Romanzadoko Udaleko gelditasuna bide publiko bat leheneratzeari dagokionez.

2.9.5. Merkataritza eta kontsumoa.

Alor horretan, 10 kexa aurkeztu dira 2016an, eta honako eduki izan dute kexa horiek:

- Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarte bat ados ez egotea Garapen Ekonomikorako Departamentuak Seat eta Wolksvagen marketako ibilgailuen motorrei buruzko salaketa baten espedientea lekualdatzearekin; izan ere, enpresa horien zerga-egoitza beste autonomia-erkidego batean dagoenez (Katalunian), autonomia-erkidego horretako kontsumo-zerbitzura lekualdatu du espediente hori Garapen Ekonomikorako Departamentuak, eta Nafarroako Foru Komunitateko kontsumitzaileen eskubideak babesteko betebeharra alde batera utzi duela deritzo kexa aurkeztu duen elkarteak.
- Tudelako saltoki batean kontsumitzaile bati erosketa-bale bat ez trukatzea iraungita dagoelako.
- Nafarroako kontsumitzaileen elkarte batek emandako zerbitzuarekin eta tratuarekin ados ez egotea.
- Garapen Ekonomikorako Departamentuko Kontsumo Zerbitzuaren erantzunean emandako arrazoiak nahikoak ez

izatea, zerbitzu horrek jokoarekin eta apustuarekin lotutako jardueretan esku hartzeari dagokionez.

- Telefono-konpainia batek igorritako faktura baten zenbatekoa gehiegizkoa izatea, kontsumitzaileari ez zaiolako alde aurretik jakinarazi zer tarifa aplikatu diren.
- Banku-entitate baten jardunarekin bat ez etortzea.
- Telefonia mugikorreko enpresa batek kontsumitzailearekin zuen kontratua deuseztatu ondoren ere diru-erreklamazioak egitea.
- Kontsumitzaileak bere hipotekaren aseguruia dela-eta ordaindu beharreko zenbatekoa gehiegizkoa izatea.
- Atzerriko banku-entitate batek herritar bati frogagiri bat eman diezaion lortzeko zailtasunak, Pamplonako Unibertsitateko (Kolonbia) matrikula bertan behera uztearen frogagiria, hain zuzen ere.
- Herritarrak beharbada babesgabetasun-egoeran egotea banku-entitateek ez dietelako uzten haiekin izandako elkarrizketak grabatzen eta, horrenbestez, ez delako jasota geratzen zer zerbitzu kontratatu dituzten.

2.9.6. Kultura.

Kultura-alorrean, 6 kexa aurkeztu dira 2016an, eta honako eduki izan dute kexa horiek:

- Iruña Okako (Araba) Iruña-Veleia aztarnategian ikertzeko laguntzarik ez egotea.

- Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboak ikertzaile bati ez ematea egiten ari den ikerketa historikorako eskatutako dokumentu batzuen kopia bat.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoko liburutegia eta Nafarroako gainerako liburutegi publikoak irekitzeko ordutegia nahikoa ez izatea.
- Vianako Printzea Erakundeak-Kultura Zuzendaritza Nagusiak (Nafarroako Gobernuak) zentro nazionaletan edo atzerrikoetan arte-ikasketak zabaltzeko sustatutako beketarako deialdian baliatutako irizpideak.
- Cendea de Cizurreko Udalak iriztea sinesmen-askatasunerako eskubidea urratzen ari dela azken aldian Nafarroan gauzatu diren hainbat ekintzaren bitartez.
- Kultura-zerbitzuetan diharduen enpresa bat ados ez egotea administrazio publikoen kontratazio-agirietako baldintza jakin batzuekin.

2.9.7. Kirola.

Arlo honetan 8 kexa aurkeztu ziren, eta honako eduki izan dute kexa horiek:

- Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak ezestea Nafarroako Futbol Federazioko presidenteari eta Nafarroako Futbol Epailen Batzorde Kudeatzailearen presidenteari diziplina-prozedura bat irekitzeko eskabide bat (2 kexa).

- Nafarroako Futbol Federazioak futbol-epaileen kategoriara heltzeko eta kategoria horri eusteko adin-baldintzarekin ados ez egotea.
- Nafarroako Futbol Epaileen Batzordeak kide bati erakunde horretatik baja emateko erabakiarekin ados ez egotea, kontuan hartuz eraginpeko pertsonak ez duela baja eskatu eta ez zaiola defendatzeko entzunaldi-izapiderik eman.
- Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean Nafarroako Kirol Justiziako Batzordea eta Kirol Diziplina arautzen dituen martxoaren 10eko 48/2003 Foru Dekretuak batzorde horretako kideen gehieneko agintaldi-kopururik ez ezartzearekin bat ez etortzea.
- Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak eta Nafarroako Futbol Federazioak erantzunik ez ematea kexa aurkeztu duen pertsonak aurkeztutako instantziei; instantzia horien bitartez, adinagatiko diskriminazio posiblea dela-eta futbol-epaileen estamentuan kirola egiteko federazio-lizentzia lortu ezin duela salatzen du pertsona horrek.
- Nafarroako Xake Federakundeak hartutako erabakiarekin ados ez egoteagatik kexa aurkeztu duen pertsonak Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeari aurkeztutako errekurtsuari ez erantzutea.
- Nafarroako Kirol Jokoen arduradunen gelditasuna erakundeko arduradun batek Open Diario de Navarra txirrindularitza-lasterketako parte-hartzaile adingabe bati emandako tratu iraingarria dela-eta egindako salaketa bati dagokionez.

2.9.8. Zuzenbide zibila.

Arlo horretan kexa bat aurkeztu zen, eta hau izan zen kexa horren edukia:

- Nafarroako Zuzenbide Zibilaren Bildumak bigarren aldiz ezkondata dagoen eta lehengo ezkontzako seme-alabak dituen testamentugilearen erabakitzeke ahalmenari mugak jartzea.

2.9.9. Hezkuntza.

Arlo honetan 70 kexa aurkeztu ziren. Honako hauek dira kexa horien arrazoi nagusiak:

A) Hezkuntza-antolaketa dagokionez:

- Mutiloko San Pedro ikastetxe publikoa zabaltzeko obrak nahikoak ez direla eta ikastetxeak beste eraikin bat behar duela irizteagatik obra horiek lizitatzea.
- Zenbait ikaslerentzat ezinezkoa izatea ingelesez eta gaztelaniaz ematen den ikaskuntza-programa batean (ele biko programa) jarraitzea bigarren hezkuntzan, lehen hezkuntzako etapan egin duten bezala.
- Hezkuntza Departamentuak ez erantzutea Noingo San Miguel ikastetxe publikoan Ingelesa Ikasteko Programa dagokion baimenik gabe txertatzeari buruzko informazioa jasotzeko eskabideei.

B) Haur Hezkuntzako lehenengo zikloari (0-3 urte) dagokionez:

- Iruñeko Udalak haur-eskoletan sartzeko ezarrita duen baremoarekin ados ez egotea, ezta zerbitzua jasotzeagatik ordaindu beharreko tarifak ezartzeko irizpideekin ere, guraso bakarreko familiak diskriminatu egiten dituela irizteagatik.
- Kexa aurkeztu duen pertsonaren alaba ez onartzea Sarrigurengo haur-eskolan.
- Iruñeko haur-eskola bateko zuzendaritza-taldearen gelditasuna kexa aurkeztu duen herritarraren bi urteko semeari (eskola horretako ikaslea) ikaskide batek egindako erasoei dagokienez.
- Nafarroako Administrazio Epaitegiak ez onartzea Uharteko haur-eskolako matrikularen zenbatekoa itzultzeari buruzko gora jotzeko errekurtsioan planteatutako uzi subsidiario bat.
- Murchanteko Udaleko 0-3 urteko haurrentzako eskolan zerbitzuaren kontratazioa zuzentzeko administrazio-klausula zehatzekin ados ez egotea, langileen subrogazioari dagokionez.

C) Ikastetxeetan ikasleak onartzeari dagokionez:

- Kexa aurkeztu duen pertsonaren semea ez onartzea ikastetxe publiko bateko G-British ereduan, behin-behineko zerrendetan onartu gisa ageri bazen ere.
- Kexa aurkeztu duen pertsonaren alaba ez onartzea Luis Amigó ikastetxeko 2016-2017 ikasturteko (3 urtekoentzako gela) behin-behineko zerrendetan.

- Ados ez egotea Hezkuntza Departamentuak Iruñeko Ermitagaña ikastetxe publikoko 2016-2017 ikasturterako lerro bat ixteko hartutako erabakiarekin, gurasoek seme-alaben ikastetxea erabakitzeko duten eskubidea urratzen duela irizteagatik.
- Padre Moret-Irubide BHIak ez onartzea kexa aurkeztu duen pertsonaren alabaren matrikulazioa, behin-behineko zerrendetan onartu gisa ageri bazen ere.
- Burlatako Askatasuna institutuan lekurik ez egotea Virgen Blanca ikastetxe publikoko ikasleentzat, ez baitzaie eutsi zeuden hiru lerroei.
- Ikastetxeen onarpen-baremoek guraso bakarreko familiak diskriminatzea.
- Hezkuntza Departamentuaren gardentasun-falta haur-hezkuntzako lehen ikasturtean behin-behinean izena emateko prozesuan.

D) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko laguntzari dagokionez:

- Hezkuntza Departamentuak neurririk ez hartzea arazo honi aurre egiteko: haur gorrentzako erreferentziazko ikastetxe batean, tutore batek ahoskera-faltarekin hitz egiten die ikasleei eta, horregatik, ikasleek ezin dute ondo ulertu hark esandakoa (2 kexa).
- Hezkuntza Departamentuak ezezkoa ematea kexa aurkeztu duen pertsonaren semeak eskolarako behar duen logopeda-zerbitzua ordaintzeko gastuari aurre egiteko diru-laguntzari.

- Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Hezkuntza Departamentuak ezezkoa ematea kexa aurkeztu duen pertsonaren lau urteko semeak behar duen logopeda-zerbitzuari; haurra ikastetxe pribatu batean dago eskolatuta eta nahasmendu bat du hizketaren garapenean.
- Hezkuntza Departamentuak ezezkoa ematea kexa aurkeztu duen pertsonak bere semeak (Down-en sindromea du) matrikulatuta dagoen ikastetxean ikasten jarraitzeko egindako eskaerari.
- Hezkuntza Departamentuak arretarik ez ematea kexa aurkeztu duen pertsonaren semeak (Asperger-en sindromea duen ikaslea) dituen hezkuntza-premiei.
- Kexa aurkeztu duen pertsonaren semea (hizkuntzaren nahasmendu espezifiko bat du diagnostikatuta) laguntzeko langilerik ez egotea eskola-jantokiko zerbitzuan.

E) Batxilergoari eta Lanbide Heziketari dagokienez:

- Ados ez egotea ikasleak Iturrama institutuko Arte Batxilergoan sartzeko baremoarekin, ikastetxetik gertu bizi diren ikasleak faboratzen dituelako (4 kexa).
- Ados ez egotea Donapea Ikastetxe Integratu Politeknikotik kanporatzeko zehapen batekin eta ikasleek egindako azterketak berrikusteko aukera ez izatea.
- Plaza de la Cruz institutuan Arte Eszenikoen Batxilergoan plaza gutxi egotea.
- Hezkuntza Ministerioa gehiegi berandutzea Batxilergoko titulu bat ematean.

- Kexa aurkeztu duen pertsonaren semea Virgen del Camino Ikastetxe Integratu Politeknikoan ez onartzea.
- Hezkuntza Departamentuak kexa aurkeztu duen pertsonari okerreko informazio ematea eta, horregatik, haren semea Centro Integrado Superior de Energías Renovables ikastetxean ez onartzea.
- Kexa aurkeztu duen pertsona ados ez egotea bere semea “Sistema Mikroinformatikoak eta Sareak” ikastaroan ez onartzearekin.
- Kexa aurkeztu duen pertsonaren 17 urteko alabak ezin izatea lanbide-heziketako ziklo batean sartu, leku libre bat geratzen bada ere.
- Donapea Ikastetxe Integratu Politeknikoan “Administrazio Zerbitzuak” lanbide-heziketako oinarrizko zikloa egiteko plazarik ez geratzea kexa aurkeztu duen semearentzat.
- Gau-ordutegiko lanbide-heziketako eskaintzatik ez egotea helduentzat.
- Ikastetxe baten jokabidea: Nafarroako Gobernuak babestuta, ofizialtasun-itxura duten lanbide-heziketako tituluak ematen ditu.
- Ikasle bati lantoki batean lanbide-heziketako ikastaroaren praktikak ematean berandutzea.

F) Eskola-garraioari, eskolta-jantokiari eta eskolaz kanpoko jardueri dagokienez:

- Kexa aurkeztu duen pertsonaren alabari eskola-garraiorako laguntza ukatzea; neska Aldatzen bizi da eta Leitzako Amazabal institutuan ikasten du.
- Vázquez de Mella ikastetxe publikoko eskola-jantokiko zerbitzua nola kudeatzen duen guraso-elkarteak.
- Kexa aurkeztu duen pertsonaren alabek Uharteko Udalak antolatutako eskolaz kanpoko jardueretan izena emateko dituzten zailtasunak, beste udalerrri batean bizi badira ere, Uharteko Virgen Blanca ikastetxe publikoan ikasten baitute (zonifikazioaren arabera, ikastetxe hori dagokie).

G) Eskola-bizikidetzari dagokionez:

- Bat ez etortzea Ilundaingo Haritz Berri Baserri-eskolatik ikasle bat kanporatzearekin.
 - Institutu baten gelditasuna, kexa aurkeztu duen semeak institutu horretan pairatzen duen jazarpena ikusirik.
 - Ikastetxe bateko zuzendariaren gelditasuna, zenbait irakaslek ikasle bati egindako jazarpenari dagokionez eta horrek ikasketak amaitzea oztopatzen diola kontuan hartuz.

H) Unibertsitate-ikasketei dagokienez:

- Nafarroako Unibertsitate Publikoak irakasgaiak baliozkotzeagatik tasa garestiegiak kobratzea.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoak ezezkoa ematea Ekonomiako Lizentzia lortzeko konpentsazioagatik

ebaluaziorako eskabide bati, interesdunaren egoera pertsonalak eta familiarrak kontuan hartu gabe.

- Ados ez egotea Nafarroako Unibertsitate Publikoak erizaintza-gradu batean ez onartzearekin.
- Herritar batek Frantzia egin zituen unibertsitate-ikasketen batez besteko noten baliokidetasun-dokumentu bat lortzeko izandako zailtasunak, herritarrak dokumentu hori enplegu publikoko zenbait deialdietan aurkeztu behar dituela kontuan izanik.

I) Bekei dagokienez:

- Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak herritar bati Batxilergoko bigarren mailarako beka-eskabide bat ukatzea, beka horretarako behar dena baino maila altuagoko titulua izateagatik (EGA: C1 euskara-maila).
- Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak 2014/2015 ikasturterako beka bat ukatzea, interesdunak beka horretarako baldintza guztiak betetzen baditu ere.
- Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak herritar baten alabari (erizaintza-ikaslea Nafarroako Unibertsitatean) beka bat ukatzea.
- UNED Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak ikasketa-beka bat ukatzea.
- Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak eta Hezkuntza Departamentuak herritar baten alabari ikasketa-beka baterako eskabidea ukatzea.

- Hezkuntza Departamentuak ikasketa-beka bat ukatzea, ezarritako errenta-maila gainditzeagatik, deialdiak ez baititu kontuan hartzen errenta-atalaseak desberdinak direla ikasleen bizilekuaren arabera.
- Ados ez egotea Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren beka-deialdiaren artikulua batekin; artikulua horren arabera, zenbateko aldagarriari (batez besteko nota eta familia-errenta) eta ikasketen matrikulari dagokion zatia baino ez zaio ematen ikasleari, ez zaio ematen, aldiz, bizilekuari dagokion zenbateko finkoa (1.500 euro), ezta ikaslearen errentari dagokiona ere (1.500 euro), aurreko urteetan ez-bezala.
- Bekarik ez ematea Batxilergoan ohorezko matrikula lortu duten eta atzerrian unibertsitate-ikasketak egingo dituzten ikasleei.
- Hezkuntza Departamentuak kexa aurkeztu duen pertsonari ezezkoa ematea haren alaben eskola-garraiorako beka bati, ikastetxetik gertuko etxebizitza bat duelako, nahiz eta etxebizitza horretan ezin duten bizi alokatuta dagoelako.
- 2016ko urriaren 20ko 725/2016 Ebazpenarekin (Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emana, unibertsitateko ikasketak eta derrigorrezko ikasketen ondoko unibertsitatez kanpoko ikasketak egiten dituzten ikasleendako beken deialdi orokorra onesten duena, 2016-2017 ikasturterako) ados ez egotea; izan ere, aldaketa nabarmenak ekarri ditu, aurreko urteetan emandakoekin alderatuz gero. Aldaketa horien ondorioz, beken onuradun izatea eskatzen duten Universidad de Navarra unibertsitatean matrikulatutako ikasleak diskriminatuta daude, eta errenta-tarte txikienetako ikasleentzako diru-kopurua % 34 murriztu da.

J) Musika-ikasketei dagokienez:

- Lizarrako Udal Musika Eskolak hurrengo ikasturterako tasak nabarmen igotzea.
- Zangozako Udalak Juan Francés de Iribarren Musika Eskolako ikasleei matrikulazio-tasa desberdinak aplikatzea ikasleak Zangozan bizi diren edo ez kontuan hartuz.

K) Hizkuntza-eskola ofizialei dagokienez:

- Hezkuntza Departamentuak euskara-maila ez aitortzea Batxilergo osorik euskaraz egin duten ikasleei, eta Iruñeko Hizkuntza Ofizialean ezinezkoa izatea C1 euskara-mailan ikasle ofizial gisa matrikulatzea eta azterketa egitea eta aldi berean B2 euskara-mailan ikasle libre gisa matrikulatzea eta azterketa egitea.

L) Ikasleen ebaluazioari dagokionez:

- Tudelako San Francisco Javier Ikastetxeak DBHko eta Batxilergoko ikasleei ez ematea ebaluazio bakoitza amaitu eta berehala errekupeazioak egiteko aukera.

2.9.10. Hauteskundeak.

Hauteskundeei dagokienez, kexa bat aurkeztu zen, eta honako eduki izan du kexa horrek:

- Herritar batek hauteskunde-mahaiko kide izatetik salbuetsia izateko egindako eskabidea ezestea.

2.9.11. Euskara.

Euskararen alorreko 16 kexa aurkeztu ziren, eta arazo hauek planteatu ziren kexa horietan:

- Hezkuntza Departamentuak beharbada euskarari buruzko araudia urratzea, maisu-maistren kidegoko gaztelaniazko espezialitatean sartzeko probak gaztelaniaz bakarrik egingo direla ezartzen baitu (2 kexa).
- Lekunberriko Udalaren erantzungailua soilik euskaraz egotearekin eta gaztelania baztertzearekin bat ez etortzea.
- Malerrekako Mankomunitateak dokumentu-sorta bat soilik euskaraz igortzea ele biko dokumentuak jasotzeko aukera baztertzea.
- Bat ez etortzea Iruñeko Udalak hartutako erabaki batekin; erabaki horren arabera, Iruñeko zenbait haur-eskolatan, zehazki Donibane, Printzearen Harresi eta Hello Rochapea haur-eskoletan, hizkuntza-eredua euskarazkoa izango da soilik (2 kexa).
- Zenbait guraso ados ez egotea Iruñeko Udalak hartutako erabaki batekin; erabaki horren arabera, Donibane Haur-eskolako hizkuntza-eredua aldatu egin da eta, horregatik, guraso horien seme-alabek ezin dute haurren eskolaratze-zikloa amaitu hasi zuten hizkuntza berean.
- Bat ez etortzea Iruñeko Udalak hiriko zenbait haur-eskolatan hizkuntza-eredua aldatzeko hartutako erabakiarekin.
- Iruñeko Udalak igorritako aparkamendu-salaketa bat soilik euskaraz idatzita egotea.

- Iruñeko Udalaren erroldatze-zerbitzuan ematen den zerga-egoitza aldatzeko eskabide-orria euskaraz idatzita ez egotea.
- Eskubide Sozialetako Departamentuaren mendeko haur-eskoletan euskarazko eskaintza nahikoa ez izatea.
- Bide-seinaleetan zenbait herriren euskarazko izenak akats ortografikoekin idatzita egotea: Lanz, etab.
- Nafarroako Gobernuko plantillan itzultzaile gutxiegi egotea.
- Telefono bidez euskaraz erantzutea nahi duten herritarrei erantzun desegokiak ematea zenbait funtzionarioik.
- Nafarroako Foru Komunitateak eta haren erakunde autonomoek euskararen balorazio eskasa egitea erizainen eta emaginen lanpostuak betetzeko deialdietako merezimendu-baremoetan sartzeko.

2.9.12. Atzerritartasuna.

Alor horretan, 18 kexa aurkeztu dira 2016an, eta honako eduki izan dute kexa horiek:

- Espainiako estatuan bizitzen hamaika urte baino gehiago daraman Algeriako herritar bat kanporatzeko aginduarekin ados ez egotea.
- Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendariordeztza Orokorrak esanbidez ez jakinaraztea bizilekuagatiko nazionalitatearen eskabide bat ukatu izana.
- Justizia Ministerioa berandutzea bizilekuagatiko nazionalitatearen eskabide batean.

- Justizia Ministerioa gehiegi berandutzea kexa aurkeztu duen pertsonaren emaztearen nazionalitate-espeditzea izapidetzean eta ebaztean.
- Justizia Ministerioa berandutzea herritar baten nazionalitate-eskabidean.
- Atzerritartasun-bulegoak (Gobernuaren Ordezkaritza Nafarroan) bizitoki-baimena ukatzearekin bat ez etortzea, sustraitze sozialagatiko salbuespenezko inguruabarrak direla medio.
- Ados ez egotea Espainiako nazionalitatea lortzeko ezagutza soziokulturalei eta gaztelaniari buruzko bi proba egin beharrearekin, kontuan izanik proba horiek 210 euro balio dutela.
- Justizia Ministerioa berandutzea kexa aurkeztu duen pertsonaren bikotekideak eskatutako bizitoki-baimena izapidetzean.
- Justizia Ministerioak iriztea kexa aurkeztu duen pertsonaren zazpi seme-alabetako bost lege-bizilekurik gabekoak direla, Senegalen jaio zirelako, nahiz eta sei urte daramaten Espainiako estatuan bizitzen.
- Justizia Ministerioak interesdunaren nazionalitate-espeditzea geldiaraztea.
- Espainiak Aljerian duen enbaxadak ez ematea kexa aurkeztu duen pertsonaren emaztearen bisaren izapidetzearen berri.
- Espainiak Qiton duen kontsuletxe nagusiak kexa aurkeztu duen pertsonaren senarra ez jotzea haren benetako

senartzat, ez baitute lotura hori eta ez baitira bikote egonkor bat.

- Kexa aurkeztu duen pertsonaren Espainiako nazionalitatea izapidetu duten modua eta eskabide jakin bati erreferentzia-zenbaki zehatzik ez ematea.
- Espainiak Aljerian duen kotsuletxe nagusiak kexa aurkeztu duen pertsonaren emazteari bisa bat ukatzea.
- Iruñeko Atzerritartasun-bulegoak ustez egindako zenbait irregulartasun, Atzerritarraren Identifikazio-zenbakia (AIZ) emateko baldintzei dagokienez.
- Atzerritartasun-bulegoak harrera-erregimenean dagoen haur bati hurrengo ikasturtean, jatorrizko herrialdean oporraldia igaro ondoren, Espainian eskolatuta jarraitzeko ezartzen dion baldintza.
- Herritar bati Espainiako nazionalitatea baliogabetzea, Nortasun Agiri Nazionala eta pasaportearen eman ondoren.
- Nafarroako Gobernuak ez erantzutea saharar herriaren babesgabetasun-egoerari buruzko instantzia bati.

2.9.13. Funtzio publikoa.

2016. urtean, enplegu publikoko lanpostuetara heltzeari buruzko 108 kexa aurkeztu ziren. Honako hauek dira kexen zergati nagusiak:

A) Funtzionarioen eskubide eta betebeharrei dagokienez:

- Cascanteko Udalak ez erantzutea herritar batek arazo pertsonalengatik opor- eta baimen-egun ordaindu batzuk hartzeko egindako eskabide bati.
- Iruñeko Udalak ezezkoa ematea herritar batek bigarren alabaren jaiotzagatik eskatutako edoskitze-baimen ordainduari.
- 2007az geroztik Iruñeko Udaleko langileen hitzarmena iraungita egotea, kexa aurkeztu duen sindikatuak etengabe egin baditu ere akordioaren bat lortzeko ahaleginak.
- Hezkuntza Departamentuak opor-egun gisa emandako egunak, aldi baterako ezintasuneko egoeran edo amatasunagatiko bajan emandako denbora-tartea hartutako egun gisa zenbatu ondoren.
- Hezkuntza Departamentuak isilbidez ezeztea kontratupeko langileei Gabonetako eta Aste Santuko eskolarik gabeko lanegunei dagozkien opor-egunak ordaintzeko eskabideak.
- Herritar bat ados ez egotea lan egiten duen ikastetxeko zuzendariak arazo pertsonaletarako egun bat hartzeko baimena ez ematearekin.
- Hezkuntza Departamentuak ez aitortzea herritar baten lan-bizitzan musika eta arte eszenikoko katedradunen kidegoan izandako lehen kontratua, ezta lau urteko denbora-tartean izandako zuzendaritza-kargua ere.
- Benjamín de Tudela institutuak ez erantzutea bertako langile batek ikastetxe horretan eta aldi berean Nafarroako

Unibertsitate Publikoan eskolak emateko egindako eskabideari.

- Hezkuntza Departamentuak emakumeak diskriminatzea, sindikatu-askapenerako irizpideei dagokienez.
- Hezkuntza Departamentuari atxikitako ikastetxeetako irakasleen eta laguntzaileen kontratuen gehieneko iraupena zehazten duen ekainaren 22ko 42/2016 Foru Dekretuarekin ados ez egotea, ikasturte osoan kontratu batekin baino gehiagorekin lan egiten duten irakasleak diskriminatzen dituelako, denbora-tarte horretan kontratu bakar batekin irakaskuntzan diharduten langileekin alderatuta.
- Hezkuntza Departamentuak irakasle bati arazo pertsonaletarako egun gisa zenbatzea ezkontza zibil batera lekuko gisa joateko hartutako egun bat, legezko betebehartzat jotzen baititu halako ekintzak.
- Hezkuntza Departamentuak atalburu izendatu duten langile bati oporretarako eskubidea ez aitortzea.
- Hezkuntza Departamentuak intimitaterako eskubidea urratzea, kontratazio-zerrenda batean langile batek ezkontzagatiko baimen ordaindua eskatu izana argitaratu baitzuen.
- Hezkuntza Departamentuak ez aitortzea langile batek arazo pertsonaletarako baimen-egun ordaindu batzuk hartzeko duen eskubidea, aldi baterako ezintasuna izan ondoren.
- Hezkuntza Departamentuak administrazio-kontratu kateatuak dituzten irakasleak ez jotzea lan-kontratu mugagabeak dituzten langile ez-finkotzat.

- Hezkuntza Departamentuak eta Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak finkatuta ez izatea guraso bakarreko familiek lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko arau egokirik.
- Nafarroako Gobernuko Dantza Eskolako musikari laguntzaileen lan-egoera.
- Hezkuntza Departamentuak ez aitortzea lan-denboratzat kontratupeko irakasleek etxearen eta esleitu zaien ikastetxearen arteko joan-etorrietan ematen duten denbora, lantoki finkorik ez badute ere.
- Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ez betetzea Nafarroako Foruzaingoko funtzioen jardueran laneko arriskuen prebentziorako arauak ezartzen dituen irailaren 13ko 55/2010 Foru Dekretua.
- Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak emandako ebazpena, administrazio publikoko teknikariaren lanpostua (adar juridikoa) eta sindikatu batean abokatutza-eginkizunak izatea bateraezin aitortzeko ebazpena, hain zuzen ere.
- Osasun Departamentuak ez izatea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko politika egokirik.
- Complejo Hospitalario de Navarra guneko Prebentzio-medikuntzako Zerbitzuan lan egiten duen mediku batek oporrik ez izatea aldi baterako ezintasuna dela eta.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko pediatria batek ordutegi-malgutasunik ez izatea lan-bizitza eta familia

bateragarri egiteko (sei seme-alaba ditu eta arratsaldeko lanaldia dauka).

- Sindikatu bat ados ez egotea osasun-langileen errelebo-denbora ez jotzearekin benetako lan-denboratzat.
- Nafarroako Udaltzaingoko laguntzaileek pairatzen duten lan-ezegonkortasuna eta apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legearen lehen xedapen gehigarriaren aurka konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsio bat aurkezteak eragin dien ziurgabetasun juridikoa.
- Medikuaren kontsultara joateko egunak arazo pertsonaletarako egun gisa zenbatzea.
- Herritar batek Zaragozako Udalean lan egin zuenean jasan zuen tratu iraingarria eta horrek izan zituen ondorioak: lanari uko egin behar izan zion, eta eginkizunak ez betetzeagatiko kaleratzeztat hartu zen dimisio hori.

B) Enplegatu publikoen ordainsariei dagokionez:

- Cintruénigoko Udalak ez aplikatzea Nafarroako Polizie buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duen apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legean aurreikusitako soldata-igoera herritar baten nomina zehaztean.
- Iruñeko Udalak ez ordaintzea, atzeraeraginezko ondorioekin, beste administrazio publiko batzuetako langileek aitortuta duten antzinatasun-osagarria.
- Iruñeko Udalak ez jakinaraztea 2010ean, 2011n eta 2012an hartu gabeko oporren likidazio xehatua.

- Atarrabiako Udalak isilbidez ezestea Udaltzaingoak udal-hauteskundeetan, hauteskunde autonomikoetan eta Europako Parlamenturako hauteskundeetan emandako zerbitzuagatiko baimen ordainduak eta konpentsazio ekonomikoak izateko egindako eskabidea.
- Hezkuntza Departamentuak ez ordaintzea aldi baterako administrazio-kontratua duten irakasleei iraungi gabeko udako hilabeteak (29 kexa).
- Hezkuntza Departamentuak legez ezarritako zenbatekoa baino kopuru txikiagoa ordaintzea irakasleen administrazio-kontratua amaitzean eta kitatzean, Gabonetako eta Aste Santuko egunak hartutako opor-egun gisa zenbatzeagatik (3 kexa).
- Hezkuntza Departamentuak eta Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ez ordaintzea, araudian ezarritako irizpideen arabera, Nafarroako Gobernuak deitutako hautaprobetarako epaimahaietan diharduten langileei.
- Hezkuntza Departamentuak uztaileko eta abuztuko ordainsariak ez ordaintzea ikasturte osoan lanean bost hilabete eta erditik gorako denbora-tartea eman duten irakasleei.
- Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan ekonomiako espezialitate didaktikoa duten irakasleek pairatzen duten diskriminazioa.
- Hezkuntza Departamentuak ez ordaintzea aldi baterako administrazio-kontratua duten irakasleei iraungi gabeko udako hilabeteak.

- Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak gradu-osagarria ez aitortzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako eta haren erakunde autonomoetako aldi baterako langileei.
- Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuaren jarrera diskriminatzailea, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuko Abeltzaintza Zerbitzuari atxikitako albaitariei arrisku bereziagatiko osagarria ez ordaintzeagatik.
- Herri-lanetako teknikariei ez aitortzea arrisku bereziagatiko osagarria.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako administrazio-kontratua duten langileei gradu-osagarria ez ordaintzea.
- Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak Nafarroako Gobernuari atxikitako enplegatu publikoei ez ordaintzea 2012ko aparteko pagaren zatia.
- Langile bati 2016ko ekaineko nomina murriztea, aldi berean soldatarik gabeko baimen bat eta aitatasunagatiko baimen bat hartu zituelako.
- Langile bati Uharteko Virgen Blanca ikastetxe publikoan dituen zereginengatik jasotzen duen irakasle zuzendariaren osagarria murriztea, lanaldi-murrizketa eman zaiolako.
- Osasun Departamentuaren gelditasuna Lizarrako García Orcoyen Ospitalean laneko arriskuen prebentzioaren alorrean dauden arazoei dagokienez: ospitale horretan

istripu bat gertatu bazen ere, ez da osasun-kontrolik egiten; gainera, ustez kantzerigenoak diren elementuen eraginpeko langileei ez zaie jarraipenik egiten.

- Sindikatu bat ados ez egotea bitarteko langileei eta langile lan-kontratudunei kalte-ordainak ez aitortzearekin kontratuak amaitu ondoren.
- Lanpostu huts bat betetzeko administrazio-kontratu bat iraungitzeagatik kalte-ordaina jasotzeko aukera.
- Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ez ebatzea herritar batek aurkeztutako gora jotzeko errekurtoa, funtzio publikoaren alorrekoa.

C) Lanpostuak emateari dagokionez:

- Iruñeko Udalak ez berritzea Herritarren Segurtasun eta Elkarbizitza Alorreko zerbitzu-eginkizunak.
- Hezkuntza Departamentuak master bat ez baloratzea Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatekoak ez diren irakasleen kidegoetako funtzionarioak autonomia-erkidegoan lekualdatzeko lehiaketan.
- Hezkuntza Departamentuak Nafarroako ikastetxe publikoetako zuzendaritzetan lanpostu hutsak betetzeko merezimenduen deialdirik ez egitea.
- Marcellako DBHko institutuan hutsik dauden lanpostuetarako aurreikuspena egitea, lekualdaketa-lehiaketaren hurrengo deialdian txertatzeko.

- Hezkuntza Departamentuak ezezkoa ematea atezain batek bere etxetik gertuago dagoen eta lanpostu huts bat duen institutu batera lekualdatzeko egindako eskabideari, lanbizitza eta familia bateragarri egiteko.
- Hezkuntza Departamentua gehiegi berandutzea herritar batek igorritako idazkiei erantzutean eta Tudelan IGko aholkulariaren lanpostu baterako deialdiko merezimenduen balorazioarekin lotutako dokumentazio jakin bat ematean.
- Complejo Hospitalario de Navarra guneko mediku batek ezin izatea Aragoiko Autonomia Erkidegora lekualdatu.
- Osasun Departamentuak herritar batek Tudelako Reina Sofia Ospitaleko langile gisa dituen eskubideak beharbada urratzea, barne-akoplamenduko prozesu batean adinaren irizpidea erabiltzeagatik bi izangairen arteko merezimenduberdinketa hausteko.
- Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak zerbitzu berezietarako soziologo gisa prestatzeko izangaien zerrenda bat osatzeko egindako deialdi batetik kanpo geratzea Osasun Departamentuaren mendeko erakunde autonomoei atxikitako langileak.
- Atalburu-lanpostu bat betetzeko hautapropa bat izapidetzeko prozesua berandutzea.
- Ados ez egotea jangelako zerbitzariaren lanpostu bat eta koordinazio-operadoreen zenbait lanpostu betetzeko funtzionarioak derrigorrean deitu beharrearekin.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan esparru bakar bat egotea lanpostuz igotzeko prozeduretara aurkezteko.

- Hezkuntza Departamentuak herritar bati Hizkuntza Zerbitzuko irakasle aholkulari tekniko gisa izan dituen eginkizunak zehazten dituen ziurtagiri bat eman beharra, Haroko Hizkuntza Eskola Ofizialeko (Errioxa) zuzendaritlanpostua lortzeko aukera izan dezan.

D) Eskubide pasiboei dagokienez:

- Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ez aitortzea montepio-erregimenari atxikita dauden Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio langileei amatasunagatiko osagarria pentsioetan.
- Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak herritar bati zurtasun-pentsioa iraungiaraztea, 22 urteko adin-muga gainditzeagatik, gizarte-segurantzaren antzeko erregimenean muga hori 25 urtekoa dela ezarrita badago ere.
- Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ez erantzutea herritar batek erretiro-pentsioaren zenbatekoa aldatzearen kontra aurkeztutako gora jotzeko errekursoari.
- Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak ebazpenik ez ematea Nafarroako Administrazio Publikoen Montepioetako funtzionarioak Osasun Sistema Nazionalean txertatzeko aurkeztu zen gora jotzeko errekursoari.

E) Diziplina-araubideari dagokionez:

- Cabanillaseko Udalak neurririk ez hartzea Udaleko zenbait langile pairatzen ari diren laneko jazarpena desagerrarazteko.
- Foruzaingoko Polizia Zientifikoko kideen lan-egoera, gaueko zaintza lokalizatuak egin behar baitituzte; kexa aurkeztu duten pertsoneri diziplina-espeditente bat ireki diete eta lanpostu-lekualdaketa derrigortua eragin die horrek.
- Hezkuntza Departamentuak ez babestea ustez laneko jazarpena jasan duen hezkuntza-ikuskatzaile bat.
- Barne Arazoetako Ministerioak neurririk ez hartzea herritar bat ustez Guardia Zibilean pairatzen ari den laneko jazarpenari aurre egiteko.
- Bigarren hezkuntzako institutu bateko zuzendariari eta Geografia eta Historiako Saileko buruari igorritako idazkiei ez erantzutea, eta Hezkuntza Ikuskaritzak ez jardutea herritar bati lankide batek alor jakin batzuen programazio espezifikuari buruz esandako hitz iraingarriak direla-eta.
- Zerga Administrazioako Estatu Agentziak herritar bati ez erantzutea lan-espeditentearen kopia oso bat eskatu zionean.
- Hezkuntza-ikuskatzaile batek lanean presioak jasatea eta beste batzuk bere lanean sartzea, eta Hezkuntza Departamentuak ez jardutea langile horrek ustez jasandako laneko jazarpena desagerrarazteko, horrelako kasuetan aplikatu behar den lan-prebentziorako araudia betetzen ez dela.

F) Sindikatuetan parte hartzea:

- Iruñeko Udalak ez betetzea sindikatu parte-hartzaileei 2016ko irailaren 29an Iruñeko Udalean egin zen sindikatu-hauteskundearen emaitzari buruzko aktaren berri emateko betebeharra.

2.9.14. Toki-entitateen funtzionamendua.

Alor horretan, 11 kexa aurkeztu dira 2016an, eta honako eduki izan dute kexa horiek:

- Bertizaranako Udalaren gelditasuna, herritar baten bizilekuan ageri den helbidea aldatzeko neurririk ez baitu hartu (ageri den helbidea ez dator bat Katastrokoarekin).
- Cabanillaseko Udaleko Herritarrari Arreta emateko Zerbitzuaren bitartez elkarbizitza-ziurtagiri bat ez ematea.
- Desojoko Udalak ez erantzutea kexa aurkeztu duen pertsonaren instantziei (udal horretako zinegotzia da kexa aurkeztu duen pertsona).
- Goizuetako Udalaren eskakizuna: izatezko bikote gisa erregistratzeko, udalerrin horretan erroldatuta egon behar du bikoteak ezinbestean.
- Larragako Udaleko osoko bilkurara bertaratu ziren zinegotziek ezezkoa ematea herritar batek osoko bilkura hura grabatzeko aukerari.
- Marcillako Udalak haur bat udalerrin horretan erroldatzea, guraso batek eskatuta, baina beste gurasoaren baimenik gabe.

- Murchanteko Udaleko osoko bilkurarik ez egitea eta udal-talde batek zailtasunak izatea Udaleko informazioa eskuratzeko.
- Iruñeko Udalak instantzia bati eta haren ondorengo errekurtsu bati ez erantzutea, eta Iruñeko Udaleko erregistroak izan lezakeen erantzukizuna Nafarroako Administrazio Epaitegira gora jotzeko errekurtsu hori ez helarazteagatik.
- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentua berandutzea Uitziko Kontzejuan batzorde kudeatzaile baten izendapenean.
- Ados ez egotea Valdizarbeko Mankomunitateak egindako kudeaketarekin.
- Valtierrako zentro zibikoaren artezkaritza-kontseiluak hura desegiteko aldebakarreko erabakia hartzea, erabiltzaileen biltzarrari erabaki horren berri aldeztatik eman gabe.

2.9.15. Ogasun publikoa.

2016. urtean, Ogasunarekin lotutako 46 kexa aurkeztu ziren.

Honako gai hauek dira kexetan azaldutako gai nagusiak:

A) Nafarroako Foru Ogasunaren tributuak:

- Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak ez erantzutea 2008, 2009 eta 2010 urteetako errenta-aitorpena berrikusteko eskaera bati.

- Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak erabakitzea 2014. urteko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenean inbertsio-irabaziak galtzeagatik hazkuntza aplikatzea.
- Nafarroako Zerga Ogasunak igorritako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpen-proposamena, 1.010 euro ordaindu behar dituelako 2015. urtean eginiko atxikipen urriengatik.
- Banku-erakundea aldatzearen ondorioz, babes ofizialeko etxebizitza bat erosteagatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan egokitu ahal izan zaizkion itzultzeak galtzea.
- Ogasuneko bulegoetan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena egiteko aurretiko hitzordua lortu ezin izatea.
- Emazte ohiari bere ohiko etxebizitzaren erdia emateko dohaintza Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan ondare-gehikuntzatzat jotzearekin ados ez egotea, eta Zerga Ogasunak ez onartzea bere egungo ohiko etxebizitzan berriz inbertitzeagatik salbuespena.
- Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga gisa kobratutako zenbatekoekin ados ez egotea.
- Nafarroako Zerga Ogasunak ez onartzea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan salbuespen bat ezartzea bere semearen gaixotasuna dela-eta Gizarte Segurantzak onartzen dion prestazioan.

- Nafarroako Zerga Ogasunak kontuan ez hartzea, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ez bezala, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan salbuetsita dagoela gaixotasun larria duen semeagatik jasotzen duen prestazioan.
- Nafarroako Zerga Ogasunak ez erantzutea 2014 ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenak (berrea eta bere semearena) berrikusteko eskaerari.
- Nafarroako Zerga Ogasunak ez erantzutea 2014 ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena berrikusteko eskaerari, lanerako ezintasun osoa onartu zaio eta.
- Nafarroako Zerga Ogasunak ez aplikatzea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren murrizketa, emazteari desgaitasuna aitortzeagatik.
- Funtzionarioen sindikatu batek kexa bat aurkeztu du Ogasuneko eta Finantza Politiketako Departamentuak afiliatuen PFEZen autolikidazioa zuzendu behar zelako, eta, ondorioz, amatasunagatiko prestazioak itzuli; izan ere, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiak berriki emandako epai baten arabera, salbuetsizat jotzen dira.
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenean, Nafarroako Zerga Ogasunak plusbaliotzat jotzea hipotekaren mailegu-kuotak ez ordaintzeagatik etxebizitza banku-erakunde bati eman izana.
- Konparaziozko bidegabekeria egon da zerga-arloan, enpresak likidatu ondoren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan bazkideek aitortutako ondarearen gehikuntzagatik.

- Nafarroako Zerga Ogasunak betekizun zorrotzak ezartzea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan laguntzadun pertsona bat izateagatik murrizketa aplikatzeko.
- Nafarroako Zerga Ogasunak ez erantzutea oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga likidatzeko dokumentuak aurkezteko epea luzatzeko eskaera bati.
- Nafarroako Zerga Ogasunak ez erantzutea oinordetzen zerga bat ordaintzeko eskaeraren aurka kexa-egilearen ezadostasuna dela-eta jarritako hainbat berraztertze-errekurtsori.
- Nafarroako Zerga Ogasuna hiru urte baino gehiago atzeratzea ondorengotzen zerga bat likidatzeari buruzko alegazio batzuen ebazpena emateko.
- Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak, Ondarearen gaineko Zerga kudeatzean, higiezin batzuk zenbatesteko erabili dituen irizpideak, azken urteotan higiezinaren balioek merkatuan izandako beherazko bilakaera kontuan ez hartzeagatik.
- Nafarroako Zerga Ogasunak ez erantzutea etxebizitza bat bestereantzegatik ondare-gehikuntzaren kalkuluari buruzko eta gehikuntza horren ondorioz ordaindu beharreko kuotari buruzko argibide-eskaera bati.
- Nafarroako Zerga Ogasunak ez itzultzea okerreko kobrantza bat.
- Zerga jakin batzuk aplikatzeko erabiltzen diren ibilgailuak eta itsasontziak saltzeko batez besteko prezioak onartzen dituen Zerga Ogasunaren araudian, zaldi-potentzia (ZP) neurri-unitate gisa erabiltzea potentzia kontuan hartzean.

- Administrazio publikoek ezartzen dituzten baldintzetan diskriminazio-egoera sortzea, zorduna enpresa handi bat edo banako herritar bat den aintzat hartzen baita.
- Nafarroako Zerga Ogasunak ez onartzea hogeita hamar urte baino gehiagoko zor baten ordainketa geroratzeko eskaera.
- Nafarroako Gobernuaren Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ez aldatzea kexa-egileak Artazuko industrialdean duen lurzatiaren zedula.
- Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak ez ematea entzuteko izapidea eta jendaurrean jartzeko izapidea Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak Lizarrako 1. poligonoko lurzati batean eginiko zenbatespenaren inguruan.

B) Toki tributua:

- Ablitaseko Udalak hiri-lurren gaineko zerga kobratu dio herri horretan dagoen etxebizitza bateko zatiaren jabeari (bere senarrak erosi zuen izatez bananduta zeudenean).
- Cintruenigoko Udalak bere etxebizitza saltzeagatik ordaindu beharko lukeen plusbalio-zergarekin ados ez egotea, lurraren balioan gehikuntzarik egon ez dela uste duelako.
- Corellako Udalak taberna baten jabeari 2016ko uda-garaian 13 mahaitxo jartzeagatik eskatutako prezio publikoa, eta emakidan kontuan hartu diren irizpideak.
- Lizarrako Udalak enbargoa egitea hiri-lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga ez ordaintzeagatik.

- Noaingo Udalak nabarmen handitzea terrazak eta mahaitxoak jartzeagatiko tasak.
- Iruñeko Udalaren premiamenduzko probidentzia, aurretiaz inolako zorrik jakinarazi gabe.
- Iruñeko Udalak ez erantzutea 2013 eta 2014 urteetako ibilgailuen zirkulazioaren gaineko zergaren zati proportzionala itzultzeko eskaera bati, 2013ko ekainean besterendu zelako.
- Iruñeko Udalak hiri-lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioa higiezin baten eskuratzailaieei igortzearekin ados ez egotea.
- Iruñeko Udaleko zergapekoen arretarako bulegoko langileek emandako tratua, eta jatorrizko dokumentu jakin batzuk aurkeztu behar izatea plusbalioaren gaineko zerga izapidetzeko.
- San Adriáneko Udalak 2016ko maiatzean saldu zen higiezin baten hiri-lurren gaineko zergaren bigarren seihilabetekoa ordaintzeko eskatzea.
- Uxueko Udalak ezarritako zenbateko finkoa eskatzea sareak berritzeko obrak (kaleak zolatzeko obrak barne) exekutatzeko zerga berezi gisa, higiezinaren azalera aintzat hartu gabe.
- Egueseko Udaleko idazkari batek emandako tratua jarduera ekonomikoaren gaineko zerga dela-eta jarritako gora jotzeko errekursoari ez erantzutearekin lotuta.
- Esako Udalak Esako etxebizitza bati dagokion hiri-lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga (plusbalioaren zerga)

ordaintzeko eskatzea. Ebroko Konfederazio Hidrografikoak desjabetu egin zuen, Esako urtegia berriz handitzearen ondorioz.

- Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak ez onartzea Nafarroako toki-erakundeen aurrekontuei buruzko informazioa eskuratzeko eskaera.

C) Zerga Administrazioiko Estatu Agentzia:

- Administrazio Publikoetako Ministerioak ez onartzea gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei aplika dakiekeen aldi baterako erregimenaren aplikazioa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 28ko 35/2006 Legeko bigarren xedapen iragankorrean jasotakoarekin bat (4 kexa).
- Enpresari txikiei energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga aplikatzearekin ados ez egotea, bi aldiz kargatzea dakarrelako eta diru-sarreraren gainean kalkulatu delako.

2.9.16. Justizia.

2016. urtean, justiziarekin lotutako 32 kexa aurkeztu ziren. Honako gai hauek dira kexetan azaldutako gai nagusiak:

A) Justizia Administrazioa:

- Ezgaitze judizialen prozesua izapidetzerakoan geroratzea.

- Justizia Ministerioaren geldikeria adingabeak premiazko eta berehalako egoeretan (batez ere gurasoen legez kontrako lapurretetan) defendatu ahal izateko epaitegiak sortzean.
- Iruñeko 2. zenbakiko Lehen Auzialdiko Epaitegiak emandako epaia gauzatzea, Murchanteko bi lurzatiren artean lerro banatzailea jartzeari buruzkoa.
- Epai judizialekin ados ez egotea, kamioilari gisa lanean emandako orduak ez zaizkiolako aitortu txartel digitaleko takografoaren bidez.
- Hainbat epai judizialekin ados ez egotea.
- Burlatako lokutorio bateko arduradunak bere senarrari demanda bat jartzea lesio-delitu batengatik, eraso eta tratu txarrak (salaketa jarri duenaren aldetik) berak eta bere senarrak jasan zituzten arren.
- Bidegabe geroratzea Auzitegi Nagusiko Lan Arloko Salari autoak ematean.
- Justizia Administrazioak behar ez bezala artxibatzea lokal bat erosteko mailegu bati buruzko salaketa bat.
- Epaitegiak kostu handia ezartzea Nafarroako Gobernuko abokatuen ordainsari gisa.
- Bidegabe geroratzea prozedura judizial batean.
- Nafarroako Parlamentuak erakunde adierazpena egitea. Horren bidez, bakearen eta bizikidetasunaren aldeko bere konpromisoa adierazten da, Altsasun eta Nafarroa osoan. Besteak beste adierazten du, epaileen erabakiak errespetatuta, ez dagoela ados ikertutako gertakariei

terrorismo-delituaren zigor-kalifikazioa ematearekin, auzipetutako gazteei zigor neurrigabeak bete behar izatea ekar baitiezaieke. Altsasu udalerrriari buruz zabaldu den irudi desitxuratuaren inguruan erabateko gaitzespena adierazten du, eta Adingabearen Defendatzaileari eskatzen dio hartu beharreko neurriak har ditzala, prozedura honek ukitutako bi adingabeen eskubideak errespeta daitezten.

- Ileanen froga egitea substantzia estupepazienteen kontsumorik egon den zehazteko, eta egin duen delituarengatik Fiskaltzak eskatutako zigorraren proportzionaltasun faltagatik.
- Bidegabe geroratzea Agoizko Instrukzioko Epaitegiak daraman prozedura judicial penalean.

B) Abokatuen eta abokatuen elkargoen jokabide profesionala:

- Iruñeko Abokatuen Elkargoak erabakitzea abokatu baten jokabidearen aurka jarritako kexa ez onartzea.
- Ados ez egotea Iruñeko Udaleko Emakumearen Arreta Zerbitzuko abokatu baten jokabidearekin, adiskidetzegintza baten kostuak eta ordainsariak bere kargu uztea eragin duelako.
- Nafarroako Notarioen Elkargoak ezezkoa ematea bere amari igorritako gonbidapen gutun batean kudeaketa desegokia egitearen ondorioz notarioari diziplina-espedita irekitzeko eskaerari.
- Tafallako Abokatuen Elkargoak ez erantzutea abokatu baten jokabidearekin ados ez zegoela adierazten zuen idazki bati.

- Abokatu batek epaiketa batean izandako jokabidea, ez zuelako onartu bere demanda, froga ugari aurkeztu zituen arren.
- Euskal Autonomia Erkidegoko notario baten jokabidearekin ados ez egotea, oinordekotza onartzeko eskrituran akats bat egin zuelako.

C) Doako laguntza juridikoa:

- Kasu bat defendatzeko izendatutako abokatuaren jokabidea.
- Ofizioz izendatutako abokatuak doako laguntza juridikoa ez onartzeko ebazpena, defendatu beharrekoa defendaezina delako.
- Tuterako Abokatuen Elkargoak ez erantzutea ofizioz izendatutako abokatu batek eginiko txostenari, defendaezina delako. Izan ere, bere aurreko abokatuaren aurka kalte-galeren erreklamazioaren prozedura martxan jarri nahi du, bere interesak defendatzean jokabide akastuna izan duelako.
- Doako laguntza juridikoaren onuradun gisa egokitu zitzaion abokatu baten jokabidea.
- Prokuradore bati emandako faktura, doako laguntza juridikoaren onura aitortzeko prozesuan esku hartzeagatik.

D) Erregistro Zibila:

- Erregistro Zibila atzeratzea Senegalen hango herritar batekin eginiko ezkontzaren inskripzioan.

- Mañerun ustezko hitzarmenezko ezkontza egitea.
- Tuterako Jabetzaren Erregistroa geroratzea higiezin bat inskribatzean.

2.9.17. Ingurumena.

2016. urtean, ingurumenarekin lotutako 47 kexa aurkeztu ziren. Kexetan azaldutako egitate nagusiak honako hauek izan ziren:

A) Kutsadura akustikoa edo zaratak:

- Abartzuzako Udalaren geldikeria aisialdi- eta gastronomia-elkarte batek apartamentu turistikoen negozioan eragiten dizkion zaraten arazoa konpontzeko, Foruzaingoak eta GANASA sozietate publikoak eginiko gomendioak aintzat hartu gabe.
- Arangurengo Udalak ez erantzutea enpresa batek pantaila akustikoa jartzeko baimen-eskaerari. Pantaila hori jarri nahi du enpresaren jarduera industrialaren ondorioz, enpresatik gertu dauden etxebizitzetako auzokideek jasaten dituzten eragozpenak arintzeko.
- Arguedaseko Udalaren geldikeria garagardotegi bateko zaraten ondorioz eragindako eragozpenak direla-eta jarritako salaketa batean.
- Arguedaseko auzokide baten bost txakurren etengabeko zaunkek eragindako eragozpenak.

- Berriozarreko etxebizitzaren beheko solairuan dagoen tabernatik ateratzen den zaratak eragiten dituen eragozpenak.
- Caparrosoko Udalak neurririk ez hartzea gozoki-saltzaile batzuek egiten duten zarataren ondorioz bere etxebizitzan eragiten dituzten eragozpenen aurrean.
- Corellako Udalaren geldikeria taberna bateko keak, gasek eta usainek eragiten dituzten eragozpenen aurrean.
- Deikaztelun, etxebizitza bateko beheko pisuan dagoen tabernatik ateratzen den zaratak eragindako eragozpenak. Tabernak ez du betetzen irekitzeko eta ixteko ordutegiei buruzko araudia.
- Mendabiako Udalean elkartzeko zentro gisa erabiltzeko aisialdirako lokal iraunkorrak eta aldi baterakoak arautzen dituen ordenantzarekin ados ez egotea, Konstituzioan ezarritako elkartzeko eskubidea urratu daitekeelakoan.
- Iruñeko Udalaren geldikeria gazteen etxabeko zaratek bere etxebizitzan eragiten dituen zarata-arazoak konpontzeko.
- Iruñeko Udalak ez erantzutea Iruñeko San Gregorio kaleko zenbait saltokik eragiten dituzten zarata-eragozpenekin loturiko eskabide batzuei.
- Iruñeko kale batean zabor-kamioiek gaueko ordutegian eragiten dituzten zaratak.
- Iruñeko Udalak gaixotasun mentala diagnostikatuta duen pertsona bati etxe barruko zaratak direla-eta jarritako zigor batekin ados ez egotea.

- Iruñeko Udalak neurririk ez hartzea taberna batetik bere etxebizitza batera iristen den usain-iragazketaren arazoa konpontzeko.
- Iruñeko Udalak ez erantzutea bere etxebizitzatik oso hurbil txakurrak aske ibiltzeko zonalde batetik datozen txakurzaunkek eragiten dizkieten eragozpenak direla-eta aurkeztutako eskabideari.
- Tuterako Udalak neurri egokirik ez hartzea auzokide batek etxabetik datorren zarataren arazoari aurre egiteko.
- Zizur Nagusiko etxebizitza baten ondoko plazan dagoen taberna bateko jarduerak eragozpenak eragitea.
- Landa Garapen, Ingurumen eta Tokiko Administrazio Departamentuak eta Aranguren Haraneko Udalak neurririk ez hartzea etxebizitza batzuetatik gertu dagoen lantegi batek eragiten dituen zarata-arazoarekin amaitzeko.
- Landa Garapen, Ingurumen eta Tokiko Administrazio Departamentuaren geldikeria etxebizitza batetik gertu dagoen lantegi batek sortzen dituen zarata eta bibrazioengatik eragindako eragozpenak konpontzeko, nahiz eta enpresak baimendutako ordutegitik kanpo jarduera egiten duela frogatzen duen polizia-txostena egon.

B) Ingurumenaren babesa:

- Berbintzanako Udalak eskatzea bere jabetzako zuhaitz baten adarrak moztea, adarrak bide publikoan sartzen dira eta.

- Atarrabiako Udalak ez erantzutea Ultzama ibaian eginiko jarduketa-proiektu bati buruzko ingurumen-azterketaren kopia baten eskaerari.
- Atarrabiako Udalak ez erantzutea Ultzama ibaian eginiko jarduketa-proiektu baten ingurumen-arloko informazioa eskuratzeko eskaera bati.
- Arga ibaiko hondakin-urak San Andres (Iruñea) errotaren parean isurtzea.
- Elkarte ekologista bat ados ez egotea Lokizko akuiferotik ura atzeko putzu berriak eraikitzearekin, ez dagoelako Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren baimenik ez emakidarik.
- Landa Garapen, Ingurumen eta Tokiko Administrazio Departamentuak basogintzarako laguntzak emateko dokumentazioa eskatzea. Dokumentuak aplikazio baten bidez aurkeztu behar dira, hamar egun balioduneko epean, baina aplikazioa bost egunetan baino ez egon erabilgarri.
- Landa Garapen, Ingurumen eta Tokiko Administrazio Departamentuak ez erantzutea Urbasa-Andian legezko kanpoko harrobi bat egoteagatik jarritako salaketa bati.
- Landa Garapen, Ingurumen eta Tokiko Administrazio Departamentuak ez erantzutea elkarte ekologista batek eginiko informazio-eskaerari. Eskaera uretan lindano substantzia egotearekin lotuta zegoen.
- Administrazio publikoek ingurumen egokia izateko eskubidea urratzearekin lotuta eginiko eskaera bati ez erantzutea.

C) Fauna babestea eta ehiza:

- Ingurumen-informaziorako bi eskabideri ez erantzutea. Nafarroako parke eolikoetan izandako hildakoekin eta hildako kopuru horren ondorioz sartutako bi aldaketekin du zerikusia (2 kexa).
- Landa Garapen, Ingurumen eta Tokiko Administrazio Departamentuak ez erantzutea Fiteroko udal-mugaratean dauden instalazio batzuekin loturiko informazio-eskaerari. Instalazio horiek harraparien zentro eta landetxe-eskola gisa jakitera ematen da (2 kexa).
- Artaxonako Udalak ez erantzutea aurretiaz aurkeztutako salaketa batean Udalak erabilitako irizpidearekiko desadostasuna adierazten duen eskabide bati. Salaketa jarri zuen herri horretako finka batean animalien aurkako tratu txarrak gertatzen ari zirelako.
- Fiteroko Udalak udalerriko ehiza-barrutian ehizatzeo baimena ez ematea.
- Iruñeko txakurtegi batera animaliak adoptatzera joatea ezinezkoa izatea, txakurtegiaren inguruan egiten ari diren urbanizazio-obra batzuen ondorioz.
- Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak ez onartzea zikoina zurien habiak kentzeko eta egokitzeko baimen-eskaera.
- Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak informaziorik ez ematea zikoina zurien habietan jarduketak egiteko emandako administrazio-baimenei buruzko informazio-eskaera batean.

- Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak zigorra ezartzea Basoko fauna eta habitatak babesteko eta kudeatzeko foru legean tipifikatuta dagoen arau-hauste arin bat hausteagatik, arau-haustea preskribatu egin dela uste duelako.
- Landa Garapen, Ingurumen eta Tokiko Administrazio Departamentuko Abeltzaintza Zerbitzuak ez erantzutea animalien aurkako tratu txarrei buruzko informazio-eskaera bati. Eskaera elkarte ekologista batek egin du.
- Txaleten urbanizazio bateko lorategi batean oiloak izatearekin ados ez egotea, arratoiak ugaritu egiten dira eta.

D) Jarduerak eta lizentziak:

- Altsasuko herritarrak alde zaharrea beilatokia eraikitzearekin ados ez egotea.
- Etxejabeen elkarte bat ados ez egotea Etxarri Aranatzeko hirigunean, haien etxebizitzan azpian, eraikitzen ari diren beilatokiaren kokagunearekin.
- Fiteroko Udalak ez garbitzea etxebizitza baten ondoan herriko jaietarako aldi baterako jarri duten ukuilua, usain-arazo larriak eragiten dizkio eta.
- Uharten bizitegi-eraikin bateko etxabeetan beilatokia instalatzea.
- Iruñeko Txantrea auzoko eraikin bateko etxabeetan beilatokia eraikitzea.

- Etxebizitza baten inguruan telefono mugikorren antenak berriz jartzea, kontuan hartuta inguruko herritarren osasunerako kaltegarria dela.
- Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Justizia eta Barne Departamentuak jarduera-aldaketa bat eskatzen denean suteen aurka babesteko araudia betetzearekin loturiko dokumentazioa aurkezteko eskatzea, dokumentazio hori dagoeneko aipatutako Departamentuak izan arren.

2.9.18. Herri lanak.

2016. urtean, 11 kexa aurkeztu ziren arlo hau dela eta. Honako hau da haien edukia:

- Berako Udalak ez erantzutea bere etxebizitzara sartzeko pista konpontzeko obrak egiteko eskaerei.
- Cascanteko olio-errota batera sartzeko bidea eraikitzea. Eraikuntza-lan horretarako, kexa aurkeztu duenaren jabetzako lurzatiaren zati bat okupatu da.
- Oliteko plazan, herriko jaietan, karpa bat jartzeagatik herritarrei eragindako eragozpenak eta kalteak.
- Jurramendiko Mankomunitateak ez konpontzea Carcarko ur beltzen hodi batek duen jarria.
- Iruñeko Udalak ez egitea oinezkoentzako pasabidea Orkoiendik hiltegiraino dagoen aldapan.

- Zoladura jartzeko eta galtzada eta espaloiak egokitzeko obra batzuen ondorioz garaje batzuetara sartzeko zailtasunak Bianan.
- Garapen Ekonomikoko Departamentuak A12 Autobidean etengabe egiten dituen mantentze-lanek trafikoan etengabe eragozpenak eragitea.
- Garapen Ekonomikoa Departamentuak ez ikuskatzea egoera txarrean dagoen jatetxe bateko gas-hodi bat.
- Neurritz kanpoko eskakizunak egitea herri-lanen kontratueterako sarbidea izateko, enpresa txikien parte-hartzea eragozten dute eta.
- Iruñeko Eskualdeko Mankomunitateak hitzarmen baten zirriborroa igorri du Izarbeibar hornitzeko instalazioak handitzeko. Legardan etxebizitza eraikitzeke sinatu behar da.
- Baztango udalak behar diren neurriak ez hartzea Erratzuko Kontzejuko baserri baterako bidea egokitzeko.

2.9.19. Datu pertsonalen babesa.

Arlo honetan, 6 kexa aurkeztu ziren. Honako hau da haien edukia:

- Bere datu pertsonalak alderdi politikoei hauteskunde-kanpainan erabiltzeko ematearekin ados ez egotea.
- Emakidadun batek ez ematea erosi duen bigarren eskuko ibilgailuaren datu batzuk. Horretarako, datuak babesteko araudia alegatu du.

- Nafarroako Foruzaingoko artxibo eta erregistroetan dauden polizia-aurrekariak baliogabetzeko eskaera ez onartzea.
- Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Justizia eta Barne Departamentuak ez onartzea polizia-aurrekariak baliogabetzeko eskaera.
- Trafiko Zuzendaritza Nagusiak ez erantzutea Gidarien eta Arau-hausleen Erregistroko oharrak baliogabetzeko eskaera bati.
- Prentsa idatzian bere adingabeko semearen datu pertsonalak argitaratzea, horretarako baimenik eman gabe. Datu horiek eskolan eginiko ekintza batetik eskuratu dira.

2.9.20. Administrazio Publikoen Ondare-erantzukizuna.

2016. urtean, 7 kexa aurkeztu ziren administrazio publikoen ondare-erantzukizunarekin lotuta. Honako hau izan da haien edukia:

- Iruñeko Udalak ez onartzea ondare-erantzukizunaren eskaera bat, baldosak eta galtzada-harriak egoera txarrean egotearen ondorioz bide publikoan izandako erorketek eragindako kalteengatik (2 kexa).
- Hezkuntza Departamentuak zenbateko eskasa aitortzea kontratazio-zerrenda bat martxan jartzeko atzerapenaren ondorioz jaso ez dituen ordainsariengatik jarritako ondare-erantzukizunaren erreklamazio gisa.
- Gizarte Eskubideen Departamentuak ez onartzea ondare-erantzukizunaren erreklamazio bat, bere amak hirugarren adineko egoitza bateko egoiliar gisa jasandako kalteengatik.

- Iruñeko Eskualdeko Mankomunitateak bere gain ez hartzea garraio publikoaren erabiltzaile batek izandako kalteen gaineko erantzukizuna.
- Eskubide Sozialetako Departamentuaren geldikeria bere etxebizitzan Behatoki eta Harrera Zentro (BHZ) batetik ihes egin duen adingabeak etxean egin dizkion kalteen erantzukizunak zehaztean.
- Iruñeko Eskualdeko Mankomunitateak bere gain ez hartzea ur-isuri baten gaineko erantzukizuna. Isuri horrek ondorio larriak izan ditu, kontagailuak oso maiztasun gutxirekin aztertu direlako.

2.9.21. Osasuna.

2016. urtean, osasunarekin lotutako 50 keza aurkeztu ziren. Honakoak izan ziren azaldutako egitate nagusiak:

A) Arreta espezializatua:

- Tuterako Reina Sofia Ospitaleko Errehabilitazio Zerbitzuan arreta jasotzeko itzarote-zerrenda.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua gehiegi geroratzea oftalmologiako ebakuntza kirurgikoa egiten.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua geroratzea bere ahizpari ebakuntza kirurgikoa egiten.
- Osasun Departamentuak bere senarrari medikua aldatzea erabakitzea. Hainbat gaixotasun kroniko ditu, eta Ubarmin

Klinikako Barne Medikuntzaren zerbitzutik Erreumatologia zerbitzura aldatuko dute.

- Bere alabak Endokrinologia Pediatrikoaren Zerbitzuan arreta jasotzeko geroratzea.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Errehabilitazio Zerbitzuan arreta jasotzeko geroratzea.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Erradiologia Zerbitzua erradiologia-txosten bat egiten geroratzea.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak jarraitu duen prozedura lehentasunez Urologia Zerbitzuan kontsulta bat formalizatzeko.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua meniskoko ebakuntza kirurgikoa egiten geroratzea.
- Errehabilitazio zerbitzuan arreta jasotzen geroratzea.
- Ekografia bat egiteko hitzordua emateko geroratzea.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Genero Identitatearen Nahasmendu Unitatearen kudeaketa, eta Iruñeko Erregistro Zibilean izena aldatu ahal izateko bi urte tratamendu hormonalean egoteko betebeharra ezartzea.

B) Jasotako arreta klinikoa eta harekiko desadostasuna:

- Osasun Departamentuak informazio jakin bat ez ematea emandako medikazioaren inguruan.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak emandako osasun arretarekin ados ez egotea, asistentzia-prozesuan

hainbat hitzordu eta ebakuntza bertan behera geratu direlako.

- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ebakuntza ez egitea, min handia izan arren.
- Gogoz kontra Psikiatria Unitatera eraman zuten foruzainek emandako tratua, eta Unitate horretan egin zizkioten immobilizazioak.
- Bere amari 112 zerbitzuan emandako osasun arreta.
- Kirurgia Ortopedikoaren eta Traumatologiaren Zerbitzuan medikua aldatzean geroratzea, eta ospitalean ingresatuta egon bitartean jasotako tratuarekin ados ez egotea.
- Nafarroako Ospitaleko Errehabilitazio Zerbitzura programatutako lekualdaketa batean anbulantziek eta suhiltzaileek emandako tratua.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko mediku baten jokabide arduragabea bere alaba jaiotzean, horren ondorioz, haurrak ezkerreko begiko ikusmena galdu du eta.
- Medikuek eginiko medikamentuaren preskripzioa, kexa-egilearen iritziz medikuntza-arazo ugari eragin dizkiolako.
- San Juaneko Osasun Mentaleko Zentroko pazienteak den bere semearekin (adin nagusikoa) emandako tratamendu farmakologikoa.
- Lizarrako Eskualdeko Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuan gaixo kroniko bati emandako medikuntza-arreta.

- Nafarroako Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuak emandako arreta.
- Zure semea ospitalera eramateko zerbitzuan familia-medikuak eta anbulantzien taldeak emandako tratua.
- Larrialdi Zerbitzuan jasotako arreta.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua geroratzea daukan gaixotasunaren diagnostikoa ematen.
- Mediku batek emandako tratua, eta ondoren, jasotako tratuengatik aurkeztutako eskabideen ondorioz Osasun Zentroko zuzendariak emandako erantzuna.

C) Osasun-prestazioak eta gastuak itzultzea:

- Osasun Departamentuko txertoen egutegian ez sartzea Prevenar 13 txertoa 2015. urtean jaiotako haurrei.
- Iturrama-San Juan Emakumearen Arreta Zentrora (EAZ) zenbateko handia duen faktura igortzea ginekologia-kontsulta batengatik.
- Osasun Departamentuak neurririk ez hartzea Tuteran bizi diren nafarrei Iruñeko ospitale-zentrora joateak dakarren gehiegizko kostua konpentsatzeko.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak sexu-gaitasuna berreskuratzeko behar duen ebakuntza ez egitea, prestazio hori ez dagoelako Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzuen barruan.

- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez onartzea denbora errealean glukosa etengabe monitorizatzeko sistema erosteko gastuak itzultzeko eskaera.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez ematea lagundutako ugalketa-teknikaren tratamendua ama ezkongabea izan nahi duen kexa-egileari.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak Bularreko Kirurgia Zerbitzuan eginiko proba batzuegatik sortutako gastuak kobratzeko eskatzea.
- Errehabilitazio-logopedia kontsultara bideratzeko bolantea galtzea, eta Zerbitzuen Zorro berriarekin ados ez egotea; izan ere, bertan xedatzen da tratamendu hori 12 urtetik aurrera ematea (2016ko ekainaren 10ean onetsi zen) eta itxarote-zerrendan ageri diren paziente guztiei aplikatzea (ordura arte, tratamendua 10 urtetik aurrera ematen zen).
- Osasun Departamenduak ez onartzea Ubarmin klinikako Errehabilitazioko hitzordu batera joateko anbulantzia-zerbitzua.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eskaintzen dizkion gurgildun aulki elektrikoak, oso oinarrizkoak direlako eta bere egoera pertsonalera hobeto egokitzen den beste bat dagoelako (2 kexa).
- Prestazio ortoprotesikoak egungo egoera ekonomikoaren arabera eguneratzeko beharra, pazienteentzat karga garestia izan ez dadin.

D) Koordainketa farmazeutikoa eta prestazio farmazeutikoak:

- Emaginen Espainiako Elkartea ados ez egotea 954/2015 Errege Dekretua, 2015eko urriaren 23koa, erizainek pertsonei medikamentuak eta osasun-produktuak emateko argibideak, erabilerak eta baimenak arautzen dituen, onesteko helburuarekin eta moduarekin.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez finantzatzea bere amak behar zituen elikagai-osagarriak, ondorioz, pazientearen heriotza bizkortu egin baitzen.
- Osasun Departamentuak ez finantzatzea “Reandron” botika.
- Medikuek enpresa farmazeutikoen ustezko komisioak jasotzea medikamentu jakin baten errezeta egitean.

E) Beste batzuk:

- Zeliakoentzako elikagaien kostu handia eta Nafarroako Gobernuak diru-laguntzarik ez ematea.
- Osasun Departamentuak ez erraztea bere historia klinikoaren sarbidea 1995. urtetik.
- Gorte Nagusietako Arartekoak eginiko jarduketarekin ados ez egotea Madrilgo Osasun Kontseilaritzak bere historia klinikoan datu okerrak zuzendu ez zituelako aurkeztu zuen kexan.
- San Juan de Dios Ospitaleko pazienteek eta familiek pribatutasunik ez izatea, logeletan ez dagoelako gortinarik edo antzekorik.

- Buztintxuriko osasun zentroan telefonoz hitzordua eskatzea ezinezkoa izatea.
- Osasun Departamentuak ezezkoa ematea psikologia sanitarioko ziurtagiria emateari, nahiz eta hura lortzeko baldintza guztiak betetzen dituen.

2.9.22. Herritarren segurtasuna.

2016. urtean, 35 kexa aurkeztu ziren herritarren segurtasunarekin lotuta. Honako hau izan da haien edukia:

A) Herritarren segurtasuna:

- Nafarroako Foruzaingoak bere adingabeko semeari jarritako salaketa izapidetzea, eta, ondoren, zehapen-espeditzea, ukabil amerikarraren formako giltzatak eramategatik (3 kexa).
- Iruñeko Udalak salaketa bat jartzea arriskutsua izan daitekeen txakurra izategatik. Horretarako lizentzia izapidetzen ari ziren.
- Foruzaingoak ez hartzea beharrezkoak ziren neurriak genero-indarkeriaren bere kasuan, erasotzaileak urruntze-agindua betetzen duela bermatzeko.
- Polizia Nazionaleko bulegoetan (nortasun agiri nazionalak eta pasaporteak izapidetzen dituzte bertan) itxaroteko ilaren kudeaketa eskasa, bere negozioan eragozpenak eragiten ditu eta.

- Funtzionarioen sindikatu bat ados ez egotea Iruñeko Udaltzaingoko Burutzak emandako Agindu batekin. Agindu horren bidez, debekatu egiten zaie agente talde jakin batzuei polizia-makila luzagarria eramatea.
- Nafarroako Errege Bardeetako tiro poligonoei buruzko eskabide bati ez erantzutea.

B) Polizia-jarduerak:

- Antsoaingo Udalak zehapen-espedienteari hasiera ematea hainbat kartel jartzeagatik, eta Udaltzaingoko agente batek emandako tratua.
- Polizia Nazionalak, Nafarroako Foruzaingoak eta Burlatako eta Atarrabiako Udaltzaingoen kidegoek justifikatu gabeko jazarpena egitea.
- Ertzaintzak atxiloteta batean izandako jokabidea, bere buruaren babesgabetasun-adierazpena eta adingabeak babesteko zentroan sartzea.
- Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Justizia eta Barne Departamentuak informaziorik ez ematea Tuterako Foruzaingoak jarritako salaketa baten inguruan, eta akats baten ondorioz bere etxebizitzaren inguruan abiarazitako etxegabetze-prozesu batean lapurtu zizkioten tresnak ez itzultzea.
- Atxilotzearen ondorioz, inkomunikazio-aldian torturak jasatea.
- Polizia Nazionala eraginkorra ez izatea ustezko iruzur baten ondorioz salatutako gertaerak ikertzean.

- Foruzaingoko bi agentek emandako tratua Arangurengo Neurri Judizialak betetzeko Zentrotik Epaitegira joatean.
- Nafarroako Foruzaingoak bere ibilgailua erregistratzean izandako jokabidea, eta substantzia estupefazianteak hautemateko froga egitea bere alaba (adingabea) aurrean izanda.
- Iruñeko Udaltzaingoko agenteek tratu desegokia ematea.
- Iruñeko Udaltzaingoko agenteek bere seme-alabei (adingabeak) salaketak egitea, egin ez dituzten ekintza batzuentatik.
- Poliziako agenteek telefono mugikorra atzemateko aukera izatea, zenbait pertsonak haiei dagozkien funtzioak egiten grabatzen dituztelako.
- Lehendakaritza, Funtzio Publikoa, Justizia eta Barne Departamentuak ez igortzea idazki bat jaso izanaren agiria. Idazkia Foruzaingoak atxilotutakoak epaitegiaren esku jartzeko izapidea ustez hausteari buruzkoa da.

C) Espetxe administrazioa:

- Barne Ministerioak bertan behera uztea 2015. urtetik Iruñeko espetxe-zentroan ematen zuten sexu-erasoei buruzko tratamendu-programa (6 kexa).
- Espetxe Erakundeen Zuzendaritza Nagusiak Espainiako hainbat espetxe-zentrotara etengabe lekualdaketak egitea, nahiz eta Iruñea izan bere jatorrizko hiria eta bere familia guztia bertan bizi.

- Barne Ministerioak presoen sakabanaketa-politikarekin jarraitzea.
- Zuerako espetxe-zentroa Iruñeko espetxera lekualdatzen geroratzea, Iruñean baitu bere ohiko bizilekua.
- Moralejako espetxe-zentroan (Palentzian) emandako tratua, eta Iruñeko espetxe-zentrora lekualdatzeko egin duen eskaera ez onartzea.
- Funtzionario jakin batzuek Iruñeko espetxe-zentroko barneko presoei tratu desegokia ematea.
- Iruñeko espetxe-zentroko barneko presoen eskubideak murriztea (patioen ordutegiak, deiak, eta abar).
- Iruñeko espetxe-zentroan barneko presoei emandako arreta.

D) Ikuskizun publikoak:

- Animaliak babesteko elkarte bat ados ez egotea adingabeek zezenketetan parte hartzearekin.
- Garesko Udalak behar beste segurtasun-neurri ez hartzea hesiei dagokienez, eta herriko jaietan aske uzten dituzten dituzten animalia motei dagokienez.

2.9.23. Gizarte-segurantza.

2016. urtean, gizarte segurantzarekin lotutako 24 kexa aurkeztu ziren. Honako hauek izan ziren azaldutako egitate nagusiak:

- Enplegu eta Gizarte Segurtasun Ministerioak ezgaitasun iraunkorra ez onartzea.
- Gizarte Segurantzak mediku-azterketaren ondorioz ezgaitasun osoagatik jasotzen duen prestazioa kentzea.
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak alta ematea lanerako aldi baterako ezgaitasunean.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak familiako hainbat nomina enbargatzea Gizarte Segurantzaren duen zorragatik. Zor horren jatorria familiako sozietate mugatu bat zen.
- Gizarte Segurantzak bere baimenik gabe banku-helbideratzea aldatzea.
- Nafarroako mutualitate batek informazio kontraesankorra ematea aldi baterako ezgaitasunagatik prestazio ekonomikoa eskuratzeko baldintzei buruz. Horren ondorioz, ez zioten onartu prestazioa.
- Lan eta Segurtasun Ministerioak aldi baterako ezgaitasunaren alta izapidetzea.
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak (GSIN) pentsioaren zenbateko urria aitortzea.
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak (GSIN) besoko lesioen laneko bajatzat jotzea. Bularreko minbiziaren ondorioak dira lesioak.
- Lan-istripua izan zueneko enpresak ez betetzea istripuaren ondorioz Gizarte Segurantzaren prestazioen gaineko erreklama.

- Ez ordaintzea Erresuma Batuko Gizarte Segurantzatik jasotzen zuen alarguntasun-pentsioa, eta Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak arazo hori konpontzen ez laguntzea.
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionaleko langileek informazio eskasa ematea, ez baitiote esan enplegu-eskaeraren txartela sinatu behar duenik erretiro-pentsioa kobratu ahal izateko.
- Aitortu zaion aldi baterako ezgaitasunaren prestazioak ondorio ekonomikoak izango dituen datarekin ados ez egotea.
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak orain arte jasotzen zuen aldi baterako ezgaitasunaren pentsioa kentzea, nahiz eta bere minbizirako medikuntza-tratamendua amaitu ez duen.
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren alarguntasun-pentsioetarako amatasun-osagarriak ondorioak izateko data.
- Estatutuko Enpleguaren Zerbitzu Publikoak langabeziaren prestazioa kalkulatzeko aplikatzen dion kotizazio-oinarria.
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak medikuntza-alta ematea, aldi baterako ezgaitasuna luzatzeko azterketa egin ondoren.
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak jakinarazpen akastuna egitea zorra geroratzeko prozedura batean.
- SOVI zahartzaroaren pentsioko hiru hilabete ez ordaintzea. Gizarte Segurantzaren hispaniar-argentinarraren hitzarmenaren babespean aitortu zitzaion pentsioa.

- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak (GSIN) 2014an jasotako minimoak bermatzeko osagarria itzultzeko eskatzea, bere urteko diru-sarrerek osagarria emateko legez ezarritako muga gainditzen dute eta.
- Erretiro-pentsioa kalkulatzeko, jatorri ideopatikoa duela uste dutelako, eta ez lanekoa.
- Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutualitate batekin ados ez egotea, horren arabera, bere patologia ez delako kontingentzia profesional baten ondorioa.
- Bere senar ohiak Gizarte Segurantzarekin sortu zituen zorrak kitatu behar izatearekin ados ez egotea, eta zorrak zatitzeko eskaera ezin egitea, epe exekutiboan dagoelako.

2.9.24. Zerbitzu publikoak.

2016. urtean, zerbitzu publikoekin lotutako 21 kexa aurkeztu ziren.

Honako gai hauek azaldu ziren kexetan:

- Kasedako Udala ur- eta saneamendu-sareak berritzen geroratzea.
- Esteribarko Udalak Eugiko ur-horniduraren inguruan aurreko legegintzaldian adostutako irizpidea aldatzea.
- Udal kiroldegian sartzea debekatzea, Lesakako Udalak aginduta, legezko prozedura bete gabe.
- Iruñeko udal igerilekuetan umeentzako aldagelarik ez egotea.

- Sanferminetan Iruñeko kaleak garbitzeko erabiltzen diren gai kimikoak eta garbiketa hori egiteko modua, substantzia horiek ibaietara joateko beldurragatik.
- Iratiko Hiri Hondakinen Mankomunitateak ez erantzutea zaborren gaineko zergaren kobrantza eteteko eskaerari, bere higiezina aurri-egoeran dagoela adierazi delako.
- Iruñeko Eskualdeko Mankomunitateak ez onartzea uraren tarifa soziala ezartzeko egin duen eskaerari.
- Iruñeko Eskualdeko Mankomunitateak ez deitzea Taxien Batzorde Iraunkorra zenbait taxilarik jarduera horretatik errentagarritasun ekonomikoa ateratzeko dituzten zailtasunen gaia jorratzeko, lizentzien kostu handia eta lehiaren egoera kontuan hartuta.
- Iruñeko Eskualdeko Mankomunitateak bere ez egitea Zuriainen (Esteribarko harana) hitzeman zuten bezala, uraren hornidura-sareak berritzeko proiektu bati.
- Ultzanuetako Mankomunitateak ez erantzutea 2016ko apirilean aurkeztutako lau eskabideri. Eskaerak Iraizotzeko uraren hornidura-zerbitzuaren prestazioari buruzkoak ziren.
- Torralba del Rion dagoen etxebizitza batean, ur-hornidurarik ez egotea .
- Uharte Arakilgo Udalak aurkeztutako eskabide bati ez erantzutea. Eskabidea ordutegi jakin batzuetan hilerrira sartu ahal izateko giltza eskatzeko beharrari buruzkoa zen.
- Valtierrako Udalak zentro zibikoaren erabiltzaile gisa kuoten ordainagiri batzuk (2014koa eta 2015koa) eskatzea, zentro horretan baja eman zuela uste zuelako.

- Correos SA berandutzea bere amak Puerto Ricotik igorritako pakete bat itzultzean, eta izapide horrek ekarri dizkion gastuak ez itzultzea.
- Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren geldikeria Aizarotzeko populazio-nukleoaren egoerarekin loturiko kontrol- eta zaintza-eskumenak gauzatzeko. Nukleo horretan, arazo larriak dituzte telefonoaren eta Interneten konexioarekin.
- Nafarroako Gobernuak eta Tuterako Udalak murrizketa zorrotza egitea Tuterako Ospitalearen eta “La Atalaya” zentroaren arteko hiri-garraioen konexioaren ordutegietan eta maiztasunetan.
- Taxilarien elkarte bat ados ez egotea Taxiei buruzko Foru Legearen aldaketarekin.
- Correos y Telégrafos Estatuko Sozietatearen bidez bere alabari igorri zion diru-kopurua desagertzea.
- Nafarroako ipar-mendebaldean eta mendialdean ETB2 eta ETB3 kateetarako sarbiderik ez izatea.
- Iberdrolak Auzokideen Elkarte bati behe-tentsioko kontagailuak berritzea proposatzea.

2.9.25. Lana.

2016. urtean, 24 kexa aurkeztu dira lanarekin lotuta: Honako hau izan da haien edukia:

- Orkoiengo Udalak gehiegizko eginkizunak eskatzea lanean mugak dituen familia-langile bati.
- Iruñeko Udalak neurririk ez hartzea azoka-barrutian lan egiten duen enpresari bati dagokionez. Enpresari horrekin prozedura judizial bat du, berarekin lanean ari zenean izandako lan-istripu batekin lotuta.
- Iruñeko Udalak Sar Quaevitae enpresako langileak Asimec-en (enpresa publikoa) subrogatzea erabakitzea etxeko laguntza zerbitzua emateko.
- Garapen Ekonomikoaren Departamentuak “2016ko nazioarteko praktikak: prestakuntza Europako Erkidegotik kanpoko herrialdeetako enpresetan” beka emateko prozeduratik kanpo uztea erabakitzea, beka emateko baldintza guztiak betetzen dituen arren.
- Hezkuntza Departamentua geroratzea Nafarroako irakaskuntza kontzertatuaren sektoreko irakasleek eta irakasle ez zirenek 2011. eta 2012. urteetan izandako soldata-murrizketen ondoren, soldaten % 1 berreskuratzeari ekitean.
- Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak informazio gutxi ematea profesionaltasun-ziurtagirien ikastaroetan izena emateko unean.
- Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak ez aitortzea gizarte-erakundeen mendeko pertsonen arreta soziosanitarioaren espezialitateko ikastaro bat.
- Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bere semeari ez onartzea langile autonomo gisa ezartzeagatiko diru-laguntza.

- Iruñeko Correos SA erakundeak langileak hautatzeko erabiltzen dituen irizpideak, baztertzaitzat jotzen ditu eta.
- Jasotzen zuen langabeziaren prestazioa blokeatzea, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekin zorra duelako.
- Estatuko Enpleguaren Zerbitzu Publikoak langabeziaren prestazioa geraraztea.
- Estatuko Enpleguaren Zerbitzu Publikoak 55 urtetik gorakoentzako langabeziagatiko subsidioa etetea, etxebizitza bat egotzen diotelako, baina, egiazki, bere anaia/nebarena da.
- Estatuko Enpleguaren Zerbitzu Publikoak langabeziagatik dagokion prestazioa kalkulatzeko aplikatzen dion kotizazio-oinarriarekin ados ez egotea.
- Estatuko Enpleguaren Zerbitzu Publikoak langabeziaren prestazioa jasotzen duten pertsonen atzerrira bidaiatzeko ezartzen dizkieten denbora-mugak, eta prestazioa etetea muga horiek gaingiditzen badira.
- Langabeziaren prestazioa ez ordaintzea, ez delako enpleguaren bulegoan agertu eskatu zaion egunean; izan ere, ez du agertzeko deirik jaso Estatuko Enpleguaren Zerbitzu Publikoaren gutunen bidez.
- Lan eta Gizarte Segurtasuneko Ikuskaritzaren geldikeria enpresen aldi baterako elkarteak eginiko arau-hauste larri baten aurrean. Azpikontrataturako enpresa gisa jardun zuen.

- Liman dagoen Espainiako Kotsuletxe Nagusiak 2000. urtean gertatutako bidegabeko irazpenagatiko kalte-ordaina ez ordaintzea.
- Bere lan-egoera korapilatsua izatea; izan ere, egoera ekonomikoaren ondorioz, gobernatzen zuen negozioa itxi behar izan zuen.
- Bere enpresak nomina bat ez ordaintzea.
- Supermerkatu-kate baten nagusiak aljeriar jatorriko langile emakume bati diskriminaziozko tratua ematea.
- Enpresak hiru hilabeteko ordainsaria ez ordaintzea.
- Nafarroako herri batean frantses itzultzaile gisa lanean jarduteko zailtasunak.

2.9.26. Trafikoa eta bide-segurtasuna.

2016. urtean, trafikoarekin eta bide-segurtasunarekin lotutako 35 kexa aurkeztu ziren.

Trafiko eta bide-segurtasunaren inguruko kexak oinarritu zituzten gertakari nagusiak hauek izan ziren:

A) Arau-haustek eta zehapenak:

- Iruñeko Udaleko garabi-zerbitzuak bere ibilgailua erretiratzea (behar bezala aparkatuta zegoen, baina txartelik gabe) eta ibilgailua berreskuratzeko gehiegizko zenbatekoa ordaindu behar izatea (5 kexa).

- Iruñeko Udalak pasabidea oztopatzen ez zuen leku batetik bere ibilgailua erretiratzea (dirudienez, ez zuen txartelik), aparkaleku mugatuaren zonako aplikazio mugikorrean arazo bat egotearen ondorioz (3 kexa).
- Uharteko Udalak salaketa salaketa jartzea, eta, ondoren, zehapen-prozedura, segurtasun-uhala edo erretentzio-sistema homologatua behar bezala lotuta ez eramateagatik.
- Logroñoko Udalak isuna jartzea ibilgailua minusbaliotasuna duten pertsonentzako aparkalekuan aparkatzeagatik, horretarako behar den aparkatzeko txartela zuen arren.
- Erriberriko Udalak trafiko-zehapena jartzea behar bezala seinaleztatuta ez zegoen baimendu gabeko lekuan aparkatzeagatik.
- Iruñeko Udaleko garabi-zerbitzuak bere ibilgailua erretiratzearekin ados ez egotea, egoiliar-txartela indarrean zuelako.
- Iruñeko Udalak trafiko-zehapen baten ondorioz ordaintzeko eginiko eskakizunarekin ados ez egotea, ez zuelako horren berri izan, eta, beraz, ez zuelako aukerarik izan errekurtsorik aurkezteko edota epe barruan deskontuarekin ordaintzeko.
- Udaleko garabi-zerbitzuak egoiliar-txartela ez ordaintzearen ondorioz bere ibilgailua erretiratzearekin ados ez egotea, bere garaian Iruñeko Udalari jakinarazi baitzion txartel horren banku-helbideratzea aldatu zuela.
- Zirkulazio-bide batean aparkatzeagatik jarritako salaketaren ondorioz, Iruñeko Udalak trafiko-zehapena ezartzea eta kobratzea.

- Iruñeko Udalak ez jakinaraztea bere ibilgailuaren aparkatzeko txartela kendu ziotela. Horren ondorioz, Udaleko garabi-zerbitzuak ibilgailua erretiratu dio.
- Iruñeko Udaleko garabi-zerbitzuak bere ibilgailua erretiratzea aparkalekuan ordaindutako denbora gainditzeagatik, eta 60 euroko isuna jartzea. Baina parkimetroan ohartarazten da 11,65 euro ordaindu behar direla ordaindutako denbora gainditzeagatik jarritako salaketak baliogabetzeko.
- Ados ez egotea Iruñeko Udaltzaingoko bi agentek egun berean eta aparkatze berdinagatik jarritako bi salaketarekin, eta ondoren Udaleko garabi-zerbitzuak ibilgailua erretiratu izanarekin.
- Foruzaingoak AP 68 autopistan isuna ezartzea, baimendutako gehienezko abiadura gainditzeagatik. Arriskurik ez duen tarte batean jarritako radar bat baliatu dute horretarako.
- Tuterako Udalak bere ibilgailuari zehapena jartzea. Ibilgailua aparkatze mugatua zuen plaza batean aparkatuta zegoen, minusbaliotasuna duen pertsona egiaztatzen duen txartelarekin.
- Guardia Zibilaren trafikoko salaketa, nortasuna dela-eta nahaste bat dagoelako.
- Trafiko Zuzendaritza Nagusiak zehapena jartzea, erantzukizun zibileko asegurerik ez izateagatik (aseguru horren kontratua eta ordainagiriak aurkeztu arren), eta Nafarroako Trafiko Buruzagitzak tratu desegokia ematea.

- Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak jarritako bi isunekin ados ez egotea, bere kotxea ez zegoelako egitateak gertatu ziren lekuan.
- Gidabaimenaren hainbat puntu kentzea semaforo bat gorritz pasatzeagatik Crohn gaixotasuna duen bere aita zeramanean, komuna erabiltzeko beharra zuen eta.

B) Trafikoaren antolaketa:

- Zizurreko Zendeko Udaleko Alkatetzaren dekretu batekin ados egotea. Horren arabera, Astrain kalean bi pibote jartzeko agindua eman da, ibilgailuek bertan aparkatu ez dezaten.
- Cordovillako biribilgunean semaforoa jartzea, trafikoa eta larrialdiko ibilgailuen irteera eragozten duelako.
- Iruñeko Udalak ez egitea oinezkoentzako bidea eskola bateko sarrera nagusia dagoen kale batean, kale horretan egon ohi den trafikoak dakarren arriskuagatik.
- Iruñeko Udalaren geldikeria espaloietatik bizikletaz ibiltzen diren txirrindulariek hiriko Trafikoko Udal Ordenantza haustearen inguruan.
- Iruñeko Udalak aurretiaz ez jakinaraztea bere aparkatzeko txartela iraungi egingo zela.
- Sanfermineko jaietan Iruñeko Udalak aparkaleku mugatuko zonan aparkalekuak hogeita lau ordutan kobratzearekin ados ez egotea.
- Tuterako Trafikoko Ordenantza Nagusiaren aldaketa, ez dituelako salbuesten minusbaliotasuna duten pertsonak

denbora mugatuko aparkalekuetan dagokion tarifa ordaintzetik, eta ez duelako gordetzen minusbaliotasuna duten pertsonentzako legezko gutxienezko aparkaleku kopurua.

- Nekazaritzako ibilgailuak A68 autobidean, “Tuterako saihesbidea” deritzon zatian ezin ibiltzeko debekua.
- Nafarroako Trafikoko Burutzan aztertzaile gutxi egotea udako hilabeteetan.
- Enkante baten bidez eskuratu zuen higiezin batean agertu zen ibilgailu bati baja emateko zailtasunak izatea.
- Trafiko-istripu baten ondorioz izandako kalteen ordaina jasotzeko aukera.

2.9.27. Gardentasuna. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea Herritarren parte-hartzea.

2016. urtean, gardentasunarekin lotutako 13 kexa aurkeztu ziren.

- Galarreko Udalak ez ebaztea aurkeztutako hainbat eskabide, eta administrazio-espeditente baterako sarbiderik ez ematea.
- Iruñeko Udalak elkarteetako kide ez diren herritarrak kontuan ez hartzea Sanferminetako txupinazoa jaurtitzeko aukeraketan parte hartzeko.
- Iruñeko Udaltzaingoak ez ematea dibortzio-epaiketa batean bere interesen defentsa legitimorako behar duen polizia-txostena.

- Gareseko Udalak ez ematea administrazioaren jurisdikzio-ordenaren aurrean bere interesen defentsa legitimorako behar duen dokumentazio jakin bat.
- Zangozako Udalak ez erantzutea herriko zaharren egoitzako langileei buruzko hainbat informazio-eskaerari.
- Tuterako Udalak ez argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean elkarreentzako diru-laguntzen deialdia, eta konfiantza legitimoaren printzipioa urratzea eta udal horretan aurkeztutako eskabidea berariaz ez ebatzea.
- Sindikatu bat ados ez egotea Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazio Nagusiko Mahaiaren deialdiak argitaratu ez izanarekin eta bertan hartutako akordioekin.
- Izarreibarko Mankomunitateko webgunea bat ez etortzea Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeko eskakizunekin.
- Enpresa publiko batek ez aurkeztea obren ziurtagiri batzuk. Ziurtagiri horiek beharrezkoak dira Ogasun Ministerioaren Batzorde Aholku-emailearen aurrean estatuko kontratistaren sailkapen-espeditentia izapidetzeko.
- Landa Garapen, Ingurumen eta Tokiko Administrazio Departamentuak ez erantzutea INTIA, SAK eginiko obra jakin batzuei buruzko informazio publikoaren eskaera bati.
- Landa Garapen, Ingurumen eta Tokiko Administrazio Departamentua ados ez egotea eskaerak aurkezteko bide telematikoa soilik gaitzarekin, eta, hala, dokumentaziorako sarbidea mugatzearekin.

- Herriko ekimen legegile baten bidez, mendekotasuna duten pertsonei, gaixotasun kronikoak dituztenei eta adinekoei ariketa fisikoa preskribatzeko Foru Legea izapidetzeko aukera.
- Esteribarko Udalak ez erantzutea jabe batzuei eman zitzaizkien lurzati batzuei buruzko informazio-eskaera bati. Lurzati horiek errepide berria eraikitzearen konpentsazio gisa eman zizkieten.

2.9.28. Turismoa.

2016. urtean, turismoarekin lotutako kexa bat aurkeztu zen. Honako hau da edukia:

- Artaxonako Udalak bisitarien etxea kudeatzeko eta udalerrian turismo-ustiapena egiteko kontratua enpresa esleipendun bati esleitzea, baina baldintzen pleguan ezartzen ziren baldintza guztiak bete gabe.

2.9.29. Hirigintza.

2016. urtean, hirigintzarekin lotutako 42 kexa aurkeztu ziren.

Honako gai hauek azaldu ziren kexetan:

A) Hirigintza planeamendua:

- Berbintzanako Udalak ez erantzutea Udaleko Plan Orokorren aldaketen inguruko bi eskabideri.

- Zizurreko Zendeako Udalak ez onartzea Baternaingo lursailen erabilera aldatzeko proposamena.
- Etxarri Aranatzeko Udalaren geldikeria lurzati baten hirigintza-jarduketaren sistema aldatzean. Ondorioz, ezin izan da lurzatia urbanizatu, eta etxebizitza bat eraiki bertan.
- Merkatarien elkarte bat ados ez egotea Iruñeko alde zaharrean Babes eta Barne Erreformatarako Plan Berezia (BEPB) behin betiko aldatzea onestearekin, zehazki, “ostalaritzaren inguruko jardueretarako” ordutegi mugari dagokionez.
- Datu pertsonalak argitaratzea Tafallako oztipo arkitektonikoak kentzeko eta igogailuak jartzeko Plan Berezi bati egindako alegazioetan.
- Landa Garapen, Ingurumen eta Tokiko Administrazio Departamentuak behar besteko denbora ez ematea parke eolikoak jartzeko Udalerrien gainean eragina duten hiru egitasmo eta proiektu sektorial egiteko, jendaurrean ikusgai jartzeko espedienteen konplexutasuna dela eta.

B) Hirigintza kudeaketa:

- Alloko Udalak lurzati bat zenbatesteari buruz sinatutako hitzarmenaren alde bakarreko aldaketa, Udalari jabetza emateko.
- Lizarrako Udalaren jardunbidea HAPOn AR-3 unitatea birpartzelatzeko eta urbanizatzeko espedientean.
- Larraungo Udalak ez erantzutea espedientean interesduntzat jotzeko eskaera bati, eta Udaleko Plan

Orokorra egituratzen duten zehaztapenak aldatzeko prozesua izapidetzea.

- Erriberriko Udalak urbanizatzeko kostu handiak egoztea lankidetzeta-sistemaren bidez UER-3 egikaritzeko.
- Iruñeko Udalak ez betetzea udal-katastroko 7. Poligonoko 1353 lursaileko Hirigintza Plan Orokorren egungo exekuzioarekin loturiko hirigintza-akordioak.
- Urroz hiribilduko arau subsidiarioetan egiturazko aldaketa puntuala egiteko proiektua geraraztea.
- Landa Garapen, Ingurumen eta Tokiko Administrazio Departamentuaren jardunbidea Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruko turismo-, ostalaritza-, kirol- eta bizitegi-arloaren Udalerrien gaineko Eraginaren Plan Sektorialaren berrikuspena aztertzean.

C) Legezkotasunaren eta hirigintza-diziplinaren babesa:

- Antsoainen erabilera publikoko plaza pribatu batean dauden kalteak, plaza horren lur azpiko garajeen aparkatzen duten ibilgailuetan hainbat kalte eragiten dituzte eta.
- Biurrun-Olkozteko Udalak bere jabetzako lurzati bat okupatzea urbanizatzeko obra batzuk egiteko, eta Udalak pentsioa enbargatzea urbanizatzeko kuota ez ordaintzeagatik.
- Cabredoko Udalak ez erantzutea hirigintzaren arloko legezkotasuna berrezartzeko espediente bati hasiera emateko eskaerari.

- Galar Zendeako Udalak ez betetzea Getzen hiltegi bat eraikitzeke baimenari aplikatu beharreko hiriguneetako distantziari buruzko araudia.
- Egitatezko bidean Ziritzako Udalak bere jabetzako etxabe baten zatia okupatzea.
- Corellako Udalaren geldikeria nahitaezko lizentziarik gabe etxebizitzarako birgaitutako trasteleku batzuen legezkotasunik ezaren aurrean.
- Cortesko Udalak ez egokitzea bere gurasoen (osasan-arazo larriak dituzten adineko pertsonak) mugikortasuna errazteko espaloiaeren zintarria.
- Iberoko Kontzejuak Oltza Zendeako Udalari laga zizkion zenbait lurzatiaren titulartasunaren inguruan akordiorik ez egotea.
- Desoioko Udalak obra bat legeztatzeke eskaera egitea, Udal horretako zinegotzi batek jarritako salaketaren ondorioz.
- Gesalazko Udalak tasa bat kobratzeke eskatzea obren lizentzia bat izapidetzeke, baina azkenik atzera bota zuten.
- Iguzkitzako Udalak etxean leiho-oholak jartzeko emandako uko egitea, nahiz eta horretarako obra txikiko lizentzia emana zion.
- Longidako Udalak etxebizitza bat eraikitzeke obretarako lizentziaren eskaerari araudi bat aplikatu nahi izatea, oraindik ez delako indarrean sartu.
- Martzillako Udalak ez betearaztea enpresa bati eraikin baten zati bat eraisteko ezarritako hertsatze-isunak.

- Iruñeko Udalak neurririk ez hartzea Erreginaren aldapa kalea inguratzen duen patio batera sartzeko etengabeko arazoei aurre egiteko.
- Nafarroako Administrazio Auzitegiak emandako zenbait ebazpenekin ados ez egotea. Ebazpenak Pitillaseko Udalarekin hirigintza-arloan izandako eztabaida batekin loturikoak dira, Espainiako Konstituzioan jasotako berdintasun eta zaintza judizial eraginkorraren oinarriko eskubideak urratzen dituelakoan.
- Ribaforadako Udalaren geldikeria auzokide batek nahitaezko lizentzia izan gabe eginiko obretan, eta Udalak ez ematea informazio jakin bat.
- Zangozako Udalak ez ematea obrarako (edo, hala badagokio, beste jarduketa batzuetarako) baimenak, bere jabetzako eraikin batean erortzeko eta lur-jausietarako dagoen arriskua saihesteko.
- Tiebaseko Udalak kanaleta mantentzeko lanik ez egitea, eta, ondorioz, ura kale erditik igarotzea, neguan horrek dakarren arriskua kontuan hartuta.
- Tuterako Udalak eta auzokideen elkarteak negozioa zuen lekuko lokalaren urbanizazioan eginiko jarduketa batzuekin ados ez egotea.

D) Hirigintzaren arloko informazioa:

- Adioseko Udala geroratzea bere auzokideak aurkeztutako birgaitze-proiektuko plano batzuen kopiak ematen.

- Arangurengo Udalak ez erantzutea bere lurzati baten hirigintza-arloko auzi baten inguruan aurkeztutako eskabideei.
- Arronitzeko Udalak ez erantzutea alboko lurzati batetik datozen euri-urak bere etxebizitzan eragiten dituen kalteei buruzko idazki bati.
- Berbintzanako Udalak ez erantzutea udalerriko lurzati bat banantzeko baldintzei buruzko eskabide bati.
- Desojoko Udalak ez erantzutea bertako zinegotzi batek eginiko informazio-eskabide batzuei (2 kexa).
- Jurramendiko Mankomunitateak ez erantzutea Lizarrerriko Birgaitze eta Etxebizitza Bulegoak igorritako txosten bat argitzeko eskabideari. Eskabidea Desojoko 3. poligonoko lurzati bati buruzkoa zen.
- Aragoiko Petillako Udalak eta Landa Garapen, Ingurumen eta Tokiko Administrazio Departamentuak ez erantzutea hirigintza-arloko informaziorako eskabide batzuei, eta salaketak jartzea nahitaezko baimenik gabe lurzoru ez urbanizagarrian etxola batzuk eraikitzearekin lotuta.
- Landa Garapen, Ingurumen eta Tokiko Administrazio Departamentuak ez erantzutea argi eta garbi Iturengo Arau Subsidiarioen egiturazko aldaketa bat behin betiko onestearen inguruan.

2.9.30. Etxebizitza.

2016. urtean, 33 kexa aurkeztu ziren etxebizitzaren arloarekin lotuta. Honako hau izan da haien edukia:

A) Etxebizitza bat eskuratzeko eskubidea:

- Bere familiak gaur egun dituen beharrianak asetzeko babes ofizialeko etxebizitza handiagoa eskuratzeko zailtasunak (2 kexa).
- Iruñeko Udala beste etxebizitza batean ostatua ematean geroratzea, egungo etxebizitza egoera txarrean dagoelako.
- Adaniak alokairu-erregimenean zuen diruz lagundutako etxebizitzaren alokairu-kontratua azkentzea.
- Alokairu erregimeneko babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak.
- Gizarte Eskubideen Departamentuak ez onartzea Sarrigurenen prezio tasatua duen bigarren eskuko etxebizitza bat erosteko eskaera.
- Babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak, etxebizitza bat duelako jabetzan, bere familiaren beharrianak asetzeko egokia ez den arren.
- Babes ofizialeko etxebizitza baten esleipenduna izatean geroratzea.
- Gaur egun bizileku duen etxebizitza birgaitzeko baldintzak ez betetzea eta Gizarte Eskubideen Departamentua bere beharrianetara egokitutako etxebizitza bat esleitzen geroratzea.

- 2012. urtetik ez esleitzea babes ofizialeko etxebizitzarik.
- NASUVINSAK ez berritzea duela zazpi urte bizileku duten etxebizitzaren alokairu-kontratua.
- Eusko Jaurlaritza geroratzea alokairu erregimeneko babes ofizialeko etxebizitza bat esleitzen, beharizan-egoeran egon arren.
- San Adrianen alokairu-erregimeneko babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak.
- Babes ofizialeko etxebizitza bat esleitzeko beharriana, bere egungo etxebizitzak kalte larriak ditu eta.
- Alokairu-erregimeneko babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak.
- Babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunak.

B) Etxebizitza erosteko eta errentamenduan hartzeko laguntza publikoak:

- Babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko diru-laguntza ezin jasotzea, beste etxebizitza baten titularkidea izateagatik, epai judizial baten bidez etxebizitza horren erabilera emazte ohiari eman zaion arren.
- Gizarte Eskubideen Departamentuak ez aitortzea babes ofizialeko etxebizitza erosteko diru-laguntza -aplikatzekoa den araudian eskatzen diren gutxieneko diru-sarrerak egiaztatu ez dituelako-, Departamentuak ez diolako kontuan hartu Nafarroako Zerga Ogasunean aurkeztu zuen errenta osagarriaren aitortpena, eta horren bidez egiaztatzen zen gutxieneko diru-sarreraren baldintza betetzen zuela.

- Gizarte Eskubideen Departamentuak ez onartzea babes ofizialeko etxebizitzaren alokairu-kontratuaren dirulaguntza berrikustea.
- NASUVINSA fidantza itzultzean geroratzea, babes ofizialeko etxebizitzaren alokairu-kontratua deuseztatu ondoren.
- Alokairu-erregimeneko babes ofizialeko etxebizitza batean normalean eta etengabe bizitzeko baldintzaren ustezko arau-haustea.

C) Babestutako etxebizitzetan izandako kalteak:

- NASUVINSAk ez konpontzea babes ofizialeko etxebizitzan izandako kalteak. Alokairu-erregimenean bizi dira bertan.
- Gizarteratzeko Alokairuko Etxebizitzen programaren barruan dagoen etxebizitza egoera txarrean egotea. Bertan bizi da bere lau seme-alabekin.
- Duela zazpi urte Noainen eskuratu zenuen prezio tasatua duen etxebizitzak dituen eraikuntza-hutsuneak.
- Babes ofizialeko zure etxebizitzaren eraikuntzak hainbat hutsune izatea, eta, ondorioz, barnealdean usain txarren arazoa egotea.
- Iruñeko Udalak neurririk ez hartzea alokairu-erregimeneko etxebizitzan izandako kalteak konpontzeko. Etxebizitza udalarena da.
- Bizileku duen alokairu-erregimeneko babes ofizialeko etxebizitzan hezetasun-arazoak egotea. Arazo horien ondorioz, adingabeko semeak osasun-arazoak izaten ari da.

- Bizileku duen etxebizitzak bizigarritasun-baldintzak ez betetzea. Etxebizitzak 60 metro koadro ditu, zazpi pertsona bizi dira bertan, eta hezetasun-arazoak ditu.

D) Bestelako gaiak:

- Bizileku duen babes ofizialeko etxebizitzaren garajeko aparkalekua erabiltzeko zailtasunak, gurpildun aulkiaren erabiltzailea izanik, ez dagoelako bere egoerara egokituta.
- Gizarte Eskubideen Departamentuaren geldikeria bere auzokidearekin dituen gatazkak konpontzeko. Babes ofizialeko etxebizitza batean bizi da.
- Jabetzan duen etxebizitza batez arduratzen den finka-administratzaileak eginiko jarduketa; izan ere, askotan jakinarazi duen arren, jakinarazpenak ez dizkiote bidaltzen ondorio horietarako adierazi duen helbidera.



3. KAPITULUA

OFIZIOZKO JARDUKETAK



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Auzitekoa

3



→ 3.1 DATU OROKORRAK

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak (18.1 artikulua) ahalmena ematen dio Nafarroako Arartekoari ofiziozko jarduketak egiteko, hain zuzen ere, zerbitzu publikoen eraginkortasuna hobetzera bideratuak, antolamendu juridikoak herritarrei aitortzen dizkien eskubideak bermatze aldera (1.1 artikulua) eta zerbitzu publikoen eraginkortasuna hobetze aldera (16. artikulua). Ofiziozko jarduketa horiei amaiera eman dakieke, egokitzat jotzen bada, Nafarroako administrazio publikoei zuzendutako iradokizun, legezko betebeharren gogorarazpen edo gomendioak eginez, edo bestelako erakunde publikoei -Nafarroako Parlamentuari (33. eta 34. artikulua) edo Espainiako Arartekoari (14.2 eta 39. artikulua)- iradokizun edo eskariak eginez.

2016an, ofiziozko 35 jarduketa abiarazi ziren, eta 47 kudeatu, hamabi izapidetzen ari zirelako 2015eko abenduaren 31n.

Kudeatutako ofiziozko 47 jarduketetan, 22 ebazpen eman ziren, zegozkien gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorarazpenekin batera.

Jarduketetako zazpitan, hautemandako egoera beste erakunde eta administrazio publiko batzuei jakinarazi zitzaien, inolako ebazpenik eman gabe, gaia haien eskumenekoa zela iritzita. Hartara, lau Espainiako Arartekoari igorri zitzaizkion (haisetako bat Greziako Arartekoari ere bai), bat Europako Arartekoari, bat Nafarroako

Parlamentuari eta beste bat Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiari eta Nafarroako Foru Komunitateko fiskal nagusiari.

Ofiziozko beste bost jarduketa zuzenean onartutzat jo ziren, edo, Administrazioari ikerketaren berri emanda, konpontzeko bidean zeudela ondorioztatu zen.

Beste bi kasutan, Administrazioetik jasotako informazioa aztertu ondoren, ez zen beharrezkotzat jo ebazpena adieraztea edo neurri berriak hartzea.

Ofiziozko beste hiru jarduketa izapidetzeko daude.

Ebazpena duten ofiziozko 22 jarduketetan, 8 gomendio, 14 iradokizun, 15 iradokizun arautzaile eta legezko betebeharren gogorarazpen bat egin ziren. Bestalde, 2015eko abenduaren 31n izapidetzen ari ziren ofiziozko 12 jarduketetatik, zortzik erantzunaren zain zeuden ebazpenak zituzten.

Kudeatu diren ebazpeneko 30 ofiziozko jarduketetatik (2016an formulatu ziren 22, eta 8 aurreko urtetik zetozen), administrazio publiko jasotzaileek hogeita lau onartu zituzten, baina sei ez, eta ez zen bat bera ere gelditu erantzunik gabe kapitulu hau idazten amaitu zenean. Horrenbestez, Nafarroako Arartekoak ofiziozko jarduketei lotuta emandako ebazpenen onarpen-maila % 80 izan zen.

Egindako ofiziozko jarduketek honako arlo hauek izan zituzten xede (kopuru handienetik txikienera antolatuta aipatzen ditugu):

- **Gizarte-ongizatea:** 7 (Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legearen aldaketa lege-hauste generiko batean; adingabeak babesteko etxebizitza bat bisitatzea; desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako egoitza bat bisitatzea; nahasmendu mental larria duten pertsonentzako egoitza-etxe bat bisitatzea; Caritasen larrialdietako laguntzak eta errenta

bermatua aurreratzea; babesik gabe dauden adingabeei buruzko informazioa eskatzea; eta Arartekoek Siriako giza egoera katastrofikoari buruz egindako adierazpena).

- **Ingurumena: 3** (Nafarroako Erriberako airearen kalitatea hobetzeko planik ez egitea; bide- eta trenbide-ardatzetako zaraten mapa onartzea; eta tanatorioak eta beilatokiak jartzea etxabeetan).
- **Trafikoa: 3** (bizikletak ibiltzea Iruñeko espaloietatik; aztertzaile gutxi Nafarroako Probintziako Trafiko-buruzagitzan; eta ibilgailuek jendea harrapatzea Iruñeko Ermitagaña auzoan)
- **Foru-zuzenbide zibila: 3** (gurasoek semea edo alaba aitortzea; fideltasun-usufruktua galtzea inbentario faltagatik; eta testamentugilearen xedatze-gaitasuna bigarren aldiz ezkontzean).
- **Osasuna: 3** (gaixotasun arraroak dituzten pertsonen arreta; osasun publiko unibertsala bermatzea; eta ekografiak egiten atzeratzea larrialdietako zerbitzuko gauetako txandan).
- **Herritarren segurtasuna: 3** (eskatzen duten Nafarroako presoak Iruñeko kartzelara eramatea; atxilotu baten heriotza polizia-egoitzan; eta kolapso-egoera Iruñeko NAN bulegoan).
- **Hezkuntza: 2** (adingabe baten heriotza eta ikastetxe baten eraikuntza Mutiloan).
- **Zerbitzu publikoak: 2** (Nafarroako zati batean ETBren seinalea etetea, eta parte hartzea Nafarroako banku publikoa sortzeko prozesuan).

- **Funtzio publikoa: 2** (zuzendariak hautatzea ikastetxeetan eta Nafarroako Foruzaingoaren lanaldiak eta ordainsariak aldatzea).
- **Gardentasuna: 2** (Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzea, eta Kontu Irekiei buruzko Foru Legea proposatzea).
- **Etxebizitza: 1** (alokairuko etxebizitzak sustatzeko babes-araubidea amaitzea).
- **Euskara: 1** (D ereduan egindako ikasketak B2 mailaren baliokideak direla onartzea, enplegu publikorako deialdien ondorioetarako).
- **Kultura: 1** (Noaingo Gudua gertatu zen lekuaren babesa).
- **Justizia: 1** (Greziako agintariek kooperante nafar bat atxilotzea karabana batean zortzi errefuxiatu eramateagatik).
- **Ogasuna: 1** (desgaituen ibilgailuak zirkulazio-zergatik salbuestea).

Hurrengo taulan, kudeatutako ofiziozko jarduketak eta haien emaitzak azaldu ditugu:

Arloa	Gaia	Administrazio jasotzailea	Emaitza
2015eko abenduaren 31n egiteko zeuden jarduketak			
Gizarte-ongizatea	Adingabeen babesari buruzko 2014ko datuak	Eskubide Sozialesko Departamentua	Onartu gabeko iradokizuna

Arloa	Gaia	Administrazio jasotzailea	Eraitza
2015eko abenduaren 31n egiteko zeuden jarduketak			
Euskara	Gaztelaniaz bakarrik dauden bide-errotulazioak	Iruñeko Udala	Ebazteko bidean
Gizarte-ongizatea	Legezko egoitza-baldintza kentzea gizarteratze-errentari buruzko urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legetik	Eskubide Sozialetako Departamentua	Onartutako arautzeko iradokizuna
Funtzio publikoa	Funtzionario publikoen montepioetako osasun-laguntzaren zerbitzua bertan behera uztea	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua eta Nafarroako Parlamentua	Ez zen hauteman ebazpen baten premiarik
Zerbitzu publikoak	112 (larrialdiak), 091 (Polizia Nazionala) eta 092 (udaltzaingoak) telefonoen doakotasuna	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua eta Nafarroako udal nagusiak	Zenbait administrazio jasotzailek onartutako iradokizuna
Justizia	Koherentziarik eza estatuko araudiaren eta Europako araudiaren artean zigor-arloko ebazpen judizialak direla eta		Espainiako Arartekoari bidalita
Hauteskunde orokorrak	Hauteskunde orokorretan botoa emateko eskubidea erabiltzeko zailtasunak		Espainiako Arartekoari bidalita
Herritarren segurtasuna	Biktima bati zuzendutako barkamen-eskutzita		Nafarroako Auzitegi Nagusiari eta Nafarroako Foru Komunitateko Fiskaltza Nagusiari bidalita
Ingurumena	Ezkaba mendia natura-eremu babestua dela deklaratzeko	Iruñerriko Mankomunitatea	Onartutako iradokizuna
Gizarte-ongizatea	Adingabeen babesari buruzko datuak - 2015. urteko txostena	Eskubide Sozialetako Departamentua	Onartutako iradokizuna
Foru-zuzenbide zibila	Fidelitasunaren legezko usufriktuan inbentarioaren eskakizuna formalista eta gehiegizkoa izatea	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua	Onartutako arautzeko iradokizuna

Arloa	Gaia	Administrazio jasotzailea	Eraitza
2015eko abenduaren 31n egiteko zeuden jarduketak			
Funtzio publikoa	Funtzionarioen nahitaezko erretiroadina 70 urtera arte luzatzea	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua	Onartu gabeko arautzeko iradokizuna
2016ko ofiziozko jarduketak			
Ogasuna	Desgaituen ibilgailuak zirkulazio-zergatik salbuestea.	Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentua	Onartutako arautzeko iradokizuna
Gardentasuna	Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen aldaketa	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua	Onartutako arautzeko iradokizuna
Osasuna	Gaixotasun arraroak dituzten pertsonentzako arreta	Osasun, Hezkuntza, Eskubide Sozialetako Lehendakariordetza, Ogasun eta Finantza Politikako departamentuak.	Onartutako iradokizunak
Euskara	D ereduan egindako ikasketak B2 mailaren baliokideak direla onartzea, enplegu publikorako deialdien ondorioetarako.	Hezkuntza Departamentua eta Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua	Onartutako arautzeko iradokizuna
Gizarte-ongizatea	Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legearen aldaketa lege-hauste generiko batean	Eskubide Sozialetako Departamentua	Ebazteko bidean
Gizarte-ongizatea	Adingabeak babesteko etxebizitza bat bisitatzea	Eskubide Sozialetako Departamentua	Onartutako gomendioak
Trafikoa	Bizikletak ibiltzea Iruñeko espaloietatik	Iruñeko Udala	Onartutako iradokizuna
Foru-zuzenbide zibila	Semea edo alaba aitortzeari buruzko Foru Berriko 69. Legea	Nafarroako Parlamentua	Onartutako arautzeko iradokizuna

Arloa	Gaia	Administrazio jasotzailea	Emaitza
2016ko ofiziozko jarduketak			
Foru-zuzenbide zibila	Inbentariarik ezagatik fideltasun-usufruktua galtzeari buruzko Foru Berriko 257. Legea	Nafarroako Parlamentua	Onartutako iradokizun arautzailea
Funtzio publikoa	Ikastetxeetako zuzendarien hautaketa	Hezkuntza Departamentua	Legezko betebeharren gogorarazpen onartu gabea
Etxebizitza	Alokairuko etxebizitzak sustatzeko babes-arabidea amaitzea	Eskubide Sozialetako Departamentua	Onartutako iradokizuna
Gizarte-ongizatea	Desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako egoitza bat bisitatzea	Eskubide Sozialetako Departamentua	Onartutako gomendioak
Zerbitzu publikoak	Nafarroako zati batean ETBren seinalea etetea	Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua	Onartutako iradokizuna
Gizarte-ongizatea	Nahasmendu mental larria duten pertsonentzako egoitza-etxe bat bisitatzea	Eskubide Sozialetako Departamentua	Ez zen hauteman ebazpen baten premiarik
Trafikoa	Nafarroako Trafiko-buruzagitzan aztertzaille gutxi egotea		Espainiako Arartekoari bidalita
Kultura	Noaingo Gudua gertatu zen lekuaren babesa	Kultura, Kirol eta Gazteriako Departamentua eta Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentua	Kultura, Kirol eta Gazteriako Departamentuak onartutako iradokizuna
Ingurumena	Nafarroako Erriberako airearen kalitatea hobetzeko planik ez egitea	Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentua	Onartutako gomendioa
Zerbitzu publikoak	Nafarroan banku publiko bat sortzeko prozesuan parte hartzea	Garapen Ekonomikorako Departamentua	Onartutako iradokizuna
Trafikoa	Ibilgailuek jendea harrapatzea Iruñeko Ermitagaña auzoan	Iruñeko Udala	Onartutako iradokizuna

Arloa	Gaia	Administrazio jasotzailea	Emitza
2016ko ofiziozko jarduketak			
Osasuna	Osasun publiko unibertsala bermatzea	Osasun Departamentua.	Onartutako iradokizuna
Hezkuntza	Adingabe baten heriotza	Hezkuntza Departamentua	Onartutako iradokizuna eta gomendioa
Osasuna	Ekografariak ez egitea Larrialdietako Zerbitzuan gauzez	Osasun Departamentua.	Ebazteko bidean
Gardentasuna	Kontu Irekiei buruzko Foru Legea proposatzea	Nafarroako Parlamentua	Nafarroako Parlamentura bidalitako arautzeko iradokizuna
Ingurumena	Bide- eta trenbide-ardatzetako zaraten mapa onartzea	Garapen Ekonomikorako Departamentua	Tramitatzeko
Hezkuntza	Ikastetxe berria eraikitzea	Hezkuntza Departamentua	Ebazteko bidean
Funtzio publikoa	Nafarroako Foruzaingoaren lanaldia eta ordainsariak aldatzea	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua	Onartutako arautzeko iradokizuna
Ingurumena	Tanatorioak eta beilatokiak jartzea etxabeetan	Osasun Departamentua, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentua eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa	Onartu gabeko iradokizun arautzaileak
Herritarren segurtasuna	Atxilotu baten heriotza polizia-egoitzan		Espainiako Arartekoari bidalita
Herritarren segurtasuna	Kolapso-egoera Iruñeko NAN bulegoan		Espainiako Arartekoari bidalita
Herritarren segurtasuna	Iruñeko espetxea gutxiegi erabiltzea, eta Nafarroako presoak eskatzen duten espetxera eramatea	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua	Onartutako iradokizuna

Arloa	Gaia	Administrazio jasotzailea	Emaitza
2016ko ofiziozko jarduketak			
Gizarte-ongizatea	Caritasen larrialdietako laguntzak eta errenta bermatua aurreratzea	Eskubide Sozialetako Departamentua eta Iruñeko Udala	Izapidetzeko
Gizarte-ongizatea	Adingabeentzako babesaren egoera - 2016. urteko txostena	Eskubide Sozialetako Departamentua	Izapidetzeko
Foru-zuzenbide zibila	Foru Berriko 272. Legea aldatzea testamentugilearen gaitasuna mugatzeagatik bigarren aldiz ezkontzean	Nafarroako Parlamentua	Onartutako arautzeko iradokizuna
Justizia	Greziako agintariak kooperante nafar bat atxilotzea karabana batean zortzi errefuxiatu eramateagatik		Espainiako Arartekoari eta Greziako Arartekoari bidalita
Gizarte-ongizatea	Espainiako Arartekoak eta autonomietako arartekoek XXXI Koordinazio Jardunaldietan Siriako giza egoera katastrofikoari buruz erabakitako adierazpena		Europako Arartekoari bidalita

2016an hasitako ofiziozko hogeita hamabost jarduketaren laburpena, jarduketaren **jasotzaile diren erakunde eta administrazio publikoen** arabera, eta kontuan hartuta jarduketa horietako batzuetan eragindako administrazioak bat baino gehiago direla, honako hau da:

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa: ofiziozko 24 jarduketaren jasotzailea.
 - Eskubide Sozialetako Departamentua: 8.
 - Hezkuntza Departamentua: 5.
 - Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentua: 4.
 - Osasun Departamentua: 4.
 - Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua: 4.
 - Garapen Ekonomikorako Departamentua: 2.
 - Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua: 1.
 - Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua: 1.
 - Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua: 1.
- Toki-erakundeak: ofiziozko 3 jarduketaren jasotzaileak.
 - Iruñeko Udala: 3.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa: ofiziozko jarduketa baten jasotzailea.

- Nafarroako Parlamentua: ofiziozko 4 jarduketaren jasotzailea.
- Espainiako Arartekoa: ofiziozko 4 jarduketaren jasotzailea.
- Greziako Arartekoa: ofiziozko jarduketa baten jasotzailea.
- Europako Arartekoa: ofiziozko jarduketa baten jasotzailea.

→ 3.2 OFIZIOZKO JARDUKETA AIPAGARRIENAK

Hauak dira 2016an egindako jarduketa garrantzitsuenak, abiatu ziren unearen arabera antolatutak:

3.2.1. Desgaituen ibilgailuei zirkulazio-zerga salbuestea.



Administrazio

eskuduna: Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentua.

Arloa: Ogasuna. Tokiko zergak.

Jarduketa: **Jarduera administratiboa ikuskatzea. Arautzeko iradokizuna.**



Azken urteetan, desgaitasunak dituzten zenbait herritarrek erakunde honetara jo dute, trakzio mekanikoko ibilgailuen udal-zergaren salbuespena ukatu dietelako kexatzera.

Ukitutako tokiko administrazioek salbuespena ukatu zuten, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 2/1995 Foru Legearen 160.1 d) artikulua aplikatu zutelako. Artikulu horretan, hauxe ezartzen da:

“Baliourrituen edo bereziki egokituriko autoak, baldin behar den baimenaren jabe diren baliourrituenak badira eta haiek bakarrik erabiltzekoak, 12 zaldi fiskaletik beheitikoak badira. Salbuespenaren muga baliourritu bakoitzarentzat ibilgailu bat izanen da”.

Erakunde honetan aurkeztutako kexek agerian jartzen zuten araudia zeinen murriztailea den, ezartzen dituen baldintzak direla eta, batik bat aurreko artikulua baliokide den martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren artikulua alderatuz gero (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, toki-ogasunak arautzen dituen legearen testu bateratua onartzen duena).

Estatuko arau horren 93.1 e) artikuluan ezartzen denez, hauek dira salbuesteko baldintzak:

“Ibilgailuen Erregelamendu Orokorreko II. eranskineko A letran aipatzen den mugikortasun murriztua daukaten pertsonentzako ibilgailuak. Erregelamendua abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen.

Halaber, salbuetsirik daude minusbaliatuen izenean matrikulaturiko ibilgailuak, haiek ez beste inork erabiltzekoak badira. Salbuespen hau aplikatuko zaie, inguruabar hauek irauten duten bitartean, bai ezgaituek gidatutako ibilgailuei bai haiek garraiatzeko ibilgailuei ere.

Aurreko bi lerroketan aurreikusitako salbuespenak ezin izanen zaizkie aplikatu haien onuradunak diren subjektu pasiboei, aldi berean ibilgailu bat baino gehiagorengatik”.

Aurreko legealdian, erakunde honek Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari iradoki zion Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 2/1995 Foru Legearen 160.1 d) artikulua alda zedila sustatzeko.

2015eko martxoan egindako txosten batean, Departamenduak hauxe adierazi zuen:

“2015eko martxoaren 3ko zure idazkiari erantzunez, non informazioa eskatu baitzenuen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 2/1995 Foru Legea eta, zehazki, lege horren 160. artikulua aldatzeko egindako jarduketez, artikulua horretan aipatzen den “baliourrituen edo bereziki egokituriko” autoetan trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga-salbuespenari dagokionez, hauxe jakinarazten dizut:

160. artikulua 1 d) letran hitzez hitz esaten denez, auto hauek zerga-salbuespena izango dute: “Baliourrituen edo bereziki egokituriko autoak, baldin behar den baimenaren jabe diren baliourrituenak badira eta haiek bakarrik erabiltzekoak, 12 zaldi fiskaletik beheitikoak badira. Salbuespenaren muga baliourritu bakoitzarentzat ibilgailu bat izanen da”.

Idazkian adierazten duzun bezala, zuzenbidearekin guztiz bat dator udalerriek zerga ordaintzea “baliourrituen edo bereziki egokitutiko” auto bat izatea egiaztatzen ez denean. Are gehiago, zuzenbidearen aurkakoa izanen litzateke salbuespen bat egitea Legean jasotako baldintza espezifiketatik kanpo edo Legean jasotakoak ez diren beste irizpide batzuk emanez.

Horiek horrela, egia da errealitateak legezko irizpidea gainditu duela, kontuan hartu behar baita, iritzi orokorraren arabera, ahalegina egin behar dela desgaitasunak dituzten pertsonak gehiago integratzeko lege ezarritako baldintzetan eta ehunekoan.

Legean erabiltzen den terminologia ere zaharkituta gelditu da. Izan ere, gaztelaniaz, “minusvalía” terminoaren ordeaz, gaur egun, izaera positiboagoa duen “discapacidad” terminoa erabiltzen da.

Helburu horrekin, eta gai hori arautzen duen estatuko araudira gehiago hurbiltzen saiatzeko asmoz, Landa Garapen, Ingurumen eta

Toki Administrazioko Departamentua harremanetan jarri da Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin. Orain arte, ordea, ez da proposamenik egin.

Gaur egun, eta Parlamentua aurki desegingo denez hauteskunde-deialdia dela eta, ezinezkoa da Toki Ogasunei buruzko Foru Lege horren aldaketa bat izapidetzea.

Dena den, auziaren nondik norakoak kontuan hartuta, eta desgaitasunak dituztenen eskubideak babeste aldera, ez diogu uko egiten etorkizunean Nafarroako Gobernuak herritarren proposamen hori jasoko duen foru-legearen proiektu bat aurkeztu ahal izateari”.

Harrezkero zenbat denbora igaro zen ikusita, eta kontuan hartuta erakunde honetara berriro etorri zirela gai hori interesatzen zaien herritarrak, Nafarroako Arartekoak berriro egin zuen gaiaren inguruan lege-aldaketa bat egiteko iradokizuna, helburu hauekin:

- “a) Lege-arauan gatzelaniaz “inválidos” direlakoei buruz egiten diren erreferentziak aldatzea, iraingarriak izan daitezkeelako.*
- b) Orobat izatea zerga-salbuespena desgaitasunak dituzten pertsonen izenean matrikulatutako ibilgailuek, haiek bakarrik erabiltzekoek (hala desgaituek gidatzen dituzten ibilgailuek, nola desgaituak garraiatzeko ibilgailuek), ibilgailu bereziak izan edo ez.*
- c) Gaur egun legean jasota dagoen zerga-potentziaren muga ezabatu edo aldatu aztertzea (foru-legean aipatzen diren ibilgailu bereziei dagokienez)”.*

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioko Departamentuak erantzun zuen egindako iradokizuna onartzen zuela, eta adierazi zuen arau-proposamen bat lantzen ari zela, Landa Garapen,

Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuaren eta Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuaren artean, erakunde honek egindako iradokizunak kontuan hartzen zituen.

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak iradokizuna onartu zuela ikusita, erakunde honek amaitutzat eman zituen bere jarduketak.

3.2.2. Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzeko foru-legearen aurreproiektua.

.....

Administrazio

eskuduna: Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua.

Arloa: Gardentasuna.

Jarduketa: Arautzeko iradokizuna.

.....

Nafarroako Arartekoak Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzeko foru-legearen aurreproiektuaren berri izan zuen, Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak bidali baitziren 2016ko martxoaren 2an.

Edukia ikusi ondoren, Nafarroako Arartekoak oharpen hauek egin zituen aurreproiektu horren inguruan, foru-legearen proiektuaren behin betiko testuan sar zituzten:

1. Ulertzen dugu 26.1 artikulua idazkera berriak ez diola informazioa eskatzen duen herritarrari betebeharrak ezarri nahi, estatuko legean aurreikusten ez dena eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea oztopatuko lukeena.

Badirudi zera esan nahi dela: unitate organikoak edo erakundeak (eta ez herritarrak) eman behar diola Gobernu Irekiaren arloko administrazio-unitate eskudunari eskaeraren berri. Hori hala bada, “horien berri emango dio administrazio-unitateari” beharrean, “**horiek horien berri eman beharko diote** administrazio-unitateari” jarri beharko litzateke. Hala ere, idazkera berria ezabatu, eta oraingo idazkera bere horretan utz daiteke.

2. **72 a)** artikuluan, **bigarren lerrokada bat** gehitzea (edo xedapen gehigarri batean jasotzea), hauxe dioena:

“Hori gorabehera, Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Kontseiluak, Nafarroako Kontuen Ganberak eta Nafarroako Arartekoak ebazpenik emanez gero, ezingo da horien aurkako erreklamaziorik ezarri Nafarroako Gardentasun Kontseiluaren aurrean”.

Zioak: Estatuko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen laugarren xedapen gehigarriak galarazi egiten du aipatutako organo horien ebazpenen aurka erreklamazioak jartzea Gardentasun Kontseiluaren aurrean. Berme prozesal bat da parlamentu- eta foru-erakundeentzat, eta gerta daiteke horren berri ez jakitea foru-legean argi utzi ezean.

3. **73.3 artikulua** ezabatzea, funtzioak ez betetzeagatik, funtziorako ezintasunagatik, bateraezintasunagatik edo dolozko delituagatik kondenagatik kanporatzeari dagokionez. Edo, bestela, gutxienez 73.3 artikulua aldatzea, honela idazteko:

“Nafarroako Gardentasun Kontseiluko kideak lau urtez izendatuko ditu Nafarroako Gobernuak, gardentasunaren arloko departamentu eskudunaren titularraren

proposamenari jarraikiz, dagokion erakundeek izendatu ostean.

Kide izateari utziko diote hala eskatzen badute, hiltzen badira edo ezintasun judiziala badute. Orobat utziko diote kide izateari kideztat proposatu zituen erakundeak hala eskatzen duenean edo kideztat izendatu zituen erakundeak ikusten duenean ez dituztela beren funtzioak batere betetzen, beren funtzioak egiteko ezintasuna dutenean, bateraezintasuna dagoenean edo dolozko delituagatik kondonatuta daudenean.

Mandatu amaitzean, une horretan karguan dagoenak bere funtzioak egiten jarraituko du, beste norbait izendatu arte”.

Zioak: Kideak ia diziplinazko espediente bidez kanporatzeko aurreikuspen hori ez da jasotzen estatuko legean (estatuko legea da aurreproiektuaren erreferentzia-esparrua).

Ez da egokia Departamentuak kanporatzeko espediente bat izapidetzea, eta Gobernuak (botere betearazleak) onartzea, lau parlamentariri (botere legegilea), Kontuen Ganberako ordezkari bati (botere legegilea), Nafarroako Arartekoaren ordezkari bati (botere legegilea), Nafarroako Kontseiluko ordezkari bati (Foru Erkidegoko kontsulta-organo gorena), Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko, Nafarroako Unibertsitate Publikoko edo kontsumitzaileen ordezkari diren erakundeetako bi ordezkari...

Aurreikuspen horrek eraso egiten dio Kontseiluan ordezkaturako erakundeen autonomiari, bai eta botereen banaketari ere. Are larriagoa da ordezkariak delako erakundeko (Nafarroako Kontseiluko, Kontuen Ganberako) presidentea, arartekoa eta errektorea badira.

4. **73.3 bis artikulua** batean, Kontseiluko kideak ordezkatzea aurreikusi beharko litzateke, gaixo edo absente dauden kasuetarako edo aldi baterako eragozpen bat dutenerako, eta erakunde bakoitzak izendatu beharko luke, Kontseiluko kide titularraz gain, kasu horietarako ordezkaririk bat. Horrela, Kontseiluaren saioetan erakunde guztiek parte hartuko dutela bermatuko da, titularren gertakari pertsonalak gorabehera.

Azkenik, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean (2016ko apirilaren 8koa, 49. zk.), Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzeko foru-legearen proiektua argitaratu zen, eta ikusi genuen erakunde honek egindako 1., 3. eta 4. oharpenak funtsean onartu zirela.

Hori ikusirik, erakunde honek amaitutzat eman zituen bere jarduketak.

Gero, Nafarroako Arartekoak ikusi zuen egindako oharpenak azkenean kontuan hartu direla Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea aldatzeko 5/2016 Foru Legean (Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua 2016ko maiatzaren 9an).

3.2.3. Gaixotasun arraroak dituzten pertsonentzako arreta.



Administrazio

eskudunak: Osasun Departamentua, Hezkuntza Departamentua, Eskubide Sozialetako Departamentua eta Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua.

Arloa: Osasuna. Premia bereziak dituzten kolektiboak.

Jarduketa: Arautzeko iradokizuna.



Nafarroako Arartekoa **Nafarroako Gaixotasun Arraroen Taldeko (GERNA)** ordezkaririk batekin bildu zen, eta ordezkaririk gaixotasun horiek dituzten pertsonen zenbait kezka adierazi zizkion.

Prebalentzia txikia dutenez, ez dakigu askorik gaixotasun arraroez. Oso konplexuak dira, eta haien sintomak hainbat gaixotasunekin lotuta daude. Gaixotasun arraroei buruz dauden datuei erreparatuta, zera esan dezakegu:

- Gutxi gorabehera, osasun-prebalentzia txikiko 8.000 gaixotasun arraro edo ezohiko daude.
- Gaixotasun bat arrarotzat hartzen da, baldin eta, Munduko Osasun Erakundearen arabera, gaixotasunaren intzidentzia 10.000 pertsonatik 5 edo gutxiago bada.
- Kalkuluen arabera, biztanleriaren % 6-8k du gaixotasun arraro bat. Kalkuluen arabera, Espainian, gutxi gorabehera hiru milioi pertsonak dute gaixotasun arraro bat, eta, Nafarroan, gutxi gorabehera 38.0000 pertsonak (kopuru hori nahiko handia da).

Erakunde honek egokitzen jo zuen adierazten diren gai hauetan eskumena duten Nafarroako Gobernuko departamentuei idazki bat bidaltzea, GERNAk Nafarroako Arartekoari adierazitako eskaera nagusiak jasotzen zituena:

A) Gizarte-ongizatean, hots, Eskubide Sozialetako Departamentuaren eskumeneko gaietan, beharrezkotzat ikusten dute:

- Gaixotasun arraroak dituzten pertsonentzako informazio, balorazio, laguntza eta arreta sozialerako sistemek familien eguneroko errealitatea nolakoa den jakitea eta errealitate horretara egokitzea.
- Sistema horiek kudeatzen dituzten pertsonak berariaz trebatzea, eta hartu behar diren neurriak hartzea egoera horiek eguneroko bizitzan duten eraginaren ikuspegi orokorra izateko.

- Prestakuntza espezifikoa ematea desgaitasuna eta mendetasuna aitortzeaz eta baloratzeaz arduratzen diren balorazio-taldeei.
- Balorazio-baremoetan gaixotasun arraroak sartzea, eta baremo horiek egokiak izatea balorazio egokia egiteko.
- Gaixotasunaren arrarotasuna eta baremazioaren alderdi jakin batzuen subjektibotasuna direla eta, balorazio-taldeek zorrotzasunez aztertzea puntuazio gutxi eskuratzen dituzten balorazioak desgaitasuna edo mendetasuna berrikusten den kasuetan, kasu askotan gaixotasunaren eta haren eboluzioaren berri ez jakitearen ondorioz ematen baita puntuazio baxua.
- Araudia aldatzeko eta enpresei eta erakundeei informazioa emateko neurriak sustatzea, lana eta gaixotasun arraroak dituzten haurren zaintza uztartze aldera, haur horien zaintzak une eta egun jakin bakoitzean dituen eskakizunak kontuan harturik.
- Gaixotasun arraroak dituzten hurrei eta helduei laguntzeko protokoloak egitea, familiei informazioa eta prestakuntza ematea aurreikusten dutenak osasun-, hezkuntza- eta gizarte-arloan, beren arazoei aurre egiteko nora joan behar duten eta arlo horietan zer eskubide dituzten jakin dezaten.

B) Osasun-arloan, hots, Osasun Departamentuaren eskumeneko gaietan, beharrezkotzat ikusten dute:

- Gaixotasun arraroak dituzten pertsonentzako osasun-jarduketarako plan edo programa espezifikoko bat onartzea lehenbailehen.

- Nafarroako gaixotasun arraroen erregistroa nabarmen aktibatzea, lehenbailehen egiazko egoeraren berri izateko, horrek baliabideak proposatzeko eta antolatzeko aukera eman dezan.
- Neurriak hartzea pazienteak Nafarroako eta Nafarroatik kanpoko kontsultetara mugitzeko, patologia horietako bakoitzaren ezagutza eta esperientzia duten lekuetan artatuak izan daitezzen.
- Pazienteari osasun-arreta ematen dieten profesionalentzako etengabeko prestakuntza- eta eguneratze-sistemak sustatzea, lehen mailako arretatik anbulatorioko, ospitaleko eta etxeko espezializaziora.
- Profesionalen diziplinarteko lana sustatzea, komunikazio- eta koordinazio-sareak garatuz, proben, botiken, kontsulteren, errehabilitazioen eta emaitzen erabilera efizienteagoa izan dadin.
- Giza baliabideak eta baliabide teknologikoak prestatzea, behar diren mediku-kontsulta ugariak koordinatzeko.
- “Kasuen kudeatzailearen” figura martxan jartzea, mediku-kontsulta ugari horiek koordinatzeko.
- Paziente horiek beren tratamenduetarako behar dituzten botikek Nafarroan prezio murriztua izan dezaten lan egitea.
- Larrialdietako Zerbitzuek oftalmologoak izatea eta entzefalogramak egin ahal izatea. Haien ustez, larrialdietako profesionalen eta arretaren gabeziak ondorio larriak izan ditzake gaixotasun arraroak dituzten pertsonentzat.

- Larrialdietan, Nafarroako Unibertsitate Klinikara joan ahal izatea, osasun publikoan behar adina bitarteko ez badaude.
- Gaixoek “tutore” bat izatea; hau da, koordinatzaile bat. Izan ere, askotan, gaixoak bost edo sei espezialistarekin izaten ditu hitzorduak eta zaintzak. GERNAk beharrezkotzat ikusten zuen norbaitek hitzorduak koordinatzea eta gaixoaren tutorea izatea.
- Gaixoaren osasun-txostenean “gaixotasun arraroa” duela jartzea, eta ez jartzea gaixo kronikoa soilik dela, espezialitateetako mediku guztiek gaixotasunaren berri izan dezaten.
- Eskolarik ez dagoela-eta hurrek jaso ohi duten terapia jaso ezin duten hilabeteetan, Osasun Departamentuak bere gain hartzea terapia hori emateko ardura. Haur horietako askok terapiak jasotzen dituzte ikastetxean hiru egunez edo gehiagoz. Baina ekainaren erdialdetik irailera arte, ikastetxea itxi egiten da udako oporraldia dela-eta, eta, horren ondorioz, haur horiek ez dute terapiarik jasotzen hiru hilabetez. Horri Aste Santua, Eguberriak eta Aste Zuria gehitu behar zaizkio. GERNAk azaltzen duenez, terapia ezin da gelditu. Hori dela eta, aldi horietan, bestelako terapia bat antolatzeke eskatzen dute.

Osasunaren arloan pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legearen 19. artikuluan ezartzen denez, “Osasun Administrazioak kolektibo horiei eta mendekotasuna daukaten gainerako pertsonen zuzendutako osasun-planak edo -programak sustatuko ditu, eta behar den kasuetan bideratuko du egoki koordinatzea gizarte-, etxebizitza- eta kirol-gaietan eskudunak diren departamentuekin”. Era berean, 19. artikulua horretan esaten denez, “oinarrizko osasun-laguntzaren esparruan, ahaleginak egiten dira dauden osasun-baliabideak eta baliabide

sozialak funtzionalki integratzeko, eta osasunaren arloko profesionalen eta gizarte-zerbitzuetako profesionalen diziplinar-teko lana bideratuko da”.

Bestalde, 25. artikuluan ezartzen denez, “Osasun Administrazioak ekintza eta neurri berariazkoak bultzatuko ditu gaixo kronikoentzat, laguntza-maila desberdinen artean behar den koordinazioa bilatzeko eta gaixotasun kronikoak dauzkaten pertsonen behar dituzten zainketei behar den jarraitutasuna emateko. Berezi, eta osasun-informazioko sistemen bitartez, gaixo horiek egin beharreko izapideak arintzea sustatuko duten prozesuak kudeatzeko mekanismoak indartuko dira”.

C) Hezkuntza-arloan, hots, Hezkuntza Departamentuaren eskumeneko gaietan, beharrezkotzat ikusten dute:

- Gurasoek adingabearen premiez arduratzeko onenak iruditzen zaizkien ikastetxeak aukeratu ditzaketela bermatzea. GERNAK badu kasu batzuen berri, non haurra etxetik urrun dagoen zentro espezializatu batera bidalia izan baita, gertuago zegoen edo egokiagotzat jotzen zen beste zentro batera bidali beharrean.
- Gaixotasun arraro bat izateagatik eskolatu gabe gelditzen diren haurren kasuei adi egotea. Ikastetxearen barruan gerta daiteke haurrak eskolatu gabe gelditzea, baztertzen direlako edo beren ezaugarriei dagokien arreta jasotzen ez dutelako.
- Erizaintzako gradudun bat esleitzea zentroari edo ikastetxeari, bertan dauden gaixotasun arraroak dituzten haurrak artatu ditzan. Haur horiek banakako osasun-arreta behar dute: zainketak, janari bereziak, etab. Aukera moduan, GERNaren ustez, haur horiek osasun-zentro batetik gertu dauden ikastetxeetara eraman beharko lirarteke, han beharrezkoa zaien edozein unetan artatuak izan bailitezke.

- Gaixotasun arraroak dituzten hurrek zaintzaile bat izatea, ikastetxean modu espezifikoan artatuko dituen hala behar dutenean.
- Eskolarik ez dagoela-eta hurrek jaso ohi duten terapia jaso ezin duten hilabeteetan, Osasun Departamentuak bere gain hartzea terapia hori emateko ardura. Haur horietako askok terapiak jasotzen dituzte ikastetxean hiru egunez edo gehiagoz. Baina ekainaren erdialdetik irailera arte, ikastetxea itxi egiten da udako oporraldia dela-eta, eta, horren ondorioz, haur horiek ez dute terapiarik jasotzen hiru hilabetez. Horri Aste Santua, Eguberriak eta Aste Zuria gehitu behar zaizkio. GERNAK azaltzen duenez, terapia ezin da gelditu. Hori dela eta, aldi horietan, bestelako terapia bat antolatzeko eskatzen dute.

D) Laguntzen eta zerga-tratamenduaren arloan, hots, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuaren eskumeneko gaietan:

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik desgrabatu ahal izatea familia batek edo gaixotasun arraro bat duen pertsona batek terapiatan egiten duen gastua; alegia, karga horri zerga-tratamendu onuragarria ematea. Haien ustez, familiak, ematen duen arretarekin, osasun-arloko eta altxor publikoko dirua aurrezten dute. Haien kalkuluen arabera, gaixotasun arraro bat duen pertsona baten familiak batez beste 600-800 euro gastatzen ditu hilean kontzeptu horregatik, gastu horretan sartzen direlarik kontsultak, eratorbideak, terapiak, fisioterapeutak, ferulak, ortopediak... Halaber, adierazten dutenez, gastu horri aurre egiteak familia osoari eragiten dio. Azkenean, familia osoak pairatzen du egoera.

- Haien ustez, Administrazioak gutxiago baloratzen ditu, ekonomikoki eta zerga aldetik, beren seme-alabez gehiago kezkatzen diren eta haien premiak beren baliabideez gehiago asetzen dituzten familiak, beren seme-alaben premiez arduratzen ez diren eta delako inguruabarrengatik Administrazioa jotzen duten familiak baino. Hori dela eta, laguntza hori Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan isla eta kontsidera dadila eskatzen dute.

2015eko martxoaren 12an, **Nafarroako Parlamentuko** Osoko Bilkuran, ebazpen bat onartu zen, Nafarroako Gobernuari eskatzen ziona neurri jakin batzuk hartzeko gaixotasun arraroak dituzten pertsonen dagokienez. Hauxe eskatu zen:

- a) *Lehenbailehen, Nafarroako Gobernuak gaixotasun arraroak dituzten pertsonen erregistroa amai dezala.*
- b) *Nafarroako Gobernuak jarduketa integraleko plan bat presta dezala eta plan hori sar dezala gaixo kroniko eta pluripatologikoentzako arreta integratuko Nafarroako Estrategiaren barruan, gaixotasun arraroak dituzten pertsonen osasun-beharretarako arreta integral bat emate aldera, zeinaren barnean sartuko baitira detekzio goiztiarra, arreta-zirkuituak, kasuen kudeaketa eta nazioko erreferentziazko zentro eta unitateetarako deribazioak.*
- c) *Nafarroako Gobernuak azterlan bat egin dezala sei hilabeteko epean, gaixotasun arraro horien inpaktu ekonomikoa -edo antzeko inpaktu ekonomikoa duten beste batzuen- arintzeko xedez Foru Erkidegoan taxutu daitezkeen balizko laguntza ekonomiko eta fiskalei buruzkoa, bai eta horien kuantifikazioari buruzkoa ere.*
- d) *Nafarroako Gobernuak kanpaina bat antola dezala urtero, gaixotasun arraroen nazioarteko egunarekin bat, Foru*

Erkidego osoko herritarrek errealitate horri buruz duten sentsibilizazioa areagotzeko.

Nafarroako Arartekoari logikoak eta aintzat hartzeko modukoak iruditu zitzaizkion GERNAk egindako eskaerak. Eskaera horietako asko bat zetozen hauekin: martxoaren 8ko 17/2010 Foru Legea, Nafarroako Foru Erkidegoan osasunaren arloan pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzkoa; Nafarroako Parlamentuak 2015eko martxoaren 12an emandako ebazpenaren bidez onartutakoak; 2007ko otsailaren 21ean Senatuaren Osoko Bilkurak egindako akordioan jasotakoak (2007ko otsailaren 23ko Gorte Nagusien Aldizkari Ofiziala); eta Osasun Sistema Nazionaleko Gaixotasun Arraroen Estrategia, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak onartua, eta 2014an berrikusia.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Arartekoari egokia iruditu zitzaion iradokitzea aipatutako lau departamentuek, osasunaren, hezkuntzaren, gizarte-zerbitzuen eta ogasunaren arloetan eskudunak diren horietan, hau egitea:

- a) Positiboki baloratzea ekintza-plan bat egitea Nafarroan gaixotasun arraroak dituzten pertsonentzat eta haien familientzat, GERNA elkartearen partaidetza aktiboarekin. Plan horretan, ikuspegi orokor eta koordinatu batekin helduko zaie alderdi eta eskaera horiei, bai eta sortzen den beste edozein punturi ere, eta behar bezala erantzungo zaie.
- b) Positiboki baloratzea informaziorako eta koordinaziorako administrazio-unitate bat sortzea gaixotasun arraroak dituzten pertsonen arreta integrala emateko, eta pertsona horiek hainbat bideren bidez jo ahal izatea horietara (bertaratuta, telefonoz, Internet bidez...), une bakoitzean behar duten orientabidea jasotzeko.

Eskubide Sozialetako kontseilariak bere erantzunean jakinarazi zuen konpromisoa zuela elkarlanean aritzeko beste departamentu eta administrazio publiko batzuekin gaixotasun arraro bat diagnostikaturik duten pertsonei gizarte gisa eman beharreko erantzuna hobetze aldera. Hezkuntza Departamentuak jakinarazi zuen GERNA elkartearekin elkarlanean diharduela. Halaber, Osasun Departamentuak jakinarazi zuen erakunde honek egindako iradokizunak “Nafarroako Foru Erkidegoko Gaixotasun Arraroen Estrategiaren testuari” atxikiko zizkiotela. Testu hori izapidetzen amaitzen ari ziren, eta 2016ko abenduaren 31n zen onartzekoa.

Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak ez zuen hartu “GERNA - Nafarroako Gaixotasun Arraroen Taldeak” egindako eskaeren aldeko neurririk.

Hori guztia ikusirik, eta egindako iradokizunak hein handi batean kontuan hartu zirela ikusirik, jasotako informazioa GERNA elkarteari bidali, eta erakunde honek amaitutzat jo zituen bere jarduketak.

3.2.4. Dereduan egindako ikasketa ofizialen aitortpena, administrazio publikoetako enplegu publikora sartzeko.



Administrazio

eskudunak: Hezkuntza Departamentua eta Lehendakariitzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua

Arloa: Euskara. Langileen hizkuntza-eskakizunak.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea. Arautzeko iradokizuna.



Erakunde honek herritar baten kexa jaso zuen, Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan egoera desberdina delako erkidego bakoitzeko administrazio publikoetako enplegu publikora sartzeko euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeari dagokionez.

Kexaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduako tituluaren, Batxilergoko tituluaren, goi-mailako teknikariaren tituluaren edo unibertsitateko titulu baten curriculumaren % 50etik gora euskaraz egiten dutenek ez dute zertan aurkeztu euskarako hizkuntza-titulurik eta -ziurtagiririk (ikasketa-titulu horiek B1, B2, C1 eta C2 mailakoen baliokidetzat hartzen baitira, hurrenez hurren), hizkuntza-tituluak edo

-ziurtagiriak baldintzatzat eskatzen direnean edo meritutzat baloratzen direnean Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek deitzen dituzten enplegu publikoko hautaketa- eta hornikuntza-prozeduretan.

Ildo horretatik, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak (2012ko apirilaren 16an argitaratua Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean) ezartzen ditu hizkuntza-ziurtagirien salbuespen-mailak ikasketak euskaraz egin ondoren eskuratutako tituluen arabera, hizkuntza-tituluak edo -ziurtagiriak baldintzatzat eskatzen direnean edo meritutzat baloratzen direnean Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek deitzen dituzten enplegu publikoko hautaketa- eta hornikuntza-prozeduretan.

Ekainaren 15eko 55/2009 Foru Dekretuak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren erakunde autonomoetako plantilla organikoan euskaraz jakitearen trataera arautzen duenak, euskararen ezagutza nola egiaztatu arautzen du, eta, horren harira, ondorengo seinatu behar da.

Arau horretatik ondorioztatzen denez, Nafarroako administrazio publikoetan euskararen ezagutza egiaztatzeko, beharrezkoa da EGA titulua izatea edo Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko A1, A2, B1, B2 edo C1 mailen baliokidea den titulu ofizial bat. Euskararen ezagutza orobat egiaztatu daiteke Nafarroako

Administrazio Publikoaren Institutuak (NAPI) helburu horrekin deitzen dituen proba espezifikoak gaindituz.

Nafarroako Arartekoak ikusi zuen Nafarroan ez dagoela arau bat Euskal Autonomia Erkidegoko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan jasotako en antzeko baldintzetan aitortzen dituen, batetik, ikastetxeetan euskaraz egindako ikasketa ofizialak, eta, bestetik, ikasketa horiek gaindituz gero euskararen ezagutza egiaztatze salbuespena.

Erakunde honen ustez, ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan D ereduan eskolatutako ikasleek, ezarritako curriculumeko ikasketak gainditzten badituzte eta hori egiaztatzen duen hezkuntza-administrazioaren titulu ofiziala lortzen badute, curriculumaren % 50etik gora euskaraz ikasi dutenez, euskaraz behar bezalako hizkuntza-gaitasuna dutela jotzen da, euskarako beste titulu eta ziurtagiri batzuekin hizkuntza hori behar bezala ezagutzen eta erabiltzen dutela egiaztatu behar izatetik salbuesteko.

Urte hauetako guztietako errealitatea ikusirik, esan dezakegu D ereduko hezkuntza-mailak gainditu dituzten ikasleek maila bateko eta besteko euskararen ezaguera egiaztatze probetara joaten direnek bezain beste dakitela eta erabiltzen dutela euskara. Euskal Autonomia Erkidegoak ere hori aitortzen du, eta hezkuntza-mailak gainditzea euskara jakitearen baliokidetzat hartzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako enplegu publikora sartzeko baloratzen denean.

Hori guztia ikusirik, Nafarroako Arartekoari egoki iruditu zitzaion Hezkuntza Departamentuari eta Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari hau iradokitzea: beren eskumenen arloan edo, behar izanez gero, elkarrekin, sakon aztertzea Nafarroako ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan euskaraz egindako ikasketa ofizialak aitortzeko aukera, eta dagokion curriculum (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako

graduak titulua, Batxilergoko titulua, goi-mailako teknikariaren titulua...) D ereduan egin eta gainditu duten ikasleak euskara-maila - tituluen, ziurtagirien eta proba osagarrien bidez- egiaztatzenetik salbuestea, eta ikasle horiek euskara-maila hezkuntza-administrazioak emandako titulua aurkeztuz egiaztatu ahal izatea, Nafarroako administrazio publikoek deitzen dituzten enplegu publikoko hautaketa- eta hornikuntza-prozeduretan euskara baloratzeko bakar-bakarrik.

Hezkuntzako kontseilariak bere erantzunean jakinarazi zuen Hizkuntzen eta Arte Ikasketen Zerbitzua, Antolakuntza eta Aukera Berdintasuneko Zerbitzua eta Unibertsitateen eta Hezkuntzako Teknologien Zerbitzua ikerlan bat egiten ari zirela araudi bat egiteko, euskaraz egindako ikasketen titulu ofizialak aitortzeko eta baldintzak edo merituak egiaztatzenetik salbuesteko Nafarroako administrazio publikoek deitzen dituzten enplegu publikoko hautaketa- eta hornikuntza-prozeduretan, Euskal Autonomia Erkidegoak apirilaren 3ko 42/2012 Dekretuan argitaratu zuenaren antzekoa.

Zerbitzu horiek egindako txostenak Lehendakariatzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari emango zitzaizkion, araudi bat susta zezan, aukera emango zuena Nafarroako ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan euskaraz egindako ikasketak ofizialak aitortzeko, dagokion curriculumak D ereduan egin eta gainditu duten ikasleak euskara-maila egiaztatzenetik salbuesteko, eta ikasle horiek euskara-maila hezkuntza-administrazioak emandako titulua aurkeztuz egiaztatu ahal izateko, Nafarroako administrazio publikoek deitzen dituzten enplegu publikoko hautaketa- eta hornikuntza-prozeduretan euskara baloratzeko bakar-bakarrik.

Lehendakariatzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak jakinarazi zuenez, Hizkuntzen eta Arte Ikasketen Zerbitzuak, Antolakuntza eta Aukera Berdintasuneko Zerbitzuak eta Unibertsitateen eta Hezkuntzako Teknologien Zerbitzuak egindako txostenetan hala jasoz gero, euskararen ezagueraren egiaztapenari

buruzko indarreko foru-araudia lehen adierazitako moduan aldatzea proposatuko zen, eta, behar izanez gero, hauek aldatzea sustatuko zen: ekainaren 15eko 55/2009 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio eta haren erakunde autonomoetako plantilla organikoan euskaraz jakitearen trataera arautzen duena, eta irailaren 13ko 210/2010 Ebazpena, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailearena, euskararen eta Europar Batasuneko hizkuntzen jakite-maila egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliozkotzeak ezartzen dituen Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera.

Bi departamentuek emandako informazioa ikusirik, erakunde honek onartutzat hartu zuen iradokizuna, eta amaitutzat jo zuen bere jarduketa.

3.2.5. Zerbitzu Sozialen Foru Legea aldatzea, arau-hauste orokor batean.

.....
Administrazio

eskuduna: Eskubide Sozialetako Departamentua.

Arloa: Gizarte ongizatea.

Jarduketa: Arautzeko iradokizuna.

.....

Zaharren egoitzak kudeatzen dituzten zenbait erakunderen bidez, erakunde honek jakin zuen zer-nolako ondoeza eragiten zuen Eskubide Sozialetako Departamentuak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen arau bat aplikatuz, Nafarroako Foru Erkidegoko zaharren egoitzetan izandako gertaerak zehatzeak (edo zehapen-espeditenteei hasiera emateak gertaera horiengatik). Erakunde horiek oso orokortzat hartzen zuten arau hori tipifikazioari dagokionez, eta zehazpena neurritz kanpoko zela irizten zioten.

Erreferentzia egiten zaion eta administrazio-zehazpenetan edo zehapen-proposamenetan aipatzen den lege-araua abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen 86 e) artikulua da, egoera hau arau-hauste larritzat hartzen duena eta 12.001 eurotik 60.000 eurora arteko isunaz zehatzen duena: *“Egoitza-zerbitzuetako erabiltzaileei arreta espezializatua eta integrala ez ematea, etengabe eta beren premia espezifikoen arabera”*.

Erakundeek adierazi zutenez, *“Eskubide Sozialetako Departamentuko teknikariei eta profesionalei ere iruditzen zitzaaien arau hori aldatu egin behar dela, bidegabea, neurritz kanpoko, zehaztasunik gabekoa, behar bezala definitu gabea eta abar delako”*.

Zaharren egoitzak kudeatzen dituzten erakunde horien aburuz, arau horren bidez, Administrazioak egoitza-arretaren barruan oso jokabide desberdinak zehatzen zituen, arretaren eta teknikaren ikuspuntutik jokabide larriak ez zirenak, eta, izatekotan, arau-hauste arinak izango liratekeenak (kasu batzuetan, egokiagoa izango litzateke arau-hauste arintzat hartzea).

Halaber, haien ustez, gai horretan eskumena duen departamentuak egiten zituen ikuskapenetan, babesgabetasun-egoeran jartzen zituzten, ez baitzekiten zer egin lege-arau horri jarraikiz zehatuak ez izateko. Adierazi dute egoera are larriagoa dela, irizpide teknikoa aldatu egiten delako ikuskapena nork egiten duen. Ikusten dute ez dagoela Departamentuko Kalitate eta Ikuskapen Zerbitzuak onartutako eta argitaratutako irizpide uniformerik arauaren zehaztasun faltari aurre egiteko.

Horregatik guztiagatik, bi gauza eskatzen dituzte. Lehenik eta behin, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 16ko 15/2006 Foru Legean jasotako arau-hausteen eta zehapenen zehapen-erregimena aldatzea, ezartzen diren balizko arau-haustek behar bezala definitzeko eta bidezkoak izateko, eta arau-hausteen zehapenak neurrizkoak izateko (abisuen, ohartarazpenen, zenbateko txikiagoko

zehazpenen eta abarren alde eginez), erakundeek araudia nola bete jakin dezaten.

Eta bigarrenik, maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretua aldatzea, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 16ko 15/2006 Foru Legearen zehapen-erregimena garatzeko, lege hori aldatu ostean. Foru-dekretu hori zaharkituztat eta eskastzat jotzen zuten, ez delako egokitzen Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 16ko 15/2006 Foru Legean araututako arau-hauste eta zehapen berrietara, ez eta egoitza-zerbitzuen errealitate berrira ere.

Erakunde honek egiaztatu zuen abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen 86 e) artikulua idazkera orokorregia dela eta artikulua horren zehaztasunik ezak eta artikulua hori hainbat egoerara aplikatu ahal izateak berekin ekar dezaketela zaharren egoitzak kudeatzen dituzten erakundeek aipatzen zuten segurtasun falta juridikoa, bai eta administrazio-zuzenbide zehatzaileak iradokitzen duen tipikotasunaren printzipioaren balizko urratze bat ere. Erakunde honek orobat ikusi zuenez, arau-haustea tipifikatzen zuen idazkera orokor horretan -Administrazioak ulertzen zuenaren arabera- sar daitezkeen kasu ugariak 12.001 eurotik 60.000 eurora arteko isunekin zeha daitezke, eta isun txikiena jada nahiko handia da. Hori, ordea, arau-haustearen gertakariaren, tipifikatutako arau-haustearen eta ezartzen den zehapenaren arteko korrelazioak iradoki behar duen proportzionaltasun-printzipioaren aurkakoa izan daiteke.

Halaber, erakunde honek ikusi zuen abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea promulgatu zenetik ez zela onartu lege hori eta, hortaz, zehapen-erregimen hori garatzen duen erregelamendurik. Une honetan aplikatzen den araudi bakarra maiatzaren 23ko 2019/1991 Foru Dekretua da (Gizarte Zerbitzuen arloko baimen, lege-hauste eta zehapenen erregimenari buruzko arazoaren 13ko 9/1990 Foru Legea garatzen duena).

Horregatik guztiagatik, erakunde honi komenigarria iruditu zitzaion Eskubide Sozialetako Departamentura jotzea, planteatutako auziei buruz zer iritzi zuen jakiteko, bai eta arrazoizko epe batean egoitzak kudeatzen dituzten erakundeentzat eztabaida-iturri den lege-araua aldatzearen alde eta aipatutako araudi-garapena sustatzearen alde egongo litzatekeen jakiteko ere.

Eskubide Sozialetako kontseilariak bere erantzunean adierazi zuen prozedura bat egin zela abenduaren 14ko 15/2006 Foru legea aldatzeko, gizarte-zerbitzuen gaur egungo eskakizunei modu eraginkorragoan erantzun diezaion. Maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretua abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea egokitzeko aldatzeari dagokionez, Departamentuak jakinarazi zuen lege hori aldatzea aurreikusita zegoela eta zirriborro bat egiten hasi zirela.

Eskubide Sozialetako Departamentuak emandako informazioa ikusirik, eta informazio horren arabera legea aldatzeko bidean dagoela aintzat harturik, erakunde honek amaitutzat jo zuen bere jarduketa.

3.2.6. Huarteko adingabeen babes-pisura egindako bisita.

Administrazio

eskuduna: Eskubide Sozialetako Departamentua.

Arloa: Gizarte-ongizatea. Adingabeen babesa.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea. Gomendioak.

Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 26.2 artikularekin bat, erakunde honek Asociación Navarra Nuevo Futurok kudeatzen duen adingabeen babes-pisu bat ikuskatu zuen, pisu horretara eramaten diren adingabeen eskubideak zenbateraino errespetatzen diren ikusteko, erakunde honek erantzukizun publikoko zentroetan egiten dituen jarduketan barruan.

Bisitatutako pisua babesik gabeko adingabeentzako egoitza-zerbitzuen barruan kokatzen da. Zerbitzu horiek arau hauen bidez daude araututa: haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen VI. titulua, gizarte-zerbitzuen arloko baimen, lege-hauste eta zehapenen erregimenari buruzko maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuaren II.1.2 eranskina, eta gizarte-zerbitzu orokorren zorroa onesten duen ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuaren eranskina, G.3 puntua, pisua egoitza-harrerako zerbitzuan kokatua dagoelarik.

Pisua egoitzan ematen den zerbitzu bat da, adingabea babesteko, haren zaintza eta/edo tutoretza bere gain hartuta, babesgune bat emateko, haren garapen afektiboa, psikologikoa, prestakuntza- eta lan-arlokoa, intelektuala eta soziala egokiak izan daitezen.

Egoitza-zerbitzu horien erabiltzaileak adingabeak dira, babesgabetasun-egoeran edo gizarte-gatazka larriko egoeran daudela aitortu zaienak.

Nuevo Futuro erakundeak kudeatzen du zerbitzu hori, Eskubide Sozialetako Departamentuarekin hitzartuta, eta, une horietan, baimendutako zortzi plazak beteta zituen.

Nafarroako Arartekoak jarduketa hauek egin zituen:

2016ko martxoaren 16an, Nafarroako Arartekoaren bi aholkulari joan ziren Nuevo Futuro erakundeak kudeatzen duen pisura. Bisita horretan, instalazioen egoera nolakoa zen ikusi zuten, une horretan bere txanda betetzen ari zen zentroko hezitzaileak emandako ahozko informazioa jaso zuten, eta han zeuden adingabe batzuk elkarrizketatu zituzten.

Bisitan, hiru adingabe ikusi zituzten, 15, 7 eta 11 urtekoak.

Lehenak esan zuen oro har ez zuela kexarik pisuaren funtzionamenduaren inguruan, baina adierazi zuen gurasoen etxera itzuli nahi zuela. Bigarrenak esan zuen ematen zieten janaria asko hobe zitekeela eta noizbait janariarekin zerikusirik ez zuten “hondarrak” aurkitu zituztela janarian. Zehaztu zuen aurreko catering-enpresari buruz ari zela; enpresa horrek gaur egun ez die janaria hornitzen.

Bisita egin ostean, erakunde honek bisitaren akta bidali zion egoitza kudeatzen duen erakundeari, egin beharreko oharpenak egin zitzaizkion. Halaber, posta elektronikoa bidez xehetasun batzuk eskatu zitzaizkion erakundeari, adingabeentzako informazioarekin, ihesekin eta protokoloekin lotutako alderdiei buruzkoak. Pisuko barne-erregimeneko araudia eskatu zion, eta erakundeak bidali egin zuen.

Pisuaren funtzionamenduari lotutako alderdi hauek aztertu ziren:

- Pisuko instalazioak
- Hezitzaileak (txandak, titulazioa eta prestakuntza)
- Mediku-bisitak eta medikazioa
- Banakako hezkuntza-proiektuak
- Bazkaria
- Adingabeen kexak
- Familiekiko harremana

Egin beharreko bisitak eta elkarrizketak egin eta bidalitako dokumentuak aztertu ondoren, erakunde honi ez zitzaion beharrezkoa iruditu alderdi hauei buruzko gomendiorik egitea: instalazioak, banakako hezkuntza-proiektuak, medikazioaren

kudeaketa eta janari-zerbitzua. Izan ere, alderdi horiek behar bezala funtzionatzen zuten. Instalazioak, zehazki, egokiak ziren. Izan ere, ez zuten arkitektura-oztoporik, eta, ikuskapena egin zen unean, garbi eta txukun zeuden.

Dena den, Eskubide Sozialetako Departamentuari, hura baita zerbitzu publikoaren titularra, gomendio hauek egin genizkion, bisitatutako adingabeen pisuan gauzak hobetzeko proposamen gisa. Halaber, idazkiaren kopia bat bidali genion zentroa kudeatzen duen erakundeari, jakinaren gainean egon zedin.

A) Adingabeentzako informazioari buruz:

- Adingabeei idatziz eta modu argi eta berariazkoan esan dakiela zein diren haien eskubideak eta betebeharrak, pisuan dauden bitartean.

B) Kanpoko instantziei erreklamazioak aurkezteko eskubideari buruz:

- Behar diren baliabideak ezar daitezela adingabeek, libreki, kanpoko instantziei erreklamazioak eta kexak aurkezteko eskubideak baliatu ahal ditzaten, antolamendu juridikoari jarraituz, eta modu erreal eta eraginkorren bideratu ahal ditzaten erreklamazio eta kexa horiek, bai zentroaren funtzionamenduari buruzkoak, bai hartan ematen zaien tratuari buruzkoak ere.

C) Familiei zuzendutako informazioari buruz:

- Eman dakiela gurasoei edo ingresatutako adingabeen familiako arduradunei adingabeekin lantzen diren helburuei eta kasu bakoitzari egiten zaion ebaluazioari eta jarraipenari buruzko informazioa.

Eskubide Sozialetako kontseilariak bere erantzunean jakinarazi zuen alderdi hauek hobetzeko asmoa zutela: egoitza-harreran dauden haurrek eta nerabeek informazioa eskuratzeko kanalak eta protokoloak, kexak egiteko modua, eta haur eta nerabeen familia biologikoei haur eta nerabeen eboluzioari buruz jasotzen duten informazioa.

Txostenaren informazioa ikusirik, eta Departamentuak erakunde honek egindako gomendioak onartzeko asmoa zuela eta erakundeaz arduratzen den talde teknikoari ezarri behar ziren neurri zuzentzaileen berri emateko konpromisoa zuela egiaztatu ondoren, erakunde honek amaitutzat jo zituen bere jarduketak.

3.2.7. Bizikleten zirkulazioa Iruñeko espaloietan.

Administrazio

eskuduna: Iruñeko Udala.

Arloa: Trafikoa. Bide segurtasuna.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea. Arautzeko iradokizuna.

Erakunde honek herritar baten idazkia jaso zuen. Idazki horretan, herritarrak adierazten zuen haserre zegoela. Izan ere, Iruñeko Udaleko Trafiko Ordenantzaren arau-haustetzat jotzen zuen bizikletak espaloietan ibiltzea, eta eskatu zuen udal-araudi horretan ezarritakoa betetzeko; alegia, bizikletak espaloietan ez ibiltzeko, baizik eta bizikletak ibiltzeko baimendutako bideetan.

Iruñeko Udaleko Trafiko Ordenantza horrek hau ezartzen du, bizikletek Iruñean izan beharreko zirkulazioari eta bizikleten eta oinezkoen zirkulazioaren arteko erlazioari dagokionez:

- a) Bizikletak bidegorrietan eta galtzadetan barna ibiliko dira (23. artikulua).

- b) Orobat ibil daitezke gainerako bide eta ibilbide seinalatuetan (23. artikulua).
- c) Trafikotik eta oinezkoak ibiltzeko eremuetatik bereizitako bideen erabiltzaileek neurriko abiadura eraman behar dute, 20 km/h-tik goitik egiten ez duena, eta kasu eman beharko dute eta kontuz ibili, bide osoan (25. artikulua).
- d) Debeku da bizikletak espaloietan barna ibiltzea (26. Artikulua, 1. lerrokada).
- e) Salbuespenez, bizikletak espaloietan barna ibiltzen ahalko dira, soil-soilik behar bezala seinalaturik badaude eta baldintza hauekin (26. artikulua):

- Bizikletek zerrenda seinalatuetan bili beharko dute eta lehenasuna oinezkoak izanen du espaloi osoan.
- Oinezkoak aitzinatu edo haiekin gurutzatzean, bizikletadunek metro bateko tartea utzi beharko dute haiengandik.
- Oinezkoen kopuruak ez badu aukerarik ematen metro bateko tartea uzteko bizikletadunaren eta haien artean, bizikletadunak bizikletatik jaitsi eta oinez gurutzatu beharko du.
- Bizikletak oinezkoei egokituriko neurriko abiaduran joanen dira, betiere

10 km/h-tik beheiti, eta axolagabekeriaz eta ausarkeriaz oinezkoen segurtasunean eragiten duen maniobrarik egin gabe.

- f) Espaloi seinalatuetan eta bidegorrietan barna ibiltzen diren bizikletadunek, galtzadetara ailegatzen direlarik oinezkoendako pasabidea dagoen tokietan, gelditu egin beharko dute, zangoa lur gainean ezarri eta galtzadan barna dabiltzan ibilgailuetatik ikusi dituztela egiaztatuta, segitzen ahalko dute aitzina (26. artikulua).
- g) Bizikletek parke publiko, pasealeku eta oinezkoendako eremuetan ibiltzeko baimena dute, betiere, espaloietan bezala, beren abiadura oinezkoenera egokitzen badute, neurriko abiadura eramaten badute, 10 km/h-tik beheitikoa, eta axolagabekeriaz edo ausarkeriaz oinezkoen segurtasunean eragiten duen maniobrarik egiten ez badute. Lehentasuna oinezkoena izanen da beti, eta bizikletadunek metro bateko tartea utzi beharko dute, gutienez, oinezkoekin (27. artikulua). Ibilbide seinalaturik baldin bada, bizikletek zerrenda seinalatuetan barna joan beharko dute nahitaez (27. artikulua).
- h) Bizikletei abiadura-mugei buruzko ordenantzako gainerako arauak (31-33 artikulua) eta zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko gainerako arauak aplikatu behar zaizkie.

2013an, erakunde honek iradokizun hau egin zion Iruñeko Udalari, herritar batek Iruñeko alde zaharreko espaloi, parke eta abarretan barna bizikletak erabiltzeari buruz egindako kexa zela eta:

“a) Iruñeko Udalari iradokitzen diogu bizikleten zirkulazioa oinezkoendako eremuetan, espaloietan eta pasealekuetan barna arautzen duten Iruñeko Udaleko Trafiko Ordenantzaren arau orokorrak betetzen direla egiaztatzen jarrai dezala eta, behar izanez gero, zorrotasun handiagoz egiazta dezala.

b) Iruñeko Udalarari iradokitzen diogu herritarrei zuzendutako bizikletaren erabilerari buruzko kontzientziazio-kanpainak egiten jarrai dezala eta, behar izanez gero, kanpaina gehiago egin ditzala, bizikletak erabiltzen dituztenek Iruñeko Udaleko Trafiko Ordenantzan bizikletaren zirkulazioaren inguruan ezartzen diren arau orokorrak ezagut eta errespeta ditzaten”.

2013ko ekainaren 10ean, haxe adierazi zuen Iruñeko Udalak:

“Nafarroako Arartekoak egindako iradokizunei dagokienez (13/326/V espedientea), honen berri jakinarazten da:

Udaltzaingoaren Buruzagitzari agindu zaio eguneroko zerbitzuaren berri ematean udaltzainei arreta berezia jar dezatela eskatzeko, batez ere udan, bizikleten zirkulazioan -batez ere galtzadatik kanpoko zirkulazioan- Udaleko Trafiko Ordenantzan ezarritakoa bete dadin.

Ingurumen Arloak, bizikletaren erabilera sustatzeko urtero egiten diren kanpainetan eta kanpaina horietan egiten den moduan, ibilgailu-mota horrekin ibiltzeko Udaleko Trafiko Ordenantzaren arauak zabaltzen jarraituko du”.

Erantzun hori gorabehera, erakunde honetako langile batzuk Iruñean bizikleten zirkulazioa nolakoa den ikustera joan ziren, eta ikusi zuten hirian oso ohikoa dela bizikletadunak Iruñeko espaloietan barna ibiltzea, galtzadan barna ibili beharrean.

Bizikletadunak seinalatutako eta baimendutako bideetatik kanpo ibiltzen dira. Erakunde honetako langileek orobat ikusi zuten batzuetan ez dela metro bateko tartea uzten oinezkoak aitzinatzean edo haiekin gurutzatzean, oinezko asko daudenean bizikletadunak ez direla bizikletatik jaisten eta ez dutela oinez jarraitzen, abiadura ez dela oinezkoenera egokitzen, eta batzuetan axolagabekeriaz edo

ausarkeriaz oinezkoen segurtasunean eragiten duen maniobrak egiten dituztela.

Bizikletadun asko galtzadatik kanpo ibiltzen dira, oinezkoen eremuetan eta espaloietan barna, azkar, gelditu gabe aitzina jarraitzeko egin beharreko bira eta maniobrak eginez, eta oinezkoentzako bidegurutzeetan, oinezkoentzako eremuetan eta beste hainbat lekutan gelditu gabe eta zangoa lur gainean jarri gabe.

Erakunde honetako langileek ezin izan zuten neurtu bizikleta guztien abiadura 10 km/h-tik beheitikoa dela, baina ikusi zuten txirringuluri batzuek abiadura-muga hori gainditzen zutela espaloietan eta lehentasunez oinezkoentzako diren eremuetan barna ibiltzen ari zirenean.

Orobat ikusi zuten, bizikletadunak galtzadetara ailegatzeko direlarik oinezkoentzako edo bizikletadunentzako pasabidea dagoen tokietan, gutxitan gertatzen dela bizikletadunak gelditzea, zangoa lur gainean ezartzea eta galtzadan barna dabiltzan ibilgailuetatik ikusi dituztela egiaztatzea aitzina segitu aurretik, bidea semaforoetatik zeharkatzen dutenean izan ezik, kasu horretan bizikletadunek oinezkoen pasabidetik zeharkatzen baitute bidea. Hitz batez, bizikletadun asko oinezkoak izango balira bezala jokatzeko dute bizikletan doazenean, eta eremu berak erabiltzen dituzte, eta mugimendu berak egiten dituzte.

Horrenbestez, agerian gelditu zen Udaleko Ordenantza nabarmen hausten zela, espaloietan eta eskusiboki oinezkoentzako diren eremuetan bizikletan ibiltzeko debekuari dagokionez, bai eta seinalatutako bide eta lekuetan barna ibiltzean errespetatu beharreko tarte eta mugei dagokienez ere.

Egoera horren aurrean, Iruñeko Udalaren legezko betebeharra Udaleko Trafiko Ordenantza betearaztea da, eta, horren bidez, oinezkoen segurtasuna eta babesa zaintzea, indarreko ordenamendu

juridikoa aplikatuz. Indarreko araudiak argi eta garbi ezartzen du bizikletadunek galtzadetan, bide seinalatuetan eta eremu baimenduetan barna ibili behar dutela, eta ez espaloietan eta oinezkoentzako eremuetan, baldin eta oinezko asko badaude. Indarreko araudiak orobat behartzen du Udala neurriak hartzera bizikletadunak eremu baimenduetatik kanpo ibil ez daitezen.

Edonola ere, erakunde hau jabetzen da gero eta herritar gehiagok erabiltzen dutela bizikleta Iruñean hiriko leku batetik beste batera joateko, eta gizarteak eta herritarrek gero eta gehiago eskatzen dutela garraiobide hori hirian modu seguruan erabili ahal izatea, ibilgailu motordunek harrapatzeko arriskurik gabe. Hain zuzen ere, hirian gero eta gehiago direnez bizikleta erabiltzen dutenak, iruditzen zaigu gaur egungo udal-araudia ez dela egokia egoera horri aurre egiteko, eta bizikletan ibiltzeko bideak, lekuak eta ibilbideak ez direla nahikoa eskaera horri erantzuteko.

Hori dela eta, Nafarroako Arartekoari egoki iruditu zitzaien Iruñeko Udalari hau guztia sakon azter zezala eskatzea:

- Iruñean bizikletaren erabilera nola dagoen;
- gaur egungo udal-araudia zenbateraino ez den betetzen;
- bizikletadunen eta oinezkoen artean hiriko hainbat tokitan sortzen diren arazoak, bizikletadunek espaloiak eta oinezkoentzako tokiak hartzen dituztelako;
- nola bultzatu bizikletaren erabilera oinezkoen kalterik egin gabe eta bizikletadunen segurtasuna bermaturik ibilgailu motordunen aldean;
- bizikletetarako bide, bidegorri eta bizikletadunek erabiltzeko moduko toki gehiago ezartzea;

- hirian bidegorri-sare bat sortzea, ibilgailu motordunetatik bereizia eta horien gainean lehenetsua duena, bizikletadunen segurtasunerako (esklusiboki bizikletadunentzako eta baimendutako ibilgailuentzako kale-sare bat sortuz, ibilgailu motordunen zirkulaziorako kaleen ordezkoa);
- bizikletan ibiltzea baimenduta dagoen espaloiaren seinaleztatapena hobetzea (gaur egun bizikletan ibiltzea baimenduta dagoen espaloi gehienetan ezabatuta edo oso hondatuta daude seinale horizontalak, eta zaila da seinalearen pintura zuria ikustea);
- bizikletak segurtasunez aparkatzeko leku gehiago jartzea, bizikletak aparkatzen diren tokietan mugikortasun-arazoak dituzten pertsonen bidea oztopatzen ez zaiela bermatuz;
- bizikletadunentzako informazio-kanpainak egitea oinezkoak - batetik bat espaloietan- errespetatzeko dituzten betebeharez, eta ibilgailuei dagokienez dituzten betebeharez...

Iruñeko Udalari orobat iradoki zitzaion, azterketa horren ildotik eta egoki jotzen zituen beste neurri eta alderdi batzuk abian jarri ondoren -hala nola herritarrekin eta herritarren artean (bizikletadunak, oinezkoak, eta, behar izanez gero, ibilgailuen gidariak) eztabaida publiko eta sozial bat-, balora zezala zer zen hobe: Udaleko Trafiko Ordenantza aldatzea bizikleten zirkulazioa gaur egun ez bezala arautzeko, baldin eta helburua gaur egungo benetako egoera baimentzea edo aldatzea bazen, edo, alderantziz, indarreko Ordenantza berrestea -aldatzea komenigarritzat jotzen ez delako- eta, hori erabakiz gero, Ordenantzaren bizikletak oinezkoentzat soilik diren eremuetatik ibiltzeari buruz jasota dagoena benetan betearaztea.

Iruñeko Udalak jakinarazi zuen bizikleten kontrola areagotuko zuela, batez ere oinezkoek eta bizikletadunek eremu bera partekatu behar duten lekuetan, eta bizikleta modu egokian erabiltzeko kontzientziazio-kanpainak indartuko zituela, bai eta ikastetxeetan ere. Halaber, Udalak adierazi zuen Mugikortasunari buruzko Ordenantza baten zirriborroa egiten ari zela Mugikortasunaren Behatokiarekin elkarlanean, bizikletaren erabileraren benetako egoera aztertzeko eta egoera horri erantzuteko, bizikleta-kale seinalatuak sortuz, bizikletadunari segurtasuna emango diotenak eta galtzadan barna ibiltzera erakarriko dutenak, bai eta bidegorri berriak sortuz, ibilbideak aztertuz, eskola-bide seguruak sortuz, etab.

Iruñeko Udalak bidalitako erantzunean ageri ziren neurriak ikusirik, erakunde honek onartutzat eman zuen iradokizuna, eta amaitutzat jo zituen bere jarduketak.

3.2.8. Foru Berriaren 69. legea, gurasoek seme-alabatasuna aitortzeari buruzkoa.

.....

Erakunde

hartzailea: Nafarroako Parlamentua.

Arloa: Foru-zuzenbide zibila.

Jarduketa: Arautzeko iradokizuna.

.....

Herritar batek berak bizi izandako esperientzia baten ondoren aurkeztutako kexaren bidez, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Bildumaren edo Foru Berriaren 69. legean jasotako erregulazioak zer-nolako kaltea eragin dezakeen jakin zuen erakunde honek.

Nafarroako lege hori gurasoek seme-alabatasuna aitortzeari buruzkoa da.

Foru-legeak hauxe ezartzen du:

- a) Seme-alabatasuna Erregistro Zibilaren arduradunari egindako adierazpenaren bidez edota testamentu nahiz beste agiri publiko baten bidez aitor daitekeela.
- b) Gurasoek biek batera edo bananduta aitor dezaketela seme-alabatasuna. Bananduta eginez gero, horretan ezin izanen dutela adierazi beste gurasoa nor den, hori aldez aurretik zehaztuta dagoenean izan ezik.
- c) Adingabearen seme-alabatasuna aitortzeko, horren adostasunaren ordeztu ez dela beste betekizun osagarririk gauzatu behar.
- d) Gurasoetako batek adingabearen seme-alabatasuna aitortzen badu, haren legezko ordezkariak aitorpena aurkara dezakeela.

69. legea 70. legean ezarritakoarekin osatzen da. 70. legean esaten denez, “aitatasuna eta amatasuna erreklamatu edo aurkaratu ahal izanen dira orotariko frogabideak erabiliz eta bilduma honetako xedapenen arabera. Epaileak ez du demanda onartuko, horrekin batera ez bada aurkezten berorren oinarri diren egitatei buruzko froga-abiaburua”.

Herritarrak azaldu zuenez, bere kasuan, bere semearen aita ez den gizon batek Nafarroako udalerrri bateko Erregistro Zibilean adierazi zuen, eskubide-abusuz eta fede gaiztoz, semearen aita zela. Horren ondorioz, amak egoera desatsegin bat bizi izan zuen; izan ere, Erregistro Zibilak aitatasuna inskribatzea beste erremediorik ez zuen izan, Nafarroako legearen arabera Erregistro Zibilak ezin baitu inskribatzea ez den beste ezer egin. Dena den, Erregistro Zibilak adierazi zuen inskripzio “marjinal” bat izan zela.

Erregistro Zibilak Nafarroako legea betez jardun zuenez, amak, ezinbestean, egin beharreko ekintza eta jardun juridikoak egin behar

izan zituen alegatutako aitatasuna aurkaratzeko eta suntsitzeko, kontuan hartu behar delarik egoera anomalo horrek amari ekarritako ondoeza eta zama juridiko, moral eta ekonomikoa.

Nafarroako Arartekoak ikusi zuen 69. legearen gaur egungo erregulazioa, apirilaren 1eko 5/1987 Foru Legearen bidez ezarri zena, ez datorrela bat Kode Zibileko 124. artikuluan jasotzen denarekin - desberdin arautzen baitira adingabe baten ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna aitortzeko antzeko egoerak-, eta, are gehiago, foru-araudiak ama egoera juridiko okerragoan uzten duela, oker edo gaiztakeriaz aita izatea alegatzen duenari dagokionez. Kode Zibileko 124. artikulua aukera ematen du adingabea jaiotza-inskripzioa egiteko epearen barruan aitortzeko. Hortaz, aita dela uste duenak inskripzioa egin dezake Erregistro Zibilean. Dena den, Kode Zibilak hau gehitzen du: “Aitatasunari buruzko inskripzioa modu horretan eginez gero, inskripzio hori etenda gera daiteke, amak hala eskatuz gero, jaiotzaren osteko urtebetean zehar. Aitak inskripzioaren baieztapena eskatzen badu, nahitaezkoa izango da epaileak berori onestea, Fiskaltzak esan beharrekoa entzunez”.

Kode Zibileko pasarte horrek aukera ematen dio amari aitatasunaren inskripzioa eteteko baldin eta aita dela alegatzen duena benetan aita ez dela irizten badio. Horixe txertatu beharko litzateke Nafarroako legean, jaioberriaren aita dela dion gizon batek oker edo fede gaiztoz aita gisa inskribatzeko aukerarik izan ez dezan, baldin eta amak gizon hori aita dela ukatzen badu.

Erakunde honen arabera, deskribatutakoaren antzeko kasurik eta beste aitatasun-inskripzio zalantzagarririk gerta ez dadin, beharrezkoa izanen litzateke 69. legean bosgarren lerrokada bat txertatzea, ondoren proposatzen denaren antzeko idazkera izango lukeena. Testu hau gertaeraren nondik norakoak eta ondorioak zein diren hobeto ulertzeko besterik ez zen idatzi, eta asmoa gehiago da nondik norakoak azaltzea azken bertsioa aurkeztea baino:

“Aitatasuna, jaiotza-inskripzioa egiteko epearen barruan inskribatzen bada ere, eten egin ahalko da, amak hala eskatzen badu aitatasun-inskripzioa egin eta urtebeteko epean, amak aitatasuna ukatzen duenean. Aitak inskripzioaren baieztapena eskatzen badu, nahitaezkoa izango da epaileak berori onestea, eta, dagokion legediaren arabera beharrezkoa bada, Fiskaltzak esan beharrekoa entzutea”.

Ikus daitekeenez, testua Kode Zibileko 124. artikulua oso antzekoa da, baina hiru ñabardura ditu:

- a) Urtebeteko epea aitatasuna inskribatzen den egunetik hasten da, eta ez jaiotza-datatik, epe hori mesedegarriagoa baita amarentzat. Amak aitatasun-inskripzioaren berri izan ahalko du, Erregistro Zibilean egin beharreko izapidea eginda.
- b) Eteteko arrazoia, logikoa denez, aitortutako aitatasunaren ukapena da.
- c) Estatuko legeriak hala ezartzen duenean, Fiskaltzak esan beharrekoa entzun beharko da.

69. legea ezin da osatu gaur egun Kode Zibilean jasotzen denarekin. Ezin da analogikoki integratu, ez eta ordezeko moduan aplikatu ere.

Hori dela eta, a priori galarazi nahi badira, araudi zibil bateratuak egiten duen bezala, aitatasun faltsua aitortzen den kasuak, eta, amak hala eskatuta inskripzioa eten ahal izateko aukera aitortu nahi bada amak aitatasuna duela dioen gizonak aitatasuna ez duela dioenean, beharrezkoa da Nafarroako Parlamentuak 69. legea aldatzea.

Nafarroako Auzitegi Nagusiaren Arlo Zibileko eta Penaleko Salak abenduaren 22ko 21/1994 Epaian adierazi bezala, “[...] *Bildumaren 69., 70. eta 71. legeak aztertu ondoren, ondorioztatzen da*

Nafarroako Zuzenbideak araudia bete-betekoa dela, ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna aitortzeari dagokionez; hortaz, Foru Berrian jasotako arauak interpretatu behar dira, ordezko zuzenbidera jo gabe, salbu eta Erregistro Zibilaren Legeak hala ezartzen duenean eta lege hori arlo horretan aplikatzekoa denean”.

Epai horretan, Nafarroako Auzitegiak uko egiten dio argudiatutako integrazio analogikoaren bideari.

Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren 2000ko ekainaren 17ko Ebazpenean ere, antzeko adierazpen bat egiten da: *“ez dago zalantzarik, ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna aitortzeari dagokionez, Nafarroako foru-legeen araudia bete-betekoa da, eta, horrenbestez, ez dira zertan osatu Kode Zibilean jasotako arauekin. Zehazki, aitak Erregistro Zibileko arduradunaren aurrean adingabearen aita dela aitortzeari gagozkiorarik (69. legea). Aitorpen hori baliozkoa eta eraginkorra izateko eta Erregistro Zibilean inskribatzeko, ezin da eskatu Kode Zibileko 124. artikuluko baldintzak betetzea, aitorpen horiek zuzenbide erkideak arautzen baititu. Arrazoi horiek berak direla eta, bidegabeba da kasu horretan aitatasunaren inskripzioa etetea, 124. artikuluko bigarren lerrokadan jasota dagoen bezala”.*

Nafarroako Parlamentuko Foru Erregimenaren Batzordeak hitzarmen bidez sortu zuen, 2016ko martxoaren 15ean, Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Bilduma edo Nafarroako Foru Berria berrikusteko, eguneratzeko eta XXI. mendeko Nafarroako gizartearen errealitatera egokitzeko ponentzia parlamentarioa, eta erakunde honi egoki iruditu zitzaion iradokizun hori Nafarroako Parlamentuko presidenteari aurkeztea, hari egoki irudituz gero ponentzia horri aurkez ziezaion, ponentzia horrek edukia aztertu, eta, behar izanez gero, 69. legearen amaieran lerrokada bat txertatzea proposa zezan, amak hala eskatuta aitatasunaren inskripzioa jaiotza-inskripziorako ezarritako epean, hots, inskripzioa egin eta urtebeteko epean,

eteteko aukera jasoko duena, baldin eta amak aitatasuna ukatzen badu.

Hori dela eta, Nafarroako Arartekoak, Foru Berriaren 69. legea aztertu ondoren, egokitzat jo zuen Nafarroako Parlamentuari iradokitzea Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Bilduma edo Nafarroako Foru Berria berrikusteko eta eguneratzeko sortutako ponentziak auzia aztertzea eta, behar izanez gero, 69. legearen amaieran lerrokada bat gehi zedila proposatzea, ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna aitortzeari buruzkoa, Kode Zibileko 124. artikuluan egiten den antzera jasoko zuena amak hala eskatuta aitatasunaren inskripzioa eteteko aukera, inskripzioa egin eta urtebeteko epean, amak aitatasuna ukatzen duenean. Erakunde honek orobat iradoki zuen zera aztertzea eta proposatzea: aita inskripzioaren baieztapena eskatuz gero nahitaezkoa izatea epaileak berori onestea, eta, dagokion legediaren arabera beharrezkoa bada, Fiskaltzak esan beharrezkoa entzutea.

Nafarroako Parlamentuko presidenteak idazki bat bidali zigun, eta bertan adierazi zuen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak iradokizuna Foru Berria berrikusteko, eguneratzeko eta XXI. mendeko Nafarroako gizartearen errealitatera egokitzeko ponentziako kideei ematea erabaki zuela.

Erantzuna ikusita, erakunde honek amaitutzat eman zituen bere jarduketak.

3.2.9. Foru Berriaren 257. legea, inbentario faltaren ondorioz fideltasun-gozamena galtzeari buruzkoa.

.....

Erakunde

hartzailea: Nafarroako Parlamentua.

Arloa: Foru-zuzenbide zibila.

Jarduketa: Arautzeko iradokizuna.

.....

Abokatu zibilista batek, Nafarroan lanbide-esperientzia luzea duenak, erakunde honi azaldu zion nolako kalte-egoeran gertatzen diren herritar batzuk Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Bildumaren edo Foru Berriaren 257. legeko lehenengo idatz-zatian jasotako erregulazioaren ondorioz. Bere lanbide-esperientzian, abokatu honek herritarrentzako kalteei buruzko hiru kasu atzemanda zituen, lege-arau horrek ezarritako zorrotasunaren ondorioz.

Foru Berriaren 257. Legearen lehen lerrokadan ezartzen denez, “Alargunak ez du fideltasun-gozamenik eskuratuko, baldin eta gozamen horren hedadura ezagunean sartzten diren ondasun guztiekin ez badu inbentarioa egiten. Inbentarioa eskritura publikoan agerrarazi behar da, eta horri hasiera emanen zaio, ezkontidearen heriotza gertatu edo horren heriotza-adierazpena egin eta hurrengo berrogeita hamar egunetan, eta amaiera emanen zaio beste berrogei hamar egunetan. Ehun eguneko epe horretan, inbentario berrien bidez gehi daitezke sartu gabe gertatu diren ondasunak. Ezinbesteko kasuetan, epeok eten egingen dira arrazoiak dirauen artean”.

Lehen lerrokadan ezarritakoa laugarrenean ezarritakoarekin osatzen da: “Jabe soilak hala eskatuta, gozamendunak nahitaez adierazi beharko du zein notarioren aurrean egin duen inbentarioa edo horri egindako gehikuntza. Jabe soilak inbentarioaren kopia lortzeko eskubidea du, eta gozamendunari eskatu ahal izanen dio ongi ditzan eskritura publikoaren bidez inbentarioan izandako oker eta hutsuneak”.

Ikus daitekeenez, 257. legeak ezartzen du fideltasunaren legezko gozamedunak (ezkontide alarguna) zendutako ezkontidearen ondasunen inbentarioa hasi eta bukatu behar duela hura hil eta berrogeita hamar eguneko epe laburraren barruan eta, nolahi ere, hari buruzko eskritura publikoa egin behar duela hurrengo berrogeita hamar egunen buruan; hau da, guztira, ehun egun dauzka ezkontidea hiltzen denetik kontatuta.

Inbentarioa egiteko exijitzen den legezko baldintza hori berezko du fideltasunaren gozamina eskuratzeak, eta hala deklaratu zuen Nafarroako Probintzia Auzitegiak (1. sekzioa) apirilaren 11ko 102/2001 epaian. Horrenbestez, epai horrek berak dioenez, conditio iuris ezin saihestuzkoa da, eskubide erreal mugatzailea eskuratzeko, eta hura ez betetzeak berarekin dakar "epea amaitzearen tamalezko ondorio inperatiboa".

Probintzia Auzitegiaren (1. sekzioa) azaroaren 9ko 230/2002 epaiak dio ezkontidea zendu eta hurrengo berrogeita hamar egunen barruan ondasunen inbentarioa egin behar izatearena "halabeharrezko baldintza dela legezkotasunaren gozamina erreklamatzeko".

Hori dela eta, arauan inbentarioa egiteko finkatutako epe luzaezina edo epe luzaezinak iragaten badira hura egin gabe edo haren egitea eteteko ezinbesteko arrazoi bat gertatu gabe, lege ezin da ulertu fideltasunaren gozamina eskuratu denik eta, horrenbestez, alargunak eskubidea duenik hura osatzen duten ondasunak erabiltzeko edo gozatzeko; hartara, erabilera- eta gozamen-eskubideak jabe soilari egokituko zaizkio.

257. legeak ezinezko egiten du fideltasunaren legezko gozamina eskuratzeko heriotza gertatu eta ehun egunen buruan ezkontide alargunaren inbentariarik ez badago. Legezko kasua, noski, 262. legeak aurreikusten duenaz bestelakoa da, azken hori alarguntasunaren gozamina kentzeari edo galtzeari buruzkoa baita, jabe soilak hala eskatuta. Lehenengo legeak, inbentarioa egitearen

conditio iuris delakoa falta delako, eskubidea eskuratzea eragozten du. Bigarren legeak, berriz, dagozkion kasuetan jada legez eskuratu den eskubidearen galera dakar; besteak beste, alargunaren betebeharrak doluz edo zabarkeria larriz ez betetzeko kasuan.

Nafarroako Auzitegi Nagusiaren urriaren 5eko 24/2000 epaiak (Arlo Zibileko eta Penaleko Sala) honako hau dio:

“Horixe da arauaren justifikazio historikotik ondorioztatzen den zentzua, zeren eta Nafarroako Bilduma Berri-berriaren 3. liburuko 14. tituluko 1. legeak gozamenaren galera lotzen baitzuen inbentariarik ez egotearekin, hauxe ezarrita: *“bietako bat hiltzen denean, senarrak edo emazteak, bizirik gelditu denak, hogeita hamar eguneko epean hasi beharko du hil berri den senarraren edo emaztearen ondasun guztien inbentarioa egiten, eta beste hogeita hamar egunen buruan amaitu beharko du. Eta hala egiten ez badu, haietan foruaren arabera edo zendu berriaren erabakiz eduki behar zuen gozamena galduko du, eta ez ditu fruituak bere eginen. Eta zer edo zer ezkututzen badu, hura itzuli beharko die beste hainbesterekin gauza horren jabeei, gozamena amaituta”*. Eta 3. liburuko 14. tituluko 2. legeak agintzen du inbentarioa idazteko betebeharra egonen dela nahiz eta epaileak edo jaraunsleek hura errekeritu ez, Aragoiko Zuzenbidean gertatzen zen bezala (ikus Bildumako 80. artikulua), non inbentarioa, Aragoiko doktrina baimenduaren (Pala Mediano, Lorente Sanz) arabera, ez erabiltzera ere iritsiko balitzateke. Nafarroan, ordea, inbentarioaren betebeharrak hori 1765eko eta 1766ko Gorteen Koadernoetako XLIX. legean berretsi zen -Errege jauregian 1766ko otsailaren 7an emandako legeari dagokio- *“ezkontza-kontratuetan dohaintzan ematen diren ondasunak zehazten ez direnean, haien banakako errolda eginez, eta ondasunen inbentariarik jasotzen ez denez, bietako bat hiltzen denean, ustekabeko, gastu eta auzi ugari gertatzen baitira, eta ezin baitira dohaintzan emandako ondasunak frogatu, ez eta hiltzen direnek beren azken egunetan uzten dituztenak ere”*.

Nafarroako Auzitegi Nagusiaren apirilaren 1eko 11/2004 epaiak (Arlo Zibileko eta Penaleko Sala) jotzen du ezen legeak bizirik geratzen den ezkontideari inbentarioa egiteko, fideltasunaren gozamina eskuratzeko aldera, ezartzen dion epe luzaezinaren arrazoia dela hil den ezkontidearen jaraunsleek iruzurra egiteko dagoen arriskua.

Berrikiago, agian arauaren zorrotasunaz jabetuta, apirilaren 9ko 6/2013 epaiak (Arlo Zibileko eta Penaleko Sala), zeinak partzialki uztartzen baitu Probintzia Auzitegiaren urriaren 22ko 212/2012 epaia, honako hau deklaratu du: “hala eta guztiz ere, ezin da doktrinan baketsutzat jo, baldin eta inbentario hori nahitaezko baldintza baldin bada eskubidea eratzeko edo soilik hartaz gozatu edo hura eraginkorra izateko, ez eta inbentarioa ezarritako epean egiteak eragozten badu eskubidearen sorrera bera edo, erakundearen aurrekari historikoei hobeki egokituta, haren galera determinatzen badu (Bilduma Berri-berria, 3, 14, 1)”. Eta epaiak gehitzen du ezen “hala eta guztiz ere, nahiz eta eskubidea eratzeko baldintza izan, edo hartaz gozatu edo hura eraginkorra izatekoa, zalantzarik ez dago inbentarioa egiteko betebeharrak salbuespena edo dispentsa egiteko modua badagoela, inbentarioaren huts-egite edo ezarekin lotutako eraginak galduz. 264.1) legeak inbentarioa egiteko legezko beharrari buruzko dispentsa ezartzen du, xedapen-egilearen borondatez nahiz itun bidez [...]. Eta dispentsa hori onargarria bada, baldintza berdin-berdinetan inbentarioa hasteko eta amaitzeko epeen etetea, luzatzea edo zabaltzea onargarria den bezalaxe (Foru Berriaren 264.4 legea), berdin bideragarri gertatzen da interesdunen arteko akordio edo hitzarmen bidez inbentarioaren legezko baldintza kendu eta haren ordeztu gozamenaren zabalpen objektiboak sortzen dituen eta haren formalizatzean tartekatzen diren gaiak erabakitzeko arbitraje-prozedura ezartzea”.

Hasieran aipatutako abokatu zibilistaren ustez, 257. legeak fideltasunaren gozamina eskuratzeko baldintza edo betekizun hori exijitzea, gaur egun, arau zorrotz, formalista eta, betiere, zuzengabearen adibide argia da, zeren eta esperientzia luzeak

erakutsi dionez, herritar gehienek ez baitute ezagutzen inbentarioa egiteko legezko eta formazko betebeharrak, eta horrek nabarmen kaltetzen du alarguna, halako punturaino non gozamenaren ondasun guztiez gabetzen baitu (horien artean etxebizitza edo sostengurako diru-sarrerak lortzeko produkzio-ondasunak egon daitezke, eta normalean egoten dira); eta horrek, normalean, emakumeak kaltetzen ditu (zeren eta beraiek baitira gehienetan alargunak), eta jabe soilaren ez-betetzea erabiltzen da (askotan, anai-arrebek, ilobek edo beste senide batzuek erabiltzen dute) alargunari beharrezko dituen ondasunak kentzeko, eta horrek ezkontidea galdu izanari gehitu behar izaten dizkio etorkizun pertsonalari buruzko larritasuna eta herostura, denbora laburrean denetik ezer ezera iraganda.

Nafarroako Arartekoaren erakundeak oinarrituztat jo du herritar kualifikatu horrek adierazitako kezka, eta ikusi du 257. legean eta haren aplikazio zorrotzean, inbentarioa egiteko epea iragaten denean, “administratuei egoera zuzengabe edo kaltegarriak” sortzeko ustezko kasu bat dagoela, hain zuzen ere uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 33.2 artikulua aipatzen duenaren ildotik.

Lege horrek legezko betebeharrak ezartzen ditu, zeina egiazki ezagutzea zaila izan baitateke herritarrentzat, zerenez eta ehun eguneko epe laburra finkatzen baitu inbentarioa egiteko, eta epe hori inbentarioa egin gabe iragateak berarekin dakarkio gozamenari zehapen edo ondorio kaltegarri eta zorigaitzokoa, proportziorik gabea, bere efektu pertsonal eta ondarekoentzat, ez-betetze horretaz erabateko onura hartzen duenaren (jabe soila) errekerimendurik ere behar izan gabe. Gainera, gaur egun, inbentarioa osatuko luketen ondasun gehienak erregistro publikoetan jasota daude -Jabetzaren Erregistroan, katastro-erregistroetan, Merkataritza Erregistroan, Nafarroako Nekazaritza Ustiategiaren Erregistroan, aurrezki entitateetan eta abarretan-, eta, horrenbestez erraz identifikatu daitezke ondasun higiezinak, sozietateetako partaidetzak eta akzioak, banku-kontuak, nekazaritza- eta

abeltzaintza-ondasunak..., eta zendutako ezkontidearen jaraunsteak iruzur egiteko arriskurik ez dago, horixe baita antzina (Bilduma Berri-berrian) inbentarioa egiteko betebeharrarekin babestu nahi zena.

Nafarroako foru zuzenbide zibilaren doktrinan, erakunde honek aurkitu zuen TORRES LANA, J. A.k, Foru Berriari buruzko iruzkinak obra kolektiboan

Nafarroako Gobernuak eta Aranzadi Argitaletxeak 2002an argitaratuan- jotzen duela “lege horrek epeei buruz egiten duen erregulazioa ezin dela ontzat jo” eta “ez diela ondorio proportzionalik ezartzen arau-hausteari eta Foru Berriak epe horiei ematen omen dien ustezko garrantziari”. Erakunde honen ustez, epeen ez-betetzearen ondorioak proportziorik gabekoak dira, eta guztiz bat gatoz obra horretako ondorio horrekin.

Nafarroako Auzitegi Nagusiaren (Arlo Zibileko eta Penaleko Sala) arestian aipatutako urriaren 5eko 24/2000 epaiak ere aitortzen du fideltasunaren gozamina galtzea “muturreko zehapen bat dela (...), zeina, zehapena den aldetik, bere terminoetan interpretatu behar baita”.

Halaber, erakunde honek uste du, okerrik ezean, Nafarroako jurisprudentzian eta organo judizialen epaietan, epaitzen duen organoak beti konponbide aringarriak bilatu izan dituela, kasua iritsita, 257. legeak epea ez betetzeagatik ezartzen duen muturreko zehapenaren eragin zorrotz eta proportziorikgabeak aldatze aldera, horretarako, honako hauetara jota: ezinbesteko kasuaren interpretazioak, hitzarmen edo akordioaren bidezko dispentsa, jaraunstearen nahitaezko laguntza, alargunaren adin handia, ondasunei buruzko arbitraje bat egotea edo muturreko zorrozetasun hori eragozten duten bestelako bideak (guztien adierazgarri, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Arlo Zibileko eta Penaleko Salaren apirilaren 9ko 6/2013 epaia).

Horrekin guztiarekin, eta jurisprudenziak ematen dituen konponbide kasuistiko horiek laudagarriak izanda ere, epeen legezko erregulazio hain formal, hain xehe eta hain zorrotz batetik heldu den arazoaren aldeko konponbidea organo judizialaren menpe gelditzen da (kasu hauetan, ad quem, alde ahulenarentzat horrek dakarren zamarekin) eta ez legearen menpe, nola beharko bailuke Zuzenbideko Estatu batean. Arazoa legearen beraren baitan dago, epaileak haren aplikazioan hari iskintxo egiteko edo haren eraginak arintzeko ahalegin guztiak eginda ere.

Hori dela eta, Nafarroako Arartekoak egokitzen jo zuen 257. legearen aldaketa iradokitzea, modu batera edo bestera egungo erregulazioak arin ditzan ondasunen inbentarioa egiteko epeak ez betetzeak dakartzan ondorioak.

Erakunde honetara jo zuen abokatu zibilistak iradoki zuen fideltasunaren gozamina eskuratzea ope legis gertatu beharko lukeela, alargunari egungo baldintzetan eskatzen zaion conditio iuris hori gabe. Hala eta guztiz ere, fideltasunaren legezko gozamenaren erakundeak dauzkan funtsezko elementuei eusteko, proposatu zuen jabe soilak gozamenari eskatu ahal izatea inbentarioa egin dezala legeak ezarritako epean (berrogeita hamar egun hura hasteko eta ehun egun hura amaitzeko, baina errekerimendua egiten denetik hasita) eta haren eskritura egin dezala; hartara, soilik gozamenari aldeztu aurretik errekerimendua egin ondoren finkatutako epea iragaten denean, ezinbesteko arrazoi justifikaturik egon gabe, galduko litzateke gozameneko eskubidea.

Erakunde hau bat zectorren herritarrak egindako proposamenarekin, zeren eta ikusten baitzuen hartan alarguntasunaren gozamenaren erakundeak funtsezko dituen elementuei eusten zaiela (nahiz eta eskuratzea ex lege eskuratu, zeina ez baita arrotza, ezta ere, “fideltasunaren legezko gozamenaren” legezko izaerarako) eta koherentea dela 262. legeko 4. zenbakian araututako gozamenaren galerarekin, zeinak fideltasunaren gozamina kentzen baitu soilik

jabe soilak eskatzen duenean eta betebeharrak horiek doluz edo zabarkeria handiz urratzen direnean.

Jabe soilak fideltasunaren gozamen-dunari alde aurretik errekerimendua exijitzeak abantaila bat izan luke azken horrentzat: hari jakinaraztea legea betetzeko legezko betebeharra duela; eta lehendabizikoarentzat hori ez betetzea frogatzea fedee-maila izan da, inbentarioa egiten ez bada, gozamen-dunak bere legezko betebeharren betetzean zabarkeria larri jokatu izanari buruzkoa. Jabe soilak, hartara, bere bermeei eta hereditutako ondasunen babesari eusten die, zeren eta gozamen-dunari inbentarioa egin dezala eskatu besterik ez baitu egin behar, azken horrek hura lege ezarritako epean egiteko betebeharra izan dezan (berrogeita hamar egun hasteko eta ehun egun amaitzeko).

Halaber, erakunde honek beharrezko ikusi zuen 257. legeko aipatutako lerrokada aldatzea, xede edo inguruabar sozial batengatik, baldin eta, dirudien bezala, arauak gehiago kaltetzen baditu haren existentzia eta exijentzia ezagutzen ez duten emakume alargunak (bai eta gizon alargunak ere, baina badirudi agerikoa dela emakumeen kopurua handiagoa dela, halaxe ikusi baitu erakunde honek begiratu dituen epai gehienetan), 264.1 legeak aipatzen duen inbentarioa osatzeko dispensa aitortuta ez dutenean (zeren eta jende gehienak betebeharrak nagusia ezagutzen ez badu, ulertzekoa da dispensaren aukera osagarria ere ez dutela ezagutuko) eta seme-alabarik izan ez dutenean (kasu gehienetan, errazago gerta daiteke seme-alabekiko akordioa, jaraun-leak haiek direnean, alargunaren senideekin baino); bestetik, balizko gozamen-dun horietako batzuk adinekoak dira, eta ezagutza mugatuak dituzte, askotan inolako ezagutzarik ez arlo juridikoan.

Abokatu zibilistak aipatzen zuen arau oso kaltegarria dela baserrien kasuan, zeina Nafarroako bizimodu tradizional bat baita, zeren eta alargunak, ezkontzeaz batera ezkontidearen baserrira bizitzera joandakoa denean, etxeak, bizimodua eta sostengurako ondasun eta

bitartekoak galtzen baititu, eta egun batetik bestera etxebizitzarik eta lanik gabe aurkitzen baita.

Hori dela eta, 257. legearen aldaketa bat egingarri ikusten ez bada, aurreko zenbakian erakunde honek aipatutakoaren ildotik, erakunde honek beharrezko ikusiko luke arauan bertan aitortzea fideltasunaren gozamenarena ezin izanen dela inolaz ere utzi ez bere etxebizitzarako eskubiderik gabe, ez eta sostengua bideratuko dioten diru-sarrerak lortzeko behar diren nekazaritza-, industria-, merkataritza-edo ekonomia-produkziorako bide eta ondasun higigarri eta higiezinatarako eskubiderik gabe ere, zeren eta hori berezkoa baita Konstituzioak aitortzen eta bermatzen dituen etxebizitzarako eta lanerako eskubideekin.

Nafarroako Parlamentuko Foru Erregimenaren Batzordeak hitzarmen bidez sortu zuen, 2016ko martxoaren 15ean, Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Bilduma edo Nafarroako Foru Berria berrikusteko, eguneratzeko eta XXI. mendeko Nafarroako gizartearen errealitatera egokitzeko ponentzia parlamentarioa, eta erakunde honi egoki iruditu zitzaion iradokizun hori Nafarroako Parlamentuko presidenteari aurkeztea, hari egoki irudituz gero ponentzia horri aurkez ziezaion, ponentzia horrek edukia aztertu, eta, behar izanez gero, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilararen Bildumaren 257. legearen lehen lerrokada aldatzea proposa zezan, hartan arautzen baita fideltasunaren legezko gozamenaren eskuratzea; izan ere, jotzen da erregulazio hori zuzengabea eta kaltegarria dela herritarrentzat eta, bereziki emakume alargunentzat.

Aurrekoa dela eta, Nafarroako Arartekoaren erakundeak, Foru Berriaren 257. legea aztertuta, egokitzen jo zuen honako iradokizun hau egitea:

“Nafarroako Parlamentuari iradokitzea Foru Berria edo Nafarroako Foru Zuzenbide Zibila berrikusteko eta eguneratzeko sortutako ponentziak Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilararen Bildumako 257.

legeko lehen lerrokada azter dezala, eta, behar izanez, aldatzea proposa dezala, hartan arautzen baita fideltasunaren legezko gozamenaren eskuratzea; izan ere, jotzen da erregulazio hori zuzengabea eta kaltegarria dela herritarrentzat eta, bereziki, emakume alarguentzat”.

Iradokizun hori Nafarroako Parlamentuko presidenteari helarazi ondoren, erakunde honek amaitutzat eman zituen bere jarduketak.

3.2.10. Ikastetxeetan zuzendariak izendatzeko prozedura.

Administrazio

jasotzailea: Hezkuntza Departamentua.

Arloa. Funtzio publikoa.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea. Legezko bete-beharren gogorarazpena.

2015ean, bi kexa aurkeztu ziren 2015/2016 ikasturterako ikastetxeetako zuzendariak izendatzeko prozedurari buruz (15/355 eta 15/357 kexak). Horrelakoetan, izendapenak egiteko bidea ezohikoa da.

Aztertutako kasuetan informazio egokia eskatu ondoren, erakundeak Hezkuntza Departamentuari gogorarazi zion legezko betebeharra zela berdintasun-, publikotasun-, meritu- eta gaitasun-printzipioak betetzea ikastetxeetako zuzendariak kasuan kasuko meritu-lehiaketan bidez izendatzean.

Gogorarazpenaren oinarri moduan, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan zuzendariak aukeratzeari dagokionez jasotzen ziren aurreikuspenak aipatzen ziren, bai eta honako honetan jasotakoak ere: 202/2010 Foru Agindua, abenduaren 2koa, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatu, ebaluatu eta haien izendapena berritzeko arauak ematen dituen

Arau horiek diote zuzendariak hautatzean berdintasun-, publikotasun-, meritu- eta gaitasun-printzipioak bete behar direla, eta, salbuespen moduan, egoera jakin batzuetarako, izendapen batzuk zuzenean egitea aurreikusten dute, hau da, printzipio horietan jatorria duten norgehiagokako hautaketa-prozedurak erabili gabe.

Hezkuntza Departamentuak legezko betebeharren gogorazpena onartu zuen, izandako jarduketari buruz ohartarazpen batzuk egitea baztertu gabe.

Hala ere, 2016ko apirilean, erakunde honetan kexa bat jaso zen kontu horri berari buruz, hurrengo ikasturteari zegokiona, 2016/2017koari.

Horregatik, beharrezkotzat jo zen gaiari buruz ofiziozko jarduketa bat abiaraztea, 2016/2017ko ikasturtean izango den administrazio-jarduketa egiaztatzeko, eta honako informazio hau eskatu zitzaion Hezkuntza Departamentuari:

- a) Uneko aurreikuspenen arabera, 2015/2016 ikasturtea amaitutakoan hutsik (mandatua amaitzeagatik edo beste edozein arrazoiengatik) geratuko ziren ikastetxeetako zuzendari-postuen kopurua.
- b) Postu horietatik, zenbat beteko ziren meritu-lehiaketan deialdiak eginez, edo antzeko hautaketa-prozedurak erabiliz, berdintasun-, publikotasun-, meritu- eta gaitasun-printzipioetan oinarrituta.
- c) Ea aurreikusita zegoen postuak betetzea aurrekoak ez diren beste izendapen-sistema batzuk erabiliz, sistema horiek labur deskribatzeaz gain.

Hezkuntza Departamentuak honako txosten hau bidali zuen:

“Nafarroako sare publikoko 237 ikastetxeek 2015-2016 ikasturtean izandako egoera, zuzendaritza-taldeen izendapenari dagokionez, honako taula honetan deskribatutakoa da:

	2015-2016 IKASTURTEA
Prozedura arrunta	81
Ezohiko prozedura.	156
Guztira	237

Ezohiko prozedura bidez izendatutako zuzendaria daukaten 156 ikastetxeak aztertuta, ikusi da 134k ikasturte hau amaitzen denean bukatuko dutela mandatua.

Hezkuntza Departamentuak ez du deialdirik egin Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan zuzendariak hautatzeko, eta, beraz, abenduaren 2ko 202/2010 Foru Aginduaren bigaren xedapen iragankorrean jasotzen denaren arabera:

“Deialdia aurreikusi ez den ikasturteetan gertatzen diren zuzendari-hutsuneak gehienez ikasturte bat iraungo duen ezohiko izendapen bidez beteko dira, eta egiten den lehen deialdian sartuko dira nahitaez”.

Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan zuzendariak izendatzeko ezohiko prozedura abenduaren 2ko 202/2010 Foru Arauaren 12. artikuluan dago jasota:

1. “Hautapen batzordeak ikastetxe bateko zuzendaritzarako hautagai bakarrik ere proposatzen ez badu edo hautagairik ez badago, Hezkuntza Departamentuak izendatuko du ikastetxeko zuzendaria, lau urterako gehienez, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak txosten batean proposamena egin ondoren”.

Beraz, zuzendariak gehienez ere ikasturte baterako eta ezohiko moduan izendatuko diren 134 ikastetxeetan, bertako ikuskatzaileak proposatuko du izendapena. Horri dagokionez, ez dago jarduketaprotokolorik finkatuta, baina ez dago arrazoirik zalantzak sor ditzakeenik berdintasunari, merituari, gaitasunari eta publikotasunari dagokienez.

Giza Baliabideen Zerbitzuaren ardura da izendapena baliozkotzea.

Bestalde, Hezkuntza Departamentua protokoloa zehatzago arautzera konprometitzen da ezohiko izendapenen kasuan, horretarako aldaketak eginez egungo araudian, beharrezkoak izanez gero, bermatuta gera daitezten aipatu berdintasun-, meritu-, gaitasun- eta publikotasun-printzipioak izendapena ohikoa denean bezala ezohikoa denean ere.

Dokumentu honi Nafarroako ikastetxe guztien zerrenda gehitzen zaio, herriaren, ikastetxearen izenaren eta zuzendariaren mandatuaren hasieraren nahiz amaieraren arabera antolatuta. Prozedura arruntaren bidez (hautapena) izendatutako ikastetxeek beren zuzendariei dagokien mandatu-zenbakia egokituta daukate”.

Nafarroako Arartekoak egiaztatu zuen ezen, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 133. artikulua arabera, funtzio publikoan sartzeko printzipio orokorrak bete behar direla zuzendaria aukeratzeko: berdintasuna, publikotasuna, meritua eta gaitasuna.

Aipatu printzipio horien bermea meritu-lehiaketak egiteko kasuan kasuko deialdien bidez bideratzen da, eta egintza horiek, erakunde honen ustez, derrigorrezkoak dira Hezkuntza Administrazioarentzat, eta ez aukerakoak edo iritziaren araberrakoak.

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan bertan, 137. artikuluan, Hezkuntza Administrazioak ezohiko izendapenak egiteko aukera

aurreikusten da, “hautagairik izan ezean, ikastetxe sortu berrietan edo kasuan kasuko batzordeak izangairik hautatu ez duenean”.

Agindu horren arabera, eta izendapen horiek ezohikoak direla kontuan hartuta, erakunde honen ustez, bide hori erabiltzea ordezkoa edo hondar-izaerakoa da, baldin eta Administrazioak bide arrunta prestatu badu eta prozedura “hutsik” amaitu bada, hautagairik ez delako izan, ez delako hautagairik aukeratu edo beste ikastetxe bat egin delako.

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatu, ebaluatu eta haien izendapena berritzeko arauak ematen dituen abenduaren 2ko 202/2010 Foru Aginduak (Hezkuntza kontseilariarena), halaber, aurrez aipatutako printzipioak betetzea eta kasuan kasuko meritu-lehiaketak egitea xedatzen du (2. eta 3. artikulua).

Era berean, erregelamenduko arauaren 12. artikulua “ezohiko izendapenak” aurreikusten ditu, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan aurreikusitakoaren ildo berean. Foru-agindu horrek, martxoaren 3ko 24/2015 Foru Aginduak emandako idazkeraren arabera, bigarren xedapen iragankor bat gehitzen du, “ezohiko izendapenei” buruzkoa, eta honako hau dioena:

“Deialdia aurreikusi ez den ikasturteetan gertatzen diren zuzendari-hutsuneak gehienez ikasturte bat iraungo duen ezohiko izendapen bidez beteko dira, eta egiten den lehen deialdian sartuko dira nahitaez.”

Erakunde honen ustez, erregelamenduzko azken xedapen horrek legean aurreikusitakoa gaitzen du, eta ezin da ulertu kasuan kasuko norgehiagokako hautespen-prozeduretarako deialdiak egiteko edo ez egiteko gaitzea denik (azken batean, berdintasun-, publikotasun-, meritu- eta gaitasun-printzipioak bermatzen dituzte zuzendari-postuak eskuratzean).

Interpretazio horrek ezohiko izendapenei dagokien hondar-izaera desitxuratzen du, izendapen horiei dagokienez ulertu behar delako berez mekanismo edo “erremedio” bat direla kontingentziei aurre egiteko zuzendari-postuak betetzean, baina ez bide egoki bat.

Hezkuntza Departamentuak bidalitako informazioa aztertuta, erakundeak pentsatu zuen Administrazioaren jarduerak ez ziola behar bezala erantzuten legegileak nahi zuenari, 237 zuzendari-izendapenetatik 156 ezohiko bidea erabiliz egin zirelako, eta hurrengo ikasturteari begira, 2016/2017koari, izendapen guztietan (134) ezohiko prozedura erabili behar zelako.

Hitz batean, Nafarroako Arartekoak ondorioztatu zuen gehiegi erabiltzen zela salbuespenezko prozedura bat, eta, horren ondorioz, Hezkuntza Departamentuari gogorarazi zion legezko betebeharra zela berdintasun-, publikotasun-, meritu- eta gaitasun-printzipioak betetzea ikastetxeetako zuzendarien izendapenean, eta horretarako kasuan kasuko meritu-lehiaketen deialdiak egin behar zirela.

Hezkuntza Departamentuak idazki bat bidali zuen, non, besteak beste, hau baitzioen: “Hezkuntza Departamentua protokoloa zehatzago arautzera konprometitzen da ezohiko izendapenen kasuan, horretarako aldatetako eginez egungo araudian, beharrezkoak izanez gero, bermatuta gera daitezkeen aipatu berdintasun-, meritu-, gaitasun- eta publikotasun-printzipioak izendapena ohikoa denean bezala ezohikoa denean ere”. Era berean, jakinarazi zuen araudi egokiaren garapenean lan egiten ari zela, zuzendariak hautatzeko deialdi bat egin ahal izateko legezko bermekin 2016-2017 ikasturterako.

Erakunde honek pentsatu zuen ezen, egindako legezko betebeharren gogorazpenak aipatzen zuen meritu-lehiaketen deialdiak ez zuela arau-aldaketarik behar, derrigorrezkoa baita gaur egun indarrean dagoen esparru juridikoan; izan ere, ikastetxeko zuzendari-postuaren ohiko hautaketa egiteko mekanismotzat hartzen du.

Horregatik, Departamentuak legezko betebeharren gogorazpenaren aldeko jarrera ez zuela hartu nahi egiaztatzean, Nafarroako Arartekoak ez-onartutzat jo eta bere jarduketa amaitu zuen.

3.2.11. Errentamendu-araubidean babestutako etxebizitzaren babes-araubidearen amaiera.

Administrazio

jasotzailea: Eskubide Sozialetako Departamentua.

Arloa: Etxebizitza.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea. Iradokizunak.

Zenbait herritarrek erakunde honetara jo zuten, eta errentan hartuta zeuzkaten babestutako etxebizitzaren babes-araubidea amaitzearen ondorioez eta egoera horren legezkontasunaz galdetu zuten.

Horri buruz izapidetutako azken kexan, agerian gelditu zen babestutako etxebizitza errentan hartuta zeuzkaten pertsonengan, bizi ziren etxebizitzaren kalifikazioa barruan hartzen zuen babes-araubidea amaitutakoan, sor zitekeen problematikaren zati bat.

Gainera, ikusi zen hautemandako arazoak bitarteko ekonomiko gutxi zituzten eta beren ingurunean txertatuta zeuden pertsonen eragiten ziela bereziki, eta bizi ziren etxebizitza funtsezkoa zela txertatze hori bermatzeko. Horrenbestez, etxebizitza ordezkari aukerarik gabe galtzeak berekin ekar zezakeen eragindako pertsonetako asko bazterketa-arriskuan gelditzea, askotan ezingo baitzioten aurre egin etxebizitza bat merkatu librean alokatzeak eragindako kostuari.

Erakunde honek egiaztatu zuen Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren I. eranskinak alokatutako etxebizitzaren babes-araubidearen epeak jasotzen dituela. Zehazki, 2. idatz-zatiko b), c) eta d) azpiatalek epe hauek jasotzen dituzte:

- Hamabost urte araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzentzat, behin-behinean alokairuan kalifikatuta badaude 1995eko urtarrilaren 1az geroztik, eta, oro har, balio-haztapeneko prezioko etxebizitzentzat eta sustapen publikoko etxebizitzentzat.
- Hogei urte araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzentzat, behin-behinean alokairuan kalifikatuta badaude 1995eko urtarrilaren 1etik.

Aurreikusgarria zenez behin-behinean kalifikatutako sustapen askoren babes-araubidea amaitzear egotea, pentsatzekoa zen etxebizitzaren deskalifikazioak pertsona askori eragingo ziela epe laburrean edo ertainean.

Aurrekoagatik guztiagatik, Nafarroako Arartekoa Eskubide Sozialesko Departamentuari zuzendu zitzaion, eta eskatu zion esateko zer jarrera zuen azaldutako arazoaz, bai eta, hala egokituz gero, zer neurri hartuko zituen ere Departamentuak maizterrek beren etxebizitzetan jarrai zezaten bermatzeko, edo, behintzat, etxebizitza utzi behar izateak izan zezakeen eragina ahalik gehiena gutxitzeko. Era berean, Eskubide Sozialesko kontseilariari galdetu zion errentamendu-araubidean babestutako etxebizitzetatik zenbatetan amaituko zen hurrengo lau urteetan zeukaten babes-araubidea, eta gutxi gorabehera zenbat errentariri eragingo zien ziur aski babes-araubidearen amaierak.

Eskubide Sozialesko Departamentuak honako txosten hau bidali zuen:

“Nafarroan sustatutako etxe babestuek ez dute babes-araubidearen legezko mugagabeko iraupenik; aitzitik, iraupen hori, errentamenduko etxebizitza babestuei dagokienez, 30, 20 edo 15 urtekoa izan daiteke (Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013

Foru Dekretuaren I. eranskina). Babes-araubidea amaituta, espedientearen kudeaketa-sustatzailea ez litzateke behartuta egongo etxebizitzaren errentamenduarekin jarraitzera, baina sinatutako kontratuak eta berorietako baldintzak errespetatu beharko lituzke, eta ezingo luke aldatu izenpetutako kontratuaren errenta edo iraupena.

Hala ere, babes-araubidearen amaierak berekin ekarriko luke ezin errentariak diruz lagundu ahal izatea, etxebizitzak etxebizitza babestuak izateari uztearen ondorioz.

Horrenbestez, egoera hauek daude esku hartzen duen alde bakoitzak betetzen duen rolaren arabera.

- Sustatzailea: etxebizitzaren legezko jabea; haiek alokatzen edo ez alokatzen jarrai dezake, baina indarreko kontratuak bete egin behar ditu. Gogorarazi behar da errentamenduan egindako sustapen baten errentagarritasuna nagusiki etxebizitzak babes-araubidea amaitu ondoren prezio librean saltzeko aukeraren ondorio dela.

- Diru-laguntzarik gabeko errentaria: sustatzaileak bete egin beharko du hark daukan kontratua. Ikuspuntu material batetik, daukan egoera ez da aldatzen, errentak lehengo bera izaten jarraitzen duelako.

- Diru-laguntza duen errentaria: sustatzaileak bete egin beharko du hark daukan kontratua, baina errentariaren egoerak okerrera egiten du, errenta handiagoa ordaindu behar duelako (ez kontratuan jasotako errenta, bera izaten jarraitzen baitu) etxebizitzaren babes-araubidea amaitzen den unetik; izan ere, ezin du diru-laguntzarik jaso errentamenduaगतिक.

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa, herritarren eskubideen eta betebeharren bermatzailea.

Honako ohar hauek egin behar ditugu:

1.- *Etxebizitza-errentamendua ondasun baten erabilera aldi baterako eta mugatua da, jabetza ez bezala, eskubide iraunkorra delako. Dударik ez dago etxebizitza funtsezko eskubide bat dela, pertsona edo familia bat gizarteratzeko moduaren barruan dagoela, eta, eskubide hori den neurrian, botere publikoek zaindu eta babestu beharrekoa dela. Era berean, kontuan hartu behar da pertsona edo familia bere eraginpeko espazio- edo lurralde-gunean mantentzea. Hala ere, eskubide horren eraginkortasuna faktore askok mugatzen dute, eta, gaur egun, aurrekontu-mugek nahiko liratekeen neurri guztiak hartzea eragozten dute, bai esparru honetan, bai beste batzuetan.*

2.- *Kontuan hartuta ere babestutako etxebizitzako maizterrentzako diru-laguntza giltzarria dela etxebizitza-politikan, eta gizarte-, ekonomia- eta familia-onura handi-handiak bezain askotan ahaztuak dituela, egia da, halaber, diru-laguntza horiek gaurkoz ez direla etxebizitzarako eskubide subjektiboaren parte, eta, beraz, haien zenbatekoa edo ematea mailaka daitekeela, are desagertu arte ere.*

Eskubide Sozialetako Departamentuak honako neurri hauek planteatzea erabaki du:

1. *Errentamenduan dauden babestutako etxebizitzaren parkea handitzea da helburu nagusia:*

1.1 *Jadanik adierazi da Parlamentuaren egoitzan Eskubide Sozialetako Departamentuaren asmoa dela alokairuko 1.000 etxebizitza berri sustatzea hurrengo bost urteetan, eta*

horietako 500-550en sustatzailea NASUVINSA izatea. Horretarako, arau-aldaketa bat izapidetzen ari da, alokairuko etxebizitzak sustatzeko diru-laguntzak eman ahal izateko (etxebizitzaren gehieneko prezioaren % 23; % 30, berriz, etxebizitzak alokatzeko baliatzen badira gutxienez 30 urtez).

1.2 Alokairu Poltsa sustatzea da balia daitezkeen etxebizitzaren kopurua handitzeko beste modu bat. Gaur egun, beste publizitate-kanpaina bat prestatzen ari da, eta Poltsaren eragin-eremua Nafarroa osora zabalduko da (gaur egun Iruñean, Iruñerrian eta Tuteran baino ez du eragina).

1.3 Azkenik, finantza-erakundeekin eta SAREB sozietatearekin hitz egiten ari gara, etxebizitzak lortzen ahalegindu eta Alokairu Poltsara edo Etxebizitza Sozialerako Nafarroako Funtsera bideratu ahal izateko.

2. Babes-epa amaitzen zaien sustapenetan izan daitezkeen arazorako helburu zehatza da ahalik eta etxebizitza gehienek jarraitzea etxebizitzak diruz laguntzeko aukerari atxikita.

Gaur egun, aukera hori Etxebizitzaren arloko jarduketara babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrean mamitzen da, honako hau baitio:

“Etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuak diru-laguntzak ematen ahalko dizkie errentamendura zuzendutako etxebizitzetako maizterrei kalifikazio epea eta babes araubidearen indarraldia bukatuta ere, honako baldintza hauek ematen badira:

a) Sustatzaileak konpromisoa hartzen badu kalifikazio epea bukatzen zaion espedientean sartutako etxebizitza guztietan

edo aipatu espedienteko atari batean errentamendu araubidea mantentzeko.

b) Xedapen honetan ezarritakoaz baliatzeko eskaera sustatzaileak berak egiten badu hasiera batean ezarritako babes araubidearen azken urtean.

c) Sustatzaileak konpromisoa hartzen badu etxebizitzak errentamenduan 5 urtez uzteko, beste bost urtez luzatzeko aukerarekin sustatzaileak hala eskatzen badu.”

Eskubide Sozialetako Departamentuan arau-aldaketa batean lan egiten ari gara luzapen hori bideratzeko, eta horren ondorioz:

- Etxebizitzen irauteko denbora-konpromisoa 5 urtetik aribideko errentamenduaren urtaldia amaitzeko falta den denborara txikituko litzateke, eta aldi hori geroago urtealdi osotan luzatu ahal izango litzateke.

- Onura etxebizitzaz etxebizitza eskatu ahal izango da, sustapen osora edo atari oso batera zabaltzeko beharrik gabe.

3. Ezinezkoa bada errentamenduan luzapena egitea, Eskubide Sozialetako Departamentuak honako hauek proposatuko ditu:

- Nafarroako Etxebizitzarako Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 20.4.b) artikulua errentamendurako sustapenetan ezartzen duen erreserbaren barrukotzat jotzea egoera horretan dauden pertsonak: Gizarte integrazioarako etxebizitzaren bat behar duten pertsonak.

- erreserba hori (zeinaren kopurua Eskubide Sozialetako Departamentuak erabakitako beharren arabera zehaztuko

baita) hornitu ahal izatea are erreserba hori hasieran hornitu gabe egon den aurreko sustapenetan ere.

I. eranskinean, babes-epea 2020ko urtarrilaren 1a baino lehen amaituko zaien etxebizitzak zehazten dira (885 etxebizitza).

Ezin da zehatz adierazi zenbat diren eragindako familiak, etxebizitzetako askoren jabeak sozietate publikoak edo toki-erakundeak direlako (aurreikusita egonik haien luzapena sisteman), beste etxebizitza batzuek diru-laguntzarik ez dutelako, eta beste kasu batzuetan errentariak ez dutelako diru-laguntza jasotzeko eskubiderik”.

Erakunde honek oso egokitzat jo zuen Eskubide Sozialetako Departamentuak bere txostenean adierazitakoak eta gisako neurriak hartzen hasi izana. Bereziki, pentsatzen zen Etxebizitzaren arloko jarduketara babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren bigarren xedapen iragankorraren aldaketa neurri egokia zela, berekin zekarrelako trabak oro kentzea sustatzaileek jarrai zezaten diruz lagundutako alokairura bideratzen eraikin bateko etxebizitzan zati bat, eraikinarekiko babes-araubidea amaituta ere.

Hala ere, proposatutako neurriak eraginkorrak izan zitezten lortzen laguntzeko, bai eta irtenbide berriak bilatzen laguntzeko ere, erakunde honek egokitzat jo zuen Eskubide Sozialetako Departamentura jo eta honako neurri hauek ere iradokitzea:

Lehen. Alokairu-araubideko etxebizitza babestuen sustatzaile pribatuekin ituntzea zer neurri har daitezkeen azal dutako arazoa arintzeko. Zehazki, iradokitzen da, jadanik egin ez bada, sustatzaile pribatuei helaraztea irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren bigarren xedapen iragankorreko aldaketa-proposamena, eta galdetzea zer iritzi duten horri buruz, neurriaren arrakasta ziurtatzeko.

Bigarrena. Irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrak aurreikusten duen gutxieneko epea murrizteko, eta ez kentzeko, aukera aztertzea, hiru urtekoa izan dadin.

Neurri horrek hobeto batera litzake babestu beharreko interesak: alde batetik, errentamendua “babestuta” mantentzea sustatzaileentzat erakargarria izatea bultzatuko luke; bestetik, egonkortasun eta ziurtasun handiagoa emango lieke maizterrei.

Hiru urteko epea koherentea litzateke hiri-errentamenduei buruzko legedian xedatuarekin.

Hirugarrena. Nasuvinsak kudeatutako etxebizitza babestuko sustapen guztiak irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrean xedatuta dagoenera biltzea, egungo maizterrek aurrerantzean ere alokatu ahal izan ditzaten etxebizitzak gehieneko prezioari eta diru-laguntzei dagozkien baldintza beretan, ezarritako baldintzak betetzen jarraitzen duten neurrian.

Neurri hori foru-administrazioa ez diren beste administrazio publikoek (udalek, mankomunitateek...) jabetzan dauzkaten beste etxebizitza babestu batzuetara ere heda liteke, eta, horregatik, iradokitzen dizut administrazio publiko horiei galdetzea zer iruditzen zaien irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrak dioenarekin bat egitea, beren jabetzakoak diren etxebizitzetara dagokienez.

Laugarrena. Babes-araubidea berehala amaituko zaien eta etxebizitzaren maizterrek alokairu-araubidean jarraitzeko interesa adierazi duten sustapenetan, Eskubide Sozialetako Departamentuari iradokitzen zaio bitartekari izan daitekeela etxebizitzaren alokairuaren sustatzaile eta kudeatzaileen eta haien errentarien artean.

Bitartekaritza horrek helburu izan beharko luke etxebizitzaren errentamendua prezio-baldintza beretan mantentzea, bai eta, hala

egokituz gero, diru-laguntzari dagozkion baldintza beretan mantentzea ere, babes-araubidea indarrean egon bitartean zeuden baldintzak kontuan hartuta. Etxebizitza berean jarraitzea ezinezkoa balitz, irtenbide bat bilatu beharko litzateke, maizterraren interesei erantzun egokia emateko.

Bosgarrena. Sinatzen diren babestutako etxebizitzaren errentamendu-kontratuetan errentamenduaren iraupenak babestutako etxebizitzaren babes-araubidea amaitzea aurreikusita dagoen data gainditzen ez duela zaintzea. Kontrol hori errentamendu-kontratuaren administrazio-oniritzia lortzeko fasean gaiza liteke.

Neurri hori hartzean helburua litzateke 16/65 kexaren espedientearen deskribatutakoaren moduko egoerak saihestea, espediente horretan interesdunak babestutako etxebizitza bat alokatzeko bost urterako kontratua sinatu ondoren kontratuaren indarraldiko hirugarren urtean etxebizitzak zeukan babes galdu baitzuen.

Seigarrena. Sustatzaile pribatuekiko bitartekotzak huts eginez gero, honako irtenbide hauek ezar litezke, etxebizitza batean bizi diren pertsonak berriz beste bat eskatu beharrik izan ez dezaten sarbide arrunta baliatuta:

- a) Legez ezartzea babestutako etxebizitza bat eskuratzeko lehentasunezko bide bat babestuak izateari uzten dioten etxebizitzetan bizi diren eta etxebizitza aldatu behar izatea egokitzen zaien maizterrentzat. Eskubide Sozialetako Departamentuak jakinarazi du ezen, errentamendua luzatzea ezinezkoa denean, egoera horretan dauden pertsonak Nafarroako Etxebizitzarako Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeak 20.4.b) artikuluan (gizarte-integratiorako etxebizitzaren bat behar duten pertsonak) errentamendurako sustapenetan ezartzen duen erreserbaren barrukotzat joko dituela.

Hala ere, erakunde honen iritziz, irizpide horrek arazoak ekar ditzake, gizarte-integratzaileak etxebizitzak eskatzen dituzten pertsonen profila hemen aztertutako egoeran egon daitezkeen pertsonena ez bezalako delako. Hartara, adibidez, irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren 68. artikuluan xedatuaren arabera, gizarte-integratzaileak etxebizitzak esparruko jarduketara babesgarrien onuradunek baldintza batzuk bete behar dituzte (gizarte-integratzaileak kontratu bat izenpetzeko konpromisoa hartzea, diru-sarrera jakin batzuk izatea...), baina babesgutako etxebizitza bat alokatuta daukaten eta egoera normalizatuan dauden pertsonak ez dute zertan bete baldintza horiek.

Horregatik, onartzen bada ere Eskubide Sozialetako Departamentuaren proposamena berehala aplikatu daitekeela, iradokitzen da legezko beste erreserba bat sortu behar dela errentamendu-araubideko babesgutako etxebizitzetan, zertarako eta, gizarte-integratzaileak etxebizitzak behar dituzten pertsonekin gertatzen den bezala, sustapenez sustapen osatuz joan ahal izateko sortzen diren premien arabera.

b) Nafarroako Etxebizitzarako Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarriak modu berezi bat xedatzen du Nafarroako Gobernuak lortutako etxebizitzak esleitzeko:

“Foru lege honen 33. artikuluan xedatutakoaren arabera eskuratzen diren etxebizitzak eta Nafarroako Gobernuak, foru lege honetan ezarritakoari jarraikiz, lehentasunez erosteko eskubideak eta desjabetzeko ahalmena erabiliz eskuratzen dituenak administrazio publikoen etxebizitza arloko politiken ondorioz sortutako beharrei erantzunez esleitzeko dira. Helburu berari jarraituko zaio Alokairuen Poltsa kudeatzeko orduan”.

Horrenbestez, iradokitzen da ezen, banan-banan aipatu berri diren etxebizitzak alokairuan, bereziki alokairuen poltsaren bidez

kudeatzen direnen kasuan, ezarri behar dela, hala egokituz gero, hemen aztertutako arazoak eragindako pertsonei etxebizitzak zuzenean alokatzeko beharra.

Es kubide Soz ialetako kontseilariak idazki bat igorri zuen, honako hau esaten zuena:

“Ondoren, laburtuta aldatzen dira hona Nafarroako Arartekoak azaldutako neurriak, bakoitzari buruzko ohar egokiak ondoan dituztela:

- 1.- Nafarroako Arartekoak honako hau iradokitzen du: “Alokairu-araubideko etxebizitza babestuen sustatzaile pribatuekin ituntzea zer neurri har daitezkeen azaldutako arazoa arintzeko. Zehazki, iradokitzen da, jadanik egin ez bada, sustatzaile pribatuei helaraztea irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren bigarren xedapen iragankorreko aldaketa-proposamena, eta galdetzea zer iritzi duten horri buruz, neurriaren arrakasta ziurtatzeko”.*

Esan behar da enpresa sustatzaileei helarazi zaiela 61/2013 Foru Dekretuaren bigarren xedapen iragankorra aldatzeko proposamena, eta enpresek egokitzen jo dutela idazkera berria.

- 2.- Honako hau ere proposatu du: “Irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrak aurreikusten duen gutxieneko epea murrizteko, eta ez kentzeko, aukera aztertzea, hiru urtekoa izan dadin...”*

Aurreko puntuaren arabera izandako elkarrizketetan, enpresa sustatzaileek ahalik eta malgutasun handienaren alde egin dute. Hiru urteko epea handiegia izan liteke etxebizitza kopururik handienak babes-araubideari atxikita (antzekotasunagatik) jarrai dezan lortzeko.

Pentsatzen da proposatutako idazkerarekin lor daitezkeela hiru urteak, denbora-epe txikiagoko beste irtenbide batzuk baztertu gabe (1, 2 urte), bestela ez bailirateke bilduko aipatu bigarren xedapen iragankorrera.

- 3.- *Gainera, honako hau gomendatzen du: “Nasuvinsak kudeatutako etxebizitza babestuko sustapen guztiak irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrean xedatuta dagoenera biltzea, egungo maizterrek aurrerantzean ere alokatu ahal izan ditzaten etxebizitzak gehieneko prezioari eta diru-laguntzei dagozkien baldintza beretan, ezarritako baldintzak betetzen jarraitzen duten neurrian. Neurri hori foru-administrazioa ez diren beste administrazio publikoek (udalek, mankomunitateek...) jabetzan dauzkaten beste etxebizitza babestu batzuetara ere heda liteke, eta, horregatik, iradokitzen dizut administrazio publiko horiei galdetzea zer iruditzen zaien irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrek dioenarekin bat egitea, beren jabetzakoak diren etxebizitzei dagokienez”.*

Horri dagokionez, esan behar da NASUVINSaren etxebizitzetarako jadanik aurreikusita dagoela atxikita jarraitzea. Babes-epea hurrengo lau urteetan amaitzen zaien toki-erakundeen jabetzako etxebizitzak gutxi dira (36), eta haien gehienen babes 2018an amaituko da. Sustatzaile publiko edo pribatu guztiei jakinarazten eta behin eta berriz esaten zaie maizterrak diru-laguntzarekin mantentzeko aukera dagoela.

- 4.- *Honako hau ere esaten du: “Babes-araubidea berehala amaituko zaien eta etxebizitzan maizterrek alokairu-araubidean jarraitzeko interesa adierazi duten sustapenetan, Eskubide Sozialetako Departamentuari*

iradokitzen zaio bitartekari izan daitekeela etxebizitzaren alokairuaren sustatzaile eta kudeatzaileen eta haien errentarien artean”.

Horri dagokionez, jakinarazten da proposatutako bitartekaritza gauzatu egin dela babes-epa amaitu zaien sustapenetan.

- 5.- *Bestalde, hau gomendatzen du: “Sinatzen diren babestutako etxebizitzaren errentamendu-kontratuaren errentamenduaren iraupenak babestutako etxebizitzaren babes-araubidea amaitzea aurreikusita dagoen data gainditzen ez duela zaintzea. Kontrol hori errentamendu-kontratuaren administrazio-oniritzia lortzeko fasean gauza liteke”.*

Kontratuen gutxieneko epea Hiri Errentamenduen Legean zehaztuta dago. Behar bezala jakinarazi behar da babes-eparearen amaiera, baina ezin da mugatu kontratuen iraupena.

- 6.- a) *Proposatutako bitartekaritzak porrot eginez gero, honako hau proposatzen du: “Legez ezartzea babestutako etxebizitza bat eskuratzeko lehentasunezko bide bat babestuak izateari uzten dioten etxebizitzetan bizi diren eta etxebizitza aldatu behar izatea egokitzen zaien maizterrentzat”.*

Ez da beharrezkotzat jotzen beste legezko erreserba bat sortzea; izan ere, gainera, erreserba gehiegi sortzeak etxebizitzaren esleipena zaildu eta nahasmendua eragiten du. Gizarte-integratzaileak etxebizitzetarako erreserbak (zeina ez bailitzateke jada hori izango, edo, behintzat, hori besterik ez) beste problematika batzuk har ditzake barruan, hala nola ofiziozko jarduketaren honen parte dena,

behar bat hautematen den bakoitzean erreserba bat sortu behar izan gabe.

- 6.- b) Azkenik, iradokitzen da ezen, “banan-banan aipatu berri diren etxebizitzaren alokairuan, bereziki alokairuen poltsaren bidez kudeatzen direnen kasuan, ezarri behar dela, hala egokituz gero, hemen aztertutako arazoak eragindako pertsonen etxebizitzak zuzenean alokatzeko beharra”, Nafarroako Etxebizitzarako Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarrian xedatutako bidea erabiliz.

Horrela lortutako etxebizitza ia guztiak Etxebizitza Sozialerako Nafarroako Funtsera bideratu dira. Alokairuen poltsako etxebizitzak gizarte-integraziorako alokairuko etxebizitzetara eta genero-indarkeriaren biktima diren pertsonengana bideratzen dira nagusiki. Kontuan hartuta batzuetan, zoritxarrez, eskura dauden etxebizitzak ez direla aski behar guztiak betetzeko, etxebizitzak maizter izan daitezkeen egoeraren eta premiaren arabera esleitzen saiatzen da.

Hori ez da bateraezina babestutako etxebizitzaren sustapen “amaituetatik” datozen familia errentariek alokairuen poltsako etxebizitzak ere eskuratu ahal izatearekin, betiere hori egokituz joz gero haien baldintza sozio-ekonomikoen arabera.

Nolanahi ere, interesgarritzat eta egokituz jotzen dira egindako gomendio gehienak, eta ezartzen eta ahal den neurrian praktikan jartzen ahaleginduko da, behar den arreta handienarekin.

Egindako txostena, eta bereziki bertan iragartzen diren neurriak ikusita, erakunde honek amaitutzat eman zuen bere jarduketa.

3.2.12. Desgaitasun intelektuala dutenentzako zentro batera egindako bisita.

.....

Administrazio

jasotzailea: Eskubide Sozialetako Departamentua.

Arloa. Gizarte ongizatea.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea. Gomendioak.

.....

Nafarroako Arartekoak, bere eginkizuna betez, bisitak egiten ditu instituzionalizatutako pertsonak bizi diren zentroetara, dauzkaten eskubideak betetzen direla egiaztatzeko. Bisita horiek, bereziki, adin nagusikoez, desgaitasun edo gaixotasun mentala duten pertsonen eta babesik gabe dauden edo zentzutzen ari diren adingabeez den bezainbatean egiten dira.

Kasu horretan, erakunde honetako zenbait kidek desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako Caidis Las Hayas zentroa bisitatu zuten. Zentro horretan ematen den zerbitzua egoitza-establezimendu batean gauzatzen da, eta helburua desgaitasun intelektuala duten 65 urtetik beherako pertsonak dira.

Zerbitzua SARquavitaie erakundeak kudeatzen du, Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako Departamentuarekin egindako itun baten bidez, eta desgaitasun intelektual ertaina, akutua, larria edo sakona duten pertsonen laguntzen die, bai eta desgaitasun anitz eta jokaera-arazo larriak dituzten pertsonen ere, eta, guztira, egoitzako 50 plaza eta eguneko zentroko 45 plaza ditu.

Bisitan, funtzionamendu-alderdi hauek aztertu ziren:

- a) Instalazioak.
- b) Laguntza medikoa.
- c) Bazkaria.

- d) Jokabide-laguntza positiboa emateko programa
- e) Banakako Arreta Programa
- f) Lotura fisikoak.
- g) Familien kexak.
- h) Barne-araudiari buruzko erregelamendua.
- i) Egoiliarrak.

Instalazioei dagokienez, honako hauek egiaztatu ziren: kalitate handikoak, zabalak eta argitsuak ziren, ez zegoen oztopo arkitektonikorik, segurtasun-mekanismoak egokiak ziren eta, bisitaren unean, guztiz txukun eta garbi zeuden.

Egoiliarrei ematen zieten laguntzari dagokionez, eredugarritzat jo zuten. Hartara, egoiliar bakoitzari emandako banan-banako laguntza nabarmentzen zen. Askotan, jokabide-laguntza positiboan oinarrituta zegoen, diziplina-neurririk gabe. Adierazi zutenaren arabera, guztiz debekatuta dago zigor-neurriak hartzea edo egoiliarrei oihu egitea.

Bisitari zehar, ez zuten asaldatutako inor ikusi, eta ez zuten egoiliarrek edo zaintzaileek egoiliarren aurka egindako oihurik entzun. Giroa oso lasaia, laxoa zen.

Administrazio-dokumentazioari dagokionez, langileek esan zuten barne-araudia proiektu-fasean dagoela, Nafarroako Gobernuak onartzearen zain.

Bisitaren ondoren, eta bisitaren, elkarrizketen eta bidalitako dokumentazioaren azterketaren ondorioz, Nafarroako Arartekoak egokitzat jo zuen gomendio moduan honako hobekuntza-proposamen

hauek egitea Eskubide Sozialetako Departamentuari, zerbitzu publikoaren titularra baita.

a) Barne-araudiari dagokionez:

Arautegiak eskatzen duen barne-araudia egitea azkartu dadila.

b) Familientzako informazioari dagokionez:

Ingresatutako egoiliarren gurasoei edo familia-arduradunei honako hauek ematea:

- Pertsona erabiltzaileekin lortu nahi diren helburuei buruzko informazioa, bai eta kasu bakoitzari egiten zaion ebaluazioari eta jarraipenari buruzkoa ere.
- Onartuta dagoenean, barne-araudiaren kopia bat, ezagut dezaten.

Eskubide Sozialetako kontseilariak onartu egin zituen egindako gomendioak bidalitako idazki baten bidez, eta, horregatik, erakunde honek amaitutzat jo zituen jarduketak.

3.2.13. ETB telebista-katearen seinalea bertan behera geratu izana Iruñerrian, Erdialdean eta Erriberan.

.....

Administrazio

jasotzailea: Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua:

Arloa. Zerbitzu publikoak.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea. Iradokizuna.

.....

Nafarroako Arartekoak, komunikabideen bidez, jakin zuen bertan behera geratu zela ETB telebista-katearen seinalea Iruñerrian, Erdialdean eta Erriberan. Seinalea etete horrek haserrea eragin zuen herritarren artean, ez bakarrik telebista hori ikusteko eskariagatik, bai eta bizilagun-komunitate askok inbertsio ekonomiko handia egin zutelako azken urteetan telebista-kate horren seinalea beren etxeetan jasotzeko.

Zehazki, ETBren lehen emanaldiak Iruñera iritsi zirenetik, bizilagun-komunitateek batez beste 500 euroko inbertsioa egin zuten telebista-kate hori beren etxeetan sintonizatzeko. Gastu horien zati bat, 250 euro gutxi gorabehera, 2012ko urtarrilean egin zuten, ekimen partikular batek "itzalaldi analogikoa" zeritzona zela-eta errepikagailu bat jarri baitzuen Erreniegan ETBren kanalak digitalki sintonizatu ahal izateko. Urtebete geroago, errepikagailua deskonektatu egin zuten Nafarroako Gobernuaren salaketa baten ondoren.

Geroago, 2014an, Joarko arabar antenan gailu bat jarri zuten Iruñerriarantz zuzenduta, eta bizilagun-komunitateek 250 euro gastatu behar izan zituzten kanalak berriz sintonizatu ahal izateko.

2015ean, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean izandako elkarrizketen ondorioz, ETBren kate analogikoak digitalak izatera aldatu ziren Ezkaba mendiko eta Erreniegako errepikagailuetatik. Seinale horiek, Joarkoekin batera,

itzali egin zituzten Industria Ministerioan jarritako salaketa baten edo batzuen ondorioz.

Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna Estrasburgon egin zuten 1992ko azaroaren 5ean, eta Espainiak 2001eko otsailaren 2an berretsi zuen, eta gutunak, hedabideei dagokienez, xedatzen du gutunaren sinatzaileen (estatu) konpromisoa dela bermatzea zuzenean eta libreki jaso ahal izango direla aldameneko herrialdeetako irratia- eta telebista-emanaldiak, baldin eta eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntza batean edo antzeko batean eginda badaude, bai eta hizkuntza horretan egindako aldameneko herrialdeetako irratia- eta telebista-emanaldien aurka ez egotea ere.

Erakunde honen iritziz, logikoa zirudien ezen, Europako Gutun horretan (ordenamendu juridikoan lege-indarrez sartutako nazioarteko ituna) biltzen bazen irratia- eta telebista-emanaldiak zuzenean jasotzeko askatasuna, arrazoi handiagoz eman beharko zela estatu baten zati batean egindako telebista-emanaldiak estatu horren beste zati batean benetan jaso ahal izateko aukera.

Era berean, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorrak, 40. artikuluan, aukera ematen du ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoa lehorreko uhin hertziarren bidez zabaltzeko autonomia-erkidego edo -hiri batetik mugakidea den eta hizkuntza- nahiz kultura-kidetasunak dituen beste batera, betiere hitzarmen bidez hala erabakiz gero, eta elkarrekikotasuna izanez gero.

Beraz, ordenamendu juridikoan sustraitutako asmoa zen aukera ematea autonomia-erkidego bateko zerbitzu publiko baten telebista-emanaldiak hizkuntza ofizial bereko beste lurralde bateko biztanleengana iritsi zitezela.

Hori guztia ikusita, Nafarroako Arartekoak egokitzat jo zuen Nafarroako Gobernuari iradokitzea egin beharreko gestioak azkar zitzala Nafarroan ETB erakunde publikoaren emankizunak lehenbailehen hartu ahal izateko, gutxienez, euskaraz ematen zirenak, edo Nafarroako kulturari edo horrekin lotutako kultura-elementuei buruzkoak, betiere eskatu beharreko baldintza teknikoak aintzat harturik.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak bidalitako idazki batean jakinarazi zuen zer gestio egiten ari zen Nafarroako Gobernuak EITBren saioak Nafarroako Foru Komunitatean zabal zitezen.

Horregatik, adierazitakoa gogoan izanda, eta egindako iradokizunarekin bat zetozen jarduketa batzuk zeudela ikusita, erakundeak amaitutzat jo zuen gai honetan zeukan esku-hartzea.

3.2.14. Buru-nahaste larria duten pertsonentzako egoitza-etxe batera egindako bisita.



Administrazio

jasotzailea: Eskubide Sozialesko Departamentua.

Arloa: Gizarte ongizatea.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.



Nafarroako Arartekoari lotutako langileek buru-nahaste larria duten pertsonentzako Sarrigurengo Félix Garrido egoitza-etxea bisitatu zuten.

Zerbitzu hori Avánvida erakundeak kudeatzen du, Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialesko Departamentuarekin egindako itun bidez, eta buru-nahaste larria duten 18 eta 65 urte arteko pertsonen laguntzen die, laguntza osoa emanez dauzkaten oinarritzko beharrei erantzuteko, eta, horrenbestez, norberaren autonomia mantendu eta

hobetzeko eta ingurunean txerta daitezen eta parte-hartze soziala izan dezaten sustatzeko.

Bisitari, funtzionamendu-alderdi batzuk aztertu ziren:

- a) Instalazioei dagokienez, egiaztatu zen kalitate handikoak, zabalak eta argitsuak zirela, ez zegoela oztopo arkitektonikorik eta segurtasun-mekanismoak egokiak zirela. Bisitarien unean, guztiz txukun eta garbi zeuden.
- b) Egoiliarrei emandako laguntzari dagokionez, egiaztatu ahal izan zen guztiz errespetatzen eta bermatzen zirela autonomia-eskubidea eta hautatzekoa.
- c) Zentroko langileek jakinarazi zutenez, betiere berreskurapen-eredua (interbentzionismorik gabeko laguntza-eredua) oinarri hartuta esku hartzen dute. Alde horretatik, ikusi zuten ezen, erabiltzaile bakoitzaren egoitzako interbentzio-programan, egoiliarrarekin batera zehazten direla egoiliarraren helburuak eta behar izango dituen laguntza-mailak (sendagaiak hartzean, dirua kontrolatzean, kontsulta medikoen kudeaketan eta abar). Jakinarazi zutenez, zentroan “ez dute inor ezertara behartzen”, bizia arriskuan egon ezean.

Bisitaren ondoren, eta haren ondorioz, Nafarroako Arartekoak egokitzat jo zuen hobetzeko gomendiorik edo proposamenik ez egitea, behar bezala bermatutzat jotzen zituztelako egoiliarren eskubideak.

3.2.15. Nafarroako Trafiko-buruzagitzan aztertzaile gutxi egotea.

.....

Erakunde

jasotzailea: Espainiako Arartekoa.

Arloa: Trafikoa.

Jarduketa: Informazioa helaraztea Estatuko administrazio esku-dunari.

.....

Hedabideen bidez, Nafarroako Arartekoak jakin zuen aztertzaile gutxi zituztela Nafarroako Trafiko-buruzagitzan. Zehazki, komunikabideek jakinarazi zuten aztertzaile gutxi izatearen ondorio izan zitekeela udaldia gidabaimena lortzeko baliatu nahi zuten pertsoneri ezin erantzun ahal izatea.

Egoera zeinen kezagarria zen eta kexaren xedea zen gaia Estatuko Administrazioaren eskumena zela ikusita, Nafarroako Arartekoak Espainiako Arartekoari helarazi zion informazio hori, bitartekoa izan zedin gai horretan Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren edo eskumena zuen Estatuko Administrazio Orokorreko beste edozein organoren aurrean arazoa konpontzeko.

Espainiako Arartekoak jakinarazi zuen ezen, Nafarroako Trafikoko Buruzagitzaren 1/2016 informazio-oharraren bidez, azterketen arautze berria jaso zutela, onartu egin baitzuten Nafarroako eskola guztien artean bidezki bana zedin buruzagitzaren zirkulazio-probak trafikoaerentzat irekitako bideetan egiteko ahalmena, zegozkien zikloak egutegiko 18 egunetik gorakoak ez izateko. Neurri hori Nafarroako Autoeskolen Probintzia Elkarteak eta Erriberako autoeskolek eskatu zuten, sistema horrekin probintziak azterketa egin nahi zutenen eskariari erantzun ziezaiokeelako, probak egiteko beste leku batzuetara joan behar izan gabe.

Gainera, Espainiako Arartekoak esan zuen aztertzaileen taldea sendotu egin zela, hamaika asteko gaitze-ikastaroa gainditu

zuenarekin bete zelako postu bat, eta behin-behineko postu bat edo batzuk esleitu egin zirelako (ibiltariak izanda nahiz eginkizunak aldi baterako esleituta).

Bestalde, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak aurreikusita zeukan aztertzaileak prestatzeko politikarekin aurrera jarraitzea, deialdi gehiagorekin, urtean hiru ikastaro egin ahal izateko behar adina hautagai lortu arte.

Horren berri izanda, Espainiako Arartekoak bere jarduketekin aurrera jarraitzea erabaki zuen, eta Trafikoko Zuzendaritza Nagusiari datu zehatzak eskatu zizkion irakasleentzako ikastaroez zeuzkan aurreikuspenei eta irakasleen eta azterketa egiten dutenen arteko egungo ratioari buruz.

Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak Espainiako Arartekoari esan zion ezen, 2014. urteaz geroztik, sei deialdi argitaratu zirela aztertzaileak prestatzeko, eta haietan guztietan postuak eskaini zirela Nafarroarako. Gainera, epe horretan, zortzi ikastaro eskaini ziren. Deialdi horietako bitan soilik eskatu zuten izangaiek postua Nafarroan izateko, eta emaitza honako hau izan zen:

- 2014ko lehen ikastaroan, postua nahi zuten bietatik bakar batek gainditu zuen ikastaroa, eta 2015eko otsailaren 6tik ekainaren 4ra arte aritu zen lanean, azken egun horretan eraso egin ziotelako proba baten ondoren, eta, horregatik, baja amaituta, prestakuntzako operadore-lanpostura itzultzeko eskatu zuen.
- 2015eko bigarren ikastaroan, izangai bakarrak ez zuen gainditu prestakuntza-ikastaroa.
- Gainerako deialdietan ez zen eskatzailerik izan.

Era berean, Nafarroarako aztertzaile-postu bat sartu zen INT/2528/2015 Aginduan jasotako lehiaketa orokorrean, baina bete gabe gelditu zen 2016ko otsailaren 19ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako ebazpenean.

Hala eta guztiz ere, 2014. urteaz geroztik, Nafarroako Trafikoko Buruzagitzak zerbitzu zentralen laguntza jaso du, aztertzaile ibiltarien bidez, bai eta beste buruzagitza batzuen laguntza ere, eginkizunak aldi baterako esleitu zaizkien aztertzaileen bidez.

2014an eta 2015ean, taldean zazpi aztertzaile zeuden eta azterketa-ratioa 100.000 biztanleko 1,1 zen. 2016an, aztertzaileak sei baitziren, ratioa 0,9 zen. Nafarroara lekualdatutako aztertzaileak batez beste bi izan direnez, ratioa 1,2 eta 1,4 ere izan zen aipatu urteetan.

Datu horiek ikusita, Espainiako Arartekoak bere jarduketan amaiera jakinarazi zuen.

3.2.16. Noingo gudua gertatu zen lekuaren babesa.



Administrazio

jasotzaileak: Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administraziooko Departamentua eta Galarko Udala.

Arloa: Kultura.

Jarduketa: Iradokizuna.



Nafarroako Arartekoak ofiziozko jarduketa bat abiarazi zuen Noingo guduaren bosgarren mendeurrenaren kariaz, 2021. urtean izango baita.

1521eko ekainaren 30ean Noingo gudua gertatu zen Getzeko zelaigunean (Galar Zendea). Egun hartan, kronika historikoen arabera, 5.000 soldadu hil ziren, gehienbat nafar-frantziar aldekoak,

Gaztela eta Aragoiko erregearen 30.000 soldaduek eta Henrike II.a Nafarroakoaren (“Zangotzarra” esaten ziotenaren) legitimitatearen alde eta André Foixkoaren (Asparrotseko jaunaren) agintepean zeuden 8.000-10.000 soldadu nafar eta gaskoiek egindako borroka luze eta odoltsuan.

Borroka haren ondorioz Henrike II.a Nafarroakoaren aldekoek praktikan erabat galdu zuten Nafarroako erresuma berreskuratzeko eta independente izateko edozein aukera, erresuma urte gutxi batzuk lehenago, 1512ko konkista militarren ondoren, Gaztelako koroari lotuta geratu ondoren.

Gaur egun, hirigintza-jarduketa batzuek (bizitegiek, industriek, ekipamenduek, azpiegiturek eta abarrek) Getzeko inguru gehiena (Galar) betetzen dute, edo beteko dutela aurreikusten da, bai eta Galar Zendeatik hurbil dauden beste kontzeju-mugarte batzuk ere. Hurrengo hamarkadetan, Iruñean egin beharrekoa den konurbazioaren eta hiriak izango duen hirigintza-bilakaeraren ondorioz, eta bestela jokatu ezean, aurreikustekoa da are Noaingo gudua gertatu zen lekuaren gaineko hirigintza- edo eraikuntza-presioak egungo landa-ingurunea aldaraztea ere, eta, azken batean, desagerraraztea.

Bestalde, Nafarroan, Espainian eta Europan, iraganean borroka garrantzitsuak gertatu ziren leku asko hirigintza-babesaren xede izaten ari dira, eta oroitzeko leku bihurtzen, botere publiko eskudunen jarduketa txikien bidez, egungo eta geroko belaunaldiei uzteko, beren bilakaera historikoan izandako gertaera garrantzitsuak non gogoratu izan dezaten. Hala gertatzen da Amaiurren, Navas de Tolosan, Waterloon, Verdunen eta beste leku asko eta askotan.

Getzetik hurbil, gudua gogorarazteko monumentu bat dago, Ulibarrena eskultoreak egina 1996an, baina monumentua muino batean dago gertatutakoari buruzko azalpenik izan gabe.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak aukera ematen dio ekimen publikoari udalez gaindiko eragineko plan sektorialak izapidetu eta onartzeko, baldin eta politika publikoak garatzeko jarduketak xede badituzte (kultura eta leku historikoak gordetzea, adibidez), eta dauzkaten ondorioek eta eraginak kasuan kasuko udalerrria edo udalerririk gainditzen badituzte, daukaten garrantziaren edo dauzkaten ezaugarri berezien ondorioz (35/2002 Foru Legearen 42.1 artikulua). Udalez gaindiko eragina duten plan sektorial horien onarpena Nafarroako Gobernuari dagokio, lurraldearen antolamendu-arloan eskumena duen departamentuak proposatuta.

Foru-lege horrek berak plan berezi independenteak direlakoak ere jasotzen ditu 71. artikuluan, eta Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Departamentuari dagokio plan horiek behin betiko onartzea. Plan berezi horien helburu izan daiteke, besteak beste, dauzkaten kultura-, paisaia- edo natura-balioengatik edo antzeko beste edozein arrazoiengatik kontserbatu behar diren esparruak antolatzea eta babestea (35/2002 Foru Legearen 61.1 artikulua). Legeak aukera ematen du plan horien ekimena publikoa ere izateko.

Bestalde, Nafarroako kultur ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legeak kultura-intereseko ondasun higiezinaren kategoriaren barruan sartzeko "leku historikoak" direlakoak, hau da, balio historikoa duten iraganeko gertaerei edo oroitzapenei lotutako leku edo paraje naturalak [aipatu Foru Legearen 15 c) artikulua]. Nafarroako Gobernuak kultura-intereseko ondasun izenda ditzake leku historiko horiek, aipatu foru-legearen 19. artikuluan xedatutako prozedura erabilita.

Azaroaren 22ko 14/2005 Foru Lege horren 37. artikulua xedatzen du ezen toki-erakundeek, leku bat historiko izendatzearen ondorioz, babes-plan berezi bat egin behar dutela leku historikoetarako, kultura-arloan eskumena duen departamentuak irizpena eman ondoren.

Ikus daitekeenez, bai Nafarroako hirigintza-legediak bai Nafarroako kultura-ondareari buruzko legediak aukera ematen diote Nafarroako Gobernuari hasteko eta, unea iritsita, onartzeko lurraldearen antolaketa- edo hirigintza-tresna bat, edo toki-erakunde eskudunari eskatzeko (kasu honetan Galarko Udalari) izapide eta onar dezala hirigintza-plan bat, gertaera historiko bati lotutako gune edo paraje natural bat babesteko eta, gainera, antolatzeko, halakoa baita Noingo gudua gertatu zen ordokia.

Horregatik, eta kontuan hartuta zerbitzu publikoen hobekuntza sustatzea dela erakunde honen eskumenetako bat, Arartekoak egokitzat jo zuen iradokizun bat egitea hirigintza- eta kultura-arloetan eskumena duten departamentuei, azter zezaten ea egokia zen eskuduna zenak (departamentuetako bat edo Galarko Udala) egin eta aurkez zezan Noingo gudua gertatu zen lekuaren babes-tresna edo -plangintza bat, zertarako eta eremu horrek landa-izaera gordetzeko zatirik handienez (horrek eragotzi gabe eremuaren jabeek eta titularrek egungo nekazaritza-aprobetxamenduak edo dauden beste batzuk egitea), bai eta aztertzeke ere zer aukera dagoen denboran zehar kultura-ibilbideak ezartzeko, interesa duten herritarrentzat, are egokitzat jotako lekuetan eta lehen bezala epe luzean monumentuak, monolitoak eta seinaleak jartzeko ere, bai eta aztertzeke interpretazio-zentro bat (beharbada Getzeko eraikin batean) eta abar ireki daitezkeen Nafarroako historian hain garrantzitsua izandako borroka hori gaitzat hartuta, hori guztia betiere epe luzean izan daitezkeen aurrekontu-aukeren arabera, eta gehiegi gastatu behar gabe horrelako proiektu batean.

Une honetan, Nafarroako Arartekoaren ustez, lehen jarduketa izan liteke gudua gertatu zen inguruan, edo, jakina denaren arabera, inguru hartatik geratzen den lekuan, hirigintza-antolaketa edo -babesa egitea 2021. urtea baino lehen, eta gauzatu nahiko liratekeen beste jarduketa batzuk gerorako uztea, epe luzeagoan edo hurrengo urtealdietan pixkanaka gauzatzeko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Arartekoak egokitzen jo zuen Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuari eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuari iradokitzea azter zezala, Galarko Udalarekiko lankidetzan, honako hauek egiteko aukera Noaingo gudua bosgarren mendeurrenari begira:

- a) Eskumena duenak edo dutenek Noaingo gudua gertatu zen lurralde-eremuaren zati bat ordenatzeko eta babesteko plan edo tresna bat egitea, aurkeztea eta izapidetzea, espazio zeharrik horrek etorkizunean eta behar den neurrian bere izaera landatarra gorde dezan. Iradokitzen den babesak ez du zertan eragotzi lur horien nekazaritza-ustiapena edo jabeek eta titularrek ematen dizkieten beste batzuk.
- b) Lurralde-eremu horretan, denboran zehar, interesa duten herritarrentzako ibilbide kulturalak ezartzea, eta, egokienak direla irizten zaion lekuetan, monumentuak, monolitoak, seinaleak eta abar eraikitzea; Getzeko eraikin batean, interpretazio-zentro bat jartzea ere azter daiteke, interesa duten pertsonen informazioa emateko Nafarroako historiako gudu hain garrantzitsuari eta haren inguruabarrei buruz.

Hori guztia kontuan hartua zer aurrekontu dauden, eta gehiegi gastatu behar izan gabe horrelako proiektu batean, zenbait fasetan eta epe ertain eta luzean gauza baitaiteke.

Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak bidalitako idazki batean esan zuen onartzen zuela iradokizuna, eta, edozer egin baino lehen, azterlan bat egingo zuela, oinarria izan zedin eragindako eremua babesteko eta mugarrizteko, eta, hirigintza-babeserako araubide egokiena aztertzeaz gain, daukan garrantzia nabarmentzeko aurreikuspenak, ibilbideak, seinaleztapena eta abar ere aztertuko zituela.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak bidalitako idazki batean adierazi zuen Nafarroako kultur ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legeak babes-plan berezia idazteko ahalmena ez ezik, betebeharra ere esleitzen diola toki-erakundeari, Kultura Departamentuak kultura-intereseko ondasuna delako adierazpena egin ondoren. Era berean, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 74. artikulua arabera, garapen-plan berezia denez, toki-erakundeari ere dagokio plana onartzeko eskumena. Horregatik, ondorioztatzen zen idazkian, departamentuaren ustez ez zen udalez gaindiko eragineko plan sektoriala erabili beharreko bidea.

Erantzun horien ondoren, onartutzat jota Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuari egindako iradokizuna, Nafarroako Arartekoak amaitutzat jo zituen bere jarduketak.

3.2.17. Nafarroako Erriberan, airearen kalitatea hobetzeko planik ez izatea.



Administrazio

jasotzailea: Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko Departamentua.

Arloa: Ingurumena.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea. Gomendia.



Nafarroako Arartekoak, komunikabideen bidez, jakin zuen erakunde ekologista batek salaketa bat aurkeztu zuela Europako Batzordean, uste zuelako hamabi autonomia-erkidego, Nafarroakoa haien artean, arduragabeki jokutzen ari zirela airearen kalitate-plan aginduzkoak ez egiteagatik, airean zeuden ozono-mailek xede-balioak gainditzen zituzten inguru eta aglomerazioetan.

Hedabideek zabaldutako informazioaren arabera, Europako aire-kalitateari eta atmosfera garbiagoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko maiatzaren 21eko

2008/50/EE Zuzentarauak, 23. artikuluan, estatu kideak behartu egiten ditu airearen kalitate-planak egitera troposferako ozonoaren xede-balioa gainditzen den inguruetan. Balio horren helburua da gizakien osasunarentzat eta, oro har, ingurumenarentzat izan daitezkeen ondorio kaltegarriak saihestea, prebenitzea edo gutxitzea, eta, ahal den neurrian, epe jakin batean lortu beharrekoa da.

Zuzentzarau hori Espainiako barne-zuzenbidean jaso da Airearen kalitatea hobetzeari buruzko urtarrilaren 28ko 102/2011 Errege Dekretuaren bidez, 24. artikuluan honako hau baitio: “Inguru edo aglomerazio jakin batzuetan giroko airearen kutsatzaile-mailek edozein muga-balio edo xede-balio gainditzen badute, bai eta kasuan kasuko tolerantzia-tartea ere, autonomia-erkidegoek airearen kalitate-planak onartuko dituzte inguru eta aglomerazio horietarako, I. eranskinean zehaztutako kasuan kasuko muga-balioa edo xede-balioa errespetatzea lortzeko”.

Dirudienez, azken urteetan, Nafarroak troposferako ozonoaren xede-balioak gainditu ditu, airearen kalitate-planik egin gabe

Horiek guztiak zehatzago eta sakonago ezagutzeko, Nafarroako Arartekoa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuko kontseilariari zuzendu zitzaion, eta honako hauek argitzeko eskatu zion:

- a) Ea egia zen azken bost urteetan troposferako ozonoaren xede-balioak gainditu zirela Nafarroako Erriberako eremu batzuetan. Erantzuna baiezkoa izanez gero, zer kantitatetan eta urteko zenbat egunetan gertatu zen hori.
- b) Zergatik ez zuen planik egin Nafarroako Foru Komunitateak airearen kalitatea hobetzeko.

- c) Nafarroako Erriberan airearen kalitatea hobetzeko plan bat egiteko zer aurreikuspen zituen Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak.
- d) Zer neurri hartu behar zituen Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak Nafarroako Erriberan troposferako ozonoaren xede-balioak ez gainditzeko.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak bidalitako informazioa ikusita, Nafarroako Arartekoak egiaztatu zuen ozonoaren xede-mailak, gizakien osasuna eta landaredia babesteari dagokionez, gainditu egiten zirela Nafarroako lurraldearen zati batean; zehazki, Erribera aldean.

Horri dagokionez, Airearen kalitatea hobetzeari buruzko urtarilaren 28ko 102/2011 Errege Dekretuak (2008/50/EE Zuzentarauan jasotako aurreikuspenak jasotzen ditu) administrazio publikoen jarduketak arautzen ditu, eta 3.3 artikuluan honako hau xedatzen du:

“3. Autonomia-erkidegoek, zeinek bere eskumenen barruan, eta toki-erakundeek hala egokituz gero Airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legearen 5. artikuluan, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 26. artikuluan, Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorraren 41. eta 42. artikuluetan, 34/2007 Legearen 5., 8. eta 10. artikuluetan eta autonomia-erkidegoetako legeetan aurreikusitakoaren arabera:

a) Organo eskudunak, laborategiak, institutuak eta erakunde tekniko-zientifikoak izendatuko dituzte, giroko airearen kalitateari buruzko arauak aplikatzeaz eta, bereziki, ebaluazio-metodoetako azterketen eta neurketen zehaztasuna bermatzeaz ardua daitezen. Organo horiek V. eranskinen III. zenbakian xedatua bete beharko dute.

b) Beren lurralde-esparruan eremuak eta aglomerazioak mugatu eta sailkatu egingo dituzte, giroko airearen kalitatearen ebaluazioaz eta kudeaketaz den bezainbatean, eta datuak hartuko dituzte, araututako kutsatzaileen kontzentrazioak ebaluatu, eta informazioa emango diote jendeari.

c) Behar diren neurriak hartuko dituzte bermatzeko araututako kutsatzaileen kontzentrazioek ez dituztela gainditzen airearen kalitate-helburuak, eta kontzentrazio horiek murrizteko, bai eta premiazko neurriak ere, araututako kutsatzaileen kontzentrazioak berriz jar daitezten alerta-atalaseen azpitik, eta, gainera, informazio egokia emango diote jendeari, aipatu atalaseak gainditzen direnean. Bereziki, 24.1 eta 24.6 artikuluan zehaztutako airearen kalitatea hobetzeko planak onartuko dituzte, bai eta 25. artikuluan jasotako epe laburreko jarduera-planak ere.

d) Neurketa-sistemak onartuko dituzte; hau da, metodoak, ekipoak, sareak eta estazioak.

e) Elkarri lagunduko diote autonomia-erkidego bati dagokiona baino handiagoa den lurralde-esparru batean finkatutako airearen kalitate-helburuak gainditzen badira, Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Inguruneko Ministerioak koordinatuta.

f) Airearen kalitate-helburuei dagokienez, errege-dekretu honetan xedatuak baino zorrotzagoak erabaki ahal izango dituzte”.

Horregatik, kontuan hartuta, alde batetik, balioak gainditu egin direla Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari Departamentuak bere txostenean adierazi bezala, eta, bestetik, zer eskumen duen arlo horretan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, Nafarroako Arartekoak honako gomendio hau egin zuen:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari gomendatzea behar diren neurriak har ditzala bermatzeko araututako kutsatzaileen kontzentrazioek ez dituztela gainditzen airearen kalitate-helburuak, bai eta kontzentrazio horiek murrizteko ere, eta, zehazki, susta dezala airearen kalitatea hobetzeko planaren onarpena, plan hori Erkidegoko eta Estatuko legedian jasota baitago.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari gomendatzea behar diren neurriak har ditzala bermatzeko araututako kutsatzaileen kontzentrazioek ez dituztela gainditzen airearen kalitate-helburuak, bai eta kontzentrazio horiek murrizteko ere, eta, zehazki, susta dezala airearen kalitatea hobetzeko planaren onarpena, plan hori Erkidegoko eta Estatuko legedian jasota baitago.

3.2.18. Nafarroako banku publikoa sortzeko prozesuan parte hartzea.

.....

Administrazio

jasotzaileak: Garapen Ekonomikorako Departamentua.

Arloa: Herritarren parte-hartzea.

Jarduketa: Iradokizuna.

.....

Nafarroako Gobernuaren web-orrian argitaratutako berri baten bidez, Nafarroako Arartekoak jakin zuen ezen Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren bidez, finantza-erakunde publiko baten sorrerari buruzko txostenaren lizitazioa iragarri zuela.

Argitaratutakoaren arabera, lanak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak esparru horretan esku hartzearen bideragarritasuna eta zeuden aukerak aztertu behar zituen, eta, ondorio moduan, aukerarik onenari buruzko gomendia jaso behar zuen.

Txostenak, esaten zen, Nafarroako egitura ekonomikoa eta ekonomiaren nahiz inbertsio-merkatuaren finantza-egoera izango zituen aztergai, sistemaren akatsak edo hutsuneak identifikatzeko (erantzun gabeko beharrak zenbait sektorarentzat: publikoa,

enpresak, pertsonak eta familiak), arrazoi izango baitziren finantza-erakunde publiko bat sortzeko.

Era berean, azterlanak zenbait erakunde motaren bideragarritasun juridikoa aztertu behar zuen (enpresa edo sozietate guztiz publikoa, foru-komunitateko enpresa-erakunde publikoa, finantza-establezimendua edo banku-erakundea), aukera bakoitzaren abantailekin eta eragozpenekin.

Lanak, adierazten zenaren arabera, Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruzko merkatu-azterketa eta beste kreditu-erakunde publiko batzuekiko azterketa alderatua izan behar zituen oinarri.

Lortu nahi zen diagnostikoari begira, aurreikusten zen zenbait eragile ekonomikorik eta sozialek esku hartzea ikerketan elkarriketen bidez: Garapen Ekonomikorako Departamentuak, Sodena sozietate publikoak, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak eta abarrek.

Azterlanaren lizitazioa iragarri ondoren, eta kontuan hartuta zeinen garrantzitsua izango zen Nafarroan finantza-erakunde publiko bat sortzea, zenbait iritzi eta erreakzio argitaratu ziren hedabideetan, eta haiek guztiek, adierazten zuten jarrera gorabehera, agerian utzi zuten interes handia sortzen duela gaiak nafarren artean.

Nafarroako Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legeak xede du, besteak beste, interes publikoan eragin zuzena edo zeharkakoa duten gaiei buruzko erabakiak hartzen direnean herritarrek daukaten esku hartzeko eskubidea bermatzea, eta, horretarako, elkarriketa ireki, garden eta erregularra izatea [1.1 artikulua, c) letra].

Helburu horri lotuta, foru-legeak herritarren partaidetza- eta lankidetza-printzipioa ezartzen du, administrazio publikoak, printzipio horren arabera, bere politikak diseinatzean eta bere

zerbitzuak kudeatzean, bermatu behar baitu herritarrek, banan-banan bezala kolektiboki ere, kontu publikoetan esku hartu, lagundu eta konpromisoa hartu ahal izatea [4. artikulua, d) letra]. Foru-lege horrek zenbait eskubide aitortzen ditu parte-hartze publikoari dagokionez (5.2 artikulua), eta elkarrekiko erlazioa bermatzen duten tresnen edo mekanismoen bidez bultzatu eta sustatu nahi du herritarren parte-hartzea eta lankidetzatza (34. artikulua eta hurrengoak).

Arau-testuinguru horretan, gizartearen egungo eskaeretako bat izanik sustatzea herritarren parte-hartze efektiboa gai publikoetan, demokrazian sakontzeko eta erabakien legitimitatea indartzeko mekanismoa den aldetik, hizpide dugun gaian, interes publiko eta orokor berezia izaki, komeni zen, erakunde honen iritziz, aztertzea prozesuan Nafarroako herritarrek esku hartzeko mekanismo bat sartzeko aukera, Nafarroako Gobernuaren ekimen horren funtsezko alderdian behintzat.

Aurreko guztia proposamena izateko gogoz adierazten zen, erakunde honi herritarren eskubideen babes-maila hobetzeko eta bermatzeko dagokion eginkizuna betez adierazi ere, eta zalantzan jarri gabe iragarrita zegoen lizitazioa, zeina, ondorioztatzen zenaren arabera, azterlan edo txosten espezializatua izateko sortu baitzen.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Arartekoari komenigarria iruditu zitzaion Garapen Ekonomikorako Departamentuari iradokitzea, finantza-erakunde publikoa sortzeko aukeraz den bezainbatean, mekanismo eraginkorren bat presta zezala herritarrek esku hartzeko, ekimenaren funtsezko alderdiei dagokienez behintzat.

Garapen Ekonomikorako Departamentuak igorritako idazki bidez adierazi zuen lanean ari zirela Nafarroako Gobernuko Herritarrendako Laguntza eta Herritarren Partaidetza Zerbitzuarekin, "herritarren artean piztutako interesaren arabera parte-hartze publikoko

prozesu bat ezartzeko, bat etorrira Nafarroako Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legeak dioenarekin”.

Departamentuak adierazitakoa kontuan hartuta, erakundeak onartutzat jo zuen iradokizuna, eta amaitutzat eman bere esku-hartzea.

3.2.19. Harrapatzeak Ermitagaña auzoan (Iruñea)

.....
Administrazio

jasotzailea: Iruñeko Udala.

Arloa: Trafikoa.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea. Iradokizuna.

.....

Bertako idatzizko zenbait komunikabideren bidez, Nafarroako Arartekoak jakin zuen Iruñeko Ermitagaña auzoko biztanle batzuk neurriak eskatzen ari zirela inguru horretan ibilgailuek inor ez harrapatzeko.

Informazio horien arabera, Ermitagaña kaleko eta auzoko ondoko kaleetako bizilagunek Iruñeko Udalari eskatzen zioten neurriak hartzeko ibilgailuen abiadura gutxitzeko, askotan onartutako muga gaindituta pasatzen direlako. Horren guztiaren oinarrian 2016ko abuztuaren 7an izandako gertaera bat zegoen: 76 urteko emakume bat, Ermitagaña eta Pedro Malon Etxaide kaleen arteko zebrabidea igarotzen ari zela, ibilgailu batek harrapatu eta geroago hil egin zen.

2016o urtarrilaren 22an, bizilagunek eskaera bat aurkeztu zuten, aipatu kaleen arteko elkargunean abiadura moteltzeko elementuak jartzeko. Hala ere, Herritarren Segurtasun Arloak, trafikoaren koordinazio-taldeari txostena eskatu ondoren, ezetza eman zion eskaerari, pentsatu baitzuen ibilgailu gehienek ez zutela gainditzen baimendutako abiadura, handik hurbil semaforoa zeukan bidegurutze bat zegoelako (60 metro).

Argitaratutako informazioaren arabera, Ermitagañan zirkulazioa oso handia da egunean zehar. Era berean, oinezko asko ibiltzen dira, kalearen alda banatan dendak daudelako, azoka adibidez, bai eta jende asko joaten diren lekuak ere: Santa Maria Ermitagañakoa parrokia, San Alberto tanatorioa, Golem zinemak eta abar. Teresiarren ikastetxera doazen haurrak ere bertatik pasatzen dira, eta aurrean haur-parke bat dago.

Bizilagunek zioten sakangune edo irtengune bat jartzea nahi zutela abiadura moteltzeko.

Testuinguru horretan, kontuan hartuta zer eskatzen zuten bizilagunek zirkulazioaren eta oinezkoen segurtasuna bermatzeko, erakundeak komenigarritzat jo zuen Iruñeko Udalak segurtasun-neurriak hartzea inguru horretan, abiadura gutxitzeko eta oinezkoen segurtasuna bermatzeko. Horregatik, Nafarroako Arartekoak honako iradokizun hau egin zuen:

Iruñeko Udalari eskatzea Ermitagaña kalean eta ingurukoetan neurriak hartzeko, ibilgailuen abiadura gutxitu eta oinezkoen segurtasuna bermatzeko.

Iruñeko Udalak idazki bat bidali zuen eta, besteak beste, adierazi aztertzen ari zirela zer jarduketa izango ziren egokienak, kontuan hartuta bideen zabalera, erabilera, garraio publikorako sarbideak eta kalearen egituraren ondoriozko arazoak, garaje-sarbideak, aparkalekuak eta abar daudelako.

Udalaren informazioa ikusita, eta kontuan hartuta Iruñeko Udala zer egin aztertzen ari zela, amaitutzat jo zen erakunde honen esku-hartzea.

3.2.20. Osasun publiko unibertsalaren bermea.

.....

Administrazio

jasotzailea: Osasun Departamentua.

Arloa: Osasuna.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea. Iradokizuna.

.....

Nafarroako Arartekoak jakin zuen bertako idatzizko hedabideetan argitaratu zela osasunaren esparruan interesak ordezkatzen dituzten kolektibo jakin batzuk kezkatuta zeudela Konstituzio Auzitegiak uztailaren 21eko datarekin emandako 139/2016 Epaiairen ondorioz. Epaia horrek ezetsi egin zuen Estatuko Osasun Sistemaren iraunkortasuna bermatzeko eta prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko premiazko neurriei buruzko apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege-dekretuan (Estatuko 196. aldizkari ofizialean argitaratua, 2016ko abuztuaren 15ean) jasotako zenbait aginduren aurka Nafarroako Parlamentuak jarritako konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsua.

Informazio horien arabera, aipatu epaiak Nafarroak daukan legediaren aurka egin zezakeen, hau da, otsailaren 25eko 8/2013 Foru Legearen aurka (Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen baitie Nafarroan bizi diren pertsoneri), zeina gaur egun errekurrituta baitauka Espainiako gobernuburuak Konstituzio Auzitegian.

Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharreri buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legearen 11. artikulua osasun-laguntza publikoa jasotzeko eskubidea nortzuek duten xedatzen du:

“1. Osasun laguntza publikoak, estaldura unibertsalekoak, Nafarroako Foru Komunitateko udaletan bizi diren pertsona guztiak hartzen ditu. Halaber, Nafarroako udaletan bizi diren etorkinak ere hartzen ditu, zein den ere haien lege nahiz administrazio egoera.

2. 2. Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean iragaitzaz daudenei osasun laguntza publikoa ziurtatuko zaie indarreko legetan, Europako zuzenbidean eta aplikatzekoak diren nazioko nahiz nazioarteko hitzarmenetan ezarritako moduan eta baldintzetan.

3. Halaber, osasun laguntza publikoa ziurtatuko zaie artikuluko honetako 1. eta 2. idatz-zatietan jasota ez dauden adingabeei eta emakume haurdunei.

4. Gainera, larrialdi nahiz emergentzia egoeran dauden pertsona guztiei ziurtatuko zaie osasun laguntza publikoa”.

Geroago, 8/2013 Foru Legea onartu zen, otsailaren 25ekoa, eta haren artikuluko bakarrak, 17/2010 Foru Legearen aipatu 11. artikuluan esandakoaren ildotik, hau xedatu zuen:

“1. 1. Nafarroan bizilekua duten pertsona guztiek dute eskubidea Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura doan jasotzeko Nafarroako Foru Komunitateko osasun-sistema publikoak emandako osasun-laguntza oinarrikoa edo espezializatua, zein ere den haien adina, nazionalitatea edo lege- nahiz administrazio-egoera.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoaren ondorioetarako, “bizilekua” izanen da kreditatzea, zuzenbidean onartutako edozein modutan, erroldatzea barne, pertsona horren bizilekua Nafarroako udal batean dagoela, inolako denbora-eperik kontuan hartu gabe.

3. Bizilekua kreditatzen duen dokumentazioa aurkeztuta, osasun-administrazioak doan eta luzamendutan ibili gabe emanen die identifikazio-dokumentazio bat 1. idatz-zatian aipatzen diren pertsonari, Nafarroan osasun-laguntza publikoa ororenganatzeko araubidean sartzeko, baldin eta

Osasun Sistema Nazionaleko Norbanako Osasun Txartela ez badute.

- 4. Foru Komunitateko osasun-sistema publikoak emandako osasun-laguntza, 1. idatz-zatian aipatutako pertsonen dagokienez, Osasun Sistema Nazionaleko Norbanako Osasun Txartela dutenei emandako bera izanen da, eta Nafarroako Osasun Administrazioak ezin izanen du inolako diskriminaziorik egin.*
- 5. Aurreko idatz-zatietan xedatutakoak ez du aldatzen Estatuko Funtzionario Zibilen mutualitateek, Mutualitate Orokor Judizialak edo Indar Armatuaren Gizarte Institutuak kudeatutako Gizarte Segurantzaren araubide berezietako titularren edo onuradunen osasun laguntzaren araubidea. Pertsona horiek beraien berariazko araubide juridikoa mantenduko dute, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legeko 3.6 artikularekin bat”.*

Otsailaren 25eko 8/2013 Foru Legea Espainiako gobernuburuak errekurritu zuen Konstituzio Auzitegian 2013ko abenduaren 4an, eta horren ondorioa izan zen foru-lege horretan jasotako agindu guztien aplikazioa eta indarraldia automatikoki etetea (Espainiako Konstituzioaren 161.2 artikulua).

Geroago, Konstituzio Auzitegiak, apirilaren 8ko 114/2014 Autoaren bidez, foru-legearen artikulua bakarraren etena baliogabetzea erabaki zuen; ez, ordea, xedapen gehigarri bakarrarena, zeina prestazio farmazeutikoak Nafarroako Foru Komunitatean osatzeari buruzkoa baita.

Hartara, osasun-laguntza publikoaren jasotzaileen arauketa, Nafarroan, zeina otsailaren 25eko 8/2013 Foru Legean eta azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean jasota baitago, guztiz indarrean dago,

Estatuko Osasun Sistemaren iraunkortasuna bermatzeko eta prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko premiazko neurriei buruzko apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege-dekretuan (oraindik orain konstituzionalizat joa) xedatutakoa gorabehera.

Horrenbestez, zenbait kolektibotan ikusitako kezka dela eta, Nafarroako Arartekoak komenigarritzat jo zuen:

Osasun Departamentuari iradokitzea Nafarroan aplika zezala honako hauetan xedatutakoa: Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legearen 11. artikulua; eta Nafarroan bizi diren pertsonen Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen dien azaroaren 25eko 8/2013 Foru Legearen artikulua bakarra.

Osasun kontseilariak idazki bat bidali zuen, eta adierazi departamentuaren asmoa zela aipatu 8/2013 Foru Legea aplikatzen jarraitzea. Beraz, adierazitako hori kontuan hartuta, erakundeak amaitutzat jo zuen bere jarduketa.

3.2.21. Adingabe baten heriotza.

Administrazio

hartailea: Hezkuntza Departamentua.

Arloa: Hezkuntza Batzordea.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea. Gomendioa.

Nafarroako Arartekoak 2016ko martxoan hil zen adingabe baten gurasoak hartu zituen. Gurasoek azaldu zioten adingabea, hil zenean, derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikaslea zela ikastetxe batean, eta, jakinarazi zioten, halaber, Polizia Judizialak eta Instrukzioko Epaitegiak haren heriotzaren inguruko xehetasunak argitzeko abiarazitako ikerketen arabera, eskola-jazarpeneko kasu bat egon zitekeela atzean, eta jazarpen hori aurreko ikasturtetik (DBH3tik)

zatorrela. Jazarpen-egoera hori, itxuraz, ikastetxeko bertako hainbat ikaskidek eta futbol-taldeko hainbat kidek eragindakoa zen.

Prozesu judizialean, Instrukzioko Epaileak berak eta Adingabekoen Fiskalak egin zieten garrera adingabearen gurasoei. Adingabekoen Fiskalak jakinarazi zien, bere irizpidearen arabera, jarduketetatik ezin zela ondorioztatu zigor arloko erantzukizunik egon zitekeenik. Era berean, azaldu zien abiarazitako prozesu horretan bere eginkizuna zigor-arlo horretara mugatzen zela, eta ez zuela eskumenik bestelako bide batzuetan jarduteko.

Gurasoek adierazi zuten babesik gabe sentitzen zirela, eta, zigor-arloko erantzukizunik ez izan arren -ez zen beraien asmoa bide horretan erantzukizun horiek eskatzea-, uste zuten hezkuntza arloan, bai, zenbait neurri eta esku-hartze beharrezkoak zirela, eta, zehazki, ustez jazarpenak gertatu ziren ikastetxeko eta kirol taldeko testuinguru jakin horietan. Horren guztiaren helburua, batez ere, prebentzioa zen, gertatutakoaren antzeko kasurik gehiago ez gertatzea, alegia, eta erantzuleak jabetzea beren jokabide okerraz.

Nafarroako Arartekoak bidezkoztat, arrazoizkoztat eta neurrizkoztat jo zuen familiaren eskakizuna, areago kontuan hartuta eskola-jazarpenaren prebentzioa funtsezko eginkizuna eta betebeharra dela Hezkuntza Administrazioarentzat eta hezkuntza-zerbitzua ematen duten ikastetxeentzat.

Aztertutako gertakariak edo zantzuek garrantzi penala izan ala ez, eskola-jazarpeneko kasu bat izan zitekeela pentsatzeko susmoak eta elementuak izan baziren, eta, beraz, erakunde honek beharrezkoztat jo zuen zegozkion protokoloak, mekanismoak edo jarduketak martxan jartzea.

Hori dela eta, Nafarroako Arartekoak Hezkuntza kontseilariari eman zion gertakari horien berri, eta ikastetxera jotzeko iradoki zion, zentroak berak ere horien berri izan zezan, eta, ikastetxearen

barnean, eskola-jazarpenaren aurka zegozkion esku-hartzeak bultza zitzan prebentzio eta hezkuntza arloan. Era berean, kasu jakin horretan eskola barneko eta eskolaz kanpoko esparruen artean egon zitekeen lotura aintzat hartuta, Hezkuntza kontseilariari iradoki zion azter zezala ea ustezko jazarpen-kasu horri buruzko gertakariak adingabeak jokatzaren zuzen kirol elkarteari jakinarazi behar zitzaizkion, elkartek ere horien berri izan zezan, eta, horrela bazegokion, zegozkion neurriak har zitzan.

Gertakariak jakinarazi ondoren, erakunde honek kasu honetarako izendatutako aholkulariak Polizia Nazionalaren esku zegoen espedienteak eskuratu zuten, polizia judizialak adingabearen heriotzaren inguruan eginiko ikerketei buruzkoa.

Polizien ikerketak ondorio hau jasotzen zuten: “Biktimaren hainbat inguruetan jasotako adierazpenak eta eginiko esplorazioak aztertu ondoren, eta (adingabeak) kontuak aktibo zituen gizarte-sareak aztertu ondoren, polizia-ikerketaren arduradunek jakin ahal izan dute ikastetxeko zenbait ikasle irainak, burlak eta isekak egiten zizkiotela behin eta berriro (...). Jarduera gaitzesgarri horiek, delitutzat tipifikatzera irits ez badaitezke ere, erabat loturik leudeke adingabearen heriotzarekin eta ikastetxeko beste ikasle batzuek jasandako jazarpen-kasuekin (“bullying”) (...). Aurreko ofizio batzuetan zehaztuta geratu dira jada beste kasu horiek”.

Hori kontuan hartuta, erakunde honek beharrezkotzat jo zuten Hezkuntza Departamentuari gomendatzea Departamentuak berak edo ikastetxe jakin horrek esku-hartze zehatz bat abia zezala aztergai ditugun gertakarien inguruan, batik batik hildako adingabearen hurbileko eskola-ingurunean, eskola-jazarpenera prebenitzeko eta, horrela bazegokion, hautemandako jokabideak gaitzesteko.

Erakunde honen iritziz, espedienteak jasotako gertakariak kontuan hartuta eta osotasunean aztertuta, ondoriozta zitekeen behin eta berriro urratu zirela adingabearen eskubideak, bai eta haren

duintasuna eta osotasun moralerako eskubidea ere, eta, beraz urraketa horiek eskola-jazarpentzat har zitezkeela. Orobat, erakunde honen irudiko, urraketa horiek eragina izan zezaketen adingabeak bere buruaz beste egiteko erabakian.

Eskubideen urraketa hori, edozein izanik ere merezitako kalifikazio juridiko-penala, gaitzesgarria zen Hezkuntza Administrazioaren esparruan; eta kasu honetan atzemandako elementuak eta gertakariak kontuan izanik, beharrezkoa zen eskola-jazarpenera hautemateko eta prebenitzeko jarduketak abiatzea, hori baita hezkuntzaren ahalmen funtzionaltako bat edo eskubidebetebeharretako bat.

Horrenbestez, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak beharrezkotzat jo zuen:

Hezkuntza Departamentuari gomendatzea Departamentuak berak edo ikastetxe jakin horrek esku-hartze zehatz abia zezala familia interesdunaren semeak jasandako gertakarien inguruan, batik bat hildako adingabearen hurbileko eskola-ingurunean, eskola-jazarpenera prebenitzeko eta, horrela bazegokion, hautemandako jokabideak hezkuntza-esparruan gaitzesteko.

Hezkuntza Departamentuak idatzi bat bidali zuen erakunde honetara, eta zehaztu zuen jakinarazpen bat igorri zuela ikastetxera, eta, besteak beste, honako hau adierazi ziela eskola horretako arduradunei: "zentroak tartean diren ikasleekin esku hartu behar du, hezkuntza-estrategien bidez, taldeka nahiz banaka arreta eskainiz eta tutoretza-saioak eginez eta orientazio estrategien bidez, haien familiekin elkarlanean".

Era berean, Hezkuntza Departamentuak idatzian jakinarazi zuenez, azaroan bitartekaritza-prozesu bat izan zen eskolaren eta familiaren artean, eta bi aldeek akordio bat sinatu zuten; horren arabera,

zentroak adostutako jakinarazpen bat bidali behar zien zentroko familia guztiei, hildako adingabearen familiari barne.

Hori aintzat hartuta, eta gomendioa onartutzat emanda, Nafarroako Arartekoak amaitutzat eman zituen bere jarduketak.

3.2.22. Nafarroako Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuan gaueko ordutegian ekografia-probarik ez egitea.

Administrazio

hartzailea: Osasun Departamentua.

Arloa: Osasuna

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

Herritar batek, tokiko prentsako komunikabide batean argitara emandako eskutitz baten bidez, kexa agertu zuen 2016ko uztailaren 26an Nafarroako Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuan ekografiarik ez ziotelako egin. Argitaratutako idatzian jakinarazten zenez, bi pertsonak Nafarroako Ospitaleko Larrialdi Zerbitzura jo zuten aipatutako egunean, eta artatuak izan ondoren, bi ordu egin zituzten zain, ekografia bat noiz egingo. Idatziaren egileak eskutitzean zionez, hainbeste denbora zain egotearen arrazoiei buruz galdetuta, ez zuen azalpen argirik jaso.

Beste herritar batzuek ere Nafarroako Arartekoarengana jo izan zuten aurrez, kexu bera azalduz; hau da, Nafarroako Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuan gehiegizko itxaronaldiak sortzen direla gaueko ordutegian ekografia-probak egiteko.

Arazo horren berri zehatzago jakite aldera, Nafarroako Arartekoak gai horri buruzko informazioa eskatu zion Osasun kontseilariari, eta, zehazki, ea larrialdietan gaueko txandan ekografia-probak egiteko atzerapenen ondorioz garrantzizko gorabeherarik izan ote zen ala ez; hau da, salatuko kasuan edo gisakoetan gertatutakoaren antzekorik. Eta, orobat, horrela bazegokion, atzemandako gabeziak zuzentzeko

neurrii buruzko informazioa ere eskatu zion Arartekoak Osasun kontseilariari.

Osasun kontseilariak igorritako informazioaren arabera, azken hilabeteetan zenbait gorabehera gertatu ziren erradiologia-proben premiazko eskabideei erantzuterakoan; zehazki, zenbait egunetan behar baino atzerapen handiagoak sortu ziren gaueko ordutegian zenbait ekografia egiteko, baina kasu horietako bakar batean ere ez zen garrantzizko ondorio klinikorik sortu, eta larrialdi guztiei berehalako erantzuna eman zitzaien.

Nolanahi ere, kontseilariak adierazi zuenez, gaia komunikabideetara iritsi aurretik, Larrialdietako eta Erradiologiako Zerbitzuek identifikaturik zuten arazoa eta lanean hasiak ziren egoera hori konpontzeko. Era horretara, Erradiologia Zerbitzuak eginkizunen birbanaketa bat egin zuen guardiako medikuen artean, arrazoizko denboran erantzun zuzena bermatze aldera, eguneko eta gaueko edozein ordutan. Horrez gain, kontseilariak jakinarazi zuen Jarraipeneko Plan bat egiten ari zirela, Iruñeko Ospitale horretako larrialdi zerbitzuan horrelako edo beste era bateko gabeziarik ez gehiago sortzeko.

Bidalitako informazioari erreparatuta, eta Osasun kontseilariak abiarazitako jarduerak eta sortutako egoera hobetze aldera urratsak emateko agertutako prestutasuna aintzat hartuta, Nafarroako Arartekoak amaitutzat eman zuen gai honetan izaniko esku-hartzea

3.2.23. Kontu Irekiei buruzko Foru Legearen proposamena.

.....

Erakunde

hartzailea: Nafarroako Parlamentua.

Arloa: Gardentasuna.

Jarduketa: Arautzeko iradokizuna.

.....

Nafarroako Arartekoak 2016ko irailaren 13ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren bidez (104. zenbakia) jakin zuen parlamentu-taldeek Kontu Irekiei buruzko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketen berri.

Zuzenketa horietako batek, lehenak, Nafarroako Alderdi Sozialista Parlamentu-taldeak aurkeztutakoak hain zuzen, Nafarroako Parlamentuaren, Kontuen Ganberaren eta Nafarroako Arartekoaren kontuak irekiaketa irisgarriak izatea proposatzen zuten.

Bestalde, parlamentu-talde berak aurkeztutako 5. zuzenketak honako hau proposatzen zuten: Nafarroako Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen 70. artikuluan xedatutakoaren arabera, norbaitek uste badu foru legearen aplikaziopean dauden instituzio, erakunde edo entitateetako edozeini egozten ahal zaion egite edo ez-egite batek urratu egin duela kontu irekien arloko informazio publikoa eskuratzeko daukan eskubidea, erreklamazioa aurkezten ahalko du Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluan eta, kasua bada, baita Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legean aurreikusitako administrazioarekiko auzi-errekurtsua ere.

Horrenbestez, 5. zuzenketa onartuko balitz, Nafarroako Parlamentuak, Kontuen Ganberak eta Nafarroako Arartekoak kontu irekien arloko informazioa eskuratzeko abiatutako jardueren berri eman beharko liokete Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluari.

Erakunde honen iritziz, zuzenketa onartuko balitz, Nafarroako Arartekoa, eta, era berean, Nafarroako Parlamentua eta Kontuen Ganbera horretara behartzea konstituzioaren aurkakoa izan daiteke, ordenamendu juridikoaren oinarrian dagoen botere banaketaren printzipioaren aurkakoa delako (Botere legegilea, betearazlea eta judiziala) , bai eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen laugarren xedapen gehigarriaren aurkakoa ere.

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen 70. artikulutik 72.era bitartekoetan zehazten denez, Nafarroako Gardentasun Kontseilua izaera administratiboko organoa da, nahiz eta osaeraz anitza izan eta eginkizun independentea eduki. Organo horrek Botere Betearazlearen esparruan dihardu eta eginkizun hauek ditu: informazio publikoa eskuratzeari dagokionez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioek eta Nafarroako Foru Komunitateko sektore publikoko gainerako entitateek eta lurralde esparru bereko eta dagokion sektore publikoko tokiko entitateek emandako berariazko edo ustezko ebazpenen aurka aurkeztutako erreklamazioen berri jakitea, "Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen laugarren xedapen gehigarrian jasotakoarekin bat etorriz".

Gardentasun Kontseiluaren aurreko erreklamazioak arautzen dituen Estatuko Legearen laugarren xedapen gehigarri horren 1. zenbakiaren arabera, Autonomia-erkidegoetako Administrazioek eta horien sektore publikoek eta horien lurralde-esparruan diharduten tokiko entitateek emandako ebazpenen kasuan, Autonomia-erkidegoek erabakitako organo independenteari dagokio Estatuko lege horren 24. artikuluan xedatutako erreklamazioak ebaztea (Nafarroako kasuan, Nafarroako Gardentasun Kontseiluari), baina aldiz, Batzar Legegileek eta Estatu Kontseiluak, Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak, Kontuen Auzitegiak, Arartekoak eta hauen antzeko erakundeek emandako ebazpenen kasu zehatzean, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa

baino ezin daiteke jarri. Aurreko hori arestian aipatutako botere banaketaren printzipioaren ondorioa da. Espainiako Konstituzioak jasotzen du printzipio hori eta ordenamendu juridiko osoaren oinarrian dago.

Beraz, ezin da Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Kontseiluak, Kontuen Ganberak eta Nafarroako Arartekoak emandako ebazpenen aurkako erreklamaziorik aurkeztu Nafarroako Gardentasun Kontseiluan, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen laugarren xedapen gehigarrian jasotakoaren aurkako litzatekeelako. Estatuko legearen laugarren xedapen gehigarri hau "Konstituzioaren 149.1 1.a, 149.1 13.a eta 149.1 18.a artikuluetan xedatutakoaren babesean" eman du Estatuak, lege beraren azken xedapenetako zortzigarrenean jasotzen denez, eta, beraz, foru legeak errespetatu egin behar du lege horren mamia.

Hori dela eta, aipatutako 5. zuzenketa horrek -Nafarroako Parlamentuaren, Nafarroako Arartekoaren, Kontuen Ganberaren eta Nafarroako Kontseiluaren jarduketan gaineko erreklamazioari buruzkoak-, ordenamendu juridiko konstituzionala urra ez dezan, Nafarroako Arartekoak egokitzat jo zuen Nafarroako Parlamentuko presidenteari arrisku horren berri ematea, honek Nafarroako Parlamentuko zerbitzu juridikoei horren gaineko ebazpena edo iritzia eskatzea edo zuzenketa proposatu zuen parlamentu-taldeari kezka horren berri ematea azter zezan, parlamentu-talde horrek testua moldatzeko eta aipatutako erakundeak erreklamaziotik kanpo uzteko xedearekin.

Formulazio hori egiterakoan, erabateko errespetuz jokatu zen proposamena egin zuen parlamentu-taldearen lanarekiko, baita ganberako jardueran esku hartzen duten gainerako taldeekiko ere. Eginbidearen xedea zen eragile juridiko guztientzat segurtasun juridiko handiagoa lortzea beren eskubideen defentsan.

Bidalitako idatzi horri erantzunez, Nafarroako Parlamentuko presidentek idatzi bat igorri zuen, eta horretan jakinarazi zuen 2016ko irailaren 26an, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, beste gai batzuen artean, honako hau erabaki zuela: "Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak Kontu Irekien Foru Legearen proposamenaren gainean aurkeztutako zuzenketa harira Nafarroako Arartekoak igorritako idatziaren jakitun dela adieraztea".

Akordio hori aintzat hartuta, Nafarroako Arartekoak amaitutzat eman zituen bere jarduketak.

Gerora, Nafarroako Arartekoak egiaztatu zuen Kontu irekiei buruzko azaroaren 11ko 16/2016 Foru Legeak (2016ko azaroaren 22an Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua) ezarritako araudia bat datorrela erakunde honek planteatutako gaiarekin.

3.2.24. Nafarroako errepide eta trenbide ardatz handien zarata-mapak onartzea.

.....

Administrazio

hartzaileak: Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentua eta Garapen Ekonomikorako Departamentua.

Arloa: Ingurumena.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea.

.....

Zarata-mapak funtsezko tresna dira azpiegitura jakin batzuek eta hiri-metaketa handiek sortutako zarata prebenitzeko eta aztertzeko; hain zuzen, errepideek, aireportuek eta trenbideek sortutako kutsadura akustikoaren arazoa planteatzen dute herritar askok eta askok.

Alde horretatik, honela dio Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legearen 14. artikuluko 1. idatz-zatiak, zarata-mapen identifikazioari buruzkoak:

“1. Lege honetan eta berau garatzeko arauetan xedatutakoari jarraituz, Administrazio eskudunek honako hauei dagozkien zarata-mapak onartu beharko dituzte, aldez aurretik jendaurrean gutxienez hilabete bateko epean eduki ondoren:

a) Errepide-ardatz handi bakoitzaren, trenbide nagusien, aireportu handien eta metaketa handien mapak. Metaketa handitzat hartuko dira 100.000 biztanletik gora eta araudian ezarritakoa baino biztanleria-dentsitate handiagoa duten udalerrriak, lehen xedapen gehigarrian ezarritako egutegiarekin bat etorriz, eta 2. idatz-zatian jasotakoari kalterik egin gabe.

b) Kalitate akustikoko helburuak betetzen ez dituzten eremu akustikoen mapak”.

Nafarroako Gobernuaren web orriaren bidez (http://www.navarra.es/home_es/Temas/Medio+Ambiente/Ruido/Mapas+del+ruido.htm), Nafarroako Arartekoak jakin zuen Iruñerriko zarata-mapa bat onartu zela, eta eskualdeko hiri-metaketa zenbait mapa estrategiko jasotzen direla bertan. Hain zuzen, industriak, aireko, trenbideetako eta errepideetako trafikoak eragindako zarata aztertzen da mapa horietan.

Alabaina, mapa horretan ez zen Nafarroan dauden errepide- eta trenbide-ardatz handien zarata-mapei buruzko informaziorik jasotzen.

Hori dela eta, Nafarroako Arartekoak Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariarengana jo zuen, jakiteko zergatik ez dauden argitaratuta Nafarroako errepide- eta trenbide-ardatz handien zarata-mapak. Era berean, jakin nahi zuen zarata-mapa horiek onartuta zeuden ala ez; hau da, hori ote zen

informazio hori argitaratuta ez egotearen arrazoia, eta horrela balitz, zergatik ez zeuden onartuta. Halaxe adierazi zion erakunde honek aipatutako Departamentuari, eta, horrela bazegokion, mapa horiek egiteko zer egitegi zegoen aurreikusita ere jakin nahi zuela.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak bidalitako erantzunean jakinarazi zuen ez duela eskumenik Nafarroako errepide- eta trenbide-ardatz handien zarata-mapak onartzeko, eta, beraz, onarpen hori Garapen Ekonomikorako Departamentuari zegokiola.

Erantzun hori kontuan hartuta, Nafarroako Arartekoak Garapen Ekonomikorako Departamentuari eskatu zion informazio hori.

Txosten hau ixteko datan, ez dugu jaso Garapen Ekonomikorako Departamentuari eskatutako informazioa.

3.2.25. Mutiloabeitiko San Pedro eskola publikoa handitzea.

.....

Administrazio

hartailea: Hezkuntza Departamentua.

Arloa: Hezkuntza.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea. Iradokizuna.

.....

Nafarroako Arartekoak harrera egin zien Arangurengo alkateari, udalerrri horretako Udalaren ordezkari nagusia den aldetik, eta Mutiloabeitiko San Pedro eskola publikoko haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako haurren guraso eta irakasle talde bati. Guztiek beren desadostasuna azaldu zioten, Hezkuntza Departamentuak zentroa handitzeko duen asmoa dela-eta.

Bileran, bai alkatea eta bai hezkuntza-komunitatea bat etorri ziren zentroaren espazio faltaren arazolari konponbidea emateko aurreikusitako soluzioa (hau da, zentroa handitzea) ez dela egokiena

adierazterakoan; izan ere, kontuan hartuta oso litekeena dela eskariak gora egitea, arazoa larriagotu egin daiteke datozen urteetan. Guztiak bat etorri ziren Mutiloabeitin beste zentro edo eraikin berri bat sustatu behar dela.

Bertaratuek kezka handia azaldu zuten proiektuak aurrera eginez gero (900 ikasleko) hezkuntza "makrozentro" bat sor daitekeelako, eta horrek, beren ustez, hezkuntza-kalitatean galera nabarmena ekarriko duelako, baita egungo eskolaren "filosofia" aldatzea ere, gaur egun hurbiltasunean, familiarterako giroan eta gertuko tratuan oinarritzen baita.

Arangurengo alkateak adierazi zuen gaur egungo eskola ondo txertatuta dagoela udalerrriaren izaeran eta neurrietan, duela hainbat hamarkadatik gainera, kalitate-maila handia duela, eta horrela balioesten dutela hala bizilagunek nola hezkuntza-komunitate osoak. Hori dela eta, bere iritziz egokiagoa litzateke gaur egungo ikastetxearen eraikina beste zentro batekin osatzea, zentroa bera handitzea baino; izan ere, handitze horrek eskolaren gaur egungo ezaugarriak desitxuratu ditzakeela eta zerbitzuaren kalitatean eragina izan dezakeela uste du alkateak.

Arangurengo alkateak jakinarazi zuen Udaleko talde guztiak daudela zentro berri bat eraikitzearen alde, eta, era berean, hartu-emanak izan zituela Parlamentuko zenbait talderekin udalaren irizpidea zentroa handitzearen aurkakoa dela jakinarazteko.

Era berean, alkateak jakinarazi zuen udala erabat prest dagoela zentro berria sortzeko, eta adostutako soluzio bati bide emateko, bai eta zentro berria kokatzeko lursaila uzteko ere (zehazki, jakinarazi zuen Udalak horretarako lursail egokia eskain dezakeela). Era berean, alkateak azaldu zuenez, Mutiloabeiti eta Soto Lezkairu elkarren ondoan egonik, zentro berria egokia izan daiteke eremu horretako haurrak eskolatzeko sortzen ari den eskariari erantzuteko; izan ere,

Arangurengo eta Iruñeko aipatutako eremu horietako hiriguneetan (Mutiloagoiti eta Mutiloabeiti, Lezkairu...) jende gazte asko bizi da.

Ikasleen gurasoek ere handitzeak ekar ditzakeen eragozpenak azpimarratu zituzten; izan ere, gerta daiteke aurreikusitako handitzea ez nahikoa izatea urte batzuetara, eskariaren bilakaera dela medio, eta horrek beste obra batzuk egin behar eragingo luke; jatorrizko zentroaren diseinua neurri txikiko ikastetxe baten beharrezan araberakoa da, eta horrek zaildu egiten du handitzea baldintza egokietan egitea, batez ere ez dagoelako espazio komun nahikorik (jolastokia, korridore estuak...); zentro txiki samarra izateak pedagogia aldetik ematen dituen abantailak galdu egin daitezke.

Erakunde honetara bertaratu ziren irakasleek, berriz, haurren kopurua hazten ari dela eta gero eta zailtasun handiagoak dituztela adierazi zuten, eta zailtasun horiek areagotzen joango diren kezka azaldu zuten. Era berean, handitzeak zer eragozpen pedagogiko sor ditzakeen adierazi zuten, zentroaren hezkuntza-proiektuan eta, azken batean, zerbitzuaren kalitatean eragin dezakeelako. Irakasleak ere, familien antzera, zentro berri bat sortzearen alde agertu ziren.

Hori guztia aintzat hartuta, Nafarroako Arartekoak egokitzat jo zuen informazio hori eta tartean diren aldean iritzia Hezkuntza kontseilariari helaraztea, Hezkuntza Departamentuak horien berri izan eta kontuan har zitzan. Orobat, Arangurengo Udalarekin eta Mutiloabeitiko San Pedro eskola publikoko hezkuntza-komunitatearekin (gurasoak eta irakasleak) bilera bat egiteko iradokizion Hezkuntza Departamentuari, zentro berri bat eraikitzeko aukera sakon aztertzeko, hasiera batean aurreikusi eta gaur egun indarrean den zentroa handitzeko aukera baino egokiagoa delakoan, eta horretarako egokien iritzitako egutegia finkatzeko galdegin zion.

Hezkuntza kontseilariak idatzi bat igorri zuen, mezu honekin: *"Hezkuntza Departamentuak, hauteman eta aurreikusitako*

beharrizanei konponbidea emateko dauden aukerak aztertu ondoren, San Pedro Eskola Publikoko instalazioak handitzea erabaki du, Aranguren Ibarreko Udalak utzitako lursail batean eraikin berri bat eraikita. San Pedro Eskola Publikoko bigarren eraikina martxan hasi arte (seguru asko 2018/2019 ikasturtean izango da hori), beste gela bat egokituko da gaur egungo instalazioetan, 2017/2018 ikasturtea hasi baino lehen, hautemandako espazio beharrari behin-behinean erantzuteko".

Informazio hori aintzat hartuta, Nafarroako Arartekoak onartutzat eman zuen eginiko iradokizuna, eta amaitutzat eman zituen bere jarduketak.

3.2.26. Nafarroako Foruzaingoaren lanaldien eta ordainsarien aldaketarekin sortutako desadostasunak.

Administrazio

hartzaileak: Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua.

Arloa: Funtzio publikoa.

Jarduketa: Araudia berrikustea. Arautzeko iradokizuna.

Nafarroako Arartekoak Nafarroako Foruzaingoko buruen ordezkari bat hartu zuen, eta hauek beren kezka azaldu zioten Nafarroako Foruzaingoaren lanaldiaren eta ordainsarien erregelamendua onesten duen irailaren 28ko 79/2016 Foru Dekretuaren eta dekretu horrek garatzen duen apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legearen zenbait alderdi eta eragin direla eta.

Bileran, erakundera bertaratutako poliziek honako azalpen hauek eman zituzten:

- a) Eginiko aldaketen ondorioz, Nafarroako Foruzaingoaren zerbitzua kaltetuta gerta daiteke, aldaketa horiek nabarmen

zaildu dezaketelako polizia-unitateen antolaketa eta funtzionamendu eraginkorra. Horren harira, bertaratutako ordezkariak azaldu zutenez, dekretu horretan onartutako aldaketen bidez parekatu egin nahi dute Foruzaingoaren lanaldia eta funtzionario guztiena, eta, hain zuzen, hori litzateke arazoaren muina.

Alde horretatik, adierazi zuten gure inguruko polizia-kidego guztiek (Estatuko poliziak, mossoak, Ertzaintza, Foruzaingoa bera orain arte), Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko Lege Organikoan polizia-funtzioaren berezitasunari buruz jasotzen dena aintzat hartuta, araubide berezia dutela ezarrita lanaldiari dagokionez, eta lanaldia funtzio horren bereizgarrietara egokitzen dutela.

Nafarroan berriki onartutako aldaketa horiek direla medio, foruzaingoaren lanaldia funtzionarioen araubide komunarekin eta araubide horren logika eta eskema aplikagarriekin parekatuz gero, polizia-zerbitzuaren antolaketa kaltetuta gerta daiteke; izan ere, polizia-zerbitzuaren izaerak ez die patroiei berei jarraitzen eta malgutasun handiagoa eskatzen du (operazio bereziak, ikerketa zehatzak, epaitegiek eskatutako ikerketak, epealdi jakinak bete beharra, etab.).

Poliziek zehaztu zuten aukerarik egokiena gai hori poliziaren foru legean zehaztasunez ez arautzea litzatekeela, ondoren funtzio horren berezitasunak aintzat hartuko lituzkeen erregelamendu batean garatzeko. Soluzio hori bera dago indarrean beste polizia-kidego batzuetan.

- b) Eginiko aldaketa horiek Foruzaingoko kide askoren (280 inguru) lan-baldintzak modu bidegabean kaltetzea ekarriko dute; izan ere, kide horien guztien ordainsari-eskubideak modu nabarmenean murriztuko dira.

Alde horretatik, 15/2015 Foru Legearen zioen azalpenean nabarmentzen da Nafarroako polizia-funtzionarioak egoera okerragoan daudela beste erkidego batzuetako polizien aldean ("*gure polizia-funtzionarioak dira okerren ordainduak, Estatuan jarduten duten autonomia erkidegoetako poliziekin alderatuta, nahiz eta gizarterako eta segurtasun publikorako onurak berberak diren*" , dio hitzez hitz lege horrek zioen azalpenean), eta hori horrela izanik ere, Foruzaingoko kide askoren ordainsariak areago murriztekotan dira.

Nafarroako Arartekoarekin bildu ziren poliziek bidezkotzat jo zuten Nafarroako polizien gehiengoaren baldintzak hobetzea, baina ez beste batzuen baldintzak hain modu nabarmenean kaltetzearen bizkar.

Bileran, bertaratutako ordezkariak adierazi zuten Nafarroako Gobernuko arduradunekin eta parlamentu-taldeekin azertu zutela gai hau, eta guztiak onartu zirela, eta halaxe adierazi zela publikoki ere, legea nabarmen hobe zitekeela.

Alabaina, hori onartu arren, ez zen bilerako datara arte inolako neurririk hartu legea hobetzeko.

Erakunde honek arrazoizkotzat jo zuen bilerara bertaratutako ordezkarien iritzia, eta komenigarritzat jo zuen, aipatutako alderdi horiei zegokienez, aplikatu beharreko araudia aztertzea, eta hala erabakiz gero, berrikustea, aruari zegokion maila emanda.

Bestalde, polizia-funtzioaren antolaketa dela eta, eginkizun horren berezitasuna aintzat hartuta, aurreikustekoa zen funtzionarioen araubide komuneko arauak, kategoriak eta irizpideak Nafarroako Foruzaingora estrapolatzeak distortsioak edo disfuntzioak sor zitzakeela, eta egokiagoa izan zitekeela araubide espezifiko eta egokitu bat.

Bestalde, Foruzaingoko zenbait kideren ordainsari-eskubideei eragindako kalte zehatzaren harira, aipatu beharrekoa zen horrelako neurri murriztaileek, salbuespenekoak izaki, bateragarriak izan behar dutela botere publikoek beren jardunean bete beharreko printzipio konstituzionalekin, eta horien artean, segurtasun juridikoaren eta arbitrariotasunaren interdikzioaren printzipioekin. Beraz, eztabaidatu eta aztertu beharrekoa zen neurri hori aurreikustekoa, proportzionala eta bateragarria ote zen lortu nahi ziren interes publikoko helburuekin.

Hori guztia aintzat hartuta, Nafarroako Arartekoak beharrezkotzat jo zuen informazio hori Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentura helaraztea, horren berri jakin eta kontuan har zezan. Orobat, Arartekoak iradoki zuen azter zedila aipatutako alderdien lege-aldaketa, polizia-funtzioaren berezitasunari ahalik eta modu egokienean erantzuteko, eta, ahal zen guztian, aldaketa horiek funtzionarioen eskubideei (ordainsariei loturikoak barne) kalterik ez eragiteko.

Iradokizun horri erantzunez, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuko kontseilariak urriaren 27ko 184/2016 Foru Aginduaren kopia bat bidali zuen. Horren bidez Nafarroako Tokiko Poliziak arautzeko Foru Legearen aurreproiektua lantzeko prozedura abiatu da, apirilaren 10eko 15/2015 Legearen azken xedapenetako lehenengoan jasotakoa betez, eta, aldi berean, Nafarroako Poliziak arautzeko Legeak ere aldatuko dira, horien aplikazioan antzemandako arazoak konpontzeko.

Erantzun hori kontuan hartuta, Nafarroako Arartekoak amaitutzat eman zituen bere jarduketak, eta onartutzat eman zuen eginiko iradokizuna.

3.2.27. Etxebizitzen behealdeetan beilatokiak jartzea.

Administrazio

hartzaileak: Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentua; eta Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioa.

Arloa: Ingurumena.

Jarduketa: Araudia berrikustea. Arautzeko iradokizuna.

Azken urteotan, erakunde honek Nafarroako udalen aurka jarritako hainbat kexa jaso ditu hainbat beilatoki eta tanatorio zabaldu direlako eta egoitza-eraikinetako behealdeetan jarri direlako.

Erakunde honetan aurkeztutako kexez gain, komunikabideetan ere gai horri berari buruzko albisteak argitaratu dira, eta horietan begien bistakoa da bizilagun asko horrelako instalazioak kokapen horietan jartzearen aurkakoak direla.

Laburbilduz, kexa agertzen duten pertsonen adierazi nahi dutena da egokiagoa dela tanatorioak edo beilatokiak etxebizitzetatik bereizita dauden higiezinetan jartzea, jarduerak sortzen dituen eraginak direla medio (hildakoen presentzia, jarduerak sortutako hondakinak, pertsonen pilaketa eta joan-etorri etengabea, inguruan sortzen den trafikoa, etxebizitzak saltzerakoan erostunengan sor daitezkeen eragin psikologiko kaltegarriak eta abar). Kaltetutako pertsonen, halaber, horrelako jarduerak baimentzeko prozeduretan kontsultatuak izateko eta parte hartzeko nahia adierazi zuten, beren aurkako iritzia, kezka eta ezinegona adierazi ahal izateko.

Aipatzekoa da, erakunde honek ulertzen duenez, tanatorioak edo beilatokiak etxebizitzetan behealdeetan jartzeak sortzen duen erantzunari erreparatuta, gai honek eztabaida sortzen duela gizartean.

Aipatutako instalazioek 297/2001 Foru Dekretua, urriaren 15ekoa, Hileta-Osasunari buruzko Erregelamendua onesten duena bete behar dute, eta, zehazki, II. tituluko II. kapitulua ("beilatokiak eta tanatorioak").

Foru Dekretu horren 34. artikulua arabera, *"Beilatokitza hartuko da gorpuei estetika praktika egiteko, hura jendaurrean erakusteko eta hari beila egiteko establezimendu oro"*, eta 35. artikuluan, berriz, beilatokiek bete behar dituzten baldintzak zehazten dira.

Bestalde, aipatutako arauaren 36. artikulua honako hauek hartzen ditu tanatoriotzat: *"beilatokitarako baldintza guztiak bete eta, gainera, tanatopraxiako praktikak egiteko baimena duen establezimendu oro"*, eta 37. artikuluan, horiek bete behar dituzten baldintzak finkatzen dira.

Foru Dekretuaren 38. artikuluan, beilatokiek eta tanatorioek beren jardunean bete behar dituzten baldintzak zehazten dira, eta horien artean honako hauek: *"Gorpuei estetika praktikak eta tanatopraxiako praktikak aplikatzeko tresnak, ahal dela, erabili eta botatzekoak izanen dira. Erabiltzen den materiala erabili eta botatzekoa ez bada, garbiketa eta esterilizazio sistema egokia eduki beharko da"; "beilatoki eta tanatorioetan sortzen diren hondakin guztiak aplikatzekoak diren lege indardunen arabera kudeatu beharko dira"; eta "zarata eta bibrazioei buruz lege indardunetan ezarritako baldintzak betetzen direla bermatu beharko da".*

Eta baimenei dagokienez, 39. artikuluan honako hau zehazten da: *"Beilatoki eta tanatorioak ezartzeko baimena kokatuta dauden udalerriko udalek eman beharko dute. Aldez aurretik, Osasun Departamentuak proiektu teknikoari buruz emaniko aldeko txostena eduki beharko dute".*

Beraz, establezimendu horietan gorpuek jasotzen dira, horiek tratatzeko jarduerak egiten dira eta gorpuekin kontaktuan egon diren

botatzeko materialak eta hondakinak sortzen dira (hondakinen arloko araudia bete behar dute, beraz). Horrez gain, badira beste hainbat alderdi ere: gorpuak eraman eta ekartzea, senideen bisitak, hilkutxak eta hildakoak oroitzeko lore eta koroak, hildakoak garraiatzeko ibilgailuen presentzia eta abar.

Autonomia-erkidegoek onartutako araudietan, hainbat modutara jasotzen da instalazio horien kokapenaren eta etxebizitzekiko bereizketaren gaia.

Batzuetan, hala nola Gaztela eta Leonen, Gaztela-Mantxan, Extremaduran, Errioxan eta Madrilan, araudiak dio tanatorioak eta beilatokiak erabilera horietarako soilik izango diren eraikinetan jar daitezkeela, beste eraikin batzuetatik bereizita edo aparte.

Adierazitakoa aintzat hartuta, Nafarroako Arartekoak egokitzat jo zuen aurreko informazioa Osasun Departamentuari igortzea, horren berri jakin eta kontuan har zezan. Orobat, iradoki zion aintzat har zezala 297/2001 Foru Dekretua, urriaren 15ekoa, Hileta-Osasunari buruzko Erregelamendua onesten duena, aldatzeko aukera, araudi horretan jasotzeko etorkizuneko tanatorioak eta beilatokiak jendea bizi den eraikinetatik aparteko edo bereizitako eraikinetan ezarri behar direla.

Bestalde, erakunde honek egiaztatu zuen indarrean den araudiak zalantzak sor zitzakeela tanatorio edo beilatokiaren jarduerak sailkatutako jardueren lizentzia behar duten ala ez, kontuan hartuta Ingurumena babesteko esku hartzeari buruzko Foru Legean eta hori osatzen edo garatzen duen araudian jasotakoa.

Alde horretatik, kasuren batean, udalerrriak sailkatutako jarduerak baimentzeko aurreikusitako prozedurari jarraitu zion, prozesu horrek berezkoa duen parte hartzeko bermearekin, eta, beste kasuren batean, jarduera kaltegabea dela iritzita, udalerrriak ez zuen aplikatu halako prozedurarik, eta obretako hirigintza-lizentziak emateko ohiko izapideari jarraitu zion.

Erakunde honen iritziz, beilatoki eta tanatorioen jardueren kokapenari eta eraikin horiek izan beharko luketen erabilera eskusiboari buruzko iritzia edozein izanik ere, jarduera horiek, a priori, izaeragatik eta sor ditzaketen ondorioengatik, eragina izan dezakete ingurumenean, termino horrek duen adiera zabalean. Alde horretatik, esanguratsua iruditzen zaigu aurrez aipatutako osasun-arauak hondakinen inguruko legedian jasotakoa edo zarata eta bibrazioei buruzko legedian zehaztutakoa betetzea eskatzen duela.

Gainera, horrelako instalazioek bizilagunengan duten eragina kontuan hartuta, erakunde honek arrazoizkotzat jo zuen -areago azken legediak onartzerakoan gardentasun eta parte-hartze arloan ezarri diren printzipioei erreparatuta-, beilatokiei eta tanatorioei baimena eman aurretik, prozeduraren bat abiatzea eta horren bidez herritarrei parte hartzeko, alegatzeko eta jardueraren aurkako iritzia emateko aukera eta bermea ematea, sailkatutako jardueren lizentziak emateko prozeduran egiten den moduan.

Hori dela eta, adierazitakoa kontutan hartuta, eta jarduera sailkatuko prozedura izapidetu behar den ala ez ordenamendu juridikoan jasotzen denari buruzko interpretazioa alde batera utzita, Nafarroako Arartekoak informazio hau Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari helarazi zion, horren berri jakin eta kontuan har zezan. Halaber, iradoki zion azter zezala Ingurumena babesteko esku hartzeari buruzko Foru Legean aldaketa puntual bat egin ote daitekeen, araudi horretan berariaz jasotzeko beilatoki- eta tanatorio-jarduerak jarduera sailkatuen baldintzak bete behar dituztela. Horrek, baimena eskuratzeko prozedura abiatzea eskatuko luke, eta jarduera horien inguruko bizilagunen eta gainerako herritarren parte-hartzea eta entzunak izateko eskubidea bermatuko luke.

Era berean, Nafarroako Arartekoak informazio horren eta eginiko jardueren berri eman zion Nafarroako Udallerrien eta Kontzejunen Federazioari, erakunde horrek, beharrezkotzat joz gero, Nafarroako

toki entitateen artean zabal zezan. Halaber, iradoki zion, aholku eman ziezaiela Konfederazioko udalerrri eskudunei, hauek egoki irizten bazioten eta horrela eskatzen bazuten behintzat, hirigintza araudia lantzerakoan tanatorioen eta beilatokiaren instalazioak jendea bizi den eraikinetatik kanpo koka daitezela jasotzeko (adibidez, udal ordenantza baten eredu orokorra haien eskura jarritz).

Osasun Departamentuak erantzun zuen, osasun-irizpideak kontuan hartuta, ez zuela arrazoirik ikusten araudian inolako aldaketarik egiteko.

Bestalde, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak txosten bat bidali zuen, baina hori irakurrita, ezin zitekeen ondorioztatu Departamentu horrek ontzat ematen zuenik iradokizuna eta onartzen zituenik horren arabera neurriak.

Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioak, berriz, jakinarazi zuen Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak eta Osasun Departamentuak araudia aldatzen ez zuten artean, Federazioak ezin zezakeela gai horri buruz inolako argibiderik edo aholkularitza orokorrik eman. Hala ere, adierazi zuten Federazioaren Batzorde Eragilean emango zutela Arartekoak eginiko jardueren berri, udalerrri eta kontzejuak jakinaren gainean egon zitezela.

Erantzun horiek kontuan hartuta, Arartekoak amatutzat eman zituen planteatutako gaiaren inguruko jarduketak.

3.2.28. Atxilotu baten heriotza polizia-egoitzan.

.....

Erakunde

hartailea: Espainiako Arartekoa.

Arloa: Herritarren segurtasuna.

Jarduketa: Informazioa helaraztea.

.....

2016ko urriaren 26an, Nafarroan argitaratzen diren prentsako bi hedabidek albiste bat eman zuten argitara, Iruñeko Polizia Nazionalaren Komisariako egoitzetan atxilotuta zegoen pertsona bat hil zela.

Argitaratutako albisteen arabera, pertsona hori, jatorri senegaldarreko gazte bat, egoitza horietan hil zen, droga-trafikoagatik eta agintearen aurkako atentatuagatik atxilotua izan ondoren.

Kontuan izanik Estatuko Administrazio Orokorrak gai hauek berrikusteko duen eskumena, eta Espainiako Arartekoaren instituzioa dela prebentziorako mekanismo nazionala, Nafarroako Arartekoak horien berri eman zion Espainiakoari, gertatutakoaren berri jakin zezan eta, horretarako arrazoiak daudela eta beharrezkoa dela iritziz gero, bere eskumenen esparruan prebentzio-jardueraren bat egitea azter zezan.

Espainiako Arartekoak jakinarazi zuen Poliziaren Zuzendaritza Nagusiak txosten bat igorri zuela gertaeren berri emanez. Txosten horrek berresten zuen 2016ko urriaren 25ean, 14:00ak inguruan, berrogeita bi urteko herritar senegaldar bat hil zela Nafarroako Polizia Buruzagitza Nagusiaren egoitzetan, itxarongelan zegoela, ziegan sartu aurretik.

Poliziaren esku-hartzea ordubete lehenago izan bide zen, herritar hori motorrean zirkulatzen ari zela, abiadura handian, sigi-sagako maniobrak eginez. Horren aurrean, arazoak sor zitezkeela

aurreikusita, ibilgailu kamuflatu batean zihoan Polizia Nazionaleko talde batek geldiarazi egin zuen. Motorretik jaitsi ondoren, herritarrak eraso egin zion identifikatzera hurbildu zitzaion polizia, eta berehala, harekin zauden beste poliziek eta lekuko izan ziren herritarrek laguntza eman zioten eraso jasan zuen polizia. Guztien artean mendean hartu zuten herritarra eta eskuburdinak jarri zizkieten, inolako lesiorik eragin gabe, autopsiaren aurretiazko txostenean jasotzen denez. Ondoren, poliziaren bereizgarriak zituen ibilgailuan sartu zuten herritarra (parte hartu zuten agenteei laguntzera joana zen ibilgailu hori), eta polizia-etxera eraman zuten, atxilotu gisa, agintaritzako agente bati ustez eraso egitea eta aurka egitea eta ez obeditzea leporatuta.

Buruzagitzako egoitzan, herritarra banku batean eserita zegoen, ziegara noiz eramango zain, eta une horretan konortea galdu zuen. Ez zuela arnasarik hartzen eta ez zuela pultsurik egiaztatu ondoren, agenteek osasun-zerbitzuen laguntza eskatu zuten berehala. Anbulantzia bost bat minutura iritsi zen. Tarte horretan, bihotz-biriketako bizkortze-maniobrak egin zizkieten han zeuden funtzionarioek, eta ambulanzia iritsi ondoren, osasun-zerbitzuetako kideek hartu zuten horren ardura.

Gertakari horien harira abiarazitako polizia-atestatuan jaso ziren polizia-egoitzako segurtasun-kameren grabazioak, eta hori guztia Iruñeko 5. Instrukzio Epaitegira igorri zen. Hain zuzen, epaitegi hori arduratzen da kasuaz, 2695/2016 zenbakia duten Aurretiazko Eginbideetan.

Hori dela eta, Espainiako Arartekoak jakinarazi zuen egokiena ikerketa etetea zela, harik eta Aurretiazko Eginbideak ebatzi arte, eta, alde horretatik, Polizia Zuzendaritza Nagusiari eskatu zion prozedura ixten zuen ebazpen judizialaren berri eman ziezaiola.

3.2.29. Kolapso-egoera Iruñeko Nortasun Agiri Nazionalaren bulegoan.

.....

Erakunde

hartzailea: Espainiako Arartekoa.

Arloa: Herritarren segurtasuna.

Jarduketa: Informazioa helaraztea.

.....

Sindikatu batek Iruñeko Nortasun Agiri Nazionalaren bulegoan gertatutako "beste kolapso bat" salatu zuen komunikabideetan.

Argitaratutakoaren arabera, azken lau urteetan hamar lanpostu kendu dituzte bulego horretatik, horietatik sei 2016an, eta, horrez gain, iraupen luzeko baja berreskuraezin bat ere badago. Salaketa publiko horren arabera, langile publikoen ordezkorik ez jartzeak ilara luzeak sortzen zituen goizeko ordu txikietatik hasita, aurrez aurreko arretarako zenbakiak hartzeko, eta, horren ondorioz, zerbitzua jaso behar zuten herritarrek itxaronaldi oso luzeak egin behar zituzten. Langileen eskasia hori are nabarmenagoa da oporraldiak edo jaiegunak hurbiltzen direnean (udako oporrak Eguberrietakoak, "foruzubia", etab.); izan ere, horietan zerbitzuaren-eskaria handitu egiten da oporretan jendeak atzerrira bidaiatu ohi duelako.

Era berean, argitaratutako salaketa horren arabera, Nafarroako Polizia Buruzagitza Nagusiak langile gehiago eskatu zituen NANaren bulegorako, jakin bazekielako zer-nolako kolapsoa sortzen den oporraldiak iristen den aldiro.

Kontuan izanda Espainiako Arartekoak duela Estatuko Administrazio Orokorren jarduna ikuskatzeko eskumena, Nafarroako Arartekoak erakunde horri helarazi zion gertaera horien berri, jakinaren gainean egon zedin, eta, egoki iritziz gero, esku har zezan, aipatutako zerbitzu publikoa ematerakoan sortzen diren arazoei konponbidea emateko, are arrazoi handiagoz kontuan hartuta zerbitzu hori

arduratzen dela herritarren nortasun agiri ofizialak eta pasaporteak jaulkitzeaz.

Espainiako Arartekoak idatzi bat bidali zuen eta jakinarazi zuen administrazioko erakunde eskudunen aurrean eginbideak abiarazi zituela, eta, eskatutako informazioa jasotzen zuenean, horren berri emango ziola erakunde honi.

Txosten hau ixteko egunean, Arartekoak artean zen zuen horren gaineko informaziorik jaso.

3.2.30. Iruñeko espetxea behar beste ez erabiltzea. Nafarroako presoak Iruñeko espetxera lekualdatzea, horrela eskatzen badute.

Administrazio

hartzaila: Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua.

Arloa: Herritarren segurtasuna.

Jarduketa: Iradokizuna.

Nafarroako Arartekoak Iruñeko espetxea ez dela behar beste erabiltzen agerian uzten zuten hainbat albisteren berri jakin zuen.

Komunikabideek argitaratutakoaren arabera, espetxeak dituen hamalau moduluetatik zortzi itxita daude, eta, gaur egun, berrehun eta hirurogeita hamar preso baino ez leudeke bertan, zentroaren gehieneko edukierarekin alderatuta oso zifra txikia.

Espetxearen egoera horren paraleloan, erakunde honek, bere eginkizunen jardunean, Nafarroatik kanpoko espetxeetan preso dauden nafarren hainbat kexa eta eskabide jaso izan ditu urteotan guztiotan. Presoek eta haien senideek kondenak beren familia- edo gizarte-ingurunetik hurbil betetzeko duten eskubidea aldarrikatzen dute eskabide eta kexa horietan. Herritar horiek, kasu batzuetan

egoera pertsonal edo familiar zailak dituzte edo osasun-arazoak dituzte, eta, horren ondorioz, beren kondena Nafarroan betetzea eskatzen dute, askatasunik ez izateak sortzen duen zigor pertsonalaz gain haien herrietatik urrun egoteak zigor erantsirik sor ez dezan, edo senideei kalterik eragin ez diezaion.

Erakunde honek herritarren eskubide konstituzionalak defendatzen ditu eta horien babes-maila hobetzeko lanean dihardu, eta, alde horretatik, Nafarroako Foru Araubidea berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoak Foru Komunitateari emandako eskumenetan eragiten duten administrazio-jarduerak berrikusteko eginkizuna du. Beraz, Arartekoak uste du botere publikoek ontzat eman beharko lituzketela eskabide horiek, beren zigorra Nafarroan bete nahi duten preso nafarrek horretarako aukera izan dezaten. Izan ere, eskabide horiek bat datoz Espetxe Zuzenbidearen oinarrian dauden printzipio orokorrekin (horien artean, zigorra betetzeko hurbiltasunarena eta proportzionaltasunarena), Konstituzioak zigorrarentzat ezartzen duen gizarteratzeko eta nortasunaren garapen osorako helburuarekin eta kondena-epaitzaren eraginpean ez dauden oinarritzko eskubideak gozatzearekin.

Testuinguru honetan, kontuan hartuta Foru Araubidea berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren arabera, Nafarroaren eskumena dela espetxe arloko Estatuko legedia betearaztea, Nafarroako Arartekoak Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari helarazi zion informazio hori, eta iradoki zion azter zezala, egoki iritziz gero, Estatuko Administrazio Orokorraren aurrean zegozkion izapideak egitea, zigorra Nafarroan bete nahi duten preso nafarrek, ahal den neurrian, horretarako aukera izan dezaten.

Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak idatzi bat igorri zuen Arartekora. Idatzian, bere irizpidea ere iradokizun horrekin bat zetorrela adierazi zuen, eta iradokitakoa betetzeko eginbideak abiaraziko zituela jakinarazi zuen.

Erantzun hori kontuan hartuta, Nafarroako Arartekoak onartutzat eman zuen eginiko iradokizuna, eta amaitutzat eman zuen bere jarduera.

3.2.31. Nafarroako Cáritasek bermatutako errenta eta larrialdiko laguntzak aurreratzea.

Administrazio

hartzaileak: Eskubide Sozialetako Departamentua eta Iruñeko Udala.

Arloa: Gizarte ongizatea.

Jarduketa: Jarduera administratiboa ikuskatzea. Gomendioak.

Nafarroako Arartekoak komunikabideen bitartez jakin zuen Nafarroako Elizbarrutiko Cáritasek gizarteratzeko errentaren (orain bermatutako errenta) aurrerapenak egiten jarraitzen zuela. Erakunde horretako ordezkariak jakinarazitakoaren arabera, 2016ko azaroaren 30erako 3.845 aurrerapen egin zituzten, eta horrek "lan handiagoa ekarri zuen administrazioko langileentzat, eta Cáritasek 300.000 euroko likidezia eduki behar izatea Gobernuaren beharrezan erantzun ahal izateko".

Argitaratutako albistearen arabera, Nafarroako Cáritaseko zuzendariaren nahia zen erakundeak hori egiteko premiarik ez izatea, deseroso sentitzen direlako diru-laguntzak aurreratu behar izateko eginkizun horretan.

Era berean, zuzendariak azpimarratzen zuen Iruñeko Udalak beste urte batez larrialdiko diru-laguntzei erantzuteko eskatu zela Udaleko kutxa "itxita" zegoen bitartean. Horren ondorioz, hori aldatzeko itxaropena agertzen zuen; izan ere, "pobreek ez dute ulertzen ekitaldi ekonomikoez".

Horren aurrean, Nafarroako Arartekoak Eskubide Sozialetako Departamentura eta Iruñeko Udalera jo zuen, alde batetik, arazo

horren gainean bi erakundeen azalpenak entzuteko, eta, bestetik, horrela bazegokion, onuradunei bermatutako errenta eta larrialdiko laguntzak garaiz ordaintzen zaizkiela ziurtatze aldera zer neurri hartu behar zituzten jakiteko.

Iruñeko Udalak txosten bat igorri zuen eta onartu zuen, administrazio-izapidetzearen ondorioz, urteko garai batean itxi egin behar dela kutxa hori, batetik, egindako ordainketa guztien kontuak emateko, zehatz eta zorrotz eman ere, eta, bestetik, hurrengo kutxa berri finkoa operatibo jarri ahal izateko. Hain zuzen, horrela egin behar da kutxa horrek tratamendu berezia duelako, ordainketak arin egin ahal izateko; izan ere, astebeteko epean edo gutxiagoan ordaintzen dira eskatutako laguntzak.

Udalak onartzen zuen jabetzen zela zer-nolako kaltea sortzen den kutxa finko hori itxita, eta, horren ondorioz, lanean ari zirela epeak laburtzen saiatzeko eta itxiera hori ez gertatzeko, eta, horrela gertatzen den kasuetan (gaur egun, adibidez), epe hori ahalik eta laburrena izateko.

Eskubide Sozialetako Departamentuak, berriz, beste txosten hau igorri zuen:

"Departamentu honetako Gizarteratzeko eta Babes Sozialerako Zuzendaritza Nagusiaren kezketako bat izan da eta da Bermatutako Errentaren (aurrez Gizarteratzeko Errenta) eskabide guztiei garaiz eta egoki erantzutea. Berez, azken bi urteotan legez ezarritako epean erantzun zaie eskabide guztiei. Hala ere, legezko epe hori hiru hilabetekoa da eskabidea Nafarroako Gobernuan erregistratzen denetik benetan jakinarazten den arte, eta, horrenbestez, horrelako gizarte-prestazioetan Administrazioak ematen duen erantzuna, ezarritako epe barnean izan arren, ez da eskabidea egiten duten pertsonen beharko luketen bezain arina eta azkarra. Hori dela eta, egungo sistemak jarraitzen du

indarrean eta Cáritasek aurreratzen ditu prestazio horiek: eskabidea baloratu ondoren, eta oinarriko gizarte-zerbitzuak aldez aurretik eskatuta, Cáritasi jakinarazten zaio aldeko balorazioa, eta honek Errenta Bermatua aurreratzen die behar duten pertsoneri. Ondoren, itzuli egiten zaio Cáritasi aurreratutako zenbatekoa.

Sistema horren bidez gehienez ere 20 egun lehenago kobratzen dute onuradunek prestazioa; hori dela eta, mekanismo hori saihesteko honako eginbide hauek ari gara martxan jartzen:

- a. Balorazioa egiteko eta ebazpena emateko denborak murriztea. Bereizita tratatzen ari dira eskabide berriak eta berritzeko eskabideak, azken hauek berrikusteko denbora gutxiago behar baita eskabide berriak berrikusteko baino. Hala, iazko azaroan 654 espediente baloratu ziren, abenduan 1265 eta beste 1055 orain arte (2017ko urtarrilak 25).*
- b. Aurrekontuetako Zuzendaritza Nagusiarekin batera Bermatutako Errenta hilean 3 aldiz ordaintzeko aukera aztertzen ari gara, modu horretara, eskabidea baloratu ondoren, ordainketa gehienez ere 8 egunetan egin ahal izateko. Neurri hori otsailean jar daiteke indarrean.*
- c. Eskabidea berritzeko kasuen prozedura berrikusten ari gara, eskabide horiek azkarrago baloratzeaz gain, balorazioa egiten den hilabetean edo hilabeteetan etenik sor ez dadin. Horretarako, eskabidea modu automatizatuan identifikatu ondoren, aukera hau aztertzen ari gara: prestazioa bi hilabetez ordaintzeko behin-behineko ebazpena ematea eta eskabidea baloratzeko denboraren arabera erregularizatzea. Uneotan, Gizarteratzerako eta bermatutako errentarako eskabideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru*

Legearen araubidezko garapena prestatzen ari gara, eta hor jasoko da aipatutako neurri hori.

Hiru neurri hauen bidez, gure aurreikuspena da 2017ko martxoaren eta apirilaren artean desagertuko dela aurrez azaldutako aurrerapenen sistema."

Txosten horiek kontuan hartuta, Nafarroako Arartekoak Iruñeko Udalari eta Eskubide Sozialetako Departamentuari jakinarazi zien Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legeak, 5. artikuluan b) idatz-zatian jasotakoarekin bat etorritik, gizarte zerbitzuen sistemak erantzukizun publikoaren printzipioa oinarritzat hartuta jardun behar duela, eta, horren arabera, "botere publikoek gizarte zerbitzuen eskuragarritasuna bermatu beharko dute, sistemaren funtzionamendurako eta koordinaziorako beharrezkoak diren giza baliabideak eta bitarteko tekniko eta finantzarioak arautuz eta jarritik".

Larrialdiko laguntzak eta bermatutako errentaren prestazioa erantzukizun publikoak dira, bai eskubidearen onarpenari dagokionean bai laguntzak ordaintzeari dagokionean.

Hori dela eta, erakunde honen iritziz, gizarteratzeko errenta edo bermatutako errenta eta larrialdiko laguntzak Cáritasen bidez aurreratzeko sistema hori ez dator bat gizarte zerbitzuen sistemak oinarrian beharko lukeen aipatutako printzipio orokor horrekin, ez eta aztergai dugun prestazioaren izaera publikoarekin ere.

Hori dela eta, Iruñeko Udalak nahiz Eskubide Sozialetako Departamentuak beren txostenetan iragarritako neurriak ontzat eman arren, Nafarroako Arartekoak beharrezkotzat jo zuen Iruñeko Udalari eta Eskubide Sozialetako Departamentuari gomendio bana egitea, erantzukizun publikoaren printzipioarekin bat etorritik, Cáritas ongintzako erakundearen bidez egiten diren prestazioen aurrerapenak bertan behera uzteko beharrezkoak diren neurriak har

ditzaten; hau da, larrialdiko laguntzak eta bermatutako errenta (aurrez gizarteratzeko errenta) Cáritasen bidez aurreratzeari utz diezaioten.

Iruñeko Udalak idatzi bat igorri zuen eta jakinarazi zuen onartzen zuela gomendio hori. Era berean, berretsi zuen Larrialdiko Laguntzen espedienteak lehentasunez tratatzen direla horiek onartzeko, emateko, esku-hartzeko eta ordaintzeko prozeduran parte hartzen duten Udaleko Arlo guztietan.

Era berean, idatzian jakinarazten zuenez, Udalak lanean jarraitzen du epeak laburtzeko eta Kutxa ez ixteko, baita Larrialdiko Laguntzen deialdi berria (2018ari dagokiona) 2018ko lehen egunean argitaratzeko ere, modu horretara laguntza horiek berehala ordaindu ahal izateko.

Txosten hau ixterako datan, Arartekoak ez zuen jaso artean Eskubide Sozialetako Departamentuaren erantzunik eginiko gomendioaren gainean.

3.2.32. Bigarren aldiz ezkontzen diren senar-emazteen kasuan Foru Berriari buruzko 272 legeak testamentugileari xedatzeko gaitasunean ezartzen dizkion mugak.

.....

Erakunde

hartailea: Nafarroako Parlamentua.

Arloa: Zuzenbide zibil forala.

Jarduketa: Arautzeko iradokizuna.

.....

Herritar batek Nafarroako Zuzenbide Zibilaren Konpilazioaren araubideari buruzko kexa agertu zuen, araubide horrek bigarren aldiz ezkontzen direnen senar-emazteen kasuan testamentugileari xedatzeko gaitasunean ezartzen dizkien mugak direla eta.

Interesdunak azaldu zuen nafar foru-auzotasuna duela, bigarren aldiz ezkontuta dagoela eta aurreko ezkontzako seme-alabak dituela. Horren ondorioz, eta Foru Berrian xedatutakoaren arabera, interesdunak ez du lehen aldiz ezkontzen direnen askatasun bera testamentua emateko, eta horri baztertzaila deritzo.

Kexa jasota, erakunde honek Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentura jo zuen, horri buruzko informazioa eskatzeko.

Departamentu horrek txosten bat igorri zion erakunde honi, eta honako ohartarazpen hauek jaso zituen bertan:

- a) Mortis causa testamentua emateko askatasunaren muga, kexan aipatzen dena, Foru Berriari buruzko 272 legean jasotzen da (5/1987 Foru Legearen bidez aldatu zen hori).
- b) Hainbat organo jurisdikzionalak aplikatu dute 272 legea, eta batzuek eta besteek interpretazio-irizpide desberdinak erabili izan dituzte (irizpide desberdin hori ulertzeko ebazpen judizialak aipatzen dira idatzian).
- c) Gai honek hainbat soluzio izan ditzake Konstituzioaren eta Nafarroako Zuzenbide Zibilaren esparruan; bat edo bestea hartzea, beraz, legegintzako erabaki politikoa da.

Erakunde honek egiaztatu zuen Nafarroako Zuzenbide Zibilaren Konpilazioko 272 legeak honela xedatzen duela:

“Aurreko ezkontzako seme-alabek ezin dute euren gurasoengandik jaso geroko ezkontzako seme-alaba edo ezkontidearen artetik onura gehien lortu dituenak baino gutxiago. Ezkontza horretako seme-alabak aurrez hiltzen badira, beti ordezkapen-eskubidea gertatuko da haien ondorengoen mesederako.

Gutxiago eskuratuz gero, akatsa zuzenduko da kalte-dun guztiak berdinez, onuradunen kontura eta gainerako en partaidetzak aldatu gabe. Ez-ofiziosotasunaren ondoriozko akzioa egikaritu ahal izanen dute seme-alaba edo ondorengo kalte-dunek edo horien kausadunek soilik, eta hori jarri beharko dute xedatzailea hil eta hurrengo lau urteetan zehar. Kausatzaileak, inter vivos nahiz mortis causa egintzetan, ezkontide berriari edo geroko ezkontzan izandako ondorengoei eratziki badizkie ondasun jakin batzuk, eta horien balioa gehiegizkoa bada, konpentsazioa eman ahal izanen diete aurreko ezkontzako ondorengoei, jarauntsiko ondasunekin edo diruarekin.

Aurreko ezkontzako seme-alaben eskubide hori ez da gertatuko beste pertsona batzuentzako xedapenei dagokienez".

Lege honetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko aurreko ezkontzako seme-alabei, horiek testamentu bidez edo oinordetza-itunaren bidez jaraungabetu badira, Kode Zibilaren 852 eta 853. artikuluetako arrazoietatik edozein dela bide".

Beraz, arauak muga zehatzak ezartzen dizkio testamentugileak aurreko ezkontzan izandako seme-alaben alde testamentua egiteko borondate askearen printzipio orokorrari.

Erakunde honek, eztabaida horren berri izanda, aruari buruz izan diren interpretazio judizial askotarikoak kontuan hartuta eta arauaren egokitasunari buruz egon daitezkeen iritzi desberdinak aintzat hartuta, eta jakinik, halaber, Nafarroako Parlamentuan ponentzia bat sortu dela Foru Berria berrikusteko eta eguneratzeko, egokitzat jo zuen gaia Nafarroako Parlamentura helaraztea, horren berri jakin zezan, eta, aldi berean, iradokizun hau egitea:

"Nafarroako Parlamentuari iradoki zaio Foru Berria edo Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa berrikusteko eta eguneratzeko eratu den Ponentziak heldu diezaiola gai honi, eta azter dezala 272

legea aldatzeko aukera, baldin eta egokitzen jotzen badu testamentugileari askatasunez xedatzeko legeak ezartzen dion muga zehatza ezabatzea, gaur egun ezin baita aurreko ezkontzako seme-alaben alde testamentua egin".

Nafarroako Parlamentuko presidentek idatzi bat igorri zuen, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2017ko urtarrilaren 9an hartutako erabakiaren berri emanez. Horren arabera, egindako iradokizunaren jakitun dela azaltzen du eta iradokizuna ponentziako kideei helarazi diela, Foru Berria berrikusteko, eguneratzeko eta XXI. mendeko Nafarroako gizarte errealitatera egokitzeko.

Erabaki hori aintzat hartuta, Nafarroako Arartekoak onartutzat eman zuen iradokizuna, eta jarduketa amaitutzat eman.

3.2.33. Nafarroako kooperante baten atxiloketa Grezian.

.....

Erakunde

hartzaileak: Espainiako Arartekoa, Greziako Arartekoa.

Arloa: Justizia.

Jarduketa: Informazioa helaraztea.

.....

Erakunde honek komunikabideen bidez jakin zuen herritar nafar bat, GKE bateko kidea, atxilotu zutela Greziako agintariak, albistean azaltzen denez, autokarabana batean zortzi pertsona errefuxiatu zeramatzatela eta ferry batean ontziratze kotan zirela.

Komunikabideek argitaratutakoaren arabera, gerta zitekeen Greziako agintariak "pertsonen trafikoa" leporatzea herritar nafarri, eta delitu horrengatik, antza, hiru urtetik gorako kartzela zigorra ezartzen du Greziako Zigor Kodeak. Bestalde, komunikabideek argitaratu zuten, kasuaren berri eman zitzaizkien Espainiak Grezian duen enbaxadari eta kontsulatuari, eta hauek jakinaren gainean zeudela adierazi zuten.

Nafarroako Gobernuak atxilotuaren egoerarekiko interesa agertu zuen eta, betiere komunikabideen arabera, protestan erabilitako metodoekin ados egon ez arren, European aterpea bilatzen duten pertsonetikiko tratua dela-eta gizartean dagoen sumindurarekiko jarrera ulerkorra agertu zuen. Era berean, Nafarroako Gobernuak lanerako prestutasuna agertu zuen kasuari konponbide egokia eta neurrikoa emateko, kontuan hartuta *"desobedientzia zibileko ekintza bat izan dela eta helburu bakarra salaketa soziala eta kritika politikoa egitea izan dela"*. Erakunde hau ere bat dator gogoeta horrekin, uste duelako gertakarien arrazoia eta atxilotutako kooperantearen helburua horixe zela, azken batean.

Egoera zeinen kezkarria zen ikusirik, erakunde honek Espainiako Arartekoarengana jo zuen, informazioa emateko eta iradokitzeko bitartekaritza lanak egin zitzala, ahal zen neurrian, Kanpo Gaietarako eta Lankidetzako Ministerioaren aurrean, atxilotutako kooperante nafarraren kasuari konponbide egokia eman ahal izateko; izan ere, neurritz kanpoko delituak egozteko arriskua zegoen.

Era berean, Greziako Arartekoari ere gertaera horien berri eman zion Nafarroako Arartekoak, eta eskatu zion jakin zezala zer egoeratan zeuden atxilotuak eta ziurta zezala haien eskubideen bermea.

Greziako Arartekoak bidalitako erantzunean jakinarazi zuen bazutela gertatutakoaren berri, baina, bere eskumenak kontuak hartuta, ezin zuela esku hartu ebazpen judizialaren zain zeuden gaietan. Jakin ahal izan zuenez, bi boluntarioak aske utzi zituzten fidantzapean. Halaber, azken urteetan pertsona migratzaile/errefuxiatuen hazkundera dela-eta, han eta hemen errefuxiatuen behin-behineko kanpalekuak sortu direla jakinarazten zuen, eta Europar Batasuneko mugetan sortutako egoerarekiko kezka adierazten zuen idatzian. Horren ondorioz, konponbide eraginkor eta funtzionalak eskatzen zizkion administrazio publikoari, han eta hemen pertsona hauei harrera egiteko baldintzak eta haien bizi-baldintzak hobetu ahal izateko, batez ere egoera ahulenean dauden pertsonenak eta bereziki heldu baten laguntzarik

gabe iristen diren haurrenak. Eta, orobat, asilo politikoa eskuratzeko prozedurak ere galdegiten zizkion Greziako Arartekoak administrazioari.

Bestalde, Espainiako Arartekoak azaldu zuen, Nafarroako Arartekoaren idatzia jaso eta ordu gutxira, nola jakin zuen kooperante nafarra aske utzi zutela. Horrenbestez, Espainiako Arartekoak Espainiako administrazioaren jarduna baino ezin duenez ikuskatu, eta herritar nafarrari eragiten zioten eginbide prozesalak Greziako Jurisdikzioaren mende zeudenez, bere jarduketak amaitutzat eman zituen.

3.2.34. Arartekoen adierazpena Siriako egoera humanitario negargarriari buruz.

.....

Erakunde

hartzailea: Europako Batasuneko Arartekoa.

Arloa: Gizarte ongizatea.

Jarduketa: Adierazpena.

.....

Espainiako Arartekoak eta autonomia-erkidegoetako Arartekoek eskutitz bat bidali zioten Europako Arartekoari, eta, besteak beste, honako hau adierazi zuten idatzian:

"Su-etena haustearen ondorioz eta herritarrei laguntza emateko ezintasunaren ondorioz Siriako hiri batzuetan eta bereziki Alepon bizi den egoera humanitario negargarriari buruzko adierazpen bat egitea eskatzen dizugu, egokia iruditzen bazaizu. Adierazpen hori Segurtasuneko Komisarioari, Kanpo Gaietarako eta Segurtasun Politikarako Europar Batasuneko Goi Ordezkaritari eta Europako Kontseiluko Giza Eskubideen Komisarioari bidal dakieke.

Uste dugu ona litzatekeela beste ahots batek salatzea kaltetutako herritarrak jasaten ari diren baldintza dramatikoak, su-etenari

eusteko aldarrikapena egitea, eta salaketa eta aldarrikapen hori ozen entzutea.

Ekimenaren helburua zen Siriako hirietan gerraren ondorio lazgarriak jasaten dituzten pertsonen laguntzeko lanean ari direnei babesa ematea eta Giza Eskubideen Babesle guztien ahotsak haien ahotsekin bat egitea.

→ 3.3. ESPAINIAKO ARARTEKOEN KOORDINAZIORAKO XXXI. JARDUNALDIAK ETXEBIZITZA ZARATEN BIDEZ INBADITZEA.

2016ko irailaren 22an eta 23an Nafarroako Parlamentuan eginiko jardunaldiak.

Jakinaren gainean izanda, OMEren arabera, Espainia munduko herrialderik zaratatsuenetakoa dela, eta beharrezkoa dela norberaren etxebizitza zarata-emisioetatik libre izateko herritarren eskubidea babestea, Espainiako Herriaren Defendatzaileek gai hori aztertu zuten Espainiako Arartekoen Koordinaziorako XXXI. Jardunaldietan. Nafarroako Parlamentuan, Iruñean, 2016ko irailaren 22an eta 23an izan ziren jardunaldiok, "Etxearen inbasioa zaratengatik: etxebizitzaren bortxaezintasuna eta osotasun fisiko eta psikikorako eskubidea" gaitzat hartuta.

Aurrez, maiatzean, koordinazio-jardunaldiak prestatzeko tailer bat izan zen Gasteizen, Euskadiko Arartekoak antolatuta.

Jardunaldiak Nafarroako Foru Erkidegoko presidentek, Nafarroako Parlamentuko presidentek eta Espainiako Arartekoak inauguratu zituzten.

Eztabaidetan, hainbat herriaren defendatzailek hartu zuten parte: Espainiako Herriaren Defendatzaileak, Andaluziako Arartekoak, Kataluniako Sindic de Greugesak, Galiziako Valedor do Pobok, Kanarietako Komunetako Diputatuak, Euskadiko Arartekoak, Aragoiko Justiziak, Valentziako Erkidegoko Sindic de Greugesak, Gaztelako Komunetako Prokuradoreak eta Nafarroako Arartekoak.

Jardunaldietan, zaratari aurre egiteko eta herritarren etxebizitzak zarata-iturrietatik babesteko administrazioek zer neurri har ditzaketen azaldu zuten hizlariek.

Era berean, zaratak behin eta berriro eta oso ozen emitituz herritarren etxebizitzak inbaditzen dituztenek eta, hala, etxebizitza horietan bizi direnen osotasuna arriskuan jartzen dutenek zer zigor izan ditzaketen ere aztertu zuten.

Hirugarrenek sortutako zaratak direla-eta beren etxebizitza inbaditzen dela uste dutenek eta zarata horiek zertan jasan ez dituzten pertsonak zuzenbide zibilean zer mekanismo dituzten ere azaldu zuten adituek.

Bi mahai-inguru ere antolatu zituzten: lehenean, Iruñeko Udaltzaingoko kide batek, Foruzaingoako beste batek eta Zaragozako Udaleko ingurumen-administrazioako unitateko kide batek hartu zuten parte, eta etxebizitzetan zaratak direla-eta herritarren salaketak jasotzen dituztenean poliziak eta udalerriek nola jokatzeko duten azaldu zuten; bigarren mahai-inguruan, berriz, udalerrietako ordezkariak hartu zuten parte, Iruñeko Udaleko alkateordeak, Tuterako alkateak eta Malagako Udaleko ingurumen arloko alkateordeak, eta kutsadura akustikoaren aurrean udalek duten esku-hartzeari buruz zer iritzi duten azaldu zuten.

Jardunaldiak amaitzean, Arartekoek honako ondorio hauek adostu zituzten:

- 1.- Botere publikoek (eta, zehazki, administrazio eskudunek) aldaketak sustatu behar dituzte kutsadura akustikoa eragiten duten jardunbide sozialetan, eta gizartearen kontzientziazioa bultzatu behar dute kutsadura horrek herritarrentzat dituen ondorio kaltegarriei buruz, eskola-
hezkuntzaren eta herritarrak sentsibilizatzeraz bideratutako prestakuntza- eta informazio-kanpainen bidez.

Zaratak eragin handia du pertsonen bizi-kalitatean, eta, beraz, arazo garrantzitsutzat landu behar da.

- 2.- Landa- eta hiri-eremuetan, eta bereziki, etxebizitzetan, ingurumen egoki baterako eskubidea bermatuko bada, botere publikoek kutsadura akustikoaren ingurumen-kontrola egiteko funtzio publikoa dutela jakin behar dute eta beren gain hartu, kutsadura hori eragiten duen igorpen-gunea edozein dela ere, arauak ezarritako mugak gainditzen direnean.

Funtzio publiko horren jardunak adieraziko du administrazio zuzen jokatzeko ari dela eta herritarren zerbitzura dagoela. Alde horretatik, eginkizun publiko horrek bermatu behar du zaratarik gabeko etxebizitza bat izateko eskubidea, bertan bizi diren pertsonen lasaitasunaz gozatzeko eskubidea izan dezaten

- 3.- Helburu horrekin, administrazio publikoek, lurralde-antolamenduaren, hirigintza-plangintzaren eta ingurumen-kontrolaren eta diziplinaren eremuan esleituta dituzten ahalmenak baliatu behar dituzte, eraginkortasunez baliatu ere, oinarrizko eskubideak gauzatzea eragozten edo mugatzen duen kutsadura akustikoa prebenitzeko, saihesteko edo, hala badagokio, ezabatzeke.

- 4.- Kutsadura akustikoaren kontrolarekin lotutako funtzio publikoa gauzatzearekin batera, ikuskapen-planak egin behar dira, kutsadura akustikoa sortzen duten establezimendu eta instalazioek funtzionamendurako beharrezko administrazio-baimenak dituztela ofizioz egiaztatzeko. Hala, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen direla egiaztatuko da.
- 5.- Autonomia-erkidegoetako, probintzietako eta tokiko administrazioek koordinazio eta lankidetzaren esparru bat sustatu behar dute; horrek udalerrri guztiek esleitura dituzten administrazio-ahalmenak modu eraginkorren gauzatzea bermatuko du, oinarritzko eskubideen zaintzan eta gozamenean berdintasuna bermatuz, herritarren bizilekua edozein dela ere.
- 6.- Era berean, eta udalerriek eremu honetan esleitura dituzten eskumenak baliatu ahal izateko, administrazioek, beren baliabideekin edo beste administrazio publiko batzuekin lankidetzan arituz, beharrezko baliabide teknikoak eta giza-baliabideak izan beharko dituzte lurralde osoan, hiri- eta landa-eremuan, zarata kontrolatzeko eta ikuskatzeko zerbitzu publiko bat sortzeko.

Halaber, ingurumen-poliziaren eginkizuna onartu eta sustatu beharko litzateke (maila guztietan: tokikoa, probintziakoa eta autonomia-erkidegokoa), arazo hori azkar antzemateko funtsezko erakundea den aldetik. Polizia horrek eskumena izango luke tokian bertan, igorpen-gunean, zaratarik baden ala ez ikuskatzeko, etxeetan zarata-mailen neurketa zuzena egiten dela bermatzeko, eta, hala badagokio, kautelazko esku-hartzea egiteko.

- 7.- Administrazio publikoek etxeetan zarata gehiegi dagoela eta kaltetutako pertsonak jartzen dituzten salaketei erantzun behar diete, baina horrez gain, hartzen diren neurrien jarraipena ere egin behar dute, beharrezko baliabideak jarritz, herritarrek, gardentasunez, neurri horiek hartu direla jakin dezaten, edo, hala badagokio, agintariek eta funtzionarioek erreklamazio horien aurrean ezer egin ez dutela salatzen ahalmena izan dezaten. Era berean, justizia auzitegien epaiak atzerapenik gabe bete behar dituzte (batez ere, Giza-eskubideen Europako Auzitegiarenak); horiek babesa ematen diete herritarrei frogatutako eskubideen urraketa eman denean.
- 8.- Gomendagarria izango litzateke administrazio publikoek herritarren partaidetzarako mahaiak edo foroak sustatzea, gaueko aisialdiko lokal gehiegi egotearen ondorioz edo bizikidetzaren etengabe eta modu larrian eragozten duten jardueren ondorioz sortzen diren gatazka sozialak kudeatzeko.
- 9.- Zuzenbide Estatu batean desiragarria da herritarrek immisio akustikorik gabeko etxe bat izateko eskubidea izatea eta horrelako zaratarik jasan behar izatea, eta, nola ez, eskubide hori funtzio publikoa gauzatzeko ahalmena esleituta duten organoek zaintzea. Hori horrela izanik ere, Herritarren Defentsa Bulegoek modu positiboan baloratzen dituzte epaileen, justizia auzitegien eta fiskalen jarduketak kutsadura akustikoak urratutako eskubideak bermatzerakoan, batez ere administrazio-egoitzan ardura duten funtzionario eta agintariek eskubide horiek behar bezala babesten ez dituztenean.
- 10.- Herriaren Defentsa Bulegoek azpimarratu dute herritarren oinarrizko eskubideak babesteko konpromisoa dutela, kutsadura akustikoaren ondorioz horiek urratzen direnean.

Helburu horrekin, hitza ematen dute legez onartuta dauden jarduketa guztiak burutuko dituztela herritarrek zaratarik gabeko etxe batean bizitzeko duten eskubidea modu eraginkorrean babesteko; hala, fiskaltzari jakinaraziko dizkiote herritarren eskubideak urratzen diren eta zigor daitezkeen kasuak.

Era berean, Herriaren Defentsa Bulegoek hitza ematen dute udaletan jardunbide egokien inguruko informazioa emango dutela, eta koordinazio- eta zabalkunde-jarduketak sustatuko dituztela, hainbat neurri klase hartzea sustatzeko, ingurumen-gatazkak prebenitzeko edo kudeatzeko. Horrez gain, hitza ematen dute kaltetutako herritarrak lagunduko dituztela beharrezkoa den orientazio juridikoan, modu horretara, herritarrek ahalmena izan dezaten aginte eskudunen aurrean beren eskubideak babeste aldera beharrezkoak diren eginbideak egiteko.

→ 3.4. NAFARROAKO HAURREN ETA NERABEEN EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Haurren eta nerabeen sustapen, arreta eta babeserako abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 14. artikulua ezartzen du Nafarroako Arartekoak haurren eta nerabeen eskubideak babesteaz arduratuko dela, horretarako behar diren neurriak hartuz. Neurri horien artean dago haurrek eta nerabeek duten egoera ebaluatzea urteko txostenean.

Lege aurreikuspen hori betetzeko, atal honetan arlo horri buruzko zenbait datu eskaintzen dira, betiere erreferentziatzat hartuta aipatu foru legean adierazitakoa, Nafarroan adingabeen babesaren arloko esku-hartze administratiboaren arloan dagoen arau nagusia delako.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Eskubide Sozialetako Departamentuari atal hau idatzi ahal izateko eman digun informazioarengatik.

3.4.1. Egindako jarduketan azalpena eta ebaluazioa.

A) Arau- eta plangintza-jarduera.

Aurreko urteko txostenetan adierazi izan den moduan, abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea hein batean garatzeko Erregelamendua onetsi zuen Nafarroako Gobernuak urtarrilaren 19ko 7/2009 Foru Dekretuaren bidez. Arau horrek legearen erregulazioa osatzen du zenbait alderdi garrantzitsutan; esate baterako: arloan esku hartzen duten langileen lanbide profil espezializatuak, balorazio batzordea, administrazioak zenbat jarduera, baliabide eta produktutan izanen duen esku-hartzea, kautelazko neurriak, babesgabetasuneko egoerak, familiako babesa eta babes neurrien jarraipena, aldaketa eta iraungipena.

2014an Nafarroako Foru Komunitatean adopzioari lotutako administrazio prozedura arautzen duen azaroaren 26ko 111/2014 Foru Dekretua onartu zen.

Eskubide Sozialetako Departamentuak emandako informazioaren arabera, Adingabeen Erantzukizun Penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoko VII. tituluaren aurreikuspenak betetz, 2015ean hasi da ingurune irekiko neurri judizial penalen betetzea programatzeko, jarraitzeko eta kontrolatzeko zerbitzuaren garapena arautuko duen foru agindua prestatzeko prozedura. Era berean, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoari 2015ean egin zitzaizkion aldaketen ondoren -zehazki, haurrak eta nerabeak babesteko sistemaren kontzeptuetan eta jarduketetan egin zitzaizkion-, Eskubide Sozialetako Departamentuak adierazi zuen lan egiten ari zela arau horren garapeneko foru-araudia berrikusteko, araudi hori egoki kokatzeko Estatuko legedi indarrekoan.

Jasotako informazioari begiratuta, Eskubide Sozialetako Departamenduak, 2016an, foru-agindu bat onartzeko prozedura bat abiarazi du, familia-harreraren esparruko berezitasun bat ezarri eta familia-harrera espezializatuaren modalitatea arautzeko. Babesgabe edo gizarte-gatazkan bizi diren adingabeak hartzeko harrera mota bat da, baldin eta, beharizan konkretuak dituztelako, berariazko arreta edo balorazio bat behar baldin badute eta, ondorioz, familia espezializatuak hartzekoak baldin badira, ezaugarri eta prestakuntza berariazkoak dituztelako egoera horietarako.

Honako eduki hau du, funtsean, arau horrek:

- a) Harrera-familia espezializatuaren definizioa.
- b) Harrerako familiek izan behar dituzten ezaugarriak.
- c) Kasua deribatzen duen organoaren eta familiaren arteko harremana, eta dagokion ordain ekonomikoa.

Oro har, arauzko jarduera horri dagokionez, erakundeak 15/2005 Foru Legean jasotako mandatuak eta xedapenak osatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzen jarraitzeko animatzen du, bai eta haren aplikazio eraginkorragoa egiteko ere.

Plangintza- eta programazio-jarduerari dagokionez, familien eta haurren arretarako II. planaren prestaketa-lanari ekin ziola jakinarazi zuen Eskubide Sozialetako Departamentuak 2015. urtean; hori horrela, haren ildo estrategikoak zuzenduta daude kontu hartzeko prozesuetako paradigma aldatzera. Bilatzen dena da, azaltzen zenaren arabera, haurrak babesteko sistemak begia jar dezala prebentzioan eta sustapenean, berariaz eta lehentasunez garatuz oinarritzko arretak berezko dituen esku-hartzerako baliabide, prestazio eta programak.

Departamentuak emandako informazioak adierazten du lan horrekin jarraitu dutela 2016an, eta, gaur egun, gizarte-diagnostikoa amaitzen ari direla; hori horrela, zuzenean edo zeharka haurrekin lan egiten duten hogeita hamar erakundek baino gehiagok parte hartu dute diagnostikoan: babeserako baliabideak zaintzarekin eta/edo baliabide irekiekin kudeatzen dituzten erakundeak, haurren eskubideen alde lan egiten duten erakundeak, haurtzarorako komunitate-taldeak, oinarritzko gizarte-zerbitzuak, Anfas, Caritas, Gurutze Gorria, ANAFE eta beste batzuk.

Lehen fase horretan erabili diren ikerketa-teknikek, Departamentuak azaltzen duenez, diagnostikoa egiteko behar diren alderdi edo adierazle jakinak kuantifikatzeko, neurtzeko eta frogatzeko balio dute, baina baita familiek, haurrek eta nerabeek egoera horren gainean egiten duten interpretazioaren berri izateko, eta, duten eskarmentuari eta kokapenari begiratuta, arlo horretan diharduten gizarte-eragileen interpretazioaren berri izateko ere. Hori horrela, xede nagusia izan da eragile horiek (profesionalek, familiek eta adingabekoek) esatea, beren aldaketa-prozesuaren eragile aktiboak diren aldetik, zer diren eta zer egiten duten egunez egun, beren begirada propioaz adieraztea nola ikusten duten beren eguneroko bizitza, beren gizarte-irudikapeneko sistematik abiatuta. Horrenbestez, lehen hurbilketa horren asmoa izan da adingabekoek eta beren familiek Haurrak Babesteko Sistemarekiko dituzten kokapenen mapak egitea, horien guztien bizi-ibilbideen berri izatea eta sistemaren egituretan izan dituzten gizarte-harremanen gaineko informazioa eskuratzea.

Jardueren programazioari begiratuta, honako esparru hauetako jarduerak egin dituela jakinarazi du Eskubide Sozialetako Departamentuak:

- Harrerako familiei laguntzeko eta prestakuntza emateko esparrua.

- Familia-babeseko programen, gaikuntzaren eta gurasoen berreskurapenaren garapena.
- Ingurune irekian erreformatzeko baliabideen gehikuntza.
- Jardunbide profesional egokien eta eraginkortasun frogatua duten programen katalogoen ezarpena.
- Zazpi urtetik beherako adingabeak dituzten familiak larrialdi-egoeretan hartzeko programaren jarraipena (baloratu beharreko egoerak dira, babes-egoeran izan baldin badaitezke).
- Egoitza-harrerako egungo sistemaren berrirakurketa bat ekarriko duen babes-sistemaren aldaketarako azterlanak egiteko prozesuaren jarraipena, balorazio goiztiarragoak eta instituzionalizazio-aldi laburragoak lortzeko, ingurune irekian familien bidezko esku hartzeko espazioak areagotzen diren bitartean.
- Egoitza-harreran dauden adingabeentzako autonomia-programen bultzada; hala, haien eskura baliabide berriak jarri dira, moldagarriago izan daitezen.
- Premia bereziak dituzten haurrak adoptatzeko neurrien bultzada.

Erakunde honek begi onez balioesten du familien eta haurren babeserako II. planari eman nahi zaion orientazioa; izan ere, prebentzio-jarduketak azpimarratu nahi dira eta oinarrizko laguntzaren esparruko esku-hartzea bultzatu nahi da, ahal den guztian gutxituz babesgabetasuneko fase aurreratuagoetako jarduketa.

Era berean, erakundeak uste du egokiak direla azal dutako jarduerak-ildoak, familia-harrerak bultzatzearen esparruko helburuak nabarmentzen dituen aldetik. Joera edo orientazio hori koherentea da aurreko urteetan adierazi denarekin, urte horietan ohartarazi baita zailtasunak daudela harrera-modalitate horri lehentasuna emateko, harrera instituzionalarekiko edo egoitza-baliabideetako harrerarekiko.

Beste urteko txosten batzuek plangintzaren eta programazioaren alorretan adierazi dituztenak aintzat hartuta, erakunde honek berriro azpimarratu behar du adierazleak edukitzea komeni dela, unean-unean ezarritako helburuen betetze-maila ebaluatzen eta, beharrezkoa baldin bada, lehentasunak berrezartzeari ekiteko.

Horrez gainera, Haurrak eta Nerabeak Babesteko II. Plana lehenbailehen onartzeko premia hauteman da.

B) Adingabeen eskubideak sustatzeko eta zabaltzeko jarduerak.

Adingabeen eskubideen eta betebeharren taula bat arautzen du 15/2005 Foru Legeak, eta eskubide eta betebeharrak horiek sustatu eta zabaldu behar direla agintzen du.

Honako hau jakinarazi du Eskubide Sozialetako Departamentuak langintza horri buruz:

- Zenbait jarduerak egin dira Haurren Eskubideen Nazioarteko Egunaren ospakizunean, adingabeen eskubideak sustatzearen eta haien zabalkundea handitzearen helburuak betetzeko.
- Esparru europarrean, mugaz gaindiko esperientziak konpartitu dira frogatutako eraginkortasuna duten programekin, eta ildo hori bera jorratu da 0-3 urte bitartekoei zuzendutako prebentzio-jarduerekin eta gurasotasun positiboko programekin.

- Adierazi berri den horren osagarri, zenbait lantegi egin dira familiekin eta hurrekin esku-hartze sozialak egiten dituzten profesionalekin, eta esku-hartzearen alderdi etikoa landu da lantegi horietan.

Esparru horretan egindako lanak baloratu eta aitortzen ditu erakunde honek, eta horrelako ekimenak egiten jarraitzera eta, posible baldin bada, indartzera animatzen du.

C) Prebentzio-jarduerak.

Prebentzio-jardueren funtsezko helburua da babesgabetasuneko eta gizarte-gatazkako balizko egoerak saihestea edo ahal den guztian gutxitzea.

Administrazioak esparru horretan egiten duen esku-hartzearen ezaugarri nagusia da lankidetzan eta koordinatuta lan egiten dutela adingabekoekin lan egiten duten zenbait instantziek (hezkuntza-zerbitzuek, osasun-zerbitzuek eta gizarte-zerbitzuek gehienbat).

Eginkizun horretarako tresna administratibo garrantzitsuetako bat haurren babesgabetasun egoeretan esku hartzeko eskuliburua da. Eskuliburuan, Nafarroako Foru Komunitatean adingabeen babesari buruzko programak, baliabideak, prozedurak, kontzeptuak eta eskumen-esparruak jaso, bateratu eta azaltzen dira.

Eskubide Sozialetako Departamentuak adierazten duenaren arabera, prestakuntza-saioak egiten jarraitzen dira, koordinazio-tresna hori behar bezala aplikatze aldera. Saiok ondokoei zuzendutakoak ziren: oinarrizko gizarte-zerbitzuetako profesionalak, haurrak eta nerabeak artatzeko bitarteko ekipoak eta, oro har, hurrekin eta gazteekin lan egiten duten guztiak (osasun- eta hezkuntza-arloko profesionalak, hurrei tratu ona emateko sareak, eta abar).

Bestalde, berriaz koordinazioaren esparruari begiratuz gero, adierazi behar da sektore arteko batzorde zuzendari bat sortu dela (osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen sektoreak biltzen ditu), baterako jarduerak egiteko hiru sektore horiek osatutako espazio edo eremuan.

Aurreko zuzendaritza-batzordetik eratorrita, lau sektore-batzorde sortu dira, departamentuen arteko ekinez eta honako ikuspegi hauetatik jarduteko familiaren arretaren, haurtzaroaren eta nerabezaroaren esparruetan:

- Arrisku psikosoziala eta gurasotasun positiboa.
- Esku-hartze goiztiarra.
- Osasuna eskolan.
- Lurralde-plangintzak eta sare-lana.

Eskubide Sozialetako Departamentuak 2016an jakinarazi du honako programa hauek erabili dituela babesgabetasun-egoerak prebenitzeko esparruan:

- Terapia- eta orientazio-zerbitzua familientzat. Prebentzio-izaerako programa bat da, eta prozesu terapeutiko baten bidez gauzatzen da. Programaren helburua da familietako kideek aldaketak egitea beren jokamoldean edo funtzionamendurako konponbideak bilatzea, pertsona horien eta haien familia-sistemaren garapena eta bilakaera hobetzeko.
- Familia-bitartekotzarako zerbitzua. Prebentzio-izaerako programa da, eta familiako-kideen arteko gatazkak konpontzea du helburua. Borondatezko eta isilpeko prozesu baten bidez gauzatzen da, pertsonen arteko komunikazioa

bideratzeko, guztientzat bideragarri izango diren erabaki adostuak hartzeko eta familia osoaren beharrianak aseko direla bermatzeko.

- Familiari prestakuntza emateko zerbitzua. Prebentzio-izaerako programa da, familia-orientazioko programaren bidez landu daitezkeen arazo komunak dituzten familientzat.
- Familiako elkargune zerbitzua. Programa honek ere prebentzio-izaera du, eta bere helburua da haurrek beren gurasoekin eta/edo senideekin harremanetan izateko duten eskubidea bermatzea, baldin eta ez baldin badira haiekin bizi, gurasoak bananduta daudelako edo babes-neurriak agindu direlako.
- Gurasotasun positiboa ezartzeko programa pilotua. Familien heziketa-eredua hobetzera zuzendutako programa da, eta bere beste helburu bat da babes-neurriren bat duten seme-alaben gurasoen guraso-izaera oneratzeko saiaketa. Programa pilotu bat izan da, honako eragile hauek parte hartu dute: familia bulegoko profesionalak; orientazioko, bitartekotzako eta familiak elkartzeko guneko prebentzio-programen enpresa esleipendunak, eta komunitate-sare sozialeko beste eragile batzuk.

Aurreko urteko txostenetan adierazitakoaren ildotik, erakunde honek onetsi egiten ditu koordinazioa eta prebentzioa hobetzeko neurri horiek, baina, hala ere, lankidetzaren eta koordinazioko esparru beharrezko hori indartzen jarraitzea animatzen du, ezinbestekoa baita babesgabetasun-egoerak behar bezala prebenitu eta hautemateko.

Berriro adierazi behar da prebentzio-lana -hain zuzen ere 15/2005 Foru Legeak lehentasunezko zatitza jotakoa- indartzea komeni dela, hori

baita bidea adingabeengan eragina duten arazoek ez dezaten, azken buruan, babes-sistemaren esku-hartze handien premia sorrarazi.

Aztertzen ari garen gaiarekin lotura handia duen aldetik, nabarmentzekoak dira “Gizarte-zerbitzuetako sistema osotik gizarte-egoera zailan dauden haur eta nerabeei ematen zaien arretaren egoerari buruzko txostena” eta txosten horrek plazaratzen dituen ondorioak eta hobekuntzarako proposamenak. Erakunde honek egin zuen txosten hori 2014 eta 2015 urteetan, Nafarroako Parlamentuak hala eskatuta (I14/08).

Erakunde honek deritzo, era berean, adingabeak babesten diharduten eragileen arteko koordinazioa handitzeko ekintzak osatzen jarraitzea komeni dela, eta ildo horri berari jarraitu behar zaiola, 15/2005 Foru Legeko 32. artikulua arautzen duen moduan, honako arlo hauetan: gizarte-sentsibilizazioa, familia-laguntza, gizarte-harremanak, aisialdia, animazioa, prestakuntza eta enplegua.

D) Babes sistemaren jarduketak.

a) Arrisku-egoerak.

Babesgabetasuneko egoeren artean, oro har, arriskukoak dira intentsitate handiena edukitzen dutenak eta, horrenbestez, esku-hartze administratibo txikiagoa exijitzen dutenak.

Aldagai horren datuaren eta bere bilakaeraren berri emateko, babeserako sistema espezializatuak hartu dituen adingabeen datua eman izan dio erakunde honi aurreko Gizarte Politiketako Departamentuak eta, egun, ematen dio Eskubide Sozialetako Departamentuak. Honako hauei buruzko datuak dira: zaintzapeko adingabeak (egoitza-harrera edo familia-harrera eta behin-behineko zaintza, behaketa eta harrera zentroetan edo urgentziazko familietan), eguneko zentroetan dauden adingabeak, familia esku hartzerako programa

espezializatueta dauden adingabeak, nerabeen hezkuntzarako programan dauden adingabeak, haurrei eta nerabeei arreta emateko taldeen esku-hartzea duten adingabeak eta autonomia pertsonalerako programetan dauden adingabeak.

Eskubide Sozialetako Departamentuak 2016ko datuak eman ondoren, ikusten da sistema espezializatuak aurreko urteetan baino 1.446 adingabeko gehiago hartu dituela (1.413 adingabeko izan ziren 2015 eta 2014 urteetan, 1.267 adingabeko 2013an eta 1.206 adingabeko 2012. urtean).

Zenbatekoek, beraz, berretsi egiten dute azken urteetan ageri den goranzko joera (2012 eta 2016 urteen bitartean % 20koa izan da, gutxi gorabehera), eta horrek agerian jartzen du handia dela babes-sistemak artatutako adingabeen kopurua.

Aurreko urtean ez bezala, handitu egin da banandutako familia guneen ehuneko erlatiboa, eta, ondorioz, baita administrazio publikoak bere gain hartu behar izan dituen zaintza-egoerena ere (2016. urtean, 1.446 adingabekotik, 739 izan zituen zaintzan, hau da, adingabekoen % 51 inguru, eta 2015ean, berriz, 657 adingabeko izan zituen zaintzan, 1.413 adingabekotatik, hau da, % 46).

Komeni da, horrenbestez, berriro adieraztea neurriak hartu eta indartu behar direla, administrazio publikoak arrisku-egoeren hastapenetako faseetan esku hartu dezan, eta, ahal den neurrian, familia guneen hausturak eragotzi ditzan.

Aurreko urteetako txostenek adierazten dutenaren ildoan, babes-sistemak hartutako adingabekoen kopuruek berriro azalartzen dute behar adina baliabide eman behar zaizkiela arlo horretan diharduten administrazio-organoei eta interbentzio-taldeeii, eta, aurrez adierazitako moduan, babesgabetasuneko egoeren hasierako faseetan eta

babesgabetasunaren zantzuak ikusten direnean esku hartu behar dela.

b) Babesgabetasun-egoerak.

Babesgabetasun handiko egoerak dira, eta adingabearen zaintza hartzeko premia dakarte.

2016an, 40 adingaberi aitortu zitzairen babesgabetasun-egoera. Aurreko urteetakoa baino handiagoa da zifra hori (35 adingabeko 2015ean, 19 adingabeko 2014an, 21 adingabeko 2013an eta 32 adingabeko 2012an), eta berretsi egiten du iaz hauteman zen goranzko joera. Datu horren bilakaera bat dator zaintza-egoeran dauden adingabekoen adierazleak ageri duenarekin (babesgabetasun handiko egoera horrek baitakar, hain justu, zaintza bereganatzea).

Orain arte adierazi den moduan, komeni da babesgabetasunaren unerik goiztiarrean (arrisku-egoeretan) gauzatzea adingabeen arretarako zerbitzuek beren esku-hartzea, eta ahal den guztian eragozteak babesgabetasun-egoerak gertatzea, egoera horiek babesgabetasun-maila handia eta esku-hartze handiak egin beharra baitakarte.

Bestalde, babesgabetasuneko lau deklarazio bota dira atzera, haien oinarriko arrazoiak amaitu ondoren (2 kasu izan ziren 2015ean). Aurreko urteko txostenetan egin dugun bezala, erakunde honek berriz azpimarratu behar du Administrazio Publikoak ahaleginak egiten jarraitu behar duela, adingabeak beren jatorrizko familietara itzultzeko baldintzak eman daitezen. Alde horretatik, gogorarazi behar da horixe dela babesgabetasunaren azken helburua, eta egoera horren ondoriozko betebeharra dela adingabeak artatzen ez dituzten edo, arrazoiak arrazoi, artatu nahi ez dituzten familiekiko esku-hartzea bultzatzea. Erakunde hau jabetzen da helburu

hori ezin dela kasu guztietan lortu; halere, gogorarazi behar da xede hori lortzeko lan egin behar dela, ahal den neurrian kenduz babesgabetasuna pairatzen duten familiek laguntza eman dezaten eragozten duten oztopoak; hori, jakina, ez da eragozpen izan behar adingabearen interesak lehenesteko kasu guzti-guztietan.

Azken batean, prebentzio-eginkizunak, arrisku-egoeren detekzioa eta familiekiko esku-hartze soziala indartzen jarraitzea komeni da, egoera bakoitzaren nondik norakoek ez dezaten, ahal den neurrian, adingabeen babesgabetasun egoera deklaratzeko premia sorrarazi, eta, deklarazio hori egiteko premia sortzen baldin bada, egoera lehengoratzeko bidea zabalik gera dadin.

c) Familiei laguntzeko jarduketak.

Administrazioaren babesak (babes teknikoa nahiz ekonomikoa) jaso dituzten familien egoera aztertzen du atal honek, alde batera utzita zer jarduketa mota egin den. Administrazioaren babes horren helburua da hausturarik ez gertatzea, eta haustura gertatu baldin bada, adingabearen itzulera bilatzea. Datua adierazgarria da, ongi islatzen baitu zenbat familiak izan dezaketen Administrazioaren laguntzaren beharra, eta, horrenbestez, zenbatek dituzten zailtasunak, izaera eta intentsitate askotarikoak, adingabeei behar bezalako arreta emateko.

Eskubide Sozietako Departamentuak emandako datuen arabera, 844 familiak babes-moduren bat jaso zuten 2016. urtean. Haurren eta nerabeen arretarako taldeek hartutako familiak dira, familia hartzaileak eta laguntza teknikoa jasotzen dutenak, harreragatik laguntza ekonomikoa jasotzen duten familiak, zaintza beren gain hartzea ez dakarten programetan dauden adingabeak dituzten familiak (eguneko

zentroak, familia esku-hartzerako programa, nerabeentzako hezkuntza-programak) eta prestazio ekonomiko konpentsatzaileak dituzten familiak.

Datu horren bilakaerak berriz ere agerian uzten du oraindik ere nabarmena dela hainbat arrazoiengatik (bai babesgabe daudelako edo babesik gabe geratzeko arriskua dutelako) eta, gutxi-asko, laguntza publikoa behar duten familia guzteen kopurua.

Hori dela-eta, adingabeen babeserako sistemak egun dituen baliabideak aztertu behar dira, eta aipatu sistemako premietarako egokiak diren ikusi behar da. Nolanahi ere, ahalegin bat egitea gomendatzen da, arlo horretan diharduten agenteei (funtsean, haurren eta nerabeen babes, sustapen eta arretarako zerbitzua, haurren eta nerabeen arretarako taldeak eta laguntzaile gisa diharduten ekimen sozialeko erakundeak) behar dituzten baliabideak emateko -pertsonalak zein materialak- garrantzi sozial handiko haien lan honetan arrakasta izan dezaten.

d) Zaintza-egoeran dauden adingabeak.

Zaintza da babesgabetasun-egoerei aurre egiteko aurreikusita dagoen neurrietako bat, eta familia- nahiz egoitza-harreraren figuraren bitartez gauzatzen da.

Eskubide Sozialetako Departamentuak zaintza-egoeran dauden adingabeen inguruan emandako datuetan, bereizi egiten ditu behin-behineko zaintza-egoerak (behaketa- eta harrera-zentroen bidez eta premiako familien bidez) eta harrera-, egoitza- edo familia-egoerak (kasu honetan, “behin-behinekoa ez den” zaintza batean aurrean egonen ginateke, balorazio fasearen ostean erabakitakoa).

Datu horiek aintzat hartuta, ikusten da, arriskuan dauden adingabeen atalean adierazi den moduan, igo egin dela, 2015 eta 2016 urteen bitartean, zaintza-egoeran dauden adingabekoen kopuru osoa (657 izan ziren 2015ean eta 739 izan dira 2016an). Igo egin dira zentroetan eta familietan egin diren harreraren kopurua (461 izan ziren 2015ean eta 499 izan dira 2016an), eta behin-behineko zaintza-egoerena (196 izan ziren 2015ean eta 240 izan dira 2016an).

e) Tutoretzapeko adingabeak.

Tutoretza, administratiboa edo arrunta, legeak ezarritako babes-neurrietako beste bat da, eta babesgabetasun egoera trinkoago bati lotuta dago; hau da, babesgabetasunari.

Emandako datuek adierazten dute 253 adingabe izan direla tutoretzapean 2016an, hau da, 2015ean (178 izan ziren) eta aurreko urteetan baino nabarmen gehiago (220 adingabe izan ziren 2013. urtean eta 239 izan ziren 2014an). Hala ere, Eskubide Sozialetako Departamentuak nabartu du babesgabetasuneko 195 egoera zirela indarrean urtearen amaieran, bai egoeren arrazoia amaitu zelako, bai adingabekoek adin-nagusitasuna iritsi zutelako.

f) Harrera indarrekoak eta formalizatuak.

Harreraren bidez formalizatzen dira babesgabetasun-egoeran dauden adingabeen tutoretza eta zaintza. 2016an, 174 adingaberen harrera formalizatu zen, aurreko bi urteetako kopurua baino handiagoa (159 adingabe 2015ean, 121 adingabe 2014an eta 107 adingabe 2013an).

Hartutako adingabeen kopurua (ez dira atal honetan zenbatu behaketa- eta harrera-zentroetan dauden adingabeak, edo urgentiako familietan daudenak, behin-behineko zaintza

neurriarekin) 499 adingabekoa da (2015. urtean 461 izan ziren, 2014. urtean 485 izan ziren, eta 2013an, berriz, 469). Datu horren igoera bat dator zaintzapean eta tutoretzapean duden adingabekoen datuen bilakaerarekin, aintzat hartuta, gainera, harrerak izaera instrumentala duela, babes-neurri horiekiko.

Harrera moten arteko harremanari dagokionez, 15/2005 Foru Legeak familia-harrerari ematen dio lehentasuna egoitza-harreraren gainetik; halaber, lehentasuna ematen zaio adingabeak familia zabalean hartzeko aukerari, beste familia batzuetako harreraren gainetik, adingabea haren eremu naturaletik ahalik eta gertuen egon dadin, printzipio orokor gisa.

Familia- eta egoitza-harreretako lehen harremanari dagokionez, bildutako datuek adierazten dute 2016an familia-harreraren ehunekoa guztizkoaren % 45,7 dela. Adierazle hori, 2015. urtean, % 54,6 izan zen; % 51ekoa 2014an; % 52koa 2013an; eta % 45ekoa 2012an.

Hori horrela, 2016ko bilakaera negatiboa dela esan daiteke; hala ere, erakunde honek badaki administrazioaren jarduketaz edo borondateaz bestelako elementuek eragina dutela esparru horretan. Datu horrek, eta adingabekoen zaintzaren eta tutoretzaren datuek, adierazten dute egoitzek eta erakundeen baliabideek erantzun diotela, gehien gehienetan, azken urteetan izandako gorakada horri.

Berriro nabarmendu behar da, beraz, familia-harreraren aldeko neurriak hartzen jarraitzea komeni dela, hori baita legegileak lehenetsitako aukera hobesteko bidea eta adingabeak, ahal dela, familia-ingurune batean bizitzeko modua.

Behin-behineko zaintzaren edo premiako harreraren fasean gehien-gehienak egoitza-baliabideen bidez artatzen dira

(behaketa- eta harrera-zentroetan). Alde horretatik, hasierako fasean dago, oraindik, urgentziako familien bidezko harrera-baliabidea (2016an 225 adingabe hartu ziren behaketa- eta harrera-zentroetan eta 15 adingabe urgentziako familietan, eta, 2015ean, 179 adingabe behaketa- eta harrera-zentroetan eta 17 adingabe urgentziako familietan).

Fase honetan aplika daitekeen familia-inguruak egoitzabaliabidearen gainean lehentasuna duela kontuan hartuta, beharrezkoa da premiako familia-harreraren baliabidea sendotzen jarraitzea eta, hala, ildo horretan abiarazitako jarduerekin jarraitu behar da, bai eta haiek areagotu ere.

Bigarren harremanari dagokionez (beste familia zabal batean egindako harrerak, familia-harreraren barruan), 2016an lehenengoan ehunekoa % 64,4 izan da, 2015ekoa baino zertxobait txikiagoa (% 67,4), eta 2014koaren oso antzekoa (% 65).

Hala, berriro eskatu behar da, posible den guztietan, esku hartzeko eta jarduketak egiteko babesak behar duten adingabeen familia-ingurunean, eta, adingabearen egoerari begiratuta, harrera beharrezkoa bada, eremu naturaletik hurbilen dagoen ingurunean gertatzea harrera. Jarduketa horiek, normalean ingurune hurbil horretan egiten badira, adingabeek aukera gehiago izango dituzte haien gurasoekin itzultzeko, eta bestela jokaturik baino laburragoak izan daitezke gurasoengandik aparte bizi dituzten denborabitarteak.

g) Adopzio nazionalak eta nazioartekoak eta egokitasun-deklarazioak.

2016an, 7 adopzio nazional egin dira (3 izan ziren 2015an, eta 15, berriz, 2014an) eta nazioartekoak, berriz, 15 (2015ean 30 izan ziren, eta 2014an, berriz, 27).

Horrez gain, 11 egokitasun-egiaztagiri nazional egin dira (2015ean, 16; eta 2014an, 23) eta nazioarteko 40 egokitasun-egiaztagiri (2015ean, 22; eta 2014an, 56).

h) Gizarte-gatazkako egoeran dauden adingabeak.

Babes-sistemaren barruan moldaiztasun-egoeran dauden eta beren burua kaltetzeko edo besteri kaltetzeko arriskuan gerta daitezkeen adingabeak sartzen dira epigrafe honetan.

Eskubide Sozialetako Departamentuak emandako datuek adierazten dute 728 adingabe izan zirela egoera horretan 2016. urtean. Datuen zenbaketa egitean, zenbaketa horretan sartu dira zigor-arloko aurretiazko eginbideak irekiak dituzten 14 urte baino gutxiago adingabeak (210 kasu).

Igoera nabarmena ikusten da, 2015arekin alderatuta, gatazka-egoeran dauden adingabekoen kopuruan (556 kasu izan ziren 2015ean).

Zigor-arloko eginbideak irekita dituztenak kontuan hartu gabe (datu hori ez da aintzat hartu 2015era arte), gatazka-egoeran dauden adingabekoen kopuruak 456tik 518ra egin du gora 2015 eta 2016 urteen bitartean, hau da, igoera nabarmena gertatu da.

Gatazka-egoeran dauden adingabeen datuen igoerak oraindik ere agerian jartzen du arazo honi aurre egiteko edo murrizteko ahaleginak egiten jarraitu behar dela, prebentzio-neurriak, hezkuntza-neurriak, neurri kulturalak eta gizarteratze-neurriak erabiliz. Halaber, laguntza berezia eman behar zaie gatazka-egoera horietan dauden adingabeen familiei, egoera horiek arazo larriak eragiten baitituzte sarritan.

i) Autonomia pertsonaleko programak.

Halakotzat jotzen dira 16 eta 18 urte bitarteko adingabeei zuzendutakoak, baldin eta neurri judizial edo administratiboren bat ezarri bazaie, haien gizarteratzea edo laneratzea errazteko.

Eskubide Sozialetako Departamentuak emandako datuen arabera, 2016an, 19 adingabek hartu zuten parte ingurune irekiko autonomia-programetan (27 adingabe izan ziren 2015ean eta 40 adingabe 2014an). Esan behar da Departamentuaren txostenean zenbateko horri egoitza-harrerako egoeran dauden 42 adingabe gehitu behar zaizkiola, haiek ere autonomia-programen edo neurrien hartzaileak baitira (45 adingabe zeuden egoera horretan 2015ean).

Arlo horretara bideratutako jarduerekin eta hartutako neurriekin jarraitzeko eskatzen da; izan ere, erakunde honek adierazi du lehen ere emantzipazio-programak eta helduarora igarotzeko programak indartzea komeni dela.

E) Erreforma-sistemako jarduketak.

Erreforma-sistemari dagokionez, emandako datuek adierazten dute 251 neurri erabaki zirela 2016an, sisteman barneratuta dauden adingabeek ingurune irekian betetzeko (datua 2015ekoa baino zertxobait handiagoa da, 242 neurri hartu ziren urte horretan).

Era berean, zertxobait igo da barneratze-egoerak bizi behar izan dituzten adingabeen kopurua (2015ean 36 adingabe izan ziren, eta 54 izan dira 2016an).

Ikusita gorantz egin dutela gatazka-egoeran dauden eta erreforma-sisteman barneratuak izan diren adingabeen datuek, agerikoa da berrindartu egin behar direla gatazkak eta jokabide zigorgarriak ekar

ditzaketen egoerak prebenitzeko eta detektatzeko jarduketak, eta koordinatu egin behar direla arlo horietan jarduten duten instantzien jarduketak (familia-, gizarte- eta hezkuntza-esparrukoak, batez ere).

3.4.2. Azken urteotako bilakaeraren informazio koadroa.

I. Babes-sistemak artatutako adingabeak.

		2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Zaintzapeko adingabeak	Egoitza - nahiz familia-harrera	415	452	458	550	538	469	485	461	499
	Behin-behineko zaintza (COAS)	120	147	180	164	197	184	174	179	225
	Premiako familiak behin-behineko zaintza						2	7	17	15
	Guztira	535	599	638	714	735	655	666	657	739
Adingabeak eguneko zentroetan		25	26	31	27	26	30	46	25	26
Familia esku hartzerako programa espezializatuetan dauden ADINGABEAK (EHPE)		119	165	153	132	175	152	181	212	176
Nerabeen hezkuntzarako programan dauden ADINGABEAK (NHP)		32	25	30	32	28	28	30	24	25
Haurren eta nerabeen arretarako taldeen (HNAT) esku-hartzea behar duten ADINGABEAK (Lizarra, Tafalla eta Tuteria)*		160	194	169	241	224	358	450	468	461
Autonomia programetan dauden adingabeak		-	56	22	14	18	44	40	27	19
Guztira		336	466	405	446	471	612	747	756	707
Adingabeak Guztira		871	1.065	1.043	1.160	1.206	1.267	1.413	1.413	1.446

II. HNA taldeek artatutako familiak.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Lizarra Familiak	59	58	58	70	72	73	84	88	91
HNAT Tafalla Familiak	337	50	45	60	56	58	75	65	69
- Tuterako Familiak	-	-	-	-	5	77	97	110	106
Guztira	996	108	103	130	133	208	256	263	266

III. Familia hartzaileak eta laguntza teknikoak jasotzen dutenak.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Familia hartzaileak	197	202	242	198	218	210	210	217	198

IV. Laguntza ekonomikoa jasotzen duten familia hartzaileak.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Harrera dela-eta laguntza jasotzen duten familiak	124	135	188	151	156	153	181	194	150 (Familia) 187 (Adingabeak)

V. Beste programa batzuetan adingabeak dituzten familiak (horrek ez dakar zaintza gain hartzea).

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
FAMILIAK EGUNEKO ZENTROA (adingabeak zenbatzen ziren, eta 2013az geroztik, baita familiak ere).	-	-	-	-	-	25	40	17	23
Familian esku hartzeko programa espezializatuan dauden FAMILIAK	50	76	72	82	83	68	77	92	97
FAMILIAK NHP (adingabeak zenbatzen ziren, eta 2013az geroztik, baita familiak ere).	-	-	-	-	-	28	30	24	25

VI. Prestazio ekonomiko konpentsatzailea laguntza jasotzen duten familiak.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Prestazio ekonomiko konpentsatzaileak (adingabeentzako laguntzak dira, eta datuek familiak bereizten dituzte 2013az geroztik)		63	52	96	56	26			
						18 familiak	48 familiak	71 familiak	85 familiak

VII. Babesgabetasun-egoeran dauden adingabeak.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Urtean aitortutako gerizagabetasuneko egoerak	20	29	44	38	32	21	19	35	40
Tutoretzapeko adingabeak, guztira	207	220	202	214	202	220	239	178	253*

* Indarreko 195 babesgabetasun-egoera soilik zeuden erregistratuta 16/12/31n, zenbait kasutan atzera bota delako egoeraren deklarazioa eta adingabeek adin-nagusitasuna iritsi dutelako.

VIII. Familia- nahiz egoitza-harreran dauden adingabeak.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Egoitza-harrera	188	210	216	310	292	225	237	209	271
Familia-harrera*	227	242	242	240	246	244	248	252	228
Guztira	415	452	458	550	538	469	485	461	499

*Familia-harrerak ez du barne hartzen adopzio aurreko harrera.

IX. Familia zabalean eta beste familia batzuetan egindako harrerak.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Adingabeenak ez diren familiak	72	78	76	85	93	88	86	82	81
Familia hedatuak	155	164	166	155	153	156	162	170	147
Guztira	227	242	242	240	246	244	248	252	228

X. Harrera arruntak, iraunkorrak eta adopzio aurrekoak.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Aldi baterako harr.	80	82	70	68	61	72	51	49	42
Harrera iraunkorrak	147	160	172	172	185	172	197	203	186
Adopzio aurreko harrerak	16	17	7	8	9	9	7	0	0

XI. Behin-behineko zaintzapean dauden adingabeak.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Argaray behaketa- eta harrera-zentroa (zailtasuna)	55	48	69	64	65	56	55	64	67
Beloso behaketa- eta harrera-zentroa (gatazka)	65	99	111	100	132	128	119	115	158
Urgentziako familiak	-	-	-	-	-	2	7	17	15
GUZTIRA	120	147	180	164	197	184	181	196	240

XII. Gatazka-egoeran dauden adingabeak.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
COA gatazka egoeran dauden adingabeak	65	99	111	100	132	128	119	115	158
Gatazkan eta beste programa batzuetan dauden adingabeak (egoitza-harrera, NHP, EHPE, etab.)*	152	229	125	161	91	92	137	341	360
Gatazka egoeran dauden adingabeak guztira	217	328	236	261	223	220	256	456	518

XIII. Zaintza-egoeran dauden adingabeak.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Harreran dauden adingabeak	415	452	458	550	538	469	485	461	499
COAS	120	147	180	164	197	184	174	179	225
Urgentzietarako familiak	-	-	-	-	-	-	7	17	15
Guztira	535	599	638	714	735	653	666	657	739

XIV. Adopzio nazionala.

		2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Adopzio proposamena duten adingabeen kop.:		10	12	7	8	16	9	10	8	10
	Nafarroakoak	10	9	7	8	9	5	8	8	5
	0-2 urtekoen zerrenda	8	7	3	3	2	3	2	3	2
	Beste erkidego batzuetakoak	-	3	-	-	7	4	2	0	5
INAFiko adopzio-proposamena duten adingabeen kop. Adopzioko autoak		10	9	10	8	10	5	8	8	5
Adopzio autoak		9	9	15	6	7	14	15	3	8 (ezetsi egin zen horietako 1)
Adopzio autoak	Nafarroako proposamena dutenak	7	9	11	6	5	12	7	3	5
	Beste erkidego batzuetakoak	2	-	4	-	2	2	8	0	2
Familia eskatzaileak		126	68	66	41	30	21	34	15	11

* Uztailaren 28ko 28/2015 Legeak aldatu egin du familia-harreraren tipologia. Kendu egin da adopzio-aurreko harreraren figura juridikoa. Legea indarrean jartzeko egunetik aurrera, "zaintza adopziorako eskuordetzea" dakarten administrazio-ebazpenak ematen dira.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
EGOKITASUN NAZIONALEKO ZIURTAGIRIAK	8	6	3	4	5	2	23	16	11

XV. Nazioarteko adopzioa.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Familia eskatzaileak	126	84	81	45	46	18	29	19	23
Egokitasun ziurtagiriak	130	140	71	93	70	59	56	22	40
Adoptatutako adingabeak	76	75	65	65	45	49	27	30	15
Nafarroan adoptatu diren adingabeak guztira	845	920	985	1.050	1.095	1.144	1.171	1.201	1.126
Jarraipena duten adingabeak	249	222	227	279	232	205	174	175	132

XVI. Administrazioaren laguntza duten adingabeak.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
ADINGABEAK EGUNEKO ZENTROA	25	26	31	27	26	30	46	25	26
Familian esku hartzeko programa espezializatueta dauden ADINGABEAK (EHPE)	119	165	153	132	175	152	181	212	176
Nerabeen hezkuntzarako programan dauden ADINGABEAK (NHP)	32	25	30	32	28	28	30	24	25
Haurren eta nerabeen arretarako taldeen (HNAT) esku-hartzea behar duten ADINGABEAK (Lizarra, Tafalla eta Tuterak)*	160	194	169	241	224	358	450	468	461
Autonomia programetan dauden adingabeak	-	56	22	14	18	44	40	27	19
GUZTIRA	336	466	405	446	471	612	747	756	707

* Tuterako HNAT 2013. urtearen amaieran jarri zen abian eta guztiz martxan, berriz, 2014an. Horregatik handitu zen hainbeste adingabeen kopurua urte eta programa horretan.

XVII. Erreforma-sisteman dauden adingabeak.

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Ingurune irekia*	335	336	336	362	288	303	321	242	251
Barneratzea	36	29	38	31	21	43	54	36	39

* Adingabeek ingurune irekian betetzeko eman diren neurrien zenbatekoa adierazten dute kopuru horiek. Adingabeen kopurua adierazten dute barneratze-datuek.

3.4.3. Iradokizunak.

Haurren eta nerabeen eskubideen babesaren handitzea eta zerbitzu publikoak hobetzea da Nafarroako Arartekoaren eginkizunetako bat, eta, alde horretatik, oso egokiak irizten ditu Eskubide Sozialetako Departamentuak emandako informazioan ageri diren neurriak; era berean, neurri horiek 2016. urtean eta datozen urteetan ezartzera animatu nahi du.

Horrez gainera, egoki deritzo Eskubide Sozialetako Departamentuari honako iradokizun hauek helaraztea, aurreko urteetan adierazitakoaren ildo beretik:

- 1) Haurren eta nerabeen babesari buruzko foru-legedia berrikustea, Haurren Eskubideen Konbentzioaren eskakizunei egokitzeko eta, beharrezkoa baldin bada, konbentzio horren ondorioz ematen den estatu-legedira moldatzeko, baldin eta horrek hobeto bermatuko baldin baditu adingabeen eskubideak.

Gai horri buruz, gogoratu behar da Nafarroako Parlamentuak, 2016ko martxoaren 4an, bi ebazpen onetsi zituela, eta, haien bidez, haurrentzako eta nerabeentzako babesari, laguntzari eta sustapenari buruzko foru-lege berri bat egitearen alde egiten dela.

- 2) Gizarte-egoera zailean dauden haur eta nerabeen arretarako II. Plana egin eta onartzeko prozesua azkartzea.

Gai horri buruz, Nafarroako Parlamentuak, 2016ko martxoaren 4an, bi ebazpen onetsi zituen, eta, haien bidez, haurrei laguntzeko plan berri bat egitearen alde egiten da.

- 3) Adingabeen babeserako sistemak eta adingabearen babesarloan diharduten eragileek (haurrak eta nerabeak babesteko, sustapenerako eta arretarako zerbitzua, oinarrizko gizarte-zerbitzuak, HNA taldeak, laguntzaile gisa diharduten gizarte-ekimeneko erakundeak, etab.) egun dituzten baliabideak ebaluatu behar dira, eta ebaluazio horretan, aintzat hartu behar da zer bilakaera aurreikusten zaion edo aurreikus dakioken, azken urteetako joerei begiratuta, adingabeak babesteko sistemari. Ebaluatze-lan hori egitea are premiazkoagoa da, jarduera-adierazle nagusiek 2016an erakutsi duten goranzko joera ikusita.

Zehazki, adingabearen babeserako sistemak baliabide pertsonal, material eta tekniko nahikoak izan ditzala iradokitzen da, behar bezala bete ditzan legez betetzekoak dituen eginkizunak eta, ahal izanez gero, egungo zuzkidura berrindartu daitezen.

Alde horretatik, Nafarroako Parlamentuak, 2016ko martxoaren 4an, zenbait ebazpen onetsi zituen, eta haien bidez galdegin zuen oinarrizko osasun-laguntza berrantolatzeko, oinarrizko gizarte-zerbitzuen finantzaketa hobetzeko eta oinarrizko zerbitzuetako giza baliabideak indartzeko.

- 4) Adingabeen desinstituzionalizazioari laguntzeko jardueraildoekin jarraitzea eta, posible den neurrian, ildo horiek indartzea. Adierazi den moduan, 2016ko datuek adierazten

dute handitu egin direla, ehunekotan, egoitzen bidezko harrera edo harrera instituzionalaren datuak.

- 5) Ahalik eta gehien sustatu behar da adingabeen eskubide eta betebeharren zabalkunde-lana, bai gizarte- esparruan oro har, eta bai, berariaz, adingabeen beraien artean ere.
- 6) Adingabeei arreta ematen dieten administrazio-organoen arteko koordinazioa hobetu behar da, batez ere hezkuntza, osasun- eta gizarte-arloetan, eta horren xedea izan behar du arrisku-egoeretan prebentzio eta babes goiztiarra sustatzea, eta, ahal den neurrian, sarean funtzionatuko duen sistema bat bultzatzea.

Bereziki, adingabeekin diharduten gizarte-ekimeneko erakundeekiko koordinazioa indartzeko iradokitzen da. Nafarroako Parlamentuak, 2016ko martxoaren 4an, ebazpen bat onetsi zuen, boluntario sozialen lana babestu eta bultzatzeko.

- 7) Prebentzioaren alor horretan bertan, jarduketak eta programak egitea gizartearen sentikortzearen, familien laguntzaren, gizarte-harremanen eta aisialdiaren esparruetan.
- 8) Esku-hartze goiztiarra indartu behar da arrisku-egoeretan, egoera horiek hautemateko dauden baliabideen eta mekanismoen bidez. Gainera, ahal den neurrian, saiatu behar da arrisku-egoera horien bilakaerak ez ekartzea adingabearen babesgabetasun-egoera deklaratu behar izatea; eta, azkenik, indartu egin behar da arrisku-egoeran dauden adingabeak dituzten familiei ematen zaien laguntza, adingabe horiek beren berezko eremuan bizitzen jarrai dezaten.

9) Familiekiko harremanak eta informazio-trukeak indartu behar dira, baldin eta familia horiek babesgabatasun-egoeran deklaraturako adingabeak edo familia gunetik aparte bizi diren adingabeak baldin badituzte, eta, egoera horietan, adingabeen itzulera bideragarri izateko baldintzak sortu behar dira. Kasu guztietan, adingabekoaren interes nagusia gailendu behar da.

10) Familia-harreraren modalitatea sustatu behar da (kontzientziatzeko neurriak, familia hartzaileei prestakuntza eta laguntza ekonomikoak emateko neurriak eta bestelako neurriak hartuta), eta horren alde egin behar da, bereziki, haur txikienekin.

Halaber, familia-harrerari lotutako berariazko baliabideak (esaterako, premiakoak eta espezializatuak) ezartzen eta bultzatzen jarraitu behar da.

11) Gizarte-gatazkako egoeran dauden adingabeentzako programak bideratzen jarraitu behar da, eta, ahal den neurrien, indartu egin behar dira prebentzioaren, hezkuntzaren, kulturaren eta gizarteratzearen alorreko neurriekin, eta, beharrezkoa baldin bada, baita lan-neurriekin ere. Hori egiteko bidea da familien arreta eta familientzako laguntza bereziak barneratzea programa horietan.

12) Autonomia pertsonaleko programak indartu behar dira, laguntza-neurri ekonomikoak eta teknikoak hartuta. Horien xedea izan behar du neurri judizial edo administratiboren bat jaso duten nerabeek helduarorako iraganbide egokia izatea.

13) Erreforma-sistemaren esku-hartzea minimizatzeako premiari heltzeko, indartu egin behar dira gatazkak eta

zigortzekoak diren jokabideak ekar ditzaketen egoerak hautemateko eta prebenitzeko eginkizunak, eta, xede hori lortzeko, koordinatu egin behar dira egoera horietan eragiten duten eragileen, eta, batik bat, familien, eragile sozialen eta hezitzaileen lanak.

4. KAPITULUA

ZERBITZU PUBLIKOAK HOBETZEKO HERRITARREK EGINDAKO PROPOSAMENAK



4



zerbitzu publikoak hobetzeko herritarrek egindako proposamenak

→ 4.1 DATU OROKORRAK

2016an, herritarrek zerbitzu publikoak hobetzeko **hamahiru** proposamen aurkeztu zituzten.

2016an aurkeztutako hamahiru proposamenei 2015eko abenduaren 31n izapidetzen ari zirenak gehituz gero, hamabost dira guztira 2016an **kudeatu diren proposamenak**.

Kudeatutako hamabost proposamenetatik, bitan hasiera batean ez zen atzeman eskubideen urraketarik izan zenik, edo ikerketa bat zabaltzeko behar adinako urratzerik izan zenik. Bi proposamen Nafarroako Parlamentuari igorri zitzaizkion, bat Espainiako Arartekoari, eta beste bat ez zen inora bidali ez zuelako asmo zehatzik. Gainerako bederatzi proposamenak Nafarroako administrazio publikoetan izapidetu ziren.

Bederatzi horietatik administrazioak bost onartu zituen. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ez zuen beste proposamen bat onartu.

Aipatutako bederatzi kasuetatik hirutan, Nafarroako Arartekoak proposamenaren aldeko ebazpen bat eman zuen; horietatik administrazioek bi onartu zituzten, eta beste bat, ordea, ez zen onartu.

Proposamenek honako **arloak** izan zituzten xede (handitik txikira ordenatuta aipatzen ditugu):

- **Funtzio publikoa: 4** (funtzionarioen aldi baterako edo behin betiko barne-igoeren prozeduretan desgaitasun-egoeraren balorazioa; proposamena egindako funtzionarioen eskubide pasiboen sistema aldatzea; errepideetako zaintzaileak C mailara igotzea; igoerako oposizio-probetara aurkezteko eremu bakarra).
- **Gizarte-ongizatea: 2** (guraso bakarreko familiei laguntzeko araugintzako neurriak hartzea; hezkuntza-taldetan elkarbizitzako neurri judizialak betetzean zorrotasuna).
- **Osasuna: 2** (Nafarroako Parlamentuaren ebazpena aldatzeko proposamena. Proposamen horretan Foru Ganberak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea direla-eta jarduteko osasun-arloko protokolo bat aktibatzeko. Ebakuntza kirurgiko bat egiteko itxarote-zerrendan dauden pazienteei jakinarazpena beste modu batera egitea).
- **Enplegu publikoko lanpostu batera heltzea: 2** (irakasleen aldi baterako kontratazioan, prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa dutenek izatea lehentasuna; eta suhiltzaile izateko oposizioen gai-zerrendan bibliografia sartzea).
- **Ogasuna: 1** (kredituak kobratzean Ogasun publikoaren lehentasuna aldatzea).
- **Hirigintza: 1** (hirigintza-jarduketan konpentsazio-sistemari lotutako hainbat alderdi berrikustea).
- **Justizia: 1** (eskelak erregistro zibilaren web-orrian argitaratzea).

Hurrengo taulan, kudeatutako proposamenak eta haien emaitzak jaso ditugu:

Arloa	Gaia	Administrazio hartzailea	Eraitza
2015eko abenduaren 31n egiteko dauden proposamenak			
Ingurumena	Etxabeen erabileraren ordutegia murriztea	Tafallako Udala	Ez da onartu arautzeko iradokizuna
Gizarte-ongizatea	Ama langileentzako diru-laguntzak berreskuratzea	Eskubide Sozialetako Departamentua	Ez da onartu proposamena
Funtzio publikoa	Funtzionarioen aldi baterako edo behin betiko barne-igoeren prozeduretan desgaitasun-egoeraren balorazioa	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua Osasun Departamentua.	Onartutako proposamena
Gizarte-ongizatea	Guraso bakarreko familiei laguntzeko araugintzako neurrien gabezia.	Eskubide Sozialetako Departamentua	Onartutako proposamena
Enplegu publikoko lanpostu batera heltzea.	Irakasleen aldi baterako kontratazioan, prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa dutenek izatea lehentasuna.	Hezkuntza Departamentua	Onartutako proposamena
Ogasuna	Kredituak kobratzean Ogasun publikoaren lehentasuna aldatzea.	Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua	Ez da atzeman eskubideen urraketarik
Hirigintza	Hirigintza-jarduketan konpentsazio-sistemari lotutako hainbat alderdi berrikustea.	Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentua	Onartutako proposamena
Funtzio publikoa	Proposamena egindako funtzionarioen eskubide pasiboen sistema aldatzea.	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua Nafarroako Parlamentua	Nafarroako Parlamentura igorri da eta ez da onartu
Funtzio publikoa	Errepideetako zaintzaileak C mailara igotzea; igoerako oposizio-probetara aurkezteko eremu bakarra.	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua Garapen Ekonomikorako Departamentua	Onartutako iradokizuna

Arloa	Gaia	Administrazio hartzaila	Emaitza
2015eko abenduaren 31n egiteko dauden proposamenak			
Osasuna	Nafarroako Parlamentuaren ebazpena Nafarroako Gobernuari fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea direla-eta jarduteko osasun arloko protokoloa aktibatzeo eskatzen diona.	Nafarroako Parlamentua	Nafarroako Parlamentura igorri da
Osasuna	Ebakuntza kirurgiko bat egiteko itxarote-zerrendan dauden pazienteei jakinarazpena beste modu batera egitea.	Osasun Departamentua	Onartutako iradokizuna
Enplegu publikoko lanpostu batera heltzea.	Suhiltzaile izateko oposizioen gai-zerrendan bibliografia sartzea.	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua	Onartutako proposamena
Funtzio publikoa	Igoerako oposizio-probetara aurkezteko eremu bakarra.	Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua	Eskaerarik ez
Gizarte-ongizatea	Hezkuntza-taldetan elkarbizitzako neurri judizialak betetzean zorrotasuna.	Tafallako Udala	Ez da onartu arautzeko iradokizuna
Gizarte-ongizatea	Ama langileentzako diru-laguntzak berreskuratzea	Eskubide Sozialetako Departamentua	Ez da onartu proposamena

2016an egindako hamahiru proposamenen **erakunde eta administrazio publiko hartzailen** laburpena da, kontuan hartu behar da hainbat proposamen administrazio batean baino gehiagotan egon direla:

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa: 11 proposamen jaso ditu.
 - Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua: 5.
 - Eskubide Sozialetako Departamentua: 2.
 - Hezkuntza Departamentua: 1.
 - Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentua: 1.
 - Osasun Departamentua: 2.
 - Garapen Ekonomikorako Departamentua: 1.
 - Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua: 1.
- Nafarroako Parlamentua: 2 proposamen jaso ditu.
- Espainiako Arartekoa: 1 proposamen jaso du.

→ 4.2 PROPOSAMENEN EDUKIA

Ondoren, herritarrek aurkeztutako proposamenen edukia azaltzen dugu.

4.2.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoaren alorreko funtzionarioen aldi baterako edo behin betiko barneigoeren prozeduretan desgaitasun-egoeraren balorazioari buruzko proposamena.

.....
Arloa: Funtzio publikoa.

Administrazio

hartzailea: Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua eta Osasun Departamentua.

.....

LABURPENA

Herritar batek proposatu zuen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoaren alorreko funtzionarioen aldi baterako edo behin betiko barneigoeren prozeduretan desgaitasun-egoeraren balorazioa aldatzea.

Herritarra Nafarroako Gobernuko funtzionarioa da eta desgaitasun bat (fisikoa eta sentsoriala) du aitortua, % 33 baino handiagoa. Egoera horrek zaildu egiten dio titularra den lanpostuan jardutea. Gainera, bere lanposturako eskatzen diren titulazioez gain, goi-mailako titulazioa ere badu, bere lanerako eskatzen ez dena.

Orain dela hainbat urtetatik, bere ibilbide profesionalean igotzeko interes legitimoa du eta bere goi-mailako titulazioei dagozkien lanpostuak eskuratzen saiatu da. Hala ere, zailtasunak izan ditu hori lortzeko, izan ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen igoera-eremuan ez dago mekanismorik edo neurririk prozeduretan desgaitasunaren egoera

kontuan hartzen duena (aldi baterako/prestakuntzako igoera-prozedurak, behin betiko igoera-prozedurak).

Funtzio publikoaren arloan, Foruko ordenamendu juridikoan gabezia hori dagoela jakinda eta desgaitasuna duten pertsonen laguntza falta dutela ikusita egin zuen proposamena herritarrek, beharrezko ekimenak sustatzeko.

EMAITZA:

Nafarroako Arartekoak Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentura eta Osasun Departamentura igorri zuen proposamena, haiek baloratzeko.

Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuko kontseilariak adierazi zuen funtzio publikoaren arloan indarrean dagoen araudia berrikusteko eta aztertzeko asmoa zegoela, bai eta egokitzeko, aldatzeko eta eguneratzeko asmoa ere. Horretarako, beharrezko lan-taldeak sortuko ziren, eta haien ondorioak eta proposamenak dagozkien negoziazio-mahaietan negoziatuko ziren, horretarako legitimatuta dauden erakunde sindikalekin.

Arauk berrikusteko prozesu horren lanetako bat izan daiteke aztertzea ea nola kendu daitezkeen % 33 baino desgaitasun handiagoa duten langileek dituzten oztupoak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haien erakunde autonomoetako lanpostuak eskuratzeko, lanpostuen artean mugitzeko eta lanpostuak betetzeko prozeduretan. Beraz, araubidean formula juridikoren bat barneratu baldin badaiteke proposamen hori egin duen herritarren xedea betetzeko, aztertu egingo da formula hori, eta negoziazio sindikalean horrela adosten baldin bada, onartu egingo da.

Era berean, Osasun kontseilariak aldi baterako barne-igoeraren araudia berrikusteko asmoa zuela adierazi zuen; horretarako kontuan hartuko da aipatutako prozeduretan desgaitasun-egoeraren

balorazioari buruzko proposamena, aldez aurretik Osasuneko mahai sektorialean sindikatuekin negoziatuta.

Bi departamentuek herritarrari igorritako informazio horrekin amaitutzat eman genituen jarduketak.

4.2.2. Guraso bakarreko familiei laguntzeko araugintzako neurriak hartzeko proposamena.

.....
Arloa: Gizarte ongizatea.

Administrazio

hartailea: Eskubide Sozialetako Departamentua.
.....

LABURPENA

Herritar batek proposatu zuen araugintzako neurriak hartzea guraso bakarreko familiei laguntzeko.

Proposamena egin duena bi urteko haur baten ama ezkongabea da, eta haren alaba hazten ari den heinean, konturatzen ari da ez dagoela arau-aurreikuspenik guraso bakarreko familientzat.

Pertsona horrek adierazi zuen ama ezkongabeen egoera ekonomikoak ez direla jasotzen hainbat laguntza edo xedapenetan, eta beste hainbatetan, aldiz, bai.

Bestalde, egileak azaldu zuen guraso bakarreko familiek soldata bakarrarekin egin behar diela aurre bi gurasoko familia bati dagozkien gastu finkoei. Horrez gainera, adierazi zuen familia ugariak, umezurtzek edo beste familia mota batzuek laguntzak edo diru-laguntza bereziak jasotzen dituztela, eta guraso bakarreko familiek, aldiz, ez.

Horretarako, familientzat edo adingabeentzat dauden laguntzei eta diru-laguntzei buruzko arau guztiak berrikustea eskatu zuen, bai eta

guraso bakarreko familiak egoera berezietan sartzea ere, eta, adibidez, familia ugariei ematen zaizkien laguntza berak jasotzea.

EMAITZA:

Nafarroako Arartekoak Eskubide Sozialeko Departamentura igorri zuen proposamena, han baloratzeko.

Eskubide Sozialeko kontseilariak txosten bat aurkeztu zuen. Txosten horretan, politikariak onartu zuen kolektibo horiek laguntza gutxi jasotzen dituztela. Hala ere, jakinarazi zuen Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzak urtero irekitzen duela zuzeneko diru-laguntzen deialdia. Deialdi hori hiru kolektiborentzat izaten da, eta kolektibo horietako bat guraso bakarreko familiak dira.

Horrez gainera, aipatu zuen gizarteratzeari eta bermatutako errentari buruzko Foru Legearen aurreproiektuaren helburuetako bat dela aurre egitea haurren pobrezia eta guraso bakarreko familiek bizi duten egoerari; horretarako, adingabeak dituzten familia-unitateek jasotzen duten zenbatekoa handituko da.

Era berean, informatu zuen Departamentua harremanetan jarri zela guraso bakarreko familien elkartearekin, gai hauek lantzeko: tratamendu fiskala, beka lortzeko baldintzak, zuzeneko sarbiderako diru-laguntzak, eta lan eta familia bizitza bateragarri egiteko laguntzei, programei eta zerbitzuei lotutako kasuistika guztia. Bilera horretan, Familiei eta Haurrei Laguntzeko II. Planeko eskaerak, proposamenak eta ekarpenak jaso ziren.

Informazio hori herritarrari jakinarazita eta Eskubide Sozialeko Departamentuak guraso bakarreko familiei laguntzeko neurriak hartzeko jarrera duela ikusita, amaitutzat eman genituen jarduketak.

4.2.3. Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen aldi baterako kontratazioan, prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa duten eta hala egiaztatzen duten izangaiei lehentasuna emateko proposamena.

.....
Arloa: Enplegu publikoko lanpostu batera heltzea.

Administrazio

hartailea: Hezkuntza Departamentua.

.....

LABURPENA:

Herritar batek proposatu zuen Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen aldi baterako kontratazioan, prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa duten eta hala egiaztatzen duten izangaiei lehentasuna ematea.

Proposamenaren titularrak kontuan hartzen du martxoaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko (Hezkuntzari buruzkoa) 100. artikulua, hau dioena: lege honetan araututako irakaskuntzak emateko, beharrezkoa izango da bidezko titulazio akademikoak eta Gobernuak irakaskuntza bakoitzerako ezartzen duen prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa izatea. Bestalde, azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretua aipatzen du, honako hau arautzen duena: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta erregimen bereziko irakaskuntzetan irakasteko prestakuntza-baldintzak ezartzen dira eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntza-kidegoen espezialitateak zehazten dira. Dekretu horrek ezartzen du irakasleek prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa izan behar dutela.

Proposamena egin duen pertsonak uste du Hezkuntza Departamentuak ez ziela eskatu aldi baterako kontraturako izangaiei baldintza hori egiaztatzeko, eta, gainera, aldi baterako irakasle-kontratuak esleitzeko, ez zutela kontuan izaten baldintza hori betetzen zuten.

Era berean, jakinarazi zuen beste autonomia-erkidego batzuetan (Aragoi, etab.) prozedurak ezarri zirela egungo aldi baterako kontratazio-zerrendetako izangaiek baldintza hori betetzen zutela egiaztatzeko.

Horrekin guztiarekin, herritarrak proposatu zuen Hezkuntza Departamentuak prozedura egokiak jarri behar dituela zerrendako izangaiek araudiak ezarritako prestakuntza pedagogikoaren eta didaktikoaren baldintza egiaztatzeko, eta baldintza hori betetzen duten pertsonak lehentasuna izan behar dutela irakasleen lehen deskribatutako aldi baterako kontratuetan, baldintza hori betetzen ez duten pertsonen aurrean.

EMAITZA:

Nafarroako Arartekoak Hezkuntza Departamentura igorri zuen proposamena, han baloratzeko.

Hezkuntza kontseilariak honako txosten hau bidali zuen:

“2015eko amaieratik, Irakasleen Mahai Sektorialean kotsultatzen eta negoziatzen ari dira aldatzeko maiatzaren 8ko 30/2009 Foru Agindua (Hezkuntza kontseilariak emana, irakasleen aldi baterako kontratazioko izangaien kudeaketa-arauak arautzen dituena.

Administrazioen eta sindikatuen proposamenak eta hasierako alegazioak aurkeztuta eta aztertuta, 2016ko martxoaren 22an, Foru Aginduaren (irakasleen aldi baterako kontratazioa arautzen duena) zirriborroa igorri zitzaien erakunde sindikalei, eta zirriborro hori lantzeko Mahai Sektorialeko bilera bat iragarri zen 2016ko apirilaren 5ean. Zirriborro hori Nafarroako Gobernuaren gardentasun-orrian argitaratu zen, herritarrek ekarpenak egin ditzaten.

Aipatutako testuko 10. artikuluko 2.2. atalean hau adierazten da:

“Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoei dagozkien espezialitateetan, aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendetan sartzeko, prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa eduki beharko da, hau da, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 100.2 artikuluan aipatzen dena.

Izangaiek prestakuntza pedagogiko eta didaktiko hori badutela frogatu beharko dute, foru agindu honen I. eranskinean ezarritakoaren arabera”.

Era berean, testu horretako laugarren xedapen iragankorrean adierazten da 2016-2017an Hezkuntza Departamentuak prozedura bat zehaztuko duela izangaiek froga dezaten prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren jabe direla.

Apirilaren 5ean Unibertsitatetik kanpoko Irakasleen Mahai Sektorialarekin bilera egin ostean, herritarren eta sindikatuen alegazioak ikusita eta Foru Aginduaren testuan egin behar diren aldaketak kontua hartuta, dagozkion administrazio-espeditentea izapidetuko da, aldi baterako kontrataziorako izangai-zerrenden kudeaketa-arau berriak onartzeko”.

Informazio hori herritarrari igorrita, amaitutzat eman genituen jarduketak.

4.2.4. Kredituak kobratzean Ogasun publikoaren lehentasuna aldatzeko proposamena.

.....
Arloa: Ogasuna.

Administrazio

hartzailea: Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua.
.....

LABURPENA:

Herritar batek proposamen bat aurkeztu zuen kredituak kobratzean lehentasuna partikularrek izan dezaten Nafarroako Zerga Ogasunaren aurrean.

Proposamena egin duen pertsonak adierazi zuen 2008ko epai judizial baten bidez, hirugarren pertsona bati jarritako salaketa baietsi zela. Salaketa horren ondorioz, hirugarren pertsona horrek 3.267 euro eta legezko interesak ordaindu behar zizkion, 2003an izandako gertaera batzuen ondorioz. Zordunak Nafarroako Zerga Ogasunarekin zorrak zituen, eta beraz, erakunde hori pertsona horren ondasunak enbargatzen ari zen. Horren ondorioz, ezin zuen kreditua kobratu. Herritarrak adierazi zuen 300 bat euro kobratzen zituela eta % 14ko desgaitasun bat zuela, beraz, ez zela zentzuzkoa Nafarroako Zerga Ogasunak lehentasuna izatea bere aurrean zorra kobratzeko garaian.

EMAITZA:

Erakundeak jakinarazi zion herritarrari Nafarroako Foru Komunitateak duela kredituen lehentasuna eta datu hori abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean, Tributuei buruzkoan, jasotzen dela. Horrez gainera, legeria zibilak ere iragartzen du Estatuak duela kredituen lehentasuna. Horrez ondorioz, ordenamendu juridikoan kredituak kobratzeko Ogasunaren lehentasuna printzipio orokor bat da, legegileak nahi duena, tributuek interes orokorrak asetzeko erabiltzen direlako eta Ogasuna administrazio publikoa den aldetik, herritarren osotasunaren zerbitzura egoten delako, eta ez interes partikularren zerbitzura, nahiz eta interes horiek legitimoak izan.

Horregatik, herritarraren egoera ulertuta, jakinarazi zitzaion proposamenak ez zuela arrakastarik izango, hau da, kredituak kobratzean Nafarroako Zerga Ogasunak izango zuela lehentasuna herritarren aurrean.

Informazio hori herritarrari igorrita, amaitutzat eman genituen jarduketak.

4.2.5. Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legearen konpentsazio-sistemari lotutako hainbat alderdi berrikusteko proposamena.

.....
Arloa: Hirigintza.

Administrazio

hartzailea: Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentua.

.....

LABURPENA:

Herritar batek lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legearen konpentsazio-sistemari buruzko hainbat alderdi berrikustea proposatu zuen. Proposamena egin zuenak honako hau adierazi zuen:

Kontuan hartuta 35/2002 Legea, abenduaren 20koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzkoa (gerora honako lege honek aldatuta: 5/2015 Foru Legea, martxoaren 5koa, Nafarroan hirigintza iraunkorra, hiri-berrikuntza eta hirigintza-jarduera laguntzeko neurriei buruzkoa) eta zehazki, lege horren IV. tituluaren (Planteamenduaren exekuzioa) II. kapituluko (Jarduketa sistematikoen bidezko exekuzioa) 2. atala (Jarduketa pribatuko sistemak), eta berariaz, konpentsazio-sistema, honako hau adierazi du izenpetzaileak:

Aipatutako Legearen 161. artikuluko 3. puntuan, unitatearen zehaztapenaren eraginez kaltetutako jabe guztiak konpentsazio-sisteman sartzea jasotzen da.

Posible da jabeen (azalera) % 65ak, beren nahien aurka, urbanizazio-jarduketa batean parte hartu behar izatea.

Lege horretako 162. artikulua sistematik at gelditzea iragartzen du, baina denbora mugatu bat dago eskaera hori aurkezteko, eta kanpoan gelditze hori alde aurretiko balio justurik gabeko desjabetze batean dago oinarrituta.

Azken hamarkadako higiezinaren sektorearen bilakaeraren eraginez, landa-lurzorua erosten duten entitate edo korporazio handiak sortu dira. Horren ondorioz, desberdintasun handiak sortzen dira jarduketan automatikoki sartzen diren jabeen interesen artean; hainbat kasutan, landa-lursailen jabeak pertsona indibidualak izaten dira, helduak nahiz adinekoak.

Azken urteetan, etxebizitzaren eskaerak behera egin du eta gure komunitatean dauden etxebizitza hutsen kopuru handia kontuan hartuta, hirigunetako hirigintzako planak gelditu egin dira eta aurreikuspenek diote susperraldia oso motela izango dela.

Hirigintzako merkatuak jarduketa ugari geldituta utzi ditu, sektorea suspertu zain, eta beraz, konpentsazio-sistemara automatikoki sartzen diren jabeak “hipotekatuta” geratzen dira, ezin baitute erabili askatasun osoz jatorrizko lursaila, etorkizuna ezezaguna delako; eta ezin baitute planeamendu berriaren lurraldea erabili.

Horregatik guztiagatik, izenpetzaileak Nafarroako Arartekoari eskatzen dio 35/2002 Foru Legearen berrikuspena aztertzeko, baldintza hauetan:

Jarduketako lursailen balio justua konpentsazio-batzordearen estatutuen proiektuan sartzea eta jakitera ematea. Horrez gainera, balio justu hori KPI indizearekin eguneratzeko aukera izatea, birzatiketa-proiektuaren hasierako onarpenera arte.

Jarduketa pribatuen kasuan, anbizio eta dimentsio handiko proiekturik ez egoteko, sustatzaileek administrazioari hirigintza-proiektuan erabiliko den materialaren kostuaren ehuneko ehunaren abal bat aurkezteko beharra ezartzea, bai eta proiektua ehuneko ehunean exekutatzeko epea jartzea ere, gehienez 5 urtekoa.

Sustatzaileek jarduketaren % 100 ez badute betetzen, abala exekutatzeko eta exekutatu izan den aldeari jarduketaren neurriak berriro ezartzea, eta proiektua hasi gabe baldin badago, bertan behera uztea, eta hirigintzako proiektu berri bat aurkeztu beharra izatea.

EMAITZA:

Nafarroako Arartekoak Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentura igorri zuen proposamena, han baloratzeko.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak txosten hau aurkeztu zuen:

“Herritar batek lehen aipatutako Foru Legea berrikustea proposatzen du, aipatutako xedapenek garatzeko exekuzio-unitateetako landa-lursailen jabeengan sor dezakeen kaltean eta argudio hauetan oinarrituta, besteak beste:

1. Hainbat “entitate edo korporazio handik” landa-lurzorua erosten dute eta “desoreka” sortzen da lurzoruetako jabe indibidualekin. Ulertu behar da lurzoruaren jabeak izaera juridikoko pertsonak badira, exekuzio-unitate batean izan dezaketen jabetza-proporzioa nahikoa izan daitekeela konpentsazio-sistema martxan jartzeko, jabe indibidualen eta gutxiengoaren nahien aurka.

Informazio horrek 161. artikuluko 1. atala aipatzea justifikatzen du, izan ere, gutxienerako jabetza-ehuneko bat ezartzen da (unitatearen azaleraren % 35) konpentsazio-batzordeko estatutuak izapidetzeko aurkeztu ahal izateko.

Horrez gainera, Arartekoaren testuan aipatzen den bezala, aipatutako estatutuak onartuta, gainerako jabeak automatikoki sartzen dira konpentsazio-sistemara, eta administrazio eta batzorde jarduleen akordioei lotuta geratzen dira.

Komeni da gogoraraztea gutxienerako ehuneko (% 35) lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legeak ezarri zuela, orain dela 14 bat urte, jarduketa-unitateen garapena errazteko, eta indargabetutako 10/1994 Foru Legeak ezartzen zuen % 50a murriztuz. Era berean, gogorazi behar da lehen aipatutako 10/1994 Foru Legean (orain dela 22 urte) iragartzen zela jabe guztiak automatikoki sartuko zirela konpentsazio-sistemara.

Horren aurretik, gai horri lotuta, 1978ko hirigintzaren kudeaketarako araudiak ezarri zuen 1 hilabeteko epean batzordeak konpentsazio-sistemara sartzeko eskaera jakinarazi behar zela batzordean ez zeuden jabeei, batzorde horrek desjabetzeko ahalmena zuela ohartaraziz.

Ikusten den bezala, aragintzaren bilakaeran beti egon da asmoa hirigintzako prozedurak bizkortzeko eta errazteko.

- 2. Konpentsazio-sistemara automatikoki sartzen diren lurzoruak "hipotekatuta" geratzen dira, ezin baitute erabili askatasun osoz jatorriko lursaila.*

Baieztapen hori argitu beharra dago.

Lehenik eta behin, adierazi behar da sistemara sartzeak ez dakarrela hipotekarik eta lurzoruaren jabeek ez dutela galtzen askatasunik, baina konpentsazio-batzordeko akordioei lotuta geratzen dira.

Arartekoaren idazkian gogoratzen den bezala, jabeak denbora mugatua du (baina ez urria) sistematik at gelditzeko eta desjabetua izateko. Indarrean dagoen legediak adierazten du birzatiketa-proiektuaren hasierako onespena dela eskubide hori betetzeko denbora-muga (lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legea, 162. artikulua). Epe horretan hiru prozedura bete behar dira: birzatiketa-proiektuaren agindua eta idaztea, jabeen aurkeztea eta administrazio jardulearen aurrean aurkeztu aurretik jabeen batzordeak onartzea.

Birzatiketa-proiektu horretan alderdi hauek adierazi behar dira: ondoriozko finken eta haien jabeen arteko harremana, haien kargak eta zergak, baldintzak eta ordezkatzak, eta eragiten dien gainerako eskubideak. Horrez gainera, proiektu horretan adierazi behar dira esleitutako azalaren balorazio-irizpideak, bai eta eskubideen, eraikuntzen, eraikinen edo sailen irizpideak eta plana aurrera eramateko suntsitu edo desegin behar diren elementuen irizpideak ere.

Beraz, egia da, oro har, jabeak aholkularitza tekniko espezializatuaren laguntzarekin bere eskubideak eta betebeharrak baloratu ditzakela, eta horrela, sisteman jarraitzeak merezi duen edo sistematik at gelditzea hobe den garaiz erabaki dezake.

Birzatiketa-proiektua behin betiko onartzen ez den arte (eta ondoriozko partzela berriak inskribatu arte), jabeak ez du mugarik lursailen erabileran eta mantendu egingo du lursaila hirugarren bati saltzeko eskubidea, prozesu horretan zehar eta prozesua amaitu arte.

Egia eta bistakoa da saltzeko aukera hori merkatuaren aldaketen araberakoa dela, eta egia da ere bai, jabe batek uko egiten ez dionean, eta hirugarren bati saltzen ez dionean, hirigintza-prozesu horretan ezartzen diren kuotak ordaindu behar dituela.

Hori guztia adierazita eta Arartekoak egindako proposamenei lotuta, hau esaten du:

- 1. Konpentsazio-batzordeko estatutuen proiektuan lursailen balio justua sartzeko eta jakitera emateko beharra. Horrez gainera, balio justua KPI indizearekin eguneratzea, birzatiketa-proiektuaren hasierako onarpenera arte.*

Estatutuen proiektua oinarrizko araudia da, konpentsazio-batzordearen barne-antolamendua eta hango kideei aplikatzeko araubide juridikoa eta ekonomikoa zuzenduko duten arauak arautzen dituena. Oro har, ez dira horrelako gaiak sartzen, izan ere, bere izaeragatik gehiago ematen dira indarrezko desjabetze baten administrazio-prozesu batean.

Hala ere, zentzu horretan, Andaluziako legeriak (7/2002 Legea, abenduaren 17koa, hirigintza-antolamenduari buruzkoa), ustez, gai hori arautzen duen bakarrak, ezartzen du konpentsazio-batzordearen estatutuek izan behar dituztela, besteak beste: jarduketaren eraginpean titularrak diren lurzoruen ekimena izenpetu ez duten jabeei erosteko eskaintza bat; eta urbanizazio kostuen konpentsazio-eskaintza bat, lurzoru eraikigarriak lagaz; indarreko birzatiketa jasaten duten jabeei ere aplikatuko zaie (130. d) eta e), hurrenez hurren).

Horrela, arauzko erregulazio bat aztertu daiteke; hala ere, 35/2002 Foru Legearen araubidearen garapen bat izango litzateke, eta ez, lege-mailako aldaketa bat.

2. Jarduketa pribatuen kasuan, hirigintza-proiektuan erabiliko den materialaren kostuaren ehuneko ehunaren abal bat aurkeztea eta proiektua 5 urteko epean guztiz amaitzea. Arartekoaren idazkian hitzez hitz dagoena kontuan hartuta, proposamen honen helburua da “anbizio handiko eta gehiegizko proiektuak” saihestea. Gai horri buruz, honako hau adieraziko da:

a. Hirigintza funtzio publiko bat da. Hirigintzako proiektuak garrantzitsuak izan daitezke, eta hori ez da txarra, baina argi dago ez dutela gehiegizko garrantzia hartu behar. Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legeak argi eta garbi arautzen du 51.3. artikuluan. Beraz, gehiegizko proiektu horien kontrola planeamendutik egin behar dira, eta ez kudeaketatik.

- b. Egindako proposamenak berdin eragingo lieke garatzeko exekuzio-unitate guztiei, nahiz eta neurri egokiak izan.*
- c. Gaur egun, orokorrean, abalak emateko aldez aurretik abalatutako zenbatekoa osotasunean gordailutu behar da, edo kreditu-eragiketa bat bezala interes-tasa altuekin lortuko da; eta beraz, prozedura hori beharrezkoa izango litzateke ekimen pribatuko garatzeko jarduketak-unitateak blokeatzeko.*

Era berean, ezin da onartu bigarren proposamena, izan ere, adierazi da hirigintza-jarduketako neurrien, haren intentsitatearen edo kokapenaren kontrola planifikatzeko uneari dagokiola, eta ez hirigintza-kudeaketari. Horrez gainera, adierazi den bezala, jarduketak-unitatearen kudeaketa osorako oso negatiboa izango litzateke.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak herritarrak egindako proposamenaren hainbat alderditan aurrera egiteko asmoa duela ikusita eta informazioa herritarrari jakinarazita, amaitutzat eman genituen jarduketak.

4.2.6. Montepioen sistema zaharretik egungo sistemara pasatzeko proposamena, indarrean dagoen legeak arautzen duenera: 10/2003 Foru Legea, martxoaren 5koa, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzkoa.

.....
Arloa: Funtzio publikoa.

**Administrazio
eta erakunde**

hartzailleak: Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua eta Nafarroako Parlamentua.

.....

LABURPENA:

Nafarroako Gobernuak hainbat funtzionariok proposamen bat aurkeztu zuten eskubide pasiboen araubide zaharra egungo sistemagatik aldatzeko, indarrean dagoen legeak arautzen duenagatik (10/2003 Foru Legea, martxoaren 5koa, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzkoa).

Araubidea aldatzeko eskaera aurkeztu ahal izateko, beste epe-muga bat irekitzea eskatu zuten, lege hauen bidez egin zen bezala: urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legea (2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorri buruzkoa) bigarren xedapen gehigarrian, bai eta abenduaren 23ko 16/2009 Foru Legea (2010eko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzkoa), lehen xedapen gehigarrian.

Pertsona horrek adierazi du kide diren eskubide pasiboen sistema arautzen duen araubideak eboluzio bat izan duela azken urteotan, eta bere ustetan, eboluzio horren ondorioz, bere eskubideak "murriztu" egin direla. Pertsona horrek aipatu zuen ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legeak (Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko

langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa) gutxitu egin zituela Osasun Laguntzako Zerbitzuaren “Erabilera Berezia” izeneko modalitateko tarifak. Horrez gainera, ekainaren 18ko 12/2014 Foru Legeak (Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea aldatzen duenak) iraungitzat deklaratzeko osasun laguntzako derrigorrezko estaldura, zeina Nafarroako Foru Diputazioak 1973ko abuztuaren 24ko Erabakiaren bidez onetsitako Osasun Laguntzako Zerbitzuaren Erregelamenduan ezarri baitzen.

EMAITZA:

Nafarroako Arartekoak Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentura eta Nafarroako Parlamentura igorri zuen proposamena, haiek baloratzeko.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuko kontseilariak txosten bat aurkeztu zuen. Txosten horretan jaso zen, laburbilduz, Nafarroako Administrazio Publikoetako montepioen menpe zeuden funtzionario aktiboek 6 hilabeteko epea zutela (2003ko martxoaren 15etik irailaren 14ra), 10/2003 Foru Legean, martxoaren 5ekoan, adierazten den bezala, funtzionarioek aurreko eskubide pasiboen sistemaren aplikazioa hautatzeko eskubidea baliatzeko. Bigarren Xedapen Iragankorraren bigarren atalean adierazten den bezala, hautatzen dena hauta, ez da atzera egiterik izango eta erabakiak funtzionario horiek sortzen duten edozein pentsio lotuko du.

Baina horren ostean, beste bi epe jarri ziren aurreko sistemako kideak ziren funtzionarioak eskubide pasiboen sistema berrian sartzeko. Hala ere, egoera hori martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legean egindako aldaketen eraginez izan zen, eta hautatzeko eskubidea baliatu zenean hori aurreikusitako izan bazen, hainbat kasutan iritzia aldatuko zuten.

Bestalde, Nafarroako Administrazio Publikoetako montepioetako langileak Osasun Sistema Nazionalean sartzeari eta Nafarroako Foru Diputazioak 1973ko abuztuaren 24an Osasun Laguntzako Zerbitzuaren Erregelamendua indargabetzeari buruz, Departamentuak ez zuen uste arrazoi nahikorik zegoenik beste epe bat irekitzeko; izan ere, sisteman sartze horrek osasun-laguntzari eragiten zion, eta ez eskubide pasiboei. Horrez gainera, berdin eragiten zion Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen bi sistemei, zaharrari zein berriari.

Azkenik, Lehendakartzako Departamentuak ondorioztatu zuen proposamena egin zuten pertsonen hautatutako aukera sendoa eta loteslea zela; eta horrez gainera, adierazi zuen 10/2003 Foru Legean ezarritakoaren aurreko eskubide pasiboen sistemarako beste epe bat irekitzeko justifikazioek ez zituztela biltzen arrazoi objektiboak edo egoera bereziak. Hala ere, zehaztu behar da Nafarroako Parlamentuak gai horri buruzko Foru Legearen izaerako arau bat onartuko balu, legezketasunaren printzipioa zorrotz bete beharko litzatekela.

Aurkeztutako txostenean adierazitakoa ikusita, erakunde hori harremanetan jarri zen Parlamentuko presidentearekin, izan ere, proposamena egindako egileen idazkiak, bere izaeragatik, botere publikoei eragiten zien eskaera bat zuen eta hori gauzatzeko azken erabakia Nafarroako Parlamentuaren esku zegoen. Parlamentuak proposamena aurrera eramatea nahiko balu foru legea bat egin beharko luke eta hautatzeko beste epe bat ireki, arau legeletan adostutakoa mantenduz.

Parlamentuko presidentek Eskaren Batzordearen 2016ko urriaren 19ko akordioa igorri zuen. Akordio horretan adierazi zen proposamena egin zuen pertsonaren eskaera ez zela onartu eta artxibatu egingo zela; eta beraz, Nafarroako Parlamentuan legegintza ekinbide bat hertsatzeko beste mekanismo bat dagoela, adibidez, legegintzako herri ekimena.

Informazio hori herritarrari igorrita, amaitutzat eman genituen jarduketak.

4.2.7. Errepideetako zaintzaileak foruzainen eta basozainen maila (C maila) berekoak izateko proposamena.

.....
Arloa: Funtzio publikoa.

Administrazio

hartzailea: Garapen Ekonomikorako Departamentua eta Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua.

LABURPENA:

Herritar batek proposamen bat egin zuen errepideetako zaintzaileak foruzainen eta basozainen maila berekoak izateko.

Proposamena egin duen pertsona Garapen Ekonomikorako Departamentuan errepideak zaintzen lan egiten zuen funtzionario bat zen, eta lanbide horren kokapen profesionala D mailakoa da.

Adierazi zuen martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legeak (Nafarroako errepideei buruzkoa) diola errepideak zaindu edo ustiatzeko eginkizunei atxikiriko funtzionarioek agintearen agente izaera izango dutela eginkizun horietan aritzen direnean. Antzeko baldintzak zehazten ditu azaroaren 3ko 132/2005 Foru Dekretuak, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko basozainen araubide zehatza arautzen duenak, 10.1. eta 10.2. artikuluetan; hala ere, kolektibo horren kokapen profesionala C mailakoa da. Horrez gainera, agintaritzaren agente funtzioak dituzten foruzainak ere C mailakoak dira.

Ondoren, adierazi zuen, nahiz eta kolektibo guzti horiek desberdinak izan eta kokapen profesional desberdinak eduki, hiru kolektiboak agintaritza-arlokoak direla. Horregatik, ondorioztatu zuen bere

funtzioek beste kolektiboen ardura bera dutela, eta, beraz, ordainsaria ere maila berekoa izan beharko litzatekeela.

Laburbilduz, errepideen zaintzaileek maila handiagoko prestakuntza jasotzea proposatzen zuen, Departamentuak eskainia eta C mailara igotzeko helburuarekin; izan ere, agintaritzaren agenteak dira eta egungo mailari (D maila) ez dagozkien funtzioak betetzen dituzte.

EMAITZA:

Nafarroako Arartekoak Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentura eta Garapen Ekonomikorako Departamentura igorri zuen proposamena, haiek baloratzeko.

Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuko kontseilariak txosten bat aurkeztu zuen. Txosten horretan adierazten zen Foru Legearen mailako arau bat onartu beharko litzatekeela lehendabizi, maila handiagoko kokapen profesionala aurrera eramateko eta horri babes emateko; horretarako, erakunde sindikalekin adostu beharko litzateke.

Horrez gainera, txostenak azaltzen zuen funtzio publikora sartzeko eskatutako titulazioak zehazten duela interesdunaren kokapen profesionalaren maila, eta haren kasuan hauek ziren titulazioak: eskola-graduatuaren titulua, lehen mailako Lanbide Heziketaren titulua edo antzekoa.

Interesdunak aipatu zuen maila handiagoko funtzioak betetzen dituztelako, D mailako langileen ordainsariak C mailako langileenekin berdindu behar direla. Hala ere, kontseilariak adierazi zuen proposamenaren egileak isilbidezko onarpen bat egin zuela C mailara igotzeko goi-mailako prestakuntza bat behar dutela adieraztean.

Beraz, txostenaren amaieran adierazi zuen ezin dela interesdunaren proposamena aurrera eraman.

Bestalde, Garapen Ekonomikorako Departamentuak erantzun hau eman dio Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak esandakoari.

Erakunde horrek, Departamentuek igorritako txostenak ikusita, Departamentu horiei eskatu zien “zehaztasun handiarekin adierazteko Nafarroako Foru Komunitatean errepideetako zaintzailearen lanpostua duten langileek zer funtzio egiten dituzten edo zer funtzio egin beharko lituzkete”.

Jasotako informazioa aztertuta, Nafarroako Arartekoak Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari iradoki dio azter ditzala, Garapen Ekonomikorako Departamentuarekin lankidetzan, errepideetako zaintzaileei agindutako funtzioak eta, hala badagokio, egokitu dezala langile horien funtzionario-maila.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuak erantzuna eman zuen. Erantzun horretan, adierazi zuen langile horien funtzioak aztertuta, ondorioztatu zela lanpostu horrek laguntzaile izaera zuela eta lanpostu horretara sartzeko titulazioa hau izan behar dela: eskola-graduatuaren titulua, lehen mailako Lanbide Heziketaren titulua edo antzekoa. Beraz, D mailako kokapen profesionala antolamendu juridikora ongi egokitua zegoela ikusi zen.

Hala ere, adierazi zuen Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia plantilla organikoaren azterketa bat egiten hasi zela, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio lanpostu guztien funtzioak, baldintzak eta ezaugarriak sakon berrikusteko eta aztertzeko. Horregatik, azterketa horrek lehen adierazitakoaren kontrako ondorioa adieraziko balu, lanpostuaren funtzioetara eta ezaugarrietara egokitutako kokapen profesionala sortzeko beharrezko neurriak hartuko lirateke.

Informazio hori herritarrari igorrita, amaitutzat eman genituen jarduketak.

4.2.8. Nafarroako Parlamentuaren 2016ko maiatzaren 19ko ebazpena aldatzeko proposamena. Proposamen horretan Foru Ganberak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea direla-eta jarduteko osasun-arloko protokolo bat aktibatzeko.

.....
Arloa: Osasuna.

Erakunde

hartzailea: Nafarroako Parlamentua.
.....

LABURPENA:

Nafarroako Fibromialgia, Neke Kronikoaren sindromea eta Sentiberatasun Kimiko Anizkoitzaren sindromea Elkartek (AFINA) proposamen bat aurkeztu zuen Nafarroako Parlamentuaren 2016ko maiatzaren 19ko ebazpena aldatzeko. Ebazpen horrek Foru Ganberak Nafarroako Gobernuari fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea direla-eta jarduteko osasun-arloko protokolo bat aktibatzeko eskatu dio.

AFINA elkarteak alderdi hauetan zehaztu zuen desadostasuna:

- a) Nafarroako Parlamentuak onartu duen dokumentuak ustezko diagnosi hauek aipatu beharko lituzke: fibromialgia - Ebazpenean ongi idatzi da-, neke kronikoaren sindromea -ez dira gauza bera ebazpenean adierazten den neke kronikoaren sintoma- (hainbat gaixotasunek sor dezaketena) eta neke kronikoaren sindromea, eta sentiberatasun kimiko anizkoitzaren sindromea -ebazpenean ez da aipatzen prozesu hori eta aurreko biek in lotzen da-. AFINA elkartearen arabera, medikuntza-zientziak hiru patologia horiek “sentiberatasun zentralaren sindromea” nosologiaren

barruan sartzen ditu, eta horrela planteatu beharko litzateke idazten den edozein dokumentu ofizial.

- b) Parlamentuaren ebazpenak adierazi behar du hau sustatuko duela: desgaitasuna, aldi baterako ezintasuna eta ezintasun iraunkorra kalifikatzen dituzten organoek gaixorik dagoen pertsona bakoitzaren beharrak eta patologia horiek, hainbat kasutan, sortzen dituzten egoera larriak zainduz aplikatuko dutela araudia.
- c) Positiboki baloratzen zituzten gaixotasun horiek zituzten langileei emandako arreta-, aholku- eta laguntza-lanak aipatzea eta, hainbat kasutan, lanpostuak egokitzea. Baina hori guztia asmoen adierazpen hutsean gera ez zedin, bazekiten neurri zehatzak ezarri behar zirela gai horri dagokion erakunde publikoak, hau da, Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak, aldaketak aurrera eramateko.
- d) Ez da genero-gaixotasun bat, izan ere, gaixotasun horretan zehar ez dira ezaugarri desberdinak ikusten, nahiz eta gaixo gehienak emakumeak izan. Hala ere, azken urtetan ez dira Espainian egin gai horri lotutako azterketa epidemiologikoak, hau da, sexuaren arabera hiru entitate kliniko nagusien prebalentzia zenbatzen duena.

Horregatik guztiagatik, eskatu zuen Parlamentuak onartutako ebazpena aldatzeko, proposamen hauek jasotzen dituen beste batengatik:

- a) Nafarroako Foru Komunitateko lehen-mailako zentroetako langileek (medikuak, erizainak eta gizarte-langileak) prestakuntza jaso behar dute, bi helburu hauekin:
 - Kolektibo kaltetuek minaren diagnostiko goiztiarra eta atzeratu gabekoa izatea.

- Diziplina anitzeko tratamendua eta arreta jasotzea, kasu bakoitzean, gaixotasunaren izaerari eta ibilbide klinikoari egokituta.

b) Funtzio-unitateak sortu behar dira, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek osatuta, espezializazio hauetakoak: Immunologia, Neurologia, Barne Medikuntza, Endokrinologia, Erreumatologia, Errehabilitazioa, Nutrizioa, Minaren Unitateak, Psikologia eta Lan Osasuna.

Unitate horiek maila espezializatuan kaltea duen pertsonaren jarraipen osoa koordinatu beharko lukete eta lehen aipatutako langileei prestakuntza eskaini.

c) Bi ekintza horiek, esperientzian eta lortutako emaitzetan oinarrituta, guztiz ezarrita daudenean, egin beharko litzateke soilik gaixotasunak tratatzeko protokolo bat.

EMAITZA:

Nafarroako Arartekoak Nafarroako Parlamentura igorri zuen proposamena, han baloratzeko.

Nafarroako Parlamentuko presidentek Nafarroako Parlamentuko Mahaiko 2016ko irailaren 5eko akordioa igorri zuen. Akordio horretan, adierazi zuen Nafarroako Arartekoaren idazkiaren berri izan zuela. Jakinarazpen horretan, amaitutzat eman genituen jarduketak.

4.2.9. Ebakuntza kirurgiko bat egiteko itxarote-zerrendan dauden pazienteei jakinarazpena beste modu batera egiteko proposamena.

.....
Arloa: Osasuna.

Administrazio

hartzailea: Osasun Departamentua.
.....

LABURPENA:

Herritar batek proposamen bat aurkeztu zuen ebakuntza kirurgiko bat egiteko itxarote-zerrendan dauden pazienteei jakinarazpena beste modu batera egiteko.

Herritarrak azaldu zuen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak telefonoz jakinarazten dituztela itxarote-zerrendan dauden pazienteei dagozkien operazioak. Kontuan izanda, pazienteek informazio hori ahalik eta azkarren ezagutu behar dutela, proposamenaren egileak adierazi zuen komunikabide hori ez zela egokiena, izan ere, pertsona guztiek ezin dute telefonoa hartu lanorduetan.

Era berean, azaldu zuen dei bat hartzen ez bada, ez dela mezu bat bidaltzen; beraz, argi geratzen da, komunikabide hori ez dela egokia, ez baitu berehalako komunikazioa bermatzen.

Horregatik guztiagatik, komunikazioa hobetzeko neurriak hartzea proposatu zuen, lana dela-eta deiei erantzun ezin dien pertsona guzti horiek kontuan hartuz.

EMAITZA:

Nafarroako Arartekoak Osasun Departamentura igorri zuen proposamena, han baloratzeko.

Osasun Departamentuko kontseilariak txosten bat igorri zuen, honako hau esanez:

“Kasu gehienetan, ebakuntza kirurgikoak egiteko pazienteekin hitzorduak ezartzeko prozesua erraza izaten da. Pazientearekin harremanetan jartzea erraza izaten da, pertsona horrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari ekintza horretarako eman dion telefonoaren edo telefonoen bidez. Hala ere, beste kasu batzuetan zailagoa izaten da eta telefonoaz gain, posta ere erabiltzen da.

Hitzordua ezartzeko prozedura honako hau da:

- Pazienteak onartzeko zerbitzuak telefonoz deitzen dio pazienteari hainbat aldiz egunean zehar, goizez zein arratsaldez.*
- Deia ez bazaio erantzuten, mezu bat uzten da, pazientea harremanetan jar dadin pazienteak onartzeko zerbitzuarekin.*
- Ez bada lortzen telefonoz harremanetan jartzea, gutun bat bidaliko da pazientearen helbidera. Gutun horretan adieraziko zaio ez dela posible izan berekin harremanetan jartzea telefonoz, eta pazienteak onartzeko zerbitzuarekin harremanetan jartzeko eskatuko zaio.*

Prozedura horren bidez, pazienteekin harremanetan jartzea lortzen da kasu gehienetan; hala ere, badakigu prozedura guztiak hobetu daitezkeela, beraz, pazienteekin harremanetan jartzeko prozesu hori hobetu dezaketen iradokizunak baloratzeko prest gaude.

Osasun Departamentuko kontseilariaren txostena aztertuta eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioan administrazio elektronikoa jartzeko foru-araudia ikusita, Osasun Departamentuak hau iradoki zion Nafarroako Arartekoari: “Osasunbidea-Nafarroako

Osasun Zerbitzuaren beste unitateetan lortutako esperientzia aprobetxatuz, mezuak bidali daitezke interesdunaren gailu elektronikora eta/edo posta elektronikora medikuekin dituzten hitzorduen berri emateko eta horiek gogorarazteko.

Iradokizuna Osasun Departamentuak onartu zuen, beraz, informazio hori proposamena egin duen pertsonari jakinarazita, jarduketak amaitutzat eman genituen.

4.2.10. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko suhiltzaile izateko oposizioen gai-zerrendan bibliografia sartzeko proposamena.

.....
Arloa: Enplegu publikoko lanpostu batera heltzea.

Administrazio

hartzailea: Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentua

.....

LABURPENA:

Herritar batek proposatu zuen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko suhiltzailearen lanposturako oposizioen deialdietako oinarrietan gai-zerrendaren bibliografia sartzeko, beste autonomia-erkidego batzuetan egiten den bezala.

Horrela, herritarrak azaldu zuen bezala, oposiziogileak aukera berekin hasiko lirateke, batez ere sua itzaltzeari eta ezagutza teknikoei buruzko gaietan; izan ere, gai horiek dituzte desberdintasun handienak datuetan eta bertsioetan, eta horrela, ez litzateke berriro gertatuko azken deialdian gertatutakoa, hau da, azterketako galderen % 30 errekurritu zirela.

EMAITZA:

Nafarroako Arartekoak Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentura igorri zuen proposamena, han baloratzeko.

Departamentu horretako kontseilariak txosten bat aurkeztu zuen, eta txosten horretan adierazi zuen bibliografia zehatz hori eskaintzeko edo gai-zerrenda zehatz bat ezartzeko aldeko jarrera zuela, horretarako prestatutako bideak zabalduz.

Proposamena onartuta, amaitutzat eman zen jarduketa, eta herritarrari jakinarazi zitzaion.

4.2.11. “Igoerako oposizio-probetara” aurkezteko eremu bakarreko proposamena.

.....
Arloa: Funtzio publikoa.

LABURPENA:

Herritar batek posta elektronikoa bat igorri zuen. Posta elektronikoa horretan “igoerako oposizio-probetara” aurkezteko eremu bakar bat proposatzen zuen, beste herritar batek aurkeztutako kexa bat zela-eta, erakunde honek egindako iradokizun bati erreferentzia eginez. Interesdunak adierazi zuen iradokizun hori Nafarroako Gobernuak onartu zuela garai hartan, baina sindikatuarekin negoziatzeko zain zegoela eta ez zela aldatetarik egin araudian. Horregatik, eta Administrazioak oposizio berriak egingo zituela zirudenez, “eremu bakarreko gai hori jada indarrean egotea” eskatzen zuen.

EMAITZA:

Nafarroako Arartekoko langile bat harremanetan jarri zen proposamenaren egilearekin. Pertsona horrek adierazi zuen Osasunbidea-Nafarroako Zerbitzuko funtzionario bat dela eta proposamena “oposizioei” dagokiela, hau da, funtzionarioentzat murriztuta dagoen sartzeko prozesu selektiboen txandari.

Jakinarazi zitzaion guk egindako alde aurreko iradokizunak, proposamenean aipatzen denak, prestakuntzari/igotzeari buruzkoak direla (prestakuntzarako zerbitzu berezien adierazpena, aldi

baterako igoera-mekanismo bat da), eta hor badaude parte hartzeko mugak, Osasunbidea-Nafarroako Zerbitzuko kideak direlako.

Hala ere, muga horiek edo eremuen banaketek ez diote eragiten oposizioetako txanda murriztuetan, izan ere, Nafarroako administrazio publikoetan 5 urteko antzintasun aitortua izanez gero, zuzenean sartzen da hara.

Horrez gainera, adierazi zen proposamena bi sindikatuk emandako informazio kontraesankorraren ondorioz egin zela.

Informazio hori herritarrari igorrita eta proposamena gaizki-ulertu batean oinarrituta egin zela ikusita, amaitutzat eman genituen jarduketak.

4.2.12. Neurri judizialak betetzeko Arangurenko adingabeen zentroko hezkuntza-taldetan elkarbizitzako neurri judizialei aplikatzeko araudia berrikusteko proposamena.



Arloa: Gizarte ongizatea.

Administrazio

hartzailea: Eskubide Sozialetako Departamentua.



LABURPENA:

Herritar batek neurri judizialak betetzeko Ilundaineko (Valle de Aranguren) adingabeen zentroko hezkuntza-taldetan elkarbizitzako neurri judizialei aplikatzeko araudia berrikustea proposatu zuen.

Nafarroan orain dela gutxi jarritako zerbitzu bat dela kontuan hartuta, herritarrak adierazi zuen zentroko adingabeak oso neurri zorrotzak eta gehiegizkoak ari direla jasaten, egin dituzten delituengatik. Adibidez, telefono mugikorra ez erabiltzea, familiako kideekin ez hitz egitea edo ihes egiteko arriskua dagoelako kanpora ez irtetea. Horrez gainera, herritarrak adierazi zuen zentroko helburu

nagusia adingabeen gizarteratzea dela kontuan hartuta, zergatik ez zaien uzten kanpora irteten prestakuntza-ikastaroak egitera edo curriculumak botatzera.

EMAITZA:

Nafarroako Arartekoak Eskubide Sozialeko Departamentura igorri zuen proposamena, han baloratzeko.

Eskubide Sozialetako Departamentuak txosten bat igorri zuen, eta honako hau adierazten zuen, besteak beste:

“[...] Adierazitakoaren ondorioz, Behaketa eta Harrera Zentroak babes-sistemako baliabideak direla adierazi behar da. Premiazko eta egonaldi motzeko harrera-programa bat da, 12 eta 18 arteko urteko nerabeei zuzendua, edozein dela haien jatorria. Adingabeen egoerak berehalako esku hartzea eta babesa behar dutenentzat dago bideratuta. Horren helburua da artatutako adingabeen egoera pertsonala, familiarra eta soziala aztertu eta baloratzea, behatutako beharretarako egokiena den babes-neurria zehazteko behar adina elementu edukitzeko helburuarekin. Programa horretan gutxienez ere 60 egunez egongo dira. Hau da, baliabidearen helburua ez da delitu-egitateengatik adingabeak zentroan sartzea.

3. Urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak (adingabeen erantzukizun penala arautu duena) agintzen ditu, besteak beste: arauak hausten dituzten adingabeak tratatzeko eremu zabaleko neurri judizialak; eta beste pertsona, familia edo hezkuntza-talde batekin elkarbizitzako neurria. Erreforma-sistemako neurri bat da, eremu zabalaren testuinguruan eta alderdi hauen bitarteko eremu batean gauzatzen dena: neurri judizialeko zentro itxiak, babes-sistemaren egoitza-ezaugarrien baliabideak eta araua hautsi duen adingabearen testuinguru soziofamiliarra. Beraz, derrigorrez betebeharreko neurri bat da, askatasuna

kentzen ez duena eta legeriak adingabearen borondatezko adostasuna eskatzen duena, bai eta ordezkari legalena ere. Neurri judizial bat da eta zaintza-funtzioen helburua da jarrera alternatiboen ereduaren laguntza sozialaren eta hezkuntza sozialaren bidez, neurria jasoko duen adingabearen gizarteratze-prozesua berriro ezartzea. Beraz, ondorioztatu daiteke ez dela askatasuna kentzen duen neurri bat, hala ere, egoitza izaera duenez (eremu zabalean, baina egoitza batean bizi dira), elkarbizitza normalizatu bateko hezkuntza-ekintzaren garapena bermatzen duten oinarrizko arauak betetzea eskatzen da. Hau da bete beharreko oinarrizko arau bat (zentro guztietan bete beharrekoa): ezingo da erabili telefono mugikorra bizilekuan, baina bai handik kanpo. Bestalde esan beharra dago ez direla zuzenak herritarrak egindako zenbait baieztapen, hala nola familiako kideekin ez hitz egitea, zentrotik ez irtetea edo ikastaroak ez egitea, eta bizilekutik kanpora jarduerak ez egitea. Beste familia batekin edo hezkuntza-talde batekin elkarbizitzako programak eremu zabalean egiten dira, eta, beraz, hor egin behar da, laguntza sozialaren bidez, programari lotutako hezkuntza-ekintzaren oinarrizko zati bat.

Informazio hori proposamen-egileari igorrita, amaitutzat eman genituen jarduketak.

4.2.13. Eskelak erregistro zibilaren web-orrian argitaratzeko proposamena.

.....
Arloa: Justizia.

Erakunde

hartzailea: Espainiako Arartekoa.
.....

LABURPENA:

Herritar batek eskelak erregistro zibilaren web-orrian argitaratzeko proposamena aurkeztu zuen.

EMAITZA:

Proposamenaren edukia ikusita, Estatuaren eskumenekoa denez, Espainiako Arartekoari igorri zitzaion, balora zezan eta Estatuko organo eskudunen aurrean behar diren jarduketak egin zitzan. Proposamena Estatuko erakunde horretara eskualdatuta, amaitutzat eman genituen jarduketak, interesdunari horren berri emanaz.

5. KAPITULUA

GOMENDIOAK, IRADOKIZUNAK ETA LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPENAK



5



Gomendioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak

→ 5.1 SARRERA

Puntu honetan Nafarroako Arartekoak 2016an egindako gomendioak, iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak jaso dira.

Horretarako berezi dira, alde batetik, helmen orokorra duten gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorazpenak, herritarren multzo bati eragiten diotenak, eta kasu partikularretatik harantz daudenak (5.2), eta bestetik, egoera berezi bati dagozkion gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorazpenak, gainerakoetan eraginik ez dutenak (5.3).

Bi kasu horietan egindako gomendio, iradokizun eta gogorazpenak hurrenkera alfabetikoan sailkatuta daude, hizpide duten gaiaren arabera, eta zein administraziori -edo bestelako hartzailei- helarazi zaizkion adierazten da, edukia labur-labur aipatuta, hobeto uler daitezten.

Hobeto ulertzeko asmoz, informazioa atal hauetan antolatuta dago:

- Lehenengoa, gaia.
- Bigarrena, erakunde edo administrazio hartzailea; Nafarroako Parlamentua, Herriaren Defendatzailea, Nafarroako Gobernua, udal bat, kontzeju bat, mankomunitate bat, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, profesionalen elkargo bat edo beste erakunde bat den zehaztuta.

- Hirugarrena, espediente-zenbakia, hurrenkera honetan zehaztuta zer motatakoa den: kexa bat (espedientea), ofiziozko jarduketa bat (OJ) edo herritarren proposamen bat (P), eta, hala badagokio, arautzeko iradokizun bat (AI) proposatzen duela adierazita (alegia, arau bat egiteko edo aldatzeko proposamena dela).
- Laugarrena, aztertutako gaiaren sintesi laburra.
- Bosgarrena, gomendioaren, iradokizunaren edo legezko betebeharren gogorazpenaren testua.
- Seigarrena, onartu den ala ez edota erantzunaren zain dagoela adierazten duen oharpena.

→ 5.2. IZAERA OROKORREKO LEGE-BETEBEHARREI BURUZKO GOMENDIOAK, IRADOKIZUNAK ETA GOGORARAZPENAK

5.2.1. Enplegu publikoko lanpostuak eskuratzea

Hezkuntza Departamentuari

16/405 espedientea

Ikastetxe publikoetako irakasleentzako enplegu-zerrendak antolatzeari buruz:

- Hezkuntza Departamentuari iradoki zaio azter dezala ikastetxe publikoetarako irakasleen bi kontratazio-zerrenda antolatzea (bata Lehen Hezkuntzarako eta bestea Bigarren Hezkuntzarako), funtzionario-taldeen irizpidean oinarrituta. Halaber, iradoki zaio azaldu dezala zer arrazoitan oinarrituta

aukeratu zen, gaur egun indarrean dauden arauetan, kontratazioa kudeatzeko beste sistema bat. Izan ere, indarrean dagoen sisteman kontratazio-zerrenda gehiago daude, eta irizpide hauetan oinarritzen da sistema hori: irakaskuntza-espezialitatea eta ikasgaia irakasteko erabilitako hizkuntza.

Onartua.

16/435/AI espedientea

55/2016 Foru Aginduak, apirilaren 29koak, Hezkuntza kontseilariak emanak, Hezkuntza Departamentuan aldi baterako irakasle-lanpostuetan aritzeko izangaien zerrendak zer arairen bidez kudeatu behar diren onartzen du. Agindu horri buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio utz dezala baliorik gabe 55/2016 Foru Aginduaren, apirilaren 29koaren, lehen letra, ez baita ikusten manu horiek gaitzen dituen araurik dagoenik.
- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela Foru Aginduan adieraztera zer arrazoik bultzatu zuten, 2016-2017 ikasturtetik aurrera, zenbait lanpostu huts betetzeko zailtzat hartzea; hain zuzen, D eredia ezarrita duten eremu ez-euskalduneko ikastetxeetako euskarazko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako espezialitateetakoak.

Ez da onartu.

16/507/AI espedientea

Gorputz Hezkuntzako titulazioa duen pertsona bati Bigarren Hezkuntzako kontratazio-zerrendetan parte hartzen ez uzteari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio onartu dezala kexa aurkeztu duenak Bigarren Hezkuntzako Gorputz Hezkuntzako irakasle gisa aritzeko aurkeztutako unibertsitateko titulua.
- Departamentuari iradoki zaio azter dezala apirilaren 29ko Hezkuntza-kontseilariaren Foru Aginduko I. Eranskina, Bigarren Hezkuntzako Gorputz Hezkuntzako irakasle gisa aritzeko tituluen artean unibertsitateko titulu hori sartzeko.

Ez da onartu.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

15/643 espedientea

Funtzio Publikoaren ebazpen baten bidez, aldatu egin da desgaitasunak dituzten pertsonen lehentasun-ordena, aldi baterako kontratazioko izangaien zerrendetan (Funtzio Publikoan sartzeko hautaketa-prozesu baten ondorioz osatu ziren zerrenda horiek). Ebazpen horri buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Erkidearen 102. eta 103. artikuluetan xedatzen diren administrazioaren kabuz berrikusteko prozedurak betetzera, baldin eta Herri Administrazioak bere ekimenez hautaketa-prozesuetan emandako ekintza administratiboak aldatzen baditu, eta hori gertatu da kexak aipatzen duen administrari-laguntzaile lanposturako zerrenda onartzen duen ebazpenarekin; izan ere, Funtzio Publikoko Zuzendari Nagusiaren ebazpen baten bidez, aldatu egin da aurreko ebazpena (Funtzio Publikoan sartzeko hautaketa-prozesuen ondorioz, aldi baterako kontratazio-zerrendak osatzen zituen), eta desgaitasunak dituzten pertsonen lehentasun-

ordena aldatu da. Gogorarazi da, halaber, horrelako kasuetan interesdunei entzunaldi-izapidea izateko aukera eman behar zaiela.

- Departamentuari gomendatu zaio azter dezala ea zuzendu daitekeen kexa aurkeztu duenari eragin zaion egoera, eta itzul diezaiola haren lehentasuna, ebazpenaren ondorioz lehentasun hura izateari utzi zion datatik aurrera; gainera, Departamentuari gomendatu zaio, hala badagokio, ordain diezaiola interesdunari, kontratatzeke ez deitzeagatik.

Ez da onartu.

15/647/AI espedientea

Departamentu horrek kudeatzen dituen kontratazio-zerrendei buruz, kontuan izanda lanpostu bati uko egitea justifikatzeko arrazoiaren artean ez dela aipatzen ikasketak egiten egotea:

- Departamentuari iradoki zaio alda dezala abenduaren 31ko 814/2010 Foru Agindua, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariarena, aldi baterako kontratazioaren kudeaketa-arauak onartzen dituenak. Aldaketa horretan, kontratu baten eskaintzari uko egitea justifikatzeko arrazoiaren artean “ikasketak egiten egotea” sartzeko iradoki da, egoera horretan dauden izangaiak zerrenda horietatik ken ez ditzaten.

Onartua.

15/666 espedientea

Aldi baterako kontratazio bidez edo prestakuntzarako zerbitzu berezietan egotea aitortuta izatearen bidez, zaintzaile-lanpostua eskuratzeko 2015ean egindako deialdiari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio azter dezala, Hezkuntza Departamentuko zaintzaile-lanpostuaren hurrengo deialdietarako, gaur egun egokitzen hartzen den prestakuntza baino teknikoagoa eskatzea, lanpostu hori eskuratu ahal izateko.

Onartua.

16/582 espedientea

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko kontratazio-zerrendetan pertsona desgaituen lehentasunak aldatzeari eta pertsona desgaituei eskaintzen zaizkien lanpostuen egokitasunaren aurretiko azterketa faltari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela eskaintzen dituen lanpostuen funtzio errealak definitzera eta lanpostu horiek erabiltzen dituzten pertsonen azterketa indibiduala egitera, pertsona desgaitu bakoitzak zer lanpostu eskuratu ditzakeen jakin dezan.

Onartua.

16/620 espedientea

Pertsona desgaituak Funtzio Publikoan sartzeko neurriak ez betetzeari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela ekintza positiboko neurriak hartzera pertsona desgaituak Funtzio Publikoan sartu ahal izateko, horrela egitea xedatuta baitago Nafarroako Herri Administrazioen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren zazpigarren xedapen gehigarrian.

- Departamentuari gomendatu zaio berriki ditzala, Pertsona Desgaituen Entitate Ordezkariei Nafarroako Batzordearekin (CERMIN) elkarrizketan, pertsona desgaituak Funtzio Publikoan sartzeko ezarrita dituen ekintza positiboko neurriak, eta, haien ordez, neurri eraginkorragoak jar ditzala; azkenik, neurriak aplikatzean malgua izaten ahalegindu dadila ere gomendatu zaio.

Onartua.

Osasun Departamentua

15/683 espedientea

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizaintzako zaintza osagarrien teknikarien 69 lanpostu oposizio-lehiaketa bidez betetzeko eginiko hauta-probei buruz:

- Departamentuari hauek iradoki zaizkio:
 - a) Osatu dezala oposizioetarako gai-zerrenda zehatzagoa, doiagoa eta itxiagoa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizaintzako zaintza osagarrien teknikarien lanpostuak oposizio-lehiaketa bidez betetzeko hurrengo deialdietan, izangaiek eskatzen diren ikasgaien aurretiko ezagutza hobea izan dezaten.
 - b) Gai-zerrendaren edukiek lotura zuzena izan dezatela erizaintzako zaintza osagarrien teknikarien lanpostuari berezkoak zaizkion curriculumeko, tituluko, ezagutzetako eta esperientzietako ikasgaiekin, eta eskakizunak ere haien arabera izan daitezela.

- c) Azter dezala gai-zerrendan adituen eta ezagutzaiturrien bibliografia bat sartzea; horrela, izangaiak gomendatutako bibliografia horretan oinarritu ahal izango dira, eta haien ziurtasuna handituko da oposizioa prestatzean eta probako galderei erantzutean.

Onartua.

16/199 espedientea

Kontratazio-zerrendako hurrenkeran atzean dauden pertsonen zeladore-lanposturako deitzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio ez dezala aplikatu uztailaren 4ko 62/2014 Foru Aginduko 2.5 artikulua. Agindu hori Osasun-kontseilariak eman zuen, Osasun Departamentuari atxikitako erakunde autonomoetako zentro eta establezimenduetan aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrendak kudeatzeko arauak onesteko. Horrekin lotuta, gomendatu zaio, kontratazioak egiteko deitzen duenean, dagokion zerrendako ordenari jarraitu diezaiola.

Ez da onartu.

16/266 espedientea

Pertsona desgaituek zeladore-lanpostuak eskuratzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio azter dezala zeladore-lanpostuen aldi baterako kontratazio-prozesu baten deialdi bat egitea, pertsona desgaituei dagozkien lehentasunak kontuan hartuta.

Ez da onartu.

16/323 espedientea

Eskabideak aurkeztu ziren, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizaintzako zaintza osagarrien teknikarien (TCAE) 69 lanpostu oposizio-lehiaketa bidez betetzeko egin zen azterketako galderak aurkaratzeko. Eskabide horiei ez erantzuteari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio, ateratzen dituen hurrengo deialdietan, adieraz diezaiela epaimahai kalifikatzaileei beharrezkoa dela haien erabakien arrazoiak argitaratzea, baldin eta erabaki horiek izangaiek, hauta-probekin lotuta, aurkeztutako aurkaratzeei erantzuteko ebazpenarekin zerikusia badute.
- Departamentuari gomendatu zaio jakinaraz diezaiola kexa aurkeztu duenari zer arrazoitan oinarritu den haren aurkaratzearen ezeste partziala.

Onartua.

16/531 espedientea

Hamabost urte zerbitzuak eskaintzen eginda dituzten 55 urte baino gehiagoko pertsonen aldi baterako kontratatzearen lehentasuna kentzeari buruz:

- Gogorarazi zaio Administrazioa legez behartuta dagoela urriaren 1eko Herri Administrazioen Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 106. eta 107. artikuluetan xedatzen diren ofiziozko berrikuspenak betetzera, baldin eta Administrazioak bere kabuz aurretik hautaketa-prozesuetan emandako ekintza administratiboak aldatzen baditu, eta hori gertatu da kexan aztertutako jarduketan; horrez gain, gogorarazi zaio, horrelako kasuetan Administrazioa legez behartuta dagoela interesdunei entzunaldi-izapidea izateko aukera ematera.

- Gomendatu zaio zuzendu dezala kexa aurkeztu duenari eragindako egoera, baldin eta horrela badagokio adierazitako arrazoietan oinarrituta.

Ez da onartu.

Imozko Udalari

16/225 espedientea

Langabezian zeuden pertsonak hautatzeko jarraitutako prozeduran, kexa aurkeztu duenaren puntuazio bera zuen izangai bati eman zitzaion ofizial-lanpostua, prozeduraren oinarrietan ezarritako inolako irizpideri jarraitu gabe. Prozedura horri buruz:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela berdintasun, meritu- eta gaitasun-printzipioak betetzera langileak hautatzeko prozeduretan, baita langabezian dauden pertsonak kontratatzekeotan ere (horrek ez du esan nahi baloratu behar diren alderdietan mailaketa egiterik ez dagoenik); gainera, arlo horretan hartzen den edozein erabakitan hartu behar da hori kontuan, hautatuen artean kategoria desberdineko funtzioak esleitzeko erabakietan barne (peoia edo ofiziala, kasu honetan).
- Udalari gomendatu zaio atzera egin dezala kexa eragin duten hautaketa-prozedurako jarduketetan, eta irizpide objektiboak ezarri eta aplikatu ditzala, ofizial gisa kontratatu behar den pertsona hautatzeko.

Ez da onartu.

Iruñeko Udalarari

16/291 espedientea

Aldi baterako kontratazioko deialdi batean, parte hartzeko baldintza gisa gida-baimena izatea sartzeari buruz:

- Udalarari gogorarazi zaio, Funtzio Publikoan sartzeko prozeduretan, legez behartuta dagoela legean ezarritako baldintzak eskatzera, eta, hala dagokionean, deialdian sartu diren lanpostuei buruz plantilla organikoan adierazitako berariazko baldintzak, eskakizun gehigarririk gabe.
- Udalarari gomendatu zaio ez dezala gida-baimena eskatu berdintasun-teknikariaren lanpostua eskuratu ahal izateko.

Ez da onartu.

Eguesibarko Udalarari

16/262 espedientea

Udal zerbitzuetako langileak kontratatzeari buruz, indarrean dagoen legedia urratu dela iritzita:

- Udalarari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela beti publizitate-, meritu- eta gaitasun-printzipioak betetzera bere plantillako lanpostuak (kexan adierazitakoak barne) eskuratzeko prozesuetan, aldi baterakoak edo behin betikoak izan lanpostu horiek.

Onartua.

5.2.2. Nekazaritza

Erriberriko Udalari

16/197 espedientea

Udal horrek esleitzen dituen herri-ustiapenak ematea bertan behera uzteari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Administrazio Erkidearen 30/1992 Legearen 127. artikulutik 138. artikulura bitartekoak betetzera. Artikulu horiek zehapen-prozedurei buruzkoak dira, eta abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuak, Zehatzeko Ahalmena Baliatzeko Prozedurari buruzko Araudia onartzen duenak, garatzen ditu.
- Udalari gomendatu zaio ezeztatu eta ondoriorik gabe utz dezala, baliogabea izateagatik, kexa eragin duen zehapena. Zehapen horrek kexa aurkeztu duenari esleitutako herri-ustiapenak ematea bertan behera uztea ekarri du. Gainera, ondorengo bahitura-prozedura ere ezeztatzeko eta ondoriorik gabe uzteko gomendatu zaio Udalari.

Ez da onartu.

5.2.3. Gizarte-ongizatea

A) Gizarteratzea

Eskubide Sozialetako Departamentuari

16/172 espedientea

Gizarteratzeko errentaren izapideak egiteari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela gizarteratzeko errentaren izapideak egiten diharduten organo administratiboen arteko koordinazioa bermatzera, eta, bereziki, Departamentu horretako zerbitzuen eta oinarritzko gizarte-zerbitzuen artekoa.
- Departamentuari gomendatu zaio azkar jakinaraz diezaiela herritarrei gizarteratzeko errentaren diru-laguntza kobratzea aldatu edo erregularizatu behar denean, kexan deskribatutako egoeraren antzekoak ez gertatzeko.

Onartua.

16/495 espedientea

Azken bi urteetan Nafarroan bizi izan dela egiaztatu ezin duela-eta, bermatutako errenta eskuratzeko ezintasunari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio aitor diezazkiela, oro har, kanpoan bizi diren eta itzultzen diren biztanle nafarrei Nafarroan bizi direnentzat ezarrita dauden gizarte-laguntzak eskuratzeko eskubide berberak, Foru Komunitatean bizitzen daramaten denbora kontuan hartu gabe.

- Departamentuari gomendatu zaio azter dezala, aurrerago adierazitakoaren arabera, ea kexa aurkeztu duenari, bere egoeran, bermatutako errentarako eskubidea aitortzea dagokion.

Ez da onartu.

16/556 espedientea

Diru-laguntza berritu behar denean, gizarteratzeko errenta kobratzeko atzerapena izateari buruz:

- Gomendatu da har daitezela neurriak, gizarteratzeko errentak edo bermatutako errentak berritu behar direnean, onuradunei egin beharreko ordainketak etenik gabe egin daitezen, eta, horrela, diru-laguntzaren kudeaketa-jardueratik eratorritako atzerapenik egon ez dadin.

Onartua.

Iruñeko Udalari

16/233 espedientea

Gizarteratzeko errentaren eskabide bat izapidetzeari uko egiteari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarren gizarteratzeko errenten eskabideak izapidetzera, errentak emateko eskumena Nafarroako Gobernuari baitagokio.

Onartua.

B) Desgaitasuna duten pertsonak babestea eta gizarteratzea

Eskubide Sozialetako Departamentuari

OJ16/12

Adimen-desgaitasuneko zentro batera egindako bisitari buruz:

- Departamentuari hauek gomendatu zaizkio:
- Barne-arautegiari dagokionez, araudiak eskatzen duen barne-arautegia egitea azkartu dadila.
- Familiei eman beharreko informazioari dagokionez, eman dakizkiela honako hauek gurasoei edo zentroan sartuta dauden egoiliarren familiako arduradunei:
 - Pertsona erabiltzaileekin lortu nahi diren helburuei buruzko informazioa, bai eta kasu bakoitzari egiten zaion ebaluazioari eta jarraipenari buruzko informazioa ere.
 - Onartuta dagoenean, barne-arautegiaren kopia bat, ezagut dezaten.

Onartua.

Cintruénigoko Udalari

15/660/AI espedientea

Mugikortasun murriztua duen pertsona bati udalerriko bide publikoetan batetik bestera motordun patinetarekin ibiltzeko debekuari buruz:

- Udalari iradoki zaio azter dezala, dagokion udal-ordenantzaren bidez, hirigunean motordun patineteak edo antzeko tresnak ibiltzea arautzea.
- Udalari gomendatu zaio utz diezaiola kexa aurkeztu duenari espaloian eta bizitegi-kaletzat hartzen direnetan motordun patinetearekin ibiltzen.

Ez da onartu.

C) Adineko pertsonentzako babesa

Eskubide Sozialetako Departamentuari

15/478 espedientea

Egoitza-zerbitzuko plaza baten kuota igotzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio ez ditzala egin gehiegizko eta neurritz kanpoko igoerak egoitza-zerbitzuko plazen prezio publikoetan, eta, horretarako, berrius ditzala Pertsonen Garapenerako eta Autonomiarako Nafarroako Agentziak akordio bidez onartutako prezioak finkatzeko irizpideak. Kexa eragin duen kasuari dagokionez, Departamentuari gomendatu zaio zuzendu dezala interesdunak betetzen duen plazan izandako neurritz kanpoko igoera.

Ez da onartu.

16/42 espedientea

Nafarroako Pertsona Helduak Tutelatzeko Fundazioak ZIU ospitaleratutako pertsona bati ustez arretarik ez emateari buruz, kontuan izanda ZIU fundazio horren ardurapean dagoela:

- Departamentuari gomendatu zaio gogoraz diezaiola Nafarroako Pertsona Helduak Tutelatzeko Fundazioari pertsona heldu horien zaintzari berezkoak zaizkion funtzio guztiak bete behar dituela, eta funtzio horien artean daudela kexan deskribatzen direnak.

Onartua.

16/121 espedientea

Kotizazio gabeko erretiroko pentsio bat ukatzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio azter dezala ea diru-sarrerak aintzat hartzea komeni den kotizazio gabeko erretiroko pentsio bat onartzean, diru-sarrera haiei ezkontide ohiari ordaindu behar zaion pentsio konpentsatzailearen zenbatekoa kenduta.

Ez da onartu.

16/492/AI espedientea

Mendekotasunaren kalifikazioa aldatu dela-eta, egoitza-zerbitzuarekin lotutako diru-laguntza gutxitzeari buruz:

- Eskubide Sozialen Departamentuari iradoki zaio alda ditzala zerbitzuekin zerikusia duten diru-laguntzak arautzeko foru-aginduak (kasu honetan, egoitza-zerbitzuarekin zerikusia duena), mendekotasun-mailak gora egiteak diru-laguntza hori gutxitzea ekar ez dezan, inola ere.
- Departamentuari gomendatu zaio eskain diezaiola interesdunari egoitza-zerbitzuko plaza bat, publikoa edo kontzertatua, horrela baitagokio haren mendekotasun-

mailari; eta, gainera, legeak bermatzen duen laguntza bat da hura.

- Departamentuari gomendatu zaio ondoriorik gabe utz dezala interesdunak egoitza-zerbitzuarekin lotuta jasotzen duen diru-laguntzaren zenbatekoa gutxitzea, eta, horrenbestez, Pertsonen Garapenerako eta Autonomiarako Agentziaren zuzendari gerentearen ebazpena ere bai, diru-laguntza gutxitzea baita ebazpen horren ondorioa.

Ez da onartu.

16/517 espedientea

Nafarroako Pertsona Helduak Tutelatzeko Fundazioaren gardentasun faltari buruz:

- Nafarroako Pertsona Helduak Tutelatzeko Fundazioari iradoki zaio areagotu ditzala bere zaintzapeko pertsonen baliabide ekonomikoak kudeatzearekin lotutako informazioa emateko ezarrita dituen bideak eta baliabideak, eta azter dezala baliabide horien kudeaketari eta erabilerari buruzko aldizkako txosten bat egitea eta eskatzen dutenei ematea (hiru hilean edo lau hilean behin, esaterako); kexa dela-eta egindako txostenean eman den informazioa edo antzekoa ematea litzateke egokiena.

Onartua.

Iruñeko Udaleri

14/905 espedientea

San Fermin jaietan egoitza bateko egoiliarrek jasan behar dituzten eragozpenak azaltzen dituen idazki bati ez erantzuteari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarrek egiten dizkieten eskaerei eta eskabideei berriaz erantzutera, bai eta haiekin lotuta hartutako erabakien berri ematera ere, aplikatzen zaion araudian ezarritako epearen barnean.

Onartua.

San Martín de Unxeko Udalari

16/55 espedientea

Aurkeztutako eskabide bati Udalak ez erantzuteari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarrek egiten dizkieten eskaerei eta eskabideei berriaz erantzutera, bai eta haiekin lotuta hartutako erabakien berri ematera ere, aplikatzen zaion araudian ezarritako epearen barnean. Eta horrela jardun beharko luke, esaterako, kexa hori aurkeztu duen pertsonaren eskabidearekin.

Ez da onartu.

Irunberriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari

16/57 espedientea

Inguruko egoitza batean sartuta egondako familiako bati buruzko informazioa eskatzeko aurkeztutako bi eskabideri ez erantzuteari buruz:

- Mankomunitateari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarrek aurkeztu dizkieten eskabide eta eskari guztiei berriaz erantzutera, behar den denboran eta moduan.

Onartua.

D) Mendekotasuna duten pertsonentzako arreta.

Eskubide Sozialetako Departamentuari

15/518 espedientea

Mendekotasun-espediente bat ebazteko gehiegi atzeratzeari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela gehienez ere hiru hilabeteko epean ebaztera mendekotasun-egoerako balorazioen prozedurak, eta eskatu zaio lehenbailehen ebatz dezala kexa aurkeztu duenaren senarraren berrikuspen-eskabidea.
- Departamentuari gomendatu zaio, oraindik beharrezkoa izanez gero, behar diren neurriak har ditzala egindako txostenean aipatzen den txosten mediko neurologikoa lortzeko; izan ere, txosten hori garrantzitsua izango litzateke prozedura ebazteko, ofizioz bultzatuko bailuke.

Onartua.

15/652 espedientea

Mendekotasun-egoera bat ez aitortzeari eta osasun-egoera horrek eragindako gastuei eta mugei aurre egiten laguntzeko diru-laguntzak ez izateari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio azter dezala gero eta adineko pertsona gehiagoren egoera orokorra (beren etxeetan, laguntzeko senitartekorik gabe, diru-sarrera oso gutxirekin, gaixotasun kronikoekin eta eguneroko zereginak egiten uzten ez dieten mugekin), erantzun-neurri egokienak aztertzeko eta hartzeko, eta, horren ondorioz, marjinaziorik ez egotea

eta adinekoek beren etxean jarraitzea lortzeko, mendekotasun-baremo ofizialek neurtzen dutenaz harago.

- Departamentuari iradoki zaio sakon azter dezala kexa aurkeztu duenari diru-laguntza emateko aukera. Diru-laguntza hori diru-sarrerak osatzeko izango da; horrela, etxeko zereginetan lagunduko dion pertsona bat kontratatu ahal izango du, eta bere etxean bizitzen jarraitu ahal izango du.

Onartua.

16/34 espedientea

Nafarroako Enplegu Zerbitzua-Nafar Lansarek lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko laguntza bat ezesteari eta ezeste horri jarritako errekurtsoei buruzko informaziorik ez jasotzeari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 89.3 artikuluan adierazitakoak betetzera.
- Departamentuari gomendatu zaio bidal diezaiola kexa aurkeztu duenari, dagoeneko bidali ez badio, laguntza ezesteko ebazpena, eta adieraz diezazkiola bertan zer errekurtsorik aurkez daitezkeen ebazpenaren aurka, eta zer epetan.

Onartua.

16/86/AI espedientea

Onuradunaren mendekotasun-egoera dela-eta jasotzen duen diru-laguntzan oinarrituta, eszedentziagatiko diru-laguntza ezesteari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio, hurrengo deialdietarako, ken dezala edo alda dezala Gizarte Politiken kontseilariaren martxoaren 9ko 180/2015 Foru Aginduko hamalagarren oinarriko bigarren letrak ezartzen duen bateraezintasunezko araua; izan ere, arau horrek ez du uzten eszedentziagatiko diru-laguntzak eskuratzen, baldin eta eszedentzia horiek diru-laguntzak jasotzen dituzten mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko eskatu badira.

Ez da onartu.

16/518 espedientea

Onartutako mendekotasun-mailaren arabera jaso behar liratekeen diru-laguntzak erabakitzean izandako atzerapenari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela, legeak ezarritako gehieneko sei hilabeteko epean, mendekotasun-sistemako laguntzen aitortpenak eta mendekotasun-egoeren balorazio-prozedurak izapidetzera, ebaztera eta jakinaraztera, eta behar diren neurriak hartu behar dituela legezko gehieneko epe hori bete dadin.

Onartua.

E) Haurren eta nerabeen babesa

Eskubide Sozialetako Departamentuari

15/605 espedientea

Hiru seme-alaba gazteenak familiaren etxera itzultzeko eskatzeko 2015ko abuztuan aurkeztutako bi eskabideri ez erantzuteari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarren eskabideei berariaz erantzutera, eta hartzen dituen erabakiak berariaz ezarritako epeetan jakinaraztera; kexan aipatzen diren eskabideei dagokienez ere, goian adierazi den bezala erantzun behar zaie.
- Adingabeak familiaren etxera berehala itzultzeari dagokionez, Departamentuari gomendatu zaio berma dezala adingabe horiek entzun diezaieten duten eskubidea; horrez gain, gomendatu zaio har dezala dagokion berariazko erabakia eta eman ditzala erabaki horren arrazoiak, adituen txosten tekniko edo profesioaletan oinarrituta (interesdunek eskuragarri izan behar dituzte txosten horiek).

Onartua.

16/173 espedientea

Adingabeen babeserako zentro baten kudeaketari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio, elkarte batek kudeatutako zerbitzu baten titularra den aldetik, elkarte horri gogoraz diezaiola behartuta dagoela gazteek behar dituzten baliabideak jartzera, gazte horiek kanpoko instantziei, ordenamendu juridikoaren arabera, erreklamazioak eta kexak aurkezteko duten eskubidea baliatu ahal izan dezaten; horrela, gazteok benetan eta eraginkortasunez bideratu ahal

izango dituzte beren erreklamazioak eta kexak, bai zentroaren funtzionamenduari buruz, bai bertan ematen zaien tratuari buruz.

Onartua.

16/355 espedientea

Adingabe baten babesgabetasunaren aitortza-prozedurari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela adingabeak zaintzeko hartzen dituen behin-behineko neurriak behar adina eta egoki justifikatzera; horrez gain, gomendatu zaio, kasu honetan, azter dezala hartutako neurria baliorik gabe uztea, ez baita egiaztatu “urgentzia eta larritasun bereziko” egoera, ez eta adingabearen babesik ezaren aztarna “nabarmenik” ere.

Onartua.

OJ15/28

Haurren eta nerabeen sustapenari, laguntzari eta babesari buruz, honako iradokizun hauek egiten zaizkio Eskubide Sozialen Departamentuari:

- 1) Berrikus dezala haurren eta nerabeen babesari buruzko forulegedia, Haurren Eskubideen Konbentzioaren eskakizunetara egokitzeko, eta, hala badagokio, adingabeen eskubideak hobeto bermatzea dakarren eta aplikatzekoa den estatuko legedira ere bai.

Gai horri buruz, Nafarroako Parlamentuak, 2016ko martxoaren 4an, bi ebazpen onartu zituen; haien bidez,

haurren eta nerabeen babesari, laguntzari eta sustapenari buruzko foru-lege berri bat egitearen alde egiten zen.

- 2) Arindu dezala gizarte-zailtasuneko egoeran dauden haur eta nerabeen arretarako II. Plana egitea.

Gai horri buruz, Nafarroako Parlamentuak, 2016ko martxoaren 4an, bi ebazpen onartu zituen; haien bidez, haurrei laguntzeko plan berri bat egitearen alde egiten zen.

- 3) Ebalua dezala adingabeen babeserako sistemak eta adingabearen babes-arloan diharduten agenteek (haurren eta nerabeen babes, sustapen eta arretarako zerbitzua, oinarrizko gizarte zerbitzuak, HNATak, laguntzaile gisa diharduten gizarte ekimeneko erakundeak, etab.) gaur egun duten baliabide-zuzkidura; izan ere, esku hartzeko eta laguntzeko premiei erantzuna emateko gabeziak edo zailtasunak erakuts ditzaketen adierazleak antzeman dira.

Ebaluazio hori egiteko, kontuan hartu beharko litzateke zein den adingabeen babeserako sisteman aurreikusten diren edo aurreikus daitezkeen beharren bilakaera, azken urteotan antzemandako gabeziei erreparatuta.

Bereziki, adingabearen babeserako sistemak baliabide nahikoa izan ditzan lagundu behar da -giza baliabideak, materialak edo teknikoak-, legez xedatutako funtzioak behar bezala gauzatzeko edo, ahal izanez gero, egungo zuzkidura berrindartzeko.

Horri buruz, Nafarroako Parlamentuak, 2016ko martxoaren 4an, zenbait ebazpen onartu zituen; haien bidez, oinarrizko osasun-laguntza berrantolatzearen alde, oinarrizko gizarte-zerbitzuen finantzaketa hobetzearen alde eta oinarrizko zerbitzuetako giza baliabideak indartzearen alde egiten zen.

- 4) Jarraitu dezala adingabeen desinstituzionalizazioari laguntzeko jarduera-ildoekin.
- 5) Susta dezala adingabeen eskubide eta betebeharren zabalkunde-lana ahalik eta gehien, bai gizarte-esparruan, oro har, bai adingabeen artean ere.
- 6) Jarraitu dezala adingabeei arreta ematen dieten administrazio-organoen artean koordinazioa hobetzeko lan egiten, batez ere hezkuntza-, osasun- eta gizarte-arloetan, arrisku-egoerei dagokien prebentzio eta babes goiztiarra sustatzeko, eta, ahal den neurrian, sarean funtzionatuko duen sistema bultzatzeko.

Sendotu dezala, bereziki, adingabeekin diharduten gizarte-ekimeneko erakundeekiko koordinazioa. Nafarroako Parlamentuak, 2016ko martxoaren 4an, ebazpen bat onartu zuen, boluntario sozialen lana babestu eta bultzatzen.

- 7) Gauzatu ditzala, prebentzioaren alor horretan, gizarte-sentsibilizaziorako, familia-laguntzarako eta gizarte-harreman eta -aisiarako jarduketak eta programak.
- 8) Indartu dezala esku-hartze goiztiarra arrisku-egoeretan, egoera horiek antzemateko dauden baliabide eta mekanismoen bidez. Gainera, ahal den neurrian, eragotz dezala arrisku-egoera horien bilakaerak adingabeei babesgabetasuneko egoera aitortu behar izatea eragitea; eta, azkenik, susta dezala arrisku-egoeran dauden adingabeak dituzten familiei laguntza ematea, adingabe horiek beren eremu naturalean egoten jarraitu dezaten.
- 9) Areagotu ditzala informazioa eta harremana zenbait familiarekin (adingabeen babesik gabeko egoera aitortuta dutenak eta adingabeak familia-nukleotik bananduta

dituztenak) familia-ingurura itzultzeko beharrezko neurriak sortuz, ahal den neurrian; dena dela, betiere adingabearen interes gorenari eman behar zaio lehentasuna.

- 10) Susta dezala familia-harreraren modalitatea (kontzientziazioa, familia hartzaileei prestakuntza, laguntza ekonomikoa, etab.), bereziki haur txikiaren kasuan.

Halaber, jarraitu dezala familia-harrerari lotutako berariazko baliabideak (premiazkoak eta espezializatuak, esaterako) ezartzen eta bultzatzen.

- 11) Areagotu ditzala gizarte-gatazka egoeran dauden adingabeentzako programak, prebentzio-, hezkuntza-, kultura- eta gizarteratze-neurriekin, bai eta, hala badagokio, lan-neurriekin ere, arreta-programa horietan familientzako arreta eta laguntza bereziak integratuz.
- 12) Indartu ditzala autonomia pertsonaleko programak, laguntza-neurri ekonomikoak eta teknikoak hartuta, neurri judizial edo administratiboren bat izan duten nerabeak helduarora egoki igaro ahal izan daitezen.
- 13) Erreforma-sistemaren esku-hartzea ahal den guztian gutxitzeko betebeharrari dagokionez, ahaleginak berrindartu ditzala, gatazkek eta jokabide zigorgarriak ekar ditzaketan egoerak prebenitzeko eta detektatzeko, eta koordina ditzala inplikaturako instantzien arteko jarduerak: familia-, gizarte- eta hezkuntza-esparrukoak, batez ere.

Onartua.

OJ16/6

Adingabeen babeserako pisu bati egindako bisitari buruz:

- Departamentuari honako iradokizun hauek egin zaizkio:

A) Adingabeei zuzendutako informazioari buruz:

- Esan dakiela adingabeei, idatziz eta modu argi eta berariazkoan, zein diren, pisuan dauden bitartean, haien eskubideak eta betebeharrak.

B) Kanpoko instantziei erreklamazioak aurkezteko eskubideari buruz:

- Behar diren baliabideak ezarri beharko dira adingabeek, askatasunez, kanpoko instantziei erreklamazioak eta kexak aurkezteko eskubideak baliatu ahal izan ditzaten, ordenamendu juridikoaren arabera; horrela, benetan eta eraginkortasunez bideratu ahal izango dituzte erreklamazio eta kexa horiek, bai zentroaren funtzionamenduari buruzkoak, bai bertan ematen zaien tratuari buruzkoak.

C) Familiei zuzendutako informazioari buruz:

- Eman dakiela gurasoei edo zentroan sartutako adingabeen familiako arduradunei adingabeekin lantzen diren helburuei eta kasu bakoitzari egiten zaion jarraipenari buruzko informazioa.

Onartua.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

16/122 espedientea

Neurri judizialak betetzen diren zentroetan dauden adingabeak lekualdatzeko Nafarroako Foru Poliziak duen moduari buruz:

- Departamentuari (Nafarroako Foru Polizia) gomendatu zaio egin ditzala adingabeei dagozkien lekualdaketak 2010-05 erreferentziako Lanerako Prozedura Normalizatuaren arabera, errotuluak dituzten polizia-ibilgailuak eta uniformedun poliziak erabili gabe, eta, ahal den neurrian, euste-neurri berezirik erabili gabe.

Onartua.

Iruñeko Udalari

16/235 espedientea

Kexa aurkeztu duenaren seme-alabekin zerikusia duten jarduketei eta erabakiei buruzko informazio faltari buruz, eta Iruñeko Haur eta Nerabeen Arretarako Taldeko (HNAT) zenbait langilerengandik jasotako tratuari buruz:

- Gogorarazi da, oro har, agintariak eta funtzionario publikoak legez behartuta daudela herritarrak beti begirunez eta adeitasunez tratatzera.
- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela kexa aurkeztu duenak proposatu dituen gaiak ebaztera eta udalak haren seme-alaben jarraipenari buruz hartutako erabakien arrazoiak ematera, formari nahiz edukiari dagozkionak izan erabaki horiek.

Onartua.

F) Beste batzuk

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuari

16/442 espedientea

Nafarroako Gobernuak LGTBI kolektiboaren arretarako berariazko esparru bat ez sortzeari buruz, eta kolektibo horri arreta profesionalizatua emateko zerbitzua sortzeko lankidetzeta-hitzarmena sinatzen atzeratzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio LGTBI kolektiboaren arretarako berariazko esparrua sor dezala, 2016ko apirilaren 21eko Nafarroako Parlamentuaren Ebazpenean adierazitako borondatearen ildotik.

Onartua.

5.2.4. Kultura

Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuari

16/539 espedientea

Atzerriko zentroetan edo zentro nazionaletan ikasketa artistikoak sakontzeko bekak emateko prozedurari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela, diru-laguntzak emateko ateratzen dituen deialdietan, onuradun izan daitezkeenak ebaluatzeko izendatzen diren organo kolegiatuen banan-banako osaera argitaratzera.

Onartua.

Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoari

16/452 espedientea

Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren liburutegi publikoen irekiera-orduei buruz:

- Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuari eta Nafarroako Unibertsitate Publikoari iradoki zaie azter dezatela kudeatzen dituzten liburutegien, edo haietako batzuen, ordutegiak luzatzea, arratsaldeko zerbitzua udaldian ere jarraitutasunez bermatzeko, eta larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan irekiera-ordu gehiago eskaintzeko, erabakitzen denaren arabera.

Ez da onartu.

Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuari eta Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari

OJ16/17

Noaingo guduaren bosgarren mendeurrenari buruz:

- Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuari eta Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari iradoki zaie azter dezatela, Galarko Udalarekin lankidetzan, Noaingo guduaren bosgarren mendeurrenerako honako hauek egitea:
- Eskumena duenak edo dutenek Noaingo gudua gertatu zen lurralde-eremuaren zati bat ordenatzeko eta babesteko plan edo tresna bat egitea, aurkeztea eta izapidetzea, espazio

zedarritu horrek etorkizunean eta behar den neurrian bere izaera landatarra gorde dezan. Iradoki den babesak ez du zertan eragotzi lur horien nekazaritza-ustiapena edo jabeek eta titularrek ematen dizkieten beste batzuk.

- Lurralde-eremu horretan, denboran zehar, interesa duten herritarrentzako ibilbide kulturalak ezartzea, eta, egokienak direla irizten zaion lekuetan, monumentuak, monolitoak, seinaleak eta abar eraikitzea; Salinasko eraikin batean interpretazio-zentro bat jartzea ere azter daiteke, Nafarroako historiako hain gudu garrantzitsuari eta haren inguruabarrei buruz interesa duten pertsonen informazioa emateko.

Onartua.

5.2.5. Kirola

Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuari eta Nafarroako Unibertsitate Publikoari

16/351 espedientea

Kexa aurkeztu duena, Nafarroako Futbol Epailen Batzordeko epailea, dagokion entzunaldi-izapidea egin gabe botatzeari buruz:

- Nafarroako Futbol Federazioari gogorarazi zaio Nafarroako Futbol Epailen Batzordea legez behartuta dagoela aurkezten zaizkion bateragarritasun-eskabideei arrazoizko epe batean erantzutera, eta eskabide horiei ez erantzuteak ezin diela babesgabetasunik eragin pertsona interesdunei.
- Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela legeak Nafarroako Futbol Federazioarekin lotuta esleitu dizkion eskumenak betetzera,

bereziki Federazio horren jarduerak jarraitzeko eta ikuskatzeko ahalmenei dagokienez, eta Federazioko barne-organoak hartzen dituzten erabakiak direnak direla.

- Nafarroako Futbol Federazioari gomendatu zaio azkartu dezala erreklamazioaren egileak Jurisdikzio eta Kontziliazio Batzordeari aurkeztutako kexari eman behar zaion erantzuna.

Ez da onartu.

Nafarroako Futbol Federazioari

16/210 espedientea

Futboleko epaile izateko kategorian sartzeko eta bertan jarraitzeko adin-eskakizunari buruz:

- Federazioari gomendatu zaio arautu ditzala bere estatutuetan edo bere izaera orokorreko arauetan futboleko epaile gisa aritu ahal izateko adin-eskakizunak, edozein kategoriatarako eta xedatuta ez dauden kasuetarako (hala nola futboleko epaileen laguntzaileen gutxieneko adina), eta eskakizun horiek, betiere, arrazoizkoak eta behar bezala justifikatuak izan daitezela.

Ez da onartu.

5.2.6. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea Herritarren parte-hartzea. Gardentasuna

Desojoko Udalari

16/349 espedientea

Aurkeztutako bi eskabideei ez erantzuteari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela, herritarrekin dituen harremanetan, Nafarroako Tokiko Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 318. artikuluan xedatua errespetatzera, bai eta azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 42. artikuluan xedatua ere, eta, horren ondorioz, aurkezten zaizkion eskabide guztiei epearen barruan erantzutera.

Onartua.

Galarko Udalari

16/287 espedientea

Aurkeztu diren hainbat eskabideri ez erantzuteari eta administrazio-espediente bateko interesdunetako bati espediente hori eskuragarri ez jartzeari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarrek aurkeztutako eskariak ebaztera, kexa aurkeztu duenak egindako eskariak barne.
- Udalari gomendatu zaio jar diezaiola eskuragarri interesdunari eskatu duen administrazio-espedientea,

espediente horretakoa baita jakinarazi zaion bilketa-jarduketa.

Ez da onartu.

Garesko Udalari

16/2 espedientea

Administrazioaren jurisdikzio-ordenaren aurrean bere interesen defentsa legitimoa egiteko behar duen dokumentazioa ematea ezesteari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela uztailaren 2ko Nafarroako Tokiko Administrazioari buruzko 6/1990 Legearen 95.1 artikuluan xedatua betetzera, eta espedientearen txostenak dauden ala ez dauden egiaztatzena.
- Udalari gomendatu zaio kexa aurkeztu duenari eman diezaiola eskabidean eskatu duen informazio guztiaren kopia bat, dagoeneko eman ez badio.

Onartua.

Zangozako Udalari

16/559 espedientea

Informazio-eskari batzuei ez erantzuteari buruz:

- Zangozako Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarrek aurkeztzen dizkieten eskabide eta eskari guztiei berariazko erantzuna ematera, behar den denboran eta moduan, eta legeek xedatutako epeen barruan.

Onartua.

5.2.7.Nafarroako Foru Zuzenbide Zibila

Nafarroako Parlamentuari

OJ16/8/AI

Semea edo alaba bere gurasoek aitortzea dela-eta, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Bildumaren edo Foru Berriaren 69. legean jasotako gaur egungo araudiari buruz:

- Parlamentuari iradoki zaio Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Bilduma edo Foru Berria berrikusteko eta gaurkotzeko eraturako ponentziak azter dezala, eta, hala badagokio, proposa dezala 69. legearen amaieran letra berri bat sartzea, ezkontzatik kanpoko seme-alabatasunaz erabakitzeke. Letra horretan, Kode Zibilaren 124. artikuluan egiten den antzera, zera jasoko litzateke: gurasotasunari uko egiteko, amak jaiotza-inskripzioa eteteko eskatu besterik ez duela izango, inskripzioaren osteko urtebetean zehar. Halaber, Parlamentuari iradoki zaio aztertu eta proposa dadila, aitak inskripzioa baieztatzea eskatuz gero, epaitegien onarpena beharrezkoa izatea, eta, dagokion legediaren arabera eskatu badaiteke, Fiskaltzaren entzunaldia ere bai.

Onartua.

OJ16/9/AI

Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Bildumako edo Foru Berriko 257. legearen lehen letrako eskakizunari buruz (hau da, alargunak bere senarraren heriotzaren ondoko sei hilabeteetan inbentarioa osatzeko eskakizuna, fideltasunaren legezko gozamina eskuratzeko):

- Parlamentuari iradoki zaio Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Bilduma edo Foru Berria berrikusteko eta

gaurkotzeko eraturako ponentziak azter dezala, eta, hala badagokio, proposa dezala Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Bildumako 257. legerako lehen paragrafoa aldatzea, hartan arautzen baita fideltasunaren legerako gozamina eskuratzea; izan ere, erregulazio hori zuzengabetzat eta kaltegarritzat hartzen da herritarrentzat eta, bereziki, emakume alargunentzat.

Onartua.

OJ16/35/AI

Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Bildumako edo Foru Berriko 272. legeak bigarren aldiz ezkonduko testamendugilearen erabakitzeke ahalmenari jartzen dizkion mugei buruz:

- Parlamentuari iradoki zaio Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Bilduma edo Foru Berria berrikusteko eta gaurkotzeko eraturako ponentziak hel diezaiola gaiari eta azter dezala ea araudi horretako 272. legerari aldaketa bat egin dakioken, baldin eta egokia iruditzen bazaio gaur egungo testamendugilearen erabaki askeari legez berariaz ezarritako muga (lehengo ezkontzako seme-alaben aldekoa) baliogabetzea.

Onartua.

5.2.8. Hezkuntza

A) Hezkuntza-arloko plangintza

Hezkuntza Departamentuari

16/28 espedientea

Bigarren Hezkuntzako institutu batean British programako ikasketak egiteko asmoarekin matrikulatzeari buruz:

- Hezkuntza Departamentuari gomendatu zaio kexa aurkeztu duenaren eskaera onartu eta haien seme-alabak gurasoek eskatutako Bigarren Hezkuntzako institutuan matrikulatzea erraztu dezala, haien gurasoek hautatu zuten British programa elebidunaren barnean jaso dezaten irakaskuntza. Nolanahi ere, zer ikastetxe zehatzi atxikitzen zaion kontuan hartu gabe, Departamentuari gomendatu zaio ikasle horiei aukera eman dakiela gurasoek hautatu zuten ingeles-gaztelania irakaskuntza elebiduna ikastetxe publiko batean jasotzen jarraitzeko.

Ez da onartu.

B) Haur hezkuntzako lehen zikloa (0 - 3 urteko zikloa)

Hezkuntza Departamentuari

16/150/AI espedientea

Haur Eskoletako onarpen-baremoari, zerbitzuaren truke ordaindu beharreko tarifak zehazteari eta familia gurasobakarrak diskriminatzeko posibilitateari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio 0-3 urteko Haur Eskoletan sartzea arautzen duen araudian, azter ditzala eta har ditzala familia gurasobakarrei laguntzeko neurriak, bai zerbitzuan onartuak izateko, bai zerbitzu hori ordaintzeko.

Onartua.

C) Ikasleak ikastetxeetan onartzea

16/117/AI espedientea

Kexa aurkeztu duenaren alaba eskatutako itunpeko ikastetxean ez onartzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio berrikus ditzala funts publikoekin finantzatzen diren ikastetxeetako ikasleen onarpen-prozesuak eratzten dituzten arauak (onarpen-baremoa, eragin-eremuak eta abar), ikastetxearen eta etxearen edo lantokiaren arteko hurbiltasunari balio bereizle handiagoa emateko, irizpide horren lehentasunezko izaeraren arabera.
- Departamentuari gogorarazi zaio berrikus dezala kexa aurkeztu duenaren eskabidea, eta, ahal den neurrian, onar dezala haren alaba amak aukeratutako ikastetxean eskolatzea, ikastetxearen eta familiaren etxearen edo amaren lantokiaren arteko hurbiltasunaren legezko eta lehentasunezko irizpidearen arabera.

Ez da onartu.

16/240 espedientea

Kexa aurkeztu duenaren iritziz, Haur Hezkuntzako lehen mailako behin-behineko izen-ematean gertatzen den bidegabekeriari eta gardentasun faltari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartua dagoela herritarrek aurkezten dizkieten eskabide eta eskari guztiei berariazko erantzuna ematera, behar den denboran eta moduan.

Ez da onartu.

16/414 espedientea

Kexa aurkeztu duenaren semea eskatutako ikastetxean ez onartzeari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela osatugabetzat hartzen diren eskabideak osatzeko laguntza ematera, eta, horrez gain, behartuta dagoela ez eskatzera jarduneko Administrazioak dagoeneko dituen dokumentuak edo datuak.
- Departamentuari gomendatu zaio onar dezala kexak aipatzen duen interesdunaren eskabidea, 2016ko ekainekoa, eta onarpen horrek bere ondorioak izan ditzala, eskatutako ikastetxe publikoan matrikulatzeari dagokionez.

Onartua.

16/498/AI espedientea

Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ikastetxeetako onarpenak arautzen dituen araudian, familia gurasobakarrak aintzat ez hartzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio, ikastetxeetako onarpenak arautzen dituen araudian (Haur Hezkuntzako bigarren zikloa), azter dezala eta har dezala familia gurasobakarrei laguntzeko neurriren bat, lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko eskubidea babesteko.

Ez da onartu.

16/538/AI espedientea

Hezkuntza Departamentuak seme-alabak ikastetxez aldatzeko izen-ematea zenbait baldintzatan eskatzen baimentzeari buruz (gurasoak dibortziatuta daudenean, gurasoetako batek eskatzea, bestea ados dagoela dioen erantzukizunpeko adierazpenarekin eta haren baimenik gabe):

- Departamentuari gomendatu zaio alda dezala abenduaren 13ko 112/2013 Foru Agindua, Hezkuntza kontseilariarena, zenbait egoeratan (aitak edo amak bananduta edo dibortziatuta daudenean, izatezko bikoteek elkarrekin bizitzeari utzi diotenean edo gurasoen nahiz legezko ordezkarien arteko edozein motatako desadostasunak daudenean) ikastetxe batean onartzea lehen aldiz edo ikastetxez aldatzea eskatuz gero, bi gurasoen berariazko baimena eskatu dadin, edo, halakorik izan ezean, gurasoetako zeini dagokion gai horri buruz erabakitzea xedatzen duen ebazpen judizial bat.

Ez da onartu.

D) Batxilergoa eta eta Lanbide Heziketa.

Hezkuntza Departamentuari

16/439/AI espedientea

2016-2017 ikasturteko Sistema Mikroinformatikoak eta Sareak ikastaroan onarpen-eskabide bat ezesteari buruz:

- Departamentuari hauek gomendatu zaizkio:

- a) Lanbide Heziketako irakaskuntzan, alda ditzala ikasle desgaituentzako plaza-erreserbak, eta finka dezala % 5eko ehunekoa, gutxienez.
- b) Kexa aurkeztu duen emakumearen semeari eman diezaiola nahi duen Heziketa Zikloan izena emateko aukera.

Ez da onartu.

16/557 espedientea

Tuteran Hezkuntza Departamentuak pertsona helduentzat eskaintzen dituen Lanbide Heziketako ikasketei buruz:

- Departamentuari iradoki zaio, Lanbide Heziketako plana lantzean, azter dezala Tuteran Lanbide Heziketako ikasketak gaueko ordutegian jartzea bultzatzea.

Ez da onartu.

E) Ikasteko beka

Hezkuntza Departamentuari

16/394 espedientea

Ikasteko beka bat ukatzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio azter dezala beken hurrengo deialdi orokorrean beste errenta-atalase batzuk jartzea, eskatzaileen bizitokiaren arabera.

Onartua.

F) Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako arreta

Hezkuntza Departamentuari

15/620 espedientea

Entzumen-desgaitasuna duen zazpi urteko ikasle bati eskolak hobeto entzuteko tresna bat erabiltzea debekatu dion irakasleari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoelabermatzera desgaitasuna duten ikasleek egoki iruditzen zaien laguntza teknikoa erabiltzen jarraitu dezaten, hezkuntza-zerbitzua ahal den egokien jasotzeko; gainera, gogorarazi zaio, horretarako, lehenbailehen eta bizkor hartu behar dituela behar diren neurriak, giza baliabideak kudeatzeari dagozkionak barne, ikasle adingabeen interesen aurkako beharrik gabeko etenaldirik ez gertatzeko.

Onartua.

16/50 espedientea

Ikastetxe publiko bateko Lehen Hezkuntzako bigarren mailako ikasle bati logopeda baten laguntza ukatzeari eta 2013tik 2015era gai horri buruz aurkeztutako zenbait idazkiri ez erantzuteari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarrek aurkeztutako eskariak, alegazioak eta errekursoak ebaztera, horien artean, kexa aurkeztu duenarenak.
- Departamentuari gomendatu zaio eman diezaiola kexa aurkeztu duenaren semeari Entzumen eta Hizkuntza Irakasleen laguntza, ikaslearen berariazko hezkuntza-beharraren eta egindako txosten psikopedagogikoaren arabera.

Onartua.

16/295 eta 16/365 espedienteak

Entzumen-gabeziak dituzten haurrentzako Nafarroan erreferentziakoa den ikastetxe bateko irakaslearen hitz egiteko arazoei buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio, hurrengo ikasturterako, azter dezala berariazko neurriak hartzea entzumen-desgaitasuna duten ikasleen behar bereziei erantzuteko, hezkuntza-zerbitzua ahalik eta ondoen jaso dezaten.

Onartua.

Hezkuntza Departamentuari eta Eskubide Sozialen Departamentuari

16/183 espedientea

Mintzamenaren garapenean arazoak dituen lau urteko adingabe bati logopeda bat ukatzeari buruz:

- Hezkuntza Departamentuari eta Eskubide Sozialen Departamentuari gomendatu zaie har ditzatela neurriak sei urtetik beherakoentzako Arreta Goiztiarreko Zerbitzua jasotzea, haurren garapenaren bilakaera dela-eta, behar duen sei urte baino gutxiagoko edozein haurren esku egon dadin; horretarako, behar diren neurriak hartu beharko lirateke, kontuan hartu gabe haurra eskolatuta dagoen ala ez eta gurasoek nolako eskolatzea aukeratu duten.

Ez da onartu.

5.2.9. Euskara

Eskubide Sozialetako Departamentuari

16/392 espedientea

Iruñeko haur-eskoletan euskara ez eskaintzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio koordina dezala Iruñeko Udalarekin udalerrri horretako Haur Eskoletako euskarazko irakaskuntza; ildo horretatik, hiriburuko auzoetan euskarazko irakaskuntza-eskaintzaren banaketa homogenea bermatu beharko litzateke, eta eskaerarekin lotutako azterketak, ikerketak edo inkestak partekatu behar litzukete Departamentuak eta Udalak.

Onartua.

Garapen Ekonomikorako Departamentuari

16/459 espedientea

Eremu euskalduneko eta eremu mistoko zenbait udalerritako Nafarroako Bide Sareko errepideetan seinaleztapena gaztelaniaz soilik egoteari buruz:

- Garapen Ekonomikorako Departamentuari gomendatu zaio, Euskararen Foru Legearen 8. artikuluari jarraituz, har ditzala behar diren neurriak kexan aipatzen diren errotuluen edukia lehenbailehen zuzentzeko, Santa María de Eguiartekoa izan ezik.

Erantzunaren zain.

Hezkuntza Departamentuari

16/461 espedientea

Euskaraz hitz egiten duten herritarrei telefonoz eman zaizkien erantzunen desagokitasunari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio, Nafarroako herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzearen, indartu dezala telefonoz ematen den arretaren euskarazko zerbitzua, Nafarroari berezkoa zaion hizkuntza horretan Departamentuko zerbitzu zentraletara zuzendu nahi duten pertsoneri behar bezalako arreta emateko.

Onartua.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

16/576/AI espedientea

Nafarroako Foru Komunitateak eta haren erakunde autonomoek euskararen balorazio eskasa egiteari buruz (lanpostuak betetzeko eta lanpostuetan sartzeko deialdietako meritu-baremoetan euskara sartzeari dagokionez, eta, bereziki, obstetriziako eta ginekologiako erizain espezialisten edo emaginen lanpostuetan sartzeari dagokionez):

- Departamentuari iradoki zaio berrikus dezala sakon Ekainaren 15eko 55/2009 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren erakunde autonomoetako plantilla organikoan euskaraz jakitearen trataera arautu zuena.

Onartua.

Hezkuntza Departamentuari eta Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

OJ16/4/AI

Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetako enplegu publikoak eskuratzeko, egoera ez da berdina bi erkidegoetan ikaskuntza-zentroetan, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aitortzeari dagokionez. Egoera-desberdintasun horri buruz:

- Hezkuntza Departamentuari eta Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari iradoki zaie, beren eskumenen esparruan, edo, hala dagokionean, elkarrekin, sakon azter dezatela Nafarroako ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan euskaraz egindako ikasketa

ofizialak aitortzeko aukera eta, horren ondorioz, D ereduan dagokion curriculumak ikasi eta gainditu duten ikasleei (Bigarren Hezkuntzako Graduaren, Batxilergoaren, Goi Mailako Teknikariaren eta abarren tituluak dituztenak) euskarako tituluen, frogagirien edo proba gehigarrien bitartez egiaztatzen salbuesteko aukera. Ildo horretatik, D ereduan ikasi eta gainditu duten ikasleek Hezkuntza Administrazioak emandako titulua aurkeztu beharko lukete, Nafarroako Herri Administrazioek lanpostu publikoak hautatzeko eta betetzeko egindako deialdietako prozeduretan euskara baloratzeko, besterik gabe.

Onartua.

Malerrekako Mankomunitatea

16/56 espedientea

Euskaraz soilik idatzitako idazki baten bidez egindako jakinarazpenari buruz:

- Mankomunitateari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela Administrazioako jakinarazpenak eta komunikazioak euskaraz eta gaztelaniaz idaztera, interesdun guztiek berariaz hizkuntza horietako bat erabiltzea erabakitzen dutenean izan ezik.

Onartua.

5.2.10. Funtzio publikoa

Hezkuntza Departamentuari

15/491 espedientea

Ezintasun iraunkorraren balorazio-prozesuan aurkeztu beharreko dokumentazioaren inguruan informazio gutxi emateari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio ezintasunak baloratzeko prozedurek eragindako irakasleei informazio argia eta ulergarria emateko legezko betebeharra duela, prozeduraren hainbat izapidetan aurkeztu behar dituzten dokumentuei eragiten dien aldetik.

Onartua.

15/492 espedientea

Aitatasun-baimenagatik eta edoskitzeagatik aitortutako egunak zenbatzeari buruz eta dagozkion opor-egunak 2014-2015 ikasturtera geroratzeari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio aitortutako hogeita zazpi opor-egun hartzeko eskubidea 2014-2015 ikasturtean, eta ez daitezela zenbatu opor-egun gisa Eguberrietan, Aste Santuan eta uztailean jaiegun ez diren lanegunak; horrenbestez, onar dezala falta diren egunak ematea edo diruz ordain ditzala.

Ez da onartu.

15/685 espedientea

NHBBZn lanpostuak esleitzeari buruzko espedientea eskuratzeko zailtasunak izateari buruz, horrek eragotzi baitzion behar besteko informazioa edukitzea bide administratiboan errekurtsua aurkezteko:

- Departamentuari gogorarazi zaio herritarrek eskatzen dioten informazio publikoa hamabost eguneko epean emateko legezko betebeharra duela.

Onartua.

15/689 espedientea

Ikastetxe publiko batean erlijioa ikasgaiari egin diren aldaketei buruz, irakastorduak gutxitzea, batetik, eta aurrerantzean eskola horiek irakatsiko diren hizkuntza gaztelaniatik ingelesera aldatzea, bestetik:

- Departamentuari gogorarazi zaio herritarrek aurkeztutako eskaerak ebazteko legezko betebeharra duela, eta, bereziki, kexa-egilearen eskaerari erantzun behar diola.

Onartua.

16/6 espedientea

Departamentuko lan-prebentzioaren funtzionamenduari eta, kexa-egilea ustez pairatzen ari den laneko jazarpen-egoeraren aurrean, Administrazioaren babesgabetasunari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legezko betebeharrak hauek dituela:
 - Prozedurak izapidetzearen ardura duten agintariak eta Departamentuaren zerbitzuko langileak identifikatzea,

- baldin eta interesatuek hala eskatzen badute, eta horretarako, berariaz erantzutea identifikazio-eskaerari.
- Bere ardurapean izapidetzen diren espedienteak zaintzea, eta haiek osatzen dituzten dokumentu guztiak ondo gordetzea.
 - Herritarren legezko eskubideak edo interesak mugatzen dituzten ekintza administratiboak behar beste arrazoitzea, baita bere zerbitzuko langileak, aldi baterako ezintasunaren ondoren, beren lanpostura itzultzea zehazten dutenak ere.
- Departamentuari gomendatu zaio zehaztu ditzala zer kausak eragin duten Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren ebazpen batean aitortutako zerbitzu-ekintzan izandako istripua; identifika ditzala gertaeraren arduradunak eta, behar izanez gero, argitu ditzala erantzukizunak; har ditzala prebentzio-neurriak horrelako gertaerarik edo istripurik berriro gertatu ez dadin; eta azkenik, ezar ditzala neurri zuzentzaileak zerbitzu-ekintzan istripua izan duen pertsona istripua gertatu aurreko egoerara itzul dadin.
- Departamentuari gomendatu zaio:
- Berrikus ditzala Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak proposatutako neurri zuzentzaileak, kexa-egileak 2015eko ekainean hasitako 10.18R prozeduraren ondorioz egindakoak; horretarako, kontuan hartuko dira Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak 2015eko abenduaren 15ean egindako txostenean jasotako gogoetak eta ondorioak.

- Berrikus dezala zergatik ukatu den 10.18R prozedura aktibatzeke egin diren eskaerei buruz kexa-egileak eskatutako informazioa -hezkuntza-ikuskari den aldetik, berak egindako jarduketan aurka aurkeztutako eskaerei buruzkoa-, eta, hirugarrenei entzuteari eragin gabe, azter dezala informazioa bere osotasunean edo, gutxienez, partzialki emateko aukera.

Ez da onartu.

16/61 espedientea

Kontratututako langileek aurkeztutako eskaerak, Eguberrietako eta Aste Santuko eskolarik gabeko lanegunei dagozkien opor-egunak - Departamentuak hartutako opor-eguntzat zenbatu dituenak- ordaintzeari dagozkionak tazituki ezesteari buruz, eta eskaerak tazituki ezestearen aurka ezarritako errekurtsuak ez ebazteari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarrek aurkeztutako eskaerak eta errekurtsuak -kasu honetan, kontratatutako langileei Eguberrietako eta Aste Santuko eskolarik gabeko lanegunei dagozkien opor-egunak ordaintzeari buruzkoak- ebaztera.

Onartua.

16/135 espedientea

Kexa-egileek beren kontratuak 2011ko uztailean eta abuztura arte luzatzearekin loturik egindako eskaerei ez erantzuteari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio herritarrek aurkeztutako eskaerak eta errekurtsuak ebazteko legezko betebeharra duela.

- Departamentuari gomendatu zaio egin ditzala kexan jasotako erreklamazioei dagozkien ordainketak egitea (2011ko uztailari eta abuztuari dagozkienak), interesdunek beste eskaera batzuk egin beharrik gabe.

Onartua.

16/147 espedientea

Irakasle batek Nafarroako Unibertsitate Publikoan eskolak emateko bateragarritasunari buruz egindako eskaeraren aurrean, institutu batek erantzun arrazoitu bat ez emateari eta, gero, Hezkuntza Departamentuko Ikuskapen Zerbitzuak izandako esku hartzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio idatziz erantzun diezaiela unibertsitatean eskolak ematen dituzten irakasleek ordutegien bateragarritasunari buruz egindako eskaerei.
- Departamentuari gogorarazi zaio, prozedurari amaiera ematen dioten ebazpenetan, interesdunek planteatutako gai guztiak erabaki behar direla. Beraz, aztergai dugun kexari dagokionez, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak aztertu egin behar ditu institutuko zuzendariak onartutako ordutegiak, bai eta irakasle batzuei eta besteei bateragarritasuna onartzeko aintzat hartu dituen irizpideak ere.

Ez da onartu.

16/244 espedientea

Aldi baterako administrazio-kontratua duten irakasleei udako hilabeteak ez ordaintzeari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio herritarrek aurkeztutako eskaerak eta errekursoak berariaz ebazteko legezko betebeharra duela, baita aurkeztutako kexa honi dagozkionak

ere, aldi baterako administrazio-kontratua duten irakasleei udako hilabeteak ordaintzeari buruzkoak.

- Departamentuari gomendatu zaio ordaindu diezaiela aldi baterako administrazio-kontratua duten irakasleei iraungi gabeko urterokoen udako hilabeteak, emandako zerbitzuak aitortuz, bai eta kasu bakoitzari dagozkion interesak ere.

Onartua.

16/308 eta 16/312 espedienteak

Uztaileko eta abuztuko oporrei dagozkien iraungi gabeko ordainketak egitea tazituki ezesteari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio herritarrek aurkeztutako eskaerak eta errekurtsioak berariaz ebazteko legezko betebeharra duela, bai eta eta hartutako erabakien berri emateko ere, legean aurreikusitako epeen barruan.
- Departamentuari gomendatu zaio atzera egin dezala eta baliogabe utz dezala kexa-egileak aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioaren ezezte, Administrazioaren jarduterik ezak egindako eskaera baiestea dakarrelako, eta aitor dezala errekurtsioan eskatzen den eskubidea.

Ez da onartu.

16/423 espedientea

Aldi baterako kontratua duten irakasleei uztaila eta abuztua ordaintzeari buruz:

- Kontratututako irakasleen kontratua udako hilabeteetara (uztailera eta abuztura) luzatzearekin lotuta, Hezkuntza Departamentuari gomendatu zaio:

a) Onar dezala egindako eskaera, eragozpen izan gabe zerbitzua ikasturtean zehar sinatutako hainbat kontraturen bitartez eman izana.

b) Aplika dezala irizpide objektiboa, hau da, zenbat denbora egin den lan eskola-ikasturtearen zatirik handienean (2015eko urriaren 9ko epaiaren arabera, Hezkuntza Hitzarmeneko bost hilabete eta erdi).

Ez da onartu.

16/426 espedientea

Ekonomia espezialitate didaktikoko irakasleek Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan pairatzen duten diskriminazioari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio egoera azter dezala eta neurriak har ditzala Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan Ekonomiako departamentu didaktikoak ezarri ahal izan izateko.

Ez da onartu.

16/489, 16/490 eta 16/501 espedienteak

Departamentuak Eguberriak eta Aste Santua hartutako opor-eguntzat aitortzea dela eta, ikastetxe batean aldi baterako zerbitzu bat emateko kontratuaren likidazioan ordaindutako kopuruarekin ados ez egoteari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio berriku ditzala kexa horiek erreferentzia egiten dieten kontratuen likidazioak, berriro kalkula dezala kontratuei dagokien zenbatekoa, Eguberriak eta Aste Santua hartutako opor-eguntzat aitortu gabe, eta ordain diezaiola interesdunari dagokion zenbatekoa.

Onartua.

15/604 espedientea



Administrazio-kontratu bat azkentzeari eta, gero, beste kontratu bat, hasieran esleitutako orduak baino bost ordu gutxiagokoa, eskaintzeari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela behar adina justifikatzera, irakasleen behar berriak betetzeko egiten diren administrazio-kontratuen espedienteetan, bai behar berriak daudela bai horiek betetzeko adina irakasle finko ez daudela, irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuan, Nafarroako Administrazio Publikoetan langileak administrazio araubidean kontratatzeke arauak ezartzen dituenean, 6.2. artikuluan, arautuari jarraiki.
- Departamentuari gogorarazi zaio, kontratazio-beharrak indarrean ez egoteagatik administrazio-kontratuak alde aurretik amaitzen direnean, bermatu egin behar duela kontratua amaitzeak eragindako pertsoneri aurrez eta nahitaez entzuteko aukera.
- Departamentuari gomendatu zaio eman diezaiola kalte-ordaina kexa-egileari, harekin sinatutako administrazio-kontratua bidegabeki amaitzeagatik sortutako kalteen eta galeren konpentsazio gisa.

Ez da onartu.

16/606 espedientea

Langile publikoei norberaren kontuetarako baimen ordaindua ukatzeari buruz, horretarako epe-muga (kasu honetan, ikasturtea) amaitzeagatik, langileak aldi horretan aldi baterako ezintasun-egoeran egon direlako eta baimena hartzeko aukerarik izan ez dutelako.

- Departamenduari gomendatu zaio, aldi baterako ezintasuna edo amatasun-baimena izateagatik langile publikoek norberaren kontuetarako baimen-ordainduen eskubideaz ("norberaren kontuetarako egunak") bere osotasunean gozatu ezin izan dutenean, onar dezala lanera itzuli ondoren baimen ordainduak hartzeko aukera, nahiz eta urtea, ikasturtea edo ohiko aldia amaituta egon, betiere zerbitzuaren beharrekin bateragarria denean.

Ez da onartu.

OJ16/10

2016-2017 ikasturterako ikastetxeetako zuzendariak izendatzeko prozedurari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio ikastetxeetako zuzendariak izendatzerakoan berdintasun, publizitate, merezimendu eta gaitasun printzipioak betetzeko legezko betebeharra duela, eta horretarako, kasuan kasuko merezimendu-lehiaketan deialdiak egin behar dituztela.

Ez da onartu.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

16/383 espedientea

Familia eta lana bateragarri egiteko neurri egokiak ez hartzeari buruz:

- Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari iradoki zaio egin eta onar dezala Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren esparruan familiaren eta lanaren bateragarritasuna hobetzeko neurriak bilduko dituen plan bat.
- Hezkuntza Departamentuari gomendatu zaio onar dezala kexa-egileak egindako eskaera, eta, horrenbestez, har dezala kasu horretara egokitutako neurri eraginkor bat, lana eta familia bateragarri egin ahal izan ditzan.

Ez da onartu.

Garapen Ekonomikorako Departamentua eta Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

16/215 espedientea

Garapen Ekonomikorako Departamentuko herri-lanetako teknikariei arrisku bereziagatiko osagarria ez aitortzeari buruz:

- Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari eta Garapen Ekonomikorako Departamentuari gomendatu zaie aitor diezaietela arrisku bereziagatiko osagarria herri-lanetako teknikariei, kasu hauetan izan ezik:

- Lan-osasunaren alorreko organo eskudun batek teknikari horien lan-baldintzei buruz egindako azterketa tekniko sakon batek ziurtatzea funtzio hori betetzeak ez duela arrisku berezirik.
- Administrazioak erabakitzea teknikari horien funtzioak lanetik eratorritako inongo arrisku berezirik gabe egingo direla.

Onartua.

P16/7

Errepideetako zaindaria Nafarroako Foruzaingoko agenteen eta basozainen maila berekoak izatera pasatzeko aukerari buruz:

- Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari iradoki zaio azter ditzala, Garapen Ekonomikorako Departamentuarekin lankidetzan, errepideetako zaindariei agindutako funtzioak eta, hala badagokio, egokitu dezala langile horien funtzionario-maila.

Onartua.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

15/673/AI espedientea

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak familiako kide bat zaintzeko eszedentzia berezia eman ondoren, berriro lanpostura itzultzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio azter dezala Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren

testu bateginaren 27. artikulua -eszedentzia bereziko administrazio-egoera arautzen duena- aldatzeko aukera, berariaz zehazteko lanera itzultzeko epe egokia eszedentzia-egoera bat-bateko arrazoiengatik amaitzen den kasuetarako, hala nola eszedentzia-baimena ematea eragin zuen familiako kidearen heriotza, eta ez ezarritako gehieneko epea bukatzeagatik gertatzen den kasuetarako (27.4. artikulua), ez eta funtzionarioaren beraren nahiagatik gertatzen den kasuetarako ere (27.5. artikulua).

Onartua.

16/35 espedientea

Arrisku bereziagatiko osagarria ez jasotzeagatik Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuko Abeltzaintza Zerbitzuko albaitariek jasaten duten diskriminazioari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio sakon azter ditzala Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuko Abeltzaintza Zerbitzuari atxikitako abeltzain-lanpostu bakoitzaren funtzioak, haien toxikotasun, nekagarritasun- edo arrisku-maila zehazteko, eta, behar izanez gero, dagokien arrisku bereziagatiko osagarria ezartzeko.

Ez da onartu.

16/316/AI espedientea

Osasun Departamentuaren mendeko erakunde autonomoei atxikitako langileak soziologo-postuak prestakuntzarako zerbitzu berezien egoeran betetzeko izangaien zerrendak osatzeko deialditik -Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak martxoaren 14ko 594/2016 Ebazpen bidez onartua- kanpo uzteari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio arau bat egin dezala Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren mendeko erakunde autonomoen zerbitzuko administrari laguntzaile eta ofizial administrari guztiek izan dezaten aukera prestakuntzarako/sustapenerako deialdietan parte hartzeko.

Ez da onartu.

16/451/Al espedientea

22 urteko adin-muga dela eta, umezurtz-pentsioaren kobrantza amaitzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio alda dezala umezurtz-pentsioaren eskubidea izateko ezarrita dagoen gehieneko adina -martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legeak, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzkoak, 75.2. artikuluan ezarritakoa-, eta idatz dezala Gizarte Segurantzaren erregimen orokorra arautzen duen legediaren antzera edo harekin korrelazioan.
- Departamentuari iradoki zaio eman diezaiola kexa-egileari aitortuta duen umezurtz-pentsioa kobratzen jarraitzeko aukera, iradokitako legezko aldaketa egin artean.

Onartua.

16/463 espedientea

Gora jotzeko helegite bati ez erantzuteari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legezko betebeharra duela herritarrek aurkeztutako errekursoak ebazteko eta hartutako erabakiak haiei jakinarazteko, legeak ezarritako hiru hilabeteko

epean, eta, bereziki, kexa honi dagokionez, gogorarazi zaio, erabakia jakinarazteko epea amaituta egonik, legez, errekurtsua ahalik azkarren ebatzi behar duela.

Onartua.

16/610/AI espedientea

Nafarroako udaltzain laguntzaileen lan-egoerari buruz, eta, apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legearen lehen xedapen gehigarriaren aurka jarritako konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsu bat dela eta, haien ziurgabetasun juridikoko egoerari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio, Nafarroako Poliziaren Foru Legearen hurrengo aldaketan -dagoeneko lantzen ari dira-, azter dezala udaltzain laguntzaileek bizi duten problematika eta azter eta har ditzala haien lan-egonkortasunarekin lotutako neurriak.

Onartua.

OJ16/27/AI

Irailaren 28ko 79/2016 Foru Dekretuak, Nafarroako Foruzaingoaren lanaldi eta ordainsariaren erregelamendua onesten duenak, eta apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legeak dituzten zenbait alderdi eta eragini buruz:

- Departamentuari iradoki zaio azter dezala adierazitako alderdien legezko aldaketa egiteko aukera, polizien funtzioaren berezitasunak modu egokiagoan aintzat har daitezzen eta, ahal den guztietan, ez dezaten eragin kaltegarrik izan ez funtzionarioen eskubideetan ez haien ordainsarrietan.

Onartua.

Osasun Departamentuari

16/181 espedientea

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan familia eta lana bateragarri egiteko politikari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio azter dezala, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen ordutegien malgutasunerako neurriak ezartzeko aukera, langileen familia- eta lan-bizitza, bai eta bizitza pertsonala ere, bateragarri egiten laguntzeko, betiere ematen den zerbitzu publiko egokiari kalterik eragin gabe.

Onartua.

16/190 espedientea

Tuterako ospitaleko lanpostu bat barne-sustapeneko lekualdatze-lehiaketa bidez eskuratzeari eta familia eta lana bateragarri egiteari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legezko betebeharra duela Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan hutsik dauden lanpostuak azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretuan, 20. artikuluan, araututako prozedurei jarraiki betetzeko.
- Departamentuari gomendatu zaio, baldin eta adinaren irizpidea erabiltzen jarraitu nahi badu aurretiko barne-akoplamentuko sistema batean eskainitako lanpostuetarako hautagaien artean berdinketak hausteko, txerta dezala irizpide hori Osasun kontseilariaren urriaren 28ko 129/2008 Foru Aginduan.

- Departamentuari iradoki zaio, kasu honi bereziki dagozkion baldintzak kontuan hartuta, azter dezala kexa-egileak familia eta lana bateragarri egiteko egindako eskaera onartzeko aukera edo azter ditzala beste konponbide eraginkor batzuk langilearen familia- eta lan-bizitza bateragarri egiteko.

Ez da onartu.

16/604/Al espedientea

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko gaueko txandako langileen lan-baldintzei eta haiek urtean egin beharreko ordu-kopuruari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio berrikus ditzala Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko gaueko txandako langileen lan-baldintzak, eta horren ondorioz, azter dezala urtean egin behar duten gehienezko ordu-kopurua gutxitzeko aukera, beste autonomia-erkidegoetan (EAE, Aragoi, Kantabria, Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa, Murtzia, Kanariak...) ezarrita dauden baldintza bertsuetan, eta arau ditzala xehetasun eta sakontasun handiagoz langile horien lan-baldintzak, taldearen berezitasunak eta gaueko txandak langile horien langile horien dituen ondorioak direla eta.

Ez da onartu.

Iruñeko Udaleri

15/154 espedientea

Haur-eskola batzuetako langile subrogatuei dagokien antzintasuna ez aitortzeari eta ordaintzeari buruz:

- Haur-eskola horietan enpresa-subrogazioak eragindako langileen antzintasuna ordaintzeari eta dagozkien zenbatekoak kalkulatzeari dagokienez, Udalari gomendatu zaio har dezala lan-harremanaren hasiera-datatzat jatorrizko enpresarekin egindako lehen laneguna, eta ez 2015eko urtarrilaren 1a, enpresa-subrogazioa gauzatu zen eguna.

Ez da onartu.

15/557 espedientea

Iruñeko udal-haurtzaindegietako hezitzaileei udako oporrak (abuztua eta iraileko zenbait egun) ez ordaintzeari buruz, eta Eguberrietako eta Aste Santuko eskolarik gabeko aldiak, modu desegokian, opor-eguntzat zenbatzeari buruz:

- Udalari gomendatu zaio ordain diezaiela abuztuari eta iraileko lehen egunei dagokien zenbatekoa kasuan kasuko ikasturtean zerbitzua eman duten haur-hezitzaileei.

Onartua.

5.2.11. Ogasun publikoa

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuari

OJ16/1/AI

Desgaitasuna duten pertsonen trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko udal-zerga salbuestea ukatzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio alda dezala Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 160.1.d) artikulua, honela, zehazki:

- a) Alda ditzala legezko arauan “baliourrituak” terminoari egiten zaizkion erreferentziak, iraingarriak izan daitezkeelako.
- b) Aurreikus dezala salbuespenaren onuradun izateko aukera desgaitasuna duten pertsonen izenean matrikulaturiko ibilgailuetarako, haiek ez beste inork erabiltzekoak badira (bai desgaitasuna dutenek gidatutako ibilgailuak, bai haien garraiorako erabiltzen direnak), bereziki egokitutako ibilgailuak ez izan arren.
- c) Azter dezala egungo zaldi-potentzia fiskalaren muga ezabatzeko edo aldatzeko aukera (Foru Legean salbuetsizat hartzen diren ibilgailu bereziei dagokiena).

Onartua.

Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuari

15/625/AI espedientea

Nafar Lansare - Nafarroako Enplegu Zerbitzuak prestakuntza-ikastaroetara joateko ematen dituen diru-laguntzak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarriari egozteari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio azter dezala ea beharrezkoa den Pertsona Fisikoen gaineko Errentaren Foru Legearen testu bateginean aldaketa bat egitea, Nafar Lansare - Nafarroako Enplegu Zerbitzuak langabeei edo babestu beharreko beste egoera batzuetan (kasuan-kasuan zehazten den helmenarekin) dauden langileei emandako diru-laguntzak zerga salbuetsizat ezar daitezen.

Onartua.

15/674 espedientea

Idatzi bati ez erantzuteari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio erantzun diezaiela herritarrek aurkeztutako zerga-alorreko salaketa-idatziei, informazio hau emateko, gutxienez:
 - a) Jakinarazteko salaketa jaso dela.
 - b) Jakinarazteko dagokion organo eskudunari bidali zaiola (organo eskudun hori zein den zehaztuz).
 - c) Jakinarazteko zer zerga-erregimen juridikotan edo estatututan sartzen den salatzailea, aipatutako Tributuari buruzko Foru Lege Orokorraren 97.3. artikuluan zehazten dena.

Onartua.

16/9/AI espedientea

Ondarearen gaineko zergan ondasun higiezinak zenbatesteari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio azter dezala mekanismo zuzentzaileren bat ezartzea Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 10.1. artikulua aplikazioan, dagokion legezko arauaren bitartez, azken urteetan higiezinaren balioan izan den ezohiko bilakaeran oinarrituta; horrela, zerga horren ondorioetarako, eskuratze-eskrituretan jasotako balioa behetik eguneratu ahal izango da, bereziki interesdunek bere garaian egindako administrazio-balorazioaren arabera egon direnean eta horiek behetik berrikusi direnean.

Onartua.

16/250 espedientea

Errenta-aitorpena egiteko hitzordua ez izateari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio zabaldu dezala, ahal den neurrian, Nafarroako Zerga Ogasunaren bulegoetako hitzordua sistema, hitzordua eskatzen duten zergadunei hura lortu ahal izatea bermatzeko, bai eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena egiteko dagokien aholkularitza izatea bermatzeko ere.

Onartua.

16/418 espedientea

Pertsona Fisikoen Errentaren gainerako Zergaren 2014ko aitortpena berrikusteko egindako eskaerari ez erantzuteari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio, zerga-berrikuspeneko prozedura-kasurik interesdunek eskatuta hasten direnean, prozeduraren iraupenari eta administrazio-isiltasunaren ondorioei buruzko informazioa eman diezaiela, kasuan kasuko instantzia aurkeztu ondoren ematen den jakinarazpen baten bidez.

Onartua.

16/424 espedientea

Zerga-likidazio bati (ondorengotza-zergari) aurkeztutako errekursoak ez ebazteari buruz:

- Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuari gogorarazi zaio legezko betebeharra duela herritarrek

aurkeztutako errekurtsioak berariaz ebazteko, baita kexa honetan aipatutakoa ere.

Onartua.

16/447/AI espedientea

Minbizia edo beste gaixotasun larri bat duten haurrak zaintzeko Gizarte Segurantzak langileei onartzen dien prestazioa Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan salbuesteari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio egin dezala aldaketa bat PFEZren Foru Legean, zerga-salbuespenen zerrendan berariaz sartzeko Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren 135 quater artikuluan zehaztutako prestazioa, minbizia edo beste gaixotasun larri bat izateagatik zaintza berezia behar duten seme-alabak ardurapean dituzten langileei dagokiena.
- Departamentuari gomendatu zaio onar dezala kexa-egileak egindako eskaera; hau da, PFEZn salbuestea Gizarte Segurantzak onartutako prestazioa, gaixotasun larri bat duen haurra zaintzeko onarturikoa.

Onartua.

16/509/AI espedientea

Kexa-egileari, bere emaztearen desgaitasuna dela eta, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan 2008. urteaz geroztik aplikatzen zaion murrizketari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio azter dezala Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Foru Legea garatzeko Erregelamenduaren 50.3. artikulua aldatzea, zerga-

ondorioetarako aintzat hartzen den asimilazioa (hau da, % 33ko edo % 65eko desgaitasuna edo maila handiagokoa konkurrentetzat hartzea) lanerako ezintasunaren edo ezintasun zibilaren araberakoa izan dadin, ez horren ondoriozko laguntzak jasotzearen araberakoa.

Ez da onartu.

16/530 espedientea

Lizarrako lur-zati batzuetan aldatutako katastroko datuak zuzentzeko eskatzen zen idatzi bati Departamentuak ez erantzuteari buruz, eta katastroko datuen aldaketa horiek egitean interesdunari ez entzuteari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legezko betebeharra duela katastroko datuak zuzentzearekin loturik planteatzen diren eskaerei berariaz erantzuteko, legeak ezarritako epean.
- Departamentuari gomendatu zaio atzera egin dezala Lizarrako lur-zatietan eginiko aldaketei dagokienez eta, lur-zati horien katastroko datuak aldatzeko beste prozedura bat izapidetu behar izanez gero, entzun diezaiola kexa-egileari.

Ez da onartu.

Cintruenigoko Udalari

16/293 espedientea

Kexa-egileak etxea saltzeagatik ordaindu behar duen plusbalioaren udal-zergaren zenbateko handiari buruz:

- Udalari gomendatu zaio ez dezala eskatu hiri-lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga lurra besterentzean, lurraren balioan gehikuntza bat izan dela agerikoa ez denean.

Ez da onartu.

Noingo Udalari (Elortzibar)

16/280/AI espedientea

Hiri-lurren okupazioaren tasak igotzeari buruz:

- Udalari gomendatu zaio ez dezala neurritz kanpoko igoerarik egin terrazak eta mahaitxoak jartzeagatiko tasen zenbatekoetan (orain artean igoera handiak egin dira).

Ez da onartu.

Iruñeko Udalari

16/182 espedientea

Plusbalioaren gaineko zergaren likidazioari eta kexa-egileak Iruñeko Udaleko zergapekoen arretarako bulegoko langileen aldetik jasotako tratuari buruz:

- Udalari gomendatu zaio, plusbalioaren gaineko zerga izapidetzean, ez dezala eskatu zerga sortu duen ekintza, egitate edo kontratua ageri den dokumentazio originala bere esku geratzea eta onar dezala haren kopia bat, betiere kopia aurkezteko unean originalarekin alderatuz.
- Udalari gogorarazi zaio agintari eta funtzionario publikoek herritarrak begirunez eta adetasunez tratatzeko legezko

betebeharra dutela, eta laguntza eman behar dietela haien eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko.

Ez da onartu.

Ujueko Udalari

16/246 espedientea

Sareak berritzeko obrak (kaleak zolatzeko obrak barne) exekutatuzko zerga bereziak kobratzeari buruz:

- Udalari gomendatu zaio, ezarri nahi dituen zerga bereziak zehazteko banatzeko moduluak onartuz gero, errespetatu ditzala martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoan, 114.1. artikuluan ezarritako irizpideak, betiere zerga berezi horiek antolatuzko eta ordainarazteko legez ezarritako gainerako baldintzak betetzeari eragin gabe.

Ez da onartu.

5.2.12. Justizia

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

16/223 espedientea

Administrazioarekiko auzien prozedura batean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren legelariaren zerbitzu-sarien zenbatekoak direla eta, izan diren prozesu-kostuen zigor handiari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio azter dezala, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa parte den eta herritarrak kostuak ordaintzera zigortzen diren auzietan, Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuak alegatutako minutak zehazteko irizpideak ezartzea eta argitaratzea, eta, horretarako, har ditzala kontuan, zerbitzu-kosteez gain, herritarrak auzitegietara joatea sustatzeko irizpideak, auzien ondoriozko zenbatekoak herritarrentzat hain garestiak izan ez daitezen

Ez da onartu.

Tuterako Abokatuaren Elkargoari

15/549 espedientea

Ofiziozko abokatuaren lanarekiko desadostasuna adierazteko aurkeztutako hiru kexari ez erantzuteari buruz:

- Abokatuaren Elkargoari gogorarazi zaio legezko betebeharra duela herritarrek aurkezten dituzten idatziei erantzuteko eta hartutako erabakien aurrean ezarritako errekurtsoen berri emateko, eta, artean egin ez badu, gomendatu zaio erantzun diezaiela kexa-egilearen idatziei.

Onartua.

5.2.13. Ingurumena

A) Ingurumen-informazioa eskuratzeko eskubidea

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari

16/82 eta 16/83 espedienteak

Animalien instalazio batzuen inguruko bi eskabideri ez erantzuteari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio bete egin behar dituela informazio-eskaerak ebazteko zehaztutako epeak, ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legean, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzkoan, eta uztailaren 18ko 27/2006 Legean, ingurumen-gaietan informazioa eskuratu, publikoki parte hartu eta auzitegietara joateko eskubideak arautzekoan, ezarritakoak.

Onartua.

16/359 espedientea

Zikoina zurien habietan esku hartzeko onartutako administrazio-baimenen inguruan eskatutako informazio guztia emateari Departamentuak uko egiteari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legezko betebeharra duela herritarrek ingurumen-alorrean aurkeztutako informazio-eskaerak berariaz eta dagokien epean ebazteko, eta gomendatu zaio, kasu honetan bereziki, osa dezala informazio-eskatzaileari emandako erantzuna, zikoina zurien habiak kentzeko eta/edo horietan esku hartzeko onartutako baimenak direla-eta egindako memoriei buruzkoa, hain zuzen.

Onartua.

16/596 eta 16/597 espedienteak

Nafarroako parke eolikoetan izandako sarraskiari eta, sarraskiaren ondorioz, parke horietan egindako aldaketei buruzko ingurumen-informazioaren bi eskaerari ez erantzuteari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legezko betebeharra duela herritarrek aurkeztutako ingurumen-informazioko eskaerak berariaz ebazteko, behar den denboran eta moduan.
- Departamentuari gomendatu zaio, kexa aurkeztu duen elkarteari emandako erantzuna osatze aldera, erantzun diezaiola 2016ko abuztuaren 3an egindako informazio-eskaerari, faunan izandako sarraskiaren ondorioz Nafarroako parke eolikoetan egin diren aldaketei buruzko informazio-eskaerari, hain zuzen.

Onartua.

Atarrabiako Udalari

16/476 espedientea

Ultzama ibaian zenbait jarduketa egiteko Udalak oinarri hartu zituen azterketen inguruko ingurumen-informazioaren eskaera bati ez erantzuteari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio legezko betebeharra duela herritarrek aurkeztutako ingurumen-informazioko eskaerak berariaz ebazteko, behar den denboran eta forman.

Onartua.

B) Hondakinak

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Departamentuari

OJ16/18

Aireko ozono-mailek airearen balio objektiboak gainditu dituzten eremuetan eta aglomerazioetan airearen kalitate-planak egiteari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio har ditzala beharrezkoak diren neurriak bermatzeko araututako kutsatzaileen kontzentrazioek ez dituztela gainditzen airearen kalitate-helburuak, bai eta kontzentrazio horiek gutxitzeko ere, eta, bereziki, egin dezala ahalegina airearen kalitatea hobetzeko plana onartzeko, komunitateko eta estatuko legedian jasotakoari jarraiki.

Onartua.

C) Zaratak

Valle de Arangurengo Udalari

16/403 espedientea

Industria-jarduerak sortutako eragozpenak arintzeko pantaila akustiko bat jartzeko baimen-eskaerari ez erantzuteari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio herritarrek aurkeztutako eskaerak denbora barruan ebazteko legezko betebeharra duela.

- Udalari gomendatu zaio baimendu dezala kexa-egileak eskatutako pantaila akustikoa jartzea, industria-jardueraren neurri zuzentzailea den aldetik, auzotarren eskubideak babesteko.

Erantzunaren zain dago.

Iruñerriko Mankomunitateari

16/514 espedientea



Iruñeko Bidankoze kalean -Garde kalearen kantoian- hondakinak biltzeko zerbitzuak gaueko ordutegian eragiten duen zaratari buruz:

- Mankomunitateari gogorarazi zaio, legez, bermatu egin behar duela herritarrek duten eskubidea, beren etxe inguruan, hiri-hondakinak biltzeko zerbitzuak eragindako zaratarik - aplikatzekoa den legedian onartutako gehienezko mugak gainditzen dituen- ez izateko.
- Mankomunitateari gomendatu zaio har ditzala beharrezkoak diren neurri eraginkorrak hiri-hondakinak biltzeko zerbitzuak sortzen duen eta interesdunaren etxean eragiten duen gehiegizko zarata desagerrarazteko edo, gutxienez, minimizatzeko, gaueko ordutegian, bereziki.

Onartua.

D) Ehiza

Fiteroko Udalarari

16/40 espedientea

Ehiza-barrutian ehizatzeke ehiztari-elkarteko bazkidetzat onartzeari buruz:

- Udalarari iradoki zaio azter dezala, hurrengo denboraldirako baldintza-pleguetan, ehiztari kanpotarrei ehiza-elkarteko bazkide egiteko derrigortasuna ezartzeko aukera, besterik ezean, herrian errotu samar egotea eskatzen duten zenbait baldintza betetzen direla egiaztatuz.
- Ehiza-barrutiaren titularra den aldetik, Udalarari gomendatu zaio ardurara dadila kexa-egilea ehiztari-elkartean onartzeaz, soil-soilik ehiza-barruti horren ehiza-aprobetxamenduaz gozatzeko aukera izan dezan.

Onartua.

E) Jarduera sailkatuak

Osasun Departamentuari, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari eta Nafarroako Udalarari eta Kontzejuen Federazioari

OJ16/28/AI

Bizitegi-eraikinen behealdeetan duten kokapena aintzat hartuta, beilatokiak edo tanatorioak irekitzeari buruz:

- Osasun Departamentuari iradoki zaio azter dezala urriaren 15eko 297/2001 Foru Dekretua, Hileta-osasunari buruzko

Erregelamendua onesten duena, aldatzeko aukera, bertan jaso dadin, aurrerantzean, tanatorioak eta beilatokiak isolatutako eraikinetan edo bizitegietatik bereizitako eraikinetan ezarriko direla.

- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari iradoki zaio azter dezala ingurumen-babesean esku hartzeko foru-arauan aldaketa puntual bat egitea, berariaz jasota gera dadin beilatokiko eta tanatorioko jardueren mendekotasuna, horrek dakartzan ondorioekin, bai baimena lortzeko prozeduretarako bai ezarriko den eremuko auzotarrei eta gainerako herritarrei entzuteko.
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari iradoki zaio aholku eman diezaiela udalerrri eskudunei, hauek egoki irizten badiote eta horrela eskatzen badute behintzat, hirigintza-araudia lantzerakoan, tanatorioak edo beilatokiak jendea bizi den eraikinetan jar ez daitezzen (adibidez, udal-ordenantza baten eredu orokorra haien eskura jarritz).

Ez da onartu.

Etxarri-Aranazko Udalari

16/513/AI espedientea

Etxarri-Aranatzen jendea bizi den eraikin baten behealdean beilatoki bat ezartzeari buruz:

- Udalari iradoki zaio alda dezala Udaleko Plan Orokorra edo onar dezala higiezinetan tanatorioko/beilatokiko jardueren baldintzak arautzen dituen udal-ordenantza bat, bertan hirigintza-araudi bat sartzeko, orokorra eta juridikoki loteslea, erantzuna ezezkoa denean jendea bizi den eraikinen behealdean tanatorioak eta beilatokiak ezartzea debekatzeko

edo, baiezkoa denean, tanatorioak eta beilatokiak hiletazerbitzuetarako eraikinetan eta eraikin isolatu edo bereizietan ezartzera behartzeko.

Ez da onartu.

Uharteko Udalari

16/343/AI espedientea



Etxarri-Aranatzen jendea bizi den eraikin baten behealdean beilatoki bat ezartzeari buruz:

- Udalari iradoki zaio alda dezala Udaleko Plan Orokorra edo onar dezala higiezinetan tanatorioko/beilatokiko jardueren baldintzak arautzen dituen udal-ordenantza bat, bertan hirigintza-araudi bat sartzeko, orokorra eta juridikoki loteslea, erantzuna ezezkoa denean jendea bizi den eraikinen behealdean tanatorioak eta beilatokiak ezartzea debekatzeko edo, baiezkoa denean, tanatorioak eta beilatokiak hiletazerbitzuetarako eraikinetan eta eraikin isolatu edo bereizietan ezartzera behartzeko.
- Udalari iradoki zaio bila dezala tanatorioa/beilatokia jartzeko leku egokiago bat, inguruko edo gertuko etxeetatik isolatuta, bai abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzkoan, 69.6. artikuluan araututakoa betez, hots indarrean dagoen planeamendua aldatuz gero lizentziak emateko erabakia etetea, dagokion kalte-ordaina adostuta, bai tanatorioko/beilatokiko sustatzailearekin hitzarmena eginez.

Ez da onartu.

F) Animalien babesari buruz

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari

16/194 espedientea

Zikoina zuriaren habiak kentzeko eta egokitzeko baimenak ematean, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentua atzeratzeari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legezko betebeharra duela martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legean, basa-fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzkoan, 9. eta 10. artikuluetan aipatzen diren administrazio-baimenak ebazteko, gehienez ere legeak ezarritako hiru hilabeteko epean, eta, oraindik egin ez badu, berehalakoan erantzun behar diela kexa egin duen elkarteak aurkeztutako eskaerei.
- Departamentuari gomendatu zaio ez ditzala eskatu aplikatzekoa den araudian jasotzen ez diren baldintzak eta utz dezala baliogabe kexa-egileari ezarritakoa.

Ez da onartu.

Artajonako Udalari

16/87 espedientea

Udalerriko finka batean animaliei tratu txarra emateari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio legezko betebeharra duela uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen, Nafarroako Tokiko Administrazioaren, 318. artikulua eta Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari

buruzko Legearen 42. artikulua betetzeko eta, oraindik egin ez badu, kexa-egileak 2015eko urriaren 29an egindako eskaerari ahalik azkarren erantzuteko.

- Udalari gogorarazi zaio legezko betebeharra duela legez aitortuta dituen zehatzeko ahalak gauzatzeko, baldin eta egiaztatzen badu sailkatutako jarduera jakin bat dagokion udal-baimena izan gabe gauzaten ari dela eta hori adierazten duten inguruabar bereziak daudela; esaterako, horrela gertatu da kexa eragin duen kasuan.

Ez da onartu.

5.2.14. Datuen babesa

Hezkuntza Departamentuari

16/536 espedientea

Ikastetxe publiko batean jarduera bat egin zuen adin txikiko baten datu pertsonalak Nafarroako egunkari batean argitaratzeari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legezko betebeharra duela ikasleen datu pertsonalen babesa bermatzeko, ikasleen edo beren legezko ordezkarien baimen argirik eta espezifikorik gabe erabili ez daitezen.

Onartua.

5.2.15. Administrazio publikoen ondare-erantzukizuna

Osasun Departamentuari

15/658 espedienteak

Ondare-erantzukizuneko erreklamazio bat dela-eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ebazpen bati aurkeztutako berraztertze errekurtso bati ez erantzuteari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio herritarrek aurkeztutako administrazio-errekurtsoak lege ezarritako epean ebazteko legeko betebeharra duela, horretarako behar diren neurri guztiak hartuz.

Onartua.

5.2.16. Osasuna

A) Oinarrizko osasun-laguntza

Osasun Departamentuari

15/619, 15/629 eta 16/17 espedienteak

Pneumokokoaren aurkako txertoa -2016ko urtarrilaren 1etik aurrera jaiotako haurrentzat baizik aurreikusi ez dena- haurrak txertatzeko egutegian sartzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio alda dezala haurrak txertatzeko egutegia, 2016. urtarrilaren 1a baino lehen - aurreko hamabi hilabeteen barruan- jaiotako haurrek, ezarrita dagoen txertaketa-prozedurari jarraitzen diotenen,

pneumokokoaren aurkako txertoa hartu ahal izan dezaten, gerora jaiotako haurren baldintza berdinetan, betiere horretarako ezarrita dauden gomendio klinikoei eta osasun publikoko gomendioei jarraiki.

Ez da onartu.

16/358 espedientea

Osasun-zentro batean emandako tratuari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legezko betebeharra duela gaixoei errespetuzko tratua eta beren baldintza pertsonalei eta ulermenezkoei egokitutakoa emateko eta, azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzkoan, 5.14. artikuluan arautuari jarraiki.
- Departamentuari gomendatu zaio, interesdunari entzun ondoren, esleitu diezaiola behin-behinean beste familia-mediku bat eta ezaba dezala haren historia klinikotik kexa eragin duen gertaerari buruzko edozein ohar.

Onartua.

OJ16/21

Nafarroan bizi diren atzerritarrek Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun-laguntza eskuratzeko eskubideari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio aplikatu ditzala azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzkoan, 11. artikuluan araututakoa eta otsailaren 25eko 8/2013 Foru Legean, Nafarroan bizi diren

pertsonei Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun-laguntza jasotzeko eskubidea aitortzekoan, artikuluko bakarrean, araututakoa.

Onartua.

B) Osasun laguntza espezializatua

Osasun Departamentuari

16/44 espedientea

Erresonantzia magnetikoa egiteko gehiegi atzeratzeari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio Laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legean ezarritako epeak betetzeko legezko betebeharra duela.

Onartua.

16/533 espedientea

Urologia-zerbitzuan lehentasunezko bidetik kontsulta bat formalizatzeari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legezko betebeharra duela gaixoei modu egokian eta ulergarrian emateko osasun-zerbitzuei eta horien erabilera-baldintzei buruzko informazioa.

Onartua.

16/565 espedientea

Traumatologiako eta Kirurgia Ortopedikoko Zerbitzuan hitzordua eskuratzeko itxarondako denborari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio Laguntza Espezializatuko Itxaronaldien Bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legean finkatutako osasun laguntzarako gehieneko itxarondenborak betetzeko legezko betebeharra duela, bai eta gaixoei laguntzarako ordezkari aukerei buruz informatzekoa ere, baldin eta epe horiek ez badira betetzen kasuan kasuko osasun zentroan; eta gogorarazi zaio, halaber, berehala erantzun behar diela ez-betetze kasuetan aurkeztutako erreklamazioei, horretarako behar diren neurri guztiak hartuz.
- Departamentuari gomendatu zaio azkar eman diezaiola hitzordua interesdunari, Traumatologiako eta Kirurgia Ortopedikoko Zerbitzuan artatu dezaten, indarreko legediaren arabera gehiegi itxaron baitu.

Ez da onartu.

OJ16/3/AI

Nafarroan “gaixotasun arraroak” deritzenak dituzten pertsoneri arreta eta laguntza publikoa emateari buruz egindako iradokizunak:

Eskubide Sozialen Departamentuari:

- Gaixotasun arraroak dituzten pertsonen gaixotasunak baloratzeko eta haiei informazioa, laguntza eta arreta soziala emateko sistemek familien berri izan dezatela eta haien eguneroko errealitatera egokitu daitezela.
- Eman diezaietela berariazko prestakuntza sistema horiek kudeatzen dituzten pertsoneri, eta har ditzatela beharrezkoak diren neurriak, egoera horiek egunerokoan duten eraginaren ikuspegi integrala izateko.
- Eman diezaietela berariazko prestakuntza desgaitasun- edo mendekotasun-maila aitortzeaz eta baloratzeaz arduratzen diren taldeei.
- Sar ditzatela gaixotasun arraroak balorazio-baremoetan, eta baremo horiek egokiak izan daitezela balorazio justu bat egiteko.
- Gaixotasunaren arrarotasuna eta zenbait alderdiren baremazioak duen subjektibotasuna direla eta, desgaitasun edo mendekotasun-mailak berrikusten direnean, balorazio-taldeek zorrotasunez jardun dezatela beheraka egiten diren baremazioekin; askotan, gaixotasuna bera eta haren bilakaera ez ezagutzearen ondorio izaten da hori.

- Bultza ditzala araudia aldatzeko eta enpresei nahiz erakundeei informazioa emateko neurriak, familia eta lana bateragarri izan daitezen, gaixotasun arraroak dituzten haurrak zaindu ahal izateko, haur horiek zenbait unetan eta egunetan arreta eta zaintza berezia behar izaten baitute.
- Egin ditzatela protokoloak gaixotasun arraroak dituzten haurren edo helduen familiei laguntzeko. Protokolo horietan, besteak beste, familiei osasun-, hezkuntza- eta gizarte-arloko informazioa eta prestakuntza ematea jaso behar da, haiek jakin dezaten nora jo behar duten beren arazoak konpontzeko eta zer eskubide dituzten arlo horietan.

Osasun Departamentuari / Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari:

- Eskubide Sozialetako, Etxebizitzako eta Hezkuntzako departamentuekin elkarlanean, onar dezala, ahalik azkarren, jarduketa-plan edo -programa sanitario eta soziosanitario espezifikoa bat gaixotasun arraroak dituzten pertsonentzat, azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzkoan, 19. artikuluan, ezarritakoa betez.
- Aktiba dadila Nafarroako gaixotasun arraroen erregistroa, egoera erreala zein den lehenbailehen jakiteko eta, horrela, baliabide egokiak proposatu eta antolatu ahal izateko.
- Har daitezela neurriak gaixoak kontsultategietara garraiatzeko, bai Nafarroan bertan bai Nafarroatik kanpo, gaixoak patologia bakoitza ongi ezagutzen eta tratatzen den lekuan artatu ditzaten.

- Susta daitezela gaixoei osasun-arreta ematen dieten profesionalak prestatzeko eta eguneratzeko sistema iraunkorrak, bai lehen arreta ematen dutenei dagozkienak bai anbulatorioetako eta ospitale edo etxeetako arreta espezializatua ematen dutenei dagozkienak.
- Indartu dadila profesionalen diziplina arteko lana, haien arteko komunikazio- eta koordinazio-sareak garatuz, probak, botikak, kontsultak, errehabilitazioa eta proben emaitzak modu efizienteagoan erabil daitezen.
- Presta daitezela giza baliabideak eta baliabide teknikoak gaixoei behar izaten dituzten hainbat eta hainbat mediku-kontsulta koordinatzeko.
- Abiarazi dadila “kasuen kudeatzailea” deritzon figura, mediku-kontsulta ugari horien koordinazioa lortzeko.
- Lan egin dezala gaixoei beren tratamendurako behar dituzten farmakoak, Nafarroan, ekarpen murriztukoak izan daitezen lortzeko.
- Izan daitezela oftalmologoak larrialdi-zerbitzuetan, eta eman dezatela entzefalogramak egiteko aukera. Izan ere, larrialdi-zerbitzuetan profesional eta zerbitzu horiek ez egoteak ondorio larriak izan ditzake gaixotasun arraroak dituzten pertsonentzat.
- Larrialdi-egoeretan, izan dezatela aukera Nafarroako Unibertsitate Klinikara joateko, baldin eta osasun publikoan bitartekorik ez badago.
- Izan dezatela “gaixoaren tutorea” deritzon figura (koordinatzaile bat) izateko aukera, gaixoa 5 edo 6 espezialistak artatzen baitute askotan. GERNA elkartearen

iritziz, beharrezkoa da hitzorduak koordinatuko dituen eta gaixoa gidatuko duen pertsona edo tutore bat izatea.

- Jaso dadila gaixoaren historia klinikoan pertsona horrek “gaixotasun arraroa” duela, eta ez dadila gaixotasun “kroniko” gisa soilik sailkatu, espezialitateetako mediku guztiek izan dezaten haren gaitzaren berri.
- Eskolarik ez den eta hurrek dagokien terapia jasotzen ez duten hilabeteetan, har dezala bere gain Osasun Departamentuak terapia hori emateko ardura. Haur horietako askok astean hiru eguneko edo hainbat egunetako terapia jasotzen dute ikastetxean. Dena den, ekainaren erdialdetik irailera, ikastetxeak itxi egiten dira udako oporrak direla eta, eta beraz, haur horien terapia eten egiten da hiru hilabetez. Horrez gain, gauza bera gertatzen da Aste Santuko, Eguberrietako eta Aste Zuriko oporretan ere. GERNA elkarteak adierazi du ezin dela terapia eten, eta, beraz, aldi horietarako terapia alternatiboren bat antolatzea eskatu du.
- Oinarrizko osasun laguntzaren esparruan, ahalegina egin dadila dauden osasun baliabideak eta baliabide sozialak funtzionalki integratzeko, osasunaren arloko profesionalen eta gizarte zerbitzuetako profesionalen diziplina arteko lana bideratuko baita horrela.
- Ezar daitezela ekintza eta neurri espezifikokoak hainbat asistentzia-mailaren arteko koordinazioa eta zainketen jarraipen egokia behar-beharrezkoa duten gaixo kronikoentzat, eta indartu daitezela prozesuak kudeatzeko zenbait mekanismo, pertsona horiek egin behar izaten dituzten izapideak bizkortzeko.

Hezkuntza Departamentuari:

- Berma diezaiela gurasoei, beren ustez, haurri arreta egokiena emango zaion zentroa edo zentroak hautatzeko aukera. GERNA elkarteak antzeman duenez, zenbait kasutan, beren etxetik urrun dauden zentro berezietara bidali dira haurrak, gertuago dagoen edo haurrarentzat egokiagoa den zentro batera bidali beharrean.
- Adi egon dadila haurrak, gaixotasun arraroren bat izateagatik, eskolatu gabe dauden kasuei dagokienez. Eskolatu gabe egote hori ikastetxean bertan gerta daiteke, haurra baztertzen denean edo, bere ezaugarri pertsonalak direla eta, dagokion arreta ematen ez zaionean
- Izenda dezala erizaintza-ikasketak dituen pertsona bat zentrorako edo ikastetxerako, zentro horietan gaixotasun arraroak dituzten hurrei laguntzeko. Izan ere, haur horiek banakako osasun-arreta behar dute: sendaketak egitea, otordu bereziak, etab. GERNAk beste aukera bat proposatu du, alternatiba modura, haurrak osasun-zentroetatik gertu dauden ikastetxeetara eramatea, hain zuzen, behar duten edozein unetan arreta eman diezaieten.
- Egin dezatela zerbait gaixotasun arraroak dituzten hurrek zaintzaile bat izan dezaten, eskolan daudela, beharra izanez gero, modu espezifiko batean zaindu ditzaten.
- Eskolarik ez den eta hurrek dagokien terapia jasotzen ez duten hilabeteetan, har dezala bere gain Osasun Departamentuak terapia hori emateko ardura. Haur horietako askok astean hiru eguneko edo hainbat egunetako terapia jasotzen dute ikastetxean. Dena den, ekainaren erdialdetik irailera, ikastetxeak itxi egiten dira, udako oporrak direla eta, eta beraz, haur horien terapia eten egiten da hiru hilabetez. Horrez gain,

gauza bera gertatzen da Aste Santuko, Eguberrietako eta Aste Zuriko oporretan ere. GERNA elkarteak adierazi du ezin dela terapia eten, eta, beraz, terapia alternatiboren bat antolatzea eskatu du aldi horietarako.

Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuari:

- Eman dezala aukera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, familia batek edo gaixotasun arraroa duen pertsona batek terapietan egindako gastuari dagozkion zergak arintzeko; hau da, eman diezaiola zerga-tratu onuragarri bat karga horri. Haien iritziz, familiak ematen duen arretari esker, osasun publikoa eta altxor publikoa dirua aurrezten ari dira. Kalkuluen arabera, gaixotasun arraroa duen pertsona baten familiak 600-800 euro gastatzen ditu hilean, gutxi gorabehera, kontsultak, deribazioak, terapiak, fisioterapeutak, ferulak eta ortopediak direla eta. Horrez gain, gastu horri aurre egin beharrak familia osoari eragiten dio. Finean, familia osoak jasaten du egoera hori.
- Haien iritziz, beren seme-alabez gehien arduratzen diren eta haien beharrei norberaren baliabideekin erantzuten dieten familiak gutxiago baloratzen ditu Administrazioak -bai ekonomikoki bai zerga-arloan-, beren seme-alaben beharrez kezkatzen ez diren eta, edozein egoera dela-eta, Administrazioa jotzen duten familiak baino. Horregatik guztiagatik, laguntza hori Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan islatzea eta kontuan hartzea eskatzen dute.

Hezkuntzako eta Eskubide Sozialetako departamentuek onartu dute.

Ez du onartu Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak.

Osasun Departamentuaren erantzunaren zain.

Osasun Departamentua

P16/9

Ebakuntza kirurgikoa egiteko itxaron-zerrendan dauden gaixoei jakinarazpenak egiteko modu alternatiboei buruz:

- Departamentuari iradoki zaio, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko beste unitate batzuetan hartutako esperientzia baliatuz, zabaldu dezala interesdunei oharrak eta hitzorduen oroigarriak bidaltzeko sistema, hots gailu elektronikoetara eta/edo posta elektronikora mezuak bidaliz.

Onartua.

C) Jasotako laguntza klinikoa

Osasun Departamentuari

15/631 espedientea

Jasotako osasun-zerbitzua dela-eta San Juan de Dios ospitalean ezarritako erreklamazio bati ez erantzuteari buruz:

- Kexa eragin duen zerbitzuaren ardura duen Administrazioa izanik, Departamentuari gomendatu zaio eska diezaiola San Juan de Dios ospitaleari neurriak hartzeko herritarrek bermatuta izan dezaten erreklamazioak aurkezteko eskubidea, bai eta, indarrean den legediari jarraiki, hoguei egun naturaleko epean eta dagokion helmenarekin erantzun arrazoitua jasotzeko eskubidea ere; hau da, herritarrei ongi azaldu behar zaie zer jarduketa izan diren, eta hartutako erabakiak behar beste arrazoitu behar zaizkie.

Onartua.

16/77 espedientea

San Juan de Dios ospitalean gaixoek eta familiek pribatutasunik ez izateari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzkoan, 29. artikuluan, eskubide hau aitortzen zaiela Nafarroako Foru Komunitateko osasun-zentro, -zerbitzu edo -establezimendu guztietan -publikoetan nahiz itunpekoetan- artatutako pertsona guztiei: pertsona orok duen eskubidea laguntza jasotzeko bere intimitatea ziurtatuko duen ingurune batean; ingurune horretan bereziki errespetatuko da gorputzaren intimitatea diagnosi-azterketetan, kontsultetan eta tratamendu mediko nahiz kirurgikoetan, zainketetan, higiene-jardueretan eta osasunaren arloko gainerako jardueretan.

Onartua.

16/458 espedientea

112 larrialdietako laguntza-zerbitzuak ematen duen osasun-laguntzari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio Nafarroako Foru Komunitateko osasun-sistema publikoaren erabiltzaileek eskubidea dutela errespetuzko tratua eta beren baldintza pertsonalen arabera tratua jasotzeko.
- Departamentuari gomendatu zaio koordina ditzala larrialdietako laguntza-zerbitzuan esku hartzen duten subjektu desberdinen eta, bereziki, anbulantzia-zerbitzuan aritzen diren enen jarduketak, eta egin ditzala jarduketa

horien protokoloak, kexan deskribatu den egoeraren antzekorik gertatu ez dadin.

Onartua.

16/529 espedientea

Nafarroako Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuan jasotako arretari eta Ubarmin Klinikara joateko anbulantziarik ez izateari buruz:

- Gogorarazi zaio, oro har, legezko betebeharra duela herritarrekin izaten diren harremanetan tratu arduratsua eta arretatsua emateko.

Onartua.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari eta Osasun Departamentuari

16/388 espedientea

Pertsona bat Psikiatriako Unitatera bere gogoz kontra eramatean, foruzainek eta unitate horretako langileek pertsona horri emandako tratuari buruz:

- Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari, oro har, gogorarazi zaio Foruzaingoak legezko betebeharra duela bere funtzioak betetzeko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legean, Nafarroako polizia buruzkoan, 4. artikuluan, ageri diren oinarritzko printzipioen arabera; herritarrekiko harremanetan beti tratu ona izan behar dela dio printzipio horietako batek (h atala), baita poliziaren zaintzapean badaude ere, batez ere, kasu honetan bezala, ahalmen psikologikoak erasanda dituzten pertsonekiko harremanetan.

- Osasun Departamentuari gogorarazi zaio legez bermatu egin behar duela gaixoa immobilizatzea eragiten duten neurriak ahalik gutxien hartzen direla, ezinbestekoa eta behar-beharrezkoa denean soilik neurri horiekin lortu nahi den helburua eskuratzeko, eta, ahal denean, gaixoaren askatasun fisikoa hainbeste mugatzen ez duten beste tratamendu batzuk erabili behar direla; horretarako, beraz, hartzen diren neurrien jarraipen egokia egin beharko da.

Onartua.

16/469 espedientea

Gaixoa Nafarroako Ospitaleguneko errehabilitazio-zerbitzura garraiatzean anbulantzietako taldeak eta suhiltzaileek emandako tratuari buruz:

- Osasuneko Departamentuari eta Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari gomendatu zaie har ditzatela beharrezkoak diren neurriak bermatzeko, gaixoak Nafarroako Ospitaleguneko edo beste osasun-zerbitzu bateko errehabilitazio-zerbitzura garraiatzean, garraioan esku hartzen duten taldeek une oro errespetuzko tratua eta beren baldintza pertsonaletara egokitutako tratua ematen dietela erabiltzaileei.

Onartua.

D) Osasun prestazioak eta gastuen itzulketa

Osasun Departamentuari

16/100 espedientea

Tuteran bizi diren nafarrei Iruñeko Ospitaletara joateak eragiten dien kostuari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio azter dezala diru-laguntza bat ezartzea Nafarroako ospitale batean ingresatuta dauden pertsonen laguntzaileentzat, beharrezko diren baldintza eta betebeharrekin, laguntzaile horiek foru-komunitateko geografia-eremu barruan oso urrun dauden lekuetatik lekualdatu behar duten kasuetarako.

Ez da onartu.

16/465 espedientea

Ama ezkongabeei lagundutako ugalketa-tratamendua egitean diru-laguntzarik ez emateari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio finantza dezala, ahalik azkarren, kexa-egileak, ama ezkongabea den aldetik, eskatzen duen lagundutako ugalketa-tratamendua.

Ez da onartu.

E) Farmazia koordainketa eta prestazioak

Osasun Departamentuari

16/206 espedientea

Elikadura-osagarria finantzatzeko egindako eskaerari Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak uko egiteari buruz

- Departamentuari gomendatu zaio, kexa hau bezalako kasuetan, finantza ditzala behar besteko arretaz eta bizkortasunez medikuek agindutako lehen arretako elikadura-osagarriak, gaixoaren egoera dela-eta ongi arrazoituta dagoen egoeretan.
- Departamentuari gomendatu zaio finantza diezaiola kexa-egileari bere ama hil aurretik medikuak agindu zizkion elikadura-osagarriak.

Ez da onartu.

16/564 espedientea

“Reandron” izeneko farmakoaren finantziatorik ezean, gaixoei hormona maskulinoen gabezia tratatzeko dituzten zailtasunei buruz:

- Departamentuari iradoki zaio jaso dezala “Reandron” farmakoa Nafarroako Foru Komunitateko Osasun Zerbitzuen Zerrendan eta onar dezala hari dagokion finantziazioa.

Erantzunaren zain dago.

5.2.17. Herritarren segurtasuna

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

16/174 espedientea

Salaketa baten egoeraren inguruko informazio faltari eta lapurtu zizkieten gauzak itzuli ez izanari buruz:

- Departamentuari (Foruzaingoa) gogorarazi zaio legez informazio betea eman behar duela bere esku-hartzeen arrazoiei eta helburuei buruz, eta, bereziki, salatzaileei haien salaketek zer izapide izan duten jakinarazi behar diela.

Onartua.

16/268 espedientea

Atxilotu bat epaitegira eramatean Foruzaingoko agenteek emandako tratuari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio, oro har, legez behartuta dagoela Foruzaingoa bere funtzioak bete ditzan Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legearen 4. artikuluan ageri diren oinarritzko printzipioen arabera; herritarrekiko harremanetan beti tratu ona izan behar dela dio printzipio horietako batek (h atala), baita poliziaren zainzapean badaude ere.

Onartua.

16/605 espedientea

Interesdunak bere alaba adingabea urtebetetze-festa batera zeramala, Poliziak haren autoa miatu eta droga detektatzeko proba egin izanari buruz:

- Nafarroako Foruzaingoari gogorarazi zaio bere jarduerak egokitasun-printzipioaren arabera izan behar dutela eta kausa objektibo arrazoituak egon behar dutela jarduera horietarako.
- Departamentuari gomendatu zaio artxiba dezala kexa aurkeztu duenaren kontra irekitako zehapen-espedientea. Espedientea NA-8711 patruilatzen ari ziren trafikoko agenteen jarduketaren eta ikuskapenaren ondoren ireki zen, eta agenteek salatutako pertsonaren ezagutzan eta “aurreko kasu batzuetan harekin izandako gorabeheretan” bakarrik zegoen oinarritua.

Ez da onartu.

OJ16/32

Aske ez dauden nafar herritarrek, hala nahi izanez gero, beren kondena Nafarroan bertan bete ahal izateari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio, egokitzat joz gero, aintzat har dezala Estatuko Administrazio Orokorrean behar diren egintzak egiteko, hala nahi duten nafar herritar ahalik eta gehienek beren kondena Nafarroan bertan bete dezaten.

Onartua.

Iruñeko Udalari

15/638 espedientea

Hiriko lurzati batean pertsona batzuk kokatu izanaren kontra jarritako salaketen inguruan ezer ez egin izanari buruz:

- Udalari gomendatu zaio, hiriko lurzati batean pertsona batzuk bizitzen jarri izanaren ondorioz, bere gizarte-zerbitzuen bidez gizarteratze-neurriak sendotu eta azkartu ditzala, kontuan harturik bertan kokatu diren pertsonen egoera, behar bezala gizarteratu daitezten eta kokagunea bertan behera gera dadin.

Onartua.

Garesko Udalari

16/445 espedientea

Herrian egiten diren zezen-ikuskizunen (behi-askatzea) ziurtasun faltari buruz:

- Udalari gomendatu zaio, administrazio eskuduna eta herriko festen antolatzailea den aldetik, zehatz-mehatz azter ditzala azken urteetan kalean eginiko zezen-ikuskizunetan (behi-askatzea eta gisa horretakoak) zer gorabehera izan diren, eta azter eta balora dezala segurtasun-neurriak handitzea, kexan salatutako arrisku-egoeraren gisakoak eragozteko.

Onartua.

5.2.18. Zerbitzu publikoak

Garapen Ekonomikorako Departamentuari

OJ16/19

Nafarroako banku publiko bat sortzeko ikerketa-prozesua hasteari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio mekanismo eraginkorren bat martxan jar dezala herritarrek parte har dezaten ekinbide honen alderdi funtsezkoetan gutxienez.

Onartua.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuari eta Cásedako Udalari

16/519 espedientea

Osoko bilkuran Cásedako Kale Nagusiko ur- eta saneamendu-sareari buruz hitzartutakoa betetzeko atzerapenari buruz:

- Cásedako Udalari eta Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuari iradoki zaie, beharrezko lankidetzan, sakon azter dezatela kexan salatutako arazoa, hau da, Cásedako Kale Nagusiak Tejada pasealekuarekin bat egiten duen zatian ur- eta saneamendu-sareak beharrezkoa duen berriztapenari buruzkoa, eta zehaztu, finantzatu eta betearaz ditzatela beharrezko jarduketak aipatu herriko herritarrei ematen zaien zerbitzuaren kalitatea hobetu dadin.

Onartua.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuari

OJ16/13

ETB telebista-katearen seinalea bertan behera geratu izana Iruñerrian, Erdialdean eta Erriberan:

- Nafarroako Gobernuari iradoki zaio beharrezko egintzak azkartu ditzala Nafarroan ETB erakunde publikoaren emankizunak lehenbailehen jaso ahal izateko, gutxienez, euskaraz ematen direnak, edo Nafarroako kulturari edota horrekin lotutako kultura-elementuei buruzkoak, betiere eskatu beharreko baldintza teknikoak aintzat harturik.

Onartua.

Tudelako Udalari

16/342 espedientea

Tudelako herrigunea Reina Sofía ospitalearekin (baita La Atalaya zentroarekin ere) lotzen duen garraio-zerbitzuaren murrizketei buruz:

- Udalari iradoki zaio herrigunea Reina Sofía ospitalearekin lotzen duen garraio-zerbitzuaren maiztasuna berrezartzeko (egunak, orduak...), 2013ko abenduaren 31ra arte langileek eta gainerako herritarrek zerbitzu hori erabiltzen zuten bezala gera dadin.

Erantzunaren zain dago.

Ultzanuetako Zerbitzuen Mankomunitatea

16/313 espedientea

Ur-horniduraren zerbitzuarekin eta zerbitzu horrengatik kobratutako prezioarekin lotutako zenbait eskabideri emandako erantzunari buruz:

- Mankomunitateari gomendatu zaio behar diren neurriak azter, bultza eta har ditzala kexan salatzen diren ur-hornidurako arazoak hobetzeko, herritar guztiek zerbitzua lehenbailehen eta kalitate-baldintza egokienetan jaso dezaten.
- Mankomunitateari gomendatu zaio erabiltzaile batzuen kontagailuak aldatu behar dituzenean argi eta garbi azaldu dezala, kasuari erreferentzia zehatza eginez, aldaketa zergatik egiten den, eta hori erabiltzaileari jakinarazi behar diola.
- Mankomunitateari gomendatu zaio pertsona interesdunari “kontagailuaren alokairuarengatik” kobratutako kuota itzultzeko, zerga-egitaterako beharrik ez baitago.

Ez da onartu.

5.2.19. Lana

Eskubide Sozialetako Departamentua

15/610 espedientea

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egiaztagiri bat, IFESek antolatutako ikastaro batean zenbait orduz huts egin izana justifikatzeko aurkeztua, onartu ez izanari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarrekiko harremanetan fede onaren eta konfiantza legitimoaren printzipioak errespetatzera.
- Departamentuari gomendatu zaio azter ditzala kexa aurkeztu zuen pertsonaren arrazoiak ikastaroan huts egiteko, arrazoi horietakoren bat justifikatua den ikusteko, eta, hala, profesionaltasun-ikastaroan jarraitzeko behar dituen gutxieneko orduak egiaztatu ahal ditzan.

Ez da onartu.

16/309 espedientea

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko ikastaroetan izena emateko unean informazio gutxi emateari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak azter ditzala profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko ikastaroetan izena emateko prozesuak, eta izena ikastaro batean baino gehiagotan emateko aukera aintzat har dezala.

Ez da onartu.

Garapen Ekonomikorako Departamentuari

16/278 espedientea

Nazioartean Praktikak egiteko 2016ko Bekak emateko prozeduratik kanpo utzi izanari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela ez mugatzera edota ez eragoztera dokumentuen aurkezpena

forma-arrazoiengatik edo herritarren idatzien edukiek eragindakoengatik, baita herritarrek entzunaldi-izapidearen aurretiko prozeduraren edozein fasetan aurkezten dituzten alegazioak kontuan hartzera ere, eta horiek aintzat hartu behar direla baita ebazpen-proposamena emateko orduan ere.

- Departamentuari gomendatu zaio baliorik eta indarririk gabe uzteko interesduna Nazioartean Praktikak egiteko 2016ko Bekak emateko deialditik kanpo utzi izana, ebazpen hori emanik egitezko bidearen hutsa egin dela uste baita, eta eskaturiko beka eman diezaiotela, langabezia egotearen eskakizun funtsezkoa betetzen baitu.

Erantzunaren zain dago.

Hezkuntza Departamentuari

16/283 espedientea

Nafarroako itunpeko hezkuntzako langileen ordainsariak igo ez izanari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio kontuan har dezala kexa jarri duten sindikatuen eskaera, eta, horrenbestez, beharrezko neurriak bultza edo har ditzala itunpeko hezkuntzako langileen ordainsaria, irakasleena eta irakasle ez direnena, %1 igo dadin, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

Ez da onartu.

5.2.20. Trafikoa eta bide-segurtasuna

Garapen Ekonomikorako Departamentuari

16/540 espedientea

Nekazaritzako ibilgailuak A-68 autobidean, “Tudelako saihesbidea” deritzon zatian, 2016ko martxotik ezin ibiltzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio azter dezala kexa-egileek aurkeztutako ordezeko bidearen proposamena, eta aipatutako elkarte profesionalarekin hitzartutako konponbide bat bideratu dezala. Halaber, arazoari konponbiderik aurkitzen ez zaion bitartean, azter dezala nekazaritzako ibilgailuei ibiltzen uztea A-68 autobidean, “Tudelako saihesbidea” deritzon zatian, zirkulazioaren segurtasunerako behar diren bermeak kontuan hartuta.

Erantzunaren zain dago.

Iruñeko Udalari

OJ16/7

Bizikleten erabiltzaileek Iruñeko Udaleko Zirkulazioaren Udal Ordenantza betetzen duten edo ez:

- Udalari iradoki zaio honako hauek sakon azter ditzala:
 - a) Iruñean bizikletaren erabilera gaur egun nola dagoen;
 - b) gaur egungo udal-araudia zenbateraino ez den betetzen;

- c) bizikletadunen eta oinezkoen artean hiriko hainbat tokitan sortzen diren arazoak, bizikletadunek espaloiak eta oinezkoentzako tokiak hartzen dituztelako;
- d) nola bultzatu bizikletaren erabilera oinezkoei kalterik egin gabe eta bizikletadunen segurtasuna bermaturik ibilgailu motordunen aldean;
- e) bizikletetarako bide, bidegorri eta bizikletadunek erabiltzeko moduko toki gehiago ezartzea;
- f) hirian zehar bizikletetarako bide-sare bat sortzeko aukera, ibilgailu motordunetatik bereizita edota lehentasuna bizikletek dutelarik, bizikletadunen segurtasuna bermatzeko (adibidez, kale-sare bat bizikletadunentzat eta ibilgailu baimendunentzat bakarrik, ibilgailu motordunentzako kaleetan beste aukera batzuk bilatu...);
- g) bizikletarekin ibil daitekeen espaloietako seinaleak hobetzea (espaloietako askotan, zirkulazio-seinale horizontalak ezabaturik edo oso gaizki daude, eta zaila da ikustea seinalearen margo zuria);
- h) bizikletak segurtasunez aparkatzeko tokiak areagotzea, mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonen igarobidea eragotziko ez dela bermaturik;
- i) bizikletadunentzako informazio-kanpainak egiteko aukera, oinezkoak, batez ere espaloietan, errespetatzeko duten beharrari eta beste ibilgailuekiko dituzten betebeharrei buruz.

Onartua.

OJ16/20

Ermitagaña kalean harrapatzeak eragozteko neurriak hartzeari buruz:

- Udalari eskatu zaio Ermitagaña kalean eta ingurukoetan neurriak har ditzala, ibilgailuen abiadura gutxitzeko eta oinezkoen segurtasuna bermatzeko.

Onartua.

Tudelako Udalari

16/208 espedientea

Udalerriko zirkulazio-ordenantza orokorra aldatzeari buruz; desgaitasuna duten pertsoneri aparkatzeko txartela ematearen ingurukoa da ordenantza hori:

- Udalari iradoki zaio berriro azter dezala mugikortasuna murriztua duten pertsonen aldeko ekintza positiboa, haiek beren ibilgailua aparkatu ahal dezaten Tudelako aparkatze murriztuko eremuetan denbora-muga errespetatzeko eta ezarrita dagoen prezioa ordaintzeko baldintzarik gabe.
- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela egiaztatzen desgaitasuna duten eta mugikortasun murriztua duten pertsonentzat gutxieneko aparkaleku-kopuru bat bermatzen duela, aplikatzekoa den araudian jasota dagoen bezala, eta araudi hori ekainaren 29ko 154/1989 Foru Dekretuak 10. artikuluan agintzen duena dela ulertzen da. Egiaztapen hori, Udalak hala mantentzea erabakitzen badu, alde aurreko baldintzat jotzen da aparkatze murriztuko eremuetan kobratu ahal izateko.

Ez da onartu.

Eguesibarko Udalari

15/551 espedientea

Zirkulazioari dagozkion EG7063 eta EG6242 zehapen-espedienteak irekitzean eta izapidetzean ustez egindako irregulartasunei buruz, baita udal horretan ezarritako aukerako berraztertze-errekurtsoari erantzun ez izanari buruz ere:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroko 26ko 30/1992 Legearen 129. eta 138. artikulua betearaztera; artikulua horiek tipikotasun-printzipioari eta zehapen-prozeduran sortutako gorabehera guztiak arrazoitzeko eta konpontzeko beharri dagozkie.
- Udalari gomendatu zaio kexa eragin duten zehapenak ezeztatu eta baliogabetu ditzala

Onartua.

5.2.21. Hirigintza

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Departamentuari

15/686 espedientea

Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategia izateko etxola bat eraikitzeko lizentzia ukatu izanari buruz, nahiz eta Nafarroako Gobernuaren eta Imozko Udalaren aurretiko baimenaren ukoa oraindik ez den irmoa.

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela lurzoru urbanizagarriko erabilera eta jardueretarako baimen-eskaerak berariaz ebaztera legeak ezartzen duen epean.

Onartua.

16/114 espedientea

Lurraldearen Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuaren aldetik erantzun argirik jaso ez izanari buruz, Iturengo lurzati batzuetarako Arau Subsidiarioen aldaketa egituratzaile baten behin betiko onarpenari dagokiona.

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela hirigintzako aldaketa egituratzaileen behin betiko onarpen-eskaerak berariaz ebaztera legeak ezartzen duen epean.
- Departamentuari iradoki zaio bilera bat antolatzeko bere zerbitzu teknikokoekin, Iturengo Udalekoekin eta espedientea irekiarazi duenaren zerbitzuetakoekin, eskatu den aldaketa behin betiko onartzeko zer aukera dauden hitz egin ahal izateko, betiere hirigintzako estandarrak salbuetsita, Ituren gisako herri txiki batean halakoek zentzurik ez dutela erabakiz gero.

Onartua.

Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuari

15/513 espedientea

Mobil-home deritzonak ondasun higiezin eta etxebizitzatzat hartzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio neurriak hartzeko kanpaleku batean dauden mobil-home delakoei “etxebizitza” izaera kentzeko, eta dituzten ezaugarriekin eta erabilerarekin hobekiago egokitzen den beste definizio bat emateko.

Ez da onartu.

Berbinzanako Udalari

16/25 espedientea

Udaleko Plan Orokorraren aldaketen inguruko bi eskabidek erantzunik jaso ez izanari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarrek hirigintzari buruz egiten dituzten informazio-eskaerei erantzutera Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak, abenduaren 20koa, ezarritako bi hilabeteko gehieneko epearen barruan.

Onartua.

Biurrun-Olcozko Udalari

16/230 espedientea

Olcozko 3. EUko urbanizazio-obrak egiteko lurzati bat inbaditzeari eta pentsioa bahitzeari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio, pentsioen bahiturari dagokionez, legez behartuta dagoela Prozedura Zibilaren Legeko 607. artikulua dioenaren barruan jardutera, eta ezin dela bahitu lanbidearteko gutxieneko soldataren gainetik ez dagoena, eta

horren gainera dagoenari dagokionez, berriz, gehienez legegak ezartzen dituen ehunekoak aplikatu behar direla.

Onartua.

Cabredoko Udalari

16/241 espedientea

Hirigintzaren arloko legezketasuna berrezartzeko espediente baten hasierari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio administrazio publikoari jarduketa jakin bat eskatuz idazten dion herritar orok eskubidea duela bide beretik erantzun bat jasotzeko, prozedura administratibo bakoitzak ebatzenetarako ezarria duen gehieneko epean, alde batera utzita erantzuna baiezkoa edo ezezkoa den.

Onartua.

Desojoko Udalari

16/494 espedientea

Desojoko Udalak 2015eko azaroan baimendutako bat legezatzeko errekerimenduari buruz (obra jada exekutaturik dago):

- Desojoko Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela interesdunei obren legeztapena eskatzera baldin eta haiek lizentziarik gabe edota lizentzian jasotzen diren baldintzak bete gabe aritzen badira bakarrik.

Onartua.

Gesalazko Udalari

16/484 espedientea

Kexa ezarri duenak eskatutako obra-lizentzia bati ezarritako tasari buruz:

- Udalari iradoki zaio alda dezala hirigintza-tramitazioengatik ezartzen diren tasak arautzeko ordenantza, eta egokitu dezala Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak jasotzen dituen eskaeretara.
- Udalari gomendatu zaio baliorik gabe uzteko kexa ezarri duenari eskatu zaion tasa, aplikatu den ordenantzak ez baititu errespetatzen zerga-kuota zehazteko lege-eskakizunak.

Onartua.

Igúzquizako Udala

16/399 espedientea

Udalak etxean leiho-oholak jartzeari emandako ukoari buruz, nahiz eta horretarako obra txikiko lizentzia emana zion:

- Udalari gomendatu zaio, legaltasuna udal ordenantzek diotenaren arabera berrezarri nahi badu, jo dezala ordenamendu juridikoak lizentzia berraztertzeke ezartzen dituen bideetara, eta ez egitezko bidera edo beste batzuetara.

Onartua.

Marcillako Udalari

16/400 espedientea

3/2016 Alkatetzaren Ebazpenean jasotako hertsatze-isunak aplikatu ez izanari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela arrazoizko epe baten barruan izapidetzera eta ebaztera hirigintza arloko legezotasuna berrezartzeko prozedura administratiboak, baita nahitaez betearaztekoak ere, eta horretarako behar diren neurriak hartu behar dituela.

Ez da onartu.

Oteizako Udalari

15/616 espedientea

Oteizako hiri-antolamenduko plan orokorraren (HAPO) aldaketa zehaztu baten hasierako onespeneren ofiziozko berrikuspenaren prozedura baten izapidetzeari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio herritarrek, interesdun diren prozeduretan, alegazioak egiteko eta dokumentuak aurkezteko duten eskubidea babestu behar duela, eta legeak horretarako ezartzen dituen epeak errespetatu behar dituela.
- Udalari gomendatu zaio ondoriorik gabe utz dezala kexa eragin duen ofiziozko berrikuspenaren prozedura; izan ere, ekintza izapidezkoa denez, ezin da ezeztatu.

Onartua.

Iruñeko Udalarri

15/649Al espedientea

Mendillorri auzoko kafetegi bati terraza handitzeko emaniko lizentziari buruz:

- Udalarri iradoki zaio alda dezala terrazak eta komertzioei eta ostalaritzari lotutako beste elementu batzuk bide publikoan jartzeari buruzko ordenantza, terraza bat ezartzeko erabilera publikoko espazio pribatuak hartu behar direnean eta horretarako eskaera egiten denean jabearen berariazko baimena eskatu ahal izateko.
- Udalarri iradoki zaio kexa ezarri dutenekin harremanetan egon dadila, kexa eragin duen terrazaren funtzionamenduan atzematen diren arazoen berri zuzenean azaltzeko, eta, behar izanez gero, behar diren neurriak eskatzeko ukitzen diren eskubideak eta interesak ahalik eta hobekien bateratzeko eta betiere auzotarrei eragozpenik ez sortzeko.

Onartua.

16/286 espedientea

Lurzati katastral batean gaur egungo Hirigintza Plana betearazteko hirigintza-hitzarmenak bete ez izanari buruz:

- Udalarri gogorarazi zaio legez behartuta dagoela legeak ezartzen dituen gehieneko epeen barruan ebaztera ekimen partikularreko udal-planaren aldaketa puntualak.
- Udalarri gomendatu zaio ahalik eta azkarren izapidetu dezala merkataritza-sozietate kexatzaileak sustatutako planeamendu-aldaketa, eta, hala, eragotz ditzala alferreko

errekerimendu gehiago eta gorde ditzala udalak berak eskatutako aldaketarekin bat datozen txostenak eta izapideak.

Onartua.

Urroz-Villako Udalarari

16/512 espedientea

Arau subsidiarioen aldaketa puntual eta egituratzailerako proiektua geratu izanari buruz:

- Udalarari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela legeak ezartzen dituen gehieneko epeen barruan ebaztera ekimen partikularreko arau subsidiarioen aldaketa egituratzaileak.
- Udalarari iradoki zaio kontuan har dezala hirigintzako aldaketak eragiten dion lurzattia zuzenean besterentzea kexa ezarri duenari, udalak berak eskatutako txosten teknikoan ageri diren arrazoiengatik.

Onartua.

Aranguren Ibarreko Udalarari

16/419 espedientea

Aurkeztutako zenbait eskabideren ebazpen faltari buruz, lurzati bati dagozkion zehaztaperen egituratzaileen aldaketa baten ingurukoak, hain zuzen:

- Udalarari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela legeak ezartzen dituen gehieneko epeen barruan ebaztera ekimen partikularreko arau subsidiarioen aldaketa egituratzaileak.

- Udalari iradoki zaio indarrean dauden arau subsidiarioetan aldaketa puntuala, kexa aurkeztu duen pertsonak planteaturikoa, izapidetzeko.

Erantzunaren zain dago.

Montejurrako Mankomunitateari

16/407 espedientea

Eskaera bati ez erantzuteari buruz:

- Mankomunitateari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarrek egiten dizkioten eskaerak ebaztera eta erantzuna jakinaraztera, baita proposatzen diren jarduketa edo eskaeretarako indarrean dauden xedapenek agintzen dituzten baldintzen inguruan orientatzeko ere.

Onartua.

5.2.22. Etxebizitza

Eskubide Sozialetako Departamentuari

15/688 espedientea

Babes ofizialeko etheen (BOE) sustatzaileari egoztekoak zaizkion hutsegiteen inguruan, eraikuntzarekin lotutakoak, Departamentuak jokatu duen erari buruz; Departamentua da etxeetako baten jabea, eta, hutsegite horiek konpontzeko epea luzatu du, enpresa zigortu ordez, sustatzaileari egindako lehen jakinarazpenean konpromiso hori hartu bazuen ere:

- Udalari gogorarazi zaio, interesdunen eskubideei eta interesei eragiten dieten egintzen jakinarazpenari dagokionez, kasu

honetan bezala, legez behartuta dagoela Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroko 26ko 30/1992 Legearen 58. eta 59. artikulua betearaztera.

- Departamentuari gomendatu zaio lehenbailehen izapidetu dezala kexatzaileak hasitako salaketa-espeditzea, eta, hala badagokio, baita horren ondorioz gerta daitezkeen zehapen-jarduketak ere.

Onartua.

16/45/AI espeditzea

Etxebizitza babestu bat eskuratzeko diru-laguntza ezin jasotzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio aldaketa bat egiteko 25/2011 Foru Dekretuan, martxoaren 28koan. Dekretu horrek etxebizitza babestuen eskatzaileen zentsua arautzen du, Foru Dekretu horretan bertan 12.7 artikulua jasotzen duen etxebizitza-desegokitasuneko egoeran daudenek (gutxienez, berez, etxebizitza familiarretik irten diren pertsona banatuak edo dibortziatuak), duten errentaren arabera, etxebizitza babestua eskuratzeko diru-laguntza jaso ahal dezaten.

Onartua.

16/226 espeditzea

Prezio tasatuko bigarren eskuko etxebizitza bat ezin erosteari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio, bere edo NASUVINSA sozietate publikoaren jabetzako etxebizitza babestuen bigarren eskualdaketatik, eskuratzailari edo esleipendunari Nafarroan

Etxebizitza Izateko eskubideari buruzko 10/2010 Foru Legeko lehen xedapen gehigarrian jasota dauden baldintzak baino ez eskatzeko, eta, horrenbestez, kexa aurkeztu duenari utz diezaiola prezio tasatutako etxebizitza erosten.

Onartua.

16/440 espedientea

Bere etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzei konponbide bat eman ez izanari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarrek aurkeztutako eskaerak ebaztera eta hartutako erabakiak jakinaraztera.
- Departamentuari gomendatu zaio kexa aurkeztu duenari jakinarazteko zer aukera dauden etxe babestu bat eskuratzeko.

Onartua.

16/455 espedientea

Kexa ezarri duenari 2012an etxebizitza bat ez esleitu izanari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio ziurta dezala NASUVINSA sozietate publikoak bere jabetzako etxebizitzaren salmentan, nahiz eta ez egon ezein babes-motaren mende, berdintasun-, objektibotasun- eta gardentasun-printzipioak betetzen dituela, eta, baldin eta pertsona bat baino gehiago badago etxe bera erosteko interesaturik, printzipio horiek betetzen direla ziurtatuko duten neurriak ezar ditzala.

Onartua.

16/473 espedientea

NASUVINSAk duela bi urte esleitu zion etxebizitzaren egoera okerrari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarrei idatziz erantzutera bizi diren etxebizitzaren egoerari buruzko erreklamazioak aurkezten dituztenean; halaber, erantzun hori jakinarazi beharko die beste pertsona edo erakunde interesdunei ere.
- Departamentuari gomendatu zaio etxebizitza bat esleitzeko keza ezarri duen pertsonari, haren familia-unitatearen beharretara egokitua eta Gizarte Integrazioarako Errentamenduko Etxebizitzen programaren barruan.

Onartua.

OJ16/11/AI

Hurrengo lau urteetan alokairu-araubideko etxebizitza babestuei babes-araubidea kentzeak izango dituen ondorioei buruz:

- Eskubide Sozialetako Departamentuari iradoki zaio honako neurri hauek azter ditzala, eta, hala badagokio, ezar ditzala:
 1. Alokairu-araubideko etxebizitza babestuen sustatzaile pribatuekin ituntzea zer neurri har daitezkeen azaldutako arazoa arintzeko.
 2. Irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrak aurreikusten duen gutxieneko epea murrizteko, eta ez kentzeko, aukera aztertzea, hiru urtekoa izan dadin.

3. NASUVINSAk kudeatutako etxebizitza babestuko sustapen guztiak irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrean xedatuta dagoenera biltzea, egungo maizterrek aurrerantzean ere alokatu ahal izan ditzaten etxebizitzak gehieneko prezioari eta diru-laguntzei dagozkien baldintza beretan, betiere ezarritako baldintzak oraindik ere betetzen badituzte.
4. Etxebizitza babestuen jabe diren administrazio publikoei eskatzea irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrean xedatuta dagoenera bil daitezela.
5. Etxebizitzen alokairuaren sustatzaile-kudeatzaileen eta errentarien artean bitartekari-lanak egitea, babes-araubidea berehala amaitzear duten promozioetan eta horko maizterrak alokairu-araubidean jarraitzeko interesa duela jakinarazi duen kasuetan.
6. Sinatzen diren etxebizitza babestuen alokairu-kontratuetan zaintzea alokairuaren iraupenak ez dezala gainditu etxebizitza babestuaren babes-araubidea amaitzea aurreikusita dagoen data.
7. Sustatzaile pribatuekiko bitartekaritzak huts eginez gero, honako konponbide hauek ezar daitezke:
 - a) Legez ezartzea etxebizitza babestu bat eskuratzeko lehentasunezko bide bat babestuak izateari uzten dioten etxebizitzetan bizi diren eta etxebizitza aldatu behar izatea egokitzen zaien maizterrentzat.

- b) Babes-araubidearen legezko gehieneko epea amaitu zaielako etxetik alde behar duten pertsoneri alokairu-poltsaren programaren barruan kudeatutako etxeak zuzenean alokatzeko beharrezana ezartzea, hala egokitzen denean.

Onartua.

Iruñeko Udalarari

16/13 espedientea

Bere etxearen berraloramenduaren ondorioz, ordezkoko etxebizitza bat eman ez izanari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legez behartuta dagoela herritarrekiko harremanetan fede onaren eta konfiantza legitimoaren printzipioak errespetatzera.
- Udalarari gomendatu zaio bete ditzala kexa ezarri duenari egindako proposamenean hartutako konpromisoak, eta, hala, esleitutako etxebizitza emateko, edota antzeko beste bat, baldin eta uste badu ez dituela betetzen babes ofizialeko araubide bereziko etxebizitza bat eskuratzeko baldintzak.

Onartua.

→ 5.3. KASU PARTIKULARRETARAKO GOMENDIOAK, IRADOKIZUNAK ETA LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORAZPENAK

5.3.1. Enplegu publikoko lanpostu batera heltzea

Hezkuntza Departamentuari

16/600 espedientea

Zaintzaile lanposturako aldi baterako kontratazioetarako zerrendatik kanpo uzteari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio kexa-egilea berriro sar dezala zaintzaile lanposturako kontratazioetarako zerrendan, ez baitago inolako xedapenik, kanporatzea eragin zuen deialdia egiteko Departamenduak erabili zuen tokia babesten duenik.

Ez da onartu.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

15/653 espedientea

Sukaldari lanposturako aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrendatik kanpo uzteari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio atzera bota dezala eta eragirik gabe utz dezala kexa-egilea sukaldari lanposturako aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrendatik kanpo uzteko ebazpena, eta interesduna berriro sar dezala kontratazioetarako zerrenda horretan.

Ez da onartu.

16/70 espedientea

Zaintzaile lanpostuak betetzeko izangaien bi zerrenda osatzeko deialdian jardun zuen epaimahai kalifikatzaileak probako bi galdera baliogabetzeko eskaria ezesteko hartutako erabakiari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio martxoaren 30eko 735/2015 Ebazpenaren bidez zaintzaile lanpostuak betetzeko izangaien bi zerrendak osatzeko egin zen deialdiko ariketaren 43. eta 48. galderei buruz kexa-egileak aurkeztutako aurkaratzea berrikus dezala, zioak emanez eta sakontasun zientifiko handiagoz, eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak har ditzala.

Onartua.

16/104 espedientea

Gizarte-langile lanpostuak betetzeko oposizio-deialdiaren ondorioz sortutako plazarik gabeko gaitutuen aldi baterako kontratazioetarako zerrendatik kanpo uzteari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio gizarte-langile lanpostuak betetzeko oposizio-deialdiaren ondorioz sortutako plazarik gabeko gaitutuen aldi baterako kontratazioetarako zerrendan sar dezala kexa-egilea.

Ez da onartu.

16/175 espedientea

Aldi baterako kontratu-eskaintza bati uko egiteagatik ezarritako zigorrari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio kexa sortu duen zigorra, kontratu-eskaintza bati uko egiteagatik ezarria, eraginik gabe utz dezala; izan ere, interesduna adar ekonomikoko Administrazio Publikoko teknikariak kontratatzeko zerrendan zegoen, eta beste lanpostu batean ari zen funtzionario bat (goi-mailako teknikaria) ordezkatzeko eskaintza egin zioten. Hori dela-eta, kontratazioetarako aintzat har dezala, eta uko egin izana ez dadila kontuan hartu aldi baterako kontratazioetarako araudian xedatutako ondorioetarako.

Onartua.

Hezkuntza Departamentua eta Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

16/441 espedientea

Pedagogia terapeutikoaren alorreko irakasle-plazak betetzeko oposizioetan desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasunerako eskubidea ez errespetatzeari buruz.

- Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari eta Hezkuntza Departamentuari gomendatu zaio kexa sortu duen oposizioaren prozesua eta emaitza sakon azter dezatela, eta kexa aurkeztu duen izangaiaren oharrak berrikus ditzatela. Izan ere,
- hamalau plaza zeuden desgaitasuna duten pertsonentzako txandan, baina izangai bakar batek gainditu du oposizioa. Emaitza hori ez dator bat legegilearen asmoarekin; eta, horrez gainera,
- kalifikazio-epaimahaiak ez zuen izangaia kalifikatu deialdiko oinarrien arabera.

Ez da onartu.

Osasun Departamentuari

16/79 espedientea

Osasunbidea - Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2010ean administrari laguntzaile lanpostuak betetzeko egin zuen oposizioaren ondorioz sortutako aldi baterako kontratazioetarako zerrendetan ez sartzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio kexa-egilea sar dezala administrari laguntzaile lanposturako kontratazio-zerrendan.

Ez da onartu.

16/139 espedientea

Zerbitzu orokorretako lanpostua betetzeko aldi baterako kontratazio-zerrenden kudeaketan ezarritako zigorrari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio kexak aipatzen duen askotariko eginkizunetarako langilea kontratatzeke eskaintzari uko egin izana justifikatutzat har dezala, eta horren ondorioak kontuan har ditzala, etorkizunean interesduna aldi baterako kontratatzeari begira.

Ez da onartu.

Tudelako Udalarai

16/64 espedientea

Kontsumitzailearentzako informazio-zerbitzua azkentzearen ondorioz administrazio-kontratua azkentzeari buruz:

- Udalari gomendatu zaio ondoriorik gabe utz dezala kexa sortu duen administrazio-kontratuaren azkentzea, eta interesduna onar dezala berriro, hark ordezkutzen duen funtzionarioaren ordezkapenak irauten duen bitartean udal-antolakuntzako beste unitate bati atxikita bada ere, bertan beharrezkoa dela iritziz gero, kontraturako eskatu zioten titulazioaren araberako funtzioak garatzeko aukera izan dezan.

Ez da onartu.

5.3.2. Nekazaritza

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari

16/562 espedientea

2015eko Erreserba Nazionaleko oinarritzko ordainketen eskubidea eskatu duen interesdunari ezezkoa emateari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio azter dezala kasu horretan 2015 baino lehenagoko ekitaldietan ordainketa bakarreko laguntza-eskaera aurkeztu ez izana administrazio-jardunaren ondorio izan ote zen, eta, hala izan bazen, eta interesdunari kalteren bat egin bazitzaion, prestazioa eskuratu ahal izateko, neurriak har ditzala, laguntza hura edo haren balio ekonomikoa emateko.

Ez da onartu.

5.3.3. Gizarte-ongizatea

A) Gizarteratzea

Eskubide Sozialetako Departamentuari

15/592 espedientea

Gizarteratze-errenta ukatzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio kexa sortu duen gizarteratze-errentaren ukapena berrikus dezala, eta interesdunari prestazioa eman diezaiola, Nafarroan gutxienez hogeita lau hilabetez etengabe bizi izana eskatzen duen baldintza betetzen duela iritzita.

Ez da onartu.

16/188 espedientea

Etxebizitza baten alokairua ez ordaintzeak sortu dituen zorrak ordaintzeko aparteko laguntza ukatzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio kontuan har dezala alokairua ez ordaintzeak sortutako zorra dagoela oraindik ere, eta onar dezala kexa-egileak eskatutako aparteko laguntza.

Ez da onartu.

16/204 espedientea

Emandako gizarteratze-errentaren zenbatekoari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio interesdunari emandako gizarteratze-errentaren zenbatekoa berriz kalkulatu eta igo dezala, ez baitago egiaztatuta etxebizitza berean beste unitate hartzaile batzuk bizi direnik.

Onartua.

Iruñeko Udalarari

15/580 espedientea

Gizarteratze-errenta izapidetzeari ezezkoa emateari buruz:

- Udalarari iradoki zaio kexa-egilearen egoera azter dezala, dagokion oinarritzko gizarte-zerbitzuen organoaren bidez, eta, hala badagokio, gizarte-zerbitzuetako sistemaren prestazioren bat eman diezaiola, edo ematea premia dezala, azaldutako beharra kontuan hartuta.

Onartua.

16/288 espedientea

Zehapen administratibo baten ondorioz gizarteratze-errenta bahitzeari buruz:

- Udalarari gomendatu zaio 2015eko otsailaren 18ko Ebazpena, kexa-egilearen semea zigortzen duena, atzera bota dezala, eta dagozkion zenbatekoak itzul diezazkiola.

Onartua.

B) Desgaitasuna duten pertsonak babestea eta integratzea

Leringo Udalari

16/110 espedientea

Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela ukatzeari buruz:

- Udalari gomendatu zaio interesdunari aitor diezaiola desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela, % 65eko desgaitasuna duela kontuan hartuta.

Ez da onartu.

Iruñeko Udalari

16/66 espedientea

Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkalekuetan ibilgailuen txandaketarik ez izateari buruz:

- Udalari gomendatu zaio konponbideren bat bultza dezala interesdunak aparka dezan, etxera normaltasunez joateko aukera bermatzeko, haren desgaitasuna eta mugikortasun urria kontuan hartuta.

Kexa-egileak atzera egin du.

C) Adineko pertsonen babesa

Eskubide Sozialetako Departamentuari

16/54 espedientea

Iruñerriako zahar-egoitza batean plaza bat ez esleitzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio ahal bezain laster esleidielai plaza bat kexa-egilearen amari Iruñerriako zahar-egoitza batean, hura bizi den inguruan.

Onartua.

16/629 espedientea

San Martin Unxeko zahar-egoitzaren erakunde kudeatzaileari zehapen astun bat jartzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio San Martin Unxeko Santa Zita zahar-egoitza kudeatzen duen erakundearen aurka irekitako zehapen-espedientea artxiba dezala, ez dagoelako zehatutako egitateen larritasunaren justifikazio nahikoa.

Ez da onartu.

D) Mendekotasuna duten pertsonentzako arreta

Eskubide Sozialetako Departamentuari

16/140 espedientea

Mendekotasunik gabeko pertsonatzat jotzen duen balioespenarekin ados ez egoteari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio kexa-egilearen semearen mendekotasun-mailaren bigarren balioespen bat egin dezala.

Onartua.

16/212 espedientea

Mendekotasun-espediente bat ebazteko gehiegi atzeratzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio, ahal bezain azkar ebatz dezala kexan aipatzen den mendekotasun-aitorpenari burua, eta ebazpena jakinaraz dezala.

Ez da onartu.

E) Haurren eta nerabeen babesa

Eskubide Sozietako Departamentuari

15/535 espedientea

Adingabe bati familiartekoek eragindako balizko sexu-abusuen balorazioari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio kasuaren balorazio sakonagoa egin dezala, gertatutakoa behin betiko argitzeko; izan ere, kexan aipatzen denez, bost urteko neskatoari eragindako balizko sexu-abusuen adierazleen balorazioan zenbait desadostasun tekniko daude.

Ez da onartu.

16/122 espedientea

Neurri judizialak betearazteko Arangurengo zentroan dagoen adingabe bati mekanikoki eusteko eta behin-behinean bakartzeko jarduketan inguruabarrei buruz:

- Departamentuari honako gomendio hauek egin zaizkio:

- a) Iker ditzala 2016ko maiatzaren 6ko 10:00etatik maiatzaren 8ko 10:00etara adingabeari mekanikoki eusteko jarduketan inguruabarrak.
- b) Iker ditzala 2016ko maiatzaren 6an, ekainaren 26an eta abuztuaren 28an adingabea behin-behinean bakartzeko erabakia hartzearen inguruabarrak.

Onartua.

16/267 espedientea

Neurri judizialak betearazteko Arangurengo zentroan arreta txarra emateari eta objektu pertsonalak konfiskatzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio Neurri Judizialak Betearazteko Zentroaren kudeaketaz arduratzen den erakundeari eska diezaiola kexa-egileari itzultzeko logelatik kendu zizkioten objektuak, eta barkamena eskatzeko.

Onartua.

16/285 espedientea

Nazioarteko adopzio-prozesuetan laguntzen duen erakunde bati buruz (Administrazio publikoak baimendua), eta nazioarteko adopzioek sortzen dituzten gastuei buruz:

- Departamentuari iradoki zaio artekari-lana egin dezala; zehazki, aldeek bilera batean parte har dezatela, adopzio-prozesua burutzeko, eta interesdunak zenbateko egoki bat ordain dezala adopzio-gastuengatik, haien frogagiriak jaso ostean.

Onartua.

16/395 espedientea

Kexa-egileak hilero erabiltzen duen familiak elkartzeko gunearen funtzionamenduari buruz (alabaren aita biologikoari epai bidez aitortutako ikustaldietan):

- Departamentuari iradoki zaio, adierazitako kexari dagokionez, eta familiak elkartzeko guneak kudeatzen dituen erakundeak adierazitako aldeez aurretiko jarrera kontuan hartuta, kexa-egilearen eta familiak elkartzeko gune horren artean behar den giroa eta komunikazioa hobetzeko neurriak hartzea azter dezala, gune horri esleitu zaizkion helburuak betetze aldera.

Onartua.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

16/107 espedientea

Umezurtz-pentsioa ukatzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio eskatutako umezurtz-pentsioa jasotzeko eskubidea onar dezala.

Onartua.

5.3.4. Administrazio publikoen ondasunak

Beratsaingo Kontzejua

16/15 espedientea

Beratsaingo Kontzejuko herritar batek egindako itxiturari buruz (ibairako bidea desagerrarazi du eta herri-lurrak nabarmen urritu ditu):

- Kontzejuari gogorarazi zaio haren legezko betebeharra; alegia, herri-ondasunak babesteko, kontserbatzeko eta berreskuratzeko ahalmenak baliatu behar ditu nolnahi ere. Beraz, ikusi behar du Kontzejuko herritar batek egindako itxiturak ibairako bidea desagerrarazi duen eta herri-lurrak nabarmen urritu dituen.

Onartua.

Marañongo Udala

16/277 espedientea

Lurzati baten egoerari buruzko informazio-eskaera batzuei arretarik ez emateari buruz:

- Udalari gomendatu zaio, kexan aipatzen den lurzatiari dagokionez, ikertzeko ahalmena balia dezala, eta, hala badagokio, babesteko, kontserbatzeko eta berreskuratzeko ahalmenak ere balia ditzala. Horretarako, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuak emandako laguntza izango du.

Onartua.

5.3.5. Merkataritza eta kontsumoa

Garapen Ekonomikorako Departamentuari

15/600 espedientea

Kontsumitzailearentzako Informazio Guneak salaketa artxibatzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio kexa-egileak Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuari egindako salaketa berriro ireki dezala, eta kexa-egileak argitu dezala ibilgailu berriaren prezioa zenbatekoa izan den, eta ea kontzesionarioak bete dituen PIVE-7 planari heltzeko betekizun eta prozedurak.

Onartua.

5.3.6. Kultura

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari; Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuari; Garapen Ekonomikorako Departamentuari; eta Urdazubiko Udalari

15/576 espedientea

Berroberria-Alkerdi-Zelaieta-Ikaburu II multzo espeleologikotik hurbil leherketen bidez harrobia ustiatzeari buruz, eta horrelako jarduera batean aplikatzen diren intentsitate eta bitartekoen araberako eraginaren ebaluaziorik ez egiteari buruz:

- Garapen Ekonomikorako Departamentuari, Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuari, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Tokiko Administrazioiko Departamentuari eta Urdazubiko Udalari gogorarazi zaie, bakoitzari dagozkion eskumenen

esparruan, beharrezkoak diren neurri guztiak hartzeko legezko betebeharra dutela, premiazkoak diren heinean, denen artean koordinatuta, eta helburu hauek kontuan hartuta: kexan aipatutako haitzuloak babestea, kultura-ondasunak baitira, edo babestu beharreko arkeologia-ondasunak; ingurumena eta lurzoru urbanizaezina babestea (bai fauna, bai ingurumen-balioa duten naturaguneak); udalerriko hirigintza-plangintza betetzea; eta Urdazubiko herritarren artean kezkarik ez sortzea.

- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Tokiko Administrazioiko Departamentuari gogorarazi zaio Alkerdiko harrobia aldatzeko eskabidearen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko legezko betebeharra duela.
- Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuari gomendatu zaio Urdazubiko haitzuloetan Aranzadi Zientzia Elkarateak egin berri dituen Paleolitikoko labar-artearekin lotutako aurkikuntzak babesteko behar diren neurriak har ditzala, legez esleitu zaizkion eskumenak baliatuz, eta horretarako jarduketak areagotu ditzala.
- Urdazubiko Udalari gomendatu zaio Nafarroako Gobernuari eska diezazkiola Aranzadi Zientzia Elkarateak haitzuloetan egindako ikerketak edo txostenak, eta, agiri horiek aztertu ondoren, Udal Hirigintza Plana alda dezala, hala badagokio, aurkitu diren balio berriak behar bezala babestea helburu hartuta.

Onartua.

5.3.7. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea. Herritarren parte-hartzea. Gardentasuna.

Azagrako Udalari

15/284 espedientea

Informazio publikoaren eskaera bati erantzun osatu gabea emateari buruz:

- Udalari gomendatu zaio kexa-egileari emandako informazioa osa dezala, 2015eko martxoaren 16an eskatu zuen dokumentazio publikoa eskuratzeko erraztuz, betiere bertan egon daitezkeen datu pertsonalak kenduta.

Ez da onartu.

Esteribarko Udalari

16/231 espedientea

NA-2336 errepidea eraiki zenean galdutako lurraren konpentsazio gisa lehengo jabeai eman zitzaien lursailari buruzko informazio-eskaerari erantzunik ez emateari buruz:

- Udalari gomendatu zaio erantzun diezaiola, abenduaren 9ko 19/2013 Legean (Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legea) xedatutakoari jarraituz, errepide berria egin zenean lehengo jabeai konpentsazio gisa eman zitzaien lursailari buruz kexa-egileek egindako informazio-eskaerari.

Onartua.

Iruñeko Udalari

16/425 espedientea

Instantzia bati eta ondoren aurkeztutako errekursoari ez erantzuteari buruz, eta gora jotzeko errekurtoa Nafarroako Administrazio Auzitegiari ez helarazteagatik Udal Erregistroak izan dezakeen erantzukizunari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio kexa-egileak idatzitako eskabideari eta errekursoari erantzuteko legezko betebeharra duela.

Ez da onartu.

16/563 espedientea

Iruñeko Udaltzaingoak egindako txosten baten eskaerari ez erantzuteari buruz:

- Udalari gomendatu zaio interesdunari ahalik eta azkarren ematea haren alaba adingabeari eragiten dion poliziaren esku-hartze bati buruz eskatu duen txostena.

Onartua.

Tudelako Udalari

16/116 espedientea

Tudelan prebentzio-, sustapen- eta lankidetzaproiektuak garatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko partaidetza sozialeko erakundeak diruz laguntzeko deialdia ez argitaratzeari buruz:

- Udalari gomendatu zaio kexa-egilearen elkarte-proiektua onar dezala, kexan aipatzen den diru-laguntzen deialdian,

eta dagokion erabakia har dezala, deialdiaren oinarrietan ezarritako gainerako betekizun eta irizpideen arabera.

Ez da onartu.

5.3.8. Hezkuntza

A) Hezkuntza arloko plangintza

Hezkuntza Departamentuari

16/137 espedientea

2016-2017 ikasturterako ikastetxeak eskatutako bigarren lerroa ixteko erabakiari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio kexan aipatutako ikastetxe publikoan 2016-2017 ikasturterako Departamentuak berak egindako plangintzaren arabera plaza-kopuruari eta hezkuntza-unitateei euts diezaiela.

Ez da onartu.

16/214 espedientea

Itunpeko ikastetxe bateko DBHko eta Batxilergoko ikasleek ebaluazio bakoitza amaitu bezain laster gainditu ez dituzten azterketen errekupeazioak egiteko aukera izateari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio kexa sortu duen ikastetxeari eska diezaiola ezarritako errekupeazio-egutegia berrius dezala, hezkuntza-komunitatearen beharretara egokitzeko. Horretarako, nahi izanez gero, beste ikastetxe batzuetako esperientzia kontuan har daiteke.

Ez da onartu.

16/296 espedientea

Burlatako institutu batean zeuden hiru lerroei ez eustearen ondorioz Uharteko ikastetxe publiko bateko ikasleentzat plazak ez izateari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio BHI horretan 2016-2017 ikasturterako Uharteko ikastetxeko ikasleak hartzeko prozesuan aintzat hartzeko eta aztertzeko kexa-egileak adierazitako arrazoiak, BHI horretan beste lerro baten bidez plaza gehiago jartzeko, Uharteko ikastetxeko ikasleek eskatuz gero onartze aldera.

Ez da onartu.

16/353 espedientea

Mutiloako (Aranguren) San Pedro ikastetxe publikoa handitzeko obrei buruz:

- Departamentuari iradoki zaio, ikastetxe publikoa handitzeko obrei dagokienez, parte hartzeko prozesu bat egin dezala, formaren eta muinaren aldetik, eragile interesdun guztiek hitza izan dezaten (Arangurengo Udala, arangurendarrak, ikasleak, ikasleen gurasoak eta irakasleak), alde guztien interesak uztartzeko, hezkuntza-eskaerari erantzuteko eta hezkuntzaren kalitatea bermatzeko, antzeko ezaugarriak dituzten beste ikastetxe publiko batzuetan bezala, ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legean, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzkoan, parte hartzeko prozesuei buruz xedatutakoa kontuan hartuta.

Onartua.

B) Haur Hezkuntzako lehen zikloa (0-3 urte)

Barañaingo Udalari

15/626 espedientea

Haur-eskolakoak ez diren pertsonak sartzeari buruz:

- Udalari iradoki zaio segurtasun-neurri gehigarriak har ditzala, eskolakoak ez diren pertsonak udal haur-eskolara ez direla sartzen kontrolatzeko, batez ere eskola-orduetan edo haurrak bertan daudenean.

Onartua.

Eguesibarko Udalari

16/335 espedientea

Sarrigurengo haur-eskola batean haurrak ez onartzeari buruz:

- Udalari iradoki zaio Sarrigurengo haur-eskolan gaztelaniazko plaza gehiago jar ditzala, Sarrigurengo herritarren eskaerari erantzuteko.

Ez da onartu.

C) Ikasleak ikastetxeetan onartzea

Hezkuntza Departamentuari

16/109 espedientea

Ikastetxe publiko batean G-British erduan ez onartzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio koordinazio-printzipioaren arabera joka dezala, eta iradoki zaio, kexan planteatutako kasu zehatzean, sortu den egoera eta kexa-egileen itxaropen legitimoak kontuan hartuta, ahal izanez gero haien semea eskatutako ikastetxean onartzea azter dezala.

Ez da onartu.

16/369 espedientea

Eskatutako itunpeko ikastetxean ez onartzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio, ikastetxearekin batera, egoera azter dezala, eta, ahal den neurrian, eskatutako ikastetxean onartu ez duten ikaslearen gurasoek planteatutako konponbideak kontuan har ditzala, aukeratutako ikastetxean ikaslea ahal den neurrian onartzea bultzatzeko.

Ez da onartu.

D Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako arreta

16/314 espedientea

Down-en sindromea duen ikasle bati orain arteko ikastetxean ikasketak egiten jarraitzeko eskaerari ezezkoa emateari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio ikasleak aukeratutako ikastetxean jarraitzea berma dezala, behar diren baliabideak esleitzearen bidez.

Ez da onartu.

16/416 espedientea

Ikasle baten hezkuntza-premiak ez asetzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio ikaslearen hezkuntza-premia berezien jarraipen zorrotzagoa egin dezala, eta dagozkion neurriak har ditzala, eta, interesdunak eskatuz gero, neurri horiek bideojokoak diseinatzeko eta sortzeko ikastaroan aplika daitezela, berriz ezarriz gero.

Onartua.

E) Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

Hezkuntza Departamentuari

16/433 espedientea

Energia berriztagarrien goi-mailako ikastetxe integratuak (CISER) emandako informazio okerraren ondorioz 2016-2017 ikasturtean semea matrikulatzeko aukera galtzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio eraginik gabe utz dezala kexan adierazitako Lanbide Heziketako zikloetan interesduna onartzeko prozesutik kanpora uztea (ohiko epearen lehen fasea), eta hasieran onartutako aukeran onartzea bidera dezala (bigarren aukera).

Ez da onartu.

F) Eskolako bizikidetasuna

Hezkuntza Departamentuari

16/33 espedientea

Ikasle bat kanporatzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio ikerketa-prozedura bat has dezala, kexan adierazitako ikastetxetik (baserri-eskola) ikaslea benetan kanporatu ote zuen argitzeko.
- Departamentuari gomendatu zaio ikasketa-espedientea ikaslearen esku jar dezala, eta, horretarako beharrezkoa izanez gero, aipatutako ikastetxeari eska diezaiola.

Onartua.

16/53 espedientea

Bigarren Hezkuntzako Institutu bateko ikasle baten egoerari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio BHI horrek, Hezkuntza Departamentuko bizikidetzaholkularitzaren laguntzaz, ikaslearen jarraipen zorrotzagoa egin dezala; eta, haren egoera emozionala eta ikaskideekin integratzeko prozesua kontuan hartuta, neurri egokiak har ditzala.

Onartua.

16/98 espedientea

Institutu politekniko batetik kanporatzeko zigorrari buruz eta egindako azterketen informazioa eskuratzeko ezintasunari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio bost egunez institututik kanporatzeko erabakia atzera bota dezala eta eraginik gabe utz dezala, reformatio in peius printzipioa urratu delako.
- Departamentuari gomendatu zaio interesdunari berma diezaiola diziplinazko espedienteak eskuratzeko aukera, baita azterketak zuzentzeko eta berrikusteko aukera ere, hartutako erabaki administratiboen eraginpean dagoen aldetik.

Onartua.

OJ16/22

Ikastetxe itundu bateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailako ikasle baten heriotzari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio ikastetxera jo dezala, gertaerak jakinarazteko, eta eskola-jazarpenaren aurkako prebentzio-edo hezkuntza-jarduketa egokiak bultzatzea haren barne-eremuan.
- Departamentuari gomendatu zaio familia interesdunaren semeak pairatutako gertaerekin lotutako berriazko jarduketa gara dezala, edo ikastetxeari eska diezaiola, hildako adingabearen eskola-ingurunea ardatz hartuta, eskola-jazarpena prebenitzeko, eta, hala badagokio, detektatutako jokaerak hezkuntza-eremuan gaitzesteko.

Onartua.

G) Unibertsitateko irakaskuntza

Nafarroako Unibertsitate Publikoari

16/185 espedientea

Egoera pertsonala eta familiako gorabeherak kontuan hartu gabe, Ekonomiako lizentzia lortzeko konpentsazio-ebaluazioari ezezkoa emateari buruz:

- Unibertsitateari iradoki zaio kexa-egileak planteatutako kasu berezia azter dezala, eskatutako konpentsazio-ebaluazioa onartzeko, edo, bestela, interesdunak planteatutako konponbideetako bat har dezala.

Ez da onartu.

H) Ikasteko beka

Hezkuntza Departamentuari

16/368 espedientea

Nafarroako Gobernuak UNEDen Psikologiako ikasketak egiteko beka ukatzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio kexan adierazitako matrikulagatiko beka ematea azter dezala.

Ez da onartu.

I) Hizkuntza-eskola ofizialak eta musikako goi-mailako ikasketak

Hezkuntza Departamentuari

16/156 espedientea

Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean euskarako C1 mailako ikasle ofizial gisa eta euskarako B2 mailako ikasle libre gisa aldi berean matrikulatzeko eta azterketak egiteko ezintasunari buruz:

- Hezkuntza Departamentuari gomendatu zaio 2016ko irispide libreko probetan euskarako B2 mailan matrikulatzeko aukera eman diezaiola kexa-egileari.

Onartua.

Lizarrako Udalarari

16/263 espedientea

Musika-eskolak datorren ikasturterako tasa-igoera handia egin nahi izateari buruz:

- Udalarari gomendatu zaio, udal musika-eskolan inskribatzeko eta matrikulatzeko prezio publikoak ezartzean, neurrigabeko igoerarik ez egitea.
- Udalarari gomendatu zaio, administrazioen arteko lankidetzaprintzipioari jarraituz, eta musika-eskolaren titularra den aldetik, zerbitzu horri iraunkortasuna emateko egin behar diren negoziazioak has ditzala eragindako gainerako toki-erakundeekin, interesdunen administrazio-egoitzaren arabera hainbesteko aldea duten prezioak ez ordaintzeko.

Ez da onartu.

J) Beste batzuk

Uharteko Udalari

16/532 espedientea

Udalerrian antolatzen diren eskolaz kanpoko jardueretan alaba inskribatzeko aukera ezari buruz:

- Udalari iradoki zaio kexa-egilearen alaba onar dezala hark eskatutako dantza aurreko jardueran.

Ez da onartu.

5.3.9. Funtzio publikoa

Hezkuntza Departamentuari

15/623 espedientea

Laneko jazarpenaren balizko kasu batean Departamentuaren eta Bigarren Hezkuntzako institutu bateko zuzendariaren jokabideari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio kexa-egileari helaraz diezaiola hark salatu zituen gertaerei buruz jasotako informazio erreserbatuaren emaitza, eta, eskatuz gero, pairatu dituen balizko gertaerei buruz izapidetutako espedientea eskuratzeko aukera eman diezaiola.
- Departamentuari gomendatu zaio behar bezain azkar ebatz dezala kexa-egileak eskatuta abiarazitako 10.18 R prozedura (lan-eremuko indarkeria- eta jazarpen-egoeren prebentzioa, ebazpena eta jarraipena).

Onartua.

16/36 espedientea

Hamazazpi opor-egun soilik aitortzen dituen Giza Baliabideen Zerbitzuaren zuzendariaren ebazpen bati buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio kexa sortu duen ebazpena eraginik gabe utz dezala, eta interesdunari dagozkion opor-egunen kalkulua egin dezala berriro, aldi baterako ezintasun-egoeran edo amatasun-bajan egindako denboran opor-egunak hartu dituela jo gabe.

Onartua.

16/73 espedientea

Musika eta arte eszenikoko katedradunen kidegoan lehen kontratutik hasita lanean emandako denbora lan-bizitzan ez aitortzeari buruz, eta lau urtez betetako zuzendaritza-kargua lan-bizitzan ez Sartzeari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio kexa-egileak aurkeztutako eskaera, eman dituen zerbitzu guztiak zerbitzu-orrian aitortzeari buruzkoa, ebazteko legezko betebeharra duela.
- Departamentuari gomendatu zaio kexa-egileak Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan musika eta arte eszenikoko katedradun gisa emandako zerbitzuak aintzat har ditzala, kontserbatorio horretan katedradunei dagozkien funtzioak betetzeko musika eta arte eszenikoko irakasle gisa kontratatu zutenetik, horrek sortutako merituak zenbatzeko.

Ez da onartu.

16/228 espedientea

BHI bateko zuzendariari eta Geografia eta Historia saileko buruari igorritako idazki batzuei erantzunik ez emateari buruz, eta arlo jakin batzuetako berariazko programazioari buruz lankide batek adierazitako deskalkifikazioak direla-eta Hezkuntzako Ikuskatzailetzak jarduketarik ez egiteari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzkoak, 7. artikuluan xedatutakoa betetzea legeko eginbeharra dela, baita Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42. artikuluan adierazitakoa betetzea ere. Horrenbestez, kexa-egilearen eskaerari orain arte erantzun ez badio, erantzuna lehenbailehen eman behar diola gogorarazi zaio.
- Departamentuari gomendatu zaio kexa-egileak planteatutako kontuak sakon azter ditzala, eta frantsesez ematen diren arlo jakin batzuen berariazko programazioari buruz ordezkioak egindako adierazpenak saileko aktan jasotzearen egokitasunaz iritzia eman dezala, eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak har ditzala.

Onartua.

16/543 espedientea

2016ko irailaren 1etik urtearen amaiera arte dagozkion opor-egunak ez aitortzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio kexa-egileari aitor diezaiola oporren zati proportzionala hartzeko eskubidea, 2016ko irailaren 1etik abenduaren 31ra arteko denbora

zenbatuta. Hala ere, egun horiek hartzeko, zerbitzuaren beharrak kontuan izango dira, behar bezala justifikatuta egonez gero.

Ez da onartu.

16/648 espedientea

Lanpostua aldatzeko egindako eskaerari ezezkoa emateari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio kexa-egileak eskatutako lanpostu-aldaketa onar dezala, hurrena deitzen den lekualdatze-lehiaketa erabaki arte bederen.

Ez da onartu.

Osasun Departamentuari

16/526 espedientea

Pediatra batek lana eta familia bateratzeko dituen arazoei buruz:

- Kexa-egileak eskatutako ordutegi-aldaketa onartzea gomendatu zaio Osasun Departamentuari; gutxienez interesdunaren senarrak guardiak egin behar ditunean eta kontziliazioa oso zaila denean. Hala ere, ordutegi-aldaketa hori egiteko kontuan hartu beharko dira osasun-zentroa erabiltzen duten pertsonen eskubide eta interesak, baita bertan lanean diharduten langileenak ere.

Ez da onartu.

Cabanillasko Udalar

16/124 espedientea

Udal-idazkariak eragindako xaxatzeari eta laneko jazarpenari buruz, eta Udalak egoera horretan ezer ez egiteari buruz:

- Udalar gomendatu zaio kexa adierazi duten langile publikoek jarri duten laneko jazarpenaren salaketa kontuan har dezala, eta egoera eraginkortasunez konpontzeko, eragindako langileen eskubideak bermatzeko eta zerbitzu publikoaren funtzionamendu ona bideratzeko neurri edukiak susta ditzala.

Onartua.

Iruñeko Udalar

16/94 espedientea

Bigarren alaba jaiotzean edoskitze-baimena ukatzeari buruz:

- Udalar gomendatu zaio interesdunak ezin izan badu edoskitze-baimena ohi bezala hartu (baimen hori ukatu egin zitzaiolako, gero baliogabetu den administrazio-egintza baten bidez) kexa-egileari aitor diezaiola ordezeko kalte-ordain bat.

Onartua.

16/544 espedientea

Iruñeko Udaleko langileen sindikatu bati hauteskunde sindikalen boto-kontaktaren akta ez helarazteari buruz:

- Udalar gogorarazi zaio kexan adierazten den hauteskunde-mahaiaren eginbearra zela 2016ko irailaren 29an Iruñeko

Udaleko hauteskunde sindikalen prozesuan Nafarroako administrazio publikoetan diharduten funtzionarioen ordezkapen-organoetarako hauteskundeen erregelamenduak, otsailaren 13ko 30/1995 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 24.2 artikuluan xedatutakoa betetzea. Horretarako, boto-kontaktetaren aktaren kopia helarazi behar zituen hiru egun balioduneko epean, arauak ezarritakoari jarraituz, bai hautagaiak aurkeztu zituzten erakunde sindikalei, bai hautatutako ordezkari.

- Udalari eskatu zaio kexan aipatutako hauteskunde-mahaiari, 2016ko irailaren 29an Iruñeko Udaleko hauteskunde sindikaletan jardun zuenari, gogorarazi diezaiola akta bidali behar duela.

Onartua.

16/587 espedientea

Zerbitzu-eginkizunak ez berritzeari buruz:

- Udalari gomendatu diogu, kasu honetako inguruabar bereziak kontuan hartuta, eta ekintza positiboko neurri gisa, zerbitzu-eginkizunak berri diezazkiola kexa-egileari.

Ez da onartu.

Tafallako Udalari

15/597 espedientea

Tafallako Kultura Patronatuak lan-harremanetan emandako diskriminazio-tratuari buruz, eta lan-baldintzei buruzko zenbait informazio-eskaerari erantzunik ez emateari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzkoak, 318. artikuluan xedatutakoa betetzea legezko eginbeharra dela, baita Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42. artikuluan adierazitakoa betetzea ere. Horrenbestez, kexa-egilearen eskaerari orain arte erantzun ez badio, erantzuna lehenbailehen eman behar diola gogorarazi zaio.

Onartua.

Eguesibarko Udalari

16/271 espedientea

Udalak egindako kontratu baten ostean pairatzen duen egoera bidegabeari buruz:

- Udalari gomendatu zaio kexan adierazitako gertaerak argi ditzala, eta, eskubideak urratzen dituztela iritziz gero, neurri zuzentzaile egokiak har ditzala.

Onartua.

5.3.10. Ogasun publikoa

Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuari

15/664 espedientea

Jaso gabeko jarauntsi bati erreklamatutako zorrari % 10eko errekgua ezartzeari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio kexan adierazitako jaso gabeko jarauntsiari itzul diezaiola aplikatu zaion

16/356 espedientea

2014ko pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga kobratzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio 2014ko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari (PFEZ) dagozkion zerga-egintzak berrius ditzala, funtsezko elementuari erreparatuta (Nafarroan zergak ordaintzeko betebeharra izatea edo ez izatea, eta zerga-ordainketa bikoitza), eta, hala badagokio, zenbatekoak itzul ditzala.

Onartua.

Ablitasko Udalari

16/363 espedientea

Etxebizitza baten lurraren kontribuzioaren bidegabeko kobrantzari buruz, eta jarritako administrazio-errekurtsoei ez erantzuteari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio etxebizitzaren lurraren kontribuzioa kobratzeko prozedurari buruz interesdunak aurkeztu dituen idazkiei erantzuteko legezko betebeharra duela.
- Udalari gomendatu zaio udalerrri horretako etxebizitzarekin lotutako interesdunaren aurkako jarduketa guztiak atzera bota ditzala, ezin baita jabekidetzat hartu.

Erantzunaren zain.

Lizarrako Udalari

16/493 espedientea

Gainbalioen gaineko zergagatik bahitzeari buruz:

- Udalari gomendatu zaio kexa-egileari hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga borondatez ordaintzeko epetik kanpo ordaintzeagatik ezarritako errekaruaren kobrantza atzera bota eta eraginik gabe utz dezala.

Ez da onartu.

Tudelako Udalari

15/678 espedientea

2011., 2012. eta 2013. urteetako ondasun higiezinaren gaineko zerga kobratzeko jarraitutako prozedurari buruz:

- Udalari gomendatu zaio eraginik gabe utz ditzala kexa-egilearen aurka 2011., 2012. eta 2013. urteetako ondasun higiezinaren gaineko zergak betearazpen-bidean kobratzeko jarduketak, eta dagozkion zenbatekoak itzul diezazkiola.

Ez da onartu.

5.3.11. Justizia

Iruñeko Abokatuen Elkargoari

15/656 espedientea

Epaiketa azkar batean lagundu zion ofiziozko abokatuak erreklamatutako zenbatekoari buruz, eta doako laguntza juridikoa izateko eskubidea ukatzeari buruz:

- Elkargoari gomendatu zaio kexa-egileak adierazitako gertaerak azter ditzala, epaiketa azkar batean ofiziozko abokatuaren esku-hartzearen kostuari buruzko alde zaureratik informazioa ez emateari dagokionez, eta ordainsarien zenbatekoari buruz, eduki deontologikoa kontuan hartuta, eta, horri guztiari erreparatuta, gai horri buruz hartu beharreko neurriak har ditzala.

Onartua.

5.3.12. Ingurumena

A) Zaratak

Abartzuzako Udalari

16/560 espedientea

Gastronomia-elkarte batek sortzen duen zarataren arazoa dela-eta, Abartzuzako Udalak arazo hori konpontzeko neurri egoki eta eraginkorrak ez hartzeari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio, salatutako elkartean sortutako zarata dela-eta, kexa-egilearen konstituzio-eskubideak eraginkortasunez babesteko legezko betebeharra duela, eta

horretarako behar diren neurri proportzionatuak ezarri behar dituela.

- Udalari gomendatu zaio kexa-egileari eragiten dion arazoa konpontzeko neurri zuzentzaileak har ditzala; bereziki, Foruzaingoarean 2016ko martxoaren 31ko txostenean jasota daudenak, eta GANASako teknikariak Udalari bidalitako mezu elektronikoan adierazitakoak.
- Udalari gomendatu zaio kexa-egileari helaraz diezaiola salatutako elkarteari irekitako zehapen-prozedurari amaiera eman dion ebazpena, baita GANASako teknikariak mezu elektroniko bidez proposatutako neurri zuzentzaileak ere, hirugarrenen datu pertsonalak babestea alde batera utzi gabe.

Ez da onartu.

Arguedasko Udalari

16/10 espedientea



Zaratagatik jarritako salaketa bat dela-eta, Udalak ezer ez egiteari buruz:

- Udalari gomendatu zaio kexa sortu duen jardueraren erakunde titularrari eska diezaiola terrazako instalaziotik datorren zaratak sortzen dituen eragozpenak desagerrarazteko edo arintzeko neurri zuzentzaileak ezartzeko, ekainaren 8ko 135/1989 Foru Dekretuan ezarritako mailak ez daitezen gainditu.

Onartua.

Berriozarko Udalari

16/619 espedientea

Taberna bateko zaratak sortzen dituen eragozpenei buruz:

- Udalari gogorarazi zaio kexa-egileak bere etxe-esparruan gehiegizko zaratak ez pairatzeko duen eskubidea eraginkortasunez babestea Udalaren legezko betebeharra dela.
- Udalari gomendatu zaio lokalaren isolamendu akustikoa zer mailatakoa den egiazta dezala, eta, egoki izanez gero, isolamendu handiagoa jar dadila.

Onartua.

Caparrosoko Udalari

16/151 espedientea

Gozoki-saltzaile batzuek sortzen duten zaratak etxe batean eragiten dituen eragozpenei buruz:

- Udalari gogorarazi zaio salatutako lokaletatik heldutako zaratak ukitutako bizilagunen konstituzio-eskubideak eraginkortasunez babesteko legezko betebeharra duela, eta horretarako behar diren neurriak ezarri behar dituela.
- Udalari gomendatu zaio kexan aipatutako lokalak ikuska ditzala, behar diren baimenak dituztela, eta, batez ere, funtzionamendurako eskatzen zaizkien baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko; hala ez bada, neurri zuzentzaile egokiak ezarri beharko dira, bizilagunei bermatzeko legez onar daitekeen zarata baino gehiago ez pairatzeko eskubidea.

Onartua.

Dicastilloko Udalari

16/58 espedientea

Herrian intsonorizatu gabe dagoen taberna batek sortzen dituen eragozpenei buruz:

- Udalari gogorarazi zaio tabernaren funtzionamendurako baldintzak betetzen direla zaintzeko legezko betebeharra duela; zehazki, ordutegia eta soinuaren mugak errespetatzen direla bermatu behar du.

Ez da onartu.

Iruñeko Udalari

16/503 espedientea

Gaszte talde batzuk etxabe bat biltoki gisa, dibertitzeko eta aisialdirako erabiltzearen ondorioz, bi helduk eta adingabe batek osatutako familia batek pairatzen dituen zaratei buruz:

- Udalari gomendatu zaio behar diren neurri guztiak har ditzala, orain arte hartutakoez gainera, kexan aipatzen den etxabetik atera ez daitezen legez onartutakoa gainditzen duen zaratarik; hartara, bizilagunek etxean intimitatea izateko eskubidea eta osotasun fisiko eta morala bermatuko dira.

Erantzunaren zain.

16/552 espedientea

Etxe-eremuko zaratak direla-eta ezarritako zehapen baten ondorioz, Iruñeko Udalak banku-kontu bat bahitzeari buruz:

- Iruñeko Udalari gomendatu zaio interesdunari ezarritako zigorra atzera bota dezala, eta zehapen hori ordaintzeko enbargatu zaizkion zenbatekoak itzul diezazkiola; izan ere, ez da egozten zaizkion gertaeren errudun, buruko gaixotasun bat duela egiaztatu baita.

Onartua.

Tudelako Udalari

16/412 espedientea

Herriko bizilagunen erkidego bateko kutsadura akustikoa dela-eta Udalak ezer ez egiteari buruz:

- Udalari gomendatu zaio jaialdiak egiteko etengabe erabiltzen den gela bateko gehiegizko zaratek bizilagunei eragozpenik ez sortzeko behar diren neurriak har ditzala.

Onartua.

B) Animaliak babestea

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziooko Departamentuari

16/464 espedientea

Fauna basatia eta haren habitatak babesteko eta kudeatzeko Foru Legearen ustezko urratzeagatik ezarritako zehapenari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio kexa-egileari ezarritako zehapena atzera bota eta eraginik gabe utz dezala.

Ez da onartu.

C) Beste batzuk

Iruñeko Udalari

15/367 espedientea

Kexa-egileari zuhaitzek sortzen dizkieten eragozpenei buruz:

- Udalari gomendatu zaio interesdunaren etxe-aurrean dauden zuhaitzen adarrak inaus ditzala; halaber, ondare-erantzukizuna argitzeko espediente bat has dezala, inausi gabeko adarrek kexa-egilearen etxebizitzako zenbait leiho hautsi dituztelako, eta konpontzeko gastuak ordain ditzala, hala balegokio.

Ez da onartu.

5.3.13. Herri-lanak

Garapen Ekonomikorako Departamentuari

16/306 espedientea

Jatetxe bateko hoditeriaren ikuskapenean Departamentuak ez ezer egiteari buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio kexa-egileak idatzitako eskabideei erantzuteko legezko betebeharra duela, denbora eta forma egokian.

Onartua.

Baztango Udalari

15/562 espedientea

Baserri batera iristeko bidea egokitzeko behar diren neurriak ez hartzeari buruz:

- Udalari gomendatu zaio kexan aipatu den eta interesdunaren baserria eta Erratzu lotzen dituen bidearen egoera hobetzeko beste neurri batzuk har ditzala, handik igaro daitekeela bermatze aldera.

Onartua.

Berako Udalari

16/566 espedientea

Etxebizitza batera iristeko bidearen egoera txarrari buruz:

- Udalari gomendatu zaio interesdunaren etxebizitzara iristeko bidea konpon dezala, handik igaro daitekeela bermatze aldera.

Onartua.

Cascanteko Udalari

16/420 espedientea

Olio-errota batera iristeko bidea egitean partzela baten zatia hartzeari buruz:

- Udalari gomendatu zaio lurralde-antolaketari eta hirigintzari buruzko Foru Legearen 199. artikulua eta hurrengoak

aplikatuz, erabaki dezala 1. poligonoko 384. eta 387. partzeletan bidea egitea legezkoa izan daitekeen, jarduera baimendua edo baimendu daitekeena izateagatik. Dena dela, kexa-egileak jabetza-eskubidea arrazoitzat aipatu duenez, Udalari gomendatu diogu eskubide hori errespetatzen dela zaindu dezala, Cascanteko Udaltzaingoarean bidez.

Erantzunaren zain.

Erriberriko Udalari

16/635 espedientea

Kexa-egileen etxebizitzetatik gertu instalazio desmontagarri bat jartzeari buruz (kalteak sortuko dizkie, inguruko etxebizitzaren argitasuna eta bistak bermatzeko ezarritako gutxieneko distantziak ez dituelako errespetatzen):

- Udalari gomendatu zaio, aipatutako karpa jartzea erabakiz gero, errespetatu dezala Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioan ezarritako hiru metroko distantzia, etxebizitzek argitasuna eta bistak izateko eskubidea kontuan hartuta. Legez ezarritako distantziak errespetatu ezin badira, bizilagunei kalte-ordainak eman behar dizkie, argitasuna eta bistak izateko eskubideari uko egitearen ondorioz, administrazio publikoaren ondare-erantzukizunarentzat legedian ezarritako balioespen-irizpideak oinarri hartuta.

Onartua.

Vianako Udalari

16/103 espedientea

Herriko ezkaratz batzuetan eraikuntza-akats batzuk ez konpontzeari buruz:

- Udalari iradoki zaio herriko kale bateko garajearen erabiltzaileek bertara sartzeko dituzten arazoak zuzentzeko beharrezkotzat jotako neurriak har ditzala, eragindako bizilagunekin batera.

Ez da onartu.

5.3.14. Datu pertsonalak babestea

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

15/544 espedientea

Nafarroako Foruzaingoaren artxibo eta erregistroetan dauden aurrekari polizialak deuseztatzeko eskabideari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio deusezta ditzala kexa-egilearen aurrekari polizialak, gaur egun Nafarroako Foruzaingoaren artxibo eta erregistroetan daudenak.

Onartua.

16/102 espedientea

Nafarroako Foruzaingoaren artxibo eta erregistroetan dauden aurrekari polizialak deuseztatzeko eskabide bat ezesteari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio deusezta ditzala kexa-egilearen aurrekari polizialak, gaur egun Nafarroako Foruzaingoaren artxibo eta erregistroetan daudenak.

Onartua.

5.3.15. Administrazio publikoen ondare-erantzukizuna

Hezkuntza Departamentuari

16/38 espedientea

Hezkuntza Departamentuko zerrenda berandu aktibatzearen ondorioz eskaini gabeko zaintzaile plaza bat ordezteagatik ondare-erantzukizuna erreklamatu zaiola-eta, Hezkuntza Departamentuak aitortutako zenbatekoari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio oso-osorik aitor dezala, ondare-erantzukizun gisa, 2.964,10 euroko zenbatekoa, kudeatzen duen kontratazio-zerrenda berandu aktibatzearen ondorioz jaso ez diren soldaten ordainetan.

Ez da onartu.

Ablitasko Udalari

15/567 espedientea

Ondare-erantzukizunaren eskaera bat isilbidez ezesteari buruz:

- Ablitasko Udalari gogorarazi zaio kexa-egileek aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioa ebazteko eta dagokion ebazpena jakinarazteko legezko betebeharra duela.

- Udalari eskatu zaio hamabost eguneko epean erakunde honi igor diezaiola kexan aipatzen den ondare-erantzukizunaren espedientearen kopia oso bat, bertan jasota dauden jarduketak bilduko dituen.

Beste arrazoi batzuegatik itxi da.

Iruñeko Udalari

16/346 espedientea

Bide publikoan erortzearen ondorioz pairatutako kalteengatik erreklamaturako ondare-erantzukizuna ukatzeari buruz:

- Udalari gomendatu zaio aitor dezala kexa-egileak erreklamaturako ondare-erantzukizuna, bide publikoaren egoera txarra zela-eta erori zelako.
- Udalari gomendatu zaio kexan adierazitako istripua gertatu zen tokian zoladuraren kontserbazio-egoera konpon dezala, orain arte konpondu ez bada.

Ez da onartu.

16/347 espedientea

Galtzada-harriak egoera txarrean zeudelako bide publikoan erortzearen ondorioz pairatutako kalteengatik erreklamaturako ondare-erantzukizuna ukatzeari buruz:

- Udalari gomendatu zaio aitor dezala kexa-egileak erreklamaturako ondare-erantzukizuna, partzialki bada ere, bide publikoaren egoera txarra zela-eta erori zelako.

- Udalarari gomendatu zaio kexan adierazitako istripua gertatu zen tokian zoladuraren kontserbazio-egoera konpon dezala, orain arte konpondu ez bada.

Ez da onartu.

Iruñerriko Mankomunitateari

16/481 espedientea

Eskualdeko garraio-zerbitzu publikoan pairatutako istripu bati buruz:

- Iruñerriko Mankomunitateari gomendatu zaio emakidadun enpresari (TCC) eskatzeko kexa-egileak eskualdeko garraio-zerbitzuan pairatutako kalteen ordain osoa.

Onartua.

5.3.16. Osasuna

A) Oinarrizko osasun-laguntza

Osasun Departamentuari

15/621M espedientea

Emandako mediku-tratamenduari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio kexan adierazitako kasurako tratamendu alternatiboak berriz azter ditzala, interesdunari aurkezteko, erabakia har dezan. Halaber, beste alternatiba batzuk alde batera utzi gabe, azter dezala klinika bateko barne-medikuntzako zerbitzu baten bidez berriro arreta ematea, eskatutakoari jarraituz.

Ez da onartu.

16/471 espedientea

Lehen mailako arreta ematen duen mediku batek agindutako botika bat hartzeagatik pairatutako kalteei buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio botika hori agintzeko arrazoiak interesdunari jakinarazteko; eta, osasun-arreta desegokia izan dela egiaztatuz gero, egindako akatsagatik kexa-egileari barkamena eskatzeko.

Onartua.

B) Osasun-laguntza espezializatua

Osasun Departamentuari

16/159 espedientea

Zenbait urtez Ubarmin klinikan barne-medikuntzako pazientea izan den pertsona bati medikua aldatzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio paziente horri aurrerantzean ere Ubarmin klinikako barne-medikuntzako zerbitzuetan arreta eman diezaiotela, azken hamahiru urteotan bezala.

Ez da onartu.

16/259 espedientea

Errehabilitazio-zerbitzuak arreta emateko itxaroteari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio interesdunari errehabilitazio-zerbitzuetan laster arreta emateko hitzordua

jar diezaiola, indarrean dagoen legediaren arabera gehiegi luzatu baita itxaronaldia.

Onartua.

16/310 espedientea

Toraxeko kirurgiako zerbitzuak kirurgia-operazioa ukatzeari buruz:

- Departamentuari gomendio hauek eman zaizkio, kexa sortu duen osasun-laguntza eta interesdunak adierazitako pairamena kontuan hartuta:

- a) Laguntza-prozesuan aplika daitezkeen teknika diagnostiko, terapeutiko edo/eta farmakologikoei buruz informazio eskuragarria, ulergarria, nahikoa eta egokia ematea pazienteari.
- b) Adierazitako iritzi medikoaz gainera, beste iritzi bat eskatzeko eskubidea ematea, kasuari soluziobide hobe ematea helburu hartuta.

Onartua.

16/612 espedientea

Errehabilitazio-tratamendua egiteko zain egoteari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio interesdunari errehabilitazio-zerbitzuetan laster arreta emateko hitzordua jar diezaiola, legez ezarritako gehieneko epea agortu baita jada.

Onartua.

C) Larrialdiak

Osasun Departamentuari

15/614 espedientea

Alabarekin komunikatzeko eta hari bisitak egiteko debekuari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio osasun-zentro batean nahi gabe dagoen interesdunari berriro eman diezaiola aitarekin komunikatzeko eta haren bisitak hartzeko eskubidea.

Ez da onartu.

15/640 espedientea

Bi urteko haur bati kalteak sortu zizkion larrialdi batean arreta urria emateari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio sakon azter dezala kexan azaldutako kasuan gertatu dena, erakunde honen iritziz kexa oinarriduna baita. Halaber, 112 larrialdi-zerbitzuaren bidez hil ala bizikoak diren premiak hobeto detektatzeko neurri egokiak ezartzeko eskatu zaio, batez ere haur txikiei arreta emateko eskaerak baldin badira, balizko erantzukizunak ezertan galarazi gabe.

Onartua.

16/41 espedientea

Osasunbidea - Nafarroako Osasun Zerbitzuak espediente mediko bat ez erakusteari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio kexa-egileari historia klinikoaren kopia bat helaraztea; batez ere 1995etik aurrera egindako mediku-txostenak kontuan hartuta.

Onartua.

16/146 espedientea

Osasun-arretaren alorreko balizko zabarkeriari buruz, eta osasun-laguntzaren prozesuan hitzorduak eta esku-hartzeak bertan behera uzteari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio sakon azter dezala kexa-egileari osasun-laguntza emateko prozesuan gertatutakoa, salatutako gertaeren antzekoak berriro gerta ez daitezen, eta, egoki izanez gero, neurri zuzentzaileak edo konpentsazio-neurri egokiak hartzea, eta horren guztiaren berri ematea interesdunari.

Onartua.

16/525 espedientea

Lizarrako Ospitaleko larrialdi-zerbitzuan jasotako mediku-arretari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio interesdunak pairatzen duen mina areagotuz gero bizilekuaren arabera dagokion zentroan edo larrialdi-zerbitzuan eman diezaiotela kasuaren jarraipena egiten duten espezialista arduradunek ezarritakoaren arabera botika (Dolantina), hartara interesdunak ez du Iruñeko larrialdi-zerbitzuetara joan beharko.

Onartua.

D) Osasun-prestazioak eta gastuen itzulketa

Osasun Departamentuari

15/581M espedientea

Beste autonomia-erkidego bateko zentro pribatu batean egindako ebakuntza oftalmologiko batek sortutako gastuak ez itzultzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio interesdunari aitor diezaiola kexan eskatutako gastuen itzultzea, ikusmenari eusteko jasotako osasun-laguntzagatik.

Ez da onartu.

16/265 espedientea

Arreta espezializatua emateko kontsulta batengatik fakturaturako zenbateko handiari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio eraginik gabe utz dezala kexa-egileari emandako osasun-laguntzaren kobrantza.
- Departamentuari gomendatu zaio osasun-zentroetan jendeak ikusteko moduko tokian jar ditzatela ematen duten osasun-laguntzagatik kobratzen dituzten tarifak.

Ez da onartu.

16/534 espedientea

Bularreko kirurgia-zerbitzuan egindako proba batzuek sortutako gastuak kobratzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio eraginik gabe utz dezala interesdunak jasotako osasun-laguntzagaratik igorritako likidazioa.

Ez da onartu.

5.3.17. Herritarren segurtasuna

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari

16/289 espedientea

Kexa-egileak adierazitako kasuan Foruzaingoak babes-neurririk ez hartzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio kexan adierazitako genero-indarkeria kasuaren jarraipena sendotu dezala.

Onartua.

16/623 espedientea

Amerikar ukabilaren forma duen giltzatak txiki bat eramateagaratik Foruzaingoak egindako salaketari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio adierazitako salaketa eraginik gabe uzteko hartu behar diren neurriak har ditzala, atzemandako objektua ezin baita armatzat edo arma baten imitaziotzat hartu, eta izapideak egiteko eskumena duen administrazio-organoari eskatu zaio salaketaren ondorioz hasitako zehapen-prozedura artxiba dezala.

Ez da onartu.

5.3.18. Zerbitzu publikoak

Cintruenigoko Udalari

15/669 espedientea

2015eko hirugarren hiruhilekoan ura kontsumitzeagatik eskatutako kuotari buruz:

- Udalari gomendatu zaio, detektatu den egoera irregularra ikusita, kexa sortu duen likidazioa (2015eko hirugarren hiruhilekoan urez hornitzeko zerbitzua) eraginik gabe utz dezala, eta likidatu behar den zenbatekoa berriro kalkula dezala, interesdunak adierazitakoa alde aurretik entzunda, eta ebazpenaren zioak behar bezala jasota.

Ez da onartu.

Lesakako Udalari

16/177 espedientea

Udalerriko kirol-instalazioetako zenbait langilek emandako tratuari buruz, eta Udalak, legezko prozedura errespetatu gabe, polikiroldegira sartzeari debekatzeko neurria hartzeari buruz:

- Udalari gomendatu zaio kexa-egilearen aurka hasitako zehapen-espedientearen izapidetzea eten dezala, igerilekuetako langileak salatutako erasoari buruz ebazpen penalik ez dagoen bitartean.
- Udalari iradoki zaio kexa-egileari instalazioetara sartzeari debekatzeko behin-behineko neurria bertan behera uztea edo mantentzea komeni ote den azter dezala.

Onartua.

Valtierrako Udalari

16/145 espedientea

Zentro zibikoaren erabiltzaile gisa 2014. eta 2015. urteetan kuoten ordainagiriak erreklamatzeari buruz:

- Udalari gomendatu zaio kexa-egileari zentro zibikoaren erabiltzaile gisa baja eman diezaiola, horren ondorioek hileko hirugarren kuota ordaindu gabe utzi zenetik eragina izan dezaketela, nahi izanez gero, eta erreklamaturako zenbatekoak kobratzeko prozedura artxiba dezala.

Ez da onartu.

Iruñerriko Mankomunitateari

16/143 espedientea

Uraren tarifa soziala ezartzeko eskabideari ezezkoa emateari buruz:

- Mankomunitateari gomendatu zaio, kexa-egileak eskatutako uraren tarifa soziala aitortzeko ondorioetarako, interesdunaren diru-sarreretatik kendu dezala ezkontide ohiari ordaindu behar dion konpentsazio-pentsioa.

Ez da onartu.

16/193 espedientea

Ecotaxi Iruña elkartearekin bilera egiteko eskaerari ezezkoa emateari buruz:

- Eskualdeko Mankomunitateari iradoki zaio Ecotaxi Iruña elkarteak dituen arazoak aztertzen jarrai dezala (taxiaren jarduerari errentagarritasun ekonomikoa ateratzeko arazoak,

lizentzien kostua eta lehia-egoera kontuan hartuta), elkartearekin lankidetzan, eta horretarako, dagokion organoaren bidez, taxilarien elkarte horretako ordezkariak hartu eta eskatu duten bilera egin, proposamenak aztertzeko, eta, hala badagokio, interes orokorra eta profesionalen interesak bateratzeko balizko konponbideak bilatzeko.

Onartua.

16/401 espedientea

Zuriain urez hornitzeko sareak berritzeko proiektu bati buruz:

- Mankomunitateari gomendatu zaio etxebizitzako kontagailua dagoen toki berritik eraikinaren fatxadara arte dagoen hoditeria hobetzeko edo hornidurari eusteko egin beharreko obrak egin eta ordain ditzala.

Ez da onartu.

Montejurrako Mankomunitateari

16/500 espedientea

Kexa-egileen Torres del Rioko etxebizitzara ur-zerbitzua ez hornitzeari buruz:

- Mankomunitateari gomendatu zaio kexa-egileen etxebizitza urez hornitzen dela bermatzeko behar diren jarduketak egin ditzala. Horretarako, kontagailutik interesdunen partzelara arte dagoen hoditerian dagoen matxuraren jatorria bilatu behar da, eta gero konpondu.

Ez da onartu.

5.3.19. Lana

Orkoiengo Udalari

16/46 espedientea

Lanean eman behar dituzten orduak kontuan hartuta, funtzio gehiegi esleitzeari buruz, eta urtetan pairatutako balizko erasoei buruz:

- Udalari gomendatu zaio azaroaren 8ko 31/1995 Legeak, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoak, xedatutakoari jarraituz, lehenbailehen egin dezala kexa-egilearen segurtasunerako eta osasunerako arriskuen ebaluazioa, egungo lan-baldintzak kontuan hartuta.

Onartua.

5.3.20. Trafikoa eta bide-segurtasuna

Erriberriko Udalari

16/510 espedientea

Ibilgailuak aparkatzea debekatuta ez zegoen eremu batean jarritako isunari buruz.

- Udalari gomendatu zaio eraginik gabe utz dezala kexa-egileari jarritako zehapenak, baita adierazitako matrikula duen ibilgailuaren jabeari jarritakoak ere, zehapenak ezartzeko eska daitekeen erruzko elementurik ez dagoela iritzita.

Onartua.

Iruñeko Udalari

15/642 espedientea

Zor bati aurre egiteko Udalarekin itundutako zatikapenaren ondorioz ordaintzen dituen interes altuei buruz:

- Udalari iradoki zaio interesdunarekin konponbide bat adosteko, toki-erakunde horrekin duen zorra ordaintzeko, bizirik irauteko oinarrizko baliabideak (zehazki, gaur egun jasotzen duen langabezia-sorospena) kolokan ez jartzea lehentasunezko helburutzat hartuta.

Ez da onartu.

16/85 espedientea

Udal-garabiak ibilgailua eramateari buruz, eta hura berreskuratzeko ordaindutako gehiegizko kopuruari buruz:

- Udalari gomendatu zaio kexa sortu duen ibilgailua eramateko egintza eraginik gabe utz dezala, eta, kasu horretan, interesdunari itzul diezaiola kontzeptu horrengatik ordaindu duen zenbatekoa, garabiak eramandako ibilgailuak beste ibilgailu eta pertsona batzuen joan-etorriak ez zituela eragozten kontuan hartuta.

Ez da onartu.

16/128 espedientea

Udal-garabiak ibilgailua eramateari buruz:

- Udalari gomendatu zaio eraginik gabe utz dezala kexa sortu duen ibilgailua erretiratzeko egintza, eta interesdunari itzul

diezaiola kontzeptu horrengatik ordaindu duen kopurua, hartutako neurria proportziorik gabea dela iritzita.

Ez da onartu.

16/144 espedientea

Udal-garabiak ibilgailua eramateari buruz:

- Udalari gomendatu zaio eraginik gabe utz dezala kexa sortu duen ibilgailua erretiratzeko egintza, eta interesdunari itzul diezaiola kontzeptu horrengatik ordaindu duen kopurua, hartutako neurria proportziorik gabea dela iritzita.

Ez da onartu.

16/211 espedientea

Trafiko-zehapen baten ondorioz sortutako bilketa-jarduketei buruz:

- Udalari gomendatu zaio eraginik gabe utz ditzala interesdunari jarritako trafiko-zehapen batekin lotutako bilketa-jarduketak (premiamendu-probidentzia), eta ordaintzeko beste epe bat eman diezaiola, borondatez ordaintzeko epearen barruan.

Ez da onartu.

16/348 espedientea

Eremu arautuan txartelik gabe aparkatzeagatik Iruñeko Udaleko garabia-zerbitzuak ibilgailu bat eramateari buruz:

- Iruñeko Udalari gomendatu zaio eraginik gabe utz dezala kexa sortu duen ibilgailua erretiratzeko egintza, eta interesdunari

itzul diezaiola kontzeptu horrengatik ordaindu duen kopurua, hartutako neurria proportziorik gabea dela iritzita.

Ez da onartu.

16/508 espedientea

Aparkatzeko ordaindutako denbora gaindituta, Iruñeko Udalaren garabia-zerbitzuak ibilgailua kentzeari buruz, eta 60 euroko isuna jartzeari buruz (parkimetroan ohartarazi arren ordaindutako denbora gainditzeagatik jarritako salaketa baliogabetzeko 11,65 euro ordaindu behar direla):

- Iruñeko Udalari gomendatu zaio eraginik gabe utz dezala kexa sortu duen ibilgailua eramatea, eta interesdunari itzul diezaiola kontzeptu horrengatik ordaindu duena, baita zehapen gisa ordaindu duen zenbatekoa ere, salaketak baliogabetzeko eskatutako kopurua kenduta, hartutako neurria Iruñeko Udaleko aparkaleku mugatuak arautzen dituen ordenantzaren 23. Artikuluan xedatutakoaren aurkakoa dela iritzita.

Ez da onartu.

16/667 espedientea

Interesdunari egun berean bi trafiko-salaketa jartzeari buruz:

- Udalari gomendatu zaio eraginik gabe utz dezala zehapen-espedientea, zirkulazioa oztopatzeagatik arau-hauste astuna egin denik ezin baita egiaztatu, baita udal-garabiak ibilgailua eramateko egintza ere.

Ez da onartu.

5.3.21. Turismoa

Artajonako Udalari

16/11 espedientea

Artajonako bisitarien eta turismo-ustiaketarako etxearen kudeaketa-kontratuaren esleipen berriari buruz:

- Udalari gomendatu zaio osoko bilkuran bisitarien eta turismo-ustiaketarako etxearen kudeaketa kontratua esleitzeko hartutako erabakia deusezta dezala, eta kexa-egileari kontratua esleitu diezaiola, kontratua egikaritzeko kaudimen tekniko nahikoa egiaztatu zuen lizitatzailerak bakarra izan baitzen.

Ez da onartu.

5.3.22. Hirigintza

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari, eta Erriberriko Udalari

16/300 espedientea

Erriberriko udal-plangintzako ER-3 unitatea urbanizatzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio Erriberriko Udalari laguntza eta aholkularitza eman diezaiola, hark eskatuz gero, kexan planteatutako arazoari konponbide bat bilatzeko, eragindako jabeekin batera, interes orokorra eta interes partikularrak elkarlotzea bideratzeko.

Onartua.

Berbinzanako Udalari

16/178 espedientea

Udalerriko partzela bat bereizteko baldintzen gaineko eskari bati ez erantzuteari buruz:

- Udalari gogorarazi zaio kexa-egilearen eskariari buruz ebazteko legezko betebeharra duela, aipatutako partzelaren bereizketari buruz eta udaleko hirigintza-araudia betetzeari buruz, eta, egoki izanez gero, dagozkion neurriak hartu behar dituela.

Onartua.

Corellako Udalari

16/456 espedientea

Behar den lizentziarik gabe trasteleku batzuk etxebizitza bihurtzea legez kontrakoa izateari buruz:

- Udalari gomendatu zaio, gehiago luzatu gabe, kexa-egileak aurkeztutako salaketaren bidez hasitako prozedura izapidetu eta amaitu dezala, dagokionaren arabera, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legea eta aplikatu beharreko gainerako arauak kontuan hartuta.

Erantzunaren zain.

Cortesko Udalarri

16/486 espedientea

Espaloiaren zintarria gurasoen, pertsona adinduen eta osasun-arazo larriak dituzten pertsonen mugikortasuna errazteko ez egokitzeari buruz:

- Udalarri iradoki zaio interesdunen etxebizitzaren inguruetan espaloia egokitzeko neurriren bat hartzea azter dezala, mugikortasuna bideratzeko, eta, zehazki, kalea zeharkatzeko, arazo bereziak baitituzte.

Ez da onartu.

Etxarri Aranazko Udalarri

16/222 espedientea

Partzela batean hirigintza-jarduketarako sistema aldatzean urbanizatzea eta etxebizitza eraikitzea galarazi dela-eta, Udalak ezer ez egiteari buruz:

- Udalarri gomendatu zaio 10. egikaritze-unitaterako aurreikusitako jarduketa-sistema pribatua jarduketa-sistema publiko baten bidez ordezkatzeko onartzeko izapideak bizkortzeari ekin diezaiola, eta unitate horren egikaritzea azkartu dezala.

Erantzunaren zain.

Ezcabarteko Udalar

15/668 espedientea

Ezcabarteko Oricáin industrialdea xurgatzeko prozesuari ezezkoa emateari buruz:

- Udalar gomendatu zaio sakon azter dezala kasu honetan gertatzen ote diren Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren (Administrazioarekiko Auzien Sala) urriaren 20ko 496/2010 Epaian adierazitako inguruabarrak, Ezcabarteko Oricáin industrialdea, denboran zehar mailakatuta bada ere, kontserbatzeko betebeharra bere gain hartzeko.

Ez da onartu.

Garinoango Udalar

15/637 espedientea

Lurzoru industrial urbanizagarri gisa sailkatutako lursail baten 2002an sinatutako salerosketa-kontratuko baldintza-agiriak ez betetzeagatik Udalak eragin dituen kalte ekonomikoei buruz:

- Udalar gomendatu zaio kexan adierazitako partzela salerosteko kontratuaren suntsiarazpena onar dezala, alde bakoitzak egindako prestazioak itzulita, eta enpresari eragindako kalteen ordaina emanda.

Ez da onartu.

Larraungo Udalari

15/561 espedientea

Azpirozko Kontzejuak erortzeko zorian utzi zuen kexa-egilearen etxebizitzaren ondoko eraikina, eta erori egin zen, kexa-egilearen etxearen egonkortasuna arriskuan jarritz.

- Udalari gomendatu zaio kexa-egileak erreklamaturako ondare-erantzukizuna aitortzea, Udalaren jarduketak eragindako kalteengatik, kexa sortu duen gaiaren inguruan, eta behar bezala kalkulatu dezala zenbatekoa.

Ez da onartu.

Longidako Udalari

16/599 espedientea

Etxebizitza bat eraikitzeko obra-lizentziaren eskaerari aplikatu beharreko araubide juridikoari buruz:

- Udalari gomendatu zaio kexa-egileak aurkeztutako obra-lizentziaren eskaera izapidetu eta ebatz dezala, eskaera egin zen garaian indarrean zegoen araubide juridikoaren arabera, lege ezarrita baitago azkeneko araubide juridiko hori aplikatu behar zaiola.
- Udalari gomendatu zaio haren eskaera eraginik gabe utzi dezala, artean indarrean jarri gabe zegoen arau bat aplikatuz egin eta jakinarazi baitzen.

Ez da onartu.

Olaztiko Udalari

15/606 espedientea

Kexa-egilearen onibar bati eragiten dion hirigintzako araudia onartzeari buruz:

- Udalari gomendatu zaio aurreikusitako udal-antolamendu berriak eragindako nabearen jabearekin (alegia, kexa-egilearekin) lehenbailehen bilera bat egin dezatela hirigintzako zerbitzu teknikoek, edo udalerriko hirigintzako laguntza teknikoa ematen dutenek, edo eskumena duten beste pertsona batzuek, egingarriagoa dela ikusiz gero. Bilera horretan zehatz-mehatz azaldu behar zaizkio aurreikusitako antolamendua justifikatzen duten hirigintzako arrazoiak, eta, bereziki, kale itsu bat egiteko tartea uzteko arrazoiak azaldu behar zaizkio. Arrazoi horiek zehazten ez badira, kale itsua ezabatu egin beharko da; are gehiago inguruan osasungaiztasun-eremu bat sortzeko arriskua baldin badakar.

Onartua.

Zuñigako Udalari

15/661 espedientea

Hirigintza-lizentzia bat emateari buruz, Lizarrako etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko bulegoak lizentzia hori legez kontrakoa dela egiaztatzen duen txostena egin arren:

- Udalari gomendatu zaio kexan adierazitako eraikuntzei dagokionez, legezketasuna berrezartzeko bidezkoak diren neurriak erabaki eta bultza ditzala, Lurraldearen

Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legeko 199. eta 200. artikuluen arabera.

Onartua.

5.3.23. Etxebizitza

Eskubide Sozialetak Departamentuari

15/608 espedientea

Nafarroako Ogasunari egin beharreko ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen agiria ezinbesteko baldintza delako etxebizitza babestua alokatzeko laguntza bati ezezkoa emateari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio interesdunari etxebizitza babestua alokatzeko laguntza ematea azter dezala berriro, Nafarroako Ogasunari egin beharreko ordainketak eginak dituela egiaztatzen duen agiria ezinbestekotzat jo gabe, aplikatu behar den araudian ez baitago jasota betekizun hori.

Onartua.

15/630 espedientea

Ohiko bizilekua (babes ofizialeko etxebizitza) altzariz hornitzeko eskatutako laguntza ukatzeari buruz:

- Departamentuari iradoki zaio kexa-egileari ohiz kanpoko laguntza emateko aukera azter dezala, premia ekonomikoan dagoela kontuan hartuta, hirurogeita bost urtetik gora izatea eragozpentzat hartu gabe.

Ez da onartu.

16/59 espedientea

NASUVINSArekin alokatuta duen ondasun higiezinako sukaldearen egoera txarrari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio ikuskatu dezala kexa-egileak bizi diren etxebizitza babestua, bertan dauden akatsak egiaztatzeko, eta, bidezkoa bada, haiek kopon ditzala, sukaldearen kontserbazio egokia eta funtzionaltasuna bermatze aldera.

Onartua.

16/65 espedientea

Diru-laguntzaren bidez alokairu sozialeko erregimeneko etxebizitzaren errentamendua azkentzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio enpresa sustatzailearen eta kexa-egilearen arteko bitartekotza-lanak egin ditzala, errentamendu-kontratuan hitzartutako egunera arte (2018ko urtarrilak 1) maizter izaten jarrai dezan, egungo baldintza berdinetan, etxebizitza jada babes-araubidekoa ez izan arren.

Ez da onartu.

16/186 espedientea

Babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko arazoei buruz.

- Departamentuari iradoki zaio neurriren bat hartzea azter dezala (etxebizitza babestuen erreserba berri bat prestatzea, eskuratzeko baremoetan berariazko puntuazioa ezartzea...)

etxebizitza babestua eskatu duten guraso bakarreko familien eta bakarka eskatu duten pertsonen egoera aintzat hartzeko.

- Departamentuari iradoki zaio kexa-egileari orientabidea eman diezaiola, etxebizitza babestua eskuratzeko arazo zehatza konpontzeko, bai Etxebizitza Sozialen Foru Funtsaren bidez, bai egoki irizitako beste edozein bide eraginkor baliatuta.

Onartua.

16/200 espedientea

Ohiko bizilekuko (babes ofizialeko etxebizitza) garaje-plaza erabiltzailearen beharretara egokituta ez dagoelako hura erabiltzeko dituen arazoei buruz:

- Departamentuari iradoki zaio NASUVINSA sozietatearen bitartez kexa sortu duen garaje-plazaren jabearekin harremanetan jar dadila, eta kexa-egilearen egoera azaldu diezaiola, garaje-plazak trukatzeko aukera proposatzeko, edo interesdunak erosteko edo erabiltzeko beste formularen bat bilatzeko.

Onartua.

16/480 espedientea

Etxebizitza babestua erosteagatik diru-laguntza ez aitortzeari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio diru-laguntza ukatzeko erabakia atzera bota dezala, eta kexa-egileari diru-laguntza aitortu diezaiola, babes ofizialeko etxebizitza erosteagatik.

Ez da onartu.

16/482 espedientea

Bizi diren etxebizitzaren errentamendu-kontratua berritzeari NASUVINSak ezezkoa emateari buruz, eta etxebizitza utzi behar izateari buruz:

- Departamentuari gomendatu zaio kexa-egileak eskatutakoa onar dezala, eta familiaren etxebizitza babestuaren errentamendu-kontratuan errentari gisa ager dadila.

Ez da onartu.

16/591 espedientea

Titular den etxebizitza babestuaren eraikuntza-akatsi buruz:

- Departamentuari gogorarazi zaio legezkotasuna berrezartzeko ahalmena egikaritzea haren legezko betebeharra dela, eta, hala badagokio, zehapenak ezarri behar dituela, eraginkortasun printzipioaren arabera, eta, kexa sortu duten eraikuntza-akatsi dagokienez, konpontzeko neurri gehigarriak lehenbailehen hartzea azter dezala.

Onartua.

→ 5.4. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN EBAZPENAK NORAINO ONARTU DITUZTEN

Hurrengo taulan islatzen da ebazpenen hartzaile izan diren administrazio publikoetatik bakoitzak Nafarroako Arartekoak egindako ebazpen horiek (beren gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorazpenekin) noraino onartu dituzten, bai kexa-espeditetan, bai ofiziozko jarduketetan eta hobekuntza-proposamenetan ere.

Horren barrenean sartzen dira bai 2015ean emandako ebazpenak, bai 2014ko abenduaren 31n erantzunik gabe geratu zirenak ere.

2011 - 2015 legegintzaldia

ADMINISTRAZIOA	EBAZPEN KOPURUA	ONARTUAK	ONARTU EZ DIRENAK	ONARPENAREN EHUNEKOA
Arangurengo Udala	5	5	0	% 100,00
Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua	2	2	0	% 100,00
Berbinzanako Udala	2	2	0	% 100,00
Desojoko Udala	2	2	0	% 100,00
Garesko Udala	2	2	0	% 100,00
Arellanoko Udala	1	1	0	% 100,00
Arguedasko Udala	1	1	0	% 100,00
Barañaingo Udala	1	1	0	% 100,00
Barillasko Udala	1	1	0	% 100,00
Baztango Udala	1	1	0	% 100,00
Berako Udala	1	1	0	% 100,00
Berriozarko Udala	1	1	0	% 100,00
Biurrun-Olcozeko Udala	1	1	0	% 100,00
Cabanillasko Udala	1	1	0	% 100,00
Cabredoko Udala	1	1	0	% 100,00
Caparrosoko Udala	1	1	0	% 100,00
Casedako Udala	1	1	0	% 100,00
Falcesko Udala	1	1	0	% 100,00
Fiteroko Udala	1	1	0	% 100,00
Gesalatzeko Udala	1	1	0	% 100,00
Iguzquizako Udala	1	1	0	% 100,00
Lesakako Udala	1	1	0	% 100,00
Marañongo Udala	1	1	0	% 100,00
Murchanteko Udala	1	1	0	% 100,00
Olaztiko Udala	1	1	0	% 100,00
Orkoiengo Udala	1	1	0	% 100,00
Oteiza de la Solanako Udala	1	1	0	% 100,00

2011 - 2015 legegintzaldia

	EBAZPEN	ONARTU EZ	ONARPENAREN	
San Adriango Udala	1	1	0	% 100,00
Zangozako Udala	1	1	0	% 100,00
Urroz-Villako Udala	1	1	0	% 100,00
Atarrabiako Udala	1	1	0	% 100,00
Zuñigako Udala	1	1	0	% 100,00
Beratsaingo Kontzejua	1	1	0	% 100,00
Malerrekako Mankomunitatea	1	1	0	% 100,00
Lumbierko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea	1	1	0	% 100,00
Iruñeko Abokatuen Elkargoa	1	1	0	% 100,00
Tudelako Abokatuen Elkargoa	1	1	0	% 100,00
Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki				
Administrazioko Departamentua	13	10	3	% 76,92
Garapen Ekonomikorako Departamentua	4	3	1	% 75,00
Erriberriko Udala	4	3	1	% 75,00
Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua	3	2	1	% 66,67
Eskubide Sozialetako Departamentua	62	41	21	% 66,13
Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko				
eta Justiziako Departamentua	40	26	14	% 65,00
Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua	16	10	6	% 62,50
Eguesibarko Udala	5	3	2	% 60,00
Iruñerriko Mankomunitatea	7	4	3	% 57,14
Osasun Departamentua	52	26	26	% 50,00
Esteribarko Udala	4	2	2	% 50,00
Dicastilloko Udala	2	1	1	% 50,00
Tafallako Udala	2	1	1	% 50,00
Montejurrako Mankomunitatea	2	1	1	% 50,00
Iruñeko Udala	38	18	20	% 47,37
Hezkuntza Departamentua	74	33	41	% 44,59
Lizarrako Udala	3	1	2	% 33,33
Tudelako Udala	6	1	5	% 16,67
Abartzuzako Udala	1	0	1	% 0,00
Azagrako Udala	1	0	1	% 0,00
Carcarko Udala	1	0	1	% 0,00
Cascanteko Udala	1	0	1	% 0,00
Castejongo Udala	1	0	1	% 0,00
Cortesko Udala	1	0	1	% 0,00
Etxarri Aranazko Udala	1	0	1	% 0,00
Ezcabarteko Udala	1	0	1	% 0,00
Galarko Udala	1	0	1	% 0,00
Garinoaingo Udala	1	0	1	% 0,00
Imozko Udala	1	0	1	% 0,00
Cendea de Cizurko Udala	1	0	1	% 0,00
Larraungo Udala	1	0	1	% 0,00
Leringo Udala	1	0	1	% 0,00
Longidako Udala	1	0	1	% 0,00
Marcillako Udala	1	0	1	% 0,00
Noaingo Udala (Valle de Elorz)	1	0	1	% 0,00

2015 - 2019 legegintzaldia

	EBAZPEN	ONARTU EZ	ONARPENAREN	
San Martin Unxeko Udala	1	0	1	% 0,00
Ujueko Udala	1	0	1	% 0,00
Valtierrako Udala	1	0	1	% 0,00
Vianako Udala	1	0	1	% 0,00
Mairagako Mankomunitatea	1	0	1	% 0,00
Ultzanueta Zerbitzu Mankomunitatea	1	0	1	% 0,00
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	1	0	1	% 0,00
Nafarroako Futbol Federazioa	2	0	2	% 0,00
Artajonako Udala	3	0	3	% 0,00
Cintruenigoko Udala	3	0	3	% 0,00
Uharteko Udala	3	0	3	% 0,00



6. KAPITULUA

PARLAMENTUAN EGINDAKO TXOSTENAK ETA AGERRALDIAK



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Auzitekoa

6



Parlamentuan egindako txostenak eta agerraldiak

2016an, Nafarroako Arartekoak honako txosten hauek egin zituen:

- Erakundeak bere ekimenez egindako txosten berezi bat, Nafarroan pertsona errefuxiatuak hartzeari buruz.
- Nafarroako Parlamentuak eskatutako txosten bat, desgaitasuna duten pertsonentzako azterketak egokitzeari buruz.

Halaber, Lizarrako Udalak txosten bat egiteko eskatu zuen hirigintzako birpartzelazioari buruz, eta instituzioak uko egin zion eskaera horri.

→ 6.1. ERAKUNDEAK BERE EKIMENEZ EGIN DITUEN TXOSTEN BEREZIAK

Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 36.2. artikulua arabera, Nafarroako Arartekoak ahalmena du Nafarroako Parlamentuaren aurrean txosten berezi edo monografikoak aurkezteko, gertakarien larritasun, garrantzia edo premiak hala eskatzen dutenean.

Txosten horiek interesdun guztiek osorik kontsultatu ditzakete erakundearen <http://www.defensornavarra.com> webguneko “argitalpenak/txosten bereziak” atalean.

2016an, Nafarroako Arartekoak txosten berezi bat egin zuen bere ekimenez, izenburu honekin:

Nafarroan pertsona errefuxiatuak hartzeari buruzko txosten berezia.

Txosten horren helburua izan da Nafarroan hartutako pertsona errefuxiatuen errealitatea nolakoa den jakitea, horretan esku hartu duten administrazioen jarduketa ebaluatzea Nafarroako Arartekoak duen eskumenaren neurrian, eta gomendio eta iradokizun batzuk adieraztea hautemandako egoera kontuan hartuta.

Txostena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialeko 2016ko abenduaren 28ko 141. alean argitaratu zen:

<http://www.parlamentodenavarra.es/sites/default/files/boletines/B2016141.pdf>

Txostena 2017ko urtarrilaren 20an aurkeztu zitzaion Foru Araubideko Batzordeari. Agerraldia hemen kontsultatu daiteke:

<http://www.parlamentodenavarra.es/es/vidioteca/comparecencia-del-defensor-del-pueblo-de-navarranafarroako-arartekoa-para-presentar-el>

→ 6.2. NAFARROAKO PARLAMENTUAK ESKATUTA EGINDAKO TXOSTENAK ETA AGERRALDIAK

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 16 d) artikulua ahalmena ematen dio Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari bere eskumeneko arloetan txostenak egiteko, Nafarroako Parlamentuak eskatuta.

2016ko maiatzaren 24an egindako saioan, Nafarroako Parlamentuko Eskaren Batzordeak adostu zuen Nafarroako Arartekoari txosten bat idazteko eskatuko ziola, herritar batek eskaera bat egin baitzuen haren 30 urteko semeak buru-paralisiarengatik zailtasunak izan zituelako ikasketak egiteko.

Txosten hori Nafarroako Parlamentuak 2016ko ekainaren 2an atera zuen, “Desgaitasuna duten pertsonentzat azterketak egokitzeari buruzko txostena” izenburupean.

Testua erakundearen webgunean ikus daiteke.

<http://www.defensornavarra.com/index.php/es/Informes-y-otras-publicaciones/Informes-especiales/Adaptacion-de-examenes-para-las-personas-con-discapacidad>

→ 6.3. TOKI-ERAKUNDEEK ESKATUTAKO TXOSTENAK

Lizarrako Udalak Nafarroako Arartekoari txosten juridiko bat egiteko eskatu zion, zehaztu zezan ea irregulartasunak egon ziren, herritar batek salatu bezala, 1995eko Lizarrako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko A.R.-3 Unitatea (Merkatondoa) birpartzelatzean, eta baiezko kasuan, irregulartasun horiek zerk eragin zituen eta zer erantzukizun zekartzan definitzeko, eta Lizarrako Udalak

irregulartasun horiek gainditzeko hartu beharreko neurriak finkatzeko.

Eskaera aztertu ostean, Nafarroako Arartekoak Lizarrako Udalari adierazi zion eskatutako edukia legezkontasun arrunteko gaitzat (edo Zuzenbide “objektiboko” gaitzat, eta ez eskubide “subjektiboen” babes gisa) hartu behar zela, eta legezkontasun arrunt hori ustezko irregulartasun administratibo batzuk egon diren edo ez egiaztatzen, eta irregulartasun horiek dakartzaten erantzukizunak eta erantzukizunen kausen ebazpenak zehaztera mugatzen zela. Beraz, eduki hori ez dagokio ez herritarren eskubide subjektiboen babesari ez zerbitzu publikoen hobekuntzari; izan ere, erakunde honi funtzio horiek ezartzen dizkio Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak.

Arrazoi horiengatik, eta Foru Lege arautzaileak ezarritako eskumenen mugak errespetatzeko, Arartekoak Lizarrako Udalari adierazi zion legez ezinezkoa zela eskaera horretaz arduratzea.

7. KAPITULUA

NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN NAFARROAKO ARARTEKOARI EMANDAKO LAGUNTZA



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa

7



Nafarroako administrazio publikoek Nafarroako Arartekoari emandako laguntza

→ 7.1 NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARARTEKOARI LAGUNTZEKO DUTEN BETEBEHARRA

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak 26.1. artikuluan xedatzen duenez, “Foru Komunitateko botere publiko eta erakunde guztiek laguntza eman behar diote Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari, lehentasunez eta presaz, haren ikerketa eta ikusketetan”.

Foru Lege bereko 24.2. artikulua xedatzen duenez, “hasieran eskatutako txostena edo dokumentazioa ez dutela bidaliko edo eskura jarriko esaten badute administrazio publikoen zerbitzuko langileek edo haien gainekoek, edo arduragabekeriaz jarduten badute, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak uste ahal izango du bere eginkizunen kontrakoak edo oztopatzeak direla egintza horiek; hori ezagutarazi egingo du berehalakoan, eta Nafarroako Parlamentuarentzat egindako urteko txostenean edo txosten berezian, halakorik bada, kalifikazio hori nabarmendu egingo du”.

24.3. artikulua hau gehitzen du: “gauza bera gertatuko da Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren jarduna eragotzi edo oztopatzen duen edozein jokabiderekina”.

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Lege beraren 31.1. artikuluan antzeko baldintzak adierazten dira: “Administrazio publikoetako zerbitzuko edozein organismo edo pertsona Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren ikerketei kontra edo oztopo egiteari eusten badiu,

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak txosten berezi bat egin dezake horri buruz, urteko txostenean dagokion atalean hori azpimarratzeaz gain”.

Lege horretako 31.2. artikulua arabera, “horretaz gain, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak bere ebazpenak ez betetzeari eusten diotenak edo bere jarduketa oztopatzen dutenak nor diren esan ahalko du, guztiaren berri eman ondoren erantzule den agintari gorenari”.

Bestalde, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak 34.2. artikuluan xedatzen duenez, “behin gomendioak egin ondoren, ukitutako agintari administratiboak bi hilabeteko epe batean neurri egokirik hartzen ez badu ildo horretan, edo Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari ez badio ematen neurri horiek ez hartzeko arrazoien berri, Arartekoak gai horren aurrekariak eta aurkeztutako gomendioak, oharpenak, gogorarazpenak edo iradokizunak jakinarazi ahal izango dizkio ukitutako administrazioaren agintari gorenari. Hala jokatuta ere justifikazioa lortzen ez badu, gai hori urteko txostenean edo txosten berezian sartuko du, jarrera hori izan duten agintarien edo administrazio publikoen zerbitzuko langileen izenen berariazko aipamenarekin, eta betiere Arartekoaren iritziz konponbide positiboa izan zezaketen eta konponbide hori lortu ez den kasuen artean”.

Nafarroako Arartekoarekin lankidetzan ez aritzeak jarduketak Fiskaltzari helaraztea eragin dezake, Zigor Kodeko 502.2. artikuluan tipifikatutako delitua jazo ote den baloratzeko. Manu horrek ondokoa xedatzen du:

1. Legez eta ohartarazpen baten bidez eskaera egin ostean, Gorte Nagusietako ikerketa batzorde baten edo autonomia erkidegoko batzar legegile baten aurrean agertzeari uzten diotenak, desobedientzia-delituaren erruduntzat joko dira. Erruduna agintari edo funtzionario publikoa bada, enplegua edo kargu publikoa ere etengoa zaio sei hiletik bi urtera bitartean.

2. Zigor berbera izango du Arartekoaren, Kontuen Auzitegiaren edo autonomia erkidegoetako antzeko organoen ikerketa oztopatzen duten agintari edo funtzionarioek, alegia, erakunde horiek eskatzen dituzten txostenak bidaltzea ukatzen dutenek edo behar ez bezala atzeratzen dutenek edo ikerketarako beharrezkoak diren agiri administratiboak edo espedienteak eskuratzeko aukera zailtzen dutenek.

→ 7.2. LAGUNTZEKO BETEBEHARRA BETETZEA. NAFARROAKO ARARTEKOARI LAGUNTZARIK EMAN EZ DIOTEN ADMINISTRAZIOEN AIPAMENA

2016an, Nafarroako administrazio publikoak, oro har, Arartekoarekin lankidetzan aritu dira ikerketak direla-eta.

Dena den, hainbat kasutan, gainbegiratutako administrazio publikoek ez diote Arartekoari lagundu.

Hauetako dira lagundu ez duten administrazioak eta, horren ondorioz, beren legezko betebeharrak modu nabarmenean bete ez dituztenak:

1. Cascanteko Udala

Espedientea: 15/273

Arloa: Ingurumena.

Gaia: Kexa jarri duena ados ez egotea Cascanteko Udalak zenbait zabor-dukiontzia bere aitaren etxebizitzaren atzeko aldean jarri zituelako, eta tokia egoera oso txarrean zegoelako.

Arrazoa: Erakundearekin lankidetzan ez jardutea; izan ere, ez zuen adierazi egindako gomendioa onartu zuen edo ez.

Noiz deklaratu den ez duela lagundu: 2016ko martxoak 3.

2. Castejongo Udala

Espedientea: 15/464

Arloa: Nekazaritza.

Gaia: Ezinezkoa izatea esleitutako herri-bazkak ustiatzea, eta hortik eratorritako kalte ekonomikoak.

Arrazoa: Erakundearekin lankidetzan ez jardutea; izan ere, ez zuen adierazi egindako gomendioa onartu zuen edo ez.

Noiz deklaratu den ez duela lagundu: 2016ko abuztuak 18.

3. Uharteko Udala

Espedientea: 15/507

Arloa: Hezkuntza.

Gaia: Ez ematea eskola-jantokirako diru-laguntzarik kexa jarri zuen pertsonaren semearentzat.

Arrazoa: Erakundearekin lankidetzan ez jardutea; izan ere, ez zuen adierazi egindako gomendioa onartu zuen edo ez.

Noiz deklaratu den ez duela lagundu: 2016ko abuztuak 18.

4. Iruñeko Udala

Espedientea: 15/367

Arloa: Ingurumena.

Gaia: Zuhaitzek Bernardino Tirapu Zeharkalean sortutako eragozpenak.

Arrazoia: Erakundearekiko lankidetzaz eza etengabea izan da, behin baino gehiagotan eskatutako informazioa ez baitu bidali.

Noiz deklaratu den ez duela lagundu: 2016ko abuztuak 18.

5. Iruñeko Udala

Espedientea: 16/94

Arloa: Funtzio publikoa.

Gaia: Ez onartzea edoskitzeko baimena.

Arrazoia: Erakundearekiko lankidetzaz eza etengabea izan da, behin baino gehiagotan eskatutako informazioa ez baitu bidali.

Noiz deklaratu den ez duela lagundu: 2016ko urriak 20.

Erakundearen webgunearen helbide honetan kontsultatu daiteke zein administrazio sartu diren Nafarroako Arartekoaren Entitate Ez-kolaboratzaileen Erregistroan:

<http://www.defensornavarra.com/index.php/es/Entidades-no-colaboradoras/Registro-de-entidades/2016>

Halaber, administrazio publiko hauek ere aipatu egin behar dira, gehiegi atzeratu direlako txostena igortzeko eskatutakoan eta erakunde honek emandako ebazpenaren erantzuna igortzean. Izan ere, administrazio publiko horiekin beharrezkoa izan da eskaera lau aldiz edo gehiagotan egitea (entitate hauek ez dira sartu 2016ko Nafarroako Arartekoaren Entitate Ez-kolaboratzaileen Erregistroan):

- **Iruñeko Udala:** 10 espediente.

2016ko azaroaren 21ean Nafarroako Arartekoak eta Iruñeko Udaleko alkateak izandako bileraren ondorioz, Udaleko arlo batzuetan hobekuntzak egin direla ikusi da erakundeari txostenak aurkeztean eta erantzunak ematean.

- **Tuterako Udala:** 3 espediente.

- **Deikazteluko Udala:** 2 espediente.

- **Eguesibarko Udala:** 2 espediente.

- **Arangurengo Udala:** 1 espediente.

- **Artajonako Udala:** 1 espediente.

- **Cabanillasko Udala:** 1 espediente.

- **Imozko Udala:** 1 espediente.

- **Uxueko Udala:** 1 espediente.

- **Valtierrako Udala:** 1 espediente.

- **Atarrabiako Udala:** 1 espediente.

- **Zuñigako Udala:** 1 espediente.

- **Iruñerriko Mankomunitatea:** 1 espediente.
- **Osasun Departamentua:** 1 espediente.
- **Eskubide Sozialetako Departamentua:** 1 espediente.



8. KAPITULUA

ERAKUNDEAREN ETA HERRITARREN ARTEKO HARREMAN ZUZENA



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa

8



Erakundearen eta herritarren artelo harreman zuzena

→ 8.1 HERRITARRENTZAKO ARRETA BULEGOA. NAFARROAKO ARARTEKOARI EGINIKO KONTSULTAK

8.1.1 Datu orokorrak.

Nafarroako Arartekoaren barruan, “Herritarrentzako Arreta Bulegoa” dago. Arlo funtzional modura sortu zen, herritarrei lehenengo arreta eskaintzeko, eta bereziki, informazioa, orientazioa eta, kasua bada, aholkua emateko, beren eskubideak hobeto eta modu eraginkorrago batean balia ditzaten.

Herritarrentzako Arreta Bulegoak herritarren kontsultak eta bisitak jasotzen ditu. Bertan, herritarrek askotariko arazoak azaltzen dituzte. Bulegoak ematen duen informazioari esker, herritarrak zerk larritzen dituen gehien jakin daiteke.


2016an, Herritarrentzako Arreta Bulegoak 910 kontsulta erregistratu zituen.

Kontsulten % 51,5 bertatik bertara eta zuzenean egin ziren erakundearen egoitzan (469 kontsulta). Hori dela-eta, agerikoa da herritarrek nahiago dutela bertatik bertarako eta zuzeneko arreta jasotzea, eta Nafarroako Arartekoren zerbitzua berehalakoa eta espezializatua dela.

Kontsulten % 39,8 telefonoz egin zen (362 kontsulta).

Kontsulten % 8,7 Internet bidez egin zen (79 kontsulta).

Kontsulta mota



8.1.2 Kontsulta kopurua arloen arabera.

Kontsultetan hainbat arlori buruzko gaiak planteatu ziren. Erakundeak kontsultatu ziren arloak deskribatzeko egin duen zerrendak honako emaitza hau eman du:

ARLOAK	KONSULTAK GUZTIRA	%
Gizarte-ongizatea	135	% 14,84
Hezkuntza	70	% 7,69
Osasuna	63	% 6,92
Hirigintza	59	% 6,48
Ogasuna	46	% 5,05
Gizarte-segurantza	46	% 5,05
Ingurumena	44	% 4,84
Etxebizitza	44	% 4,84

Kontsumoa	38	% 4,18
Justizia	38	% 4,18
Enplegu publikoko lanpostu batean sartzea	36	% 3,96
Funtzio publikoa	32	% 3,52
Herritarren segurtasuna	31	% 3,41
Trafikoa eta bide-segurtasuna	27	% 2,97
Atzerritartasuna	26	% 2,86
Zerbitzu publikoak	24	% 2,64
Lana	21	% 2,31
Toki-erakundeen funtzionamendua	18	% 1,98
Ondare-erantzukizuna	16	% 1,76
Nekazaritza	14	% 1,54
Gardentasuna eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea	12	% 1,32
Herri-lanak	11	% 1,21
Kirola	8	% 0,88
Euskara	6	% 0,66
Datu pertsonalen babesa	5	% 0,55
Kultura	4	% 0,44
Turismoa	4	% 0,44
Industria	1	% 0,11
Gazteria	1	% 0,11
Besteak (Zuzenbide pribatuko gaiak barne)	30	% 3,30

Ikus daitekeen bezala, kontsulta gehienak gizarte-ongizateari buruzkoak izan ziren (% 14,84). Horren ondoren, hezkuntzaren arloa (% 7,69) eta osasunena (% 6,92) datoz.

8.1.3 Kontsulteren banaketa.

Hauek izan dira arlo bakoitzean gehien kontsultatu diren edukiak, kontsulta kopuru gehien jaso duen arlotik gutxien jaso duenera.

1) Gizarte ongizatea.

Gizarte-ongizatearen arloak askotariko gaiak hartzen ditu bere baitan; beraz, arlo horretan egindako 135 kontsultak xehetasun handiagoz azaltzeko, sailkapen bat egin da zerrenda honetan:

Azpigaiak	Kopurua	Gaiak	Kopurua	%
Adingabeak	40	Babesa	37	%27,41
		Adopzioa	1	%0,74
		Bestelakoak	2	%1,48
Desgaitasuna	18	Laguntzak	4	%2,96
		Garraioa	4	%2,96
		Irisgarritasuna	3	%2,22
		Laguntza sozio-sanitarioa osasun mentaleko zentroetan	3	%2,22
		Bestelakoak	4	%2,96
Adinekoak	12	Laguntzak	6	%4,44
		Zentroak eta egoitzak	5	%3,70
		Aisialdia	1	%0,74
Emakumea	3	Genero-indarkeria	3	%2,22
Bestelakoak	62	Pobrezia eta gizarte-bazterketa	38	%28,15
		Familiarentzako eta familia eta lana bateragarri egiteko laguntzak	14	%10,37
		Tutoretza	5	%3,70
		Bestelako laguntzak	4	%2,96
		LGTTBI Taldea	1	%0,74
		GUZTIRA	135	%100,00

Gehien kontsultatutako gaiak pobrezia eta gizarte-bazterketa (gizarte-ongizateko kexen % 28,15) eta adingabeen babesa (% 27,41) izan dira.

Gizarte-bazterketari dagokionez, kontsulta gehienak gizarte-bazterketaren arriskua duten pertsonentzako laguntzei buruzkoak izan ziren (% 28,15), eta bereziki, eduki hauek kontsultatu ziren:

gizarteratzeko errenta ukatzea, esleitutako zenbatekoekin ados ez egotea eta gizarteratzeko errenta enbargatzea.

Adingabeei dagokienez, kontsulta gehienak babesgabetasun-kasuen ingurukoak izan ziren (% 27,41). Hala, nagusi izan ziren bisita-araubideari buruzko gaiak eta adingabeek beren gurasoekin eta familiarekin harremanak izateko oztopoei buruzkoak. Gainera, nabarmentzekoak dira gurasoek nahiz gizarte-zerbitzu eta -erakundeek adingabeei arretarik ez emateari buruzko kontsultak. Bestalde, balizko tratu txarrei eta gehiegikeriei buruz ere egin ziren kontsultak.

Desgaitasunei dagokienez, buruko gaixotasunetara eta desgaitasunetara bideratutako laguntzei buruzko kontsultak egin ziren, eta laguntza horietan eskasia dagoela adierazi zen. Era berean, kontsulta hauek ere egin ziren: erreserbatutako aparkalekuetan aparkatzeko txartela ukatzea, aparkaleku horietan ibilgailuak ez txandakatzea, eta osasun mentaleko zentroetan nahikoa laguntza soziosanitario ez ematea. Gainera, kontsulta batzuetan, Nafarroako Gobernuak aitortutako desgaitasun-mailarekin desadostasuna adierazi zen.

Adineko jendeari dagokionez, kontsulta gehienak hirugarren adinekoei ematen zaizkien laguntzei buruzkoak izan ziren (gizarte-ongizateko guztizko kexen % 4,44), bai eta zentroetan eta egoitzetan sartzeari eta bertako baldintzei buruzkoak ere (% 3,70).

Emakumearen arloan, genero-indarkeria pairatu duten emakumeak babesteko neurriei buruzko hiru kontsulta jaso ziren. Haietako batean, emakumeak poliziaren babesa eskatu zuen, familia elkartuko zen lekuan seme-alaben aitak jarrera bortitza izan zezakeelako. Bestean, informazioa eskatu zen emakumeari, haren seme-alabei eta une horretako bikoteari modu eraginkorrean babesa emango liekeen babes- eta jazarpen-neurriak ez hartzeagatik.

Nabarmentzekoa da familiarentzako eta familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruz egin ziren kontsulten ehuneko ere (% 10,37). Beste gai batzuen artean, informazioa eskatu zen bi seme-alabako familia gurasobakarrak familia ugari gisa ez hartzeari buruz, eta zainketa zuzena, jarraitua eta etengabea behar duten senideak zaintzeko eszedentzia hartzeagatik aldizkako ordainketako diru-laguntzak ez emateari buruz ere bai, mendekotasunera bideratutako laguntzeekin bateraezinak direla kontsideratzen delako.

2) Hezkuntza.

Hezkuntzari eta irakaskuntzari dagokienez, kontsulta gehienak honako hauei buruzkoak izan ziren:

- Hezkuntza-administrazioak eskoletara eta haur-eskoletara sartzeko ezarritako irizpideak (hezkuntzari buruz egindako kontsulten % 27,14).
- Bekak eta laguntzak lortzea eta ukatzea, edo haiek itzultzeko eskatzea (% 14,29).
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat funtzionamendu, arreta edo irakaskuntza egokiak ez egotea (% 12,86).
- Eskolako bizikidetasunean sortutako arazoak; esate baterako, ikasleen arteko eskola-jazarpena, irakasleek ikasleak jazartzea eta ikastetxeek gertaera horien aurrean ezer ez egitea (% 12,86).
- Ikastetxeetan jangelako zerbitzua eskaintzen duten enpresa azpikontrataturak.
- Azterketen errekupeazio-datekin ados ez egotea.

- Unibertsitateko tituluak homologatzea.

3) Osasuna.

Kontsulta gehienek honako hauek izan zituzten hizpide:

- Laguntza medikoa, oro har (% 52,38).
- Atzerapenak osasun-arretan eta itxaron-zerrendak.
- Osasun publikoa.
- Beste gai batzuk, hala nola Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak duen funtzionamendua ekintza osagarrietan: komunikazioak, erraztutako informazioa, osasun-garraioa...

4) Hirigintza.

Herritarrek informazio hau eskatu zuten:

- Eraikuntzan egindako esku-hartzeak eta zoruari eta eraikinei emandako erabilerak: lizentziak, baimen administratiboak eta abar (guztira hirigintzaren arloan egindako kontsulten % 28,81).
- Plangintza betetzea (% 28,81).
- Plangintzaren konfigurazioa.
- Katastroko zuzenketak.
- Lurzoruaren hirigintza-araubidea, bereziki, lurren eta eraikinen jabeek duten betebeharra beren ondasunetan segurtasun-, osasungarritasun- eta bizigarritasun-baldintzak eta egokitasun publikoko baldintzak betetzeko.

5) Ogasuna.

Arlo honetan, kontsulta gehienak Nafarroako Gobernuaren tributuei eta tokiko tributuei buruzkoak izan ziren. Bien artean gai honetako kontsulten % 43,48 osatzen dute.

Beste kontsulta batzuetan, desadostasuna erakusten zen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren deklarazioa egiteko prozedurarekiko eta oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren likidazioarekiko (% 30,43).

Halaber, honako hauei buruzko kontsultak ere egin dira:

- Egindako zorrak, eta ez uztea zor horiek zatikatzen edo atzeratzen.
- Zerga-bilketaz arduratzen diren organo batzuek egindako enbargo-prozedurak.

6) Gizarte-segurantza.

Arlo honetan, kontsulta gehienek alderdi hauek aipatu zituzten:

- Prestazioa jasotzeko eskubidea ez aitortzea, ukatzea edo kentzea (arlo honetako kontsulten % 50,00).
- Ados ez egotea desgaitasuna baloratzeko prozesuetan emandako deklarazioarekin, kalifikazioarekin edo mailarekin (% 28,26).
- Gizarte Segurantzak eskatzea jasotako prestazioak itzultzeko.

7) Ingurumena.

Arlo honetan, egindako kontsulthen erdia baino gehiago kutsadura akustikoari buruzkoak izan ziren, bereziki, hainbat jarduera gogaikarriren ondorioz herritarrek beren etxebizitzetan pairatzen dituzten zaratek sortutakoa (kontsulthen % 56,82).

Halaber, honako hauei buruzko kontsultak egin ziren:

- Jarduera sailkatuak.
- Ehizatzeagatik ezarritako zigorrak.
- Etxebizitzen beheko solairuetan hil-beilak jartzea.

8) Etxebizitza.

Kontsulta gehienak hauetaz aritu ziren:

- Babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko prozesuak (% 29,55).
- Babes-araubideren batean alokatutako etxebizitzen bizigarritasun-baldintzak (% 18,18).
- Babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko laguntzak (% 15,91).
- Etxebizitza eskuratzeko zailtasunak (% 13,64).
- Babes ofizialeko etxebizitzetan dauden eraikuntza-akatsak.
- Arazoak elkarbizitzan.

9) Kontsumoa.

Arlo honetan planteatutako kontsultetan, kontsumitzaileek funtsean, telefono-, elektrizitate- eta gas-konpainiekin izandako arazoak planteatu zituzten, bai eta hipotekak ordaintzeko zailtasunak ere.

Gainera, 9 kontsulta egin ziren banku- eta aseguru-entitateen baldintzei eta arbitrajeari buruz.

10) Justizia.

Kontsultatu ziren gai nagusiak honako hauek izan ziren:

- Ados ez egotea abokatuen eta prokuradoreen jarduketarekin (justiziaren arloko kontsulten % 36,84).
- Ados ez egotea erregistroen jarduketarekin, bereziki, ez uzteagatik haietan izena ematen.
- Doako laguntza juridikoan oztupoak jartzea eta uko egitea.
- Ados ez egotea ofiziozko abokatuen eta prokuradoreen minutarekin.
- Prozesu judizialak luzatzea.
- Epaiak ez betetzea.
- Ados ez egotea prozesuen kostuen ordainketarekin eta zenbatekoarekin.

11) Enplegu publikoko lanpostu batean sartzea.

Funtsean, honako gai hauei buruzkoak izan ziren kontsultak:

- Ados ez egotea lanpostuak eskuratzeko eskatutako baldintzekin. Kasu batzuetan, gehiegizkoak zirela uste izan da, adibidez, Bigarren Hezkuntzan Gorputz Hezkuntzako irakasle izateko eskatutako tituluak. Beste kasu batzuetan, berriz, adierazi zen behar baino prestakuntza-maila baxuagoa eskatzen zela, adibidez, mikrobiologoaren lanpostu baterako, esan da ez zela balioesten mikrobiologian espezializatuta egotea edo lan-esperientzia izatea, eta, aldiz, euskararen ezagutza-maila soilik hartzen zela kontuan.
- Enplegu publikoko lanpostuak betetzeko deialdiak.
- Desgaitasuna duten pertsonen aukera berberak izatea enplegu publikoko lanpostu batean sartzeko.

12) Funtzio publikoa.

Gai hauek kontsultatu ziren:

- Ez aitortzea administrazio publikoaren zerbitzuko langileen eskubideak: baimenak, lana eta familia bateragarri egitea... (% 43,75).
- Mugikortasuna eta administrazio-ibilbidea. Lekualdatze-lehiaketak (% 25,00).
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako langileen ordainsarien araubideari buruzko kontsultak, adibidez, administrazio-kontratudun langileei graduarengatik ordainsariak aitortzea (% 15,63).

13) Herritarren segurtasuna.

Konsulten erdia baino gehiago poliziaren jarduketa batzuen legezketasunari edo legezketasun-ezari buruzkoak izan ziren (% 61,29).

Halaber, honako hauei buruzko kontsultak ere egin ziren:

- Espetxe-administrazioa eta espetxe-legeriaren menpe dauden pertsonen eskubideen araubidea (% 12,90).
- NANA eta pasaportearen egitea.
- Ordena publikoari lotutako egintzak.

14) Trafikoa eta bide-segurtasuna.

Kontsulta gehien-gehienak honakoei buruz egin ziren:

- Trafikoaren arloko zehapen-prozedurak: zehapenak, isunak, enbargoak... (% 51,85).
- Ados ez egotea aparkaldia ordaintzeko balio duen "Telpark" izeneko mugikorreko aplikazioak akatsa egitearen ondorioz jasotako zigorrarekin.
- Ados ez egotea trafikoko zigorra eragin zuten egitateekin.
- Ados ez egotea garabiak eraman zituelako zuzen aparkatuta bai baina tiketik gabe zeuden ibilgailuak.

15) Atzeritartasuna.

Arlo honetan, egindako kontsulta gehienak nazionalitatea eta bizileku- eta lan-baimenak lortzeko jarraitu beharreko izapideei

buruzkoak izan ziren, bai eta irekitako eskaera-espeditenteen ebazpenak luzatzeari buruzkoak ere.

16) Zerbitzu publikoak.

Kontsulta gehienak derrigorrezko gutxienerako zerbitzuak eta interes orokorreko beste zerbitzu batzuk eskasak izateagatik egin ziren, hala nola kaleak egoera onean mantentzea, hilerrien funtzionamendua, eta Correosen bidalketekin lotutako gertaerak (% 91,67).

17) Lana.

Kontsulta gehienek honako gai hauek aipatu zituzten nagusiki:

- Langabeziarengatik ematen diren prestazioak etetea, haiek itzultzeko eskatzea edo haiek direla-eta zehapena ezartzea.
- Enplegurako laguntzak.
- Erakunde pribatu eta enpresa publikoetako plantillen arteko subrogazioaren ondorioz sortzen diren baldintzak.
- Laneko segurtasuna eta higiene-baldintzak mantentzea.

18) Toki-erakundeen funtzionamendua.

Atal honetan prozedura-kontuei eta toki-erakundeen araubide juridikoari buruzko kontsultak jaso dira.

Kontsulta gehienak gai hauetaz izan ziren:

- Udal-errolda eskatzea, ukatzea eta hari baja ematea.
- Partikularrek udaleko osoko bilkurak grabatzea.

- Osoko bilkurei dagokienez, araututako maiztasuna ustez urratzea.
- Funtzionarioen eta autoritateen jarduketa jakin batzuei buruzko kontsultak.

19) Ondare-erantzukizuna.

Ondare-erantzukizunari buruz egindako kontsulta gehienak (% 75) zerbitzu publikoen funtzionamenduari buruzkoak izan ziren; esate baterako, bide publikoko zoladura egoera txarrean egoteagatik erortzea, edota eskualdeko garraio publikoaren zerbitzuetan istripuak izatea.

Bestalde, kontsulten % 25 osasun-arloko ondare-erantzukizunari lotutako keak izan ziren.

20) Nekazaritza.

Hauen inguruko kontsultak egin ziren:

- Lursailak biltzeari buruzko kontsultak; horien artean nabarmenenak izan dira Nafarroako Ubidea egitearekin lotutako kasuak (kontsulten % 14,29).
- Nekazaritza- eta baso-ustiapenei buruzko kontsultak, batez ere, ustiapen horiei lotutako laguntzei buruzkoak.

21) Gardentasuna eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.

Epigrafe honetan biltzen dira herritarrek Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legeari dagozkion kontsulta guztiak. Hau da, kontsulta horiek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bere jarduketetan izan behar duen gardentasunari buruzkoak dira, bai eta herritarrek administrazio

horren esku dagoen informazioa eskuratzeko eskubideei buruzkoak eta interes publikoari zuzenean edo zeharka eragiten dioten gaietan erabakiak hartzeko eskubideei buruzkoak ere.

Hauek dira arlo horretan egin diren kontsulthen adibide batzuk:

- Nafarroako udal batek ez argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean elkarteei diru-laguntzak emateko deialdia.
- Udal-ordenantzen zirriborroak eskuratu ahal izatea.
- Dokumentazioa eskuratzeko aukera murriztea, eskaerak telematika bidez soilik aurkez zitezkeelako.
- Informazio publikoari buruzko eskaera bati ez erantzutea.

22) Herri Lanak.

Kontsulta gehienak azpiegiturak egiteko, kontserbatzeko eta mantentzeko eskumena zuen Administrazioaren betebeharrei buruzkoak izan ziren (% 72,73); batez ere, bideak garbitzeari eta estoldak konpontzeari buruzkoak.

Horiez gain, beste kontsulta batzuk ere egin ziren azpiegiturak egiteari dagokionean, esate baterako, A12 autobian egiten diren mantentze-lanen maiztasunari buruz, trafikoa etengabe oztopatzen dutelako.

23) Kirola.

Honako alderdi hauei buruzkoak izan ziren kontsultak:

- Adingabeei baja ezin ematea kirol-klubetan, zehazki, futbolekoetan.

- Kirol-instalazioen egokitasuna.
- Ados ez egotea arbitro-kategorian sartzeko eta mantentzeko baldintzekin.

24) Euskara.

Honako gai hauei buruzkoak izan ziren kontsultak:

- Nafarroako Administrazio Publikoan zerbitzua euskaraz ematen duen nahikoa langile ez egotea.
- Dokumentu eta informazio-liburuxka publikoak elebidunak ez egitea, nahiz eta araudiak hori ezartzen duen.
- Errotulazioetan akats ortografikoak egotea.

25) Datu pertsonalen babesa.

Epigrafe honetan jasotako kontsulta guztiak herritarrek egindakoak dira administrazio publikoen jarduketaren arloan datu pertsonalak babesteko eskubideari buruz.

Hauek dira egindako kontsulta batzuk:

- Datu pertsonalak erabiltzea hauteskunde orokorretako hauteskunde-propagandan.
- Amaren datu pertsonalak prentsan erabiltzea, haren heriotza eragin duen trafiko-istripuaren albistea argitaratzean.
- Etxean udalak bidalitako enbargo-jakinazpenak jasotzea, hartzailea nor den jakin gabe.
- Adinez nagusia den semearen historia klinikoa eskuratzea.

26) Kultura.

Kontsultak aztarnategi baten kalifikaziorako prozedura bati buruzkoak eta elkarte bati lokala ez esleitzeari buruzkoak izan ziren.

27) Turismoa.

Egindako kontsultak ostatu bat irekitzeko lizentziaren izapideak egiteari buruz eta turismo-kudeaketako kontratu bat esleitzeari buruz izan ziren.

28) Industria.

Egindako kontsultan desadostasuna adierazi zen lanean egindako eta takografo digitalak frogatutako orduak sistematikoki ez aitortzeagatik.

29) Gazteria.

Adingabeok sare sozialak gaizki erabiltzeari buruzko kontsulta bat egin zen.

30) Kontsulta juridiko-pribatuak.

Kontsulta asko (30) izaera juridiko-pribatukoak izan ziren. Honako hauei buruzko kontsultak nagusitu ziren:

- Jabekideen erkidegoetan arazoak izatea.
- Elkarren ondoko bizilagunen artean arazoak izatea.
- Adingabeen gurasoek eta aiton-amonek bisita-eskubidea izatea.
- Adingabeek elikagaiak eskuratzeko eskubidea izatea.

- Adingabeen harreman juridiko-pribatuei buruzko gaiak.
- Zorrek hartzea eta zorren ondorioz berankorren erregistroan erregistratzea.

→ 8.2. GIZARTE ZIBILAREKIKO HARREMANA

2016an, Nafarroako Arartekoak, zuzenean nahiz bere aholkularien bitartez, harremanak izan zituen interes sozial eta profesionalak ordezkatzeko dituzten zenbait erakunderekin, bai eta pertsonen zenbait talderekin ere, dela zuzenean, dela haien kexen edo idatzien bitartez.

Erakunde edo talde horien artean, honako hauek nabarmendu daitezke:

- Doña Mayor de Navarra ikastetxe publikoko gurasoen elkarte.
- Ermitagaña ikastetxe publikoko gurasoen elkarte.
- Plaza de la Cruz institutuko gurasoen elkarte.
- Nafarroako Udaltzaingo Laguntzaileen Elkarte (AUXPOLNA).
- Noaingo Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzuen Elkarte.
- Kontsumitzaile eta Erabiltzaile Ekintzaileen Elkarte - FACUA.
- Etxerat Euskal Preso eta Iheslari Politikoen Senide eta Lagunen Elkarte.
- Guraso Bakarreko Familien Elkarte.
- Nafarroako Fibromialgia Elkarte (AFINA).
- Nafarroako Administrazio Publikoetako Funtzionario Publikoen Elkarte (AFAPNA).
- Aizarozko Bizilagunen Elkarte.
- Nafarroako Merkataritza Txikien Elkarte.
- Espainiako Emaginen Elkarte.
- Nafarroako Gaixotasun Arraroen Taldea (GERNA).
- Kalaxka Elkarte.
- Kattalingorri Elkarte.
- La Ran LaChi Calo Elkarte.
- Getzeko Hiltegiari Ez Elkarte.
- Urriaren Bata Elkarte.

- Nafarroa Retina Elkartea.
- Ega Bizirik Elkartea.
- Zentral Sindikal Independentea eta Funtzionarioena (CSIF).
- Nafarroako Unibertsitateko Ikasleen Taldea.
- Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoan plaza lortzeko aurkeztu direnen taldea.
- LGTBI Taldea.
- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Langileen Taldea.
- Hezkuntza Departamentuko Bitarteko Langileen Taldea.
- Desgaitasuna duten Pertsonen Ordezkariei Nafarroako Batzordea (CERMIN).
- Altsasuko Bizilagunen Elkartea.
- Etxarri-Aranazko Bizilagunen Elkartea.
- Erriberriko Karlos III.a Plazako Bizilagunen Elkartea.
- Tuterako Rafael Delgado Garcés 10. zenbakiko Bizilagunen Elkartea.
- Erriberriko R3 Egikaritze Unitateko Jabekideen Elkartea.
- Ekologistak Martxan Lizarreria.
- Ecotaxi Iruña.
- Nafarroako UGTko Zerbitzu Publikoetako Langileen Federazioa (FESP).
- BEHATOKIA Fundazioa - Hizkuntza-eskubideen behatokia.
- Tuterako Acción en Red Inklusio Taldea.
- Murchantinos por Murchante Udal Taldea.
- GURELUR - Natura Ingurunea Babesteko Nafarroako Funtza.
- Harrera.
- Haur Abusuen Kontrako Motorzaleak (MOCAI Nafarroa).
- Nafarroa Oinez.
- Osasun Publikoaren Aldeko Erriberako Plataforma.
- Sí San Pedro Bai Plataforma.
- SOS Alkerdi Plataforma.
- Nafarroako Irakaskuntza Pribatuaren Sindikatua (SEPNA-FSIE).
- Nafarroako Foruzaingoaren Sindikatua.
- Nafarroako Administrazio Publikoetako Langile Administrazioen Sindikatua (SPA).
- ELA Sindikatua.
- LAB Sindikatua.
- Langileen Batasun Orokorra (UGT) Sindikatua.
- Langileen Batasun Orokorra (UGT) Sindikatua.
- UNICEF Nafarroa- Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtza.
- Nafarroako Nekazarien eta Abeltzainen Batasuna (UAGN).



9. KAPITULUA

ERANSKINA:

ERAKUNDEAREN 2016ko
AURREKONTUAREN
LIKIDAZIOA



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Auzitekoa

9



ERANSKINA:

Erakundearen 2016ko aurrekontuaren likidazioa

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailearen 3ko 4/2000 Foru Legearen 37.3. Artikuluak zera ezarri du, bere kudeaketaren berri emateko Nafarroako Parlamentuan aurkezten den urteko txostenaren edukia definitzerakoan: *Txostenak eranskin bat ere izango du. Eranskinaren hartzailera Nafarroako Parlamentua izango da. Eranskin horretan, erakundearen dagokion aldiko aurrekontuaren likidazioa agertuko da.*

Nafarroako Arartekoaren 2016ko ekitaldiko aurrekontuen likidazioa dela-eta, honako hau adierazi beharra dago:

- Hasierako kredituak 755.710,80 euro dira. Guztizko kopuru hori bat dator behin betiko aurrekontuarekin edo aurrekontu bateratuarekin; izan ere, 2016ko ekitaldian ez zen gehitu 2015eko ekitaldiko kreditu-soberakinik.
- Onartutako obligazio garbiak 667.399,96 euro izan dira. **Horrek esan nahi du finkatutako aurrekontuari dagokionez % 88,31ko egikaritze-maila lortu dela.**
- 2016an onartutako eskubide garbiak 756.515,10 euro izan ziren. Horrek esan nahi du % **100,11ko betetze-maila lortu dela.**
- Aurreko magnitudeetatik abiatuta, ekitaldiko aurrekontu-emaizta lortu da: 89.115,14 euroko superabita eman du.

2016ko ekitaldian onartutako obligazio garbiak, eragiketa arruntan arabera (I. kapitulutik V. kapitulura) eta kapitaleko eragiketen arabera (VI. kapitulutik IX. Kapitulura) sailkatu dira:

Eragiketa-mota	Behin betiko	Onartutako	Egikaritzaren %
	kredituak	obligazioak	
Eragiketa arruntak	739.410,80	659.991,83	%89,26
Kapital-eragiketak	16.300,00	7.408,13	%45,45
GUZTIRA	755.710,80	667.399,96	%88,31

Eragiketa arruntetan aurrekontuaren % 89,26 bete zen; kapital-eragiketetan, berriz, % 45,45.

Jarraian, gastuen aurrekontuaren likidazio-egoera eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazio-egoera adierazi dira, kapituluka zehaztuta.

A) Gastuen egoera

2016ko ekitaldiko gastuen kapitulu ekonomiko bakoitzean, datu hauek adierazi dira: aurrekontuen aurreikuspenak, onartutako obligazio garbiak eta egikaritze-ehunekoak:

KAPITULUAK	AURREIKUSPENAK	ONARTUTAKO	
		OBLIGAZIO GARBIAK	EGIKARITZAREN (%)
1 Langileen gastuak	514.110,80	479.443,71	%93,26
2 Ondasun arruntak eta zerbitzuak	191.200,00	148.407,31	%77,62
4 Transferentzia arruntak	34.100,00	32.140,81	%94,25
6 Inbertsio errealak	13.128,10	4.336,23	%33,03
8 Finantza-aktiboak	3.071,90	3.071,90	%100,00
9 Finantza-pasiboak	100,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	755.710,80	667.399,96	%88,31

B) Diru-sarreraren egoera

Diru-sarreraren aurrekontuaren likidazio-egoerak agerian jarri du diru-sarrera horiek, funtsean, Foru Ogasunetik jasotako transferentzien ondorio direla; izan ere, ekitaldiko diru-sarrera guztien % 99,84 dira.

KAPITULUAK	AURREIKUSPENAK	ONARTUTAKO	
		OBLIGAZIO GARBIAK	EGIKARITZAREN (%)
3 Tasak eta bestelako sarrerak	100,00	141,60	%141,60
4 Transferentzia arruntak	739.100,00	739.100,00	%100,00
5 Ondareengatiko sarrerak	210,80	177,50	%84,20
7 Kapital-transferentziak	16.200,00	16.200,00	%100,00
8 Finantza-aktiboak	0,00	896,00	%100,00
9 Finantza-pasiboak	100,00	0,00	%0,00
GUZTIRA	755.710,80	756.515,10	%100,11





**Defensor del Pueblo
de Navarra**
Nafarroako Arartekoa



Defensor del Pueblo
de Navarra
Hafirioako Auzartekoa